

[illegible]

ELEBAKARTASUN GARAIAK

EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA BERGARAN

1600-1876

Juan Madariaga Orbea

Itzulpena:

Anaje Narbaiza Aldai • Estepan Plazaola Otadui



ELEBAKARTASUN GARAIAK

EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA BERGARAN

1600-1876

Egilea:

Juan Madariaga Orbea

Itzulpena:

Anaje Narbaiza Aldai · Estepan Plazaola Otadui

Jabetza:

Bergarako Udala

Lehenengo edizioa:

Bergara, 2025

Maketazioa:

Javier A. Vidaurre

Inprimatzea:

Rodona Industria Gráfica. Iruñea

LG: D 01283-2025

ISBN: 978-84-938106-8-9

Esker onak

2019an, Anaje Narbaizak Bergarako Udalarari proposatu zion euskarak mendez mende izan duen historia soziala aztertzea. Udalak gogo biziz hartu zuen ideia eta lantalde baten sorrera bultzatu zuen, *Euskararen historia soziala Bergaran* izeneko proiektuari bizia eman ziezaion. Talde horretako kide dira Anaje Narbaiza bera, Ekaitz Aranberri, Juan Martin Elexpuru, Jerardo Elortza, Idoia Etxeberria, Jaione Isaze-laia, Andoni Larrañaga, Arantzazu Oregi, Eneko Oregi, Estepan Plazaola eta baita Eider Usobiaga ere.

Egitasmoaren lehenengo fasean gerra ostetik trantsiziora bitarteko epea (1940-1980) aztertzea erabaki zen eta, horretarako Udalak Badihardugu elkartearekin lankidetzat hitzarmena egin zuen. Hitzarmen hori baliatuaz, besteak beste, frankismo garaian eta trantsizioan euskara eta kultura mugimenduan parte hartze zuzena izan zuten bergarar mordoxka elkarrizketatu ziren. Gaur egun elkarrizketa horiek ikusgai daude ahotsak.eus webgunean. Aldi berean, hainbat herritarrek utzitako materialak ere jaso ziren: argitalpenak, ikusentzunezkoak, ikasmaterialak, hizkuntza ikasteko metodoak eta abar.

Jasotako informazio eta material hori ezagutzera emateko, hainbat baliabide sortu ziren 2022an eta 2023an, “Izotz ondoko Eguzki, Euskararen Historia Soziala Bergaran (1940-1980)” izenburupean: hitzaldia, erakusketa, lekukoen grabaketak oinarri hartuta osatutako bideoa, liburu bat...¹

Geroago ikusi zen komenigarria zela denboran atzera egitea eta aurreko mendeetako ikerketarekin jarraitzea. Proiektu hau gidatzen duten lantaldeko kideek pentsatu zuten XVII., XVIII. eta XIX. mendeetaz arduratu nintekeela. Biziki eskertzen diet konfiantza hori. Liburu hau, beraz, aipatutako proiektuaren esparruan txertatzen da.

Gainera, eskerrak eman nahi dizkiet dokumentazioa zaintzeaz arduratzen diren erakunde, artxibo eta liburutegi guztietako langileei, eskatutako funtsak aurkitzeko eta zerbitzatzeko orduan azaltzen duten profesionaltasunagatik eta adeitasunagatik. Kontsultatutako dokumentazio gehiena Bergarako Udal Artxiboan dagoenez, Arantzazu Oregi eta Arantzazu Unanue langileekin dudaz zorra askoz handiagoa da. Nolanahi ere, badira bi artxibozain, beren karguagatik dagokien zerbitzari-lana gaindituaz, hainbat iradokizun, iruzkin eta ekarpen egin dizkidatenak, eta testua hobetzen nabarmen lagundu dutenak: Ramon Martin Sukia, Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikokoa; eta lehen aipatutako Arantzazu Oregi, Bergarako Udal Artxibokoa. Azken horrek egin du, gainera, niretzat garrantzi berezia duen ekarpen bat ere, ikerketa hobetzeko egin dituen bestelako ekarpen ugarietz gain: testuaren osagarri diren ilustrazioak.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiet Bergarako Udal Artxiboari, Euskal Museoari, Zumalakarregi Museoari eta Sancho el Sabio Fundazioari ilustrazioak uzterakoan emandako laguntzagatik.

Gidor Bilbao Telletxeari ere eskertu beharrean nago Felipe Ziorraga eta Sebastian Urtzelai idazle bergarrei buruzko datuak eman izana. Baita Pruden Gartzia ere Juan Bautista Amilletari buruzko materialengatik. Eta baita, Ángel García-Sanz Marcotegui ere Xavier Minak euskaraz idatzitako gutunaren arrastoa jakinaraztegitik.

Eskerrak eman behar dizkiet, gainera, *Euskararen historia soziala Bergaran* proiektuko lantaldeko kideei (Arantzazu Oregiri, Estepan Plazaolari, Juan Martin Elexpururi eta Jerardo Elortzari), testua irakurri eta zuzendu dutelako, eta akatsak aurkituz, hobekuntzak proposatuz eta datuak egiaztatuz, lana osatuago eta eskuragarriago bihurtu dutelako. Gauza bera esan behar dut Iago Irixoaz. Estepan Plazaolak gainera, Anaje Narbaizarekin batera, testua euskaratzeko lana hartu du bere gain, lan neketsua, kontuan izanik gai korapilatsua dela, teknizismoz eta arkaismoz betea. Azkenik, eskertu behar dut Juan Martin Elexpuruk itzulpena berrikusi izana.

Aparteko aipamena merezi du Anaje Narbaiza Aldaik testu hau osatzeko egindako ekarpenak. Lehenik eta behin, esan bezala, euskaratzeko lanaren ardura hartu duelako. Gainera, iturburuen tratamendu estatistikoaz arduratu da bere analisi kuantitatiboan. Azkenik, testuaren irakurketa kritikoa egin du, akatsak, gabeziak eta ahultasunak agerian utziz eta hobekuntzak edo aukera berriak proposatuz. Liburu honen zati esanguratsu bat berea da.

Guzti guztioi esker mila

Izen-abizenen eta toponimoen idazkerari buruzko oharra

Zalantza izan dugu antroponimiako elementuak idazterakoan erabili beharreko irizpideen inguruan eta azkenean honela jokatzera erabaki dugu: alde batetik, lanean aipatzen diren pertsonaia historikoen izen-abizenak BERRIAK ezarritako irizpidearen arabera idaztea erabaki dugu, hau da ponte-izenak dokumentazioan idatzita dauden bezala mantendu ditugu. Abizenei dagokionez, berriz, euskal abizenak euskal grafiaz idatzi dira eta kanpokoetan dokumentuetan agertzen den grafia errespetatu da. Abizenetan agertzen diren *de*, *y*, *d'* eta *azentu grafikoak* ezabatu egin dira. Hemen adibide batzuk; Ysavela Inurrigarro, Joaquin Irizar Moia, Joan Babazkoitia, Thomas Jauregi, Andres Lopez Ozaeta, eta abar. Nolanahi ere, ez da arraroa pertsona beraren ponte-izena edo abizena dokumentu desberdinetan (eta baita dokumentu berean ere), modu desberdinetan agertzea: Jose eta Joseph, Achotegui eta Anchotegui, Urreategui eta Urriategui, Echevarria eta Echeverria, eta abar. Horrelakoetan dokumentuen sinaduretan zetorrena erabiltzea aukeratu dugu, egokiena zirudielako eta modu ofizialean erabiltzen zelako. Azkenik gaur egungo egileak aipatzen ditugunean beraiek erabiltzen duten grafia erabili dugu azentu eta guzti; Jesús Arpal; Rosa Ayerbe...

Toponimiari dagokionez, Euskaltzaindiak gomendatutako egungo bertsio normalizatua erabiltzea erabaki da: Donostia, Lizarra, Gasteiz, Hazparne, Azkoien, Bilbo, Ordizia, Bizkaia, Zeanuri, eta abar. Hala ere, batzuetan toponimoak dokumentazioan agertzen diren bezala transkribatzea erabaki da, batez ere Bergarako auzo, kale edo baserrien izenetan.

Aurkibidea

Hitzaurrea.....	11
I. Bergaran mintzatzen ziren hizkuntzak eta hizkerak	13
II. Bergarako urbanizazio-maila eta hizkuntzarekin zuen harremana	17
II.1. Bergarako biztanleriaren bilakaera, XVII-XIX mendeak	18
II.2. Bergararen merkatori- eta artisau-izaera	26
II.3. Bergarako biztanleriaren osaera sozio-profesionala.....	36
II.4. Kanpotarren presentzia	46
III. Euskal elebakartasuna	51
III.1. Euskal elebakarrak Bergaran	52
III.2. Euskal elebakarren arreta medikoa	69
III.3. Euskal elebakarren zailtasunak ingurune erdaldunetan	79
III.4. Analfabetismoa eta euskal elebakartasuna Bergaran	79
III.4.1. Klase herrikoien alfabetatzea	105
III.4.2. Eskolatzeko prozesua	108
III.5. Jesusen Lagundiaren, Errege Mintegiaren eta Mariaren Lagundiaren eragina Bergarako hizkuntza-eremuan ...	119
III.6. Euskal elebakarrei dokumentazio ofiziala “aditzera emateko” (itzultzeko) beharra.....	129
III.6.1. Euskal elebakarrek, eurek, dokumentazioa euskarara itzul	
ziezaieten egindako eskariei buruz	129
III.6.2. Publikatzen afera	130
III.6.3. Pregoilaria	146
III.6.4. Eskribauen eta notarioen hizkuntza-bitartekaritza	150
III.6.5. Funtzionarioen kasu berezi bat, segurtasun-indarrena.....	156
IV. Euskararen idatzizko erabilera.....	159
IV.1. Euskarazko terminoak gaztelaniaz idatzitako dokumentazioan	159
IV.2. Euskararen erabilera herri-poesian	165
IV.3. Euskararen erabilera gutunerian	166
IV.4. Zer irakurtzen zen euskaraz?	175
IV.5. Euskal idazle bergararrak eta antzuolarrak	184
IV.6. Inprimategia Bergaran.....	211
V. Euskararekiko jokabideak.....	215
V.1. Hizkuntzaren politizazioa “garai modernoetan”	215
V.2. Bergarako intelektualen jarrera euskararen aurrean	228
V.3. Euskararen biziraupena ulertzeko gakoak.....	237

VI. Ondorioak245

VII. Eranskinak259

VII.1. Eranskina. Santiago Urzelai Laskurain. Kontserbatutako eskuizkribuak..... 259

VII.2. Eranskina. Santiago Urcelai, *Sobre la educación de los hijos* [Semealaben hezkuntzari buruz] 265

VII.3. Eranskina. Joaquin Irizar Moia, *De l'eusquere et de ses erdères, ou de la langue basque et de ses dérivées* (1841-1846) 271

VIII. Iturburuak eta bibliografia.....273

VIII.1. Erabilitako artxiboak.....273

VIII.2. Argitaratutako iturburuak275

VIII.3. Bibliografia283

IX. Oin-oharrak.....291

Hitzaurrea



Gorka Artola Alberdi
Bergarako alkatea

Liburu honek gure herriaren oroimen kolektiboaren atal garrantzitsu bati egiten dio erreferentzia: Bergarako euskararen iraganari; zehazki, XVII. mendearen erditik 1876. urtera bitarteko aldiari. Maiz uste izan da hiri-inguruneetan euskarak presentzia ahula izan zuela; liburu honek, ordea, bestelako errealitatea erakusten du. Euskara izan zen gure herriko eguneroko hizkuntza, harremanen eta bizimoduaren ardatz nagusia.

Iraganeko bergarar askorentzat, euskara ez zen hautu bat, bizitzeko eta elkarrekin komunikatzeko hizkuntza bakarra zen. Horregatik da garrantzitsua askotan ezezaguna zaigun iragan hau ezagutzea. Euskara mendez mende gure komunitateak zaindu eta iraunarazitako ondarea da, eta gaur egun egiten dugun hizkuntza-lan oro –eskolan, administrazioan, kalean edo etxean– oinarri sendo batetik dator: gure arbasoek eraiki zuten oinarritik.

Halako ikerketek aukera paregabea eskaintzen digute gure hizkuntzaren sustraiak sakonago ezagutzeko eta haren balioa aitortzeko. Izan ere, iragana ezagutzeak ez gaitu atzera begira uzten: etorkizunari segurtasun handiagoz eta konfiantzaz begiratzeko indarra ematen digu.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiet lan hau posible egin duten guztiei, bai eta euskararen alde eguneroko, modu isilean bada ere, lanean diharduten herritarrei. Guztion ekarpenari esker, gure hizkuntzaren eta kulturaren historia ez da galduko, eta etorkizuna ere euskaraz irudikatzen jarraituko dugu.

CARTE DES
SEPT PROVINCES BASQUES.

montrant
LA DÉLIMITATION ACTUELLE DE L'EUSCARA

et sa division
en dialectes, sous-dialectes et variétés.

Par le prince Louis Lucien Bonaparte.

*Dressé, Esquisse, & Peint
et Gravé par le géographe et l'écrivain.*

LONDRES.
1863.

Echelle des milles géographiques (100,000)

I. Bergaran mintzatzen ziren hizkuntzak eta hizkerak

Zein hizkuntzatan mintzatzen ziren bergararrak 1600-1876 aldian? Zoritxarrez, ez dugu inolako estatistikarik garai goiztiar horretarako. Estrapolazio eta zantzuez fidatu behar dugu galdera horri erantzun ahal izateko. Garaikideen testigantza guztiek (Manuel Larramendik, Domingo Maria Erratzuk, Juan Ignazio Iztuetak, Ladislao Belaskok edo Louis Lucien Bonapartek) adierazten dutenez, sasoi hartan Gipuzkoa nagusiki euskal elebazarren lurraldea zen, % 95 inguru euskal hiztunak ziren eta herritar horien elebakartasun maila urbanizazio-mailaren arabera aldatzen zen. Hirigune garrantzitsuenetan, hala nola Donostian, Tolosan, Azpeitian, Azkoitian, Oñatin, Ordizian eta, jakina, Bergaran, euskal elebazarren (*“bascongados netos”*) ehunekoa % 55 eta % 70 artekoa izango zen, eta hiribildu txikietan eta landa-eremu osoan, berriz, % 80-85 artekoa.


Egia da autore horietako batzuek, bereziki Iztuetak eta Larramendik, azaltzen duten euskararen balorazioa, hizkuntzari zioten maitasunak eragindakoa izan zitekeela. Baina ematen du ez zela hala izango, izan ere, XIX. mendearen erdialdean, hain sutsuak ez ziren beste autore batzuen ondorioak ere oso antzekoak ziren. Horrela, Bonaparte printzeak ez zuen hiztunen kuantifikaziorik egin, baina euskara oso nagusi zen lurraldeak bakarrik sartu zituen 1863ko inkesta dialektologiko ospetsuan; eta horien artean Gipuzkoa osoa eta Bergara hartu zituen. Ladislao Belaskok ere behin eta berriz errepikatzen du Gipuzkoa erabat euskalduna zela 1879ko data berantiarrean ere, eta hura ez zen inoiz baikortasunagatik nabarmendu. Gainerakoan, Joaquin Irizar Moia bergararrak, euskarari oso etorkizun beltza ikusten zionak, 1841ean euskararen egoera orokorra aztertu zuenean, adierazi zuen Gipuzkoa zela lurralde guztiz euskaldun bakarra: *“Il en résulte qu’ il n’ y a réellement plus qu’ une province qui soit véritablement eusquerane, qui est Guipuscoa, car tous ses habitants parlent cette langue”*².

Bergaran hitz egiten zen euskararen aldaera *Gipuzkoako bizkaiera* gisa ezagutzen zen. Bergarako hizkera ezagutzeko datu esanguratsuenak Louis Lucien Bonaparte printzeak 1861-63 eta 1869an egindako lanetan ditugu. Bergara, Gipuzkoan kokatzen bada ere, hizkeraz Ekialdeko bizkaieraren multzoan sartu zuen 1861-1863an egindako lehen sailkapenean; eta, aldiz, 1869an ikusmoldea aldatu eta Debarro guztia azpieuskalki bakar batean bildu zuen: *Gipuzkoako bizkaiera* izenekoan. Bonapartek dioen moduan, Bergaran aditzak bizkaieraren egitura garbia izan arren, lexikoan eta morfologian gipuzkeraren kutsu nabaria du. Bestalde, garai horretan auzoetan populazioaren erdia bizi zen eta auzotik auzora alde nabariak zeuden. Oro har Bergarako hizkera hurbilago dago Antzuolako, Soraluzeko eta Eibarko hizkereta-

tik Leintz bailarakoetatik baino. Bestalde, kontuan hartu behar da, halaber, garai hartan bizkaieraren ukitu nabarmenena zuten bi auzo (Angiozar eta Ubera) Elgetakoak zirela³.

Edonola ere, euskararen ezagutza eta erabilerara oso lotuta zegoen herri bakoitzaren urbanizazio-mailari: zenbat eta hiritarragoa izan eta industriarekin, zerbitzuekin, merkataritzarekin eta administrazioarekin lotuago egon, orduan eta handiago zen gaztelania-hiztunen ehunekoa; zen-

bat eta landatarragoa, orduan eta handiagoa euskal elebakarren proportzioa. Badakigu, gainera, euskal elebakartasuna analfabetismoarekin oso lotuta zegoela. Gaztelania ikasteko bide nagusia eskola zen, eta biztanleriaren ehuneko handi batek ez zuen bertara joateko aukerarik; ondorioz, horiek analfabetoak eta elebakarrak ziren. Bai elebakartasunean, bai alfabetizazioan, generoaren arabera alde handia zegoen, eta emakume elebakarren ehunekoa gizonena baino nabarmen handiagoa zen. Bestalde, hizkuntza-dimorfismoa ere izaten zen talde



Louis-Lucien Bonaparte printzearen euskalkien mapa

sozio-profesionalei dagokienez; artisauen eta nekazarien klase herrikoiak euskal elebakarrak ziren hein handi batean, eta goi-mailako klaseak aldiz elebidunak, hirueledunak (euskara, gaztelania, latina / euskara, gaztelania, frantsesa) edo eleaniztunak (euskara, latina, gaztelania eta frantsesa).

Beraz, XVII. mendetik XIX. mendera bitartean Bergaran hitz egindako hizkuntzei buruzko estatistika zuzenik gabe, zeharkako datuak erabiliko ditugu ikerketa bideratzeko, hala nola analfabetismo-maila, urbanizazio-maila, banaketa sozio-profesionala... Eta horiek guztiak generoaren arabera bereiziz beti. Edonola ere, noizean behin, bergararren hizkuntza-gaitasunari buruzko dokumentazioa ere agertzen da, ikuspegi kualitatibotik oso probetxugarria dena, esaterako, udalerrian jardun behar zuten medikuei, lanpostua eskuratzeko, jartzen zitzaien euskara eskakizunaren berri ematen diguna. Edota, euskal elebakarrek gaztelaniaz idatzitako dokumentazio ofiziala uler zezaten, dokumentuok euskarara itzuliz, apaizek eta eskribauek betetzen zuten hizkuntza-bitartekaritzako lanari buruzkoa eta abar.

Dokumentazio hori guztia biltzeko, Bergaran garai historiko hartan hitz egiten ziren hizkuntzei buruzko informazioa izan zezakeen edozein artxibotan arakatzen saiatu gara, eta, jakina, gaiari buruz existitzen den bibliografia ere kontsultatu dugu. Hala ere, uste izatekoa zen bezala, erabilitako dokumentazio gehiena Bergarako Udal Artxiboan aurkitu dugu, bertan gordetzen baitira Bergarako jurisdikzioaren historiari buruzko dokumentu gehienak.

Ez dago hizkuntzarik gabeko historiarik. Hizkuntza gizarte osoaren zeharkako gaia denez eta honako hau *hizkuntzaren historia soziala* izanik, bertara gizarteko sektore guztietako jendea ekartzen saiatu gara, izen eta abizenekin aurkeztuz: lapurrak, kontrabandistak, aristokratak, artisauak,

nekazariak, irakasleak edo elizgizonak, gizonak eta emakumeak, eta nahita ihes egin dugu *eliteen (jauntxo eta handikien) historiari*, non gotzainak, handikiak eta graduazio handiko militarrek baino ez diren agertzen.

Begarako barrutiaren eraketa, Gipuzkoako beste udalerri askorena bezala, gatazkatsua izan zen. Antzuola 1629an aldendu zen Bergarako jurisdikziotik. Oxirondo, berriz, Elgetatik banandu eta Bergarara batu zen 1344an, baina Antzuola bezala, 1629an bertan, alde egiten saiatu zen, eta auzi zaratatsu batean jardun zuen 1631 arte, nahiz eta alferrik izan zitzaion. 1927an, Angiozar eta Ubera, ordura arte Elgetakoak zirenak, Bergaran sartu ziren. Horregatik guztiagatik, aztertzen ari garen aldirako, oro har, ez dugu kontuan hartu Antzuola, Angiozar eta Uberako daturik, adibidez, biztanleria zenbatzerakoan edo antzeko beste helburu batzuetarako.

Euskara ez ezik, gaztelania, latina eta frantsesa ere hitz egin ziren Bergaran, azken hori, batez ere XVIII. mendearen bigarren erdialdean eta XIX. mendearen hasieran. Bere ezagutza eta erabilera goi mailako-klaseetara mugatu zen: elizgizonak, handikiak, abokatuak, medikuak, etab.

PADRON que forma la Sección urbana de la Junta municipal de este pueblo de todos los habitantes que pernoctado en el distrito de la misma la noche del 21. de Mayo de 1857, segun las cédulas de inscripción se han repartido y recogido en cumplimiento del Real decreto de 14 de Marzo de 1857.

Numeracion
de las
personas.

- 1
- 2
- 3
- 1.
- 2.
- 3
- 10
2. D.
- 3.
1. Pore



7. Jose M.^a Matanaga
1. Juan de Oregui y
2. Manuela Larrea
3. Margarita Damboriz
4. Dolores
5. Romana de Oregui y Larrea
6. Genara
7. Martin de Larrea

II. **B**ergarako urbanizazio-maila eta hizkuntzarekin zuen harremana

Kanpoko hizkuntzen hedapenean eragin zuzena zuen elementu erabakigarrietako bat biztanleriaren urbanizazio-maila handiagoa edo txikiagoa zen, urbanizazio-maila hori bi ikuspegitatik begiratuta: alde batetik, biztanle-kopuruaren arabera, eta bestetik biztanleok betetzen zituzten funtzioen arabera. Hau da, biztanleria oso ugaria eta kontzentratua bazen eta kanpotarrekin edo atzerritarrekin harremana izatera behartzen zituzten lanak (batez ere merkataritza eta garraioa) egiten bazituzten, gaztelaniaren edo frantsesaren sarbidea nabarmen handiagoa zen; aldiz, biztanleria txikia, sakabanatua eta nekazaritzan eta abeltzaintzan jarduten zuena bazen, gaztelaniaren sarbidea askoz txikiagoa zen. Horregatik komeni da, lehenik eta behin, garai historiko honetako Bergarako biztanleriaren tamaina eta egitura sozio-profesionalaren banaketa ezagutzea.



Bergara, XIX. mendearen erdialdean

II.1 - Bergarako biztanleriaren bilakaera, XVII-XIX mendeak

Tradizionalki, XVII. eta XVIII. mendeetan zehar —harik eta 1840ko hamarkadatik aurrera industrializazioak ekarri zituen biztanleria-aldaketa handiak gertatu ziren arte—, Gipuzkoan biztanle gehien zuten herriak, hurrenkera honetan, Donostia, Oñati⁴ eta Tolosa izan ziren. Ondoren, antzeko garrantzia zuten beste hiru herri zeuden: Bergara, Azpeitia eta Azkoitia. Bergara, beraz, tamainari dagokionez, Gipuzkoako laugarren edo bosgarren herria izan zen historikoki, unearen arabera, Azpeitiaren aurretik edo atzetik.

Ez dago esan beharrik 1857 arte, alegia, Espainiako estatuan biztanleria modernoaren lehen zentsua egin zen arte, lortutako zifra guztiak gutxi gorabeherako kalkuluak direla eta, kasu batzuetan ez direla oso fidagarriak. Normalean etxeburu edo auzotan (“*vecino*”) ematen dira datuak eta ez biztanletan (“*arimak*” [“*almas*”], garai hartako izendapenaren arabera). 1782an Bergarako landa-eremuko biztanleriaren zenbaketa egin zen, baina zoritxarrez erdizka osatuta. Bertan, 229 auzo (“*vecinos*” bezala izendatzen zirenak) zenbatu ziren, guztira 1.292 biztanlerekin; hau da, etxeburu bakoitzeko bizilagun-ratioa 5,6koa⁵ zen garai hartan. Nolanahi ere, azterlanak hiribilduaren zatirik hiritarrena barne hartu izan balu, ratio hori 5,3 edo 5,4ra jaitsiko zen gutxienez. Gainera, erlazio hori ezin da matematikoki aplikatu beste garai batzuetan edo beste herri batzuetan, izan ere, asko alda daiteke: 3,5 eta 6 artean. Oro har, landa-eremuko ratioak hirietakoak baino handiagoak ziren. Azterlan honetako beste toki batean ikusiko dugunez, 1842ko katastro-zentsuaren arabera, Bergarak 752 auzo edo etxeburu zituen eta horiei, 3.785 bizilagun zegozkien. Horrek bost biztanleko ratioa emango liguke. Are gehiago, urte horietarako, Pascual Madozek jasotzen du Bergarako jurisdikzioak

ESTADO NUMERO 2.

PROVINCIA DE GUIPÚZCOA. PUEBLO DE Bergara. folio n.º 1.

Paseos que forma la *Antigua Urbana* de Junta municipal de este pueblo de todos los habitantes que han pertenecido en el distrito de la misma la noche del 21 de Mayo de 1857, segun las cédulas de inscripción que se han repartido y escogido en cumplimiento del Real decreto de 14 de Marzo de 1857.

Numeración de las personas.	Nombre y apellidos paterno y materno.	Edad.	Estado.	Profesión, oficio, ocupación o posición social.
1	José de Aramburu y Bergara	41	Casado	Chocolateero.
2	Manuel de Arribas y Arribas	51	id.	id.
3	Manuel de Arribas y Arribas	22	Soltero	id.
1.	Don M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
2	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
3	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
4	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
5	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
6	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
7	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
8	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
9	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
10	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
11	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
12	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
13	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
14	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
15	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
16	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
17	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
18	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
19	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
20	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
21	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
22	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
23	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
24	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
25	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
26	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
27	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
28	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
29	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
30	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
31	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
32	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
33	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
34	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
35	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
36	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
37	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
38	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
39	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
40	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
41	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
42	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
43	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
44	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
45	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
46	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
47	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
48	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
49	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
50	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
51	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
52	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
53	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
54	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
55	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
56	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
57	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
58	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
59	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
60	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
61	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
62	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
63	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
64	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
65	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
66	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
67	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
68	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
69	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
70	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
71	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
72	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
73	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
74	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
75	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
76	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
77	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
78	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
79	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
80	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
81	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
82	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
83	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
84	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
85	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
86	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
87	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
88	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
89	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
90	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
91	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
92	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
93	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
94	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
95	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
96	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
97	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
98	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
99	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria
100	Doña M. de Arribas y Arribas	21	Casado	Industria

1857ko biztanleen zentsua

ia 7.000 bizilagun eta 1.400 etxeburu izango zituela, hau da, kasu horretan ere, 5eko ratio bera.

1625ean, Lope Martinez de Isasti tratatuz idazleak, *Compendio historial de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa* liburuan, 700 auzo esleitu zizkion Bergarari⁶. Garai hartan, auzoen eta biztanleen arteko ratioa 5,4koa izan zitekeela onartuz gero, Bergarako biztanleria 3.780 “arimaz”

osatuko zen, baina hori Antzuola banandu baino lau urte lehenagokoa zen. Banaketak gutxienez biztanleriaren % 20 eramango zuen berekin, gehiago ez bazen; eta, beraz, 1629tik aurrerako Bergara nekez iritsiko zen (betiere Isastiren arabera) 3.000 bizilagun izatera.

1658. urtean, San Pedroko apaizak, Andres Abad Askargortak, bere eliztarren zenbaketa zehatza egin zuen, eta 1.877 “arima” kontatu zituen⁷. Santa Marinako eliztarrak beste hainbeste zirela onartzen badugu, historikoki Bergarako biztanleria bi parrokiak bi erdi ia berdinetan banatu delako, hiribilduak 3.754 biztanle izango zituen. Hala ere, ia segurtasun osoz, garai hartan, Santa Marina parrokiak fededun batzuk gehiago izango zituen San Pedrokoak baino, eta, beraz, Bergarak guztira 3.900 biztanle inguru izango zituen, edo akaso gehiago.

1718ko azaroan, Bergarako hiribilduko eta bere jurisdizioko (“*esta Villa de Vergara y su jurisdicción*”) etxeburu eta egoiliarak (“*vecinos y moradores*”) zenbatu ziren, eta horretarako udalerria hainbat eremu geografikotan banatu zen: “*Desde lo alto de Vidacruzeta hasta la cruz de Vidarte*”; “*Zubietá*”; “*Muguerza*”; “*Amillaga*”; “*Zubiate*”; “*Mizpildi*”; “*Desde Elorregui hasta Zabaleta*”; “*Desde Zabaleta a Osiranzu*”; “*Desde Unzeta hasta Pagalday*”; “*Desde Pagalday a Arzubi*”; “*En Elosua*”. Guztira 412 etxeburu eta egoiliar zenbatu ziren, eta 5,6ko koefizientea aplikatuz gero, 2.307 bizilagun izango ziren guztira. Zenbaketa helburu militarrekin egin zen tokiko tropak osatzeko; beraz susmoa dut, ezinduak edo gaixoak ez zirela kontuan hartu⁸. Bere horretan, pertsona kopuru hori oso txikia da; hortaz, serie-baliorik ez du eta, ondorioz, ez dugu kontuan hartuko XVII. mendetik XIX. mendera bitarteko biztanleriaren bilakaera-taulan (**I. Taula**). Edonola ere, uste dugu merezi zuela aipatzea.

1768ko azaroaren 19an, Oxirondoko Santa Marinako apaizak, On Rafael Garitano-Aldaetak, bere parrokia-kideen kopuruari buruzko txosten oso zehatza egin zuen, izan ere, interes handia zuen elizako patronoari, Oñatiko kondeari, erakusteko zein handia zen eliztar kopuru hori eta zenbateko lana zekarkion. Bere kalkuluen arabera, parrokiako “arimak” 1.905 ziren⁹. Hau da, populazioa ia ez zen aldatu mende bat pasatxoan, alegia, San Pedroko apaizak, On Abad Askargortak, 1658an antzeko zenbaketa egin zuenetik: 3800 biztanle inguru jurisdikzio osorako.

1787an egin zen nahikoa fidagarritzat jo deza-kegun espainiar estatuko lehen errolda handia: Floridablancarena. Bergarari buruz emandako biztanleria-kopuruak errealitatetik nahiko hurbil dau dela dirudi. Hala ere, 1788tik 1790era bitartean, Oxirondoko Santa Marina parrokiako eliztarren beste zenbaketa bat egin zen, eta bertan, 182 baserritan, 2.270 pertsona bizi ziren (kontuan izan behar da baserri batzuk bitan edo hirutan banatuta zeudela, eta hainbat familia-unitate bizi zirela baserri bakoitzean)¹⁰. Garitano-Aldaetak 1768an egin zuen zenbaketarako aipatu dugun arau bera aplikatzen badugu, hau da, San Pedro parrokiak



Bergara, XIX. mendearen erdialdean.
Aurrealdean, Algodonera

Santa Marinako parrokiaren ia biztanle kopuru berbera zuela kontutan hartuz gero, 4.500 biztanle inguru aterako litzaizkiguke; soilik bi urte lehenago, 1787ko erroldan agertzen diren 4.000 biztanleak baino askoz gehiago. Gainera, 1768 eta 1788 urteen artean Santa Marinako biztanleriaren hazkundera % 19koa izango litzateke. Datu hori nahiko fidagarria da, zenbaketak antzeko metodologiarekin eta interes eta helburu berdinekin egin baitziren (apaizen lana neurtzea). Dena den, alde horren arrazoiak bi izan daitezke: alde batetik, San Pedroko eta Santa Marinako eliztar-kopuruak parekoak izateari laga izana, edo Floridablancaren erroldan biztanle guztiak jaso ez izana. Edo, agian, gerta zitekeen bi azalpenen konbinazio bat, biztanleria osoaren % 11,1eko desadostasun handi hori argitzeko balioko lukeena.

Tomas Lopez kartografo eta geografoaren galdetegiak, 1800-1801 inguruan bete omen zenak, Bergarako hiriguneak 200 etxe inguru zituela eta jurisdikzio osoan 250 baserri zeudela adierazten digu. Auzoak edo etxeburuak 700 inguru izango ziren eta, beraz, biztanleak 3.920 inguru¹¹. Hala ere, Tomas Lopezen informatzaileak datu garrantzitsu bat ematen digu, XVIII. mendearen amaieran eta XIX. mendearen hasieran Bergarako biztanleria zergatik uzkurtu zen azaltzeko. Konbentzio-gerraren eta Gerra napoleonikoaren inaktuaz gain, arrazoi ekonomiko bat aipatzen da: aurrez oso arrakastatsua izana zen Bergarako aitzogintza-industriaren hondoratzea, eta horrek eragin zituen emigrazioa eta biztanleria-galera:



Bergarako plaza XIX. mendearen erdialdean, epaitegiak eraiki aurretik

Las fabricas que tenia este pueblo de cuchillería, y de cerrajería, en el siglo anterior [el XVII] era de mucha consideración, por el comercio que se hacia para las Castillas; pero con las nuevas imposiciones de la Aduana de Vitoria se han arruinado, habiendo quedado mas de cincuenta familias en nuestros días en la mayor indigencia, y muchas de ellas precisadas a expatriarse para no perecer de miseria. Con todo ha quedado alguna u otra fabrica de Cerrageria de palas y azadones para America y R.¹ Servicio. Hay una Ferreria en que se trabajan sobre seis mil arrobas de fierro en cada un año. El Acero cementado tubo principio en esta Villa por las continuas experiencias de D.ⁿ Joseph Angel de Aranguren. Tambien se logro que la Platina se hiciese maleable por M. Chavaneau¹².

1802an argitaratutako *Diccionario de la Real Academia de la Historia* liburua asmo politiko argiarekin eta, datu estatistikoei dagokienez, zorrotasun gutxirekin egin zen, baina, hala ere, eskaintzen duen Bergararako populazio-zifra ez da batere zentzugabea: 4.000 biztanle. Edozein modutara, hiztegi horretan maiz gertatzen da fidagarritasunik gabeko goranzko biribiltzea. Ematen du Hiztegiaren idazleek, zuzeneko daturik ez zutela izango eta 1787ko zentsuaren zifra hartu eta biribildu egin zutela, besterik gabe.

Jose Vargas Ponce historialari, kartografo, akademiko, itsas-gizon eta demografoak oso prestakuntza osatua zuen, eta Euskal Herriari buruzko informazio ugari bildu zuen, eta bereziki Bergarari buruzkoa. Bertan denboraldi luzea egin zuen eta, beraz, bere informazioak oso estimagarriak dira¹³. Hala ere, 1803an Bergarari esleitu zizkion 3.377 biztanleak urte haietan jasotako beste zifren azpitik daude¹⁴. Egia da hiribilduak Konbentzio-gerraren trauma jasan zuela, eta, horri lotuta, baita kalte eta atzerapauso ekonomiko handiak ere, baina zaila da justifikatzea populazio-jaitsiera hain nabarmena izatea.

Hala ere, badugu beste datu bat, garai bertsu-koa eta beste gerra baten testuinguruan kokatzen dena, XIX. mendeko lehen hamarkadan Bergarako biztanleria murriztu egin zela berretsiko lu-


keena. Pablo Fernández Albadalejok Gipuzkoako jabetzaren banaketa aztertu zuen Gipuzkoako Artxibo Orokorreko (garai hartan *Archivo Provincial de Tolosa* deitua) dokumentazioa erabili eta ondorioztatu zuen Bergarak 1810ean 3.286 biztanle zituela¹⁵. Beraz, kontuan hartzen badugu RAHren Hiztegiaren zifra (1828an Sebastián Miñanok errepikatu zuena) ez dela inolako zenbaketatik oinarritzen eta espekulazio hutsa dela, gerta daiteke Floridablancaren kopurua zuzena izatea 1787rako; baina gero, Konbentzio-gerraren eta Gerra Napoleonikoaren ostean, Bergarako populazioa 3.300-3.400 biztanle ingurura jaitea; eta jarraian 1820 eta 1830eko hamarkadetan berriz gora egitea.



Bergara 1866an. Didier Petit de Meurville



Jose de Vargas y Ponce, Francisco de Goyak margotua



Miguel Unamunoren familiaren etxea

Asmo estatistikoak zituen lehen hiztegia Sebastian Miñanorena izan zen, 1828an argitaratua. Hala ere, Bergararen kasuan behintzat, *Diccionario de la Real Academia de la Historiaren* datu berberak ematera mugatu zen¹⁶.

1842ko Katastro-matrikularen zentsuak (Censo de la matrícula catastral) oinarritzko akats metodologiko bat du eta horrek haren emaitzak zalantzan jartzera garamatza. Helburua zerga-politika orokor bat ezartzea zen, eta, horretarako, udalerrien aberastasun potentziala ezagutu beharra zegoen. Horrela, udal bakoitzari galdetegi bat bidali zitzaion, non biztanleria eta aberastasuna jaso behar ziren, baina udal gehienek euren datuak apaltzera jo zuten, zerga-inpaktua gutxitzeko asmoz, eta, beraz, emaitzak benetako datuen oso azpitik daude. 1842ko erroldan jasotako zifra azpitik dago argi eta garbi eta, ziur aski, Bergarako biztanleria 5.000 biztanletik gorakoa izango zen. Izan ere, Pascual Madozen (1849) hiztegian honako hau adierazten da horri buruz: “*Según los datos oficiales [la población de Bergara] asciende á 752 vec.[inos] y 3.782 alm. [as]; pero las noticias particulares que obran en nuestro poder, la hacen subir á cerca de 7.000 alm. y 1.400 vec. distribuidos en el casco de la v.[illa] y cas. [eríos]*”¹⁷. Argi dago 1842ko erroldako 3.785 biztanleen kopurua, —Madozek “datu ofizial” gisa aipatzen duena — errealitatetik oso azpitik dagoela; baina, berak txosten partikularretan jasotzen dituen ia 7.000 biztanleak ere, seguruenik, gehiegizkoak izan. Segur aski, Karlistaldiaren ondoren, 5.000 biztanle inguru izango zituen Bergarak. Bestalde, Madozen hiztegi horretan bertan, garai hartako Bergarako biztanleriaren banaketari buruzko informazioa dakar eta informazio horrek indartu egiten du komentatu izan dugun ideia: landa-eremuko eta hiribilduko biztanleria kopuruz berdintsuak zirela. Honela dator hiztegian: “*Cuenta la villa unas 300 casas en el casco de la población y barrios de San Antonio y Zubieta y sobre 300 caseríos, esparcidos en su término*”¹⁸. Hala ere, jarraian iku-


siko dugun bezala, landa-eremuak hiri-eremuak baino biztanle gehiago zituen oraindik. Argi dago landa-etxebizitzaren okupazio-indizea hiri-etxebizitzarena baino altuagoa zela.

Hala ere, 1843ko¹⁹ errolda ere motz geratu zen. Zenbaketa horren arabera, Bergarak 1.440 biztanle zituen hirigunean, “Kalean” (Bidekurutzeta, Barrenkalea, Artekalea, Goenkalea, Arruriaga, Masterreka, Zubieta) eta 2.599 baserri-auzoetan (Elosua, Basalgo, Buruñao, Elorregi eta Goiauzoa); guztira, 4.039 biztanle. Beraz, sinesgaitza da hamalau urte geroago Bergarak 1857ko zentsuan jasotako 6.307 biztanleko populazioa izango zuenik. Ondorioz, urte horietan ez zen 5.000 biztanletik oso urrun ibiliko.

Nolanahi ere, 1840ko eta 1850eko hamarkadako Bergarako biztanleriaren gorakada azaltzen laguntzen duen gertaera bat gogoratu beharko litzateke: industrializazioaren hasiera. Zehazki, 1846an “*La Algodonera San Antonio*” sortu zen, “*Frois, Silva, Blanc y Cia*” izen sozila zuena. Fabrika hori 300 langile izatera iritsi zen: emakume zein gizakume. Halaber, ez da gutxietsi behar 1841ean Gipuzkoa lau barruti judizialetan antolatzeak izan zezakeen garrantzia, horietako baten egoitza Bergaran ezarri baitzen. Badirudi garai horretan Bergarak erreferentzialtasuna irabazi zuela eskualde mailan eta horren ondorioz hainbat funtzionario bertan bizitzen jarri zirela. Baina, zalantzarik gabe, demografiaren arloan erabakigarriena industrializazioaren hasiera izan zen, nahiz eta horrek eragindako immigrazio-ekarpenak oraindik apalak izan. Ildo horretan, aipagarria da 1857ko zentsuan eta 1871ko erroldan “*industriales*” eta “*operarios*” gisa sailkatutakoek hartzen duten pisua. Aurrerago sakonduko dugu gai hau baina bi zenbaketatarako erabilitako metodologiek ez digute alderaketa handirik egiten uzten, halere, datuak mahaigaineratu nahiko genituzke. Hala 1857an “*industriales*” eta “*operarios*” gisa agertzen direnak (ia guztiak lan-



Bergara. Francisco Coelloren atlas, 1848



Espoloiko pasealekua eraikitzeko planoa, 1846

giltzat har ditzakegu, berdin gizonezkoak zein emakumeak) Bergarako biztanleria aktiboaren % 14 ziren, eta 1871n, aldiz, % 6,7. Ehuneko horiek, bere horretan ere bazuten pisu bat, baina batez ere, industrializazioa sendotzeak etorkizunean ekarriko zuen hazkundearen iragarle gisa ulertu behar dira. Hala eta guztiz ere, ez dugu ahaztu behar garai hartan bergarar gehienak nekazaritzan eta abeltzaintzan jarduten zutela.

Esan bezala, estatistikoki fidagarritzat eta modernotzat jo daitekeen lehen zentsua 1857koa da²⁰. Bertan Bergarak 6.300 biztanle pasatzoko kopurua eman zuen, XIX. mendearen bigarren erdi osoan mantenduko zena.


Orain arteko guztia kontuan hartuta, **I. Taula** eta **I. Grafikoa** osatu ditugu eta horietan jaso ditugu lortutako datuak. Hala ere, berriz ere azpimarratu behar da datu gehienek oinarritzko arazo metodologiko larriak dituztela, eta horrek, hein batean behintzat, baliogabetu edo, gutxienez, zalantzan jartzen dituela.

I. Taula. Bergarako biztanleriaren bilakaera 1625-1900																
Urtea	1625	1658	1768	1787	1802	1803	1810	1828	1842	1843	1857	1860	1877	1887	1897	1900
Bizt.	2900	3754	3800	3936	4000	3377	3286	4000	3785	4039	6307	6161	6021	6194	6083	6196

I. Grafikoa. Bergarako biztanleriaren bilakaera 1625-1900



Hiri- eta landa-biztanleriaren arteko banaketari dagokionez, ondorioztatu beharko litzateke XVII. eta XVIII. mendeetan zehar eta XIX. mendearen erdialdera arte biztanleriaren % 65eko proportzioa mantendu zela landa-eremurako eta % 35ekoa hirigunerako, ia aldaketarik gabe, nahiz eta hiriko biztanleria sendotzeko joera txikitxo bat agertzen den. 1840ko eta 1850eko hamarkadetan urbanizazio-prozesu hori bat-batean bizkortu zen, eta landa eta hiri-biztanleriaren ehuneko horien inbertsio-prozesu bat hasi zen, XIX. mendearen amaierarako amaituko zena. (**II. Grafikoa**).



Banaketa horrek garrantzi handia du hizkuntzaren ikuspegitik; izan ere, gero ikusiko den bezala, landa-eremuko auzoetan eta baserrietan bizi ziren herritar gehienak euskal elebakarrak ziren, eta hiribilduan bizi zirenak, berriz, elebidunak.



San Antonioko "Algodonera" lantegia


II.2 - **B**ergararen merkatari- eta artisau-izaera

Gaztelania eta kanpoko beste hizkuntza batzuk zabaltzen laguntzen duen elementu bat merkataritza-trafikoa da. Bergarak bere sorreran izan zuen funtzio nagusia Gaztelako Mesetaren eta Kantauriko portuen arteko merkataritza-lotune izatea izan zen, bereziki zerealaren eta burdinaren salerosketari dagokionez. Orga-gidariak eta merkatariaak gelditzen ziren hiribildu-etapa. Horietako askok ez zuten euskaraz hitz egiten. Merkataria horietako batzuk Bergara bihurtu zuten euren bizileku, aldi baterako edo behin betiko. Zaila da kanpoko presentzia horren eragina neurtzea, baina, zalantzarik gabe, ondorio linguistikoak izan zituen. Adierazle bat, kanpoko merkataria eta garraiolari horiek ostatu hartzeko zeuden ostatu eta benten kopuruak eman diezaguke. XVI. mendean ostatu kopurua oso garrantzitsua zen, XVII. mendean izugarri jaitsi zen eta XVIII. mendean pixka bat igo. Mota horietako establezimenduen kopuruaren bilakaerak, Bergarak mende horietan zehar izan zuen merkataritza-garapena islatzen du.

Jakina, garai bakoitzeko udal guztiak jarduera hori ondo zaintzen saiatu ziren, hiribilduaren ekonomiarentzat erabat estrategikoa zelako. Horrela, XVI. mendearen erdialdetik XVIII. mendearen amaierara bitarteko udal-aginduetan, establezimendu horien kalitatea eta zerbitzua bermatzeko neurriak ezarri ziren eta nola ez, prezioak arautu:

Primeramente que las camas donde hubieren de dormir los huéspedes que acogieren a sus casas e mesones, tengan bien limpias y adereçadas y a los huéspedes reçivan con mucho amor y voluntad...

Que los dichos mesoneros cuesten a los dichos huéspedes la cama en que durmieren siendo aquella buena y de ropa limpia a personas principales por cada noche veinte y quatro maravedis y a las personas comunes a cada seis maravedis...²¹




ta En tator. Y inmediatamente pararon
atodar las Casas Mesones de esta villa,
y hauyendo reconocido y en-contrado en
buena disposicion las Caballerizas, Pueros de
ella, y Camas, y los Aranceles del año mas
pagados para en los venales segun esta
mandado, mandaron a los repetidos cargo-
habientes Mesoneros y mesoneros y inme-
diatamente queren dho Aranceles y...

1764ko urtarrilaren 3an benta eta ostatuetara Udalak egindako bisita

Badugu XVI. mendearen erdialdetik XVIII²². mendearen erdialdera bitartean Bergaran zeuden benta eta ostatuen kopuruaren ebaluazio bat. “Meson” (ostatu) eta “*posada*” (posadetxe) izenak sinonimo moduan erabiltzen ziren. Lo-lekua eskaintzen zuten, baina teorian ezin zuten edaririk eman. Mota horretako establezimendu kopuruaren unerik gorena 1580 ingurukoa da, hamahiru benta, posadetxe eta ostaturekin. 1587an hamaika benta aipatzen dira: bost, emakumezkoek zuzentzen zituzten eta sei gizonezkoek²³. 1645erako kopuru hori erdira jaitsi zen, zehazki sei establezimendutara, eta 1719an gora egin zuen pixka bat, bederatzira, nahiz eta 1737an zenbaki hori berriro murriztu zen, zazpian geratuz. 1757an Bergaran sei ostalari (*mesonero*) zeuden: lau gizonezko eta bi emakumezko²⁴. 1763rako bi benta egiaztatu dira, Elosukoa eta Egiñokoa, eta lau posadetxe²⁵. 1802ko Historiaren Errege Akademiaren Hiztegiak ez digu askorik argitzen, eta datu hau ematen digu: “*son muchas las posadas, pero tres las más concurridas*”²⁶. Sera-pio Muxika Zufiriak, 1918 inguru argitaratutako *La Geografía General del País Vasco-Navarro. Provincia de Guipúzcoa*²⁷ lanean, Bergaran “*una fonda buena, con garaje y seis posadas*” daudela diosku. Zoritxarrez, datu gutxi ditugu establezimendu bakoitzeko ohe kopuruari buruz, eta horrek ezinezko bihurtzen du Bergarak garai hartan zuen ostatatze-ahalmena zehaztasunez baloratzea. Orientazio gisa esango dugu 1719an, guztira, Bergarako ostatuetan 50 ohe eskaintzen zituztela²⁸.

Laburbilduz, Bergarako ostatuak 1566 eta 1917 artean izan zuten bilakaera ikus dezakegu **II. Taulan** eta **III. Grafikoan**:

II. Taula. Bergaran ostatu hartzeko azpiegitura, 1566-1917	
Urtea	Bentak, ostatuak eta posadetxeak
1566	10
1580	13
1582	12 ²⁹
1587	11
1645	6 ³⁰
1718	6
1719	9
1737	7 ³¹
1757	6
1763	6
1917	7



Bertan ikus liteke Bergarak XVI. mendean izan zuen merkataritza-indarra eta ondorengo mendeetan izandako uzkurdura erlatiboa.

Noizean behin, bisitari-oldeak izaten ziren, eta, beraz, zegoen posadetxe-sarea ez zen nahikoa izaten, eta horrelakoetan larrialdiko konponbideetara jo behar izaten zen. Hala gertatu zen 1764an. San Martin Agirreren jaioterriari buruz Beasainek eta Bergarak izandako lehia sutsuaren ondoren, Bergara izendatu zuten *”Madre feliz del glorioso Proto mártir de Japon”*. 1764ko irailaren 10, 11, 12, 13 eta 14an izenda-pena ospatzeko programatu ziren jaiak zirela-eta, bisitari andana etorriko zela aurreikusi zen, eta ondorioztatu zuten hiriko posadetxeak ez zirela nahikoa izango. Horregatik, baimena eman zitzaizen pertsona partikularrei euren etxeak bisitariari “ostatu turistiko” gisa eskaintzeko, baina, gehiegikeriak saihesteko, udalak arau bidez finkatu zituen kobratu beharreko prezioak. 1764ko abuztuaren 14an dekretu bat eman zuen eta bertan jaso zuen ezingo zirela kobratu zazpi erreal eta erdi baino gehiago pentsio osoagatik: *“piso, guiso, embarazo, cama y luz”*. Posadetxeek gain, 159 etxe partikular eskaini ziren ostatuetarako, honela banatuta: 50 etxe Bidekurutzetan; 16 Barrenkalean; 23 Artekalean; 16 San Pedron, Arruriagan eta Goenkalean; 18 Masterrekan eta Bidearten; 20 Zubietan; 11 Mugertzan, Irizarren eta Mizpildin eta 4 Iriburun eta Santa Anan³².

Bestalde, merezi du Bergaratik gertuko hiribildu batek, Zumarragak, zuen posadetxeen kopuruan arreta jartzea, eta Bergararekin konparatzea; izan ere, Zumarraga, Bergara bezala, Gipuzkoako bide-sarearen gune estrategiko batean kokatuta baitzegoen. 1778an interes gatazka sortu zen Zumarragak izan behar zuen posadetxeen kopuruaren inguruan; bizilagun batek eskatu zuen herrian garai hartan zeuden bi posadetxeak baino gehiago ez izatea, eta Aldundia ere ados agertu zen eskariarekin eta “momentuz” gehiagorik ez irekitzearekin³³. RAHren Hiztegia idatzi zenerako, hau da, 1802 baino lehen, Zumarragak lau posadetxe³⁴ zituen, hau da, 1778an kopurua mugatzen saiatu baziren ere, hogeita bost bat urtetan, bikoiztu egin zen. Dena den, aipagarriena da XVIII. mendean zehar Zumarraga bezalako herri batean

ostatu hartzeko bi establezimendu baino ez izatea; horrek adierazten baitu, mandazain eta merkatari gutxi gera zitezkeela han gaua igarotzen. Bergaran, aldiz, kopuru hori lau zpabost bider handiagoa zen, eta horrek mugari bihurtzen zuen errege-bidearen etapetan. Ondorioz, kanpotar ugari geratzen ziren gaua emateko, horrek zekarren hizkuntza-talkarekin.

Begarako ostatu-sarea beste herri mugakide bateko sarearekin ere aldera dezakegu, Oñatirekin, hain zuzen ere, Sancti Spiritus unibertsitatean ikasketak egiten ari ziren ikasle ugari ostatu emateko zuen beharragatik. Ez dugu datu fidagarriarik urtero matrikulatzen ziren ikasleen kopuru zehatzari buruz, baina, XIX. mendeko gainbehera ere, kopuru hori ez zen 200etik jaisten, eta loraldirik handieneko ikasturteetan, hau da XVI. mendeko azken bi hamarkadetan, 500 inguru izatera iritsiko ziren, ziurrenik. Ikasleetako batzuk oñatiarrak ziren eta euren familiarekin bizi ziren; beste batzuk inguruko herrietakoak, eta Oñatin ostatu hartzeko ahaideak zituzten; gehienak, ordea, horretarako prestatutako posadetxe ugarietan gelditu behar izaten ziren. Argitu behar da ia posada guztiak etxe partikularrak zirela eta ikasle kopuru mugatua harrezaketela, hiru eta hamar artean normalean. Posadetxe “ofizialak” ere bazeuden, unibertsitate- eta udal-agintariak kontrolatuak. Beste batzuk, berriz, kontrol horretatik kanpo zeuden eta hirigunearen inguruko baserrietan kokatzen ziren. 1759an etxe horien zenbaketa bat egin zen, eta hamasei posadetxe ofizial zeudela ondorioztatu zen, baina, jakina, ezinezkoa da jakitea zenbat ziren kontrolatu gabekoak. XVIII. mendeko azken hamarkadan 40-50 posadetxe zenbatu ziren Oñatin, ikasleak hartzeko; 1799-1800 ikasturtean, berriz, hogeita hamar bat ziren, eta 1814-1815 urteetan erdira jaitsi ziren³⁵.

Gainerakoan, Gipuzkoako beste herri batzuek zuten ostatu-sarea nabarmen murriztagoa zen.



Interior of a posada, John Frederick Lewis-ek egin, 1836

1802rako, eta Historiaren Akademiaren Hiztegiaren datuen arabera, Ordiziak hiru ostatu zituen, Eibarrek bi eta Antzuolak bakarra³⁶.

Oro har, Probintziak, XVIII. eta XIX. mendeetan zehar, mota horretako establezimenduak mugatzeko politika mantendu zuen, berriak irekitzeko baimenik ez ematen saiatuz edo lehendik zeudene-tako batzuk ixteko aginduz. Estrategia hori, batez ere, paraje bakartuetan edo bi udalerriren arteko mugetan kokatutako bentetara bideratzen zen, oso zaila baitzen horietan zergak kontrolatzea. Horrela, 1824an, Gipuzkoako Batzarrek benten, ostatu-en eta posadexeen araudi berria egin zuten, eta, bertako 3. artikuluari jarraiki, ondorengo urteetan horrelako parajeetan kokatutako hainbat establezimendu ixtea agindu zuten. Posadexeeetan kokatutako beste hainbat tabernarekin batera, Osintxukoa eta Uberakoa itxi zituzten. Horren aurrean, herriek antzinatik zetozen Errege-epaiak baliarazi zituzten, tabernak leku horietan irekita mantentzeko³⁷. Bizkaian ostalaritzako lokalak kontrolatzeko antzeko politika egin zen, uste baitzen haien kopurua Jaurerriko biztanleekiko neurrigabea zela, eta, batez ere, haietako askoren kokapenak ez zuela ahalbidetzen kontrol moral eta fiskal egokiak bideratzea³⁸.

Ostalaritza establezimenduetan, ostatatze zerbitzuaz gain, ematen zen zerbitzu osagarri bat taberna-zerbitzua izaten zen. Udalak urtero ikuskapen bat egiten zuen, iruzurrak saihesteko eta establezimenduen egoera, garbitasuna eta erabiltzen ziren pisu eta neurriak egiaztatzeko. Ikuskapen horien txostenetan jasotzen denez, Bergaran tradizionalki hiru eta bost taberna artean izaten ziren, eta ia beti emakumeek kudeatzen zituzten. 1582an bost taberna zeuden: Zubietakoa (Domingo Zupide), Bidekurutzetakoa (Maria Aritzaga eta Maria Fernandez Egiara), Artekalekoa (Catalina Lopez Arteaga), San Pedro elizaren aurrean zegoena (Maria Perez Upaegi) eta San Llorente ermitaren ondoan zegoena (Francisco Moiuia). 1718an Antonia Etxebarriak, Marina Ibarzabalek, Josepha Gabilondok, Inesa Ibarzabalek eta Josepha Irastortzak (Barrenkalea) zuzendutako bost taberna zeuden, baina urtebete geroago lau baino ez ziren bisitatu, Bidekurutzeta, Artekale, Barrenkale eta Zubietakoak. 1736an, Bidekurutzeta, Barrenkale eta Zubietako ardo-postuak mantentzen ziren; azken hori Joseph Izagirre eta Maria Bentura Maiz senar-emazteen ardurapean zegoen. Ardo-banaketa Aramaioko bi mandazainek egiten zuten: Jose Erizek eta Sebastian Zabalak³⁹. 1741ean bi taberna zeuden: Maria Ignacia Zuloagarena (Bidekurutzetan) eta Antonia Zubikoetarena (Barrenkalean)⁴⁰. 1760an betiko hiru tabernak agertzen dira: Bidekurutzetakoa, Maria Bautista Zubiaurrek artatua; Zubietakoa, Ygnacia Egurenena, eta Barrenkalekoa, Ygnacio Errazkinena⁴¹.

XVIII. mende amaieran, Bergarako mugikortasun eta dinamismo komertzialean eragin zuen elementu bat izan zen Zalgurdien Errege-Bidea (“*Camino Real de Coches*”) irekitzea. Bide horrek Gipuzkoa zeharkatu zuen Gatzagatik Pausuraino, besteak beste, honako herriak igaroz: Arrasate, Bergara, Urretxu, Beasain, Tolosa, Donostia eta Oiartzun. Bergarak, beraz, etapa garrantzitsua izaten jarraitu zuen komunikazio-bide horretan. Gipuzkoako Batzar Nagusiek 1752an onartu zuten proiektua, eta 1780rako erabat gauzatuta zegoen⁴². Obraren plan orokorra Francisco Ibero arkitekto azpeitiarrak diseinatu zuen. Hasiera batean, bidea Oñatitik igarotzea aurreikusita zegoen, baina 1763ko Batzarretan, Bergarako eta



Zalgurdien Errege Bidea, 1765

Soraluzeko batzarkideek herri horietatik igaroko zen alternatiba bat planteatu zuten, argudiatuz ibilbide laburragoa (legoa bat [5.572 m.] aurrezten zen) izango zela, ez hain menditsua, merkeagoa eta, batez ere, Bergara bezalako merkataritza plaza garrantzitsu bat eta Soraluze bezalako armagintza-puntu estratetigo bat lotuko zituela. Ibilbide berri hori onartu zen, eta Oñati baztertuta geratu zen Bergara eta Soraluzeren mesedetan. Ez zen denbora gehiegi behar izan Bergarako jurisdikzioetik igarotzen zen tarte gauzatzeko. Iberok hogeita hiru zatitan banatu zuen tarte hori, eta 1765eko apiriletik aurrera hasi ziren lanak kontratatzen. Zati batzuk obra berriak izan ziren, eta beste batzuk, aldiz, bide zaharren konponketei zegozkien. Hamabi urte behar izan ziren ibilbide osoa egiteko, eta 234.356 erreal kuarto (erreal belloi eta eltxiki izenez ere deitua) (*reales de vellón*) inbertitu ziren⁴³.

Zalantzarik gabe, azpiegitura horrek XVII. mendean eta XVIII. mendearen hasieran motelduz joan zen merkataritza-trafikoa dinamizatu zuen; mugikortasunak kanpoko jende gehiago zekarren hiribilduetara, eta horietako askok ez zekiten euskaraz. Beraz, errepide-sarean egindako hobekuntza hori faktore garrantzitsutzat hartu behar da, euskarak garai horretan jasan zuen hizkuntza-higadura baloratzeko orduan.

Artisau-sektoreak ere nahiko garapen zabala izan zuen Bergaran. XV. mendearen amaieratik XVIII. mendearen erdialdera bitartean burdinari lotutako industria garrantzitsua loratu zen. Hala, burdinazko tresna eta gai ugari fabrikatu ziren Bergaran: aitzurrak, aizkorak, sarrailak, mailuak, ferrak, pikak, lantzak, iltzeak... eta, bereziki, guraizeak eta labanak. Zulatzeko eta ebakitzeko tresnen (*“artes punzantes y cortantes”*) gremio boteretsuak San Matias kofradiaren inguruan jardun zuen. Aiztoen eta guraizeen fabrikazioak Bergarako artisau-sektore osoaren % 40 inguru hartzen zuen. Baina aitzogintzako eta gu-



Zubiaurreko errota

raizegintzako sektore indartsua krisi sakonean sartu zen XVIII. mendearen bigarren erdian; batez ere 1778tik aurrera, ezin izan baitzuen lehiatu sektoreak jasan zituen zerga handiengatik, merkatuak ixteagatik eta inbertsio faltagatik; eta hamarkada batzuen buruan ia desagertu egin zen. Nabarmendu behar da Bergarak, Deba arroaren inguruko beste herri batzuek ez bezala, ez zuela burdingintzarik izan, hau da, ez zuela burdinolarik; eta, bere jarduna kanpotik ekarritako burdina sutegetan lantzeraz eta aipatutako tresnak ekoiztera bideratu zuela. Kontuan izan behar da Bergarako sutegiek behar zuten lehengaiaz hornitzeko, inguruan, bost legoako (27,5km inguru) perimetro batean, 54 burdinola zeudela. Bergaran, burdinolak jartzeko ahaleginak ez ziren oso emankorrak izan; Gabiriako jaunek burdinola bat sortu zuten San Antonion (Urteaga), 1560. urtearen ondoren, baina urte batzuk baino ez zituen eman lanean, 1625erako hondatuta baitzegoen. Joaquín Ignacio Moia Ortega jaunak 1773 eta 1775 artean eraiki zuen burdinolak ere ez zuen luze iraun; izan ere, sektorea krisialdi betean sartuta zegoen, atzerriko produktuekin lehiatzerik ez zuelako eta gehiegizko baso-ustiapenaren ondorioz egur-ikatzik ere ez zegoelako. Isasizabal aldean eraiki zuen, Ipiñarriaga baserriaren ondoan, eta hasieratik izan zuen “Soraluzeko Arma Fabrikako Lau Gremioen (*“Cuatro Gremios de la Fábrica de Armas de Placencia”*) kontrako jarrera sutsua, irekiera eragozten saiatu baitziren⁴⁴. Tomas Lopezen hiztegiaren arabera, 1801 inguruan burdinolak funtzionatzen jarraitzen zuen. Armagintzan ez zuen inoiz inguruko beste herri batzuen (Arrasate, Eibar, Soraluze...) garrantzia izan, baina izan ziren zenbait artisau su-armen atalak egiten aritu zirenak: kanoigileak, giltzagileak (txinpartagileak), kutxagileak, muntatzaileak eta baionetagileak⁴⁵. Halaber, pisu handia izan zuen zapatarien lanak; eta baita, neurri apalagoan bada ere, zurratzaileenak; azken horren kasuan lanbideak Antzuolan zuen garapen handiak baldintzatuta. Halaber, presentzia handia izan zuten eraikuntzaren sektoreko ofizialek ere: teilaginek, harginek eta, batez ere, arotzek⁴⁶.

Era berean, aipagarria da beste jarduera semi-industrial bat ere, kasu honetan nekazaritzarekin erabat lotua: errotaritza. 40 irin-errota daude dokumentatuta Bergarako historian zehar, eta horrek errota historiko gehien dituen Gipuzkoako herri bihurtzen du Bergara. Nolanahi ere, normalean, aldi berean hamabost inguru egon ohi ziren martxan, eta jarduera handieneko uneetan hogeiren bat. Hala, 1716an hamalau errota ari ziren lanean aldi berean; 1718an, hamahiru⁴⁷; 1719an, hamabost; 1737an, zortzi; eta 1760an⁴⁸, hemezortzi⁴⁹. 1380koa da Bergaran errota daudela dioen lehen albiste dokumentala. Errota-etxe horietako asko oinetxe handien eskuetan zeuden, bereziki Gabiria, Ozaeta, Olasto, Ondartza, Eizagirre, Elorregi edo Jauregitarren eskuetan; eta horrek nekazarien gaineko kontrola indartzea ahalbidetzen zien. Bitartean, beste errota batzuk Udal-ondasunak (*“propios”*) ziren, hau da, hiribilduarenak. Horiek errentan jartzeak diru-sarrerak handiak ematen zizkion Udalari, eta aldi berean irin-merkatua arautzeko aukera ematen zion⁵⁰.

Hizkuntzaren ikuspegitik, merkataritzan, ostalaritzan eta mandazain lanetan aritzen zirenak, euren tratuak egiteko adina gaztelania ikastera behartuta zeuden; neurri handi batean tratuak kanpotarrekin egiten zirelako. Dena den, komeni da aipatzea kasu horietan gaztelaniaren gaitasun erlatiboa euskararena baino askoz txikiagoa izango zela, eta, beraz, suposatutako behar dugu egunerokoan, ahozko erabileran euskara nagusi izango zela. Artisauen kasuan askoz ere neurri txikiagoan gertatzen zen hori: artisau askok herritik irten gabe bete zezaketen beren jarduera, eta, herriko bizilagunekiko harremanak euskaraz zirenez, ez zuten beste hizkuntzarik behar beren jarduera garatzeko.



Algodonerako emakume langileak, 1893

Aipamen berezia merezi du Bergarako ehungintza-sektorearen garapenak. XV. mendetik hasi eta XVI. mendearen hasierara arte, oihaigintza oparoa izan zen Bergaran. Ehuleak San Sebastian gremio-kofradian antolatuta zeuden, eta haren ordenantzak 1497koak ziren⁵¹. Hala ere, XVI. mendean aurrera eginez, oihaigintza hori gainbehera etorri zen, ia desagertu arte. Ehuleen etxeetan (eta, batez ere, emakume-ehuleen etxeetan) lanean jarraitu zuten ehungailu txikiak baino ez ziren geratu. Horiexek azaltzen dira noizbehinka XVII. eta XVIII. mendeetan zehar. Hala ere, esan beharra dago, joskintza jarduera nahiko garrantzitsua izan zela. 1766an, jantzien sektorea suspertzen saiatu ziren botoi fabrika bat sortuz, partikular batek bultzatuta, eta Adiskideen Elkartearen babesarekin, baina erabateko porrota izan zen. Hala ere, XVII., XVIII. eta XIX. mendeetan zehar, emakumezkoen zati esanguratsu bat joskintzan aritu zen, bai tailer txikietan bai euren etxeetan.



Algodonerako gizakume langileak, 1893

Hala ere, chungintzaren sektoreak bultzada handia izango zuen XIX. mendearen erdialdean, fabrikako ekoizpen-sistemari esker. 1846ko urtarrilean “*Frois, Silva, Blanc y Cía*” elkarteak eratu zen kotoizko oihalak ekoiztuko zituen lantegi bat eraikitzeko: “Algodonera San Antonio”. Frois eta Silva Baionako juduak ziren eta Blanc, osterak, Huescako kapitalista. Bergarar jatorriko Gabiria-Madariaga familiako Sevillako aristokrata bati, Torres de la Presako markesari, errentagarritasun txikiko errota zahar bat eta baratze-lur batzuk erosteko aukera ikusi zuten. Guztia, lurrak zein errota, ondo kokatuta zegoen eta arrazoizko prezioan erosi zuten. Horrela, izaera guztiz industrial izango zuen ekoizpen intentsiborako produkzio-gune bat eraikitzeari ekin zioten. Fabrika 300 langile inguru izatera iritsi zen berehala, emakume zein gizakume. XX. mendearen hasieran, oihalen finen merkaturak beste lurralde batzuetako industrietan, batez ere Kataluniakoetan, hartuta zutenez, lehia gutxien zegoen sektorean espezializatu ziren, hau da, laneko jantziak egiteko ehun latz eta hauskaitzen ekoizpenean. Kolore urdinez tindatzea erabaki zuten, eta modu horretan hasi ziren handizka ekoizten laster ospetsu bihurtuko ziren ehunak, “*Azules de Vergara*” deituak.

II.3 - Bergarako biztanleriaren osaera sozio-profesionala

Aurretik, II.2 puntuan, Bergarako biztanleria osoaren bilakaera eta haren izaera hiritarra edo landatarra aztertu dugu, eta horrek hizkuntza-erabileran duen eragina ere azaldu dugu. Hala ere, hizkuntza egoera horretan sakondu ahal izateko, ezinbestekoa da beste alderdi bat ere ezagutzea: biztanleriaren osaera sozio-profesionala. Zergatik? Oro har, goi-mailako klase nagusiak elebidunak zirelako (erdaldun elebakarren zati oso txiki batekin), eta klase herrikoak, berriz, euskal elebakarrak (elebidunen zati txiki batekin). Euskal elebakartasuna nagusi zen, oro har, nekazarien eta emakumeen artean. Zoritxarrez, ez dugu ia XVII. eta XVIII. mendeetako Bergarako biztanleriaren banaketa sozio-profesionalari buruzko estatistikarik.

Nolanahi ere, badugu aukera landa-eremuan bizi zen Bergarako biztanleriaren ehunekoa eta hiri-eremuan bizi zena kuantifikatzeko. Horrek berebiziko garrantzia du, euskal elebakartasunari buruz ditugun testigantza guztiak, Bergarakoak zein Euskal Herri osokoak, bat baitatoz euskal elebakarrak eta landa eremuko biztanleak nahiko bat zetoze esatean. Lan honetan bertan lekukotza horietako batzuk ikusi ahal izango ditugu. Esaterako, Bergaran lan egingo zuten medikuei euskara jakitea eskatzen zitzaientz pazienteekin komunikatu ahal izateko; eta eskakizun horren azalpenean, zenbaitetan, eskaera horren arrazoia adierazten zen: baserritarrak eta landa ingurunean bizi ziren pertsonak euskal elebakarrak zirela. Adibidez, 1744an Martín Jaime doktoreari honako hau eskatu zitzaion: “*Y que dho Dr Dº Mº Jaime Haia de Asistir con interprete a los Caseros y demás personas que no entiende la Lengua Castellana*”⁵². Hau da, hiribilduan ere baziren euskal elebakarrak baina baserritarren (“Caseros”) kasuan ulertzen zen denak zirela.

Bergarak, egituraren aldetik, Gipuzkoako hiribildu gehienek ere duen jarraitzen zion: alde ba-

tetik, hiri-esparrua zuen, hau da, hirigunea bera —batzuetan harresitua— eta errebalak, beti ere fisikoki ondo bereizita; eta bestetik, landa-eremuko barruti jurisdikzionala, baserri sakabanatuz eta ermiten inguruan antolatutako auzune txikiz osatua. Horregatik, beti aipatzen da Bergarako Hiribildua eta bere jurisdikzioa (“*La Villa de Bergara y su jurisdicción*”). Gauza bera gertatzen zen garapen handiagoko hirietan, hala nola Donostian. Gorde izan diren XIX. mendearen bigarren erdialdeko eta XX. mendearen hasierako Bergarako grabatu eta argazkietan argi eta garbi ikus daiteke paisaia-dualtasun hori: batetik, San Pedro elizaren inguruan antolatutako hirigunea eta, bestetik, Oxirondoko Santa Marina parrokiaren mende zeuden baserri sakabanatuez osatutako landa-eremu zabala. Landa eremuko auzune ia-ia guztiak euskal elebakarrak ziren; hiribilduetan, aldiz, elebidunak eta elebakarrak proportzio desberdinetan bizi ziren, herriaren eta garaia araberak. Esate baterako, Donostiaren kasuan, hiri guztiz urbanoa zela uste izan den arren, azpimarratu behar da, tradizioz, XIX. mendearen erdialdera arte, bi zati izan zituela, harresiz



Didier Petit de Meurville, 1866. Bergarako bi parrokiak: San Pedro eta Santa Marina

barnekoa, erabat hiritarra, eta harresiz kanpkoa, landa-eremukoa guztiz: Ibaeta, Egia, Igeldo, Loiola, Amara, Lugaritz, Altza, Aiete eta abar. Izan ere, 1794an egindako biztanleria kontaketaaren arabera, harresiz barneko eta harresiz kanpoko biztanleria praktikan erdibana banatzen zen: 588 etxe eta biztanleriaren % 51,1 hirian, eta 746 etxe eta biztanleriaren % 48,9 landa-eremuan. Urteak pasatu ahala hiri-kontzentrazioa handituz joan zen eta, ondorioz, 1813an, hiria suntsitu bezperan, Donostiako hiri- eta landa-biztanleriaren ehunekoak % 55 eta % 45 ziren, hurrenez hurren⁵³. Jakina, auzoetan euskal elebakartasuna nagusi zen bitartean, harresiz barneko hirian, elebidunak, euskal elebakarrak eta erdal elebakarrak (gaztelaniaz, gaskoiez, frantsesez eta abar) nahasian zeuden.

Bergaran, 1658ko San Pedro parrokiako eliztarraren zenbaketan, “kalean” bizi zirenak eta inguruko baserrietan bizi zirenak bereiz ditzakegu. Hiriari dagokionez, 267 etxetan 1.305 arima [“*almas*”] edo biztanle bizi ziren; baserrietan, berriz, 572 biztanle⁵⁴. Santa Marinako eliztarrak, bestalde, landa-ingurunean bizi ziren oso-osorik, eta, biztanle kopuruz, gutxi gorabehera, San Pedrokoak adina ziren. Beraz, 1658an Bergarako biztanleria 3.754 biztanle ingurukoa zela esan dezakegu, 1.305 hiritarrak (% 34,8) eta 2.449 landa eremukoak (% 65,2). Zalantzarik gabe, baserritarren artean elebakartasun osoa nagusituko zen, eta hirietako herriar xumeen artean, emakumeen artean bereziki, beste horrenbeste gertatuko zen. Eta zaila da jakitea herrian bizi ziren morroi, aitzogile, artisau, jostun, okin, erabateko pobre (“*pobres de solemnidad*”) eta abarren artean zenbat ziren gaztelaniaz hitz egiteko gauza. Edonola ere, landa-eremuko eta hiriko biztanleen arteko erratio hori kontuan hartuta, eta jakinda emakumeak eremu guztietan elebakarrak izan ohi zirela, pentsatzekoa da Bergarako elebakarren ehunekoa nekez izango zela % 75 baino txikiagoa, XVII. mendearen erdialdeko garai horretan. Horrez gain, elebidunek hizkuntza



Errotalde jauregia Arruriagatik, 1890

bakoitzean zuten gaitasun erlatiboa kontuan hartuta, euskararen erabilera normalean % 90etik gorakoa izango zen.

XVIII. mendeko Bergarako biztanleen banaketa sozio-profesionala ezagutzeko, Floridablankaren erroldak emandako datuak ditugu, nahiz eta errolda horrek, gure helbururako balio ez diguten estamentu-irizpideak erabiltzen dituen azterketa egiteko. Nolanahi ere, 1787an “biztanleria aktiboa” honela osatua egongo zen: % 32,2 nekazariak (“*labradores*”) (segur aski gehienak nekazari errentariak); % 15,3 morroiak (“*criados*”) (horien artean egongo lirake zerbitzariak eta nekazaritzako eskulan subsidiarioa); % 4,7 jornalariak eta % 5 artisauak. Ospitalean zeuden gaixoen % 0,3a ere sar genezake menpeko-taldean artean. Hau da, gutxienez % 57,6 “klase herrikoietakoak” ziren, ehuneko oso altuan euskal elebakarrak izango zirenak. Kapare (“*Hidalgo*”) gisa agertzen direnak (% 29,9) lurjabe handiak eta ertainak izango lirake, eta horietako batzuek zuzenean ustiatuko zuten lurra. “Aktiboen” artean kontatu beharko lirake kleroa (% 2,5) eta ikasle, abokatu, militar, irakasle, eskribau, merkatari eta fabrikatzaileen multzoa



Elorregi Domiñena baserria, 1918

ere (guztira % 10). Hau da, biztanleria aktibo “goi mailakoa” % 42,4 izango zen, gehienak elebidunak⁵⁵.

1810ean, badugu beste lan bat, lehen aipatu duguna, Bergarako banaketa sozio-profesionalaren berri ematen diguna: Pablo Fernández Albadalejok moldatua. Autore horren arabera, Bergarako “sektore aktiboa” hiru multzo handitan banatzen zen: lurjabe ustiatzaile zuzenak (% 13,15), lur-lan-gile errentariak (% 48,75) eta “beste batzuk” (% 38,10): zerbitzuen multzoa, artisauak, fabrikatzaileak eta merkatariak, ia guztiak hiri-eremukoak⁵⁶. Datu horiek gehiago xehetuta ez daudenez, ideia nagusi bat baino ezin dugu adierazi, hots, “klase herrikoiek” ia % 60 izaten jarraituko zutela eta klase horietakoen artean euskal elebakartasuna izango zela nagusi.

XIX. mendearen erdialdean, oraindik ere egitura sozio-profesional hori mantentzen zen, eta biztanleria bi zati kasik berdinetan banatzen zen, bakoitza bere parrokia historikoarekin: hiribildukoa (San Pedro) eta landa-gunekoa (Santa Marina).

1857ko errolda egin zenean, udalerria bi sekziotan banatu zen: hirikoa (“*urbana*”) eta landa-eremukoa (“*rural*”); lehenengoak 3.237 biztanle zituen (% 51,3) eta bigarrenak 3.070 (% 48,7). 1857ko datuak aztertzen baditugu, ikusten da biztanleria hirian kontzentratzeko joera nabarmen samar hazi dela XVII. mendearen erdialdekoekin alderatuta, baina oraindik ere joera hori txikia dela, gerora XX. mendean etorriko zenarekin alderatzen badugu. 1658tik 1857ra, hau da, bi mendetan, landa-eremuko biztanleria % 65 izatetik % 48,7 izatera igaro zen. Jarraian ikusiko dugun bezala, ehuneko hori are gehiago murriztu zen 1871 urterako, eta landa-biztanleria % 46,9raino jaitsi zen.

Jurisdikzioaren egoera soziolinguistikoa eza-gutzeko, oso garrantzitsua da zehazki jakitea landa-eremuan bizi ziren biztanleen ehunekoa, hau da, baserrietan bizi zireneka; izan ere, esan bezala, ekosistema horretan zegoen euskal elebakartasunaren benetako babeslekua. 1871ko⁵⁷ errolda (hau da, aztergai dugun garai historikoaren amaierakoa), aztertuz gero, ikus dezakegu bergararren % 43,2 eremu guztiz landatarreko baserrietan bizi zirela; baina horiei gehitzen badizkiegu eremu urbanoko baserrietan bizi zirenak, ateratzen zaigu 1871n biztanleriaren ia erdia zela baserritarra: zehazki, % 46,9. (**III. Taula**). Beraz, hiri-eremuaren eta landa-eremuaren arteko populazio-banaketari dagokionez, ikus daiteke XIX. mendean oraindik ere bi erdi antzekotan zatituta zegoela, aurreko bi mendeetan egiaztatutakoa berretsiz; nahiz eta landa-eremuak pisua galtzeko joera nabarmena izan.

III. Taula. Baserritar biztanlegoaren chunekoa 1871ko erroldaren arabera						
1871ko errolda	Baserrietako gizonezkoak		Baserrietako emakumezkoak		Guztira	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Eremu landatarreko baserritarrak	1.351	22,3	1.260	20,8	2.611	43,2
Eremu urbanoko baserritarrak	114		115		229	
Baserritarrak guztira eta populazio osoarekiko %	1.465	24,2	1.375	22,7	2.840	46,9



Usasti baserri aurrean burdinarearekin lurra lantzen

IV. Taula osatu dugu Bergarako XIX. mendearen erdialdeko hamarkadetako “biztanleria aktiboaren” banaketa sozio-profesionala berreraikitze asmoz. Horretarako, 1857ko zentsuko⁵⁸ eta 1871ko erroldako⁵⁹, datuak erabili ditugu, nahiz eta badakigun bi kontaketen erabilitako metodologiak ez zirela guztiz berdinak izan; ondorioz, litekeena da emaitzak neurri batean desitxuratuak egotea. Irizpide desberdintasunaren adibide gisa, “industrialari” (“*industriales*”) kontzeptua aipa dezakegu: 1857an, termino horrek, industrian lan egiten zuten pertsona guztiak biltzen zituen; 1871n, ordea, kontzeptuak industria-jabeak bakarrik hartzen zituen kontuan. Hortaz, kategoria edo hitz horri dagokionez, bi zenbaketak alderaezinak dira. Gauza bera gertatzen da inprimatzaileekin (“*impresores*”); 1857an inprimariaren jabea (Undiano, kasu honetan) eta bertako langileak agertzen dira inprimatzaile gisa; 1871n, berriz, jabea (Machain) bakarrik. Bi kontaketei eragiten dien beste arazo metodologiko bat emakumeen lanbideak duen tratamendua da; izan ere, emakume ezkonduak inolako lanbiderik gabe agertzen dira normalean “etxeokandrea” kontzeptua erabilita (“*amas de casa*”, “*señora de su casa*”, “*de familia*”), eta, lanbidea aipatzen duten kasuren batean, “bere sexuari dagokiona” edo “sexuari dagokiona” (“*la de su sexo*” edo “*del sexo*”) esapideak erabiltzen dituzte⁶⁰. Etxeaz eta seme-alabez arduratzea atsedenik gabeko lana izan arren, etxeokandreak eginkizuna ez zen lanbidetzat hartzen. Halere, iruditzen zaigu kasu batzuetan ezin dela onartu emakume horien lanbiderik ez jasotzea. Esaterako, ez da onargarria gizonezkoak nekazari (“*labrador*”) gisa agertzea eta euren emazteak inolako jarduera profesionalik gabe agertzea. Argi dago ia kasu guztietan emakumeek ere egingo zutela baserriko lanaren zati handi bat, etxeokandreak garbiketaz, janariaz eta ume-hazkuntzaz arduratzeaz gain, eta, beraz, bidezkoa litzateke nekazaritzat hartzea. Beste horrenbeste esan behar da ostalarien eta tabernarien kasuan: senarra agertzen da establezimenduaren titulartzat eta lanbidez tabernari edo ostalari gisa sailkatuta, baina pentsaezina da emakumeek taberna edo ostatu horietako lanetan parte aktiboa ez izatea. Horregatik, nekazarien, ostalarien eta tabernarien emazteak senarren lanbide-kategoria berean kontatu ditugu. Bestalde, 1871ko erroldan, etxe bakoitzeko gizonak bakarrik erregistratu zituzten baserritartzat eta, kasu horretan nekazaritzat hartu ditugu euren emazteak eta hamabost urtetik gorako guztiak. Zerbitzarien kasuan ere erregistratuta agertzen diren guztiak kontatu dira, nahiz eta batzuetan hamaika urte baino ez izan, garai hartan ohikoa baitzen adin horrekin morroi edo neskame lanetan hastea. Kaleko artisauetan, aldiz, lanbidearekin erregistratuta agertzen diren gizonak hartu ditugu kontuan; eta besteak ez ditugu kontatu. Adibidez, etxeokandreak arotz gisa erregistratuta dagoenean, nahiz andrea eta hamabost urtetik gorako seme-alabak izan, horiek ez ditugu arotz modura kontatu.

IV. Taula. Datuak lanbidez lanbide, 1857ko zentsuaren eta 1871ko erroldaren arabera

	Lanbidea	1857						1871					
		Gizonezkoak		Emakumezkoak		Guztira		Gizonezkoak		Emakumezkoak		Guztira	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
	Ikasleak	225	6,6	112	3,3	337	9,9	44	1,5	74	2,4	118	3,9
	Elizari lotuak	20	0,6	56	1,6	76	2,1	26	0,9	73	2,4	99	3,3
Klase Menderatzaileak	Jabeak	28	0,8	37	1,1	65	1,9	23	0,8	39	1,3	62	2,1
	Hezkuntza	40	1,2	0	0,0	40	1,2	28	0,9	1	0,0	29	0,9
	Herri zaintza	29	0,8	0	0,0	29	0,8	23	0,8	0	0,0	23	0,8
	Merkatariak	17	0,5	2	0,1	9	0,6	14	0,4	8	0,3	2	0,7
	Epaitegiak	15	0,4	0	0,0	15	0,4	18	0,6	0	0,0	18	0,6
	Teknikoak	9	0,3	0	0,0	9	0,3	17	0,5	0	0,0	17	0,5
	Osasungintza	6	0,2	1	0,0	7	0,2	11	0,4	0	0,0	11	0,4
	Jostunak-Sastreak	8	0,2	0	0,0	8	0,2	8	0,3	0	0,0	8	0,3
	Industrialak-inprimatzaileak	10	0,3	0	0,0	10	0,3	5	0,2	1	0,0	6	0,2
	Enpleguak/ Ofizialak	0	0,0	0	0,0	0	0,0	7	0,2	0	0,0	7	0,2
	Eskribauak/ Idazkariak	4	0,1	0	0,0	4	0,1	4	0,1	0	0,0	4	0,1
	Politika eta arteak	3	0,1	0	0,0	3	0,1	3	0,1	0	0,0	3	0,1
	Erretiratuak	2	0,1	1	0,0	3	0,1	2	0,1	0	0,0	2	0,1
	GUZTIRA KLASA MENDERATZAILEAK	415	12,1	210	6,1	625	18,2	233	7,7	196	6,5	429	14,2
Menpekoen klaseak	Lehen sektorea	842	24,6	664	19,4	1506	44,0	844	28	837	27,8	1681	55,8
	Artisauak	260	7,6	26	0,8	286	8,4	265	8,8	48	1,6	313	10,4
	Fabrika langileak	330	9,6	149	4,3	479	14	153	5,1	47	1,6	200	6,7
	Zerbitzariak	104	3,0	225	6,6	329	9,6	40	1,3	152	5,0	192	6,3
	Ehungintza/Oihalgintza	4	0,1	58	1,7	62	1,8	0	0,0	74	2,5	74	2,5
	Ostalaritza	28	0,8	6	0,2	34	1,0	21	0,7	16	0,5	37	1,2
	Errotariak	7	0,2	9	0,3	16	0,5	17	0,5	4	0,1	21	0,6
	Zerbitzu publikoak	3	0,1	0	0,0	3	0,1	16	0,5	0	0,0	16	0,5
	Garraioa	12	0,4	2	0,1	14	0,4	14	0,5	0	0,0	14	0,5
	Garbitzaileak	0	0,0	8	0,2	8	0,2	0	0,0	11	0,4	11	0,4
	Bestelakoak	1	0,0	0	0,0	1	0,0	6	0,2	2	0,1	8	0,3
	Dendariak	4	0,1	3	0,1	7	0,2	1	0,0	4	0,1	5	0,2
	Harakinak	4	0,1	0	0,0	4	0,1	4	0,1	1	0,0	5	0,2
	Zigarrogileak	4	0,1	0	0,0	4	0,1	1	0,0	2	0,1	3	0,1
	Inudeak	0	0,0	1	0,0	1	0,0	3	0,1	1	0,0	4	0,1
	Gartzelako presoak	15	0,4	9	0,3	24	0,7						
	Ospitalean jasoak	10	0,3	13	0,4	23	0,7						
	MENPEKOAK GUZTIRA	1628	47,5	1173	34,2	2801	81,8	1385	46,0	1199	39,8	2584	85,8
	DENERA	2043	59,6	1383	40,4	3426	100	1618	53,7	1395	46,3	3013	100

Aipatu ditugu IV. taulako datuek dituzten mugak, baina pentsatzen dugu, beti ere modu oso orokorrean ulertuta, balio dezakeela ikerketa honen azken helburuari begira, batez ere, “hiri-lanak” (“*urbanos*”) egiten zituztenak eta “baserri-lanak” (“*rurales*”) egiten zituztenak bereizteko. Lehenengo taldekoak ustez alfabetatuak ziren eta gaztelania zekitenak; bigarrenekoak, berriz, nagusiki alfabetatugabeak eta euskal elebakarrak.

Hiribilduan bizi ziren hiri-giroarekin zerikusia zuten ofizioak edo lanbideak zituztenak, gizonezkoetan honakoak: txokolategileak, inprimatzailak, igeltseroak, abokatuak, jabeak, tindatzaileak, gozogileak, dendariak, ehuleak, merkatariak, militarrek, irakasleak, zapatairiak, arotzak eta ebanistak, jostunak, ostalariak, ikasleak, seminarioko ikasleak, okinak, morroiak, orgariak, musikariak, mandazainak, apaizak, enpleguatuak, zirujauak, pintoreak, kotxe-gidariak, arkitektoak, kapelagileak, harakinak (“*cortadores*”), tratulariak, peoiak, medikuak, letoigileak, kafe-txigorleak, mikeleteak, maisuak, industrialak, langileak, harginak, sukaldariak, kardariak, aulkigileak, aterkigileak, errementariak, koltxoigileak, dendariak, kinkila-saltzaileak, idazleak, epaileak, lorezainak, karabineroak, guardia zibilak, eskribauak, jabeak,



Errotaria

albaitariak, erroterariak, maisu-postariak edo postilloiak, eta, hauetaz gain, ospitalean jasotakoak eta kartzelako presoak. Emakumeen ofizioen artean, berriz, honakoak ageri dira: ostalariak, sukaldariak, neskameak, jostunak, ikasleak (“*educandas*”), zerbitzariak, inudeak, mojak, zigarrogileak, garbitzailak, espartingileak, gobernu-andreak eta iruleak.

Landa-eremuan (Santa Marina parrokia osoa eta San Pedroko zenbait gunek), gehien-gehienak nekazari (“*labradores*”) gisa agertzen dira, beste batak batzuk jornalaritzat (“*jornaleros*”) eta, noizean behin, agertu ohi da ortuzain (“*hortelano*”) edo lorezainen bat (“*jardinero*”).

XIX. mendearen amaiera aldera iritsita ere, landa-munduaren eta hiri-munduaren arteko kontraste handia mantendu egiten eta, neurri batean, areagotu ere egin da. Landa-mundua, oso garapen eta dibertsifikazio-maila apalekoa; hiria aldiz, gero eta konplexuagoa eta espezializatuagoa. Orokorrean, esan dezakegu Bergarako biztanleria aktiboaren gehiengoak lehen sektorean jarraitzen duela oraindik.

Ofizio- eta lanbide-multzo zabala honako kategoria hauetan antolatu dugu:

- *Ikasleak*.
- *Elizari lotuak*: kapilauak, sakristauak, serorak, maisuak, abadeak, mojak, monagiloak.
- *Jabeak*: hiri-jabeak eta landa-jabeak, arotzak, errementariak, tabernariak, gozogileak, igeltseroak, komertziantek, arkitektoak, kotxeroak, errentatzaileak, ehuleak.
- *Hezkuntza*: katedratikoak, maisuak, maistrak, irakasleak.
- *Herri zaintza*: mikeleteak, guardia zibilak, militarrek.
- *Merkatariak*: merkatariak, bidaiari-saltzaileak.

- *Epaitegiak*: fiskalak, prokuradoreak, erregistratzaileak, epaileak, abokatuak, enplegatu edo langileak, ofizialak, notarioak.
- *Teknikoak*: arkitektoak, lur-neurtzaileak, obra-maisuak, kimikariak, telegrafistak, makinistak, delineatzaileak.
- *Osasungintza*: zirujauak, botikariak, sendagileak, albaitariak, praktikanteak, erizainak.
- *Industrialak*: Inpresoreak, fabrika-jabeak, zigarro-enpresetako jabeak.
- *Lehen sektorea*: Nekazariak, ortuzainak, lorezainak, ikatz-saltzaileak, arrantzaleak.
- *Artisauak*: igeltseroak, espartingileak, ofizio-ikastunak, galtzagileak, galdaragileak, harginak, arotzak, sarrailagileak, saskigileak, larru-zurratzaileak, grabatzaileak, ebanistak, errementariak, forjariak, iturginak, ferratzaileak, koltxoigileak, margolariak, okinak, aulkigileak, ehuleak, tindatzaileak, zapatariak, papergileak.
- *Zerbitzariak*: morroiak, neskameak, zerbitzariak, giltzazainak.
- *Ehungintza*: jostunak, lisatzaileak, gorulariak, enkajegileak; guztiak emakumeak.
- *Ostalaritza*: ostalariak, tabernariak, txokolategileak, gozogileak, sukaldariak, kafe-saltzaileak.
- *Zerbitzu publikoak*: gauzainak, danbolinjole edo txistulariak, telegrafo ordenantzak, ardo saltzaileak, kale- garbitzaileak, bidezainak, aguazilak, lurperatzaileak.
- *Garraioa*: zamaketariak, kotxe-gidariak, gidarien arduradunak.
- *Bestelakoak*: txatarra saltzaileak, bizarginak.



Jostunak

Talde sozio-profesionalak bi multzo handitan banatu ditugu, eta ez hainbeste haien botere ekonomiko edo sozialari begira (nahiz neurri batean hori ere kontuan hartu dugun), baizik eta haien heziketa-mailari. Alde batetik, gizartean boteretsuak diren taldeak ditugu, ikasketak dituztenak eta, zalantzarik gabe, gaztelania dakitenak: ikasleak, irakasleak, diplomatikoak, telegrafistak, abokatuak, epaileak, elizgizonak, lekaimeak, eta abar. Bestetik, aginpiderik ez duten menpeko taldeak, ikasketa-maila apala dutenak eta neurri handi batean euskal elebakarrak direnak: nekazariak, artisauak, langileak, morroiak eta abar. Bada, 1857ko erroldaren arabera, biztanleria aktiboa 3.426 pertsonakoa zen, eta horietatik % 18,2 ziren “menderatzaileen” taldekoak, eta % 81,8, “menpekoen” taldekoak. 1871n, berriz, Bergarako helduen biztanleria aktiboa 3.013⁶¹ lagunek osatzen zuten, eta horietatik % 14,2 baino ez ziren lehen multzokoak, eta % 85,8, bigarrenekoak. Nahiz eta datuok 1787ko Floridablancaren erroldarekin alderatzea ez den guztiz bideragarria, bi zenbaketak burutzeko erabili ziren irizpideak ezberdinak izan zirelako, erabat harrigarria da “klase menderatzaileen” eta “mendekoen” arteko aldea zenbateraino areagotu zen Floridablancaren erroldatik azken bi erroldetara bitartean. Gogora dezagun Floridablancarenean multzo bakoitzaren pisua % 42,4koa eta % 57,6koa zela. Egia da zenbaketa batetik bestera ia mende bat igaro zela eta tarte horretan jabegoaren kontzentrazioa gertatu zela, eta nolabaiteko proletariotze-prozesu bat ere hasi zela, eta horrek klase-herrikoien multzoa handitzea eta boteretsuena murriztea ekarri zuela. Alabaina, uste dugu aldearen arrazoi nagusia 1787ko errolda egitean erabili ziren irizpide estamanteletan datzala. Izan ere, errolda hartan nekazaritza-ustiapen txiki baten jabe ziren asko kapare (“*hidalgo*”) gisa zenbatu ziren, 1871n laborari gisa jaso ziren bitartean. Horregatik guztiagatik, uste dugu 1857ko zentsuko eta 1871ko erroldako sailkapen sozio-profe-



Saskigileak

sionalek askoz hobeto islatzen dutela Bergarako errealtate soziala, eta, beraz, baita linguistikoa ere.

Gogora dezagun, aurrez esan dugun moduan, klase herrikoietan, batez ere, baserritarren artean, gehien-gehienak alfabetatugabeak zirela: eskolara sekula joan gabeak, eta, ondorioz, gaztelania ikasteko ere oso aukera gutxi izandakoak. Hori dela eta, euskal elebakarren gehiengoak kategoria sozial horietakoa zen. Horrenbestez, eta 1857-1871ko banaketa sozio-profesionalak aintzat hartuta, esan dezakegu populazioaren % 81,8 eta % 85,8 bitartean (klase herrikoien multzoa osatzen zutenak) euskal elebakarrak izango zirela edo gaztelaniaz zerbait jakin arren, dudarik gabe, euskara erabiltzeko zutela eguneroko bizitzan. Gainera, erabilera indizea are altuagoa izango zen bi arrazoigatik: alde batetik, elebidun gehienek, euskaraz gaitasun erlatibo hobea zutelako; eta bestetik, euskal elebakarrek ingurukoak ere euskaraz egitera behartzen zituztelako, komunikazio-premiak hala eskatuta.

Kolektibo sozial jakin batzuek zuten eragin linguistikoa baloratze aldera, bi multzo aztertuko ditugu: ikasleak eta nekazariak. Lehenengoei dagokienez, ez dago zalantzarik denek jakingo zutela gaztelaniaz hitz egiten, eta asko latinez edota frantsesez ere moldatuko zirela. Bergarako ia ikasle guztiek euskara izango zuten ama-hizkuntza, baina



Arropa garbitzaileak



Ikaslea

kanpotik etorritakoetan izango ziren euskaraz ez zekitenak ere. Ikasleek multzo jendetsua osatzen zuten Bergaran: biztanleria aktiboaren % 9,9a 1857 urtean, eta % 3,9a 1871n⁶². Horri irakasleena gehituz gero, hezkuntza munduko biztanle aktiboak, populazio aktibo osoaren % 11,1 ziren 1857an eta % 4,8a 1871n. Datu horiek erakusten dute zein eragin handia izan zuten Bergaran Errege Mintegiak eta Mariaren Lagundia bezalako erakundeek. Bestalde, beste muturrean zegoen nekazarien multzoa. Esan bezala, dauzkagun datu guztiek adierazten dute urte haietan oraindik ere ehuneko oso altuetan alfabetatugabeak eta euskal elebakarrak zirela, batez ere emakumeen artean. Nekazariak biztanleria aktiboaren % 44 ziren 1857an eta % 55,8a 1871 erroldan. Ezinezkoa da ziurtasunez kuantifikatzea nekazari horietatik eta gainerako klase herrikoietatik zenbat ziren gazte-leraz ikasiak eta zenbat euskal elebakarrak, baina, nolanahi ere, badakigu artisauen zati handi bat eta nekazarien gehiengoa bigarren kategoria horretakoak zirela.

II.4 - Kanpotarren presentzia

Kanpotarren kasuan, ez da gauza bera bidaian etorri eta gau bat edo bi posadetxe batean lotan ematea, edo ezkondu eta bertan bizi izaten geratzea.

Duela urte batzuk, ia ziur euskaraz jakingo ez zuten kanpotarren presentzia neurtu nahi izan nuen eta, horretarako, Bergaran 1674 eta 1825 bitartean ezkonduetakoen lagin bat jaso eta euren jaioterria aztertu nuen. Eraitza hauze izan zen: epe horretan, gizonetsoen % 1,1 eta emakumetsoen % 0,2 Espainiako erresumako beste leku batzuetatik etorriak ziren eta gizonetsoen % 0,6 atzerritarrek. Hortaz, Euskal Herriatik kanpo jaiotak —eta, ondorioz, seguruene euskaraz hitz egiteko eta ulertzeko gaitasunik ez zutenak— ez ziren % 2ra iristen. Horri beste datu bat ere gehitu behar zaio: kanpotar horietako asko horren testuinguru euskaldunean euskara ikastera iritsiko zirela denborak aurrera egin ahala. Ezkonberrien ehuneko txiki bat Gipuzkoaz besteko euskal lurraldeetan (Bizkaian, Araban, Nafarroan eta Lapurdin) jaiotakoa zen: gizonen % 4,4 eta emakumeen % 2,5, eta horietako gehienak euskaldunak izango ziren. Dena den, pentsatzekoa da haietako gutxi batzuk erdaldunak ere izango zirela. Baina Bergaran ezkonduetako gehienak herrian bertan edo udalerri mugakideetan jaiotak ziren, alegia, Bergara bera bezain euskaldunak ziren herrietakoak: Eibar, Elgoibar, Soraluze, Elgeta, Elorrio, Arrasate, Oñati, Antzuola edo Azkoitia. Zehazki, emakumeen % 90,5a eta gizonen % 86,6a⁶³. Bergara bakarren batek (edozein kasutan ere oso gutxi), euskaraz ez jakitea gerta zitekeela onartuta ere, ia seguru esan dezakegu helduen % 95ek euskara izango zuela ama-hizkuntza.

XVII. eta XVIII. mendeetan zehar Frantziarekin izandako gerren testuinguruan, Espainiako monarkia behin eta berriz arduratu zen atzerritarren kontrolaz, bereziki bere mugen barruan bizi ziren frantsesenaz. Horrela, udalerriak atzerritarren matrikula-liburuak eramatera behartu zituen, alegia erresuma arrotzetako biztanleak (“*habitadores de reinos extraños*”) erregistratzera. Hori dela eta, 1643an frantsesen erregistro bat egiteko agindua jaso zen Bergaran⁶⁴. Era berean, 1650ean ofizio bat iritsi zen Probintziak 1648az geroztik gai horren gainean ezarritako xedapenei buruzkoa. Kontrol horiei esker, une historiko jakin batzuetan Bergaran bizi ziren atzerritarren kopuruaren inguruko ideia bat izan dezakegu. Hala ere, frantsesei dagokienez, guri ez zaigu interesatzen haien nazionalitatea jakitea, baizik eta haien hizkuntza-gaitasuna. Izan ere, frantses (“*franceses*”) gisa agertzen dira Iparraldeko pertsona asko, gehienak Bergarakoak bezain euskaldunak izango zirenak, eta, beraz, informazioa oso zalantzazkoa da, ez delako zehazki jaioterria adierazten. Are gehiago, esan genezake, Bergaran “frantses” gisa agertzen diren gehienak Iparraldeko euskaldunak direla. Hona hemen horietako batzuk: 1663an, Lorenzo Agirre eta Martin Etxegarai⁶⁵; 1670ean, Joanes Arrozaín, Juanes Oihanart, Lorenzo Landalde, Joanes Fagaldai, Pedro Landaburu eta Joanes Gastanbide; 1744an, Martin Bidarte teilagina eta Juan Anglada kapelagilea [Angelu]; 1745ean, Thomas Urkodoi harakina eta haren emazte Maria Esteban Aranburu; 1761ean, Pedro eta Jose Larraburu eta Juan Arron; 1786an, Juan Abaunz eta Beltran Arretxe; 1781 eta 1785 artean Bergaran bizi izan ziren Elhuyar anaiak ere, Logroño jaio arren Hazparnekoak zirenak; 1801ean, Juan Letetxiapi apaiza, eta abar. Esan genezake, beraz, Bergaran beti egon izan zela Iparraldeko euskaldunen kolonia handi samarra.

Une zehatz batean, ordea, “frantsesen” matrikula horiek zehaztasun handiagoz jaso ziren, jaioterria aipatuz. Horrek, Iparraldekoak ziren ala ez bereizteko aukera ematen digu, baina ez hori bakarrik,

zenbaitetan hitz egiten zuten hizkuntzari buruzko informazioa ere agertzen baita. Frantzia eta Espainiaren arteko gerraren aurreko giroan, 1791ko uztailaren 21ean, Errege Zedula bat argitaratu zen, zeinak udalerriak behartzen baitzituen Erresumako herrietan bizi ziren frantziar herritarren zenbaketa egitera. Zenbaketak oso zehatza izan behar zuen, eta fitxa-eredu bat ere eskaini zitzaaien herriei, honako datu hauek jasotzen zituen: izena, aberria, egoera zibila, seme-alaba kopurua, emazteen izena eta aberria, erlijioa, lanbidea, Espainiako Erresumetan egondako urteak, bizi ziren herria eta herritartuta zeuden edo pasokoak ziren. Zorionez, Espainian bizi zen “frantses” bakoitzaren jaiotza-herria erregistratuta dago. Bergaratik berehala bete zuten agindua⁶⁶ eta emaitza **V. Taulan** agertzen dena da:

V. Taula. Bergaran 1791n bizi ziren “Frantsesak” ⁶⁷							
Izena	Aberria	Egoera	Emaztea	Semealaba kopurua	Lanbidea	Herrian bizitako denbora	Sinadura
Claudio Duille Jauna	Albin (St. Albin)	Ezk.	Fª Mª Orue, Zornotzakoa		Esgrima maisua	22	Bai
Jose Iriarte	Hazparren	Ezk.	Dominica Iriarte, Ezpeletakoa	3	Larru-Zurratzaile	17	Ez eta Ez
Juan Carrera	S. Lorenzo (St. Laurent-Saona)	Ezk.G.			Okina	9	Ez
Juan Garaikoetxea	Sara	Ezk	Maria Irigoiti, Sarakoa	1	Harakina (“cortador”)	37	Ez eta Ez
Luis de Lurina (Lurine)	Saint Sabin (Occitania)	Ezk.G.			Okina	2	Bai
Fº de Garraus	Arguinoz (Goi- Garona)	Ezk.	Mª Jesus Garaikoetxea Bergarakoa	1	Galdaragile	14	Ez
Domingo Iribarrondo	Larresoro	Ezk	Graziana Krutzeaga, Larresorokoa	3	Teilagin	30	Ez eta Ez
Pedro Iriarte	Ezpeleta	Ezk.G.			Larru-Zurratzaile	5	Ez
Santiago Langidart	Heleta	Ezk.	Juana Aª Sarasola, Lazkaokoa	3	Ile-apaintzaile	20	Bai
Juan Lasabe	Heleta	Ezk.G.			Ile-apaintzaile	2	Bai

Denak katolikoak ziren eta Bergaran bizi ziren. Erregistroaren arabera, guztira hamahiru pertsona “frantses” ziren: hamar gizon eta hiru emakume. Seme-alabek ez zuten kontatzen, Bergaran jaioak zirelako eta, beraz, ez zutelako nazionalitate frantsesik. Hamar gizonetatik lau bakarrik ziren benetan frantsesak, eta beste seiak, berriz, euskaldunak, hiru emakumeak bezala. Hau da, hamahiru horietatik lau baino ez ziren benetan frantsesak. Gizon guztiek ofizioaren batean jarduten zuten, inork ez zuen lurra lantzen. Eta baziren bi lanbide lapurtarrak bereziki trebeak zirena: teilagintza eta galdaragintza. Horren lekukotza zabala agertzen zaigu Gipuzkoan, oro har, eta Bergaran, bereziki. Alfabetatzearen ikuspegitik, hiru emakumeetatik batek ere ez zuen sinatu eta hamar gizonetatik seik ere ez. Guztira, laginaren arabera, % 69,2 zen alfabetatugabea, garai berean dokumentazio prozesalak Bergararentzat emandako kopuruaren antzekoa (Ikus **X. Taula**).

Hamahiru pertsona horietako bakoitzari Espainiako erregearekiko leialtasun-zina egitea eskatu zitzaion, Bergaran bizitzen jarraitu nahi bazuten; eta jakinarazpenetatik hizkuntza-informazio oso interesgarria atera daiteke. Izan ere, eskribauak, Errege Zedula jakinaraztean, bakoitzak zekien hiz-



Kanboko teilaginak

kuntzan jakinarazi zion: “*explicándoles en Lengua castellana, y Bascongada, según el Idioma que cada uno de ellos profesa, quienes enterados de las insinuadas R.^l Cedula...*”. Hala, Domingo Iribarrondo eta Graziana Krutzeaga senar-emazteei euskaraz jakinarazi zien: “*y dando a entender en su idioma Bascongado*”. Francisco Garrausi, aldiz, “*en lengua castellana*”. Langidart eta Lasaberi, bati euskaraz eta besteari gaztelaniaz: “*dándoles a entender su contenido, en lengua castellana y Bascongada, de manera que pudiesen comprender a toda su satisfacción*”. Beraz, bata euskal elebakarra zen eta besteak gaztelania ikasia zuen. Pedro Iriarteri: “*dándole a entender en lengua Bascongada*”. Hau da, “frantses” horietakoren batek gaztelania ikasi zuen, eta beste batzuek, berriz, euskaldun elebakarrak izaten jarraitzen zuten. Kasu batzuetan ez da argi geratzen gaztelaniaz edo euskaraz aditzera ematen zaien, baina gutxienez bost kasutan ziurra da iparraldeko “frantses” horiek Bergarakoak bezain euskaldunak (“*bascongados*”) zirela. Argi dago Iparraldeko euskaldun guztiak euskaldunak zirela eta gehienek Bergaran bizitzen urte asko zeramatzaten arren, ez zutela gaztelania ikasi, jakina, mundu guztiarekin euskaraz jardun zezaketelako. Frantsesek, ordea, botere hizkuntza ikasi zuten: gaztelania. 1793ko martxoaren 25ean, Espainiako erresumetan aldi baterako bizi ziren frantsesak erbesteratzeko beste Errege Agindu bat argitaratu zen, eta Bergaran 1791ko zerrenda bera aplikatu zen.

Dirudienez, XVII. mendetik XIX. mende hasierara bitartean, 1674-1825 urte-tartean, ez-euskaldunen presentzia nekez izango zen aipatutako % 4a baino handiagoa (ikus 59. oharra). Noizean behin, leku exotiko samarretatik etorritako jendea agertzen da dokumentazioan: adibidez, Cristobal Ferreira izeneko lapur portugaldarra, 1696an; Antonio Joseph Albes Braga eta Antonio Joseph Albes de Sousa botoi-saltzaile portugaldarrak, 1776an; On Thomas Offin apaiz irlandarra, 1784tik 1790era; edo Fortunato de Corsini jabe

poloniarra, 1810ean. Lan honetako beste toki batean adierazi den bezala, Bergaran beti izan ziren herritar frantziarrak (Iparraldekoak aparte utzita), hala nola Pierre-François Chabaneau kimikaria (1778tik-1783ra) edo Claudio Duille esgrima maisua (1769tik 1793ra, gutxienez). Printzipioz, 1840tik aurrera, Bergarako gizartea hiritarragoa eta konplexuagoa bihurtuko zen, eta uste izatekoa da euskaraz hitz egiteko gai ez ziren kanpotarren ehunekoak gora egingo zuela. Horregatik, 1871ko errolda zehatzago aztertu dugu, kanpotar horien jaioterria zehatz-mehatz ikusteko (**VI. Taula**). Irizpideak finkatzean, atzerritarrak, Cartagena, Rouen edo Manilako pertsonak ez-euskalduntzat hartu ditugu. Zalantza handiagoa sortu zaigu Euskal Herrian baina euskaraz oso gutxi edo batere hitz egiten ez zen herrietan jaiotakoekin; eta horiek erdalduntzat hartu ditugu, nahiz eta batzuetan huts egin dezakegun. Hala, herri hauetakoak ez-euskalduntzat hartu ditugu:

- Lapurdikoa: Baiona.
- Nafarroakoak: Tuter, Mendaza, Marañon, Azkoien, Iruñea, Lizarra, Funes, Ziritza, Zarrakaztelu, Tafalla, Deikaztelu eta Lukin
- Arabakoak: Gasteiz, Antxilla, Argandoña, Gesaltza Añana, Antezana, Mendibil, Antoñana, Otazu eta Aletxa.

Estatuko beste eskualde batzuetatik etorritakoak, batez ere inguruko probintzietakoak ziren: Errioxakoak (Logroño, Ausejo, Arnedillo, Munilla, Tricio, Pedroso, Ledesma, Viguera, Rodezno, Casa la Reina, Villalba, Ezcaray eta Navarrete); Kantabriakoak (Santander, Castro Urdiales, Limpas, Entrambasaguas, Vega del Pas); edo Burgoskoak (Burgos, Bureba, Santa Olalla, Ayuelas, Villaldemiro, Bribiesca). Baina urrutia gotik iritsitako batzuk ere baziren: Astudillo (Palentzia), Oviedo (Asturias), Ourense, Vigo edo Lugo (Galizia), León, Ciudad Rodrigo (Salamanca), Valladolid, Madril, Zaragoza, Guadalajara, Ciudad Real... eta baita Bartzelona, Requena (Valentzia), Castelló, Mallorca, Torrevieja (Alacant), Sevilla, Cádiz, Malaga edo Cartagenatik (Murtzia) ere. Aldiz, ez da Extremaduratik eta Kanarietatik etorritako kanpotarrik agertzen. Bergaran bizi ziren atzerritar urriek dagokienez, Bergarak merkataritza-harremanak zituen tokietatik zetozen, hala nola, Rouendik edo Filipinetatik eta, jakina, Hego Amerikako herrialdeetatik. Horrela, dokumentazioan agertzen dira frantses batzuk (Normandia, Rouen, Lot, Calvados, Lyon, Picardia), baita Manilakoren bat ere, Bohemiako bat, “Mesopotamiako” beste bat (Serapio Abdaláa); eta, jakina, Mexiko, Guatemala, Kuba, Uruguai, Perú, Puerto Rico eta Venezuelako amerikar dezente.

VI. Taula. Euskara ez dakitenen kopuruak 1871ko erroldaren arabera	
Gizakume euskaldunak	2.713
Emakume euskaldunak	3.088
Euskararen eremutik kanpoko gizakumeak	101
Euskararen eremutik kanpoko emakumeak	108
Atzerriko gizakumeak	26
Atzerriko emakumeak	27
Atzerritarren %	% 0,9
Euskaraz ez dakiten gizakumeak	127
Euskaraz ez dakiten emakumeak	135
Euskaraz ez dakitenak guztira	262
Euskaraz ez dakiten gizakumeak gizarte osoarekiko	% 2,2
Euskaraz ez dakiten emakumeak gizarte osoarekiko	% 2,3
Euskaraz ez dakitenen %	% 4,5

Guztira, atzerritarren ehunekoa anekdotikoa zen, % 0,9koa; eta ustez euskaraz jakingo ez zuten guztien proportzioa, berriz, % 4,5ekoa izango zen; Euskal Herriko herri erdaldunduetatik etorritakoak ere kontatuta. Litekeena da, garai hartarako, Bergaran sortutakoren batek ere euskaraz ez jakitea, baina, izatekotan ere, salbuespenak izango ziren, eta horrek ez zukeen ehuneko orokorra aldatuko. Ondorioz, 1871n, euskaraz ez zekitenak % 5etik behera izango ziren; praktikan, XVII. mendetik XIX. mende hasierara bitarteko kontaketen ikusi ditugun proportzio berak. 1871ko erroldan beste datu interesgarri bat ere ageri da, Bergaran finkatutako kanpotarren generoari dagokiona: kopuruetan praktikan ez dago alderik gizakumeen eta emakumeen artean; aurretik, ordea, gizonezkoak askoz gehiago izaten ziren.

III. Euskal elebakartasuna

Iztuetak bere *Guipuzcoaco Condaira*-n (1847) zioenez, Gipuzkoak bere garaian zituen 120.000 biztanleetatik, gutxienez 100.000 euskal elebakarrak ziren. Hau da, % 83,3a.

Provincia labur onetaco mugapean contatcen dira eun ta oguei milla arima beza-latsu; oetatic eun milla bederic izango dira Euscara beste itzcuntzaric ezdaquitenac: gañerontceco oguei milla-etan beguira izan ezlitezquean erdiac baino gueiago, Eus-cararen ugazume etorqui arrotz, nongoac eta noren odolecoac diran berac ere ez da-quitenac, eta azquenengo amar milla-etan ere izango dira guichienaz sei millaraiño, Euscaraz charqui, eta gaztelaniaz gaizqui itzeguiten dutenac, beren buru arroac guizon andi ta jaquintsu eguiteagatic⁶⁸.

Ezaguna da Iztuetaren hiperbolerako eta gehiegikeriarako joera eta, beraz, zifra egon daiteke puztuta; baina badugu beste balorazio bat, 32 urte geroagokoa, portzentaje hori baieztatzen duena. Ladislao Belaskok 1879an egindako *Los euskaros en Álava, Guipúzcoa y Vizcaya* ikerlanean dioenez, Gipuzkoako 176.000 biztanleetatik 170.000 euskaldunak ziren, eta horietatik 140.000 elebakarrak. Hau da, gipuzkoarren % 96 euskalduna zen eta % 79,5 euskal elebakarra⁶⁹. Bi egileen datuen artean 3,8 puntuko jaitsiera dago euskal elebakarren ehunekoari dagokionez, eta horrek ez dirudi gehiegi kontuan hartuta probintzian euskararen egitura soziolinguistikoa pitzatzen hasia den garai batez dihardugula. Ondorioz, estimazio horiek nahiko sinesgarriak dirudite. Hala ere, 1870eko hamarkada horretatik aurrera gertatuko da, gaztelaniaren ezagutzaren hedapena honako faktoreek bultzatuta: eskolatzearen gorakada (batez ere, emakumeena), derrigorrezko soldadutzaren ezarpena, biztanleria hiriguneetan piltzeko joera, trenaren etorrera, eta industrializazioak eragindako migrazio-mugimendu handiak. Euskal Herriko bazterretan (Araba, Nafarroa eta Zuberoa) gertatzen ari zen euskararen atzerakada linguistikoaren testigantza ugari ditugu. Adibidez, 1868an, Adolphe Joannek honela zioen:

Les gouvernements de France et d'Espagne font tout leur possible pour détruire la langue basque, si bien que de 840.000 Basques environ qui habitent les deux pays, 500.000 seulement continuent à parler leur langue natale. M. Francisque Michel, dit même que depuis 25 ans, cet idiome a perdu huit lieues de territoire dans la Navarre espagnole⁷⁰.

Hau da, Espainiako eta Frantziako gobernuek beren hizkuntza nazionalak Euskal Herrian ezartzeko ahalegin guztiak egin arren, eta lehen karlistada amaitu zenetik euskarak atzera egin zuela onartuta ere, Euskal Herriko biztanle guztien % 60k oraindik ere euskaraz hitz egiten zuen. Gaztelaniak Nafarroan eta frantsesak Zuberoan izandako aurrerapenaren berri ematen zaigu, baina ez dago Gipuzkoari buruzko aipamen txikienik ere; izan ere, artean, bertako biztanle gehien-gehienak euskaldunak ziren, eta horietatik hiru laurden inguru, gutxienez, euskal elebakarrak.

III.1 - **Euskal** elebakarrak Bergaran

Ez dago inongo zalantzarik aztergai dugun garai historikoan bergararren artean euskal elebakarren ehunekoa oso altua zela. Arazoa ehuneko hori kuantifikatzerakoan sortzen da. Noizean behin, dokumentazio historikoan agertzen dira elebakartasun-kasuei buruzko ebidentziak, beti klase herrikoietako jendearekin eta bereziki nekazariekin eta emakumeekin lotuak. Adibidez, 1704an, Gaspar Askargorta ikasleak Joseph Etxagarai hil zuen dueluan, eta hori dela eta zabaldu zen auzian, duelua gertatu zen erro-taren inguruko baserritar batzuek (maizterrak eta morroiak) deklaratu zuten. Askargorta eta Etxagarairen arteko borroka ikusi zuen lekukoetako batek, Juan Alaiza Bergarako herritarrak, adierazi zuen elkarri helduta ibili zirela, baina bata besteari esandakoa ezin izan zuela ulertu, euren artean gaztelaniaz hitz egin zutelako eta berak gaztelania ez zuelako ulertzen.

... y después de esto vio una rebolucion y los dos Joseph de Echagaray y Gaspar de Ascargorta entre ellos habían hablado en Lengoa Castellana cosa q. no pudo oírles por no entenderlas⁷¹.

Gogoratu behar da Askargorta ikaslea zela Jesusen Lagundiaren Ikastetxean eta “familia oneko” semea zela; beraz, ez da harritzekoa gaztelaniaz hitz egitea nahiago izatea, horrek suposatzen zuen prestigioa zela eta.

Beste kasu batean, 1734an, Maria Nicolasa Etxeberriak Gaspar Lonbide koltxoigilearen aurka jarritako estupro akusazioaren auzian, Juan Bautista Muxika aguazilak honakoa aitortu zuen:

Que hace recuerdo, que una de las noches del mes de henero de este presente año, estando el que depone en la Casa Posada de esta villa en compañía de su Merced (Alkatea) vinieron á ella ál punto del toque de las Abemarias dos mozos cuios nombres apellidos y patria ignora en compañía de la citada Nicolasa de Echeberria, y le dieron a su Merced queja, diciéndole que al salir de esta Poblacion les habían sacudido algunos mozos junto a la Hermita de Sⁿ Bartolome de esta referida Villa, y mediante a que los tales mozos estuvieron ablando en Castellano con su Merced, no puede asegurar lo que trataron, porque no comprehende el testigo la lengua Castellana, solo si tiene presente que su Merced al ultimo de la combersacion les expreso á los tales mozos a una con la dicha Nicolasa se fuesen a sus casas...⁷².

Badirudi, beraz, gaztelania askorik ez zekiela: alkateak mutilei etxera joateko agindu ziela ulertzeko adina, baina ez askoz gehiago.

Lehenago aipatu dugu 1764ko San Martin jaiak zirela eta Udalak dekretu bat eman zuela kanpotarrak hartzeko beren burua eskaini zuten etxeen ostatu-prezioak arautzeko, eta bertan zazpi erreal eta erdiko gehienezko muga ezarri zuela. Udalak herritarrek Dekretuaren edukia ondo ulertzea nahi zuen, interesatuek aginduaren berri ez zutela alegatu ez zezaten, baina herritar gehienek gaztelaniaz ez zekitenez, udal-eskribauari mandatua eman zion interesdun guztiei jakinarazpen ofiziala helarazteko, eta dekretua (gaztelaniaz idatzia) irakurtzeaz gain, euskarara itzultzeko: “*se haga notorio este decreto por mi el dho. presente ess.^{no} a todos los vecinos que quieran admitir uestpedes prebiniendoles que qualquiera que excediere del citado arreglam.^{to} será castigado severamente y multado*”. Pedro Askargorta Arana eskribaua etxez etxe ibili zen dekretua irakurri eta aditzera ematen, hau da, euskarara itzultzen; eta bizilagunek, esanahiaz jabetuta (“*quienes enterados de su tenor*”), agindutakoa betetzeko konpromisoa hartu zuten. Eskribauak bost egun eman zituen lan horretan, eta egindakoaren berri jasota utzi zuen:

Doi fee de haver ocupado quatro días y medio cavales en las precedentes notificaciones hechas à ciento cincuenta y nueve personas separadamente dándoles à entender en lengua bulgar bascongada todo el contenido del Decreto inserto en el testimonio, que vâ por principio, y à demas medio dia en la extension de todas, y firmè en Vergara à veinte y uno de Agosto de mil setecientos sesenta y quatro⁷³.

“Aditzera ematea” (“*dar a entender*”) esapidea nahasgarria izan daiteke zenbait kasutan. Kasuren batean, baliteke dokumentu baten edo albiste baten edukia “jakinaraztea” edo “komunikatzea” besterik esan nahi ez izatea. Hala ere, esango nuke normalean “*dar à entender en lengua bulgar bascongada*” esamoldearen bertsio laburtua dela, eta “*dar a entender*” hori erabiltzen den guztietan “itzuli” esan nahi dela. Adibidez, Udal Bilkura Itxietan zinegotzi talde aukeratu batek soilik hartzen zuen parte (gizarte-talde nabarmenenetako kideak izan ohi zirenak), eta horietan alkateak albisteak edo gertakariak “jakinarazi” egiten zizkien (“*comunica*”) bertaratutakoei. Aldiz, udal bilkura orokorretan —dozenaka bizilagun biltzen zirenetan— alkateak albiste edo gertakari berberak “aditzera ematen” zituen (“da a entender”). Adibidez, 1709ko abuztuaren 6ko Udaltzatza Orokorrean, honako hau adierazten da:


Y estando asi juntos por ante mi el infraescrito Escriv.^{no} de su Mg.^d del numero y ayuntamiento de esta Villa el dho señor Alcalde dio a entender como Manuel de Aristegui natural de esta villa havia sentado voluntariamente la plaza de soldado...⁷⁴

Era berean, 1763ko martxoaren 1eko Udaltzatza Orokorrak, beste xedapen batzuen artean, Albitsu baserria Suaroan (“*Hermandad de las casas gemadas*”) sartzea onartu zuenean, xedapenen edukia itzuli egin zitzaien batzarkideei: “*y habiendo leído, y dado a entender al aiuntamiento el tenor de dicho Memorial, acordó admitir, y se admitió la referida casa en su hermandad*”⁷⁵.

Alkateak, "aditzera eman" dio Udalbatzar Orokorrari, soldadu baten izen ematea

Antzeko beste kasu bat 1730eko Udal-bilkura batekoa dugu. Bilkuraren helburua haragi-hornidura esleitzea zen, aurrez egindako lau enkanteetan inork ez baitzuen eskaintzarik egin. Egoera ikusita, alkateak udalera bertaratu zirenei gertatutakoaren berri "aditzera eman" zien. Bileran (Kongresuan, ["*El Congreso*"] dokumentuan aipatzen denez), parte hartzen zutenak, ordea, ez ziren edozein; izan ere, alkate, sindiko, errejidore eta gainerako agintariek gain, zenbait bizilagun ere bertaratu ziren, "herriko printzipalenetakoak" eta "Don" tratamendukoak. Baina, azterlan honetako beste atal batean ikusiko den bezala, errejidore izateak ez zuen bermatzen gaztelania jakitea. Horren ondorioz, eta nahiz eta batzarkideen zati handi batek gaztelania behar bezala jakingo zuen seguruenik, alkateak, "aditzera eman" behar izan zuen aztertu beharreko gaia, bertaratutako batzuk euskal elebakarrak zirela ikusita⁷⁶.

Badugu halamoduzko prozedura bat euskal elebakarren ehunekoa kuantifikatzeko, berez oso mugatua dena, baina kasu horien gutxi gorabeherako informazioa ematen diguna. Prozedura horrek notario-agirietan azaltzen diren deklarazioak ditu oinarri; hain zuzen ere, eskribauak eskrituraren testua euskarara itzuli behar izaten ziren adierazpen-egileen kasuak. Izan ere, elizgizonekin batera, beste hizkuntza-bitartekari nagusiak eskribauak izan ziren. Aski ezaguna da dokumentazio ofiziala gaztelaniaz idatzi behar zela legez, adierazpen-egilearen edo eskritura emailearen hizkuntza edozein izanda ere. Horregatik, eskribauak elebiduna izan behar zuen nahitaez, euskal elebakarren adierazpenak edo borondateak ulertu eta eskrituran gaztelaniaz jaso ahal izateko; eta horretaz gain, gero, testua sinatu aurretik, edukia irakurri behar izaten ziren interesdunei, haien onespina lortzeko, eta, jakina, interesduna euskaldun elebakarra bazen, dokumentua uler zezan, hitzez euskaraz jakinari behar zitzaion. Eskribauak hizkuntza-bitartekaritzako lan hori egiten zuen bakoitzean dokumentuan jasota utzi izan balu, elebakarrak



Alkateak "aditzera eman" die Udaltzatzar Orokorre bertaratu direnei lau almoneta egin dituztela haragi-horniduraren inguruan, 1730

detektatzeko tresna paregabea izango genukeen. Zoritzarrez ez da horrela gertatzen: eskribauk ez zuten itzulpenaren berri idatziz jasotzeko betebeharririk, eta oso kasu gutxitan egiten zuten. Hala ere, batzuk detektatu ahal izan ditugu.

Eskribauk jasota uzten dutenean, ez dute normalean "itzuli" terminoa erabiltzen, "aditzera eman" baizik. Kasu batzuetan argi eta garbi adierazten da euskaraz ulertarazi zaiola "*le di a entender en basquence*", "*le di a entender en lengua bulgar bascongada*" edo antzeko beste esamolde batzuk erabiliaz. Baina askotan "*se lo di a entender*" besterik ez da esaten. Ohikoena da ziurtapen hori aurrez egindako deklarazioak berrestean edo osatzean egitea. Izan ere, lekukoak edo adierazpen-egileak lehen aldiz lekukotza eman ondoren, kasu batzuetan, prozesuan zehar, beharrezkoa izaten zen aurretik emandako lekukotza berrestea. Horretarako, eskribauak aurreko deklarazioa irakurtzen zion adierazpen egileari, eta adierazpen hori berresten zuen galdetzen zion. Gaztelania ulertzen bazuen, testu osoa hitzez hitz irakurtzera mugatzen zen eskribaua, "*de verbo ad verbum*" formula erabiliz. Lekukoa euskal elebakarra zenean, itzuli egiten zitzaion. Beste datu interesgarri bat: gaztelaniaz ez dakitenek, normalean, sinatzen ere ez dakite. Hau da, euskal elebakarrak izateaz gain, alfabetatugabeak ere izaten dira.

Edonola ere, kontu handiz ibili behar da "*dar a entender*" esapidea interpretatzerakoan; izan ere, noiz-behinka eskribau batzuek ez dute "itzuli" adierarekin erabiltzen, "azalpena eman" zentzuan baizik, eta, kasu horiek ez digute euskal elebakartasuna neurtzeko balio. Adibide modura, Joseph eta Juan Urbina desordenengatik atxilotu ondorenko prozesua dugu. Lehenengoaren etxean burrundara entzun zen eta aguazilak eta Manuel Enrique Lili Idiakez jauna bertaratu ziren, baina bi protagonistek bertaratu-

takoei aurre egin zieten, eta beste herritar batzuen laguntza behar izan zuten Urbinatarrak atxilotzeko. Kontua da hogeitaz bat pertsonak eman zutela lekukotasuna, horien artean aipatutako Manuel Enrique jaunak. Manuel Enrique Gipuzkoako leinurik ospetsuenetako bateko kidea zen, bere familia Adiskideen Elkartearen sortzaileetako bat izan zen eta bera 1768an Bergarako Errege Mintegiko ikasle gisa ageri da. Dударik gabe, euskara eta gaztelaniaz gain, latina eta frantsesa ere jakingo zituen. Hortaz, guztiz pentsaezina da eskribauak deklarazioa itzuli behar izatea. Hala ere, testigantzan “*se le dio a entender*” ohiko esapidea ageri da⁷⁷. Gertatzen dena da kasu honetan eskribaua ez zela ari aurreko testu bat irakurri eta hura berrestea eskatzen; baizik eta, besterik gabe, adierazpen berri bat jasotzen; eta egoera horretan deklaratzailerik guztiekin formula bera erabili zuen, salbuespenik gabe: “dar a entender”. Baina kasu horretan, esan nahi du testua azaldu egin zela; ez itzuli. Hortaz, halako erregistroak ez dira kontuan hartu behar. Azterketa honetan, “euskarara itzuli” zentzua argi eta garbi duten kasuak bakarrik hartu ditugu aintzat.

Ikus ditzagun kasu batzuk:


1721ean auzi bat izan zen Soralezko zenbait herritarrek Bergarako beste batzuekin Osintxuko Martirien ermitaren aurrean izandako borroka bat zela eta, borrokaren ondorioz hildako bat eta zenbait zauritu izan baitziren. Gertakari horien harira, zenbait lekuko bigarren aldiz deklaratzera deitu zituzten, aurretik egindako aitortpena berrets zezaten. Zortzi adierazpen egileetatik zazpiti aurreko deklarazioa irakurri, eta “aditzera eman zitzaizen”, hau da, gaztelaniaz ez zekitenez euskarara itzuli zitzaizen. Hau da, lekuko guztien % 87,5 euskal elebakarrak ziren⁷⁸.

Antzeko beste auzi bat izan zen 1723an izandako hilketa baten ondorioz. Zazpi laguni eskatu zitzaizen euren aitortpenak berresteko: horietako bat


emakumea zen eta hari aditzera eman behar izan zitzaion; gizona dagokienez, berriz, seitik lauri. Beraz, guztira, zazpi adierazpen egileetatik bosti itzuli zitzaizen, hau da, % 71,4ri⁷⁹.

1725ean, Domingo, Martin, Joseph eta Agustín Narbaizaren kaparetasun-frogaketan, bederatzi gizonak deklaratu zuten lekuko gisa, eta horietatik lauri eskriturako edukia aditzera eman behar izan zitzaizen, hau da, % 44,4ri⁸⁰. Ez zen batere ohikoa horrelako prozesu batean euskal elebakarrek deklaratzera, izan ere, kaparetasun frogantzeta lekuko “abonatuak” (“*abonado*”) bilatu ohi ziren, gehiengotik: pertsona prestigiodunak (normalean apaizak edo “*On/don/jaun*” tratamendukoak), ustez alfabetatuak eta bi hizkuntzak zekizkitenak, eta, beraz, aitortpenak itzuli beharrik ez zutenak. Kasu berezietan bakarrik jotzen zen jende arruntarengana (edozein kasutan, gizonetakoengana), eta, hori dela eta, eskritura horiek ez dira gizartearen isla, eta ez digute balio gure estatistikarako. Lekukoak prestigiodunak izateko baldintza hori esplizituki jasoa agertzen da zenbaitetan, adibidez, Bartolome Joaquín Zuazolaren kaparetasun-auzian:

Narbaiza familiako kaparetasun frogaketan eskribauak “aditzera ematen” die adierazpen egileei eskrituraren edukia



Lekukoen izaera "abonatua"



Auzi bateko adierazpen egileek aurretik eginiko deklarazioa irakurri eta euskarara itzultzeko eskatzen dute, deklarazioa berretsi ala ez erabakitzeko

los testigos que han depuesto en esta Causa son personas timoratas de Dios y sus Conciencias, de buena fama y opinión y tales que a sus dichos siempre se ha dado entera fee y Credito en juicio y fuera de el⁸¹.

1734an izandako estuproagatik auzi kriminal batean, aurrez egindako aitorpena berrestea eskatu zitzaien zortzi adierazpen egileri (zazpi gizoni eta emakume bati, emaginari) eta guztiei itzuli behar izan zitzaien aurreko deklarazioa. Hau da, aitortzaileen % 100 euskal elebakarra zen⁸².

Era berean, 1751an, ezkon-hitza ez betetzeagatik irekitako auzi batean, lau deklaratzaileri gizonezkori aurreko testigantza berrestea eskatu zitzaien, eta laurak eskatu zuten "euskarara" itzul ziezaiten. Zehazki, Antonio Altzuetak honela eskatu zuen: "pide se le lea su contesto y haviendolo leído y dandole a entender en lengua bascongada que empieza desde el folio...". Joseph Unamunok, berriz, honela: "Tiene hecha su declaración y para hacer con mas acierto en este plenario su deposicion pidio que se le lea su contexto y haviendolo hecho asi dandole a entender en lengua bascongada que empieza desde el folio primero buuelto del proceso...". Santiago Madariagak, bere aldetik, honakoa eskatu zuen: "...pide se le lea y muestre dicha su primera deposicion y se le de a entender su thenor...". Eta, azkenik, Joseph Elkorro Iribek, honakoa: "pide se le lea y de a entender el tenor de ella y haviendolo hecho asi por mi el ssno de la causa en lengua bulgar bascongada que se halla desde el folio 2 buelta..."⁸³. Aipatzekoa da kasu honetan adierazpen egileek eurek eskatu zutela aurreko adierazpena irakurtzea eta, ulertu ahal izateko, "herriak darabilen euskal hizkuntzara" ("lengua bulgar bascongada") itzultzea.

Interesgarria da nabarmentzea Udal Bilkura Itxiak, hau da, elite gidariei mugatutakoak, egiten zirenean, ez zela beharrezkoa izaten eskribauak dokumentuak itzultzea, han bildutako guztiek jakiten

zutelako gaztelaniaz, hobeto edo okerrago. Aldiz, Udalbatzar Orokorak egiten zirenean, herritar asko biltzen ziren (horietako asko euskal elebakarrak), garrantzizko gauzak jorratzeko, eta dokumentuen edukia “aditzera eman” behar izaten zen. Adibidez, 1764ko Udal Batzar Orokor batean, medikuaren eskaera jasotzen zuen memorial bat aurkeztu zen, eta eskritura honela hasten zen:


Dicho día, y en el mismo acto, Yo el dho Escribano leí y di à entender al ayuntamiento en lengua bulgar vascongada el contexto de un memorial presentado por D.ⁿ Miguel de Torrano y Urgoitia, Medico titular asalariado de esta referida Villa, que a la letra dice así...⁸⁴.

1769an, Joseph Antonio Albisu Belastegi Oñatiko herritarrek Manuel Arregiri errekeritu zion Bergarako Belastegi baserriko errenta ordain ziezaiola, eta eskribauak alde zuretik eskritura itzuli behar izan zion Arregiri:

Doy fée yo el infraescripto es.^{no} haviendole leído, y dado a entender en lengua bascongada el thenor del requerimiento antecedente a Manuel de Arregui contenido en el, à presencia de los mismos testigos Miguel de Umeriz y Fran.^{co} de Guerra este dia diez y siete de agosto de mil setecientos sesenta y nueve y enterandose de su thenor el referido Manuel de Arregui Dixo, que es verdad que es Ynquilino dela Caseria de Belastegui azpicua, y que la renta que se expresa en dicho requerimiento la suele pagar a Fran.^{co} Javier de Madariaga vecino de la dha villa de Vergara, y cuñado del requirente por haberle aquel otorgado la es.^{ra} de arriendo, y que asi dispusieren ambos a quien de los dos haria la entrega pues que estaba prompto a hacerla à qualquiera de ellos. A lo qual el referido Joseph Antonio de Albisua Belastegui bolbio a requerirle nuebamente, diziendo que la es.^{ra} de arriendo que el especificado Madariaga le habia otorgado era nula, y de ningun valor por quanto posteriormente à ella le habian dichos sus Padres hecho la eleccion se subcesor y tronquero de dho vinculo y mejora del tercio y quinto con facultad de poner desde luego Ynquilinos, como resultaba de dha es.^{ra} matrimonial: firmo dho Joseph Antonio y por el dho Manuel que dixo no saber firmo uno de los dhos testigos⁸⁵.

Bai Albisu Belastegi, bai haren koinatu Madariaga jabeak ziren, bazekiten sinatzen eta bazekiten gaztelaniaz; Arregi maizterrak, berriz, ez bata ez bestea. Kasu horrek ere, beste hainbatek bezala, agerian uzten du gizarte-talde desberdinek hezkuntzari eta gaztelaniaren ezagutzari dagokionez zuten aldeak: boteretsuak elebidunak eta alfabetatuak ziren bitartean, menpekoak elebakarrak eta alfabetatugabeak izaten ziren.

1771n, Pedro Larrea Bidekurutzetako ostalariaren eta Juan Bautista Muxikaren arteko auzibidea abiarazi zen, lehenengoak bigarrenari eragindako zaurien ondorioz. Prozesuan 35 adierazpen-egileetako sei iri bakarrik eskatu zitzaizkien aurreko deklarazioa, —zehazki, “bigarren galderari” zegokiona— berrestea. Horietatik hiru gizonezkoak ziren eta hiru emakumezkoak, eta bosti ulertarazi behar izan zitzaizkien edukia euskaraz, hau da, % 83,3^{ri}⁸⁶.



Miguel de Torrano doktoreak bidalitako memoriale itzuli zien eskribauak Udaleko kideei

1792an, zekor bat lapurtzeagatik irekitako auzibide batean, lehen deklarazioa berretsi behar izan zuten bost lekukoetatik biri eman zitzaien edukia euskaraz aditzera (*“se le leyó y dio a entender en lengua bulgar”*); hau da, % 40ri⁸⁷.

1802an bide-lapurreta eta erasoengatik izan-dako auzi batean, gorabehera interesgarri bat gertatu zen. Bidelapurak hainbat ingurutan ibili zirenez, Bergarako lekukoez gain, Bilboko, Zumarragako, Gabiriako, Ezkioko eta Ordiziako beste batzuei ere hartu zitzaien deklarazioa. Bada, berrespenak egiterakoan, badirudi Bergarako inork ez zuela itzulpenik behar izan, izan ere eskribauak jasotzen duenez, bakoitzari zegokion testigantza irakurri zitzaion eta, haiek “edukiaz jabetuta” (*“enterado de su tenor”*) edo “testuinguruaz jabetuta” (*“enterado de su contexto”*), bere horretan berretsi zuten. Aldiz, beste herri batzuetan ugariak dira itzulpenari buruzko aipamen esplizituak: *“da a entender en basquence”* edo *“se da a entender en lengua vulgar Bascongada”*; *“enterado a la letra en vascuence”*; *“se la dio a entender de Orden de Su M.^a, de que doy fe, en basquence”*. Adibidez, Gabiriako deklaratzailen artean, hamahiru gizonezkoak berretsi zuten beren testigantza, eta horietatik hamaikari itzuli behar izan zitzaien testua. Emakumezkoek adokienez, zortzi deklaratzailetatik guztiei egin

zitzaien itzulpena. Hau da, hogeita bat adierazpen-egileetatik hemeretzi elebakarrak ziren (% 90,5)⁸⁸. Ez dirudi arrazoizkoa pentsatzea Bergaran lekuko guztiek ulertzen zutela gaztelania eta Gabirian ez zirela % 10era iristen. Beraz, pentsatu behar dugu arazoa eskribau bakoitzak eskriturak idazteko zuen moduan dagoela; hau da, Gabiriakoak egiten zituen itzulpen guztien berri jasotzen zuen eta Bergarakoak ez. Zergatik? Gerta al daiteke Gabiria bezalako landa-herri txiki batean euskal elebakartasuna normalizat hartzea eta Bergara bezalako herri “jantzi”, “ilustratu” eta “hiritartu” batean, gaizki ikusita egotea eta lotsa hori ezkutatzeko estrategia moduan erabiltzea? Egia da, behintzat, Bergaran eskribauek oso kasu gutxitan utzi zutela itzulpenen konstantzia eta Gipuzkoako beste herri batzuetan, nahiko ohikoa zela.

Esandako hori berresten du 1772ko beste auto batek ere. Kasu horretan Brasilgo tabako-kontrabandoarekin lotuta irekitako prozesu bat zen eta hainbat herritako pertsonak zeuden inplikatuak: Donostia, Tolosa eta Bergara. Esanguratsua da lehen bi herri horietako eskribauek eskriturak “aditzera eman” behar izan zituzten kasuak erregistratu zituztela, eta Bergarakoak, berriz, ez. Litekeena da aurrez aipatu den Gabiriako kasuan, erabat landa eremukoa izateagatik, elebakar asko egotea, eta Bergaran ez; alabaina, arrazoi hori ez da aplikagarria Donostia eta Tolosa bezalako hirien kasuan. Zehazki, 1772an, bi herri horietan euskal deklaratzaila elebakarren ehunekoak oso altuak ziren, batez ere Donostian; izan ere, deklaratu zuten lau emakumeetatik lauri itzuli behar izan zitzaien, hau da, % 100ari. Tolosan, berriz, hiru emakumeetatik biri eman zitzaien aditzera eta bederatzi gizonetatik batek behar izan zuen itzulpena; hortaz, hamabi pertsona horietatik hiru ziren elebakarrak: % 25⁸⁹. Beraz, ondorioztatu behar dugu, guk ez dakizkigun arrazoiengatik, Bergarako eskribau batzuek “aditzera eman” izandako kasuak ez erre-

gistratzeko joera zutela, eta Gipuzkoako beste lurralde batzuetan, berriz, nahiko modu orokorrean jasotzen zituztela.

1830ean bergarar ospetsu baten etxean indarkeriaz egindako lapurretatik irekitako auto batean, hainbat lekukoren testigantzak jaso ziren. Lekukoetako batzuei euren eskritura irakurri eta, edukiaz jabetuta, berretsi egin zuten: “*enterado de ella* [eskrituraren edukia] *a su satisfacción*”. Beste kasu bereziren batean, notarioak ez zuen deklarazioa irakurri beharrik ere izan, adierazpen egileak berak irakurri zuelako: “*y habiéndola leído el mismo* [adierazpen egilea]”. Kasu horietan beti dira “Don” tratamendukoak, hau da, handikiak. Baina beste askori “aditzera eman” behar izaten zitzairen, hau da, aurreko aitortpena itzultzen zitzairen, gaztelaniaz ez zekitelako. Kasu batzuetan, eskribauak hauxe baino ez du adierazten: “*habiéndole leydo y dado a entender, enterado de ella* [aurreko aitortpenaz jabetuta], *dijo*”. Beste kasu batzuetan, aldiz, esplizituagoa da: “*habiéndoselas leído yo el Ess^{no}. y dado a entender en lengua bulgar bascongada, enterado de ellas a su satisfacción*”. Prozesuan 64 deklarazio-berrespen egin ziren eta hamar emakumeri eta bederatzi gizoni “euskaraz eman zitzairen aditzera”, hau da, adierazpen egileen % 29,7 euskal elebakarrak ziren⁹⁰.


Hala ere, urte batzuk geroago irekitako beste auto batzuetan, askoz gutxiago dira gaztelaniaz ez dakitelako itzulpena behar dutenak. Hala gertatu zen 1839 eta 1840 urteen artean bideratutako ikerketa batean, zeinetan aztertzen baitzen Gasteizko bizilagun baten heriotza, taberna batean gertatutakoa, karta-partida baten ondorioz sortutako borrokaren testuinguruan. Kasu horretan, 38 adierazpen-egileetako hiruri bakarrik eman zitzairen euskaraz aditzera edukia (“*esta su declaración que le fue leída en su idioma vulgar bascongado*”), hau da, % 7,9 ziren euskal elebakarrak⁹¹.

Zer ondorio atera ditzakegu guzti honetatik? Egia esan, lagina nahiko urria da baieztapen borobilak egin ahal izateko. Kasu berezietan bakarrik ematen digu eskribauak hizkuntza-bitartekari gisa egindako lanaren berri, eta, beraz, gutxitan dugu aukera gaztelaniaz idatzitako dokumentuak ulertzeko gai ez zirenen —hau da, euskal elebakarren— zenbatekoa kalkulatzeko. Ikus ditzagun **VII. Taulan** eta **IV. Grafikoa**n prozesu bakoitzean aurkitu ditugun ehuneak:

**VII. Taula. Euskal elebatarren ehunekoa prozesuz-prozesu (1721-1939)
eta ehunekoen garapena mende erdika (1700-1849)**

Urteak	Guztiak	Aditzera emanda	%	Aldiak	%
1721	8	7	87,5	1700-1749	80,8
1723	7	5	71,4		
1725	8	8	44,4		
1734	3	1	100,0		
1751	6	5	100,0	1750-1799	38
1769	4	4	33,3		
1771	5	2	83,3		
1792	64	19	40,0		
1830	38	3	29,7	1800-1849	16,3
1839	5	4	7,9		
				1721-1839	39,2

**IV. Grafikoa. Elebatarren %aren
bilakaera prozesuetan 1721-1839**



Ehunekoen bilakaera nahiko adierazgarria da: XVIII. mendearen lehen erdian adierazpen egile elebakarrak % 80,8 ziren bitartean, portzentaje hori % 38ra jaitsi zen mendearen bigarren erdian, eta XIX. mendearen lehen erdian, berriz, % 16,3ra. Aztertutako aldi osorako euskal elebakarren ehunekoa % 39,2koa izango litzateke. Horrek guztiak ez du kentzen, lan honetako beste atal batean ikusten den bezala, elebakarren benetako portzentajeak, batez ere XIX. mendean, prozesuetan egiaztatutakoak baino askoz handiagoak izatea.

Azpmarratu beharra dago, hala ere, hain lagin murriztarekin ezin dela behin betiko ondorioz atera; baina joera adierazgarria dirudi. Nolanahi ere, argi gera bedi euskal elebakarren portzentaje horiek ez dutela ezinbestean errealitatea islatzen, izan ere, notario banaka batzuk prozesu oso gutxitan utzitako itzulpenen lekukotzetan oinarritzen dira. Nik uste dut euskal elebakarren ehunekoak dezentez handiagoak izango zirela, baina ez dago hori egiaztatzeko modu estatistikorik. Hala ere, hurbilketa honek balio digu konturatzeko lehen mailako hezkuntza ugaltzen joan zen heinean euskal elebakarren portzentajea ere nabarmen murriztu zela, batez ere emakumeen artean.

Gogoetarako aukera ematen du, halaber, lehen aipatu dugun 1802ko auzian agertzen den Gabiriako euskal elebakarren portzentaje handia Bergarako datuekin alderatzeak. Izan ere, auzi hartan, gabiriarren % 90,5i itzuli zitzairen lehenengo aitorpena, berretsi aurretik. Bergarari dagokionez, aldiz, beste iturri batzuen bidez ikusi ahal izan dugu urte horretan euskal elebakarrak % 30-40 inguru izan zitezkeela. Egia da bai, garai hartan Gabiria erabat landatarra zela, eta Bergarak, aldiz, populazioaren zati bat guztiz hiritarra zuela.

Era berean, merezi du Bergarako dokumentazioak erakusten dizkigun datu horiek antzekoak diren eta ezagutzen ditugun Gipuzkoako beste herri batzuetakoekin (Donostiakoak, Azpeitikoak eta Lazkaokoak) alderatzea.

Beste ikerketa batean, Donostiako hogeiauzi-prozesu aztertu nituen. Prozesuok 1703tik 1791ra bitartekoak ziren (hau da, ia XVIII. mende osoa hartzen zuten), eta euretan, esplizituki edo zeharka, aipatzen zen lekuko edo adierazpen egile batzuei eskriturak “aditzera eman” izana. Aipamen horiek nola idatzita dauden ikusita, susmoa dugu itzulpena egin zitzairen hainbat kasutan ez zela horren konstantziarik jaso. Gainera, prozesu askotan, apaiz eta moja ugari agertzen ziren, eta horrek lagina desitxuratzen zuen, jakina baita eliz-gizon zein eliz-emakume guztiek zekitela gaztelaniaz. **VIII. Taulan** XVIII. mendeko Donostiako euskal elebakartasunaren emaitzak jaso ditugu. Edonola ere, taulan, erregistratutako kasuak agertzen dira bakarrik, eta uste dugu, benetan izandako kasu guztiak jaso izan balira, elebakarren kopurua bikoitza izango litzatekeela. Lehenengo jokabideraren arabera, Donostiako euskal elebakarrak laurdena izango lirateke; bigarrena hartuz gero, berriz, erdia. Gure ustez bigarren hipotesi hori da errealitatetik hurbilen dagoena⁹².

VIII. Taula. Euskal elebakarren ehunekoak Donostiako prozesuetan: 1703-1791

	Elebakarrak	%	Elebidunak	%	Guztira
Emakumeak	82	30,4	188	69,6	279
Gizakumeak	47	21,4	173	78,6	232
Guztira	129	25,2	382	74,8	511

Berriz ere azpimarratu behar dugu eskrituren edukia “aditzera ematen” zaien deklaratzailerak detektatzeko metodoa ez dela % 100 fidagarria, ziurra baita eskribauak ez zituztela jasotzen itzulpena egindako kasu guztiak. Ikus dezagun horren erakusgarri den kasu bat. 1757ko prozesu batean, Donostiako Antigua auzoko bi emakume eta moja beneditarren neskame batek hainbat deklarazio egin zituzten. Kasu batzuetan, eskribauak itzulpena egin zela jaso zuen; beste batzuetan, ordea, ez dago emakume berberei itzulpenik egin izanaren aipamenik. Gauza bera gertatzen da 1774ko Donostiako beste auzi batean: bi deklaratzailer ziren eta batzuetan euskaldun elebakartzat jaso ziren eta beste batzuetan ez⁹³. Eskribauak egoera hori jasota uzteko legezko betebeharrak ez zuenez, batzuetan jasota uzten zuen eta beste batzuetan ez. Nire kalkuluen arabera, zenbait eskribauak euskal elebakarren % 50 inguru erregistratzen zituzten; hau da, benetako kopurua erregistratutako kasuen bikoitza izango litzateke. Beste iturri eta hurbilke-

ta batzuen arabera, XVIII. mendeko Donostian euskal elebakartasun-maila ez zen % 50etik behera izango; aldiz, aurreko taulan jasotako datuek % 25eko erregistroa baino ez dute ematen.

Azpeitian, elebakartasunaren froga dokumentala, bi kasu oso interesgarritan dugu, gutxienez. Lehenengoa, 1827an, San Andres gauean, Azkoitian, santuaren eguna ospatzeko egin zuten erromeriaren ondoren gertaturikoa jasotzen duena: ardoa edaten, txistua entzuten eta dantzan (“*bebiendo vino y escuchando el pito y bailando*”) aritu ziren bi herrietako erromesak egundoko borrokan nahastu ziren Loiolako santutegiaren ondoan. Zenbait zauritu arin eta larriren bat ere izan ziren. Gertatutakoa argitzeko ireki zen ikerketatik honakoa ondorioztatzen da: 36 adierazpen-egile izan ziren, guztiak klase herrikoietako gizonetako gazteak (laborariak, ikazkinak, teilaginak...), eta haietatik 26ri itzuli behar izan zitzaizkien adierazpena, ez baitzekiten gaztelaniaz. Eskribauak itzulpenaren erregistroa egiteko erabili zituen formulak desberdinak izan ziren, baina esanahi bertsukoak: “*leída que se le a sido esta su declaración de que se le a enterado en el idioma vulgar Bascongado*” edo “*... su declaración que se le a explicado en su idioma nativo*” edo “*... su declaración que se le a explicado en su idioma vulgar*”... Horrek euskal elebakarren ehunekoa % 72,2an kokatzen du, baina garai hartan emakumeek elebakartasun-maila askoz handiagoa zuten, auzian emakumeen presentzia parekidea izan balitz, elebakarren ehunekoa gutxienez % 85era iritsiko zen⁹⁴.



Donostiako baserritarrak

Beste kasua Urrestillan izan zen 1840an. Bertako etxeburu batek bere odol garbitasuna frogatzeko prozesua bultzatu zuen, eta horren harira, hiru lekuko deitu zituzten deklaratzera, guztiak gizonezkoak. Hiru kasuetan, eskribauak honako hau erregistratu zuen: “*que lo depuesto es la verdad en que bajo del juramento que tiene hecho se afirma y ratifica leída y explicada que le ha sido en idioma vulgar esta su declaración...*”. Hau da, lekukotasuna eman zutenen % 100 euskaldun elebakarrak ziren. Kasu horretan interesgarriena da haietako bi (ez, ordea, hirugarrena), gazteak zirela, eskolatuak eta sinatzen zekitenak, baina, dirudie-nez, eskolan egin zuten egonaldiak ez ziela gaztelania behar bezala ikasteko aukerarik eman⁹⁵.

Ikus ditzagun orain Lazkaoko kasu batzuk. 1619an auzia sortu zen hileta-ekitaldi bateko gari-eskaintzen kontura. Zortzi pertsona deitu zituzten deklaratzera: zazpi emakume eta gizon bat. Kasu guztietan, lehengo adierazpenak berresterakoan, adierazpenok itzuli egin behar izan zitzaizkien, ez baitzuten gaztelania ulertzen. Eskribauak honelako oharrak jaso zituen: “*Y que esta es la verdad y lo que sabe de este caso por el juramento que a hecho leyosele este su dicho y se ratifico en el y no lo firmo porque dixo que no sabia escreuir ni firmar y en su presençia firme yo el dicho comisario huiendoselo dado a en-*

tender primero en lengoa bascongada”. Hau da, % 100 ziren euskal elebakarrak. Baina adierazpen egile gehienak emakumeak zirela kontuan hartuta, Lazkaoko errealitate linguistikora gehiago hurbildu nahi izanez gero, Azpeitiko aurreko kasuan bezala jokatu beharko genuke, hau da, kasu honetan ehunekoa zertxobait jaitsiz, bai baitakigu, gizonetzkoetan gehiago zirela gaztelaniaz zekitenak emakumezkoetan baino⁹⁶. Lazkaon, beraz, elebakarren ehunekoa % 85 eta % 90 artekoa izan zitekeen.

Gaztelaniaz ez jakiteagatik itzultzailearen laguntza behar izatea askoz hobeto jasota dago dokumentazioan, eskribauak edo lekukotza-jasotzaileak kanpokoak zirenean, normalean ez zutelako euskaraz jakiten. Hala gertatzen zen, esaterako, Valladolideko Kantzelaritzara eramaten ziren auzietan edo kaparetasun-frogantzetan. Ikus dezagun adibide bat. 1770 eta 1772 bitartean, Urumeako sarrien eta mintegien aprobetxamendua banatzeko auzia Valladolidera eraman zen. Protagonista nagusiak Donostiako eta Hernaniko udalerriak ziren, nahiz eta Errenteriako, Oiartzungo eta Astigarragako partikular batzuei ere eragiten zien. Adierazpen egile gehienak donostiarrak ziren. Bada, haietatik % 83k itzultzailea eskatu zuten gaztelaniaz ez zekitelako; % 72 erabat elebakarrak ziren, eta % 11k adierazi zuen hitz batzuk ulertu arren, ez zekitela deklarazioa gaztelaniaz egiteko beste eta, beraz, itzultzailea eskatu zuten⁹⁷. Kontuan izan behar da adierazpen egile ia guztiak landa-eremukoak zirela.

Kaparetasun-frogaketetan, auzitegietatik bidalitako mandatariek adinekoen testigantzak jaso behar izaten zituzten, eskatzaileen familiak “odolez garbiak” zirela ziurtatzeko. Horretarako, egokienak iruditzen zitzaizkien pertsonak aukeratzen zituzten, eta ahal izanez gero, gaztelaniaz deklaratzeko gai ziren pertsonengana jotzen zuten. Bergarak biztanle asko zituen eta elebidunen ehunekoa ere nabarmena zenez, ez zuten zailtasun handirik gaztelaniaz zekiten adierazpen egileak aurkitzeko, baina herri txikietan, guztiz landatarrak eta ia erabat elebakarrak zirenetan, mandatariek ez zuten lekuko elebakarretara jotzea beste aukerarik izaten. Eta kasu horietan, hizkuntza-bitartekaritzaren beharra erabatekoa zen: adierazpenak itzultzailearen bidez jasotzen ziren eta, esandakoa gaztelaniaz idatzi ondoren, agirian jasotakoa euskaraz “aditzera ematen” zitzaien lekukoei, haiek onar zezaten. Kaparetasun-frogantza askotan gertatzen zen mandataria euskararik ez ulertzea eta lekukoak, berriz, euskaldun elebakarrak izatea. Halako dozenaka kasu jaso dira, bereziki Nafarroako herri txikietan, eta horietako baten adibidea azalduko dugu hemen.

1672an, Juan Antonio Ibañez Muruzabal jaunaren kaparetasun-frogaketarako prozesua bideratu zen, Done Jakueren Ordenan sartu nahi baitzuen. Hori dela eta, ordena horretako bi zaldun izendatu zituzten Ibañez Muruzabalen odolgarbitasunaren lekukotzak lortzeko: Martin Daoiz jauna eta Alonso Garcia de Robles lizentziaduna, biak erdaldunak. Artazu, Biguria, Arginaritz eta Arzotzen ibili ziren, familia jatorriz herri horietakoa zelako. Done Jakueren Ordenako zaldunak Artazura iritsi zirenean arazo larri batekin egin zuten topo: ez zegoen inor gaztelaniaz zekienik, eta zekien bakarra, apaiza, Iruñean zegoen. Horri aurre egiteko, Garesko herritar elebidun batengana jo behar izan zuten eta prozesuan zinpeko itzultzaile izendatu:

En el lugar de Artazu dicho día mes y año [28 de junio de 1672] auiendo nos informado de algunas personas que sauian algo castellano aunque mui poco, si auía algunos vecinos que supiesen castellano nos aseguraron que todos hablaban el vasquence y que ninguno sabía castellano sino es el Cura y que este se hallaba al presente en la ciudad

de Pamplona, resolvimos examinar por intérprete de que hicimos este auto y para que conste lo firmamos = Don Martin Daoiz = Licd.^o Alonso G^{ra}. de Robles. [...]

Auto de nombramiento de intérprete en Artazu = En conformidad del auto antecedente nombramos por intérprete para la deposición de los testigos que hemos de examinar en dicho lugar al Lic^o D. Joseph de Artaçu vecino de la villa de Puente la Reyna por no auer en dicho lugar quien sepa castellano, y parecernos persona la más graduada y de suposición y no ser pariente de la parte ni tener otro impedimento alguno, y para que conste lo pusimos por auto y lo firmamos = Don Martin Daoiz = Licd.^o Alonso G^{ra}. de Robles = Licd.^o Don Joseph de Artazu.

Artazun bost aitorpen jaso zituzten, guztiak itzulpen bidez. Interesgarria da ikustea horietako bat Martin Ziritza errejidorearena dela, zeina nahiz eta karguduna izan, euskal elebakarra eta alfabetatugabea baitzen. Ondoren Biguriara joan ziren, eta han ere inork ez zekien gaztelaniaz, baina kasu horretan apaiza bertan zegoenez, itzultzaile izendatu zuten, halako kasuetan ohikoa zen bezala:

Auto de llegada a Viguria = En dicho lugar de Biguria auiendo llegado desde el lugar de Artazu para proseguir las dichas pruebas a las de 29 de junio de dicho año. Habiéndonos informado del Abad de dicho lugar que solo hallamos que supiese la lengua castellana por ser todos los Becinos Bascongados de la vecindad que tiene el dicho lugar y de los más ancianos y de toda satisfaccion que pudiésemos recibir por testigos para prueba de la Naturaleza y demás calidades de nobleza y limpieza y demás requisitos necesarios de don Francisco de Biguria Abuelo materno del dicho D. Juan Antonio Ibañez de Muruzabal Prette. segun la da en su genealogia Y habiéndonos dicho que el dicho lugar es muy corto que no pasa de ocho Becinos y que hay en él muy pocos biejos y que ninguno habla la lengua castellana con que resolvimos examinar los que pudiésemos y examinar por intérprete. Y para que conste lo pusimos por auto y firmamos.

Auto de nombramiento de intérprete = En conformidad del auto antecedente nombramos por intérprete para recibir la deposición de los testigos que emos de examinar en dicho lugar al Lic.^o Don Martin de Bergara y Gabiria, Abad del dicho lugar, persona muy anciana y que nos pareció de toda virtud, capacidad y entera satisfacción y no ser pariente de la parte ni tener otro impedimento alguno = Y para que conste...⁹⁸

Bigurian, Argiñaritzen eta Arzotzen hamar lagunek deklaratu zuten, denak gizonezkoak eta euskal elebakarrak, eta itzultzaile bidez egin zuten. Orotara frogantza horretarako hamabost aitorpen jaso ziren, guztiak itzultzaileak lagunduta.

Alkateek, errejidoreek eta gainerako udal karguek gaztelaniaz irakurtzen eta idazten jakiteko beharria zuten, eta obligazio hori zenbait euskal lurraldetan arau ere bihurtu zuten, baina praktikan ezinezkoa izan zen betetzea, gutxienez XVII. eta XVIII. mendeetan zehar. Bizkaian arazo ugari izan zen

elizate askotan ezaugarri horiek biltzen zituzten udal-karguak edo Batzar Nagusietako ordezkariak aurkitu ahal izateko, eta baita, alfabetatugabeak izanda ere, bileretako eztabaidak eta bertan irakurtzen zen dokumentazioa ulertzeko adinako gaztelania maila zutenak topatzeko ere.

Nafarroan, gaztelaniaz irakurtzen eta idazten jakiteko eskakizun hori, tokiko kargu publikoak betetzen zituzten guztiei zabaltzen zitzaien: Alkateei, Errejidoreei, hamabiei eta abarri, baina ñabardura garrantzitsu batekin: baldintza hori betetzea ezinezkoa zen kasuetan, betetzen ez zutenei ere aukera emango zitzaien zakuratze zozketa bidezko hautes-prozesuetan hautagai izateko, eta ondorioz kargua eskuratzeko. Hala ebatzi zuten 1628ko Gorteen:

Ordenamos y mandamos que los Jueces Inseculadores no inseculen en los oficios de Alcaldes, Jurados, Regidores, Merinos, y Justicias à personas que no sepan leer, y escribir, si no es en caso de necesidad y no hallando otras para cumplir el numero de la Inse[a]culacion⁹⁹.

Hau da, kargu horietan aritzeko pertsona alfabetaturik aurkitzen ez bazen, irakurtzen edota idazten ez zekitenengana jotzea ahalbideratzen zuen, garai horretan Nafarroako herri gehienetan horrelako baldintza bat betetzea guztiz ezinezkoa zenaren seinale.

Gipuzkoan, XVI. mendearen amaierara arte ez zen kultura-mailako inolako baldintzarik ezarri kargu publikoetara iristeko, baina 1571ko Errenteriako Batzar Nagusietan erabaki zen Gipuzkoako hiribilduetako alkateek irakurtzen eta idazten jakin behar zutela (gaztelaniaz, jakina) hautatuak izan ahal izateko. Akordio hori Felipe II.ak berretsi zuen 1573ko urtarrilaren 29ko Errege Aginduaren bidez eta hala jaso zen Gipuzkoako Legeen Ordenantzetan¹⁰⁰. Betebehar hori 1583ko Gipuzkoako Foruaren Bilduman ere jasotzen zen eta maila guztietako alkateei eragiten zien: hiribilduetakoei, kontzeju edo udalerrietakoei zein auzo-guneetakoei:

Otrosí dijeron que, conforme a las ordenanzas confirmadas, usadas y guardadas que de ello tenían, ordenaban y mandaban y establecían por ley que en ninguna villa ni lugar ni alcaldía de esta provincia ninguno sea osado de nombrar ni poner por alcalde que tuviera mero y mixto imperio sino a hijodalgo rico y abonado y que sepa leer y escribir, y por oficiales del regimiento de la misma manera a hijos dalgo, ricos y abonados [...] Y no concurriendo en ellos las calidades dichas, pague cada uno dos mil maravedís para la dicha Hermandad y no sea recibido ni obedecido por tal alcalde u oficial¹⁰¹.

Errejidoreei dagokienez, nabarmentzekoa da kapareak, aberatsak eta ospetsuak izatea eskatzen zela, baina ez zela esaten alfabetatuak izan behar zutenik, zalantzarik gabe, Gipuzkoako herri gehienetan baldintza hori betetzea ezinezkoa izango zelako. XVII. mendean zehar behin baino gehiagotan (adibidez, 1682ko Hernaniko Batzarretan) eskatu zen lege horren aplikazioa atzeratzea, edo gutxienez arintzea eta salbuespenak aurreikustea. Baina Batzarrak ez ziren malguak izan, eta XVIII. mendea ondo aurreratu arte hainbat alkatek gaztelaniazko irakurketa- eta idazketa-gaitasuna frogatzeko azterketa egin behar

izan zuten; are gehiago, baten bati aginte-makila kendu ere egin zioten proba hori gainditu ez zuelako. Adibidez, 1782an, gai hori zela eta, salatu egin zituzten Zarauzko alkateak, Juan Ignacio Leunda eta Pedro Amilibia, baina irakurketa- eta idazketa-proba gainditzea lortu zuten, kostata izan bazen ere. Baina 1690ean, Abalzisketako alkate Martin Zubeldia jaunak bere kargua galdu zuen, azterketa egiteko eskatu zitzaionean, ez zekiela aitortu behar izan baitzuen.


Bergaran ez da ezagutzen alkate analfabetoen kasurik, baina errejidore askok, agian gehienek, aitortzen zuten ez zekitela sinatzen eta elebakarrak zirela. Adibidez, jasota dago 1704an Antonio Izagirre hiribilduko errejidoreak ez zuela sinatu ez zekielako¹⁰². Gauza bera gertatu zen 1721ean Andres Martinez Gantxegi errejidorearekin¹⁰³. Aldiz, 1781eko auzian lekuko gisa agertzen diren errejidoreek sinatu egin zuten¹⁰⁴.

Gaiarekin jarraitzeko, 1770ean Bergaran jazotako gertakari bati erreparatu nahi diogu, udalbatza osatzen zuten karguen ezaugarri linguistiko eta kulturalak argi eta garbi erakusten dituelako. Urte horretan Udalaren eta Bergarako parroketako apaizen arteko gatazka sortu zen garai hartan oso polemikoa eta garrantzitsua zen gai baten inguruan: ea zein erakundek izan behar zuen postu gorena herriko desfileetan, prozesioetan, batzarretan, elizan edo dokumentu bat sinatzerakoan. Gai horrek eragindako liskarrak eta auziak oso ohikoak ziren. Gatazka, kasu honetan, udalak eta elizgizonek elizetako fabrika-kontuen liburuan sinatzerakoan sortu zen. Orduko hartan, Santa Marinako eta San Pedroko hiru apaiz (horien artean On Rafael Garitano-Aldaeta ospetsua eta Torrano anaietako bat), alkatea, eskribaua eta lau errejidoreak bildu ziren, akordio batera iristeko. Kontua da alkateak, eskribauak (eztabaidaren akta egin zuenak) eta hiru apaizek bazekitela gaztelaniaz eta eztabaidan erabili ere egin zutela, baina errejidoreak ez zirela gauza ika-mika jarraitzeko, erabat elebakarrak edo ia elebakarrak zirelako. Kontua auzitan amaitu zen, eta bertan jasotako lekukotzei esker, bakoitzaren hizkuntza-gaitasunaren gaineko informazioa lor dezakegu. Garai Irazabalbeitia errejidorearen adierazpenean honako hau irakur daiteke:

Y estando asi todos empezaron à hablar en Castellano con bastante velocidad, el presentante [Garitano-Aldaeta apaiza], Torrano, Eduegui, el Alcalde, Essn.º y Zuloeta y como el testigo no comprendía bien, ni los dichos Amusquibar y Aguirre, los tres estuvieron callados, sin q. el testigo sepa si se presento ó no en este acto un acuerdo de otro que unos veinte días antes se tubo para este efecto entre los suso dhos. solo si sabe que entonces tubieron entre si alguna disputa, aunque ignora sobre que; y tiene también presente el testigo que el presentante y dho Lz.^{do} Torrano, decian alguna vez que otra, que protestaban, pero ignora sobre que, por no poder percivir dha lengua Castellana, y no haversele al testigo explicado en lengua bulgar bascongada [...] sino haverle mandado hechar una firma, como en efecto lo hizo el testigo en donde el dho Ess.^{no} le señaló. Y que duró este acto como cosa de dos horas y media, ó tres horas segun hace memoria¹⁰⁵.

Hau da, hiru ordu inguru iraun zuen eztabaidan, Zuloeta errejidorea bakarrik izan zen gai gaztelaniaz ulertzeko eta hitz egiteko; beste bi, Amuskibar eta Garai Irazabalbeitia, ez ziren gauza ezta ulertzeko ere, eta hirugarrenak, Agirrek, ulertzen zuen, baina ez zen gai elkarrizketan parte hartzeko. Inor ez zen arduratu liskarraren edukia itzultzeaz (jendea ez baitzegoen halako txikikerietan denbora galtzeko);

baina sinatzeko eskatu zitzaizenean agindutakoa bete zuten, zer jartzen zuen jakin gabe. Badirudi sinatzen bazekitela, baina ez gaztelaniaz hitz egiten. Ziur asko, 1770. urtean Bergarako errejidoreen hizkuntza-gaitasuna inguruko klase herrikoietako gizonezkoen gaitasun orokorraren oso antzekoa izango zen: hau da, erdiak euskal elebakarrak izango ziren; laurdenak gaztelania hainbatean ulertuko zuen, baina ez zuen hitz egiteko gaitasunik izango; eta beste laurdena elebiduna izango zen. Argi dago euskal elebakarrak politikoki eta sozialki gutxietsita zeudela, eta sarritan elebidunak egoera horretaz baliatzen zirela, baita, zinegotzi horien kasuan bezala, maila bateko jendea tartean zenean ere. Zer gertatuko zen, beraz, gai polemikoren batean nahasita zeudenak klase herrikoietako pertsona arruntak zirenean? Eta zer gertatuko zen esku hartzen zutenak, klase herrikoietakoak izateaz gain, emakumeak zirenean?



On Juan Francisco Torranoren sinadura eta errubrika

III.2 - Euskal elebakarren arreta medikoa

Medikuek eta zirujauak, Bergara bezalako ingurune euskaldun batean euren eginkizunak betetzeko, bertako hizkuntza jakin beharra zuten, izan ere, ezinbestekoa zen artatzen zituzten gaixoei azaltzen zizkieten gaitzak ulertzea eta horientzako proposatutako konponbideak modu ulergarrian jakinaraztea. Euskaldun elebakarren proportzioa handia zenez, medikuek elebidunak izan beharra zuten; apaizek, konfesatzeko, edo eskribauek, aitorpenak jasotzeko edo aktak idazteko, izan beharra zuten modu berean. Batzuetan, medikuek euskaraz ez zekitenean, udalak baldintza bat jartzen zien kontratuan: laguntzaile euskaldun ("*ayudante bascongado*") bat hartzea, gaixoei harremana ahalbideratzeko. Beraz, elebiduna izatea meritu bat ez ezik, exigentzia ere bazen kargu hori betetzeko.

Betekizun hori ez zen Bergaran bakarrik eskatzen, baizik eta euskal elebakarren ehuneko handiak zituzten herri euskaldun guztietan. Adibidez, Lekeitio, 1823an, herriko mediku titularren plaza lehiaketara atera zutenean, bertara aurkeztuko ziren hautagaiei euskaraz jakiteko baldintza ezarri zitzaion:

En la villa de Lequeitio, puerto de mar en el señorío de Vizcaya, se halla vacante la plaza de médico. [...] Los pretendientes, que deberán poseer la lengua bascongada y ser afectos al Rey Nuestro Señor, dirigirán sus memoriales al Sr. alcalde D. Francisco Zabaraín para fin de Julio¹⁰⁶.


Bergaran, medikuen kontratuen kasu zaharrenetan (XVII. mendekoetan) ez dugu euskara jakiteko eskakizun espliziturik aurkitu, ziurrenik, garai hartan, ziurtzat jotzen zelako euskaldunak zirela eta ez zelako beharrezkoa ikusten inolako klausularik sartzeari¹⁰⁷. Adibidez, 1727an Antonio Orobio Basterra mediku titularra hil zenean, erabaki zen aldi batez Soraluzeko medikuak, Miguel Oteiza jaunak, pasa zezala asteen birritan kontsulta, harik eta lanaldi osorako beste bat aurkitzen zen arte, baina orduan ez zen inolako hizkuntza eskakizunik jarri. Bistan da Oteiza euskalduna zela, Soraluzen lanean zegoelako, eta, ondorioz, gai hori ez zen aipatu ere egin¹⁰⁸. Gauza bera gertatu zen Geronimo Iribarren lizentziatu, mediku eta Durangoko bizilagunarekin egin zen kontratuaren kasuan ere, ziurrenik ez zelako beharrezkotzat jo, bera euskalduna zelako eta herri euskaldun batean lanean ari zelako. Hala ere, klausula interesgarri bat ezarri zen, medikuekin egindako kontratuetan oso kasu gutxitan agertzen dena: udalak konpromisoa hartu zuen medikuari sei zama-zaldi jartzeko, bere gauzak Durangotik Bergarara ekar zitzan: “*y mas le dara la Villa seis Cabalgaduras de carga para traer la librería y alajas de cassa cada y quando que las pide y esto se da por ser como es el L.^{do} Yriuarren medico de mucha satisfacción esperienzia y opinion como es notorio y sin que esto cause consecuencia para adelante*”¹⁰⁹. Bi alderdi interesgarri azaltzen dira: batetik, dirudienez, sendagilearen liburutegia garraio berezia behar izateko bezain aberatsa zela, eta, bestetik, Udalak mediku onak aurkitzeko zituen zailtasunak hain handiak zirela, ezen, izen oneko norbait kontratatu nahi izanez gero, hura erakartzeko behar beste ordaintzeko prest izaten baitziren; hori bai, hurrengo aldietarako aurrekaririk sortu gabe.

Esan bezala, hautagaia euskalduna ez zenean eta egokiagorik aurkitzeko modurik ez zegoenean, kontratuan eskatzen zitzaion, euskal elebazarrekin komunikatzeko, interpretari bat bere kontura hartzea. Esate baterako, 1744an, Martin Jaime doktorea kontratatu zuten, erdalduna eta abizenaren arabera ziur aski kanpotarra, eta kontratuan honako klausula hau txertatu zen: “*Y que dho Dr D^o Mⁿ Jaime haia de Asistir con interprete a los Caseros y demás personas que no entienden la Lengua Castellana*”¹¹⁰.

Jaime doktoreak onartu egin zuen interpretaria erabiltzea: “*que continuaría en balerse de interprete Bascongado para la asistencia delos enfermos de Caseríos y de otros que no entienden la Lengua Castellana*”¹¹¹. Klausulak agerian uzten du medikuak itzultzailearekin artatuko zituen gehienak landa-eremukoak zirela, nahiz eta baziren beste batzuk kalekoak ere.

Kontua da Jaime doktoreak agur esan zuela 1751n, Hiribildua medikurik gabe utzita eta ordezkorik azkar aurkitzeko aukera gutxiarekin. Udalak batzorde bat izendatu zuen medikua aurkitzeko, eta Antzuolako Hiribildura jo zuen laguntza eske. Bada, mediku berriari ezartzen zitzaizkion baldintzen artean bi zeuden: “*conduzcan un Medico a ser posible Bascongado (como es justo) y que precisamente aia ttenido Diez y seis años de practica*”¹¹². Badirudi eskakizun biak betetzen zituena, batez ere euskaldun izatearena, Nafarroako Los Arcosen jaiotako Joseph Ibarrola zela, 1751n Jaime doktorearen ordezkari izendatu baitzuten¹¹³.

Joseph Ibarrola doktoreak Bergaran egin zuen ibilbide gorabeheratsuak argi erakusten digu zer zailtasun izaten zuten udalek (eta Bergarakoa ez zen salbuespena) profesional onak lortzeko, eskaini zitzaizkieten soldata eta lan-baldintzengatik. Hiribildu aberatsenek eskaintza hobeak egiten zituzten, eta hainbeste ordaindu ezin zuten udalei profesional onak kentzen zizkieten. Ibarrolak 1751n sinatu zuen Bergaran jar-



1744ko apirilaren 20a. Martin Jaime doktorearen kontratua luzatzea, soldatapeko mediku gisa

duteko kontratua eta 1752ko azaroaren 15ean hasi zen lanean. 1755ean Donostiara lanera joateko eskaintza jaso zuen: 700 dukat urtean eta, horretaz gain, bi erreal eguneko bisita bakoitzeko eta hiru erreal gauezko bisitako. Ibarrolak “ezin izan zion eskaintzari uko egin”. Seme bat eta lau alaba zituen enplegatzeko. Lehen biak maistra izateko ikasten ari ziren; semeari, berriz, kapilautza bat emateko asmoa zuen, baina bi neskata txikiak etorkizuna konpondu gabe zeukan. Horregatik, udalera jo zuen, haiek adin egokia betetzean Soledadera sartzeko laguntza eskatzeko. Udalak onartu egin zuen¹¹⁴. Alabaina ez zen nahikoa izan Bergaran jarrai zezan, eta azkenean, aukera izan zuenean, Donostiara joan zen familia osoarekin. 1755eko apirilaren 9an, Udalak Ibarrolaren memoriale jaso zuen eta bertan medikuak jakinarazten zion Donostiako proposamena onartu zuela eta plaza utziko zuela. Udalak erabaki zuen Sindikoari eskatzea saia zedila medikuak hartutako konpromisoak bete zitzen eta, onartzen ez bazuen, itzul zieazkiola Hiribilduari, hark aurreratu zizkion 108 pesoak, gehi kontratuan halako kasuetarako ezarrita zegoen 400 dukateko isuna, eta baita eman zitzaion 300 errealeko gainsoldata ere. Dirudienez,

Ibarrolak ez zuen atzera egin, eta auzia hasi zen¹¹⁵. Udalak bere ondasunak eta zor zizkion soldatak bahitzeko agindua eman zuen: “*embargo de sus bienes, Ropa, Librería, y el salario deudado*”. Interesgarria da ikustea enbargatu zitzaizkion ondasunen artean bere liburutegia (“*librería*”) zegoela. Ibarrolak korrejidorearenera jo zuen, eta, azkenik, Valladolideko Kantzelaritzara. Han Errege Agindu bat lortu zuen Udalak aipatutako ondasunak itzul zieazkion¹¹⁶. Baina ia bi urte geroago ere udalak ondasunen bahiketaren gaiarekin bueltaka jarraitzen zuen, izan ere, Sindikoari agindu baitzion Errege Agindua egiaztatzeko, enbargatutako ondasunen itzulketa luzatzen ari zenaren seinale¹¹⁷.

Auzi horrek agerian uzten ditu udalek mediku onak lortzeko zituzten zailtasunak, baita horiek kontratatzeko garaian udalek abian jartzen zuten eskaintza-borroka latza ere. Hori dela eta, oso aintzat hartzekoa da, plazak betetzeko, prestakuntza onaz, esperientziaraz eta adinaz gain, bestelako baldintza gehigarriak ere jarri izana, adibidez, euskaraz jakitea. Ezbairik gabe, Bergaran jarduteko euskara jakitea hain zen premiazkoa, ezen baldintza hori jartzera behartuta baitzeuden, nahiz eta horrek kontratazioa zaildu.



Landa-eremuko medikua


Miguel Torrano Urgoitia jaunak (edo Urigoitia, hainbatetan azaltzen den bezala) ordezkatu zuen Ibarrola 1755ean, hura, bederatzi urteko kontratua bete gabe utzita, Donostiara joan zenean. Torrano jauna, 1764an, bederatzi urtez jardun ondoren, makalik eta zahartuta zegoen, eta beldur zen ezingo ziela, batez ere, hiribildutik urrun zeuden baserriei arreta egokia eskaini. Hori dela eta, proposamen bat luzatu zion Udalari: berak ordaindutako “praktikante” bat jarri ahal izatea, lan hori egin zezan bera gai ez zenean, eta, horretaz gain, erretiroa hartu behar izanez gero, Udalak 200 dukateko pentsioa jartzea. Udalak onartu egin zuen. Agirietan agertzen denez, 1784ra arte jarraitu zuen lanean, eta urte horretan erretiroa hartu eta gero, berehala hil zen¹¹⁸. Berari ezarritako baldintzen artean, ez da inondik inora aipatzen euskaraz jakiteko edo itzultzaile baten laguntza izateko beharrik, beraz, suposatuta behar dugu Torrano euskal hiztuna zela.

XVIII. mendearen bigarren erdirako euskara jakitea esplizituki jasotzen da Udalak Bergaran mediku plaza lortzeko jarritako baldintzen artean. Hona hemen kasu bat. 1783an, Bergarako mediku titularra, Miguel Torrano, erretiratzear zegoen, eta horren berri izan zuen Francisco Antonio Arratibelek, Irungo Unibertsitatean antzeko plazaren jabea zenak. Eta honela idatzi zion Bergarako Udalari, hutsik geratuko zen plaza eskatzeko:

Y por tanto, deseoso de ocuparla [mediku plaza], [...] pues aunque para lograr dicha conducta, reconoce la cortedad de sus méritos, tiene la satisfacc.^{on} de ser originario de esta M. N. y M. L. Prov.^a de Guipuzcoa, tener justificada su nobleza y poseer la lengua Bascongada, como natural de la Villa de Lazcano, agregándose a esto el hauer estudiado en la Facultad de Medicina de la Univ.^d de Valencia con honor y aprovecham.^{to}, como también hauer practicado en el S.^{to} Hospital General y Militar de la misma, hauiendo precedido sus respectivas oposiciones y demás Actos literarios para una de las Plazas [...] ¹¹⁹.

Argi dago, jakina, mediku gisa jarduteko ezinbesteko baldintza zela euskaraz jakitea (“*poseer la lengua Bascongada*”) eta Arratibelek betetzen zuela. Hala ere, interesgarria da ikustea medikuntzako ikasketen eta praktiken aurretik bere beste ezaugarri batzuk (gipuzkoarra, noblea eta euskalduna izatea) agertu zituela. Argi dago euskara jakitearena ez zela pentsatu gabe jarritakoa, udalak eskatzen zuen baldintza baitzen. Esan bezala, Torranok hurrengo urtean, 1784an, hartu zuen erretiroa, eta Arratibel kontratatatu zuten baldintza jakin batzuekin: besteak beste, gutxienez hamabi urteko praktika medikoa izatea eta euskaraz jakitea (“*y [que] sepa la lengua bascongada*”) ¹²⁰.

Goian esan bezala, Miguel Torranok 1784an hartu zuen erretiroa, plaza hutsik utziz. Urte hartako ekainerako, dokumentazioan “Torrano zena” (“*el difunto Torrano*”) bezala agertzen da, hau da, kasu hone-tan ere oso ohikoa zen gertakari bat bete zen: profesionalak lanpostuari guztiz zahartuta eta oso gaixorik egon arte eustea; beraz, normala zen erretiroa hartu eta berehala hiltzea. Plazara aurkeztu zuen Francisco Antonio Arratibel Iztueta, Lazkaokoa, Valentzian eta Gandian medikuntza ikasitakoa, eta, Bergarako plaza lortu aurretik, La Puebla de Arenoson (Castelló), Olban (Teruel), Gaibielen (Castelló) eta Irunen jardundakoa. Txostenetako baten arabera, euskara ama hizkuntza izateaz gain, oso maila jantzia zuen latinean ere. Lanpostura aurkeztu ziren beste hainbat ere: Ignacio Zabaleta, garai hartan Mutrikuko eta



Arratibel doktorearen eskabidea Bergarako mediku plaza lortzeko, 1783

Ondarroako mediku zena eta aurretik Legazpin aritutakoa; Francisco Planzon, Mungiako medikua; Gregorio Isasi Isasmendi, Soraluzeko medikua; Francisco Candido Barquilla, Anguianoko medikua, Urizaharran, Agoncillon, Arenzana de Abajon, Kanpezun eta Bretumen ere jardun zuena; eta, azkenik, Jose Gorria Alastuei, Maeztuko medikua. Azken horrek bere hautagaitza agirian honakoa zioen: “*Y aunque entiende algunas palabras del dialecto bascongado, no se alla mui corriente en el, y aunq.º es esto suficiente p.ª exercer su facul.ª*...”¹²¹.

Arratibel izendatu zuten Bergarako mediku, kontsultatutako guztiek aho batez aldeko iritzia eman ondoren, baina hiru urtera hil zen, eta, beraz, plaza betetzeko beste deialdi bat egin behar izan zuten. Hasieran honako hauek aurkeztu ziren: Manuel Lopez Urbina, Eibarko medikua, Bilbon, Laguardian eta Brionesen aritutakoa, eta Pedro Fernandez de Cadiñanos, Canaleseko (Avila) medikua, Bilbon eta Burgosen aritutakoa. Bergarako Udala ez zegoen pozik horren hautagai kopuru murriztarekin eta, Martin Murua Eulate alkatearen bitartez, Gipuzkoan eta Bizkaian aritzen ziren mediku ospetsuenei zuzendu zitzairen. Hala, Vicente Lardizabal¹²², Donostiako medikuari eskatu zion egin zitzala bere iritziz egokiak izan zitezkeen hiru hautagairen gaineko txostenak: “*que conciba Vmd. [Vuestra merced] mas proporcionados en el Pais, en su cercanía, o en el Reino de Navarra [...] hago también presente a Vmd. que los propuestos deben*

entender y hablar algo la lengua Bascongada, y que han de estar habilitados para poder ejercer la facultad en esta Provincia"¹²³. Lardizabalek ez zuen lan handirik hartu, eta esan zuen gauza bakarra izan zen Azpeitiko medikua (Marcial Bernal Ferrer) egokia izango zatekeela. Baina kontua tentuz hartzekoa zen. Lardizabal esplizituagoa izan zedin eskatu zion berriro alkateak, eta bigarren txosten batean gehiago busti zen. Ostolaza Irungo medikua eta Zabala Donostiakoa aipatu zituen balizko hautagai gisa¹²⁴. Manuel Antonio del Val Donostiako medikuari ere kontsultatu zitzaion, eta hura zehatzagoa izan zen: Bernal nahiago zuen, baina hark onartu ezean, *"tengo por mozo muy despejado a Don Joachin de Lacoma, Medico de Motricu, quien se ha puesto en el Ydioma del Pays (no obstante ser Castellano) como me aseguran"*¹²⁵.

Jose Ruiz Luzuriaga Bilboko mediku ospetsuak ere eman zuen bere iritzia¹²⁶, eta hainbat hautagai proposatu zituen: Francisco Zubeldia (Azkoitiko medikua), Francisco Aranguren (Markinakoa), Adrian Zabala (Debakoa), Juan Zabaleta (Gernikakoa); Manuel Aranguren (Tolosakoa), Marcial Bernal (Azpeitikoa) eta Cosme Ruiz Olano (Bilbokoa). Olanori galdetuta, berriz, honako hauek proposatu zituen: Jose Ruiz Luzuriaga beste edozeinen aurretik (*"con preferencia a otro cualquiera"*), Francisco Aranguren (Markinakoa), Juan Zabaleta (Gernikakoa), denak euskaraz ondo zekitenak (*"quienes poseen con perfeccion bastante la lengua Bascongada"*). Horiez gain, Zeanuriko Juan Intxauberen izena ere eman zuen, gaitasun handikoa eta euskalduna zela adieraziz (*"sugeto muy capaz y bascongado"*). Ikusten denez, informatzaileek beti azpimarratzen zuten hautagaien euskalduntasuna.

Bernali kargua onartu nahi zuen galdetu zitzaion, eta hark ondorengo baldintza jarri zuen: urtean 200 dukateko erretiro-pentsioa ematea, Azpeitian hori bera agindu baitzioten eta bere "familiaren alde egin behar baitzuen" (*"y debo de mirar*

por mi familia"). Azpeitiko kopuru bera ordaintzen bazioten etorriko zela agindu zuen. Kargua eskaini zitzaion Zabaletari, eta antzera erantzun zuen hark ere: prest zegoela onartzeko, baldin eta bera hiltzen zenean emazteak oinordetzan hartuko zukeen 200 dukateko erretiro pentsioa bermatzen bazitzaion. Proposamenak asko erakartzen zuela gaineratu zuen: *"considero a ese, adornado de una recomendación muy lisongera, como es la proporción de educar hai mismo mis hixos de ambos sexos, y es la que me hace mucha impresión, por carecer de ella en esta villa [Gernika]"*. Komisionatuek, erantzun zioten ezin zutela onartu emazteak erretiroa oinordetzan jasotzea. Hala eta guztiz ere, Zabaletak hasieran eskainitako baldintzetan onartu zuen plaza. Izendatu zuten eta onartu egin zuen kargua, baina Gernikan ez zuten berehalakoa askatu nahi izan, eta hiru hilabete atzeratzea eskatu zioten. Bernallek, bitartean, kargua onartu egin zuen erretiroko 200 dukatak jasotzeko baldintzarekin. Udalak medikuaren plaza berehala bete nahi zuenez, bertan behera utzi zuen Zabaletaren izendapena, eta, azkenean, Marcial Antonio Bernal Ferrer izendatu zuen¹²⁷. Azpeitian aritua zenez, bere lana betetzeko behar adina euskara bazekiela suposatzen da. Inoiz



Nafarreriarren aurkako txertoa

ez da gaia aipatzen. Bestalde, oso datu interesgarria da Zabaletak Bergaran “bi sexueta” seme-alabak hezteko aukerari buruz egindako aipamena, Gernikan hori ezinezkoa baitzen. Zalantzarik gabe, Bergara, 1787ko urte horretarako, kultura eta hezkuntza-erreferente bihurtua zen Euskal Herri osorako.

Geroago, XIX. mendearen hasieran, Jose Manuel Zabaleta doktoreak jardun zuen. Dirudienez, hau berau zen, Rafael de Palacios eta Jose Leon de Heredia Bergarako bizilagunekin batera, egoera ekonomiko larrian zeuden pertsonen maileguak ematen ibili ohi zena. Zehazki, 1820an, Jose Joaquin Guridi jaunak, Legazpiko bizilaguna zenak, jakinarazi zuen ezin zituela ordaindu hiru jaun horiekin zituen zorrak, maiorazko ondasunak eta bestelako ondasunak izan arren, zoritxarrak eragin zion egoeragatik eta, elikatu beharreko bost seme-alaba adingabe zituelako¹²⁸.

1829an Jose Manuel Zabaleta mediku titularra hil ondoren, beste hautaketa berri bat egin zen. Hautaketa prozesuan udalak ezarritako baldintza bat dago, behin eta berriz aipatzen dena: “...*acordó que la plaza vacante de Medico de esta villa se provehiese en todo el mes próximo de Agosto en el mas acreditado que la solicite y que profese la lengua vascongada...*”. Beste une batean, Bergaran mediku titular gisa hautatua izateko ezinbesteko hiru baldintzak argitzen dira: “...*con la circunstancia de que haya de tener, y tenido la practica dha facultad, sepa la lengua vascongada, y que no haya de pasar de la edad de cincuenta y cinco años...*”. Batzuetan, badirudi eskakizuna apaldu egiten zela, eta ez zela horrenbeste azpimarratzen euskaraz ondo hitz egitea, gaixoei esaten ziotena ulertzeko gai izatea baino. Honela adierazten dira baldintza gisa: “*tiempo de practica que tiene en su profesión, edad, y si entiende la lengua bascongada*”.

Lanpostura 15 mediku aurkeztu ziren, guztiak beste herri batzuetako titullarrak: Deba, Eibar, Maeztu, Zestoa, Legazpi, Oiartzun, Zarautz, Zamora, Arauzo (Burgos), Urduña, Aranda de Duero, Medina de Rioseco, Bartzelona, Frescano (Zaragoza) eta Cádizeko Errege Armadakoa. Garai hartan, medikuen deialdiak *Gazeta Oficial* delakoan argitaratzen ziren, eta, beraz, ez zen arraroa Erresumako urrutiko zenbait lekutako hautagaiak aurkeztea, ekonomikoki oso tentagarria zitzaien plaza batera. Kanpokoei sortzen zitzaien arazoa, nekez gaildi zezaketena, hizkuntzarena zen, eta bi modutara baino ezin zuten gailditu: hizkuntza ikasiz edo laguntzaile-itzultzaile bat kontratatuz, beren kontura.

Jakina, lanpostura aurkeztu ziren hautagaiek aipatu zuten euskararen ezagutzaren gaia euren eskaeretan: batzuek, normalean ziurtagirien bidez, hizkuntza bazekitela bermatuz; beste batzuek, berriz, bertakoak zirela eta, beraz, euskaldunak (“*bascongados*”) zirela aldarrikatuz. Adibidez, Juan Antonio Monedero jaunak, Zestoako mediku titullarrak, honela zioen:

En cuanto al uso del Bascuence es publico y notorio q.º hace año y medio visito sin ayuda de interprete o practico, todos los caserios anejos, no solo a este pueblo [Zestoa] y su unido de Aizarna, sino también los de Arrona, Aizarnazabal y Oiquina, en los q.º no hay inconveniente alguno respecto el idioma, como será fácil de suponer considerando el ningun uso del castellano q.º tienen los caserios de dichos pueblos por lo retirados que se hallan del camino R.¹ y transitos usuales de esta N. Prov.^a y esto ultimo tan notorio y sabido, corrobora como instrumento publico el adjunto certificado de la justicia de Cestona q.º ofrezco a la Ynspeccion de V. S. [Vuestra señoría].



Medikuaren bisita, Edouard De Jans-ek egin

Aipatzen den euskararen gaitasun-agiriak honakoa dio: “*y posee el idioma bascongado en grado muy suficiente para el desempeño de su ministerio sin ayuda de ninguno*”¹²⁹. Kanpokoa zela ematen du, baina komunikatzeko adina euskara bazekiela, nahiz eta zuzentasun osoz ez hitz egin. Interesgarria da hau nabarmentzea, ezen badirudi, 1829rako, euskaldun elebakarrak komunikazio-bide handietatik eta hiriguneetatik urrun zeuden landa-eremuetan bizi zirela ia soilik, baina horietan gehiengo zabal zirela. Garai horretan, kasu guztietan, dela Bergarako edo Gipuzkoako beste edozein tokitakoa, beti aipatzen da hiribilduetatik urrun zeuden baserrietako bizilagunak zirela gatzelaniaz hitzik ere ulertzen ez zutenak.

Debatik Jose Zubeltzu medikuari buruzko informazioa eman zuten eta honela zioen: “*y en q.º a la inteligencia de la lengua Bascongada satisfago a V. con asegurarle q.e es natural del Pais, y q.e toda su practica ha ejercido en el*”¹³⁰. Hau da, ulertzen zen Euskal Herrian (“Pais”) (suposatzen dugu hiru probintziei buruz ari direla) jaioa izanik, derrigorrez jakin behar zuela euskaraz hitz egiten. Zentzu berean mintzatzen da Oiartzungo alkatea, Santia-

go Jose Etxeberria medikuari buruz informatu zue-nean: “*el idioma vascongado entiende perfectamente como que es natural de esta Prov.*”¹³¹. Oiartzungo beste txosten batean honakoa agertzen da: “*y posee bien la lengua bascongada*”. Gipuzkoarrei, bizkaitarrei edo nafarrei buruzko ziurtagiriak egiten zituztenek ere antzeko adierazpenak egiten zituzten. Horrela, Juan Manuel Umerez oñatiarrari buruz Zarautzetik bidali zuten idatzian ere euskaraz bazekiela jakinarazi zuten (“*posee su lenguaje nativo el bascuence*”)¹³². Legazpitik, berriz, Martin Urbikiain medikuari buruzko informazioa bidali zuten, eta adierazi zuten jaiotzatik, guztiz euskalduna zela (“*Es desde su nacimiento puro vascongado*”)¹³³. Hari buruzko beste txosten batean oso euskalduna zela baino ez zen esaten (“*bien bascongado*”). Torrejón de Ardozeko erretoreak, berriz, honela zioen, Francisco Zeferino Ulazia hautagaiari buruzko informazioa ematerakoan: “*y posee la lengua vascongada como nativa*”. Herri bereko epaitegikoek, berriz, Ulaziari buruzko informazioa ematerakoan honela zioten: “*el vascuence es su lenguace [sic] nativo*”.

Garai hartan Gipuzkoan jaioa izatea euskal hiztun izatearen sinonimotzat hartzen zela ikusteko adibide bat Jose Ignacio Artola Iartzarena da, Bartzelonatik honako hau jakinarazi baitzuten: “*también se me informo que hablaba perfectamente la lengua Bascongada y que era natural de esa Provincia pero no supieron darme razón del Pueblo de su naturaleza y contemplando que dicho D. Jose Artola reúne todas las circunstancias que pueden apetecer a esa Villa, deseoso de saber de donde era natural, lo mande llamar y manifestó ser natural de la villa de Amezqueta, con lo que quede persuadido de poseer la lengua Bascongada*”¹³⁴.

Ildo berean, oso interesgarria da Pedro Juan Goia Olarte jaunak bere hautagaitza aurkeztu zue-nean zioena:

A esto se agrega la circunstancia de ser natural del N. Señorío de Vizcaya, y poseer por consiguiente la lengua bascongada, circunstancia muy precisa para evitar un síndrome consecuencias funestas que de necesidad deben seguirse a una obscura explicación y ambigua inteligencia. Estamparía un sin número de razones en apoyo de esta mi última aserción, si no creyera ofender la penetración de V. S. empero estoy convencido no eluden sus conocimientos. El suplicante confiesa con la ingenuidad que le es característica que no es el interés el que lo motiva solicitar el objeto en cuestión sino un sincero amor a los naturales de este mi País. La conducta política y moral lejos de obstarle le hacen acreedor a que V. S. le tenga particular consideración como lo justificará con documentos de purificación.

Hain zuzen ere, Frescanotik (Zaragoza) Pedro Juan Goia Olarteri buruzko bi ziurtagiri bidali zituzten eta horietan esaten zen bere lehen hizkuntza euskara zela: “*su lengua primitiva me consta ser la bascongada*” edo “*que su lengua nativa es la bascongada*”¹³⁵. Nolanahi ere, kontuan izan behar da Goiak azpimarratu zuena: medikuak euskaraz jakitea ezinbestekoa zela, gaixoei euren gaixotasunari buruz esaten zutena ez ulertzeak ekar zitzakeen ondorio tamalgarriak saihesteko (“*consecuencias funestas*”).

Hautagaien artean bazen bat, Miguel Ripa nafarra, bere haurtzaroan eta gaztaroan behintzat euskaraz hitz egiten zuena, baina urte asko Gaztelako lurraldeetan bizi ondoren ahaztuta eta herdoilduta zeukana. 1815ean Chinchongo (Madril) medikua zen eta 1829an Zamorako katedralean kabildoaren mediku titularra. Hiri horretako apezpikuak ziurtagiri bat luzatu zion, eta bertan, besteak beste, honako hau adierazten zuen:

Me he informado acerca de si sabe o no hablar el Ydioma vascongado, y hallo, que a pesar del largo tiempo que falta en ese País le habla y le entiende aunque no con aquella perfeccion que cuando vivía en ese País. Mas en pocos días, tratando y conversando con las Gentes, renovara, quanto le falte del Ydioma; bien que sabe y entiende, y le pueden entender aquellos con quienes trate. Esta es la noticia que he adquirido y puedo comunicar para lo q. haya lugar¹³⁶.

Zentzu berean mintzo zen Zamorako intendentea ere: “*y en quanto si posee la lengua bascongada infiero, y se me ha dicho, que si; por ser natural de Navarra, aunque por no haberla usado en tanto tiempo podrá ser que no este muy diestro en su egercicio*”¹³⁷. Zamorako Alkate Nagusiak ere antzeko zerbait zioen: “*y aunque no le he oído el idioma vascongado me han informado personas de este País q.º le posee aunque no con toda la perfeccion q.º los naturales por falta de uso*”¹³⁸. Aipagarria da kasu honetan euskalduntzat hartzen zela Nafarra izateagatik (“*por ser natural de Navarra*”).

Kasuren batean, txostenetan iradokitzen da hautagaiak euskaraz zertxobait badakiela. Hala gertatu zen, adibidez, Segundo de Chomon y Marquina garai hartan Aranda de Dueroko (Burgos) medikua zenaren kasuan, egin zioten txostenetako batek haxe baitzioen: “*En el vascuence se alla muy poco enterado*”. Burgoskoa zen eta Burgosen eta Extremaduran aritua (1843an Plasenciako medikua). Zineman aitzindaria izan zen Segundo Chomon teruelarraren aitona zen. Beste informatzaile batek hau dio Se-

gundo de Chomon y Marquinari buruz: “*parece ser entiende algo la lengua bascongada*”¹³⁹. Beraz, badirudi zerbait bazekiela.

Hizkuntzaren erabateko ezjakintasuna agerikoa zen kasuetan, informatzaileak bi modu ezberdinetan adierazten zuten egoera. Kasurik gehienetan argi uzten zuten lehiakideak ez zekiela euskaraz hitz egiten, azalpen gehiagorik gabe; baina beste batzuetan adierazten zen lehiakidea ez zela baztertu behar arrazoi horregatik, hizkuntza azkar ikasteko gaitasun handia zuela eta. Lehenengo kasuen artean Jose M^a Palenciarena dago. Medina de Riosecoko alkateak bere berri ematen du eta esaten du: “*No tengo noticia de que posea el dialecto bascongado*”¹⁴⁰. Herri horretako beste txosten batek dio: “*sobre si entiende la lengua bascongada y no he podido averiguar nada de cierto, pero creo muy probablemente que no la entenderá*”¹⁴¹. Bigarren motako txostenei dagokienez, Luis Aguilaren kasua dago, Cádizko Armadan ziharduenarena. Hari buruz egiten den txostenean honako hau adierazten da: “*no posee el idioma vascongado; p.^o habiendo seguido una carrera literaria no le será difícil aprenderlo p.^r reglas gramaticales y por el uso*”¹⁴². Lucas Benito Hernandoren kasuan bi adierazpen moduak ageri dira. Arauzo de Miel (Burgos) herrian egiten zuen lan, eta herri horretatik jaso ziren txostenetako batean labur eta itzulingururik gabe adierazten da ez dakiela euskaraz (“*No sabe la lengua bascongada*”); baina hiribildu horretako alkateak honela zioen bere txostenean: “*ignora la lengua vascongada, aunque por el trato frecuente que ha tenido con vascongados y su corta edad no tardara [en] imponerse en ella*”¹⁴³.

1829ko irailaren 18an, medikua izendatzeko ardura zuen batzordeak Manuel Ripa aukeratu zuen. Soldata 12.465 errealek kuartekoa zen, gehi baserrietara joateagatik bisitako kobratzen zuena, errealek bost errealek arte. Ezintasunagatik erretiroa zuen, urtean 200 dukatekoa. Beti bezala, medikuei egiten zitzaizkien kontratuak bederatzi urtekoak ziren. Kontua da aipatutako batzordeak arauhauste bat egin zuela, hautagaien artean ez zuelako kontuan hartu Francisco Ceferino Ulazia 36 urteko azkoitiarra, baldintzak betetzen ei zituen: “*concurren las circunstancias mas apreciables tanto por su edad de treinta y seis años, como por ser natural del País*”¹⁴⁴. Udalbatzar Orokorra bildu zen, hautagaien artean Ulazia sartu behar zen ala ez bozkatzeko; hogeita bost boto izan zituen alde eta sei aurka. Ulaziaz gain, hautagaitzat jo zituzten Juan Manuel Umerez, Jose Zubeltzu eta Agustin Martin Zabaleta ere, hasiera batean hautaketa prozesutik kanpo utzitakoak, eta azkenean Ulazia aukeratu zuten. Kontuan hartu aukeratutako guztiak erabat euskaldunak eta Herrialdekoak (“*País bascongado*”) zirela. Orduan, zergatik kanporatu zuten Ripa, aukeratu ondoren? Susmoa daukat “*País Bascongado*-koa” ez izateagatik izan zela (nafarra zen), eta batez ere, euskara erabat ez menderatzeagatik. Interferentzia politiko bat ere egon zitekeen urte nahasi haietan, izan ere, Ulaziak jokabide moral eta politiko onaren ziurtagiria aurkeztu behar izan zuen, “Gure Subirano Legitimoaren izpiritu eta nahiekin bat zetozen ideiak adieraziz” (“*manifestado siempre las ideas mas conformes al espíritu y deseos de Nuestro Legitimo soberano*”). Akaso Ripak ezin zuen erakutsi Ulaziak egin bezala, “politikoki garbia” izatearen ziurtagiririk?

III.3 - **Euskal** elebakarren zailtasunak ingurune erdaldunetan

Erabat *euskaldunak* ziren inguruetan, Bergaran edo Azpeitian esaterako, *euskal elebakarrek* ez zuten inolako arazorik bizimodu normala egiteko, baina ingurune misto edo guztiz erdaldun batera aldatzen zirenean, non bizitza, ofiziala zein egunerokoa, gaztelaniaz egiten zen, zailtasun asko agertzen ziren; besteak beste, justiziarekin arazoak izanez gero defendatzeko ezintasuna areagotu egiten zen eta kartzelan amaitzeko aukerak nabarmen handiagoak ziren. Ikus dezagun Xabiera Bautxon Azpeitiarraren kasua. Hogei urteko gaztea zen, ofizioz jostuna, baina Azpeitiko, Bergarako, Ormaiztegiko, Bilboko eta Donostiako hainbat etxetan neskame jardunez biziraun behar izan zuen. Herri horietan ez zuen inoiz arazorik izan justiziarekin, eta euskal elebakarra bazen ere, ez dirudi ugazabekin eta gainerako bizilagunekin harremanak izateko zailtasunik izan zuenik. Hala ere, Gasteiza bizitzera joan zenean, bi aguazilek atxilotu zuten, Gamarran, “*por haberla encontrado divertida con soldados del Regimiento de Murcia*”, “*con ademanes poco decentes*”. Kontua da guardiek ez zekitela euskaraz, eta Xavierak bere burua defendatzeko interpretariengana jo behar izan zuen, baina ez zitzaion batere erraza gertatu. Azkenik, Zaragozako San Ignazio Loiolakoaren Etxean hiru urteko kartzela zigorra betetzera kondenatu zuten lizunkeriagatik. Ondoriozta daiteke Xavierak ez zuela hizkuntza-arazorik izan Bizkaian eta Gipuzkoan ibili zen bitartean, baina Gasteizen bai. Xaviera gaztelaniaz behar bezala mintzatu ahal izan balitz, Justiziaren jarduna saihesteko gai izango zen?¹⁴⁵

III.4 - **Analfabetismoa eta euskal elebakartasuna Bergaran**

Analfabetismoaren eta elebakartasunaren artean dagoen harremanean sakondu beharko genuke orain. Oso kontuan hartu beharreko abiapuntu bat dugu: alfabetatuak gaztelaniaz alfabetatu ziren, eta, ondorioz, ia guztiz bat datozen euskal elebakarra izatea eta eskolatu gabea izatea. Alfabetatzearen eta hizkuntza menderatzailearen ezagutzaren arteko lotura erabatekoa da. Eskola izan zen hizkuntza erromantzeak barneratzeko baliabide nagusia, eta, beraz, lehen hezkuntza gazteleraz jaso zuten guztiei oinarritzeko gaztelerazko ezagutza suposatu beharko litzaieke, nahiz eta, eskolatik irten ondoren, bati baino gehiagori gaitasuna atzendu, gutxi edo ia batere ez erabiltzearen poderioz. Beraz, ahalik eta zehatzen ezagutu behar genuke alfabetatutakoen ehunekoa, horrek, gutxi gorabehera, elebidunen ehunekoa adieraziko liguke eta.

Jakina denez, estatistikaren aurreko aroaren ezaugarri nagusia da bizitzako arlo guztietan (ekonomikoan, sozialean, demografikoan zein kulturean), ia ez dagoela zientifikoki bildutako daturik. Beraz, estatistikarik ez dugunez, alfabetatze-prozesura hurbiltzeko, normalean oso fidagarriak ez diren bideak erabili behar ditugu. Estatuan 1860ko zentsuaren zain egon behar dugu oinarritzeko hezkuntzaren arloan gutxieneko estatistika fidagarria izateko. Zentsu horretan, udalerrri bakoitzeko gizon eta emakumeek irakurtzeko eta idazteko zuten gaitasuna jaso zen, hiru mailatan banatuta: irakurtzen soilik zekitenak, irakurtzen eta idazten zekitenak, eta guztiz alfabetatu gabeak. Nahiko baikor jotzea da irakurtzen zekitenak baina idazten ez zekitenak alfabetatutzat jotzea, baina, hala ere, horiek alfabetatutzat hartu ditugu. Beraz, Bergarari dagokionez, daukagun analfabetismoaren datu fidagarri samar zaharrena ikerketa honek

hartzen duen epearen amaiera aldekoa da, 1860. urtekoa, hain zuzen ere, baina aurretik ez dugu horri buruzko inolako zenbaketarik.

Hori dela eta, XVII., XVIII. eta XIX. mendeko analfabetismoaren errealitatera hurbildu nahi badugu, beste metodo bat erabili behar dugu: dokumentu publikoetako sinatzaileak zenbatzea. Jakina denez, dokumentu jakin batzuetan (auziak, salerosketak, testamentuak, etab.) nahitaezkoa zen eskritura-emaileek, lekukoek, adierazpen-egileek eta abarrek sinatzea, eta, hala egiten ez bazuten, horren zergatia adieraztea. Ia kasu guztietan ez sinatzearen arrazoia ez jakitea izaten zen, nahiz eta, batzuetan alegatu izan zuten ezin zutela sinatu ahultasunaren edo gaixotasunaren eraginez. Sinatzaileak zenbatzearen sistema honek baditu bere gabeziak eta aurkari asko izan ditu, guztiz fidagarria ez delako, baina berau dugu Aro Modernoan alfabetatze-prozesuaren bilakaerari buruzko ikuspegi orokorra eman diezagukeen sistema bakarrenetakoa. Hasteko, kontu handiz ibili behar da estatistika osatzeko erabiltzen diren dokumentuak aukeratzekoan: dokumentu horietako batzuk oso lerratuta daude arlo sozio-profesional edo genero konkretu batera edo batzuetara eta, ondorioz, ez dute betetzen gizartearen gutxieneko ordezkagarritasun-baldintzarik. Adibidez, elizako dokumentazioa aukeratzen badugu, subjektu gehienak erlijio gizonak izango dira, alfabetatuak, eta, ondorioz, datu horiek ez dira baliagarriak izango. Gainera, onartu behar da emakumea beti gutxiegi ordezkaturik egon dela agirietan (dokumentazio mota batzuetan modu eskandalagarrian), eta, beraz, emaitza globala beti egongo da baldintzatuta, biztanleria helduaren laurden bat, gutxienez, faltako delako. Bestalde, zenbaitek sinatzen du, baina hain modu traketsan, non agerian uzten baitu




Bergarako bista orokorra. Hirigunea

bere ikasketa maila oso apala dela, eta ziurrenik ez duela irakurtzen eta idazten jakingo; alegia, soilik bere izena zirriborratzen ikasi duela. Jakina da, gainera, kasu batzuetan batzuek txantilo batekin sinatzen zutela, analfabeto gisa ez agertzeko, nahiz eta hala izan.

Noizean behin, agertzen dira dokumentu batzuk, eskritura emaile asko dituztenak eta sinatzen dakiten guztiek izenpetu beharrekoak, eta dokumentu horien bidez atera dezakegu sinatzeko gaitasunaren inguruko hurbilketa estatistikoa. Arazoa da normalean dokumentu horiek ez dutela gizartea islatzen, eta generoaren, bizilekuaren eta gizarte-mailaren arabera alborapen nabarmena dutela, agertzen diren gehienak gizarte-talde nagusietako gizonezkoak direlako. Adibidez, 1634an, Kontzejuko kargudunak hautatzeko hautesleen zerrenda bat osatu zen, kide denak zaldun kapareak zirela, alegia, gizonezkoak. Hiribilduan 50 hautesle zeuden, eta Oxirondon, hau da, jurisdikzioko landa-eremuan, 68; horietatik bik baino ez zekiten sinatzen, hau da, % 2,9k¹⁴⁶. 1657an Suaroa (*Hermanidad de las casas gemadas*)¹⁴⁷ izeneko sorospen elkarte bat eratu zen sutearen ondorioz etxea hondatu zitzaizen jabeei laguntzeko. Hasiera batean, 47 jabe hartu zuten parte ermandade horretan. Guztiak gizonezkoak ziren, eta ia guztiak leinu nabarmenetakoak, bai sozialki zein ekonomikoki, eta, beraz, ustez alfabetatuak eta oinarritzko ikasketak zituztenak. Bada, sortze-agiria egin zuten 47 horietatik 27k baino ez zuten sinatu, hau da, % 57,4k. 1657. urtean bertan, San Matias kofradiak bi bilera egin zituen. Bertan, aitzogileak eta guraizegileak biltzen ziren, eta 50 kidek hartu zuten parte, hau da, agirian agertzen denez, lanbide horietan aritzen ziren maisu gehienak “*la mayor parte de los maestros*”, izan ere, urte horretan Bergaran 56 maisu eta 31 ofizial aritzen ziren labanagintzan eta guraizegintzan. Parte hartu zuten guztiak gizonezkoak izan ziren eta horietako sei jaun (“*don*”) tratamendukoak ziren, Bergarako gremio-jardueraren

goi-geruzetakoak. Zerrendaburu, Lorenzo Arisiti eta Lorenzo Amileta ikuskatzaileak ageri dira. Bada, bilera horietan parte hartu zuten 50etatik 14k sinatu zuten, hau da, % 28k¹⁴⁸. Jakina, dokumentuetan maisuen emazteak, ofizialak eta aprendizak agertu izan balira, sinatzaileen ehunekoa izugarri jaitsiko zatekeen.

Gainera, agerian geratzen da garai hartako oinarritzko ikasketen maila apala, pertsona askok (batez ere emakumeek) eskolara joan eta irakurtzen soilik ikasten zutelako, baina ez idazten; eta tarte motz bat egin ondoren, eskola utzi egiten zutelako, lanean hasteko. Irakurtzen jarraitzen ez zutenez, analfabeto funtzionalak ziren, eta, denbora baten buruan, ikasitako apurra ahaztu egiten zitzairen. Pentsatzekoa da eskolan oinarritzko gaztelania ikasiko zutela, baina erabiltzen ez zutenez, ahaztu egingo zitzaizela. Ikus dezagun kasu bat. 1824an izandako familia-liskar batean, Jose Manuel Ibarzabalek labanaz zauritu zuen bere aitaren osaba Miguel Ibarzabal. Prozesuan deklarazioa sinatzeko ordua iritsi zitzaizenean, Miguelek ez zuen sinatu, zertxobait idazten bazekien arren (“*no firmó aunque sabía escribir un poco*”), eta Jose Manuelek esan zuen lehenago sinatzen bazekiela baina orduan ezetz, ahaztu egin zitzaizolako: (“*que aunque antes lo sabía [firmar] no sabe en el día por habersele olvidado*”)¹⁴⁹.




Eskola-maisu bila, 1655eko abenduaren 19ko Udalak

Sinatzaileen bi laginketa egin ditugu: bata testamentu-dokumentazioan oinarrituta eta bestea dokumentazio prozesalean. 1600 eta 1799 artean testamentua sinatzeko gai ziren Bergarako testamentugileen ehunekoa neurtu nuen aurreko batean¹⁵⁰. Orduan 327 testamentugileren lagina izan zen, gizonezkoak zein emakumezkoak, nahiko modu homogeneoan banatuta aztertutako 200 urteko aldian. Orain estatistika hori 1800-1849 aldiari dagozkion beste 93 testamenturekin osatu dugu, hau da, bi aldiak kontuan hartuta, 420 testamentu hartu dira kontuan. **IX. Taulan** 1600-1849 aldian testamentua sinatu ez zutenen kopuruak ikus ditzakegu. Bestalde, **V. Grafikoa** prestatu dugu, eta hor konparatu ditugu alde bate-tik, testamentuen gaineko analisiaren emaitzak eta auzibideetako adierazpen-egilea elebarkarra izateagatik eskribauak eskritura itzuli zien kasuak, eta bilakaera nahiko paraleloa antzeman daiteke bi serieen artean.

IX. taula. Testamentu-eskriturretan analfabetoen ehunekoa, 1600-1849 eta prozesuetan atzemandako elebarkarren ehunekoa, 1721-1839					
	Testamentuak				Prozesuak
	Sinatzen ez duten gizakumeen %	Sinatzen ez duten emakumeen %	Laginean alfabetatugabeen %	Generoaren batez- bestekoa aplikatuta alfabetatugabeen ¹⁵¹	Elebarkarren %
1600-1624	50,0	100,0	66,6	75,0	
1625-1649	46,7	95,8	76,9	71,3	
1650-1674	41,7	100,0	66,6	70,9	
1675-1699	47,4	100,0	69,7	73,7	
1700-1724	30,4	88,5	61,2	59,5	72,5
1725-1749	52,9	80,8	69,8	66,9	72,2
1750-1774	60,9	74,1	68,0	67,5	72,2
1775-1799	42,3	79,2	60,0	60,8	40,0
1800-1824	32,3	53,8	42,1	43,1	
1825-1850	36,4	78,6	52,8	57,5	18,8

V. Grafikoa. Analfabetismoaren bilakaera testamentuetan eta elebazarren bilakaera prozesuetan 1600-1850




Gogoratu behar da, hala ere, notario-dokumentu gehienek dutela alborapen bat, eskritura-emaileen jatorri sozio-ekonomikoari dagokionez, eta hutsune hori are nabarmenagoa dela testamentuetan. Hau da, normalean, oinordetzan zerbait uzteko zutenek egiten zuten testamentua, pobreenek halakorik egiteko motibo gutxi izaten baitzuten. Gainerakoan, beti bezala, gizonak emakumeek baino proportzio handiagoan gauzatzen zuten agiri mota hori, eta horrek gure analisiak desitxuratzeko arriskua dakar, sinatzen zekitenen ehunekoa benetan zena baino handiagoa zela aditzera eman baitezake. Edonola ere, testamentua sinatzeko gai ziren eskritura-emaileen ehuneko osoaren batezbestekoa % 33 ingurukoa izan zen 1600 eta 1774 artean, eta XVIII. mendearen azken laurdenera bitarte % 40raino igo zen. Datu horietan, dena den, genero-desberdintasunak izugarriak dira: XVII. mendean zehar sinatu zuen emakumerik apenas aurkitzen den bitartean, garai berean, gizonetakoetan % 50 eta % 58 artean dira. Nolanahi ere, testamentuetan agertzen zaizkigun alborapen sozio-profesionalaren eta genero-alborapenaren eraginez, bi mende horietan zehar eskriturak sinatzen zituztenen ehuneko orokorrak nahiko egonkor mantendu ziren, % 35 inguruan. XIX. mendearen lehen erdian, ordea, nabarmen jaitsi zen testamentua sinatzen ez zutenen ehunekoa, batez ere emakumeen artean. Hala ere, badago anomalia bat testamentu-sinatzaileen azterketa honetan, izan ere, 1800-1824 aldian analfabetoen ehunekoa nabarmen jaisten den bitartean,



Euskal Baserritarrak, 1871

1825-1849 artean igo egiten da zerbait. Hartutako laginaren arazoa izan liteke, ez baita ulergarria alfabetismoak aldi batean behera egitea eta ondoren igotzea, printzipioz prozesu jarraitua delako. Nolanahi ere, gizonezkoetan, testamentu-egile alfabetatugabeen ehunekoa XVII. mendearen hasieran % 70 ingurukoa izatetik XIX. mendearen lehen erdian % 45 ingurukoa izatera igaro zen. Emakumeen artean beherakada hori are ikusgarriagoa da: XVII. mendean sinatzen ez zutenen ehunekoa % 100 inguruan zebilen bitartean, XIX. mendearen lehen erdialderako, % 60 ingurura jaitsita zegoen.

Prozesu judizialek testamentu-agiriekin baino askoz hobeto ordezkatzeko errealitate soziala. Hasteko, emakume gehiago biltzen dituelako, nahiz eta parekotasunera ez den iristen, ezta hurrik eman ere. Eta bigarrenik, prozesuetan gizarte-sektore guztietakoak agertzen zirelako nolabait, pertsona helduak behintzat. Hala, horietan, sinatu beharra izango dute klase guztietako lanbidedunek: tabernariak, errotariak, ikasleak, jostunak, apaizak, militarrek, abokatuak, nekazariak, baserrietako maizterrek, merkatariek, ikazkinek, mandazainak, andre-gizon gorenak, medikuak, neskameak eta abarrek. Alfabetatuta egon zitekeen adin tarte bat faltako litzaiguke, zazpi urtetik hamabost urtera bitartekoa. Beraz, prozesu multzo zabal bat aztertzeraz jo dugu, 1604tik 1839ra bitartean, eta horren bidez jaso nahi izan dugu akusatuen, salatzaileen, adierazpen egileen, lekukoen eta, oro har, inplikaturako gizon eta emakume guztien sinatze-gaitasuna. Sinatzaile guztiek irakurtzen eta idazten zekitela kontuan hartu dugu, nahiz eta, kasu batzuetan, sinaduraren baldartasuna ikusita, titularrak alfabetatutzat hartzea oso baikorra izan. 67 prozesu hartu ditugu kontuan, XVII. mendetik XIX. mendearen lehen erdialdera arteko tarte hartzen dutenak, eta emaitzak 50 urteko denbora-tarteetan multzokatu ditugu, alfabetatze-prozesuaren balizko bilakaera islatzeko. Hautatutako prozesuak aztertutako aldi osoan kronologikoki modu homogeneoan banatzen saiatu gara, nahiz eta 1800-1824 aldiaren ez dugun prozesu judizialik aurkitu. Garaiko gizartean ohikoak ziren era guztietako gatazkak azaltzen dira prozesuetan: tornuko-umeak (ume abandonatuak), zaurituak edota hildakoak sortzen zituzten borrokak eta dueluak, estuproak, lapurretak, mehatxuak eta irainak eta abar. 1.150 pertsona aurkitu dira, horietatik 895 gizonezkoak eta 255 emakumezkoak. Aldi osoa kontuan izanda, % 69,2 izan ziren, batez beste, proposatzen zitzaizkien eskritura sinatzeko gai izan ez zirenak. (X. Taula)



Alkateak "aditzera eman" die Udalbatzar Orokorra bertaratu direnei lau almoneta egin dituztela haragihorniduraren inguruan, 1730

Metodologiari dagokionez, badirudi eraginkorrena dela pertsona asko biltzen dituzten dokumentuak bilatzea, bi generoak nahikoa modu orekatuan jasotzen dituztenak, eta gizartearen aniztasuna ondo islatzen dutenak. Ezaugarri horiek, batez ere, hilketa, lapurreta eta abarren ondorioz zabaltzen diren auzi eta kereila kriminaletan gertatzen dira, horietan adierazpen egileak ez baitira apropos aukeratzeko, baizik eta auzian akusatu, lekuko edo kaltetu gisa izan duten partaidetzagatik. Hala ere, prozesu horietan lekukoak ahalik eta ospe handieneko pertsonen artean bilatzen ziren, gehienetan gizonezkoak, hori dela eta, lagina, ezinbestean, desitxuratu egiten da.

Taula egiteko, jarraian datozen 67 auziak erabili ditugu, eta kasu bereziren batean, beste udal agiriren bat.

1604-1605. Udalak Tomas Barrutiaren aurka jarritako kereila, herri-lurretan errota bat eraikitzeagatik; Barrutiak, lur horiek bereak zirela alegatzen zuen¹⁵².

1620. Kasu honetan ez da auzi bat, Udalbatzar Orokor baten akta baizik. Bilera horretan ardoaren kontsumoa zergapetzea erabaki zen, medikuaren eta eskolako maisuaren soldata ordaintzeko funtsak lortzeko. Gizarte-talde boteretsuenetako ordezkariak elkartu ziren (horietako asko baserri-jabeak), guztiak gizonezkoak. Kontuan hartu behar da alkateek eta errejidoreek legez irakurtzen eta idazten jakin behar zutela. Ohikoa da horrelakoetan alkateak beste guztien izenean eskritura sinatzea, baina oraingo honetan "udal honetan [sinatzen] zekiten guztiek sinatu zuten" ("la firmaron los que sabían por todos los de este ayuntamiento") [eskribauaz gain, jakina]. Guztira zazpi pertsona izan ziren sinatzaileak, euren artean

alkatea, bi errejidore eta bi diputatu. Batzarrera 72 gizon joan ziren, hiribilduko eta bere jurisdikzioko agintariak eta auzoak. Hau da, % 11 baino ez zen sinatzeko gai, baina kontuan hartu beharra dago bertan gizonak bakarrik zeudela, eta horiek, gainera, gizarteko sektore boteretsuenetakoak zirela.¹⁵³

1624-1629. Alejandro Sustaetaren, bere nekame Martika Ibarzabalen eta Perizko Gabiriaren aurkako auzia, arropa zuria lapurtzeagatik¹⁵⁴.

1627. Ysavela Inurrigarro Antzuolako Unibertsitateko bizilagunak, Ana Ugalderen ama legitimoa zenak, Pedro Mendiolaren seme Francisco Mendiolaren aurka abiatutako autoak, bahiketa eta bortxaketa saiakeragatik. Antza denez, Anari bi gizonek eraso egin zioten kalezulo batean, eta horietako bat Francisco izan zen. Ez erasotuak ezta amak ere ez zuten sinatu, baina bai akusatuak eta bere aitak, gizonezkoak izateaz gain gizarte-talde boteretsuetako kideak ziren seinale¹⁵⁵.

1630-1633. Martin Arana Lizarralde, Maria Arana Lizarralderen aita legitimoak, Pedro Elkororen aurka abiatutako autoak, ezkon-hitza ez betetzeagatik eta estuproagatik; salatuari ezkontzea, edo bestela, eragindako kalteengatik 1.000 dukat ordaintzea eskatu zitzaion¹⁵⁶.

1634. Ofiziozko autoak Martin Arteaga Fikaren aurka, abandonatutako haur bat kalean hilik agertu ondoren¹⁵⁷.

1634. Joan Erraztik Francisco eta Joan Babazkoitiaren aurkako kereila aurkeztu zuen, Osintxutik igarotzean bere mandoa harrika zauritzeagatik. Bi albaitarik deklaratu zuten, eta batek ez zuen sinatu¹⁵⁸.

1635. Joan Perez Gallaiztegi eta Ma Kanpos auzipetu zituzten, ohaidetza leporatuta.¹⁵⁹

1642-1644. Bergarako, Oñatiko eta Arrasateko jurisdikzioek bat egiten duten tokian, Elorregiko San Prudentzio basilizan, izen handiko erromeria



Euskal emakumeen zirraborra; Petit de Meurvillek egina, 1860ko hamarkada

ospatzen zen. Sarritan liskarrak izaten ziren hiru herrietako mutilen artean. Urte hartan liskarrak ohi baino handiagoak izan ziren eta goi mailako bergarar bat hil zen: Diego Ozaeta jauna. Zegokion prozesu kriminala ireki zen. Adierazpen egileen eta liskarrean parte hartu zutenen artean denetarik zegoen, maila sozialaren aldetik: hasi goi mailakoetatik eta maizter txiroetaraino. 1643an, heriotza horregatik auzipetuetako batek, Martin Balantzategik, kartzelatik ihes egitea lortu zuen. Hori dela eta, ikerketa berri bat abiarazi zen eta alkaidearen aurkako espetxeratze-autoa agindu zen, presoari ihes egiten utzi izana egotzita¹⁶⁰.

1644. Nicolas Lagran auzipetu zuten Lorentzo Oregi aizkora batekin zauritzeagatik¹⁶¹.


1645. Urte hartako Jasokunde egunean, ohi bezala, garai hartako herriko zaindari San Rokeren ome-nezko jaia antolatu zen eta kaleak argiz eta su-festaz bete ziren. Kontua da lagun-talde bat Bidekurutze-tako plazan elkartu zela, ezpatak zorrotik aterata, eta erretiratzeari uko egin ziotela ordua iritsi zenean. Justizia bertaratu zenean, borroka sortu zen eta Pedro Zabaleta jaunak labankada bat jaso zuen buruan. Kontua da Zabaleta Bilbon bizi zela, eta berarekin batera zeudela beste bilbotar batzuk ere, antza denez, festara elkarrekin etorritakoak. Andres Belastegi, Joan Aldaeta, Miguel Enparantza, Antonio Ugalde eta beste hainbat auzipetu zituzten, justiziari aurre egiteagatik. Interesgarria da ikustea bilbotar guztiek sinatu zuten bitartean, ez Bergarako akusatuak ez eta lekuko gisa jardun zuen Hiribilduko hamabi bat ere, ez zirela sinatzeko gai izan¹⁶².

1650. Juan Perez Narbaizak kereila jarri zuen Domingo eta Martin Artolazabal anaien eta bien lehen-gusu Antonio Obiagaren aurka, Zubiate auzoan eraso egin ziotelako¹⁶³.

1650. Martin Perez Artolazabali eta bere seme Antonio Artolazabali Francisco Bagazkoitia, *Goenesse* (Goenetxe) baserriko maizterra, hiltzea leporatu zieten¹⁶⁴.

1657. Bergarako aitzogileen, guraizegileen eta bestelako tresna zorrotz eta ziztatzaileen ("*obras cor-tantes y punzantes*") kofradia indartsua urte horretan bildu zen elkartekideek lehengaien hornidurarekin zuten arazo endemikoa konpontzen saiatzeko. Helburua zen prezioak finkatuko zituen eta hornidurak ziurtatuko zituen akordio bat lortzea. Horretarako, kofradiako kide ziren 50 aitzogile bildu ziren, guztiak gizonezkoak eta ia guztiak maisuak (bakan batzuk agertzen dira ofizial gisa, baina aprendizik ez). Bada, 50 gizon horietatik, dokumentuan 14k baino ez zuten sinatu. Hau da, gremioko kideen % 72 alfabetatu gabeak ziren¹⁶⁵. Gogora dezagun, zerrenda horretan emakumeak egon izan balira, alfabetatugabeen ehunekoa esponentzialki haziko zela. Edonola ere, alfabetatugabeen ehunekoa oso handia da, kontuan hartuta maisu-maila zuten gizonezko artisauak zirela eta kalean bizi zirela.

1657. 1657ko ekainaren 25ean, elkarlaguntzarako elkarte bat sortu zen Bergaran, Suaroa (*Hermanidad de las casas gemadas*) izenekoa. Bere helburua zen sute baten ondoren erreta edo hondatuta geratzen ziren etxeak berreraikitzen laguntzea. Elkarte hori 50 baserri- eta etxe-jabek eratu zuten, guztiak gizonezkoak eta lur-jabeen artean goreneko mailetakoa, beraz, pentsatzekoa da oinarrizko heziketa izango zutela. Bada, 50 jabe horietatik, 27k baino ez zuten sinatu, erdia baino gehixeagok. Beraz, % 46ko analfabe-



Eskritura baten sinatzaileak, 1791ko azaroaren 18an

tismoa zuten, aitzogileek urte berean zutena baino txikiagoa, baina klase boteretsuetako gizonak izateko, oso altua¹⁶⁶.

1677. Martin, Marcos eta Domingo Garitano Artizen eta Domingo Atxotegiren aurkako auzia, Santo Tomas ermitaren aurrean izandako liskarrentzatik¹⁶⁷.

1679. Gregorio Altolagirre txirulari-danbolinjolea (*"tambolirero pífano"*), Mariana Larrañaga bere emaztea, Catalina Etxebarria bere amaginarreba, eta Juan Arrondo Ataungo bizilaguna, diru faltua sartzeaz akusatu zituzten¹⁶⁸.

1694. Pedro Agirre zapatariari, Francisco Galar-di erasotzea eta hiltzea leporatu zioten¹⁶⁹.

1696. Martin Askargortak, bere seme Joseph eta Andres Askargortaren eta haien ama Ysabel Aranaren ordezkari gisa, salaketa jarri zuen, Miguel Enparanen morroi Juan eta Domingo Mendizabalen aurka, mehatxuengatik eta eraso fisikoagatik¹⁷⁰.

1698. Ofiziozko autoak ireki ziren Luisa Sasiainen, Pedro Ozerainen, Francisco Olaskoagaren, Ziriaca Etxeberriaren eta Esteban Abaria arkitektoaren aurka, Zubieta auzoan ume bat abando-natzeagatik¹⁷¹.

1699. Udal Erregimentuaren bilkura batean bildu ziren Alkatea, Sindikoak, Errejidoreak eta Herri Xehearren Diputatua (*"diputado del comun"*), (guztira zazpi gizon, batzuk Done Jakue Ordenako kideak), eta eskribauak agiriaren amaieran honakoa jaso zuen: "eta sinatu zuten zekitenek..." (*"y firmantes los que savian, con mi dicho ess.^{no}"*). Bada, alkatea, Diego Tomas Jauregi Salazar jauna, izan zen sinatu zuen bakarra¹⁷².

1704. Dirudienez, Joseph Etxagaraik eta Gaspar Askargorta ikasleak Molinatzoko errota inguruan duelua egiteko erronka bota zioten elkarri. Aurrez borroka bat izan zuten. Agintariak bertaratu zirenean, Etxagarai hilda aurkitu zuten eskuineko bular gainean ezpata-zauri bat zuela. Bere ondoan bere ezpata zegoen, berdugillo bat eta beste ezpata baten zorroa. Lekuko gisa deklaratu zuten errota-riak, haren semeak, neskameak, eta baita Askargortaren amak eta beste senide batzuek ere, bai eta inguruetako hainbat baserritarrek (maizter eta morroi), eta horietako inork ere ez zuen sinatu. Sinatu zuten, ordea, bi zirujauek eta Jesusen Lagundia-ren Ikastetxeko Askargortaren zenbait ikaskidek. Kasu interesgarri bat Antonio Izagirre hiribilduko errejidorearena izan zen, adierazi baitzuen ez zuela sinatu ez zekielako¹⁷³.

1704. San Kristobal egunean, 1704ko uztaila-ren hamarrean, erromeria egiten zen zelaian (*"En el prado donde se danza en la fiesta de San Cristobal en su dia, diez de julio de 1704"*) liskar bat sortu zen, eta Juan Zabala Irigoin gazte elgetarra zauri-tuta atera zen. Garai hartako Elgetako alkatearen, Martinez Zabalaren, semea zen¹⁷⁴.

1710. Elosuan Pazko bigarrena ospatzen ari ziren; ospakizun horretan zehar istilu bat izan zen, eta bertatik zaurituta atera ziren Joseph Bazterrika Iriaun, Andres Agirrezabal —Elosuko San Andres elizako sakristaua—, Joseph Askargorta, Andres Urdangarin eta Andres Larrañaga. Andres Agirrezabal, Joseph Bazterrika Amezabalaga, Juan Larrañaga, Pedro Argarate, Miguel Enparantza, Matheo Askargorta, Juan Lariz eta Ygnacio Epelde akusatu zituzten¹⁷⁵.

1721. Udalerrien arteko indarkeriaren kokagune klasiko bat udal-mugetan kokatutako baselizetan ospatzen ziren erromeriak izaten ziren, bertara, bergararez gain, inguruko herrietako bizilagunak ere joaten zirelako. Osintxuko Martirien ermitako erromerietan soraluzetarrek ere parte hartzen zuten, eta askotan makilakadaka edo eztenkadaka amaitzen zen festa. Urte honetan, borrokak esku artetik ihes egin, eta hildako bat eta hainbat zauritu izan ziren, guztiak Soraluzekoak. Domingo eta Tomas Olabarria eta Joseph Azkargorta bergararrei Jose Gantxegi hiltzea eta Martin Narbaiza soraluzetarra zauritzea leporatu zieten. Azpimarragarria da Andres Martinez Gantxegi Bergarako errejidoreak testigantza eman zuela, baina ez zuela sinatu, ez zekielako¹⁷⁶.



Elosuko Eskola, 1944

1723. Dirudienez, Jacinto Azkaratek salaketa jarri zuen Pedro Garairen aurka, zor zizkion erreal batzuegatik, eta azken horri hori ez zitzaion gustatu. Garaik, Juan Mekoletaren laguntzaz, Azkarate hil zuen makilakadaka¹⁷⁷.

1725. Domingo, Martin, Joseph eta Agustin Narbaizaren kaparetasun-frogaketan, agertu ziren bederatzik lekukoetatik, denak gizonaek, seik ez zekiten sinatzen, hau da, % 66,7¹⁷⁸.

1728. Pedro Gabilondok, Laspiurko errotoak maizterrak, ustez Ignacio Barrenetxearenak (Arando baserriko jabearenak) ziren lizar batzuk moztu zituen, eta hark auzitara eraman zuen¹⁷⁹.

1734. Josepha Zuloetak Joseph Iribe Kanpos salatu zuen estupro delitua egotzita. Akusatuak sinatu zuen, salatzaileak, ordea, ez. Kasu horietako askotan, erasotzailea gizarte-talde boteretsuetako kidea izaten zen eta alfabetatuta egoten zen; erasotuak, berriz, jostunak, neskameak... izaten ziren, eta, gainera, emakumeak, beraz, alfabetatugabeak beti¹⁸⁰.

1734. Maria Nicolasa Etxeberriak, bere ama eta tutore Francisca Korkostegiren bitartez, kereila kriminala jarri zuen Gaspar Lonbide koltxoigilearen aurka, estuproa egotzita. Neskaren hitzetan: “*un dia, hallándose sola en casa, la cogio entre brazos, y hechandola sobre una cama la gozo y quebranto su virginidad*”¹⁸¹.

1745. Mugertza auzoko plazatxoan borroka bat sortu zen, eta horren ondorioz Miguel Madariaga zauritu zuten, hesola batekin buruan jota. Ondoren, hil egin zen. Pentsa daitekeenez, gertaturikoa argitzeko prozesuari ekin zitzaion¹⁸².

1746. Ofiziozko autoak Josepha Arzamendiren aurka, Maria Xaviera Alaizari —bere ama Angela Azpearen etxetik— zilarrezko koilarak, sardexkak eta kaxak, eta matazak, jantziak eta etxeko-arropa lapurtzeagatik¹⁸³.

1749. Domingo Aldekoa, Juan Antonio Aldai, Joaquin Albiztegi, Juan Arbulu, Domingo eta Manuel Berraondo, Jose Uribe, Martin Errazti eta Martin Lasagabaster Elgetako eta Leintz Gatzagako bizilagunen aurkako auzia, liskarrak eragiteagatik. Kontuan hartu diren bakarrak, tartean egon ziren Bergarako lekukoak izan dira, ez Elgetakoak, Aretxabaletakoak edo Arrasatekoak¹⁸⁴.

1751. Ezkon-hitza ez betetzeagatik sortutako ohiko auzi bat gertatu zen. Maria Gregoria Zulueta salaketa jarri zion Manuel Lizarralderi, harekin seme bat izan ondoren. Manueli haurra aitortzeko eta berarekin ezkontzeko eskatzen zion; bestela, 100 dukat eman ziezazkiola kalte-ordain gisa¹⁸⁵.

1753. San Pedro elizako hilerrian haur jaioberri bat abandonatuta agertu zen. M^a Antonia Elizalde, Juan Lonbida erroteria eta Lorenza Artzamendi jostuna auzipetu zituzten¹⁸⁶.

1754. Erromeria baten testuinguruan sortutako liskar klasiko bat dugu hau. Kasu honetan, San Juan auzoko Santi Kurutz ermitan. Dirudienez, dantzan ari zirela, batek besteari bultza egin zion, eta hitzetik hortzera haserretuz joan ziren elkarri oratu arte (“*y de palabra en palabra se enfurecieron y se asieron uno a*

otro”). Emaizta: borroka orokortua, eta lau pertsona makilkadaz larri zaurituak. Guztiak ziren gazteak: baserritarrak (maizterrak) edo errotariak. Emakumeen artean neskameak ziren nagusi. Kontua da, deklaratu zuten zortzi gizonezko eta bederatzi emakumezkoen artean inor ere ez zela sinatzeko gai izan¹⁸⁷.

1755. Joseph Unamuno, Martin Unamuno, Antonio Lizarriturri, Miguel Antonio Garitano, Joseph Ibarzabal, Blas Lonbida, Antonio Eguren, Martin Aiardi, Ygnacio Alberdi, Joseph Lizarralde, Manuel Villar eta Andres Larrañaga salatu zituzten, Probintziatik kanpo, zehazki Gasteizko feriara, idi gizenduak ateratzeagatik, debekatuta egonda. Datu interesgarri gisa, aipa genitzake, alde batetik, 1755eko urte hartan Bergaran pregoilari publikoa zegoela, Bernardo de Villa izenekoa, eta pregoiak danbor kaxaz (“*a son de Caja*”) lagunduta botatzen zirela; bestetik, berriz, Pedro Elizpuru aguazilak ez zekiela sinatzen¹⁸⁸.

1757. Domingo Iraola Garate auzipetu zuten, Soledadeko ermita edo “basilikaren” aurrean tornuko ume bat agertzearekin lotuta¹⁸⁹.

1757. Aratusteetako ospakizunetan sortutako iskanbilan, Kristobal Zufriategik Joseph Mekoleta jo eta zauritu zuen¹⁹⁰.

1757. San Martin Agirreren omenezko Nobleen Kofradia sortu zen Bergaran, eta erakundearen Arautegia ere onartu zen. Helburu horrekin hogeita lau bergarar bildu ziren, guztiak gizonezkoak eta oinetxeen eta baserrien jabeak. Kontuan hartu behar da kofradia “nobleena” zela eta, beraz, sortzaileak Bergarako leinu zaharretatik zetozela. Bada, hogeita lau sortzaile horietatik zazpi baino ez ziren sinatzeko gauza izan. Hau da, haien artean % 70,8 alfabetatu gabe zeuden¹⁹¹.

1760. San Andres gauean borroka bat izan zen Larramendiko hariztian, eta hainbat zauritu izan ziren. Juan Bautista Garitano Artiz eta Joseph Iribe jo zituzten erantzulez eta euren aurka jo zuten. Bernardo Inurrieta aguazil eta presoainak ez zuen sinatu¹⁹².

1760. Badirudi urte horretan, Francisca Antonia Usobiagak ezkontzaz kanpoko harremanak izan zituela Juan Arrieta zurgin maisuarekin. Francisca Antoniaren senarrak, Joseph Antonio Iribek, salaketa jarri zuen eta autoak ireki zituzten haien aurka¹⁹³.

1766. Borroka bat izan zen Zubieta auzoan, eta Manuel Agirrezezeaga eta Agustin Unamuno zaurituak suertatu ziren. Francisco eta Juan Unamunori leporatu zieten eraso¹⁹⁴.

1767. Francisco Etxagoien, Manuel Inarra, Miguel, Agustin eta Ygnacio Unamuno, Esteban eta Sebastian Iribe, Juan Baupista Alburua, Francisco Larrañaga, Pedro Agirrezabal eta Ygnacio Larrea auzipetu zituzten, Santiago Arizti Elgetako bizilagunari erasotzeagatik eta zauritzeagatik¹⁹⁵.

1769. Domingo Ugaldek kereila kriminala aurkeztu zuen Ma^a Josepha Irigoien ermuarraren aurka, Manuela Ma^a Ugalde —Domingoren alaba, bi urte lehenago aitaren etxetik ihes egindakoa—, etxean hartzeagatik. Alaba desagertu egin zen Bergaratik, eta Domingok jakin zuen Irigoienek Ermuko etxean bizi zela. Alaba berreskuratzeko idatzizko eta aurrez aurreko gestioak egin zituen, eta azkenean lortu

zuen, baina bigarrenez desagertu zen. Antza denez, gurasoek makilakadaka erabiltzen zuten, eta, bereziki, bere anaietako batek, elizgizona zenak, ematen zizkion tratu txarrak. Manuela Mariak adierazi zuen nahiago zuela ibaira jauzi egin edo bihotza labanaz zeharkatu, berriz etxera itzuli baino (*“echarse al río o atravesarse el corazón con un cuchillo”*)¹⁹⁶. Hiru gizonak deklaratu zuten, eta haietako bakar batek sinatu zuen; sei emakume adierazpen-egileetatik bakar bat ere ez zen sinatzeko gai izan. Beraz, prozesu horretan inplikaturako bederatzi pertsonetatik bakar batek sinatu zuen, hau da, % 88,9k ez zekien sinatzen.

1771. Bi emakumeren arteko liskarra sortu zen Goenkalean, Hospizioaren aurrean. Protagonistak, hospizioko neskame Agustina Garitano (Elorrion jaio baina Bergaran bizi zena) eta Tomasa Ertzilla serora. Ertzilla —lanbidez ehulea zena—, iraintzera eta zirikatzen joan zitzaion Agustinari, eta garrasika esan zion, mari-zikin, lotsagabe, gezurti, urde bat zela, aurpegia larrutuko ziola, ezkongabea izanik ere, zazpi aldiz erditu zela eta zortzigarrenez erditzeko zegoela. Baita aurpegia abarka-larrua baino gogorragoa zuela ere. Sinatzerakoan, Gaspar Beiztegi hiriko aguazil eta kartzelazaina ez zen horretarako gai izan¹⁹⁷.

1771. Auzi bat ireki zen Bidakurutzeta kaleko ostalariaren aurka, borroka batean Juan Bautista Muxika zauritu zuelako¹⁹⁸.

1772. Brasilgo tabakoaren kontrabandoarekin lotutako auzi batean hainbat herritako pertsonak izan ziren inplikatuak, batez ere, Donostiakoak, Tolosakoak eta Bergarakoak. Bergararren artean, inplikaturako zortzi emakumeetatik batek ere ez zuen sinatzen jakin, eta hamahiru gizonetatik zortzik sinatu zuten¹⁹⁹. Hau da, emakumeen % 100 analfabetoak ziren, eta gizonen artean % 38,5. Guztira, % 61,9k ez zuten eskritura sinatu ez zekitelako (*“por no saber”*).

1773. Ignacio Larrañagak eta Pedro Antonio Unamunok edaten jardun zuten Eginoko bentan, eta mozkortu samartuta atera ziren handik. Larrañaga hilik agertu zen ibaiaren ertzean, Eginoko zubipean. Unamunori Larrañagaren heriotza leporatu zioten, baina ikerketan frogatu zen heriotza ezbeharrez gertatu zela eta absolbitu egin zuten²⁰⁰.

1773. Urte honetan ofiziozko autoak ireki zituzten Miguel Torrano herriko mediku titularraren etxeko atean itsatsita agertu ziren bi paskin iraingarriren inguruan. Miguelekin bizi ziren bi seme: Juan Francisco San Pedroko apaiza eta benefizioduna eta Jose Joaquin lizentziatua, Errege-Kontseiluko abokatu eta San Pedroko benefizioduna. Prozesuan paskinen jatorrizko aleak jaso ziren eta latinez idatzita eta obleaz itsatsita zeuden; horrek berak ematen du kasik egilearen lanbideari buruzko nahikoa pista. Paskinetako batek honela zioen: *HIC EST DOMUS SUPERBIAE BENE FUNDATA SUPERFICTAM AALITATEM*. Antza denez, Torranotarrek arazoak zituzten norbaitekin; izan ere, behin batean postazko eskopeta batekin tiroa bota zuten beren gelako leihora, eta beste batzuetan katu eta bele akabatuak zintzilikatu izan zizkieten ateko aldabatik. Lekukoek deklaratu zuten, dotore sinatzen jakin arren, ezin izan zutela paskinen esanahia ulertu, latinez idatzita zeudelako²⁰¹. Autoak bat-batean gelditu ziren prozesua hasi bezain laster, ziur aski zantzu guztiek adierazten zutelako paskingilea “goi mailako pertsona” izango zela, seguraski elizgizona. Gogoratu behar da Torrano anaiek harreman negargarria zutela Bergarako beste apaiz batzuekin. Hain zuzen ere, On Rafael Garitano-Aldaetak kereila kriminala jarri zion Juan Franciscori, *mozkorra* deitzeagatik: *“interpretando siniestramente un Vertigo, que ha padecido, ha llamado*

*a algunas personas, y les ha prevenido que era Veodez, queriendo persuadirselo, aunque en tono de quien pregunta, haciéndome así el maior perjuicio en mi crédito*²⁰². Bestalde, San Pedroko kapilauak, On Manuel Ignacio Ugaldek, kereila kriminala jarri zion Jose Joaquin Torranori, hark publikoki leporatu baitzion proposamen heretiko bat defendatzea²⁰³. Gainerakoan Ugaldek beste hainbat auzi izan zituen San Pedroko kabildoarekin (bertako kide ziren Torrano anaiak) une hartan Madrilén zegoen beste apaiz baten ordeztu benefiziadua gisa onartua izatea nahi zuelako²⁰⁴.

1775. Josef eta Juan Urkina anaien aurkako ofiziozko autoak ireki zituzten, izan ere iskanbila eragiteagatik atxilotu zituztenean, preso zeuden kartzelari su eman baitzioten²⁰⁵.

1781. 1771n Miguel Antonio Otalora eskribiente herrera erbesteratu zuten bizitza biziotsua eramateagatik, baina zigorrak ez zuen bere bizitza zuzentzeko balio izan eta hamar urte beranduago, erbeste-ratzea hautsita, berriro atxilotu zuten kartetan tranpak egiteagatik. Kasu honetan lekuko gisa agertzen diren errejidoreek sinatu egin zuten²⁰⁶.

1785. Francisco Belastegi aguazilak zaratak entzun zituen Zubieta auzoko taberna batean; egoera lasaitzera joan zenean, lurrera bota eta ostikoz jo zuten. Berarekin batera, Juan Bautista Arimasagasti ere zauritu zuten. Gertakari horiengatik Domingo Mendizabalen, Celedonio Unamunoren, Joaquin Madariagaren, Ygnacio Olalderen eta Josef Agirreren aurkako prozesua zabaldu zen. Aguazilak ez zekien sinatzen²⁰⁷.

1792. Francisco eta Martin Legorbururen aurkako autoak, zekor bat lapurtzeagatik²⁰⁸.

1802. Bideetan eta baserrietan lapurretak egiteaz hainbat pertsona akusatu zituzten, besteak beste: Januario Bidania gatzagarra, Pablo Fº Sorrekietak olagizon eta arotz berrobitarra eta Jacinto Olariaga zurgin azkoitiarra. Lekuko gisa aguazilek, arma-maisuek eta Bergarako zenbait bizilagunek deklaratu zuten²⁰⁹.

1803. Ezkontza bat ospatzen ari zirela, egundoko istilua sortu zen ("*se armó una grande camorra*") eta gonbidatuetakoa bat, Juan Lizarralde, zaurituta atera zen, eta handik hiru egunera hil zen, zaurien ondorioz. Zubiate auzoko Zubieta [Zubikoa ?] baserriko morroia zen. Dirudienez, borrokaren unean laia batzuen gainera erori eta buruan kolpea hartu zuen²¹⁰.

1804. Ignacio Luis Benituak, Elkoroguena baserriko jabeak, Martin Ibarzabal salatu zuen, Narbaiza mendian lursailak azalatxurtu eta zuhaitz lepatuak soilteagatik²¹¹.

1807. Domingo Zuluetauren aurkako auzia. Martiniko gaitzizena zuen eta lanbidez arma-prestatzailea omen zen, eta, izaeraz "alferra eta iraintzailea" ("*vago e insultante*"). Alkateari eta bere laguntzaileari erasotzeagatik salatu zuten²¹².

1808. Manuel Ezenarro eta Gregorio Mendizabal edaten aritu ziren Irizar tabernan, beste baserriar batzuekin batera, eta euren etxeetara zihoazenean jolasean ibili ziren batak bestea altxatzen ("*se divierte*...

ron en levantar en peso el uno al otro”). Baina, jolasa borroka bihurtu zen, eta Ezenarrok harri batekin, sekulako kolpea eman zion buruan Mendizabali²¹³.

1810. Bidelapur batzuen aurkako auzia, Fortunato Corsini poloniarraren Kalegueneko etxea erretzeagatik²¹⁴.

1819. Klasiko bat: San Martzialgo erromerian sortutako istiluak. Jose Arbulo eta Ignacio Lizarralde auzipetu zituzten, desobeditzeagatik eta istiluak sortzeagatik²¹⁵.

1824. Jose Manuel Ibarzabal auzipetu zuten, familia arteko liskar batean bere aitaren osaba Miguel Ibarzabal labanaz zauritzeagatik²¹⁶.

1829. Tertzioen Lehen Konpainiak Andres Bolinaga nekazari arrasatearra atxilotu zuen Elosu bailaran eta lapurreta eta alferkeria leporatu zioten²¹⁷.

1830. Indarkeriazko lapurreta Bidekurutzeta kaleko 26. zenbakian, Jose Vicente Irazabal jaunaren etxean. Lapurtzera sartzen saiatu ziren tiro bat jaurtiz²¹⁸.

1832. Ofiziozko autoak Martin Egurenen eta Domingo Iza “Sillero”-ren aurka, On Jose Agirre abadearen etxean sartu eta lapurtzen saiatzeagatik²¹⁹.

1839. Pedro Barrenetxea Arandoren hilketa bortitzari buruzko ofiziozko autoak. “Aparejo” gaitzizena zuen eta Gasteizen “*Artacalle*” kalean bizi zen. Dirudienez, Barrenetxea tabernan zebilen kartetan jokatzeko, eta beste jokalariei batekin eztabaida izan zuen. Sortu zen liskarrean zauritua suertatu zen, eta horren ondorioz hil egin zen²²⁰.


1839. Auzi kriminala, Jose Joaquin Albitxua nekazari aberatsaren aurka Tomas Arteagaren emazte Anastasia Telleriak abiatutakoa, euren seme Agustini (adingabea) su-armaz egindako kalteengatik²²¹.

Prozesu horietatik lortutako datuak 50 urteko tarteetan multzokatuta, **X. Taula** eta **VI. Grafikoa** prestatu ditugu:

X. Taula. Sinatzen ez dutenak (alfabetatugabeak) dokumentazio prozesalean, 1604-1839

Urteak	GIZAKUMEAK			EMAKUMEAK			GUZTIRA			
	Ez sinatzaile kop.	Ez sinatzaile %	Sinatzaile kop.	Ez sinatzaile kop.	Ez sinatzaile %	Sinatzaile kop.	Ez sinatzaile kop.	Ez sinatzaile %	G/E Batzbestekoa aplikatuz, ez sinatzaileen %	Sinatzaile kop.
1600-1649	151	71,9%	59	37	100,0%	0	188	76,1%	86,0%	59
1650-1699	150	66,1%	77	29	100,0%	0	179	69,9%	83,0%	77
1700-1749	97	68,8%	44	47	100,0%	0	144	76,6%	84,4%	44
1750-1799	225	65,8%	117	118	99,2%	1	343	74,4%	82,5%	118
1800-1849	78	35,6%	141	62	93,9%	4	140	49,1%	64,8%	145
1600-1849	701	61,5%	438	293	98,3%	5	994	69,2%	79,9%	443

VI. Grafikoa. Alfabetatugabeen bilakaera auzien arabera



Taula eta grafiko horietatik hainbat ondorio atera daitezke. Lehen, eta deigarriena, da gizonen eta emakumeen alfabetatze-mailen arteko aldea. 1799ra arte, gizonen artean sinatzen ez zutenen ehunekoak (ustez analfabetoak) % 71,9 eta % 65,8 artekoa zen, eta, ordutik aurrera, jaitsiera-prozesu handi samarra hasi zen, eta 1800-1849 aldian % 35,6 izatera iritsi zen. Emakumeen artean, berriz, 1760 arte itxaron behar da, kasu berezi gisa sinatzaileraren bat agertzeko, eta, ondoren, 1830eko hamarkadan noizean behin besteren bat agertzen da. Horrek ez du esan nahi XVII. eta XVIII. mendeetan Bergaran emakume alfabetaturik izan ez zenik, baina oso adierazgarria da garai osorako aurkitutako 298 emakumeetatik bost baino ez zirela sinatzeko gauza izan, eta ia guztiak (bat izan ezik) 1830eko data horretatik aurrera aurkitu zirela. Jasotako laginean sinatzaile gisa agertzen den lehen emakumea Josepha Brijida Pagadigorria da, 1760an²²².

Bestalde, adierazi den bezala, emakumeen presentzia dokumentala askoz murriztagoa zen: 298 emakume eta 1.139 gizon. Horren ondorioz, aldi bakoitzeko analfabetismoaren ehuneko globalak nabarmen zuzendu beharko genituzke. Izan ere, emakumeak euren garrantzi demografikoari zegokion mailan, hau da, gizonezkoen antzeko kopuruan, ordezkaturik egon balira, tarte bakoitzeko analfabetoen ehuneko globalak asko igoko ziratekeen. Adibidez, 1700etik 1749ra bitarteko denbora tartean 97 gizon eta 47 emakume aurkitu ziren; 47ren ordezkari 97 emakume aurkitu izan balira, eta aurkitutako analfabetismo indize bera (% 100ekoa) aplikatuko bagenie, tarte horretako analfabetismo indize orokorra % 76,6koa izan ordez, % 84,4koa izango zatekeen, ia seguru, errealitate askoz hurbilagoko datua.

Nolanahi ere, gizon eta emakume alfabetatugabeen ehunekoaren arteko aldea eskandalagarria da XIX. mendean ondo sartu arte. **X. Taulako** emaitzei erreparatu badiugu, ikusiko dugu bi ehunekoaren arteko aldea 31,9 puntukoa dela 1600etik 1799ra bitartean: % 67,7 gizonetan eta % 99,6 emakumeetan. Alde hori are nabarmenagoa da XVIII. mendearen amaieratik XIX. mendearen lehen hamarkadetarako tartean, izan ere, tarte horretan erabakimen handiagoz heldu zitzaion gizonezkoen alfabetatzeari eta emakumezkoena, aldiz, askoz motelago joan zen. 1800etik 1849ra, hain zuzen ere, gizonen eta emakumeen arteko aldea hazi egin zen. % 35,6 zen gizonezkoetan eta % 93,9 emakumezkoetan (58,3 puntuko aldea). Gero, XIX. mendearen erdialdetik aurrera, emakumeen alfabetatzea hazi ahala, aldeak murriztu egin ziren. 1860ko zentsuko datuen arabera, gizonezko eta emakumezko analfabetoen arteko aldea 9,3 puntukoa zen.

Sinatu ez zutenen guztizko ehunekoei dagokienez, **X. Taulan** ikus daiteke 1600-1799 aldian, gorabehera batzuekin bada ere, lagineko alfabetatugabeen ehunekoak % 69,9 eta % 76,6 artean daudela. Gero, XIX. mendearen lehen erdian, analfabetismoa nabarmen jaitsi zen, eta 1800-1849 tartean ehunekoak % 49,1era iritsi zen. Bi kasuetan irregulartasun batzuk daude, zalantzarik gabe laginaren akatsengatik.

Aztertutako aldi osoko ez-sinatzaileen batezbesteko balioei dagokienez, % 60 baino zertxobait gehiago ematen digu gizonezkoentzat eta % 98 emakumezkoentzat. Ziurrenik, benetako datura hurbiltzeko, gizonezkoena pixka bat handitu egin beharko genuke, eta emakumeena zertxobait murriztu, adibidez, % 65era eta % 95era, hurrenez hurren. Dugarik gabe, guztizkoen ehunekoak dezentetaz handituko litzateke arestian aipatutako gizarte-ordezkaritasun irizpideak aplikatuz gero, hau da emakumeen kopurua gizonen parera iritsi arte handituko bagenu. Hori eginez gero, aztertutako aldi osoko analfabetoen ehu-

nekoa % 69,2tik % 80 ingurura hurbilduko litzateke. Nahiko panorama etsigarria, erlijio katolikoko herrialdeen bereizgarri zena. Izan ere, luteranoek, kalbinistek eta, oro har, erreformatuek, Biblia irakurtzen zutenez, alfabetatze-maila nabarmen hobeak zituzten, eta, kasu batzuetan, balioak alderantzizkoak ziren, % 80ko alfabetatze-maila lortzerainokoak. Nolanahi ere, Bergarako analfabetismo maila ez zen oso handia, Europa hegoaldeko beste eremu batzuetakoarekin alderatuz gero.

Datu horiek 1860ko zentsuko datuekin alderatzen baditugu, —gogora dezagun, informazio estatistiko nahiko fidagarria dela—, ikusiko dugu, alde batetik, ez direla hain desberdinak, batez ere gizonen dagokienez, eta, bestetik, alfabetatze-prozesua XVIII. mendeko azken urteetan, eta batez ere XIX. mendeko hasierakoetan hasi zela, bereziki emakumeen artean, horien alfabetatzea nabarmen bizkortu baitzen XIX. mendearen erdialdeko hamarkada horietan. Beste era batera esanda, 1860ko datuok erakusten dute gizonezkoetan jaitsiera txiki bat izan zela analfabetismoaren ehuneko tradizionalekin konparatuta; emakumezkoen artean, berriz, beherakada oso nabarmena izan zen, nahiz eta oraindik gizonezkoenak baino handiagoak izan.

Orain interesatzen zaiguna da, ikerketan kontuan hartutako 260 urteetan, Bergarako gizonen % 65 inguruk eta emakumeen % 95ek ez zutela inoiz eskolarik zapaldu eta, beraz, ez zutela bertan gaztelania ikasteko aukerarik izan. Egia da batzuek, batez ere gizonen, neurri handiagoan edo txikiagoan beste metodo batzuen bidez ikasi zutela: merkataritza-tratuak, bidaiak, migrazioak, transhumantzia..., baina egia da, halaber, gaztelania ikasteko bide nagusia eskola izan zela beti, nahiz eta oso emakume eta baserritar gutxi zuten bertarako sarbidea. Hala ere, urte gutxi batzuk geroago, gizonezkoen egoera berri bat pairatu behar izan zuten, gaztelania ikastera behartu zituen: derrigorrezko soldadutzaren ezarpena, 1876ko foruen abolizioaren ondoren.

Esan bezala, 1860ko zentsuan islatzen da aztergai dugun aldiaren amaieran Bergarak duen alfabetatze-maila eta, ondorioz, baita elebitasun-maila ere (**XI. Taula**). Bergarak 6.159 biztanle zituen garai hartan. 2.984 gizonezko eta 3.175 emakumezko²²³.

XI. Taula. Analfabetismoaren ehunekoa, 1860ko erroldaren arabera, Bergarako biztanleria osoari eta 15 urtetik gorako eta sei urtetik beherako biztanleriari dagokionez

	Biztanleria datuak	Alfabetatzearen ehunekoa biztanleria guztiarekiko	15 urtetik gorako eta sei urtetik beherako biztanleria	Alfabetatzearen ehunekoa 15 urtetik gorako eta sei urtetik beherako biztanleriarekiko
Biztanleak guztira.	6.159		4.720	
Estatuko gizakumeak.	2.863			
Estatuko emakumeak.	3.112			
Pasoan zeuden Estatuko gizakumeak.	97			
Pasoan zeuden Estatuko emakumeak.	52			
Gizakume atzerritarrak	24			
Emakume atzerritarrak.	11			
Guztira gizakumeak.	2.984		2.255	
Guztira emakumeak.	3.175		2.465	
Irakurtzen dakiten gizakumeak.	382	6,2%		
Irakurtzen eta idazten dakiten gizakumeak.	964	15,7%		
Gizakume alfabetatugabeak.	1.640	54,9%		72,7%
Irakurtzen dakiten emakumeak.	476	7,7%		
Irakurtzen eta idazten dakiten emakumeak.	660	10,7%		
Emakume alfabetatugabeak.	2039	64,2%		82,7%
Irakurtzen dakitenak.	858	13,9%		
Irakurtzen eta idazten dakitenak.	1624	26,4%		
Alfabetatugabeak.	3679	59,7%		77,9%

Horren arabera, gizonezkoetan % 54,9 ziren analfabetoak eta emakumeetan, aldiz, ehunekoa % 64,2ra iristen zen. Hau da, guztira 3679 analfabeto, biztanleria osoaren % 59,7. Alfabetatuen benetako ehunekoa dezentez apalagoa izango zen, “bakarrik irakurtzen” zekitenen prestakuntza maila ahula kontuan hartuta. Kasurik onenean, gizonen % 45,1ek eta emakumeen % 35,8k baino ez zuten eskolan emango oinarritzko kultura-kontzeptuak ikasteko eta gaztelania-maila itxuroso samar bat lortzeko beste denbora.

Baina kontuan hartzen badugu garai hartan sei eta hamabost urte bitarteko ume eta gazte gehien-gehiak eskolara joaten zirela, pentsa genezake adin-tarte horretako guztiak alfabetatuta zeudela (nahiz hori nahiko baikorra den), eta horrek helduen analfabetismoaren ehunekoa kalkulatzeko aukera ematen digu; pentsaturik sei urtetik beherako inork ez zekiela irakurtzen. Hori zehaztasun estatistikorik gabeko hurbilketa bat besterik ez da, baina helduen eskolatze-mailari buruzko estimazio bat ematen digu. Hala, **XI. Taulan** agertzen den bezala, ikusiko dugu sei urtetik beherako eta hamabost urtetik gorako emakumeak orotara hartuta, analfabetoen ehunekoa % 82,7koa zela; eta adin-tarte bererako gizonezkoena, berriaz, % 72,7koa. Beraz, helduen eta umeen biztanleria kontuan hartuta, analfabetoen indizea, % 77,9koa zen. Ezin ditugu helduen analfabetismo-tasa errealak kalkulatu, baina iruditzen zaigu honelako kopuruetan ibiliko zirela: gizonezkoena %63 inguru, emakumezkoena %73 eta heldu guztiena % 68 inguru.

Argi eta garbi dago adineko biztanleek aurreko mendeetako analfabetismo-tasa bertsuak, zertxobait txikiagoak, izaten jarraitzen zutela. Aldiz, 1830eko, 1840ko eta 1850eko hamarkadetan egindako alfabetatze-ahaleginari esker, gazteak, mutilak zein neskak, eskolatzen ari zirenez, biztanleria osoaren herenak lortua zuen nolabaiteko irakurketa-gaitasuna, eta neurri txikiagoan bazen ere, baita idazteko eta kontuak egiteko gaitasuna ere. Baina, orain interesatzen zaiguna zera da, gazte elebarrak irakurri, idatzi eta kontuak egiten ikasteaz gain, gaztelania ere ikasten zutela. Hau da, honek erakusten digu modu masibo samarrean alfabetatu ziren bergararren lehen multzo handia, elebarr izateari utzi eta gutxi-asko elebidun izatera igaro zena, lehen gerra zibila amaitu ondorengo urteetan izan zela, Moyano Legearen ondorioz, derrigorrezko lehen hezkuntza hedatzearekin batera.

1876ko foruen abolizioak, beste ondorio askoren artean, soldadutzaren derrigortasuna ekarri zuen, hurrengo urtean 1877an gauzatzen hasi zena. Neurri horrek ondorio garrantzitsuak izan zituen alfabetatze prozesuari eta gaztelaniaz ikasteari begira. Erabakiak bete-betean eragin zien gizonezkoei: haietako batzuk analfabeto joaten ziren “soldadutzara”, eta zerbitzuak irauten zuen bitartean ikasten zituzten oinarritzko hezkuntzaren hastapenak, baina, batez ere, denbora luzez erdara hutsezko ingurune batean moldatu behar izaten zuten, non hizkuntza “nazionala” indarrez inposatzen baitzen. Hori dela eta, “soldadutzara” euskaldun elebarr gisa iritsi zirenek oinarritzko gaztelania ikasi beste erremediorik ez zuten izaten, bertan moldatzeko. Handik aurrera, beraz, erdal hiztun berrien jario etengabe bat izango zen eta horrek biztanleria osoari eragin zion, emakumeak barne: euskaldun elebarraren espazioa murriztu zuen eta gaztelaniaren idatzizko presentzia orokorra areagotu zuen, administrazioaren eremu formal guztietan zuen nagusitasuna handituz.

1877, 1880, 1881, 1883 eta 1884²²⁴ urteetako kinto bergararren artean, lagin txiki bat jaso dugu jakiteko soldadutzara joan zirenean zenbat zeuden alfabetatuta eta zenbat ez. Bost urte horietan 265

gazteren fitxak zenbatu ditugu, guztiak hemeretzi edo hogeiturokoak. Zozketatutako asko eta asko salbuetsita geratzen ziren hainbat arrazoiengatik: boluntario liberala edo boluntarioaren semea izatea, Perura emigratu izana, ordezkot bati ordaindu izana, desagertu izana, hil izana eta abar. Hori dela eta, datuen kopurua zertxobait murriztagoa da. Gainera, fitxa horiek badute beste datu garrantzitsu bat: kintoaren lanbidea. Horrek aukera ematen digu alfabetatze-maila maila sozio-profesionalarekin alderatzeko. Datu horiekin **XII. Taula** osatu dugu.

XII. Taula. 1877, 1880, 1881, 1883 eta 1884ko urteetako kintoen alfabetatze maila, lanbide motaka.			
Lanbidea	Ez daki ez irakurtzen ezta idazten ere	Badaki irakurtzen eta idazten	Alfabetatugabeen ehunekoa %
Aprendizak + peoiak	2	0	100,0
Laborariak + ortulauak	79	51	60,8
Jornalariak	2	2	50,0
Fabrika langileak	14	23	37,8
Lanbiderik gabe	3	13	18,8
Artisauak ²²⁵	4	40	9,1
Jabeak	0	1	0,0
Militarrak	0	3	0,0
Ikasleak ²²⁶	0	20	0,0
Eskribauak	0	1	0,0
Zerbitzariak	0	3	0,0
Dendako saltzaileak + Kafetegiko mutila	0	4	0,0
GUZTIRA	104	161	39,2

Espero zitekeen bezala, klase boteretsuak ez daude behar adina ordezkaturak, familiak saiatzen baitziren euren semeek soldadutza egin ez zezaten, ordezkot bati ordainduta. Nolanahi ere, sasoi horretako datuek erakusten dute soldadutza egitera joan ziren mutilen ia % 40 alfabetatugabeak zirela. Aurreikus zitekeen bezala, alfabetatugabeen ehunekorik handienak nekazarien, peoien, jornalarien eta, neurri txikiagoan, lantegietako langileen artean izaten ziren. Jakina, ikasleetan, eskribauetan, militarretan eta jabeetan denak ziren alfabetatuak. Ofizioetakoek eta artisauak alfabetatze-prozesu nabarmena izan zuten, eta garai hartarako analfabetismo-tasa oso baxuak zituzten.

Azterlan honek hartzen duen garai kronologikotik kanpo, baina ez oso aparte, Bergarako biztanleriak zuen analfabetismo-mailari buruzko datu nahiko fidagarriak ditugu berriro ere; 1890eko biztanleen erroldaz ari gara. Egia esan, 1887ko erroldan erroldatuen datuen artean sartu zen irakurtzeko eta idazteko gaitasunaren atala, baina ez zen bete. Beraz, 1890eko erantzunak aztertu ditugu analfabetismoaren



1893ko kintoen bazkaria, 67 urterekin; "Americano" tabernaren aurrean

bilakaera ezagutzeko. Zortzi urtetik gorakoak hartu dira kontuan, helduen alfabetatze-mailaren ehunekoak ateratzeko.

Biztanleriaren datu orokorreari dagokienez, ohar pare bat. 1860 eta 1900 artean Bergarako biztanleriak 6.100 biztanle inguruan eutsi zion. Hiribilduko eta landa-eremuko biztanleen proportzioari dagokionez, ikus dezakegu areagotu egin zela biztanleak hiri-eremuan biltzeko joera. Ikusi dugunez, XVII. mendean hasi eta XIX. mendearen hasierarako tartean, Bergarako biztanleria bi erdi ia berdinetan banatuta zegoen bizilekuari dagokionez: erdiak baino zertxobait gutxiago hiribilduan, hau da, "kalean" bizi ziren, eta erdia pasatxo landa-eremuan. Hala ere, XIX. mendearen erdialderako, hirian dinamismo demografiko handiagoa nabari da, eta gero eta biztanle gehiago kontzentratzen da hiribilduan. 1890 urterako, biztanleriaren % 57,2 hirigunean bizi zen, eta % 42,8 landa-eremuan (**XIV. Taula**). Hori garrantzitsua da ikuspegi linguistikotik, esan bezala, analfabetismoak eta euskal elebakartasunak nekazarien artean iraun zuelako, eta, batez ere, komunikazio-bideetatik eta hirigunetik urrunen bizi zirenen artean. Beste era batera esanda, zenbat eta hirigunea gehiago garatu, orduan eta ahulagoa zen euskaldun elebakarren ehunekoa.

Analfabetismoari dagokionez, ikus dezakegu 1860ko zentsuko datuekin alderatuta, izugarri jaitsi dela. Oro har, 30 urtetan, analfabetismoaren ehunekoa populazio guztiarekiko, % 59,7tik (**XI. Taula**) % 33,8ra (**XIV. Taula**) igarotzen da. Beherakada handi hori (25,9 puntu), batez ere, alfabetatze prozesua emakumeengana eta landa-eremura indartsuago iristearen ondorio da, nahiz eta XIX. mendearen amaieran, artean ere, analfabeto kopuru altu samarra izan. Edonola ere, altua zelako sentsazio hori arindu egiten da Bergarako datuak estatuko eta Europa hegoaldeko beste herri batzuetakoekin konparatzean, azken horiek askoz okerragoak baitira.

Nola ez, hirigunearen eta landa-eremuaren arteko aldeak oso nabarmenak ziren: biztanleria helduari dagokionez (zortzi urtetik gorakoetan) “Kalean” (hirigunean) % 26,2ko analfabetismoa zegoen eta “baserri-auzoetan” (landa-eremuan), aldiz, % 67,1ekoa. Era berean, espero bezala, hirigunean bertan ere alde oso nabarmenak zeuden kale batzuetatik besteetara, hau da, funtzionarioak, elizgizonak edo mojak bizi ziren kaleetan edo ikastetxeak kokatuta zeudenetan, alegia, hirigunearen bihotzean, analfabetismoaren ehunekoak apalak ziren garairako: Komenio kalean % 2,8, Bidekurutzetan % 11, San Pedron % 15,2, Barrenkalean % 16,3 eta Goenkalean % 20,7. Aldiz, erdigunetik urrun zeuden kaleetan, nekal zal jardueretara dedikatutako pertsonen ehuneko esanguratsuak bizi zirenetan, analfabetismo maila ia auzoetakoen mailaraino iristen zen; Zubiaurren % 59, San Lorentzon % 55, Zubietan % 41,1 eta abar. Landa eremuan ere alde handiak zeuden auzoen artean. Baina hori nahiko berria da, izan ere, XIX. mendearen hasierara arte normalena kontrakoa zen, hau da, ia erabateko parekotasuna izatea landa-eremu guztian, analfabetismo-tasa oso altuekin. 1890ean, berriz, desberdintasun nabarmenak antzematen dira. Adibidez, Osintxun [kalean] % 42,1 ziren alfabetatu gabeak eta Elorregin % 40,0; aldiz, askoz tasa altuagoak zituzten Muskiritsuk (% 92,8), Aranek (% 87,5) edo San Kristobalek (% 80). Alde horiek oso nabarmenak dira eta neurri batean azal daitezke, XIX. mendearen hasieratik auzo batzuetan eskolak jarri zituztelako eta beste batzuetan ez. Gipuzkoako Ikuskapen Batzordeari 1830ean igorritako txostenean honako hau iragartzen zen: San Prudentzion, San Kristobalen²²⁷, Santiagon eta Osintxun maisuak zeuden, auzoko baserritarrentzat jarrita: “*en los barrios de san Prudencio, san Cristobal, Santiago, y santos Hemeterio y Celedonio hay maestros ajustados para los caseros mismos de la Barriada*”. Gogora dezagun, halaber, irakasle horiek “mutilentzat” zirela, eta, beraz, neskak, hasiera batean, inolako heziketarik gabe geratu zirela. Maisu horien lana argi eta garbi islatzen da kasu batzuetan, bereziki Osintxukoan eta Elorregikoan; ez, ordea, San Kristobalen edo Basalgoren (Santiago) kasuetan, analfabetismo-tasak aurreko mendeetakoen antzekoak baitziren, izatekotan ere, jaitsiera txiki batekin. Landa eremuko maisu-maistra horiek auzoetako heziketan izan zezaketen inpaktuan eragiten zuen auzoetako populazio-banaketa ere. Landa-eskolak auzoetako erdiguneetan zeuden, elizaren ondoan, eta, kasu batzuetan, baserri gehienak oso urrun zeudenez, haurrak ikastera bidaltzeko aukera izugarri murrizten zen. Adibidez, Muskiritsuko Osintxuko auzoa da, eta, beraz, teorian, 1820-1830eko hamarkadaz geroztik haurrek maisua izan zuten. Hala ere, 1890eko erroldako datuek argi uzten dute eskolara joaten ziren haurrak elizatik hurbilen zegoen eremukoak zirela, hau da, Osintxuko “hirigunekoak”, eta Muskiritsuko baserritarrak, aldiz, baserriak eskolatik urrun zeudenez, ez zirela inondik inora joaten.

Kontuan hartu beharreko beste elementu bat, alfabetatzeari dagokionez generoaren arabera dimorfismoa da. Aurrez frogatu dugu, XVII., XVIII. eta XIX. mendeetan zehar, emakume alfabetatugabeen ehunekoak gizonezkoenak baino nabarmen handiagoak zirela. XIX. mendearen amaieran ere, aldeak

mantendu egiten ziren, nahiz eta emakumezkoen eta gizonezkoen analfabetismo-tasa gordinak bateratsu ari ziren jaisten. Horren erakusgarri, azpiko taulan jaso ditugu, 1890eko zentsua oinarri hartuta, Bergarako zenbait kale eta auzotan bizi ziren biztanle heldu alfabetatugabeen ehunekoak, gizakumeen eta emakumeen datuak bereizita (**XIII. Taula**):

XIII. Taula. Analfabetismoa Bergarako zenbait auzotan generoaren arabera, 1890eko erroldan			
	Emakume alfabetatugabeen %, 8 urtetik gorako emakumeekiko	Gizakume alfabetatugabeen %, 8 urtetik gorako gizakumeekiko	Aldea
Zubieta	48,9	33,8	15,0
Masterreka	47,9	24,4	23,4
Elosua	60,9	52,1	8,8
Elorregi	46,3	33,9	12,4

XIII. Taularen arabera, ematen du, garai hartan emakume eta gizonen analfabetismo-tasen arteko aldea 15-23 puntu ingurukoa zela guztiz hiritarrak ez ziren bi kaleetan, eta landa-eremuko bi auzoetan, berriz, aldeak txikixeagoak zirela, 9-12 puntu ingurukoak.

1877ko zentsuko datuen arabera, hiru urte lehenago, hauek ziren Bergarako analfabetismoaren ehunekoak, generoaren arabera: % 58,7 gizonetan eta % 63,2 emakumeetan. Dena den, urte horretako Bergarako analfabetismo-datuak Gipuzkoako beste herri batzuetakoekin alderatuz gero, ikusten dugu, oro har, Bergarako emaitzak Probintziakoak (gizonezkoetan % 61,5ekoa eta emakumeetan % 70,4koa) baino hobeak direla, izan ere, landa-eremuko herrietan analfabetismoa oso handia baitzen. Aldiz, Bergarako datuak nabarmen okerragoak ziren beste herri handi batzuekin alderatuta, hala nola Donostiarekin (gizonak % 48, emakumeak % 55,8), Tolosarekin (gizonak % 50,7, emakumeak % 63,6) edo Ordizia-rekin (gizonak % 46,2, emakumeak % 45,4)²²⁸.

XIV. Taulan 1890eko erroldako datuen arabera analfabetismo tasak eman ditugu; biztanleria osoarekiko eta zortzi urtetik gorakoekiko, bai hirigunekoak eta bai landa eremukoak.

XIV. Taula. Analfabetismoaren ehunekoa, 1890eko erroldaren arabera, Bergarako biztanleria osoari eta zortzi urtetik gorako biztanleriari dagokionez²²⁹

	Biztanleria guztia	8 urte edo gehiagoko biztanleria	Alfabetatu gabeak (Irakurtzen ez zekitenak)	Alfabetatu gabeen %, biztanleria guztiarekiko	Alfabetatu gabeen %, zortzi urtetik gorako biztanleekiko	Idazten ez zekitenak	Idazten ez zekitenen %
Zubieta	346	270	111	32,1	41,1	118	43,7
Masterreka	241	186	64	26,6	34,4	85	45,7
Arrurriaga	159	130	24	15,1	18,5	32	24,6
Barrenkalea	343	270	44	12,8	16,3	59	21,9
Artekalea	224	161	55	24,6	34,2	64	39,8
Goenkalea	102	82	17	16,7	20,7	22	26,8
Komenio	41	36	1	2,4	2,8	2	5,6
Mizpildi	119	106	28	23,5	26,4	43	40,6
San Pedro	308	230	35	11,4	15,2	54	23,5
Bidekurutzeta	798	625	69	8,6	11,0	84	13,4
San Antonio	485	350	118	24,3	33,7	144	41,1
Zubiaurre	184	139	82	44,6	59,0	90	64,7
San Lorentzo	136	100	55	40,4	55,0	57	57,0
Osintxu	70	57	24	34,3	42,1	24	42,1
Arane	178	128	112	62,9	87,5	113	88,3
Elosua	240	142	80	33,3	56,3	162	114,1
Muñao	224	183	111	49,6	60,7	112	61,2
Muskiritsu	278	221	205	73,7	92,8	206	93,2
Basalgo	460	363	273	59,3	75,2	293	80,7
San Juan	179	145	76	42,5	52,4	79	54,5
Goiauzo	339	269	163	48,1	60,6	173	64,3
San Kristobal	217	175	140	64,5	80,0	140	80,0
San Migel	271	221	124	45,8	56,1	150	67,9
Elorregi	136	110	44	32,4	40,0	65	59,1
Guztira	6078	4699	2055	33,8	43,7	2371	50,5
Hirigunea	3486	2685	703	20,2	26,2	854	31,8
Landa-eremua	2592	2014	1352	52,2	67,1	1517	75,3

Taulak erakusten digu 1890 urtera bitartean, (**XIV. Taula**) Bergarako biztanle helduen % 40k baino zertxobait gehiagok ez zuela aukerarik izan eskolara joateko eta oinarrizko heziketa-eduki batzuk jasotzeko, ez eta gaztelania ikasteko ere. Ondorioz, gehien-gehienek, batez ere emakumeek, artean, euskaldun elebakar izaten jarraitzen zuten²³⁰.

III.4.1. Klase herrikoien alfabetatzea

Klase herrikoiek, batez ere nekazariak, eskolarekin zuten harremana korapilatsua izan zen beti. Ez da ahaztu behar hiribilduan bizi zen haur bat eskolara joaten zenean eta, gaztelaraz gain, irakurtzen, idazten eta kontuak egiten ikasten zuenean, horrek ateak irekitzen zizkiola ondorengo espezializazio profesional baterako, zela lanbide batean, zela administrazioan, zela elizan, edo baita goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko ere. Beste era batera esanda, eskolak maila sozio-profesionalean gora egiteko balio zion hiriguneko umeari. Nekazarien lan-helburua, ordea, gehienetan baserrira lanera itzultzea zen; izan ere, eskolara joaten ziren zazpi edo zortzi urteko haur askori, etxekoek eurek eskatzen zieten baserrian lanean geratzeko, batez ere uzta biltzeko garaian, eta horrek eskola-absentismo handia eta ikasketa-errendimenduen gainbehera ekartzen zuen. Sarritan, neskek batez ere, irakurtzen baino ez zuten ikasten, eta ez ziren idazten ikastera iristen²³¹. Nekazari-lanetik kanpo, baserritarrek (batez ere gizonezkoek) gizartean gora egiteko zituzten aukera bakarrenetakoak elizari lotutako lanbideren bat lortzea edo emigratzea ziren, eta horretarako alfabetatzea eta gaztelania ikastea oso ondo etortzen zitzairen.

Euskal nekazariaren eskolatzea hizkuntza-giro arrotzean eta bere kulturarekin zerikusirik ez zuen hiri-ingurune batean gauzatzen zen eta, oro har, lortzen zuen eskola-errendimendua oso eskasa zen. Normalean, kristau dotrina ikasten zuen ondo, gehienetan bere hizkuntzan erakusten ziotelako; irakurtzen nekez ikasten zuen, eta idazten, sinadura zirriborrazeko adina besterik ez. Gaztelaniari dagokionez, berriz, oinarri-oinarrizko komunikaziorako adina ikasiko zuen, baina gutxi gehiago.

Baditugu testigantza pare bat garai hartako euskal haurren eskolatzeko egoera ulertzen lagun diezaguketenak. Lehenengoa ez da Bergarakoa, baizik eta mugakide duen herri batekoa, Oñatikoa; hala ere, haren gizarte-, hizkuntza- eta eskola-egoera zalantzarik gabe antzekoa zen, eta, beraz, gure azterketarako baliagarria izan daiteke. Testigantza Manuel Umerez Agirrerri dagokio (1757-1818), Manuel Umerez Goribargoitia izenez ere ezaguna, Oñatiko Olabarrieta auzoko Goribargoitia baserrian jaio zelako eta amaren abizen hori ere erabili zuelako. Oñatiko San Migel parrokiako benefiziadua eta kabilidoko idazkaria ere izan zen. Oñatieraz idatzitako bi obra luze moldatu zituen, argitaratu gabe gelditu zirenak: *Osaba baten instruccinuac bere Illoba Ezcondu eta Necazari batentzat bere eta bere Familiaren gobiernu oneraco Jaungoicoaren Legue santubagaz conforme* (440 orr.) eta *Errectore baten instruccinuac ezconduric vizi dan Adisquide Neca-zari batentzat bere eta bere Familiaren gobiernu oneraco Jaungoi-coaren Legue santubagaz conforme* (478 orr.). Bi lanak 1805 inguruan idatzi ziren²³². Izenburuek adierazten duten bezala, aholkuz beteriko lanak dira, moralari, erlijioari eta gizarteari buruzko gomendioak, bata bere ilobarentzat eta bestea laborari lagun batentzat. Lan horien bidez garaiko pentsamoldea eta gizarte-konbentzio ugari ezagut ditzakegu. Bada, Umerezek dio:

Umiak, ala semiak nola alabak, ogia alperrik jaten dauben bitartian, txikitanik bialdu biarko dituzube eskolara, irakurten ondo ikasi arteraño (semiak mutikuen erriko eskolara eta alabak, zeurok etxian ez erakutsi enian, maestriaren eskolara, eta ez iñolako pretestoz beste lekutara), onela etxian emungo deustube bakia, eta jaten dauben ogia izango da berentzat zerbait probetxosua: bai, guztiai emun biarko deustezube eskolak, irakurten ikasi arteraño, eta au ondo, ondo, baña guztiz ondo;

eta irakurten ikasi ezker, beriala erretirau biarko dituzube etxera ala semiak nola alabak, eta ifini biarko dituzube bertatik nekazaritzako ofizioan, estudioai jarraitu biar deustenakaz osteriango guztiak: baita ere etxerako izango dan semiak eskribitan zerbait ikastia, alde batetik probetxu dau, etxeko artu emunaren asientuba eruateko; baña ez jakinagaz eskribitan librauko lizateke erriko kargu pisubetatik, eta oneik nekazari ignorante bateri dakarden buruko min eta kalte modu askotatik; zeuk pensauko dozu, nire illoba, zein onduen dan, zeure semiaren eta etxiaren probetxubari batere pasino bagarik begiraturik.

Ondo irakurten ikasi ezker, eta etxera erretiraurik eskribitan ifinitzaka, bertatik ume bakoitzari entregauko deutzazube bere doktrinako euskerazko kartilla, eta ikasi eragingo deustezube ondo doktrina guztia, Aita Astetek erakutsirik itzi eben moduban, llana bat edo beste ikasi eragiten deustezubela eguzari egun bakoitzian, eta onetan ejerzitau ere eragin biar deustezube beren irakurtia, ordeitu eta aztu ez dekien, eta jakin dagien sentidubagaz irakurten euskerazko liburu debotoren batzubek: aste egunetan beti destinau biarko dituzube nekazaritzako ofiziora; bada, esanik daukadan legez, ezin emungo deustezube zeuben umiai, beren salbazinua lograitako, ofizio egogiagorik, honraubagorik eta probetxosuagorik ere ez.

Eskolan umiak dabilzan bitartian ez dozube deskuidau biar euskeraz eurai erakusten al dozuben doktrina kristiana; lan gei oni ekin biar deutzazube, umiak berbaitan korriente ikasten deustuben instantetik: materia onetan ez zara deskuidau biar eskolan ikasiko dauben doktriniaren pretestuagaz, asko gurasok gaizki egiten dauben legez.

Umiak, batez ere mutikuak, ikasi oi daube erderaz eskolan beren doktrina santuba; eta euskaldunak dirian legez, ez daube konprenditan ezertxo; ikasten dauben puskia dakie loruen modura; eta onela gertaketan da onerian umiakaz amabi edo amalau urte kunplitia, salbaitako premina dan gara [adina] doktrinarik ez dakiela: ez, ez, ez dozube zuek izan biar ain ardura bagaz zeuron umiakaz puntu grabe onetan²³³.

Gogora dezagun Umerez garai hartan, Oñatiko gizartearen (edo berdin Bergarakoaren) gehiengoari zuzentzen zitzaiola, hau da baserritarrei. Eta berak planteatzen zuen, umeak lanerako gauza ez ziren bitartean, oso komenigarria zela seme-alabak eskolara bidaltzea (bai mutilak, zein neskatilak ere), irakurtzen ikas zezaten: “eta au ondo, ondo, baña guztiz ondo”. Baina horraino, eskola berehala utzi behar baitzuten, idazten ikasi gabe, “nekazariei” komeni zitzaielako euren seme-alabak lehenbailehen lurra lantzen hastea. Irakurketaren azken helburua erlijioa, kristau dotrina, ikastea zen, lehenik katiximaren bidez (Asteteren bertsioan) eta gero beste eliz-liburu batzuk irakurriz.

Garrantzitsua zen, Umerezen ustez, gazteek erlijio-gaiei buruzko liburuak irakurtzen jarraitzea, irakurtzeko trebetasuna gal ez zezaten. Dirudienez, irakurtzen ikastea baina idazten ez ikastea ohikoa zen nekazarien artean, eta horrek laguntzen digu ulertzen 1860ko erroldako datuak, han herritarrak 3

multzotan sailkatzen baitziren: “irakurtzen bakarrik dakitenak”, “irakurtzen eta idazten dakitenak” eta “bi horietako ezer ez dakitenak”. Umerezen iritziz, zalantzarik gabe, neskak eskolatik atera behar ziren irakurtzen ikasi bezain laster, baina mutilen kasuan, kontuak ertz gehiago zituen. Kasu batzuetan komeni zen zerbait idazten ikastea, gero etxeko tratuak egin ahal izateko, baina beste batzuetan ez, izan ere, horrela herriko kargu publikoak betetzetik, eta horrek nekazari batentzat zekarren zama astunetik, libratu ahal izango zirelako. Umerezek, bestalde, XIX. mendearen hasierarako berria zen egoera bati buruz ohartarazi zuen; antza denez, neska-mutilei kristau dotrina euskaraz irakasteko praktika tradizionala alde batera uzten hasia zen; beraz, haurrek ez zuten irakatsitako ezer ulertzen eta “loruen modura” ikasten zuten. Jakina, neska-mutilak hamabi urtera arte doktrina jakin gabe iristea oso larria iruditzen zitzaion gure apaizari, eta gai honetan zorrotz jokatzeko aholkatzen zien gurasoei, kristau dotrina, bai ala bai euskaraz irakats zedin.

Bigarren testigantza XX. mendearen hasierakoa da, baina, zalantzarik gabe, aurreko hamarkadei ere erraz aplikatu dakieke, eta are gehiago XVIII. mendearen amaierari eta XIX.aren hasierari. Eduardo Landeta Aburto (Bilbo, 1867-Bilbo, 1957) intelektual eta politikoa emandako informazioa da. Landeta Euskal-erria elkarre foruzale liberaleko kide izan zen hasieran eta nolabaiteko abertzaletasunerantz eboluzionatu zuen gero. Eusko Ikaskuntzaren bultzatzaileetako bat izan zen eta hainbat komunikazio bidali zituen elkarre horrek antolatutako kongresuetara, hezkuntza-gaiekin eta irakaskuntzako elebitasunarekin lotutakoak. 1920 eta 1925 bitartean, Bizkaiko Auzo-eskolak sustatzen lagundu zuen. Bada, Eusko Ikaskuntzak 1918an Oñatin antolatu zuen I. Kongresuan, Landetak Euskal Herriko hezkuntzari buruzko komunikazio bat bidali zuen. Hurrengo urtean argitaratu zen²³⁴ eta euskal haur baserritarren eskolatzeari buruz haxe zioen:

Llega por fin el tiempo de dejar de ir a la escuela y esto, sabido es, que se apresura con mucha frecuencia por la inutilidad de sus esfuerzos para aprender, por hacerse la enseñanza en lengua distinta a la suya, lo cual le hace perder un tiempo que a sus padres les es necesario para emplearle en las tareas agrícolas o en el caserío y se marcha sin saber lo más indispensable, no ya no sabiendo el castellano, pero ni aún escribiendo cuatro renglones seguidos como lo demuestran las estadísticas militares publicadas [...] Lo único que el niño vasco sabe cuando sale de la escuela son las oraciones y el catecismo de la Doctrina Cristiana, porque lo aprendió de viva voz en su casa y en la iglesia, claro es que en euskera, en la lengua que él sabe. Aparte esto, todo le parece un sueño, aquellas lecciones de memoria, aquellas palabras que no entendía...²³⁵.

Hiri-inguruneke beste klase herriko batzuetan nolabaiteko bilakaera antzematen da, alfabetatzeari dagokionez, aztertutako aldi osoan zehar. Hala, XVII. mendeko eta XVIII. mendearen erdi aldera arteko aguazilak, errejidoreak eta artisauak, ia beti, analfabetoak izaten ziren bitartean, geroago, XVIII. mendearen amaieran eta XIX.aren erdialdera arte, apurka-apurka oinarritzko heziketa eskuratuaz joan ziren. Hona hemen 1830eko adibide bat. Etxe batean izandako lapurretatik zabaldutako auzi batean, etxeko neskameek ez zuten sinatu, eta ezta deklaratu zuten beste morroi batzuek ere. Aguazilek sinatu zuten baina euren emazteek eta kartzelako alkaidearen emazteak ez. Jakina, medikuak, apaizak eta zirujauak behar bezala sinatu zuten. Artisauak eta zerbitzuetako langileei dagokienez: bi arotzek, lau zapatarik,



Marrazketa-gelako ikasleak

maisurik zapatagile batek (*“maestro”*) eta bi jostunek ere sinatu zuten; baita bi harginetatik batek ere eta besteak ez. Artekalako tabernariak (gizonezkoa) eta Barrenkalako tabernariak (emakumezkoa) ez zekiten sinatzen, baina Bidekurutzetako tabernariak (gizonezkoa) bai. Eta, jakina, landa eremuko baserritar batek eta Elosuko bentariaren emazteak ez zuten sinatu²³⁶.

III.4.2. Eskolatze-prozesua

Ez dugu aurkitu XVI. mendean oinarritzko hezkuntzarako soldatapeko maisurik zegoenik, baina ez dago zalantzarik izan izango zela, Austriarren administrazioan idazkari, kontu-hartzaile eta abarren postuak lortu zituzten bergararren kopuru handia ikusita, horretarako, oinarritzko prestakuntza ez ezik, prestakuntza espezializatua ere behar baitzen. Izan ere, oinarritzko heziketa jaso eta gaztelania (eta latina) ikastea inbertsio errentagarritzat jotzen zen leinuetan premuak ez zirenak kokatzeko, izan ere horiek oinordetzan maiorazkoa jasotzen ez zutenez, “ohorezkotzat” hartzen ziren beste lanbide batzuk aukeratu behar izaten zituzten, funtsean hiru: Eliza, Itsasoa edo Errege Etxea (*“Iglesia, Mar o Casa Real”*), hau da, eliz-benefizioren bat lortzea,

emigratzea edo Errege-administrazioan sartzea. Kasu horietan guztietan ezinbestekoa zen gaztelania jakitea eta idatzizko prestakuntza izatea. Azpimarratzekoa da estrategia horrek mutilei bakarrik eragiten ziela, ez baitzen inolaz ere aurreikusten neskek administrazioan edo elizan karrera egiteko aukera. Lekaime gisa botoak egiteak ez zuen zerikusirik eliza bateko abade, koadjutore edo benefiziodun izatearekin, kargu horiek guztiak gizonentzat bakarrik baitziren.

Hori guztia dela eta, euskal toki-administrazioak saiatu ziren, hasiera-hasieratik, soldatapeko udal-irakasleak izaten, edo, lan horretaz arduratuko ziren erlijio-erakundeekin akordioak egiten. Ez da batere arraroa lehen garai hauetan oinarritzko hezkuntzako maisu-lana apaiz edo sakristau baten esku egotea, bere lanbidearen berezko zereginak irakaslearenarekin partekatuz, noski.

Garai historiko hartan, maisu-maistrek izan behar zuten prestakuntzari dagokionez, normala denez, irakurtzen, idazten eta kontuak egiten jakitea eskatzen zitzairen eta, horretaz gain, euskaraz eta gaztelaniaz ondo moldatzea. Euskara jakin beharra zuten, ohiturari jarraiki, kristau-dotrina (batez ere, katiximan jasotako aginduak), irakasteaz arduratu behar zutelako eta hori euskaraz egin behar zutelako. Gaztelania, berriz, gainerako irakaskuntza guztia hizkuntza horretan eman behar zutelako, eta ez hori bakarrik, baizik eta maisu-maistren zeregin garrantzitsuetako bat, haur euskaldun elebarrak bigarren hizkuntza hori ikas zezaten saiatzea zelako. Helburu hori lortzeko, erabat debekatzen zen eskolan euskaraz hitz egitea, eta baliabiderik anker eta mingarrienetara jotzen zuten; horien artean, bereziki ezaguna da eraztunaren sistema: euskaraz egiten zuen ikasleari eraztun bat ematen zion maisuak eta ikasle hark euskaraz ziharduena beste ikasleren bat bilatu behar zuen eraztuna emateko. Egunaren edo astearen amaieran, beste inori pasatu ezinda, eraztun madarikatua gainean

zeramanak zigorra jasotzen zuen. Asko idatzi da metodo honi buruz (garaiko Europako beste hainbat lekutan ere erabili baitzen, antzeko hizkuntza-egoeretan), eta azpimarratu izan da haren izaera salatzailea eta elkartasunaren aurkakoa. Hala ere, seguruenik, maisuek oso aukera gutxi izango zuten guztiz ezezaguna zitzaien hizkuntza bat ikasle guztiei inposatzeko, hertsatze-bide gogorrik erabili gabe.

Udalek lehen hezkuntzako irakasleak edukitzeko zuten arazo nagusia finantzaketa egonkorra eta behar adinakoa lortzea zen. XVI. mendean eta XVII. mendearen lehen urteetan, Bergaran, maisu-maistren ordainketa partikularren dohaintzen kontura egin zen. Geroago, XVII. mendearen erdialdetik aurrera, maisu-maistren soldatak ardoaren sisa (zerga moduko bat) erabilita ordaindu ziren.

Horrela, 1614an Sevillan Juan Martínez de Loyola izeneko partikular batekin gestioak egin ziren eskolako maisuaren soldatarako 100 dukat eman zitzaizkien²³⁷. 1620an baimena lortu zen, Errege Agindu baten bidez, ardo azunbre bakoitzeko bi marabediko zerga ezartzeko, medikuaren eta maisuaren soldatak ordaintzeko dirua lortu ahal izateko²³⁸. XVIII. mendean, aldiz, ardoaren sisa lau marabedikoa zen azunbre bakoitzeko eta medikua, maisua, bideak, zirujaua eta abar ordaintzeko erabiltzen zen²³⁹. Oraindik denbora behar izan zen ardoaren-sisaren akordio hori gauzatzeko. 1634ko irailaren 26an erabaki zen Jorje Muzibar Otalora, aurrez ere Bergaran irakasle aritutakoa, kontratatzea, mutilentzako eskola-maisu gisa. Urtean 50 dukateko soldata erabaki zen, gehi sei, etxebizitzagatik, eta bi alditan ordainduko zitzaizkion. Gainera, maisuak ikasleen gurasoei kobratzen zien irakaskuntza-mailaren arabera: irakurtzen ikasten zihardutenei hilean erreal bat; idazten ikasten zihardutenei bi erreal; eta kontuak egiten ikasten zihardutenei, hiru. Mutil pobreek irakaskuntza dohainik jaso behar zuten. Ikasturtea San Migel egunean hasten zen²⁴⁰.

Nolanahi ere, ardoaren sisatik zetorren dirua ez zen nahikoa izaten, eta, horregatik, denbora batez, zenbait partikularrek maisuen ordainketarako uzten zituzten legatuetara jotzen jarraitu zen. Adibidez, Lorenzo Madariaga kapitainak, 1637ko azaroaren 23an egindako testamentuan, beste gauza batzuen artean, haur txikientzako maisu bati ordaintzeko dohaintza bat utzi zuen, zortzi errealeko 800 pesoko errentaren balioa zuena, eta Bergarako Udala izendatu zuen patrono²⁴¹. Dohaintza horri Francisco Egaña Eizagirrek bere testamentuan eraturako antzeko beste fundazio bat gehitu zitzaion, 400 dukatekoa. XVII. mendearen erdialderako, maisua ordaintzeko metatutako dohaintzek 1.200 dukateko (12.400 errealeko) kapitala osatzen zuten²⁴². Baina, antza, hori ere ez zen nahikoa eta, 1655ean, erabaki zuten Ubolako (Elosu) herri-lurretan bi baserri berri eraikitzea, errentan emateko eta errentaren diruarekin, medikuaren eta maisuaren soldatei aurre egiteko: “*considerando no tiene esta villa efectibos algunos ni renta fixa para cumplir las obligaciones hordinarias y menos para pagar salarios de medico y maestro escuela*”²⁴³.

1655ean, lehen hezkuntzako maisu lanetan apaiz batek ziharduen, On Antonio Abad Askargortak. San Pedroko benefiziadua eta parroko-ordea zen. Parrokua bere anaia Andres zen, gainera. Kargu horiek guztiak zirela eta, oso lanpetuta ibiltzen zen, eta askotan ezin izaten zuen eskolak ematera joan eta, halakoetan, bere koinatuak, Pedro Landaburuk ordezkatzeko zuten. Urtean 50 dukat kobratzen zituen. Baina bere belarrietara iritsi zen auzokide batzuk haserre zeudela bere huts-egiteengatik; horregatik lanpostua uztea erabaki zuen eta bere burua eskaini zuen ahal zuen orduetan klaseekin jarraitzeko, irakasle berririk aurkitzen ez zuten bitartean. Hiribildua berehala hasi zen bera ordezkatzeko gestioak



Idazketa

egiten: “*para esta Villa como es nottorio combiene aya un m^o. escuela de toda satisfaz.^{on} para la educaz.^{on} y enseñanza siendo como es para la rrepublica de tanta consideraz.^{on}”²⁴⁴.*

1663an ordea, hutsik egon behar zuen maisu plazak, Udalak hala utzi baitzuen jasota: “*la falta grande que ay en esta Villa de un maestro escuela que enseñe a leer escriuir y contar [...] Y se a reconocido Es a proposito para tal maestro Escuela, Juan Mrnz. de Yrala V^o de esta Villa y que tomando a su cargo este oficio sin que tenga otro oficio ni entretenimiento se espera para buena quenta sacando buenos discipulos*”. Ohikoa zen bezala, urtean 50 dukateko soldata eskaintzen zioten²⁴⁵. Argi dago Askargortarekin izan zuten esperientzia, maisu-lana beste lan batekin batera betetzekoa, ez zela egokia izan; ondorioz, Udalak, irakasle berriak dedikazio eskusiboa edukitzea bilatzen zuen.

1770ean Pedro Urruzuno ari zen oinarrizko hezkuntzan maisu²⁴⁶.

Neskentzako maistrak ere izan ziren baina beti gutxiago ordainduta eta beren lana egiteko oztopo handiak izanik. Adibidez, 1714an Maria Antonia Gabilondok betetzen zuen kargu hori; bada, uda-

lak, erabaki zuen zor zizkion soldata atzeratuak kitatu eta handik aurrera ordaintzen ez jarraitzea²⁴⁷.

Maisu-maistra horiek guztiak hirigunean baka- rrik aritzen ziren, eta ez dakigu 1830. urtera arte auzoetan eskolarik egon zen, lehen aipatu dugun bezala. Baliteke landaguneko maisu-maistra ho- riek urte batzuk lehenagotik lanean jardutea, bai- na, nolanahi ere, oso berandu izango zen, kasurik onenean XIX. mendearen hasieran. XVIII. men- dearen amaierako eta XIX. mendearen hasierako gatazka belikoak kontuan hartuta, iruditzen zait landa-eskola horiek 1820ko hamarkadan hasiko zirela zabaltzen.

Oinarrizko hezkuntzako eskolez gain, Berga- rak hiru hezkuntza-erakunde izan zituen XVI. mendetik XVIII. mendera bitartean: bat nahiko konbentzionala, Jesusen Lagundiaren Ikastetxea (1593-1767); beste biak, berriz, ezohiko samarrak izan ziren: Neskatilak Hezteko Soledadeko Minte- gia (1732-1799), ondoren Mariaren Lagundiaren Ikastetxea izango zena, eta Errege Mintegi Patrio- tikoa (1776-1804).

Gutxienez, 1653ko irailaren 11 rako, Udalbatzar Orokorrak Jesusen Lagundiaren Ikastetxearekin el- karrizketak hastea erabaki zuen, bertan oinarriz- ko hezkuntzako eskola-maisu bat jartzeko: “*que enseñara a los muchachos a leer, escribir, contar, la Doctrina Cristiana y la buena crianza*”²⁴⁸. 1673ko ekainaren 12an, Hiribilduak gutun bat bidali zion Andres Madariaga jaunari eskerrak emanaz, Ika- stetxeko lanak duintasunez amaitzea ahalbidetu zuen dohaintza eskuzabalagatik. Gutunean bertan Udalak agertzen zuen konpromisoa hartzen zuela eskola-maisu bat jartzeko eta horretarako urtean 1.200 dukat zilarrezko bideratzeko. Kargu hori betetzen lehena Agustin Askasua izan zen²⁴⁹. Az- kenean, 22 urte beranduago, 1675ean, akordio batera iritsi ziren, eta, horren baitan, Jesusen La- gundiak konpromisoa hartu zuen oinarrizko hez-

kuntzako maisu bat eta gramatikako bi maisu jartzeko. Horretarako, Udalak urtean 50 dukat ordaindu behar zituen lehenengoarentzat, eta zilar-kobrezko —jesulagunen arabera, zilarrezko— mila dukateko (*ducados de vellón*) zentsua eman behar zuen gramatikako bi maisuendako. Zenbait arazo sortu ziren ordainketetan, batez ere, udalak hitzemandako mila dukaten inguruan, ez baitzen argi geratu dukatak zilar-kobrezkoak ala zilarrezkoak izango ziren²⁵⁰. Diru kopuru horien ordainketen inguruan ika-mika ugari sortu ziren eta hainbat ezbetetze izan ziren bi erakundeen aldetik²⁵¹. Jakina, 1767an jesulagunak kanporatu zituztenean, irakaskuntza horiek bertan behera geratu ziren, eta horrek arazo ugari eragin zituen Bergarako hezkuntza panoraman.

Edonola ere, jesulagunak bigarren mailakotzat jo genitzakeen ikasketetan espezializatuta egon ziren, “gramatika eta latinitate ikasketa” deitutakoetan. XVII. mendearen amaierara arte, jarduera horren ia monopolio osoa izan zuten eskualdean, eta, hori dela eta, Bergarara jesulagunekin ikastera etortzen ziren, inguruko eta Euskal Herri osoko herritarrak. Gero, inguruko herrietan gramatika-eskolak ireki ahala, haien jarduera nabarmen jaitsi zen, nahiz eta matrikulazio-maila duinari eutsi. Gramatika, Humanitateak eta Erretorika (hiru gradutan banatua), ikasten ziren²⁵². Jakina, 1767an jesulagunak kanporatu zituztenean, ikastetxea itxi eta hezkuntza-jarduera hori ere desagertu egin zen une batez.

Dena den, hezkuntza (eta ikerketa) zentrorik berritzaile eta interesgarriena Errege Mintegia (“*Real Seminario Patriótico Bascongado*”) izan zen. Bere historia aski ezaguna da. Urte haietan Europan loratu zen Elkarrekin Ekonomikoen mugimenduaren barruan (Dublingoa eta Bernakoa 1762koak dira), 1764an, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarrekin eratu zen, eta bere helburu nagusietako bat izan zen ikerketa eta hezkuntza uztartuko zituen zentro misto bat sortzea, haren bidez, berrikuntza teknikoak —hala nola metalurgiakoak, mineralogiakoak, fisikakoak...— modu aplikatuan bultzatzeko, eta aldi berean, klase boteretsuetako semeak beren gizarte-mailari eta ondareari zegokion moduan hezteko, betiere garaiko



Jesuiten kanporatzea 1767an

ildo zientifiko modernoenen arabera²⁵³. 1767an jesulagunak kanporatu ondoren haien ikastetxeak hutsik geratu zirelarik, gobernuak haietako batean kokatzeko aukera eskaini zion Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteari, bai Loiolan, bai Bergaran. Bergararen zentraltasuna eta komunikazio hobeak aintzat hartuta, ilustratuek bertako ikastetxean finkatzea erabaki zuten. Proiektua gauzatzeko denbora behar izan zen: 1769an eman zieten eraikina eta azkenean 1776an jarri zuten martxan. Baina kontuan izan behar da, halaber, Adiskideen Elkartek hasieratik izan zuela hiribildu hori erreferente nagusi. Horrela, Xabier Maria Munibe Idiakenez (Peñafloridako kondea), Joaquin Maria Egia Agirre (Narrosko III. Markesa) eta Jose Olaso Zumalabe izan ziren Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen sortzaileak eta erabaki zuten erakundearen lehen saio ofiziala Bergaran egitea 1765ean. Olaso, Elkarteko lehen Idazkari Betierekoa, Bergarako zen; Peñaflorida, nahiz eta Azkoitian jaio, Bergaran bizi izan zen 1785ean hil zen arte; Egia azkoitiarra, berriz, Olasoren ondorengoa izan zen Idazkari Betiereko gisa, eta bera izan zen Mintegia-
ren bultzatzaile nagusia: bera arduratu zen, nagusiki, bertako irakasle eta ikertzaileak kontratatzeaz, baimenak eskatzeaz, Gortean gestioak egiteaz, gai ekonomikoak kudeatzeaz eta oro har, entitatearen lehen urratsak antolatzeaz. Horregatik berak ere, Bergaran finkatu zuen bere bizilekua 1787. urtera arte. Bereziki *Laboratorium Chemicum*-ean inplikatu zen, bertan lan egin zuten jakintsuen ikerketa lanetan zuzen-zuzenean parte hartuaz. Jakintsu horien artean ziren, besteak beste, Fausto eta Juan Jose Elhuyar anaiak, Pierre François Chabaneau, Louis Joseph Proust, eta abar. Gogoratu behar da laborategi horretan Elhuyar anaiak wolframa aurkitu zutela eta Chabaneauk platinoaren xaflagarritasuna lortzeko metodo bat aurkitu zuela. *Laboratorium*-a Bidekurutzeta kaleko Zabala etxean kokatuta zegoen.



Laboratorium Chemicum-a Zabala etxean kokatu zen

Hezkuntzaren alorrari dagokionez, Errege Mintegia gazteentzako prestakuntza-zentro gisa sortu zen baina, jakina, ez edozein gazterentzat, baizik eta klase goreneko Euskal Herriko eta kanpoko aristokraten, —“handikien” edo “*pelukadunen*”—, semeentzat, hau da, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko bazkideen semeentzat. Fundatzaileek uste zuten 40 ikasleko kopurua nahikoa izango zela proiektuari bideragarritasuna emateko, eta, nahiz eta lehenengo urtean hamalau ikasle baino ez izan, laster iritsi eta gainditu zuen ezarritako gutxieneko kopuru hori. 1778an 60 ikasle zeuden, 1779an 54

eta 1787an bere muga jo zuen 132 ikaslerekin, eta gero beherantz egin zuen 1793an 90 izan arte. Espero bezala, Adiskideen Elkartea hasiera-hasieratik arduratu zen liburutegi “hautatua” izateaz. Batez ere, erakundeak bereziki landuko zituen gaiei eta zientzia aurreratuei (kimikari, fisikari, mineralogiari...), buruzko liburu hautatuekin hornitu zuten, izaera tradizionalagoko beste gai batzuei buruzkoak ere baztertzeko. Adiskideen Elkarteko proiektuan 3.000 erreal aurreikusi ziren liburutegia sortzeko liburuak eskuratzeko, eta benetan dirutzak inbertitu ziren zenbait ale erosteko, batez ere atzerrian (Frantzia, Holanda), han ugariagoak baitziren punta-puntako obra horiek. Ikasleei ematen zitzaizkien ikasgaiak hiru multzotan bana zitezkeen: klasikoak (Atzerriko hizkuntzak, Latinitatea, Humanitateak, Geografia, Historia, Logika eta Filosofia morala), zientifikoak (Matematika, Fisika, Kimika, Mineralogia, Metalurgia eta Historia naturala), eta trebetasunak (“*habilidades*”) (Marrazketa, Dantza, Esgrima eta Musika). Hau da, hiru osagaien arteko oreka neurtua: batetik, garai hartako gazte kultu batek menderatu behar zituen gai tradizionalak; bestetik, gaztea ondo hazi eta hezitako (“*buen a crianza*”) zalduna zela akreditatzeko elementuak; eta, azkenik, jabeen klasekoek beren jarduera ekonomikoak kudeatzeko behar zuten prestakuntza tekniko. Gorputzaren zaintza fisikoa ere lantzen zen, jolas eta kirol-jarduera egokien bidez. Eta hori guztia espiritu laiko baten baitan, unibertsitate-irakaskuntza tradizionalen ohiko giro erlijiosotik oso urrun. Mintegiaren urrezko urteak 1777-1787 hamarkadakoak izan ziren²⁵⁴.

Neurri batean, Errege Mintegiak jesulagunengandik jaso zuen, lehen hezkuntzako maisua izateko betebeharra; eta 1776 eta 1791 artean Jose Bentura Zubiaurre jaunak bete zuen eginkizun hori. Ondoren, 1794 eta 1796 artean behintzat, Jose Uzin jauna²⁵⁵ arduratu zen lanaz. Adiskideen Elkartek, lehen hezkuntzako bost eskola mantendu zituen, Bergarakoaz gain, Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Loiolakoak.

Bergara zerbaitetan aitzindari izan bazen, hori emakumeei eskainitako irakaskuntzan izan zen. Altamira inguruan 1646an ermita bat eraiki zen, Soledadeko Ama Birjina izenekoa, eta haren ondoan serorategi bat. Serorak, eliza mantentzeaz gain, hara joaten ziren herriko neskak ugariei oinarritzeko hezkuntza emateaz arduratzen ziren. 1732an, Frantziskotarren Hirugarren Ordeneko “serora” horietako batek, Clara Berroetak, baimena eskatu zion Udalari Soledadeko serorategian eskola formal bat jartzeko, honako helburuarekin: “*enseñar a las niñas y adultas a leer, escribir, y toda labor, siendo la primera y principal, el desvelo a las costumbres cristianas*”²⁵⁶. 1737an, behinik behin, Soledadeko eskola martxan zegoen, Berroetak udaletxera jo baitzuen, bertan behar zuten labe bat jartzeko eskatuz. Badirudi ikasle asko zituztela: “*Por alta disposición de la Divina Providencia ha crecido tanto el numero de las Discipulas*”²⁵⁷.

Urte batzuk geroago, Pedro de Calatayud jesulagun tafallarra Bergaratik pasa zen, eta Udalari ikusarazi zion komeni zela ikastetxea zuzenean Calahorrako gotzaindegiaren mende jartzea, eta araudi bat idaztea, bai hezitzaileen eta bai ikasleen jarduna gidatzeko. Hasiera batean, 1741ean, Manuel Larramendi jesulagunak erakundea zuzentzeko araua idatzi zuen. Bertan jasotzen zen Soledadeko Mintegirako gehienezko ikasle-kopurua 60koa izango zela, hartuko ziren ikasleen adina sei eta hamasei urte artekoa izango zela eta irakurtzen, idazten, kontuak egiten, musika, jostakuntza eta brodatua irakatsiko zitzaizela²⁵⁸. Kontua da Calahorrako gotzainak ez zuela onartu araudi hori eta ez zela inoiz indarrean egon. Larramendik idatzitako arauak zekarten arazo nagusia erakundearen zuzendaritzarena zen; Larramendik aurreikusi zuen zuzendaritza moja baten ardura izango zela: Ikastetxeko Erretorearena. 1749an, egoera zaila bizi zuen ikastetxeak, Berroeta oso gaixo zegoelako eta Calahorrako gotzain Diego Rojas y Contrerasek tinko

eusten ziolako zentroaren zuzendaritzari buruzko arau horren kontrako jarrerari. 1750ean Udalak gaiari berriro ekitea erabaki zuen. Lehenengo urratsa erakundearen patronatua Calahorrako gotzainaren esku uztea izan zen, urte hartako uztailaren 5ean egin zuena, eta bigarrena, arau berriak idaztea, Pedro de Calatayudek idatzi eta 1751n onartu zituenak. Funtsean, arauak 1741eko berberak ziren, baina salbuespen garrantzitsu bat zegoen: Soledadeko Mintegia, ordura arte bezala, emakumeek bakarrik gobernatu beharrean, apezpikuaren ordezkaria izango zen gizonezko batek zuzenduko zuen: *“No es fácil que para el adelantamiento y perseverancia de el Seminario llegue el gobierno solo de mugeres; es muy conveniente y necesario que haya una caveza que le gobierne, cele y rixa, como gobernador, protector y director suyo en lo espiritual y temporal y como substituto del I^{mo}. Señor obispo que lo designará y nombrará...”*²⁵⁹. Badirudi neskak barnetegi erregimenean zeudela, dokumentazioan *“de clausura”* esaten baita²⁶⁰. Onartua izateko adina sei urtetik hamasei urte artekoa zen. Uniforme beltza eramaten zuten, mantellina, saia eta kasakaz osatua, baina ezin zitekeena zetazkoa izan, zeta nobleziarentzat erreserbatuta baitzegoen.

Hizkuntzaren ikuspegitik, neskatilei lehen-dabizi gaztelaniaz eta gero latinez irakurtzen irakasten zitzairen. Zentzu horretan, Larramendik Soledaderako idatzi zuen araudiak puntu garrantzitsu bat zuen. Mutilen eskoletan bezala, honetan ere helburu nagusia neskak alfabetatzea zen, baina aldi berean gaztelania ikastea. Ikastetxeko irakats hizkuntza gaztelania izan behar zuen. Horregatik kontraesankorra gertatzen da, Larramendi, bere garaiko euskararen babeslerik handiena, hizkuntzaren apologistarik sutsuenetakoa eta euskararen aldeko polemista izanik, Soledadeko araudi-proposamenean sartu zituen arauen artean honelakoak agertzea:



Errege Mintegiko gailu zientifiko bat: dilatometroa




Soledadea

13.º- An de aprender la lengua castellana. Ni hablarán ottra en lo común ni con sus maesttras ni entre sí. Y para eso conducirá mucho leer y oír leer con reflexión buenos libros.

14.º- Aprenderán a leer bien y con sentido el romanze. Y, en quanto pudieren, tamuién el lattín, pues es nattural que esto les sirua a muchas de ellas²⁶¹.

Nolanahi ere, Soledadeak bi mailatako jarduna izan zuen: alde batetik, klase herrikoietako neskak joaten ziren eta bestetik, bergarar handikien alabak ere bertan ikasten zuten. Adibidez, 1790eko auzi batean, Pedro Ignacio Garagarzak adierazten zuen Soledadeari 300 dukat eman zizkiola, bere alaba batek eta iloba batek bertan ikasten eman zuten denborarengatik²⁶². Hasiera batean, gurasoek ordaindu behar zuten alaben mantenua eta heziketa. Dualtasun hori azaltzen da Mariaren Lagundiko Ikastetxean, bi ikasle mota zeudelako: “ofizialak” eta eskola publikoetara joaten zirenak. Horrela, Tomas Lopezen galde-sortari 1800 edo 1801 inguruan erantzun zion informatzaileak (apaiz bat, antza) adierazi zuen, Mariaren Lagundiko Ikastetxeko mojek, “andereñoak” hezteaz gain, bazituztela bertara joan nahi zuten neskak guztientzako eskola publikoak ere: “*tienen escuelas publicas, para todas las q.ª quieran asistir, tres horas por la mañana y tres por la tarde, en todos los días q.ª no fueren festivos*”²⁶³.



Pedro de Calatayud jesuita tafallarra


Soledadeko Mintegiaren bizitza prekariora izan zen beti, diru eta irakasle espezializatuen faltagatik. 1762an, Magdalena Goizueta Tuterako Mariaren Lagundiko lekaimeak, bere ondasun guztiak dohaintzan eman zituen Soledadeko Mintegia Lagundiaren komentu bihurtzeko eta irakaskuntzan aritzeko. Francisco Mucientes aita jesulagunak hartu zuen parte operazioan. Baina garai txarrak ziren jesuitentzat, bost urte beranduago Espainiatik kanporatuko baitzituzten, eta Jesusen Lagundiaren eta Mariaren Lagundiaren arteko kidesasuna oso argia zenez, proiektua geldiarazi egin zuten. Azkenik, 1799an Mariaren Lagundiak Amabirjinaren izenpeko “Enseñanza”ko Komentua sortu zuen, eta bi urte beranduago hasi zen funtzionatzen, soilik emakumeentzako irakaskuntza eskainiaz. Helburu horrekin, Tuterako Lagundiaren komentutik lau moja fundatzaile etorri ziren. Eraikina Soledadeko baseliza eta beatetxetik metro gutxitara kokatu zen²⁶⁴.

Mariaren Lagundia 1606an sortu zuen Franzian Santa Juana Lestonnacek (Montaigneren ilobak), emakumeen heziketarako erakunde gisa.

Jesulagunen esparruan sortu zen eta Jesusen Lagundiaren Konstituzioetan oinarritu zen. 1650ean iberiar penintsulara igaro zen eta Bartzelonan kokatu zen. Komentu horretatik, 1687an, hainbat moja Tuterako Ikastetxea sortzera joan ziren, eta azken horretatik pasa ziren Bergarakora 1799an²⁶⁵.

Bergarako fundazioaren jatorria, esan bezala, Magdalena Goizuetak helburu horretarako egin zuen dohaintzan dago. Donostiar hau hamalau urterekin Tuterako *Enseñanza* ikastetxean sartu zen ikasle; eta, ondoren, moja Mariaren Lagundian. Sartzerakoan, bere dotea, milioi bat erreal baino gehiagokoa, eman zion erakundeari dohaintzan Bergarako ikastetxea eraikitzeko. Bere familiak auzia jarri zuen eta moja-saria 30.860 errealetan geratu zen. Kopuru hori nahikoa izan zen Bergarako eskolaren eraikuntza abiatzeko. Hiru ikasle mota zeuden: barnekoak, kanpokoak eta pentsio-erdikoak. Barnetegikoen artean asko kanpotarrak ziren. Komunitatea osatu behar zuten mojen hasierako kopurua 24koa zen, hoguei korukoak eta lau koadjutore. Fundazioaren helburua zen euren eskolara joan nahi zuten neska guztiei irakastea eta hezte: *“instruirl y enseñar á todas las Niñas que quieran ir a sus Escuelas: primeramente en lo moral y christiano, después en las labores de manos, propias de su sexo”*²⁶⁶.

Zergatik ezarri zen Mariaren Lagundia Bergaran? Gogoratu behar da ordena hau espiritualitate ignaziozalearen eremuan kokatzen zela eta Jesusen Lagundiarekin oso harreman estua zuela; jesulagunen adar femeninotzat har daiteke. Horregatik, tradizionalki, Mariaren Lagundiaren ikastetxeek Jesusen Lagundiarenak zeuden hiribilduetara joateko joera izan zuten. Mariaren Lagundiaren Ikastetxearen



Mariaren Lagundia

kokapenari dagokionez, neurri handi batean Soledadekoaren oinordekoa bazen ere, hasieratik planteatu zen Altamirakoa ez zela egokia Mariaren Lagundiarena bezalako asmo handiko proiektu batentzat; izan ere, Soledadeko eraikina, erdigunetik urrun eta goi batean kokatuta zegoen, eta hori dela eta, bertarako bidea oso neketsua zen, batez ere neguan eta euri egunetan, eta hori oztopo nabarmena zen ikastetxearentzat. Hori dela eta, hasiera-hasieratik erabaki zen eraikin berri bat eraikitzea.

Gainerakoan, fundazioaren proiektua onartu aurretik, haren egokitasunari buruzko hainbat txosten eskatu ziren. Adiskideen Elkartearena, 1775eko apirilaren 7an igorritakoa, oso interesgarria da. Izan ere, ez dago irizpide bateraturik horrelako erakunde bat Bergaran kokatzearen inguruan, ez eta izan beharko lituzkeen ezaugarrien inguruan ere. Hori dela eta, txostena oso zuhurra da, eta ez du bere iritzia era gordinen ematen, baina bi xehetasun garrantzitsu azaltzen dira; alde batetik, Adiskideen Elkartek nahiago zuela horrelako zentro bat beste herri batean kokatzea eta, batez ere, beste espiritu bat izatea. Mariaren Lagundiak neskato eta neska gazteentzako oinarritzko doako irakaskuntza-eredu bat proposatzen zuen, espiritu konbentual eta monastiko baten barruan. Adiskideen Elkartek, aldiz, nahiago zuen gizarte-maila oneko andereñoak hezteko zentro bat, etorkizuneko gizarterako ama eta emazte jantziak prestatuko zituen, kultura orokorraz gain beste gizarte-trebetasun batzuk, dantza adibidez, menderatuko zituztenak. Jakina, eredu sekularizatuagoa proposatzen zuen, eta beraz, kongregazioko mojez gain, maistra sekularrak sartzeari gomendatzen zuen. Azken batean, emakumeentzako irakaskuntza-zentro bat, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen beraren espirituari egokitua eta, Errege Mintegi Patriotikoak gizonentzat balio zuen bezala, balioko zuena goi-mailako familietako seme-alabei, Frantziara bidali beharrik gabe, eliteko prestakuntza sekularra eta garai berriekin bat zetorrena eskaintzeko. Horrek, jakina tupust egiten zuen Mariaren Lagundiaren proiektuarekin, hau da, jesulagunen irakaskuntza kontrarreformatuaren espirituarekin²⁶⁷.

XIX. mendea aurreratua zegoen Bergarako irakaskuntza publikoaren egoerari buruzko informazio zehatza biltzen hasi zirenerako. 1830ean, Estatuko Instrukzio Publikoko Ikuskaritza Nagusiak, Gipuzkoako Eskoletako Ikuskaritzako Batzorde Nagusiari informazioa eskatu zion lehen mailako eskoletako eta gramatikako eta latinitateko ikasleen (nesken eta mutilen) kopuruei buruz. Batzorde Nagusia, Bergarako Udalari zuzendu zitzaion, eta Udalak ez zion eskaerari jaramonik egin. Bigarrenez eskatu zuten informazioa, kasu horretan 50 dukateko isunpean, baldin eta, lehen aldiz gertatu bezala, ez bazuten erantzuten. Txosten aski osatu bat egitea beste erremediorik ez zen izan, eta batzordeari igorri zioten. Horri²⁶⁸ esker dakizkigu 1829-1830 ikasturtean Bergaran ikasten zihardutenen kopuruak: “Enseñantza” ikastetxean 126 neska eta Humanitate Ikastetxean 285 mutil, honela banatuta: Oinarritzko hezkuntzan 201, Latinitatean (bi katedra) 43, Filosofian 17, Matematikan 19 eta Literaturan 5. Ordurako emakumeen irakaskuntzak aurrerapen nabarmena egina zuen baina, hala ere, mutilek nesken bikoitza baino gehiago izaten jarraitzen zuten. Txostenean argitzen da eskolei ematen zaizkien baliabide ekonomikoak Noblean Errege Mintegirako baino ez zirela. Nesken ikastetxean doakoa zen irakaskuntza.

Batzordeak bidalitako galdera-sortan honakoak eskatzen ziren: 1) eskola kopurua, 2) auzoaren biztanle kopuruaren arabera egon beharko ziratekeen eskola-kopurua, 3) araudiaren arabera izan beharko zuketena diru-hornidura, 4) momentu horretan zuten diru-hornidura eta 5) falta zen diru-hornidura. Bergarak honela erantzun zion lehen galderari: bi maisu-maistra dituen haur eskola bat eta nesken es-



Mariaren Lagundiaren sorreraren oroitzapenezko plaka

kola bat (guztira bi eskola). Bigarren galderari berriz, hau erantzun zion: “*Hay también [maisuk] en los Barrios*” eta ondoren aparte argitzen du: “*en los barrios de san Prudencio, san Cristobal, Santiago, y santos Hemeterio y Celedonio hay maestros ajustados para los caseros mismos de la Barriada, para enseñanza de la lectura, escritura y doctrina Christiana a sus niños*”. Nolabait, galdera saihestu egin zuten, baina, ematen duenez, auzoetan beste lau irakasle zeuden, dirudienez, mutilentzat bakarrik zirenak. Baina ez du adierazten zenbat haur joaten ziren eskola horietara, ez finantzaketarik, ez ezer. Hirugarren, laugarren eta bosgarren galderei, honela erantzun zitzaion, hurrenez hurren: 7.100 erreal, 4.500 erreal eta 2.600 erreal.

Ikasle kopuru zehatzik ez dugun arren, ematen du Bergarako irakaskuntza normaltzeko zorian zegoela, mutilei dagokienez. Hiribilduan bi irakasle zeuden, beste lau auzoetan eta, horietaz gain, Humanitateen Ikastetxea zegoen, gaur egun Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza deituko genukeena eskaintzen zuena. Askoz atzeratuago zegoen nesken prestakuntza: hiribilduan eskola bat eta “Enseñanza”ko ikastetxea zeuden baina landa eremuan neskek ez zuten ikasteko inolako aukerarik. Egoera hori bat dator alfabetatze orokorraren bilakaerarekin; analfabetismoak atzeraka egin zuen, bai gizonezkoetan bai emakumezkoetan, baina artean emakumeen ehunekoak oso altuak ziren.

Urte batzuk geroago, aurrez aipatutako 1857ko zentsuari esker, aukera izango dugu Bergarako irakasleria nola osatuta zegoen jakiteko. Zoritxarrez, zentsu horretako sailkapen profesionala ez zen oso zorrotza izan, eta ez digu irakaskuntza- maila guztietako irakasleen informazio zehatza eskaintzen. Hala, lehen

hezkuntzako irakasle bat eta umeen maisu bat daude erroldatuta. Ikusi dugunez, 1830ean gutxienez bi maisu eta maistra bat zeuden herrian, lau landa-maisuez gain. Pentsaezina denez kopuru horrek behera egingo zuenik, pentsatu beharko genuke, landa eremuko maisuak, beste lan batzuetan ere aritzen zirela eta haien arabera erroldatu zituztela. 1857an, Mintegiko sei irakasle, “kimikako beste irakasle” bat, “musikako” beste irakasle batzuk eta “albaitaritza irakasle” bat ere agertzen dira. Baina garrantzitsuen da 31 herritar agertzen direla “irakasle” gisa zenbatuta. Ziurra dirudien gauza bakarra da Bergarak berrogei irakasle pasa izango zituela.

1860ko erroldaren arabera, lehen hezkuntzako hogeita lau maisu eta hamar maistra bizi ziren Bergaran. Seguru asko, denak ez ziren irakasle lanetan arituko. 1857ko zentsuan lehen hezkuntzako sei maisu ageri dira, eta 1871ko erroldan zazpi maisu eta maistra bat.

III.5 - Jesusen Lagundiaren, Errege Mintegiaren eta Mariaren Lagundiaren eragina Bergarako hizkuntza-eremuan

Komeni da Bergaran jardun zuten hezkuntza-erakundeek bertako hezkuntzan, herritarren alfabetatzean eta, bereziki, herrian erabiltzen ziren hizkuntzen ezagutzean eta erabileran izan zuten eragina aztertzea.

Jesusen Lagundiaren Ikastetxea.

Gipuzkoako hiribilduen jurisdikziopeko lurretan eta, jakina, baita Bergaran ere, bi mundu desberdin bizi ziren: bata, landa-eremukoa, erabat euskal elebakarra, eta bestea, hiritarra, elebitasuna nagusi zena. Bi munduen behar pastoralak eta kulturalak desberdinak ziren, eta jesulagunak bi alderdi horiek betetzen espezializatu ziren: nekazal munduari arreta emateko, predikazioa eta misioak zituzten eta hiri-munduari, berriz, lehen eta bigarren mailako irakaskuntza eskaintzen zioten, gaztelaniaz eta latinez²⁶⁹.

Predikazioari dagokionez, sorrerako akordioen ondorioz, Lagundia behartuta zegoen sermoi batzuk ematera bi parroketan eta jaiegun jakin batzuetan. Hala ere, 1685ean, Ikastetxeko errektore Francisco de Recuerda, betebeharrak bat betetzetik “desenkusatu” zen, eta Udalak komisionatuak izendatu zituen udal artxiboko paperen artean betebeharrak hori justifikatzen zuten dokumentuak bila zituzten eta gaia abokatuen esku laga zezaten, haiek bidezko erreklamazioa jartzeko²⁷⁰. Badirudi jesulagunek gogoz kontra betetzen zutela predikua, eta ahal zutenean uko egiten ziotela predikatzeari.

Hori bai, predikua ordaindu egiten bazitzairen, jesulagunek ez zuten inoiz hutsik egiten eta lan horretan hoberenetakotzat jotzen ziren domingotarrekin eta kaputxinoekin batera. Adibidez, 1737an, udalak Alexandro Garrido Jesusen Lagundiaren Ikastetxeko errektoreari enkargatu zion San Roke Hiribilduko zaindariaren eguneko sermoia, erabakian honako ordainsaria ezarriaz: “*que se le gratificase su trauajo con un decente regalo de los efectos y haueres de esta Villa*”²⁷¹.

Jesusen Lagundiak, jokabide anbigua izan zuen euskararen gaian, bere jardunaren beste alderdi batzuetan izan zuen bezala. Alde batetik, Jesulagunen Ikastetxeak 1593an sortu zenetik 1767an Jesusen Lagundia kanporatu zutenean itxi zen arte egin zuen ibilbideak suposatu zuen herrian gramatika-ikasketak eta Lehen Hezkuntzakoak egin ahal izatea. Horrek ekarri zuen ikasle talde handi bat alfabetatzea eta gaztelaniaz eta latinez ikastea. Kanporatu zituztenean, jesuitek gramatikako bi maisu eta lehen hezkuntzako bat zituzten Bergaran. Argi dago ikasle horietako ia guztiak euskaldun elebakarrak zirela jatorriz, baina behin gaztelania eta latina ikasita, nahiago zutela hizkuntza horiek erabiltzea, euren kultura- eta gizarte-nagusitasuna adierazteko. Ikus dezagun horren adibide bat.

1704an, Gaspar Askargortak, jesulagunekin ikasle zela, duelua izan zuen Bergarako beste bizi-lagun batekin, Joseph Etxegarairekin, eta hil egin zuen. Dirudenez, liskar bat izan zen gazta batzuen prezioaren inguruan, eta lekukoetako baten adierazpenetatik ondoriozta daitekeenez, eztabaida hasi zutenek euskaraz hitz egiten zuten. Baina gero Askargorta eta Etxegarai sartu ziren eztabaidan eta azkenean biek elkarri helduta eta duelurako desafioa eginda amaitu zuten. Duelua beste momentu batean leku bakarti batean egitekotan geratu ziren. Bada, adibidez, Juan Alaiza lekuko bergararrak adierazi zuen ez zuela ulertu Askargortak eta Etxegarai elkarri esan ziotena, gaztelaniaz hitz egin zutelako, eta berak ez zekielako hizkuntza hori, baina aurreko partaideei ulertu ziela, —zalantzarik gabe euskaraz mintzatzen zirelako—. Badirudi, liskarrean baserritarrek parte hartu zuten bitartean, euskaraz mintzatu zirela, baina ikaslea tartean sartu zenean, eztabaida gaztelaniara eraman zuela, nahiz eta, dudarik gabe, hark ere euskaraz bazekien, aurrez eztabaidatutakoa ulertu baitzuen²⁷².

Beraz, herrian latina eta gaztelania menderatzen zituen eta elite kultural eta sozialetako kide zirela



Jesuita bat, beste ordena erlijioso batzuetako kideez inguruta

frogatzeko erabiltzen zuten ikasle-talde handi bat egoteak, euskara gutxiestea eta hizkuntza boteretsua, gaztelania, hedatzea ekarri zuen. Eta kontzienteki edo ez, jesulagunek beren irakaspenekin horretan lagundu zuten. Hartu kontuan Lagundiaren Ikastetxean 150-200 ikasle inguru egon zitezkeela.

Hala ere, badirudi Ikastetxean, XVII. mendean behintzat, fraide gehienak euskaldunak zirela, euskaraz predikatzeko, misioak egiteko eta konfesatzeko gai zirenak. Gogoratu behar da, halaber, XVIII. mendean zehar jesuitak, hizkuntza ofizial eta boteretsuen aurrean herri hizkuntzen defendatzaile sutsu agertu zirela. Izan ere herritar xumeak euskal elebakarrak ziren eta Kontrarreformaren mezuarekin haiengana iristeko modu bakarra euskaraz egitea zen. Aski da Lagundiaren Ikastetxeak Loiolan egindako lana eta bertan euskararen defendatzaile eta hedatzaile izan ziren hiru kide entzutetsuenen izenak gogoratzea: Manuel Larramendi, Agustin Kardaberaz eta Sebastian Mendiburu. Francisco Elizalderen izena ere gehitu beharko litzaioke punta-puntako hirukote horri.



Jesusen Lagundiaren Ikastetxea

Jakin badakigu, Bergarako jesulagunek hasiera hasieratik eta naturaltasun osoz, irakatsi zutela dotrina eta euskaraz predikatu zutela, Euskal Herriko inguru honetan nagusitasunez hitz egiten zen hizkuntza zelako. *Historia del Colegio de Bergara* argitalpenean honako hau irakur daiteke: “*Han salido algunos padres en el discurso del año muy de ordinario a enseñar la doctrina en la lengua vascongada, que es la que en esta tierra comúnmente corre [...] Las doctrinas se hacían todos los domingos en la tarde a la hora de Vísperas, cantándola con gran acompañamiento del pueblo que traía a la iglesia principal de esta villa o a la nuestra*”²⁷³.

Hala ere, Jesulagunen Ikastetxe guztiek ez zuten, hasieran behintzat, zeregin horretarako euskarazko prestakuntza egokia zuen kiderik izan. Donostiakoak, esaterako, estuasun ugari izan zituen alde horretatik, antza denez, hasieran ia ez baitzuen euskaraz misionatzeko eta konfesatzeko gai zen abaderik, eta Oiartzunen misio bat egitea hitzartuta baitzuten, —euskaraz egin beharrekoa jakina—. Zituzten beharrei erantzuteko kide euskaldun nahikorik ez zutenez, bi apaiz eskatu zizkioten Iruñeko ikastetxeari zerbitzu hori eman ahal izateko: aita Miguel Huarte eta aita Miguel Perez garestarra. Baina 1630eko amaiera eta 1631ko hasiera bitartean, “tifus” izurriteak, bi fraideok

eraman zituen. Komentua, berriz ere, hizkuntza aldetik egoera larrian geratu zen. Orduan, Bergarako Ikastetxera jo zuten fraide “euskaldunak” bidal ziezaizkien, hizkuntza beharrei erantzun ahal izateko. Donostiako ikastetxea hizkuntzaren ikuspegitik berrosatzeko, Bergarako eta Bilboko ikastetxetara jo zuten. 1633an Donostiako Jesulagunen komunitatean zazpi lagun ziren: hiru erdaldun eta lau euskaldun. Bergarako Ikastetxetik Donostiara bidali zuten aita Pedro Oro arrasatearra, eta Bilboko ikastetxetik aita Juan Irazabal [edo Irarrazabal], Ortzaizekoa, baxenabartarra. Beraz, dirudienez, 1630eko hamarkadan, Bergarako Ikastetxea bertako kide euskaldun batzuk lagatzeko moduan zegoen, herrian zituen konpromiso pastoralak alde batera utzi gabe²⁷⁴.

Hala ere, esandako guztia gorabehera esan behar da, Bergaran ere ibili zirela tarteka predikari euskaldun onak aurkitzeko zailtasunekin, kasu bakanen batzuetan bazen ere. 1611n, antza denez, behar hori zela eta, Bergaratik Donostiara jo zuten laguntza eske. Gaspar Vegak gutun bidez erantzun zuen Bilboko jesulagunen ikastetxean gestioak egin zituela eta handik erantzun ziotela ikasturtea oso aurreratuta zegoenez ezinezkoa zela, baina hurrengo urterako ikusiko zutela (“*veremos lo que conbiene*”)²⁷⁵. Nonbait, leku guztietan zituzten predikari euskaldun onak aurkitzeko zailtasunak, eta tarteka Bergaran ere bai.

Errege Mintegia

Jesulagunen Ikastetxeak lehen hezkuntza eta gramatika irakasteko betebeharra izan zuen modu berean, Errege Mintegiak ere izan zuen bere obligazioa eta bi ikasle mota izan zituzten: “barnekoak edo seminaristak” eta “kanpokoak”. Seminaristek Euskalerriaren Adiskideen elkarteko bazkideren baten ahaideak izan behar zuten. Mintegian ematen ziren eskolez baliatu nahi zuten “kanpokoak”, aldiz, Lehen Hezkuntza, Latinitatea



Errege Mintegia (nahiz eta posta-txartelean, udaletxea [Casa Consistorial] dela dioen)

eta Marrazketa doan ikasteko aukera zuten, baina, Matematika, Humanitateak, Fisika eta abarrengatik, hilean 10 erreal kuarto ordaindu behar zituzten.

1779 urtean mintegiak 54 ikasle zituen eta 1787an iritsi zen gorenera, 132 ikaslerekin. Ikastetxeak funtzionatzeari utzi zion 1793an, Konbentzio Gerraren ondorioz; eta 90 ikasle zituen orduan²⁷⁶; 1798an, berriz ireki zenean, urtean berrogeiren bat ikaslerekin funtzionatu zuen 1803ra arte. Orduan izen horrekin existitzeari utzi zion eta une hartan 61 ikasle ziren barnekoak (seminaristak) eta 154 kanpokoak. 1804tik aurrera, Erakundeak, Nobleen Errege Mintegia izenarekin funtzionatu zuen urteetan, eta urtean 150 bat ikasle kanpoko bertaratzen ziren. Suposatzen da, kanpoko ikasle horietako gehienak Bergarakoak edo bere inguru hurbilekoak izango zirela. Barnekoak, berriz, hasiera batean Euskal Herri osotik etorritakoak ziren; 1780-1790eko hamarkadetan, aldiz, oso nabarmena izan zen ikasle amerikarren presentzia (euskal emigratuen ondorengoak), seminaristen ia erdia izateraino. Nolanahi ere, izaera bateko eta besteko ikasleen arteko ezberdintasun sozial eta kulturalak nabarmenak ziren. Seminaristak “handikien” (batzuen kasuan, noble tituludunen) semeak ziren, eta kanpokoak, berriz, klase ertaineko jabe eta burgesenak. 1804an krisi larria suertatu zen erakundean, izan ere, Gobernuaren iritziz, ez zuen betetzen bere sortze-agindua: hau da, nobleen belaunaldi berriak prestatzea. Hala, 1804ko uztailaren 23ko Errege Agindu baten bidez, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteari Ikastetxearen zuzendaritza eta administrazioa kendu

zizkion eta Estatuko Lehen Idazkaritzaren kontrolpean utzi zuen. Esanguratsua da, halaber, Gobernuak, Ikastetxearen izena aldatu eta Nobleen Errege Mintegia izena eman izana. Bada, urrats hori emateko erabili ziren argudioen artean honako hau jasotzen zen Errege Aginduan: “*los funestos efectos que produce en las costumbres de los seminaristas de Vergara, su reunión y trato con los externos*”. 1815ean Mintegiak 132 ikasle zituen.

Jakina denez, Mintegiak gorabehera ugari izan zituen 1793tik 1880ra. Tarte horretan hainbat aldiz itxi eta berrireki zen, eta hainbat izen eta heziketa helburu izan zituen: Nobleen Errege Mintegia (“*Real Seminario de Nobles*”), 1804an; Euskal Lizeoa (“*Liceo Vascongado*”), 1808an; Probintzia Unibertsitatea (“*Universidad de Provincia*”), 1822an; Lehen Mailako Bigarren Hezkuntzako Institutu Probintziala (“*Instituto Provincial de Segunda Enseñanza de Primera Clase*”), 1844an; Errege Mintegi Zientifiko-Industrial (“*Real Seminario Científico-Industrial*”), 1851tik 1860ra; Bergarako Errege Mintegi Vasco-Navarroa (“*Real Seminario Vasco Navarro de Vergara*”), 1874an; eta, azkenik, 1880an, Aita Domingotarrek hartu zuten eraikinaren ardura bigarren hezkuntzako ikasketak irakasteko.

Euskararen inguruan Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko bazkideen jarrera ez zen ahobatezkoa izan, ezta gutxiago ere. Ezaguna da kide batzuk euskararen aldekoak zirela eta, neurri batean, literarioki ere landu zutela, Xabier Maria Munibe berarengandik hasita. Horrela, 1765eko otsaileko Bergarako Batzarrean, Peñafloreak honako lana irakurri zien partaideei: “*unas observaciones sobre la Poesía Bascongada y una Egloga en este Idioma*”²⁷⁷. Eta, jakina, bere euskarazko lanak ere hor daude: *El Borracho burlado* eta *Gavon-sariak*. Bestalde, 1765eko²⁷⁸ Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen lehen Estatutuetan jasotzen zen egitekoetako bat euskal hizkuntza eta poesia lantzea zen. 1773ko²⁷⁹ Estatutuetan gauza bera aipatu zen berriro ere.

Adiskideen Elkarteko beste euskaltzaleetako bat Juan Eginok izan zen. Juan Bautista Ruiz de Eginok Lopez de Arregi, Juan Eginok gisa ezagunagoa, 1725. urte inguruan jaio zen Mezkan (Donemiliaga), Araban, urte haietan inguru euskalduna. Cádizera bizitzera joan eta han ikasi zuen merkataritza lanbidea. 1753 eta 1757 artean Liman finkatu zen eta bertan merkataritza konpainia bat sortu zuen Domingo Larrea Ametz bizkaitarrarekin. Gero Cádizera itzuli zen, Amerikarekin zituen lotura komertzialak mantendurik. 1779an Limara itzuli behar izan zuen, bere bazkidea iruzur egiten ari zitzaiolakoan. 1771tik aurrera Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen ordezkaria izan zen Cádiz. Eginoren lanari esker, Adiskideen Elkartek 102 bazkide izan zituen Liman 1789an. 1786tik aurrera, Adiskideen Elkarteko dirubiltzaileordea izan zen Perun, eta bazkideen kuotetatik lortutako diruak Euskal Herrira bidaltzen jarraitu zuen 1790era arte²⁸⁰. 1775ean, Eginok, bere anaia Jose Franciscorekin batera, 25.000 errealeko zentsua ezarri zuen bere jabetzako lurren gainean, Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen alde, Eginok familiako hiru kide bazkide ongiletzat aitortzearen baldintzapean.

Bada, Eginok euskarari buruzko tratatu apologetiko bat idatzi zuen, bere garaian idazten zirenen oso antzekoa, eta, bertan, nagusiki, defendatzen zuen euskara Espainia zaharreko hizkuntza bakarra eta unibertsala izan zela eta *Historia literaria de España* liburuan aukera hori ukatzen zuten frai Rafael eta frai Pedro Rodríguez Mohedano aiten tesien aurka egiten zuen. Baina, hemen interesatzen zaiguna Eginok

bere garaiko euskararen egoerari buruz egiten duen azterketa soziolinguistiko argia eta informatua da. Askotan aipatzen den testua da, baina merezi du berriz ere transkribatzea, edukia oso zehatza delako:

El bascuence se mantiene en las arideces de algunas montañas donde sus naturales por mas afecto que le tengan, solo le han conservado como alhaja escasa arrinconado sin mas afeytes, que los de su natural aseo, acometido por todas partes à su total exterminacion; pues como para el trato común con los demas españoles es necesario saver castellano, y este interesa mas por todos titulos de combeniencia que el bascuence: Todo el connato se pone en aprehender aquel desde la infancia; y assi en las escuelas de primeras letras, se enseña a leer y escribir en Castellano; y aun se prohíve a los niños hablar en Bascuence, porque no les embaraze al otro ydioma. En todos los pueblos grandes especialmente es corriente y aun dominante el castellano con particularidad entre los eclesiasticos, cavalleros y quantas personas se tienen por de alguna distincion. Se predica en castellano. Las escripturas, tratos y contratos Públicos se hacen en Castellano en las Audiencias de las Provincias, y Consejo Real de Navarra: todo se actua y se despacha en Castellano: los Capitanes Generales y Yntendentes, Correjidores y otros Ministros del Rey hablan, gobiernan y dan sus ordenes en Castellano: aun los Fueros, y las Ordenanzas particulares de los pueblos estan en castellano: con que lejos de pulir, hermohear, y cuidar el Bascuence, todo conspira a su decadencia ha muchos siglos²⁸¹

1775eko maiatzaren 27an, Adiskideen Elkarteko Historia, Politika eta Letra Ederren Batzordea bildu zen Bergaran, eta Eginoren *Discurso*-a irakurri zen. Erabaki zuten horren berri *Extractos* argitalpenean argitaratu behar zela, Elkartek urteko jarduerak eta bilera nagusietako edukirik garrantzitsuenak zabaltzeko argitaratzen zuten dokumentuan. Idatzia prest zegoen irailaren 10erako, Batzordeak egun horretan Bilbon egindako bileran irakurri zuen testua, eta urte horretako *Extractos*-en argitaratu zen, 118-122 orrialdeetan.

Bitartean, Bascongadako beste zenbait kidek —tartean Valentín Forondak— askoz ere uzkurrago jokatu zuten, eta, are gehiago, euskararen sustapenaren aurka erabat agertu ziren²⁸². Hain zuzen ere, Forondak “hizkuntza bakartasuna” aldarrikatzen zuen; hau da, elkarrekiko komunikazioa erraztu eta merkataritza bizkortzeko hizkuntza bakarra erabiltzea proposatzen zuen:

En quanto á la uniformidad de idiomas no aconsejaré á Vmd. que mande no se hable sino uno, pero lo conseguirá, aunque con alguna lentitud, providenciando que se extiendan en la lengua de la Corte todas las escrituras públicas; que no permitan los maestros de escuela a los muchachos que hablen otra, y encargando a las Sociedades económicas que procuren difundirla. Los fanáticos de la antigüedad [...] calificarán mi proposición de blasfema: así será, pero cada uno ve con sus ojos. Yo estimo las cosas en razón de su utilidad y no descubro ninguna importante para la felicidad del género humano en la variedad de lenguas; antes bien [...] me parece que resultan muchísimos perjuicios de la multiplicacion de idiomas; pues siendo su objeto comunicar nuestros pensamientos á los demás hombres, quantas mas sean las lenguas, tanto mas se mul-

tiplicaran las dificultades para entendernos. [...] en lo concerniente a los diferentes idiomas que se usan dentro de un mismo Reyno, y siendo tan ventajoso á las Provincias limítrofes explicarse con una misma lengua para facilitar entre sí la comunicacion, y vigorizar el comercio y la industria, será muy conveniente que ponga Vmd. todos los medios que pueden favorecer su verificación²⁸³.

Adiskideen Elkarteko beste kide batzuk, hala nola Felix Maria de Samaniego, Jose Agustin Ibañez Renteria, Manuel Mariano Agirre Landazuri, Villafuertesko kondea (Manuel Francisco Ceballos Guerra) edo Pedro Jacinto Alaba, Foronda bezain gogorak izatera iritsi gabe, ez ziren inoiz nabarmendu euskara eta euskararen sustapena aldezteagatik²⁸⁴.

Hizkuntzaren arloan Adiskideen Elkartek izandako irizpideei dagokienez, 1766ko *Ikasleen Arautegian* (“*Reglamento para los Alumnos*”) jasotzen zen lehenengo euskara eta gaztelania landu beharko liratekeela (“*El estudio de las Lenguas es el mas propio para la juventud [...] Deberán empezar por el de las Nacionales, como son el Bascuence, y el Castellano*”) eta ondoren, latinarekin, frantsesarekin, ingelesarekin edo italierarekin jarraitu²⁸⁵. 1770ean, Adiskideen Elkarteko, Politika, Hezkuntza eta Letra Ederren 4. Batzordeak (“*4ª Comisión de Política, Buenas Letras y Educación*”) bere helburuak ezarri zituen: “*en lo correspondiente á la Economia Política, buen gobierno, è ilustración de las tres Provincias Bascongadas*” eta 4. artikuluan honakoa jaso zuen:

...la Comision de Politica y Buenas Letras, hà de dedicarse â la Historia y Geographia Nacional; y â la Lengua y poesia Bascongada, haciendo exquisitas averiguaciones para juntar Documentos y modelos escogidos, y reconociendo antigüedades y autoridades autenticas, con el fin de formar, las colecciones mas completas que pueda de estos diversos asuntos; bien entendido, que deberá proceder en esto con la critica e imparcialidad que requiere la materia²⁸⁶.

Argi dago 4. Batzordeak Euskal Herriko Hizkuntza eta Poesia aztertu behar zuela, baina ez komunikaziorako eta kultura-lantzeko tresna bizi gisa, baizik eta “monumentu” gisa tratatuz, artxibatu eta museoan gorde beharreko ondare-elementu bezala. Gainera, azken paragrafoan, elkarteari gaiak sortzen zion kezkaren berri ematen digu, izan ere, Batzordea jakitun zen zuhurtziaz aztertu beharreko gai delikatu bat jorratzen ari zela. Hala ere, 6. puntuan, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartek, Lehen Hezkuntzaren benetako helburuen berri ematen zuen, hau da, baliabide gutxien zuten baina talentudunak ziren ikasleei (“*muchachos mas sobresalientes y desvalidos*”), etorkizuneko lanbideak lortzen laguntzea:

6º. Siendo tan conocida la buena disposicion que muestran los Bascongados para el escritorio, assi en las Secretarias, como en el Comercio: y tan felices consecuencias que de esta disposicion ha experimentado el Pais con la fortuna que muchos de sus hijos han hecho por estas carreras, uno de los objetos que deben ocupar al celo de las Comisiones de Politica, y Buenas Letras, es el de fomentar quanto sea posible las Escuelas de primeras Letras, y el facilitar salida â los muchachos mas sobresalientes y desvalidos. Para esto procurará surtir las principales Escuelas de su Nacion, de Muestras, ô materias de las mejores letras, ô caracteres, è introducir en ellas el uso

de la Gramatica, y ortographia de la Lengua Castellana, dispuestas por la R.^l Academia Española: estimulando la aplicacion de los muchachos, y el zelo de los Maestros con distribuir premios en cada escuela para los primeros, y en cada Nacion para los segundos, segun los fondos que la tocasen en la distribucion de Caudales y en fin se interesará en proporcionar salida, y acomodo a aquellos Jovenes, que mas premios hubiesen llevado, y manifestasen mejores prendas buscando en su favor la proteccion de los Yndividuos, que tubiese la Sociedad en la Corte, el Comercio de Cadiz la America, etc. y solicitando de la piedad del Rey el permiso necesario p.^a el embarco de los que se destinasen á Yndias²⁸⁷.

Bistan da Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak ahalik eta etekinik handiena atera nahi ziela, gutxienez, hiru mende lehenagotik, hain errentagarriak izan ziren aukera-eremuei: Austriatarren eta Borboien administrazioan euskal herritarrek bete zituzten idazkari-, kontulari-, eta denetariko funtzionario-postuei. Horretarako, jakina, ezinbestekoa zen gaztelaniaz ahalik eta ondoen jakitea; euskarak, aldiz, ez zuen ia ekarpenik egiten, are gehiago traba ere bihurtzen zen Inperioko hizkuntzan ahalik eta zuzenen mintzatze-ko orduan. Hori dela eta, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak, bereziki, eta euskal gizarteak, oro har, ahalegin handia egiten zuen haurrek (mutilek) eskolan gaztelania ikas zezaten, eta, horretarako, euskara debekatu eta eraztunaren metodo lotsagarria erabili behar bazen, bada, euskara debekatu eta eraztuna erabiltzen zen. Aurrerago aztertuko dugu Adiskideen Elkarteak, “*Amigo Alabes*” delakorekin eta Santa Marinako apaiz On Rafael Garitano-Aldaetarekin, Euskal Herriko eskoletako komunikazio hizkuntzari buruz izan zuen eztabaida. Adiskideen Elkartearen jarrera hobeto ulertuko da transkribatu berri dugun testuaren argitan. Gainerakoan, gazteak Espainiako funtzionario-sarean kokatzeko 4. Batzordeak zuen egitasmoa bikain antolatutakoa zen: kaligrafia, gramatika eta ortografia sustatzearekin batera, sari-sistemaren bidez, bokazioak bultzatzen ziren, eta, mutil nabarmenenei Adiskideen Elkarteko bazkideen babesa eta bultzada eskaintzen zitzaien Inperioko puntu erabakigarrietan kokatzeko, Adiskideen Elkarteak presentzia garrantzitsua baitzuen leku horietan: Gortean, Cádizen eta Amerikan.

1773tik aurrera, ordea, ezagunak zaizkigun eta hizkuntzak ikasteari buruzko aipamenen bat dakarten Elkartearen araudietan ez da euskarari buruzko inolako aipamenik ageri: dirudienez euskara ez da jada, 1766an bezala, “hizkuntza nazionaltzat” hartzen. Argi dago euskara ez zela agertzen Mintegian irakasten ziren ikasgaien artean eta are pentsaezinagoa zen ikasgaiak eurak euskaraz ematea. Laburbilduz, “adiskideak” lehen hezkuntza gaztelania hutsean egitearen aldekoak ziren. Mintegian ikusmolde hori bera erabili zuten, eta euskara erabiltzea debekatu ez bazuten ere, guztiz lanketa urria eta puntuala izan zuen, jarraian ikusiko dugun bezala.

Hain zuzen ere, ezagunak dira Errege Mintegian, ikasleek euskaraz edo euskarari buruz egindako zenbait esku-hartze²⁸⁸. Horrela, Xabier Ma^a Egia ikasleak euskarari buruzko azterketa bat egin zuen eta 1771ko irailaren 19an, Gasteizen, “*sobre los principios gramaticales y anatomía de las lenguas Castellana, Latina, Francesa, Inglesa y Bascongada*” testua aurkeztu zuen. Baina, batez ere, Mintegiko ikasle batzuek egindako harenga batzuk gorde dira. Harengok azterketen aurkezpenak edo sarrerak izaten ziren, eta normalean gaztelaniaz edo latinez egiten ziren, baina ikasleek hizkuntza aukeratzeko askatasuna zuten, batzuek euskara aukeratu ohi zuten. Hala gertatu zen 1767an Markinan egindako Batzar Nagusian: “*en*

cinco funciones publicas se examinaron siete alumnos sobre [...], precediendo a cada examen una oración que pronunciaban ya en Bascuence, ya en castellano, ya en latín”²⁸⁹. Hauek dira kontserbatu diren harengak:

“*Arenga de D. Antonio M^a de Munibe*”. Bertsozko konposizioa da, honela hasten dena:

Neguaeren erraian bascal ondo baten
Atarian nintzela eguzquia hartcen
Campoari beguira nintzen arrituric
Nola ain guichiren barru zen dana aldaturic

“*Arenga en diferentes idiomas para el alumno Munibe*” (Ez da garbi geratzen zein den, Antonio M^a edo Ramon M^a). Bertsozko konposizioa honela hasten da:

Urte oroco zorra pagatzera
Nator ni ere gaur zuen artera
Beldurrez, lotzaz, larriz zucusturic,
ta icaraturic

“*Arenga de D. Xabier de Eguia*”. Prosazko testua aurkezpen hutsa da eta honela hasten da:

Jaunac
Guztioc, edo beinzat gueienoc, usteco dezute, nere lagunac, chinchiliazca
darabildan pichi orrec, nacarrela ona...

“*Arenga al Conde Baños por los Alumnos. Expresiones gratulatorias a los Excmos. Sres. Condes de Baños sobre su venida al País Bascongado hechas en Castellano, Latin, Frances y Bascuence por los alumnos de la R.S.B. de los Amigos del País*”. 1772. Xabier M^a Egiak idatzi zuen, Narrosko markesaren semeak. Baina harenga ez zen irakurri, Bañosko Kondeei zuzendutakoa zelako eta haiek ez zirelako Bergarara etorri. Honela hasten da:

Jaunac
Euscara aditzen ez badezuteere, Euscaldun eguiac dituzue zuen viotzac ez
gureen itzcuntza enzuteco bada izanic gauza jaquiña Euscaldunac mintzatzen
dirala viotzez mingañez baño gueiago, itzcuntza onetan alcar adituco degu.

Hala eta guztiz ere, euskararen ikasketa sustatzeko diskurtso eta adierazpen gehienak erakundearen hasierako garaietakoak dira; eta, nolanahi ere, badirudi euskaraz egindako diskurtsoak bertan behera geratu zirela Euskalerriaren Eskola Patriotikoaren proiektua, Errege Mintegi Patriotiko bihurtu zenean, 1777ko otsailean, hau da, errege-patronatua indarrean sartu zenean. Ematen du Adiskideen Elkartek, bere helburuei dagokienez, bidesari bat ordaindu behar izan zuela, eta monarkiaren irakaskuntza- eta hizkuntza-estrategietara egokitu beharra izan zuela. Gainerakoan, Peñafiorida eta Narros Elkarteko bazkide euskaltzaleenen semeek baino ez zuten euskara erabili euren diskurtsoren batean; guztira, ez dirudi hiru edo lau ikasle baino gehiago izan zirenik euskara erabili zutenak euren harengetan.

Adiskideen Elkartek euskal eskoletan sustatutako pedagogiaren helburua Estatua (espainiarra), Nazioa (espainiarra) eta Hizkuntza (espainiarra) bateratzea zen, eta hori ezinbesteko baldintza zen Euskal Herriko ateak berrikuntzarantz eta modernitaterantz irekitzeko. Suposatzen zen, halaber, ezjakintasunaren, analfabetismoaren eta sineskeriaren aurkako borrokan eskolak leku nabarmena izan behar zuela, eta munstro horiek garaitzeko ezinbesteko tresna gaztelania zela.

Gainerakoan, Adiskideen Elkartea bat zetorren garaiko espainiar intelektualen artean zabaltzen ari zen ideia batekin, hau da, bi hizkuntzei, gaztelaniari eta euskarari, estatus desberdina ematearekin. Gaztelaniari eraginkortasun sinboliko, politiko eta historiko osoa aitortzen zitzaion bitartean, euskara monumentu zahar semiologikoki pobretutzat hartzen zen, funtsean ikuspegi museistiko soil batekin kontserbatu beharreko objektu bitxi gisa —ondare historikoaren pieza bat delako—. (“*preservando la curiosidad*”)²⁹⁰. Bereizketa horrekin, sortzen ari zen Espainiako estatu-nazioaren hizkuntza- (eta politika-) homogeneousunari begira euskarak suposa zezakeen mehatxua indargabetzen zen. Horregatik, Adiskideen Elkartearen baitan, ez zen kontraesanik ikusten euskal eskoletan euskarazko irakaskuntza ukatzearen eta, aldi berean, hizkuntza horretako ahalik eta hitz gehien bilduko zituen hiztegi handi baten proiektua bultzatzearen artean²⁹¹.

Zentzu horretan, Elkartek Campomanesen ideia bat bere gain hartu zuen: euskara-gaztelania hiztegi bat idaztea, Larramendiren hiztegia²⁹² zabaldu eta osatuko zuena. Badirudi hiztegi handi horretarako erreferentzia-eredua *Diccionario de Autoridades de la Real Academia Española*²⁹³ izan zela. Proiektua 1773ko *Extractos* argitalpenean agertu zen. Jose Maria Aizpitarteri enkargatu zitzaion lana, baina ez zen inoiz argitaratu. *Euskara ta Gaztelaniazko Iztegia*. *Diccionario basco-castellano* izenburua duen obra 1785 inguruan prestatu zen eta Loiolako Santutegiko liburutegian dago gordeta. Aizpitartek, Elgoibartarra izan arren (Elgoibar, c. 1751-Gasteiz, 1809), Gasteizen eman zuen bere bizitzaren zatirik handiena, Montehermosoko markesaren etxezain lanetan²⁹⁴. Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko bazkidea zen²⁹⁵. Argitaratu ez bazen ere, hiztegia nahiko ezaguna izan zen, ondorengo lexikografoek ere erabili zutelako.

Hala ere, agiritan jasota dago Adiskideen Elkartek euskaraz idatzitako ahalik eta liburu gehien bereganatzeko zuen interesa, hain zuzen ere Aizpitarteri enkargatu zion euskara-gaztelania hiztegia egiten laguntzeko. Euskaraz idatzitako liburu horiek ez ziren erraz lortzen eta komentuetako liburutegietan baino ez ziren aurkitzen. Horrela, Bergarako Jesusen Lagundiaren Ikastetxean zeuden ale gutxi batzuk eurenganatu zituzten, baina Loiolan aita Larramendik bildutako liburu eta eskuizkribuen funts garrantzitsua eskuratu nahi izan zutenean, sarrera ukatu zitzaaien eta ezin izan zuten ezer lortu. Arazoa zen Gaztelako Kontseiluak Agindu bat eman zuela Lagundiaren funtsak eskuratzea debekatzeko, eta Loiolako Komisionatuak hitzez hitz aplikatu zuela. Ondorioz, ez dirudi Adiskideen Elkartek bildu ahal izan zuen euskal liburuen bilduma oso oparoa izan zenik. Seguraski, askoz hobeia izango zen Santa Marinako apaiz On Rafael Garitano-Aldaetak bere liburutegi partikularrean zeukana.

Gauzak horrela, ez dirudi Errege Mintegia Bergaran ezartzeak euskarazko irakaskuntzari inolako bultzada eraginkorrik ekarri zionik, ezta hizkuntzari buruzko ikerketei ere, eta ezta berau lantzeko ezinbestekoak diren tresnak (adibidez, gramatika eta hiztegia) lantzeari ere; izan ere, Aizpitartek bere gain hartu zuen proiektu lexikologikoa neurri handi batean zapuztuta geratu zen, ezin izan zelako argitaratu.

Aitzitik, Mintegiak, eta Adiskideen Elkartek oro har, lagundu zuten gaztelaniaz alfabetatzen, hizkuntza hori zientifikoki lantzen, prestigiatzen eta hedatzen; izan ere, ikasle eta irakasle gehienek ez zuten egokitzen jotzen euskaraz mintzatzea (hizkuntza “arrunta” baitzen), eta bai, ordea, kultutzat jotako beste edozein hizkuntzatan: latinez, frantsesez edo gaztelaniaz. Mintegiko ikasle eta irakasleen presentziak, Bergarako euskal hiztunen “baserritar-konplexua” finkatzen lagundu zuen, eta euskal hiztunok baztertzen eta gutxitzen.

Soledadea eta Mariaren Lagundia.

Soledadeko Ikastetxeak eta 1799tik aurrera hura ordezkatu zuen Mariaren Lagundiaren ikastetxeak Bergarako emakumeen analfabetismoa nabarmen murriztea ekarri zuten. Baina ikusi dugu, halaber, hasiera-hasieratik eskolak gaztelaniaz bakarrik ematen zirela, eta, beraz, hizkuntza hori emakumeen artean ere hedatzen lagundu zuen. Ondorioz, XVIII. mendearen erdialdera arte arau orokorra izan zena, emakumeen euskal elebakartasuna, murrizten joan zen.

III.6 - Euskal elebakarrei dokumentazio ofiziala “aditzera emateko” (itzultzeko) beharra

III.6.1. Euskal elebakarrek, eurek, dokumentazioa euskarara itzul diezaieten egindako eskariei buruz

Dokumentazio ofizialaren edukia mundu guztiak ulertzeko interesa ez zen soilik agintariena; askotan, klase herrikoietako euskal hiztun elebakarrak izaten ziren euskarara itzultzeko eskatzen zutenak. Eskaera hori, bereziki, XVII. eta XVIII. mendeetan zehar Euskal Herrian izan ziren matxinada askotako aldarrikapenetan errepikatu zen. Bergaran, dimentsio handiena eta ondorio garrantzitsuenak izan zituen mugimendu iraultzailea 1718ko matxinada izan zen. Bada, mugimendu hori hasi zenean, nekazari, jabe eta errentari talde batek, gehi Bergarako “Hiribilduko” kide batzuek, —ziurrenik, analfabetoak eta euskaldun elebakarrak—, txostena zuzendu zioten Udalari 1718ko urriaren 15ean, eta besteak beste honakoa zioten:

Todos los nequezaris dueños de las Caserías y ynquilinos y del querpo de la Villa [...] consintieron la aduana en notable perjuizio de nuestros fueros [...]

Asi bien aunque no es creyble somos notiziosos q alguno o algunos se an dejado dezir que ningún nequezari aya de entrar en la elezion de los ofizios onorificos ni ser eletto por lo que nos allamos con la ofensa que V. S. puede considerar [...] por cuias razones pedimos a V. S. de la razon de esto y de todo lo q llebamos pedido de cada capitulo separadamente las probidencias p.^a las satisfaziones que llebamos pedidas y q el ess.^{no} del Ayuntamiento de a entender a toda la Comunidad en lengua bulgar lo

contenido en este memorial y comprendido se tome el medio mas suabe p.^a nuestra conserbazion y quietud de esta Villa[...]²⁹⁶.

Ematen du hemen “nekezari” hitzak “langile” esanahia gehiago duela “laborari” esanahia baino. Nolanahi ere, dokumentuaren egileak ez zuen antza “ekoizle” kontzeptuari egokitzen zitzaion gaztelaniazko hitzik aurkitu, eta euskal hitza erabili zuen testu osoan zehar. Gainerakoan, argi geratzen da, herritarren eskaria: Udaleko eskribauak itzul dezala euskarara txostenean jasotakoa eta jakinaraz diezaiotela “Komunitate osoari”. Ez dakit udalak eskari hori bete zuen ala ez, baina kasu honetan zalantza handiak ditut hala egin zuenik.

Aldiz, bai itzuli ziren matxinadaren ondorengo errepresioaren testuinguruan sortu ziren dokumentuak. Kontua da matxinadan zehar kalte ugari eragin zirela Hiribilduan, eta eztabaida ugari sortu zirela kalte horiek nork ordaindu behar zituen zehazterakoan, alegia, matxinadan zuzenean parte hartu zutenek bakarrik ordaindu behar ote zituzten ala udalek eta Probintziak ere lagundu behar ote zuten. Bergaran auzi hori oso eztabaidatua izan zen eta haserre handia piztu zuen. Diputazioak bere erabakiak hartu zituen Bergarako, Arrasateko eta Aretxabaletako Hiribilduetan matxinoek eragindako kalteak konpentsatzearen inguruan (“*para la satisfaz.^{on} de los daños causados en las V.^{as} de Vergara Mondragon y Arichavaleta por los sediziosos y tumultuantes del año pasado de 1718*”) eta erabaki horiek betearazteko asmoz, Bergarara bertaratu zen Korregidorea bera, Manuel de Junco y Cisneros jauna, 1725eko azaroaren 14ko Errege Agindu batekin, eta bertan berresten zen Probintziak gai horren inguruan hartutako erabakia. Korregidoreak udalbatzako bost kide kartzelan sartu behar izan zituen agindutakoa betetzera behartzeko. Orain interesatzen zaiguna zera da, Batzordeko Epailea, Joseph Irure, alkateak deitutako Udalbatzar Orokorrera joan zela, Errege Aginduaren berri euskaraz ematera: “*notifico a la Villa la Zedula R.^l hauiendola leydo y explicado despues en vascuenze*”. Hemen bai, arduratu ziren mundu guztiak Errege zedularen edukia eza-gutu zezan, eta horretarako ezinbestekoa zen zedula itzultzea eta jendaurrean irakurtzea²⁹⁷.

III.6.2. Publikaten afera

Euskal gizarteko eta, noski, Bergarako herritar gehienak euskal elebakarrak zirenez eta arauak gaztelaniaz idatzi eta argitaratzen zirenez, moduren bat behar zen herritar guztiek arauon edukiaren berri izatea bermatzeko eta inork ezjakintasuna ez alegatzeko, eta horretarako biderik ohikoenak “publikatak” ziren. Parrokoak arduratzen ziren arauok pulpitutik euskaraz aditzera emateaz, zehazki igandeetako herri-mezan, eskaintzaren unean. Suposatzen zen herritar guztiak bertaratuko zirela, eta, agindu, lege, dekretu eta abarren edukia euskaraz entzunda, dokumentuotan adierazitakoaz behar bezain egoki jabetuko zirela. Publikatetan bi motatakoak zeuden: eliz dokumentazioa jakinaraztekoak eta dokumentazio sekularra jakinaraztekoak. Jakina, parrokoek leialtasunez eta inolako erresistentziarik jarri gabe betetzen zuten dokumentazio erlijiosoa (bulak, aginduak eta beste zeinahi arau) aditzera emateko agindua, bai gotzaitegietako agintari gorenak bidalitakoak zirenean eta bai Erromatik zuzenean jasotakoak zirenean. Eliz publikata horien artean, interes berezia dute parrokoek beren izendapenaren autoa eliztarrei jakinarazteko egiten zituztenek; izan ere, horiek denboran zehar jarrai daitezke, eta azkenekoz noiz egin ziren jakinda, jakin dezakegu populazio hori noiz igaro zen gehienbat “euskal elebakarra” izatetik neurri handi batean elebiduna izatera. Gero eta arazo gehiago sortu zituztenak publikata sekularrak izan ziren, hau da, Koroaren, Probintziaren edo tokian tokiko udalen xedapenen berri ematekoak. Hori dela eta, gehienbat

publikata sekularrak aipatuko ditugu, horien gaineko dokumentazioa aberatsagoa eta interesgarriagoa baita, elizgizonek publikatoki egiteari jarritako oztopoen eraginez.

Publikatetan arauak euskaratzeari buruz ari direnean, hizkuntza hori identifikatzeko hainbat kalifikatzaile erabiltzen dira: “*lengua bascuence, bascongada, materna, natural, común, la que se usa, popular, vulgar, inteligible*” eta abar. Normalena da “*lengua bulgar vascongada*” modura adieraztea, eta hemen gaztelaniazko *bulgar* terminoak ez du zakarra esan nahi, baizik eta herrikoa, hau da, jende xehearena. Antonio Manrike Balentzia, Iruñeko apezpikuak 1575eko abenduaren 9ko mezu baten bitartez, agindu zuen publikaten antzinako praktika zahar hori bete zedila, hori betetzeko erresistentzia kasu batzuk gertatzen ari ziren seinale.



Predikatzaila

Zalantzarik gabe publikaten helburu nagusia arauak eta xedapenak euskal elebakarrei itzultzea zen, haien berri izan zezaten. Esate baterako, 1775ean, Oiartzungo haraneko kontzejua honela zuzentzen zitzaion bertako parrokoari:

Señor vicario: los Señores del gobierno de este Valle suplican a vuestra merced se sirba dar a entender al auditorio al tiempo del ofertorio de la misa Popular, que después de ella pondrán en Remate y Almoneda Publica la leña de los despojos de los Arboles que se han cortado en los parajes denominados...²⁹⁸

Parrokoen komunikazioak ahozkoak izaten ziren, eta, kasu askotan, laburpen soilak; horregatik, oso itzulpen-testu gutxi gordetzen dira. Gordetzen direnak, normalean, argitaratzen zen gaia bereziki garrantzitsua zenekoak dira. Bergarako kasuan, badugu garai hartan berebiziko garrantzia zuen gai batekin lotutako testu bat: hiletei buruzkoa. 1780ko hamarkadan auzi sonatu bat piztu zen Probintziaren eta Gipuzkoako elizgizonen artean; labur esanda, botere sekularrak hiletek eragindako gastuak mugatu nahi zituen, neurririk gabekoak zirelako eta hildakoen familiak zorpetzen zituztelako. Elizgizonek, aldiz, gastu horiek mantentzea edo handitzea nahi zuten, hori baitzen euren finantzabide pribilegiatueta bat. Nolabaiteko adostasuna lortu zen, baina gerora zenbait zalantza sortu ziren, zehazki, hitzarmenean jasotako hamaika artikuluren inguruan. Artikuluotan, besteak beste, honakoak debekatzea planteatzen zen: bederatziurrenak; urte-mezak; apaizak eta hildakoaren senide eta lagunak ondra bazkarietara joatea; pulpitutik mezen berri ematea, hileta-gonbitetako jokoak... Gaztelako Kontseilu Gorenak ebazpen bat eman zuen hamaika zalantza horiek argitzeko, eta ebazpena 1783ko apirilaren 27an iritsi zen Bergarara.

Kontzeju Irekia bildu zen, eta gaiak bai ekonomiaren eta bai erlijioaren aldetik berebiziko garrantzia zuenez, ahalegin berezia egin zen xedapenaren berri herritar guztiek jasoko zutela bermatzeko, eta, horretarako, jakina, ohiko publikatak baliatu zituzten. Parrokoak publikata zibilen aurrean uzkur agertze-ko arrazoietak bat (berezi Rafael Garitano-Aldaetak alegatu izan zuena) itzulpenen konplexutasuna eta horretarako zuten denbora urria izaten zenez, kasu honetan erabaki zen, salbuespen modura, San Pedroko eta Santa Marinako maixuei testua itzulita bidaltzea, herri-mezan horren berri eman zezaten. Udaleko idazkaria, Lorenzo Elizpuru, arduratu zen testua euskarara itzultzeaz “*a la lengua Bascongada para de este modo fuesen todos savedores del contenido de la Resolución del Supremo Consejo, y nadie alegue ignorancia por falta de expresar a cada uno en la lengua que comprendia*”²⁹⁹. Lehen zalantzaren itzulpena honakoa izan zen:

Lenengo dudia dá, ya sei Abadetan, ceintzuec aguintzen dan bacarric juanditiala entierroa, eta onrrtara Difuntuaren interesatubac izentaturic, aitzen diran bacarric oyec, edo baita aydeac daramazten capellaubac Errespuestan declaratzenda: Inolacomoduz asistitu ezdecela sei Abade baiño geiago, lenengo Ordena Realac esaten dabén moduban baicic³⁰⁰.

Bada beste kasu interesgarri bat, 1766ko matxinadaren testuinguruan gertatutakoa, argi azaltzen diguna nola moldatzen zen udala herritarrei gai garrantzitsuak jakinarazi nahi zizkienean eta apaizek publikatak egiteari uko egiten ziotenean. Bergaran, matxinada hasi zenean —gogora dezagun zereal garestitzeak eragin zuela—, Udaltzar Orokorrek berehala erabaki zituen gehieneko prezioak: gariarena 26 erreal eta artoarena 16³⁰¹. Baina “ordena” berrezarri eta goiko klaseei sustoa pasa zitzaienean, Udalak

Inmediatamente yo el Excmo. seguí con la lectura de las once dudas y sus Declaraciones insertas en la Real Provision precedente traducidas por mí a la Lengua Bascongada para que a este modo fuesen todos savedores del contenido de la Resolución del sup.^{mo} Consejo y nadie alegare ignorancia por falta de expresar a cada uno en la lengua que comprendia, y es en la forma sig.^{te} //

Traducción de las once dudas al Lenengo dudia dá, ya sei Abadetan, ceintzuec aguintzen dan bacarric juanditiala entierroa, eta onrrtara Difuntuaren interesatubac izentaturic, aitzen diran bacarric oyec, edo baita aydeac daramazten Capellaubac. Errespuestan declaratzenda = Inolacomoduz asistitu ezdecela sei Abade baiño geiago, lenengo Ordena Realac esaten dabén moduban baicic //

Duda 1.a. diran bacarric oyec, edo baita aydeac daramazten Capellaubac. Errespuestan Inolacomoduz asistitu ezdecela sei Abade baiño geiago, lenengo Ordena Realac esaten dabén moduban baicic //

Duda 2.a. diran dudia dá, ya baldin Parroquian arguitzen badira sei Abade baiño que baxen parteac nombratzendian sei Abadiac bacarric juanditiala, eta oyei bacarric pagatubiarraitela beren derechuec, eta ez bere Abadexi //

Duda 3.a. diran dudia dá, ya izango diran contatutziat, esandaco sei Abadetan arazo beren devocio, edo adisquidatunaz, inor ote egingabe, etorri naizutenac Ofi...

Lorenzo Elizpuru idazkariaren Errege Aginduen itzulpena, 1783ko apirilaren 27ko Udaltzar Orokorrean


atzera egin zuen eta agindu zuen prezio merke horietan saldu zuten jabeei 12 errealeko kalteordaina ematea. Izan ere “bidezko prezioa” udaberrian zegoena omen zen (38 erreal gariarentzat eta 28 artoarentzat) eta 12 errealeko beherapena matxinadak behartua izan ei zen. Neurri horren berri herritar guztiek jakitea oso garrantzitsua zenez, eta Garitano-Aldaetak publikatak egiteari uko egiten jarraitzen zuenez, berehala iritziz aldatuko ez zuen beldurrez, erabaki zen eskribauak ediktuen kopiak egitea eta leku publikoetan jartzea, herritar guztiak jakinean egon zitezen:

Que para que esta justa providencia llegue à noticia de todos y nadie pretenda ignorancia, se expidan publicatas para las tres Iglesias Parroquiales de esta referida Villa y à mas abundamiento, y para en el caso de que todos o alguno de los Señores Curas se escuse à su publicación se figen los Correspondientes Edictos en los parages, que a mi el Escribano [Pedro de Ascargorta Arana] me parecieren mas conducentes³⁰².

Ez dakigu Askargortak bandoak zein hizkuntzatan idatzi zituen, baina litekeena da gazteleraz soilik idatzi izana. Hori eta garai hartan zegoen analfabetismo maila handia kontuan hartuta, pentsatzekoa da paperok kalean jartzea alferreko lana izango zela.

1768an Errege Agindu bat eman zen Garitano Aldaetari eta apezpikutzako gainerako erretoreei publikata sekularrak egiten jarraitzeko agintzen ziena, eta Agindu horren testuinguruan ikus liteke zein zen garai hartan Gipuzkoan zegoen egoera.

Que esta Provincia se compone de mas de cien pueblos entre maiores y menores; que solo tres, que son San Sebastián, y villa de Tolosa y Azpeitia mantienen sus respectivos pregoneros asalariados para la publicacion de bandos, pregones y cumplimiento de otras obligaciones anexas al oficio. Que en todos los demas pueblos, por costumbre antigua publican las ordenes reales y demas providencias comprehensivas al publico los curas parrocos o sus tenientes del pulpito al tiempo del ofertorio e la misa maior y que no continuarse asi, y escusarse a ello los curas, quedara la maior parte de los moradores sin noticia de las Reales Ordenes y Providencias Gubernativas que combinesen y correspondiesen publicarlas para su puntual observancia en los pueblos donde no hubiese pregonero, y solo podran ser noticiosos los vecinos matriculados que concurriesen



haviendo procedido publicar en las Igle. de San Pedro y Santa Marina, y en la de San Andres de Elosuko, y estando avisados juntos y congregados reg. lo tienen de costumbre, desp. de haver dado gr. al. Alc. de la dest. q. se hizo en un mes, y en un mes, del mes de setiembre, como thenor es como sigue:

San Pedron, Santa Marinan eta Elosuko San Andres elizan Udaltzar Orokorren deialdirako publikatak egin izanaren aipamena



Fededunei zuzentzen

a los ayuntamientos (...) por lo que me parece conveniente el mandato de Vuestra Magestad para que Don Rafael de Garitano (...) ni otro alguno se escuse a la publicación de las Reales Ordenes de Vuestra Magestad...³⁰³

Hemen gai honen inguruko gako nagusietako bat azaltzen da: ea herriak bazuen xedapenak bi hizkuntzetan zabaltzeko ardura zuen udal-pregoi-laririk. Tradizionalki, Donostiak, Tolosak eta Azpeitiak bakarrik izan zuten pregoilaria. Gainerako Udalek apaizengana jo behar izaten zuten aginduen edukia herritarren artean zabaltzeko eta ulertarazteko. Nolanahi ere, hori, Bergarako kasuan, zehaztu egin beharko litzateke. Aurrerago ikusiko den bezala, XVI. mendetik aurrera pregoilariak izan ziren Bergaran, eta dokumentuetan jasota dago 1755ean pregoilari publikoa zegoela eta Bernardo de Villa deitzen zela³⁰⁴. Nonbait, esperientzia ez zen oso ona izan edo garestiegia zen; kontua da pregoilari hark kargua utzi zuenean Udalak ez zuela postua

berriz bete eta berriro ere apaizen publikaten sistema tradizionalera jo behar izan zela. Horrek neurri batean azaltzen du Bergarako apaizak zergatik agertzen ziren etengabe itzulpen horiek egitearen kontra eta zergatik argudiatzen zuten behin eta berriro lan hori pregoilariak egin beharko zuketela.

Publikaten sistema hori Bergaran XVI. mendearen erdialdetik gutxienez aplikatu zen, eta XVIII. mendearen erdialdetik aurrera, gero eta parroko gehiago hasi ziren ordainsari murritzeko “pregoilari” lan hori betetzeari uko egiten. Azkeneko publikatak Bergaran XIX. mendea ondo aurreratuta zegoela izan ziren. Nik aurkitu dudana publikaten lehen albistea, berriz, 1589ko azaroaren 19ko igandekoa da, Santa Marinako eta Antzuolako Pietateko Andre Mariaren elizetan bertako parrokoek emana — orduan Bergarako jurisdikziopekoa zen Antzuola—, udalak emandako gobernu oneko kapitulatu batzuei zegokiena. Antzuolako apaizak ondoren ziurtagiri bat egin zuen kapitulatu horietan jasotakoa irakurri zuela ziurtatzeko “*y en basquence declare alta e inteligibili voce al tiempo del ofertorio y plegaria estando los parrochianos de ella a oyr la misa combentual*”³⁰⁵. Beranduago, 1630ean, beste aipamen interesgarri bat dago, xedapen orokor garrantzitsu batzuk elizan argitaratzeko betebeharrari buruz; eta, urte berean, Gipuzkoako korrejidoreak, Enrike Salinas jaunak, zirkular bat bidali zuen Donostiatik, atzeritarrei estortsioa egitea debekatzen zuen Errege mezu bat argitara zedin. Hitzez hitz, honela zioen:

...el ynclusso despacho q se pregone y publique en la yglessia y goardara en todo el horden contenido sin permitir estorssion a los forasteros que es lo que mas quiere

su mag.^d [...] y de haberlo executado me dara aviso sin dilación para que yo la de de como se cumple la voluntad de su mag.^{d306}.

Hau da, publikata egitea eskatzen zen, eta egin bezain laster agindua bete zela jakinaraztea. Urte batzuk geroago, udalei herri bakoitzean bizi ziren frantsesen erregistroa egiteko eskatu zitzaien, eta, ondorioz, alkateak Santa Marinako eta San Pedroko apaizei eskatu zien aginduaren publikata egin zezatela: “*y porque a noticia de todos benga encargo a los Señores Curas lo publiquen en las yglesias de mi jurisdiccion*”. Eskaera bete ondoren, bi apaizek bidali zuten egin izanaren testigantza³⁰⁷.

Udalek hainbat xedapenen testuak —udal mailakoak, errege aginduak, Probintziakoak edo beste erakunde batzuenak— parroketara bidaltzea erabakitzen zuten, kasuan kasuko publikata egin zedin. Horren adibide da 1748ko abuztuaren 9an hartutako erabakia, honela dioena:

Que se despachen publicatas. Este dia acordaron asi mismo que se despachen publicatas para dhas Yglesias deesta villa para el recobro del trigo que esta repartido de la Arca de misericordia de los últimos repartim.^{tos} del año próximo pasado y que estas baian arregladas al ultimo Auto de visita de treze de Junio de este año³⁰⁸.

Apaizei publikatak egiteko eskaera, eskribauak idatzitako eta alkateak sinatutako ohar ofizial baten bidez egiten zitzaien; horrekin batera, jakina, itzuli eta aditzera eman beharreko testuak ere bidaltzen zitzaizkien. Hona, adibidez, 1707ko ohar hau:

Dⁿ Manuel Joseph de Ondarza y Galarza Alcalde y Juez hordin.^o de esta V^a de Verg.^a y su jurisdiz.^{on} por su Mag.^d = Por lo que combiene a su R^l Servicio en nombre de su R^l Mag.^d cuia Just.^a en su nombre administro exorto al S.^r Cura de la Yg.^a Parroquial de Sⁿ P.^o de esta V.^a o su lugarteniente y de la mia le pido y suplico se sirva de leer oy al t^{po} del ofertorio de la Misa Combentual lo contenido en el despacho de esta [?] y de las tres ojas antezedentes, Y dar su thenor a entender en lengoa bulgar bascongada a los Feligreses para su Yntelig.^a Y de zertificaz.^{on} de ello: fho en Vergara a prim.^o de Henero de mil setecientos y siete años³⁰⁹.

Publikatak eguneroko gai arruntenak jakinarazteko ere erabiltzen ziren: sastraka-erretzeak, fruituen prezioak finkatzea, garo-mozteak eta abar. Esate baterako, 1699an sagarraren prezioa finkatu zen eta, herritar guztiek edukiaz jabetu zitezen, zegozkion publikatak jaulki ziren:

Y dieron al costal [sagarrena] de guardar veinte R.^s, y al de majar diez y ocho y para que llegue a noticia de todos se despachen Publicatas para las Yglesias Parroquiales de esta villa en la forma acostumbrada³¹⁰.

1703koa dugu beste kasu hau. Urte horretan, Bergarako zenbait gazte ezkongabek ihes egin zuten, eratzen ari zen erregimentu batean soldadu gisa sartzeko arriskuaren aurrean. Hori dela eta, honako agindua eman zen, beste inor gauza bera egitera ausartu ez zedin, eta ihes egin zutenen gurasoek seme-alabak itzularazteko konpromisoa har zezaten:

Para el primer dia Domingo que viene se despachen Publicatas para las Yglesias Parroquiales deesta villa, para que los dos naturales solteros que se han ausentado hagan bolver a sus casas su Padres y Ynteresados³¹¹.

Baina era berean, publikatak ezinbestekoak ziren interes orokorreko gaiak aditzera emateko, horietan bermatu behar baitzen mezua herritar guztiei helaraztea. Hala, publikatak egiten ziren, adibidez, Udalbatzar Orokorrerako deia egiteko edo aparteko gertaeren aurrean ahalik eta jende gehiena elkartu nahi izaten zen kasuetarako, adibidez, errogatibetarako deia egiteko. Adibidez, 1760an lehorten handi bat izan zen, eta “Euria eskatzeko” errogatibak egitea erabaki zen, Soledadeko ermitatik San Pedroko elizaraino, ohi bezala. Familia bakoitzeko gutxienez bi pertsona bertaratu behar zirela ebatzi zen, eta hala egin ezean, isuna jarriko zitzaizela. Bada, xedapen horien berri herritar guztiek izan zezaten, bi parroketan zegozkien publikatak egitea agindu zen³¹².

Parrokoek publikatak egiteko agindua bete izanaren testigantza uzten zuten, normalean, hainbat arrazoiengatik, esaterako, hitzartutakoa kobratzeko frogagiria izateko, edo agintariekin gerora gatazkarik sortuz gero, agindua bete zela frogatu ahal izateko. Horregatik kasu garrantzitsuenetan behintzat, ohikoa zen publikatak bete izanaren akta egitea. Hona hemen adibide eredugarri bat. 1763ko urtarrilean, Gipuzkoako Korrejidorearen bitartez, Bergarara iritsi zen Merkataritza Batzordearen aurreko abenduko Agindu bat, zilarrezko txanpona atzerrira ateratzea zigortzen zuena. Bada, San Pedroko erretore On Agustin Basterrikak agindu horren ale bat bidali zuen udaletxera, berak eskuz idatzitako ohar hau erantsiz:

Certifico yo el cura de S.ⁿ Pedro de esta villa de Vergara q. la carta de suso he publicado al ofertorio de la Misa ma.^r de oy dia de la fecha para sus efectos al pueblo, dando a entender el lengua Bascongada. Firme en esta dha villa a treinta de enero de mil setecientos setenta y tres³¹³.

Era berean, publikata bete izanaren beste ziurtagiri asko ere aurki daitezke, hala nola On Agustin Egiarak, Santa Marinako koadjutoreak, 1709ko urriaren seian egindakoa³¹⁴.

Modu berean, apaizek pulpitutik egiten zuten itzulpenaren bidez, zenbait gai publiko garrantzitsuren ezagutza orokorra bermatzen zen. Esate baterako, 1757an, Bergaran, San Martin Agirreraren omenezko Nobleen Kofradia sortu zen, 1740an santuaren erlikia Bergarara iritsi ondoren. Kofradiaren Araudia onartu zen, eta jendeari jakinarazi zitzaizela ziurtatzeko, Elosuko, Santa Marinako eta San Pedroko apaizei, araudiak zituen hogeita lau artikulua euskaraz irakurri izanaren ziurtagiria eskatu zitzaien, “*para su mas perfecta inteligencia*”³¹⁵.

Agintari sekularrak saiatzen ziren, erretoreek egindako itzulpenaren bidez, herritar guztiek uler zezaten argitaratzen zituzten araudietan jasotakoa; bada, modu berean, apezpikuak ere gauza bera bermatu nahi izaten zuten parroketara bidaltzen zituzten eliz aginduei dagokienez. Eta, batez ere, bazen kontu bat, bereziki delikatuak, gotzaintzat oso garrantzitsua zena: bisita-aginduetan esaten zena denek ulertzea. Jakina denez, gutxienez XV. mendetik aurrera, apezpikuek —edo haien ordezkariak— aldian-aldian bisitatzen zituzten beren elizbarrutiko parrokiak, elizen ordena eta garbitasuna, apaizen eta fededunen

Certifico Yo D.^o Agustín del Guaiara Cura Coadjutor y Beneficiado de la Yglesia parroquial de Santa Marina de Oizondo aver leydo y publicado oy día de la fha en lengua Vulgar bascongada al tiempo del ofertorio de la missa conventual lo contenido en este despacho, y para que conste, donde convenga, di la presente firmada de mi nombre. Vergara y octubre seis de mil setecientos y nueve años.

D.^o Agustín del Guaiara

Publikata bat egin izanaren ziurtagiria, 1709

jokabide morala, liturgiaren betetzea eta abar zaintzeko. Bisitaren ondoren, antzemandako akatsei eta horiek konpontzeko neurriei buruzko dokumentu xehatu samar bat egiten zuten. Oharririk gehienak elizgizonen eta fededunen jokabide moral txarrari buruzkoak zirenez, erretoreek ez zuten interes berezirik izaten apezpikuen errietak herritar guztiek jakiteko moduan zabaltzeko. Horregatik, batzuetan, “ahaztu” egiten zitzaien agindua pulpitutik irakurtzea —nahitaezkoa bazen ere—, edo, besterik gabe, gaztelaniaz irakurtzen zuten, baina ez zuten euskarara itzultzen; ondorioz, biztanle gehienek ez zuten dokumentuaren edukia berri izaten. Gotzainek, horren jakitun, beti amaitzen zuten bisitaren idatzia, parrokoek berariaz emandako aginduarekin: bisitaren ondorengo lehen jaiegunean, agindua irakurri eta euskaraz —hau da, euskarara itzulita— argitaratu zezatela, eta gainera, hala egin izanaren ziurtagiria egin zezatela.

Ikus dezagun zer gertatu zen Antzuolako Uzarragako San Juan parrokian. 1819an, Calahorrako gotzainak ohiko bisita egin zuen, eta bisitako autoa honako aginduarekin amaitu zuen: “*que el Cura de dha Yglesia, publicara en ella el primer día festivo al tiempo del Ofertorio de la Misa conventual, certificando a continuación*”. Eta apaizak halaxe egin zuen: On Miguel Urrutiak, apezpikuaren bisita-autoa euskaraz aditzera eman izanaren ziurtagiria idatzi zuen ondoren³¹⁶. 1828an, apezpiku-bisita egin zuten berriro, eta autoak bere publikata egiteko eskatzen zuen. Baina oraingoan apaizak ez zuen ziurtagiria egin, ziur aski ez zuelako testua pulpitutik itzultzeko agindua bete³¹⁷. Bada, 1853an apezpikuak, Cipriano Juárez Berzosa doktoreak, ikuskapena egin zuenean egiaztatu zuen 1828ko publikata-ziurtagiria ez zela bete, eta, beraz, apaizari gogorarazi zion derrigorrezkoa zela autoa irakurtzea eta publikata egitea, eta mehatxu

Este día se acordó que yo el d.^o despa che publicaras para las Yglesias Parroquiales de esta. Y para que todos los d.^{os} Mozos se presenten a la Sala de las Ceras del Concejo de esta. a las nueve horas de la mañana.

Gipuzkoako soldaduen konpainia bat osatu behar zuten mutilen zozketarako publikata, 1747ko uztailaren 12a

egin zion berriz ere ziurtagiria egin gabe uzten bazuen, 4 dukateko isuna ezarriko ziola. Jakina, oraingoan, apaizak, On Santiago Laskurainek, gotzain bisitaren autoa euskaraz aditzera eman izanaren (“*dado a entender en lengua vernácula*”) ziurtagiria egin zuen³¹⁸. Adierazgarria iruditzen zaigu euskara —ohiko formulazioan *hizkuntza arrunt* (“*lengua vulgar*”) gisa agertzen zena—, kasu honetan, XIX. mendearen erdialdean, *bertako hizkuntza* (“*lengua vernácula*”) gisa agertzea.

Nolanahi ere, XVIII. mendean Gipuzkoa osoan izan zen erresistentzia-mugimendu bat, apaizek hizkuntza-bitartekaritza lan hori egiten jarraitzearen aurka. Apaizak kexu agertzen ziren, izan ere, haien iritziz, lan hori pregoilariei zegokien, eta ez eurei. Arazoa zen Gipuzkoan, Donostia, Tolosa eta Azpeitia bezalako herri nagusiak kenduta, gainerakoetan ez zegoela pregoilaririk. Gainera, iruditzen zitzaien, halako maila apaleko lana eginez, euren apaiz aginpidea eta duintasuna gutxiesten zela. Egiaz, jorratzen zituzten gai askok izaera oso prosaikoa zuten: sastrakak erretzea, arrantzarako arauak, gaueko errondak debekatzea, olio-hornidura errentan ematea, haritzak saltzea, gaztainaren salmenta enkantean egitea eta abar. Gainera, lan horrengatik jasotako diru kopurua oso murrizta zen edo beraiei behintzat halaxe iruditzen zitzaien. Bergarako San Pedro parrokiako erretore On Agustin Bazterrika jaunak 1749an adierazi zuenez, udaletik 30-40 publikata bidaltzen zizkioten urtero, eta lan horrengatik guztiagatik 12 erreal ordaintzen zioten. Kopuru hori nahiko ohikoa zen Gipuzkoan; adibidez, Zumaian, XVIII. mendearen erdialdean, kopuru bera (12 erreal) ordaintzen zen publikatak egiteagatik. 1770ean apaizek kopuru hori handitzea eskatu zuten eta 1777an udalak ordainsaria bikoiztea erabaki zuen, hau da, 24 erreal ordaintzea³¹⁹. Beranduago 1818an urtero 100 erreal ordaintzen zitzaion Oiartzungo³²⁰ parrokoari publikatak egiteagatik.

Hala ere, kontrako jarrerak ugari izan ziren XVIII. mendean eta baita XIX. mendearen hasieran ere. Esate baterako, 1710ean gatazka sortu zen Hondarribiko Santa Maria parrokian publikaten kontura, eta, 1806an Segurako Jasokundeko Amaren parrokiak publikatak egiteari ezezkoa eman zion. Baina Bergaran izan ziren, hain zuzen ere, publikatak egiteko eragozpenik handienak eta horren ondorioz, etengabe izan ziren gatazkak. 1628an, Santa Marinako erretore On Andres Ozaetak uko egin zion publikatak egiteari —ordura arte, “antzina-antzinatik” egiten omen zen bezala—, eta Udalak apaiza auzitara eramatea erabaki zuen:

Este dia, el dho señor Alcalde, propuso y dijo q. el domingo proximo passado, conforme a la costumbre q de inmem.¹ tiempo a esta parte se tiene en esta Muy Noble y leal Prov.^a de Guip.^a su mr.^d. ymbio a los Curas de las yglesias parrochiales desta vi.^a y su juridicion ciertos Mandamientos para q los publicasen en sus pulpitos. Y q el licenciado Andres Lopez de Oçaeta Cura de Santa Marina de Oxirondo queriendose escusar dello deyo de publicar el que le tocaba sin haver havido alguna caussa para ello = Y lo mismo oi dicho dia le havia ymbiado dho Mandamiento al dho Cura para q en la misma forma lo publicase = y tambien se a querido escusar de hazer llo. Por sus fines particulares y por q lo suso dho seria en notable daño y Agrabio desta dha Villa y sus parrochiales pues yntenta alterar una costumbre tan antigua e ynportante por el ynconviniente q resulta es neces^o poner rem^o en ello y aviendose conferido sobre ello se decreto q se de poder en forma a Ger.^{mo} p.^z de Arrese procurador Sindico del dho q^o

[Concejo] y al dho Regidor Joan P^z de Madariaga ynsolidum conforme de costumbre para q en raçon dello en qualesquier tribunales eclesiasticos y seglares q combenga pidan e demanden al dho Cura de oxirondo continue como hasta oy en la lectura y Pu.^{on} de semejantes y otros Mandam.^{os} como se a acostumbrado siempre...³²¹

1749an, San Pedroko apaizak, Agustín Bazterrikak³²², uko egin zion urtero kobratzen zituen 12 errearen truke publikatak egiten jarraitzeari. Dirudienez, Santa Marinako apaizak, Andres Elosuak, ez zuen ezezkorik ematen eta bete egiten zuen agindutakoa. Udalak kontsulta egin zion Diputazioari argitzeko San Pedroko apaiza publikatak egitera behartu zezakeen, “betidaniko ohiturari” jarraituz³²³. Egia esan, Bazterrikak bederatzi urtez eutsi zion bereari, itzulpenik egin gabe, eta hortik arazo ugari sortu izan ziren, herritar askok ez zutelako udal-xedapenen berri jasotzen. 1749an bertan, Rocaverde markesa alkate zela, egoera jasanezina bihurtu zen, hainbat herritarrek kexa agertu baitzuten sagardoa hondatu zitzaielako, Udalak gaiari buruz emandako xedapen bat ulertu ez zutelako. Udalak bere jokabidea aurpegiratu zion apaizari eta ohikoa zen bezala publikatak egiten jarraitzera behartu zuen:

y estando asi juntos y congregados segun lo tiene de costumbre dho Señor Alcalde [Rocaverdeko markesa] propuso la quexa que tenían varios vezinos que no tubieron noticia del ultimo sorteo de sidras, por lo qual quedaron las suias fuera de suerte, y en conocido peligro de perderse. Y respecto a que esta ignorancia a nacido de haverse escusado a los Señores del ultimo Ayuntam.^{to} el Cura de Sⁿ Pedro a leer la publica que suele preceder a iguales sorteos, le parecia necesario no solo procurar el remedio del perxuicio de estos Vezinos, sino aun evitar iguales excusas del dho Cura, en cuya vista, acordó el Ayuntam.^{to} que yo el Essc.^o pase a casa del referido Cura y en nombre de esta Villa le de parte de la mala obra que a echo su resistencia, y de la sentencia que a instancia desta Villa se dio contra los Curas obligandolos a leer todas las publicatas del buen gobierno, haciendole presente tambien la costumbre inconcusa de ejecutarlo asi [...].

Bazterrikak erantzun zuen prest zegoela itzulpenak eta publikatak egiten jarraitzeko, baina ez ohiko 12 errearen truke, baizik eta ordainsari handiago batekin, agerian utziz zein zen apaizek publikatak egiteari uko egitearen arrazoietako bat: zeregin horretan jarraitzeko, ohiko hamabi errealak baino ordainsari handiagoa nahi zuten.

Rocaverdeko markesak eta bere Udalak erantzun zioten ez zeudela prest ordainsarian aldaketak egiteko eta Calahorrako Gotzainaren agindua bidali zioten, non esaten baitzen ohiturari eusteko, hau da, gai zibilen komunikazioak pulpitutik egiten jarraitzeko, betiere elizaren immunitatearen aurkakoak ez baziren. Apaizak publikatak egiteko asmoari eutsi zion, baina egindako lanaren arabera soldata eskatzen jarraitu zuen. Alkateak, orduan, artxiboan bilarazi zituen lehenago Udalak apaizen aurka auzitegietan irabazitako epai zaharrak, San Pedrokoaren aurkako beste auzi bati ekiteko, oraingoan Probintziara joz. Udalak kexa bidali zion Calahorrako gotzainari eta hark ez zuen jarrera garbirik azaldu. Hasieran publikatak irakurtzeko agindu zuen aurreko xedapenetan oinarrituta, baina azkenean apaizaren alde egin zuen eta Udalar jakinarazi zion ezin zuela apaiza behartu publikatak egitera:

A ocho de enero de mil setecientos y quarenta y nueve, por testimonio de mí el Essc.^o [...] y estando así Juntos, yo el Essc.^o di parte a este Ayuntam.^{to} de que haviendo pasado al Cura de Sⁿ Pedro el recado que expresa el ayuntamiento precedente, me respondió que se le señalasen las publicatas que hauia de leer, y lo que se le hauia de pagar por ellas; y teniendo presente el Ayuntam.^{to} que jamas se a pagado sino doze reales de V^o por todas las publicatas de buen gobierno de todo el año, aia muchas o aia pocas, estando sugetos los Curas a publicar todas las que se ofreciesen, menos aquellas que son sobre causas criminales o rozan con la inmunidad; y que así mismo es imposible prefixar quantas ni quales pueden ofrecerse al gobierno de la republica, y servicio de su Mag^d, acordó que yo el Essc.^o buelba a pasar a casa de dho Cura y le pregunte si publicara todas las publicatas conduzentes al buen gobierno de la republica como lo hace el Cura de S.^{ta} Marina, en la forma que previene el despacho del tenor siguiente.

Despacho

Dⁿ Alonso de Mena y Borja, por la gracia de Dios, y de la Santa Sede Apostolica, obispo de Calahorra y la Calzada, del Consexo de su Mag^d. Por quanto por parte de la Mui Noble y Mui Leal Prov^a de Guipuzcoa, se nos ha suplicado le concedamos nuestro Despacho para que los Curas o sus thenientes delas Yglesias delas Villas y Lugares deella, comprehendidos en este nuestro obispado, por si o segunda persona lean y publiquen qualesquiera mandam.^{tos} y memorias que por el S.^r Correg.^{or} o Alcaldes deella les fueren dados para que llegue a noticia de las personas que se hallaren en dhas Yglesias, como no sean contra su inmunidad, y escusar con lo referido algunos incombenientes y gastos que pueden seguir. Y mediante dha suplica y atendiendo de ella, dimos las presentes por cuió tenor mandamos a dhos Curas y sus thenientes delas Villa y Lugares deste nuestro obispado comprehendidos en la dicha Provincia de Guipuzcoa, publiquen, o hagan publicar en sus Yglesias los mandatos deel dho S.^r Corregidor y de los Alcaldes de dha Provincia, como no sean contra la inmunidad eclesiastica y siendo cosas concernientes al buen gobierno y que necesariamente combenga se sepan por todos exepto proclamas contra delinquentes, posturas y demas que contrabengan a la dha inmunidad, y lo cumplan así en virtud de Santa Obediencia, pena de excomunion maior, y con apercibimiento q. procederemos a lo que de derecho aia lugar. Dada esta en la Ciudad de Calahorra a dos de Julio de mil setecientos y diez. = Alonso Obispo de Calahorra y La Calzada. Por mandato del Obispo mi señor Dⁿ Jseh Escalona y Barrio. Conformo este traslado con el despacho original del señor Obispode Calahorra= Don Phelipe de Aguirre.


Y en caso de resistir yo el Essc.^o de testimonio para que esta Noble Villa recurra a esta Noble y Mui Leal Prov^a de Guipuzcoa su madre, a fin de que en su vista tome las resoluciones y providencias combenientes. Y auiendo esperado formado el Ayuntam.^{to} a que yo el Essc.^o bolbiese echa mi diligencia di parte de que haviendo leído dho S.^r Cura el despacho suso inserto en el rexirtro mismo que le corresponde me respondió

hara las publicatas que despacharen las Justicias seglares deesta Villa, aprobandolas en primer lugar el Señor Obispo de este Obispado, mandando dho S.^r Illm.^o publicarlas biendolas primero su Señoría Illm.^a y señalando sus derechos por cada una separadam.^{te} segun su calidad y estension de manera de que al maior trabaxo se le señale mas recompensa o estipendio. Y en su vista acordo el Ayuntamiento que los S.^{res} Sindico y Murua Rexidor se dediquen a reconocer si en el Archivo de esta N. Villa se encuentra la sentencia ganada contra los curas en asumpto de las publicatas y que de la resulta que tubiere esta diligencia den quenta a la Villa para tomar la resolucion que combenga³²⁴.

Publikatak egitearen kontrako apaizen erresistentziaren txapelduna Rafael de Garitano-Aldaeta izan zen, Santa Marina parrokian bere kargua hartu zuenetik uko egin baitzion komunikaziook egiteari³²⁵. 1764an Udalak erresistentzia horren berri izan zuenean, sistemaren funtzionamendua ondo baino hobeto adierazten duen akordio bat hartu zuen:

...el dho señor Alcalde dio parte al aiuntamiento de que D.ⁿ Rafael de Garitano Aldaeta Cura de la Yglesia parroquial de santa marina de Oxirondo de esta dha villa se ha escusado y resistido à leer y dar a entender a su feligresía por el parage y tiempo acostumbrados las publicatas expedidas por esta Noble Villa: Y el Aiuntam.^{to} teniendo presente que no hay ni à havido otro medio para comunicar a su vecindario las resoluciones que toma acordó que en su razón se escriba a la Diputacion de esta Provincia de Guipuzcoa, y que de quantas Publicatas se ofrezcan y se expidiesen se baia embiando las correspondientes al referido Cura, para que sus feligreses no tengan que decir cosa alguna contra la villa ni que alegar ignorancia por omision de los capitulares de ella.

Hau da, eliztarrei irakurri eta ulertarazi egiten zitzaien ebazpena (*“leer y dar a entender a su feligresía”*) edo, beste era batera esanda, gazteleraz irakurtzen zen eta ondoren euskarara itzultzen zen *“ohiko tokian eta unean”* (*“por el parage y tiempo acostumbrados”*), alegia, elizan herri-mezako eskaintzaren orduan, hala, eliztarrek ez zezaten gero udalaren aurkako ezer esan, ezta ezjakintasuna aitzakia gisa erabili ere (*“para que sus feligreses no tengan que decir cosa alguna contra la villa ni que alegar ignorancia”*), eta gaineratzen



On Rafael Garitano-Aldaetaren sinadura eta errubrika

zuten ez zegoela beste bitartekorik herritarrei ebazpenak jakinarazteko (“*que no hay ni à havido otro medio para comunicar a su vecindario las resoluciones*”)³²⁶.

Alkateak kexa bidali zion Probintziari, eta hark Gaztelako Kontseilura jo zuen, zeinak 1768ko urriaren 4an Errege Agindu bat eman zuen, publikatak ez egiteko aitzakiak jartzea debekatuz. Ematen du Gipuzkoako Diputazioak Gaztelako Kontseilura jo zuela bide juridiko erlijiosoak agortuta zeudelako eta ez zuelako esperantzarik gotzainek apaizak behartuko zituztenik publikatak egitera. Monarkiak esku hartu zuen, 1768ko urriaren 4ko Errege Aginduak xedatzen zuen Erregearen, Errege Auzitegien eta Gaztelako Kontseiluaren aginduen publikatak bete behar zirela, pregoilaria zegoen herrietan izan ezik, Gipuzkoako kasuan, Donostia Tolosa eta Azpeitia. Aldiz, udal-xedapenen inguruan ez zen ezer adierazten. Berez, Errege Agindu hori zetorren, Garitano-Aldaetak Bergaran publikatak egiteari etengabe uko egin ziolako. Hiribilduko alkateak Gaztelako Kontseilura jo zuen, eta horren ondorioz eman zuen hark aipatutako agindua.

Baina Errege Agindua ez zen nahikoa izan Garitano-Aldaeta menderatzeko eta publikatak egiteari uko eginen jarraitu zuen. 1771n eta 1774an, Joaquin Jose Landazuri Romarate arabar historialari ospetsuak eskuratu zuen Bergarako alkatetza. Badirudi batetik, Garitanorekin lehia pertsonala zuela eta, bestetik ez zegoela prest elizgizonen agintari sekularren eskaerei muzin egitea onartzeko. Kontua da aurrez beste agintaldi batzuetan lotan egondako publikatzen auzia iratzarri zuela. Gaineratu behar da ez zela hori izan Garitano eta Landazuriren arteko desadostasun bakarra; aitzitik, beste hainbat auzi ere piztu ziren, bi agintaritzen —erlijiosoaren eta zibilaren— nagusitasuna jokoan zegoen gaiekin lotuta.

Bi pertsonaien arteko polemikaren testuinguruan, Garitanok bere korrespondentzian arazoaren bi alderdi nagusi agerrarazten ditu: batetik, argi uzten du gaia funtsean krematistikoa zela, hau da, apaizek ordainsari handiagoa nahi zutela; bestetik, bere lanaren tamainaren berri ematen digu, ironiaz adieraziz urtean “20-30 publikata edo gehiago” egin behar izaten zituela, Hiribilduaren hamabi errealeko “ordainsari handiaren truke”. Badirudi Garitanok 1767an hiru pezetako kontraeskaintza egin zuela lan horren-gatik eta 1771n gauza bera errepikatu zuela. Azkenean, Landazurik 24 errealeko esleipen bikoitza eskaini zion. Gainera, Garitanori ez zitzaion gustatzen, apaizek itzuli beharreko argitalpenen izaera profanoa ere, era honetakoak omen zirenak: “*que tal día se remata el abasto de vino clarete y Navarro: o tantas cargas de carbon o el abasto de baca y carnero o del tocino, vallena y aceite que tal día acudan al Concejo los que tubieren sidras para sacar su turno o el de su venta: que la Justicia ha regulado en tanto el costal de manzana: que en tal día se remata el juego de bolos...*”.

1771ko apirilaren 9an Alkateak honako udal akordioa bultzatu zuen:

El Señor Alcalde informó de las pretensiones que introduce el Cura de Santa Marina D.ⁿ Raphael de Garitano Aldaeta en dos Cartas que ha exhibido y se dirigen, a que por la menor de las publicatas se ha de contribuir con doce reales de vellon, y por las demas, a proporcion del trabajo de leer y traducir y respecto a que por costumbre inmemorial no se ha pagado a ninguno de los Curas sino doce reales por las publicatas de cada año, se acordó que se le hiciese presente lo primero esta costumbre, lo

segundo que las Reales Cédulas se deben publicar de balde, como disposiciones del Soberano a quien todo vasallo debe servir: lo tercero, que, para dar una prueba de que la Villa desea mantener las mejor armonia con sus Parrocos, desde luego les pagara a cada uno veinte y quatro reales vellon annualmente por todas las publicatas, que se ofrezcan: y en caso de que no quiera combenir dho D.ⁿ Raphael en este combenio la Villa combendra en representarlo al Supremo Consejo de Castilla de comun acuerdo: y recivida la determinacion de aquella superioridad [apurtuta] una regla invariable para en adelante. Hasta aqui el acuerdo³²⁷.

Ez zen akordiorik lortu, eta 1774an, Landazurik berriro alkate kargua hartu zuenean, ostera piztu zen eztabaida³²⁸.

XVIII. mendeko azken hamarkadako eta XIX. mendeko lehen hiru hamarkadetako urte gatazkatsuetan, gai sekularren publikatak pulpitu bidez egitearen auzia politizatu egin zen eta, ondorioz, askoz ere ohikoagoak izan ziren gai horren inguruko tirabirak eta gatazkak³²⁹. Izan ere, XIX. mendearen hasieratik bertatik, agintari laikoak saiatu ziren kleroak pulpitutik egiten zituen esku-hartze politikoak saihesten eta sermoiak erlijio-arlori mugatzen. Horrela, 1801ean, martxoaren 20ko errege-agindu batek debekatu egin zien parrokoiei euren predikuetan “iritzi-gaiak”, hau da, gai politikoak, lantzea. Urte berean, Iruñeko gotzainak dekretu bat argitaratu zuen, bere elizbarrutiko elizgizonak agindu hori betetzera behartzen zituena. 1815ean, Gipuzkoako zenbait apaizek, Segurakoak eta Azpeitikoak bereziki, berriz ere uko egin zioten udal arauak irakurri eta itzultzeari. 1815eko apirilaren 1ean, Gipuzkoako Probintziak —1768ko Errege Aginduan oinarrituta—, apaiz gipuzkoarrei agindu zien, betidanik egin izan zen bezala, xedapen zibilak pulpitutik ezagutarazten jarraitzeko. 1815eko irailaren 5ean, Gaztelako Kontseiluak argitu zuen 1768ko xedapenaren ondorioz apaizak behartuta zeudela goi aginduei (“*órdenes superiores*”) buruzko publikatak egitera, baina udal-xedapenei buruz ez zela ezer esaten: “...y cuando considera la necesidad de que los Curas enteren a sus habitantes en idioma bascuence por no comprender el castellano, habla de las órdenes superiores para que ni haya motivo de contravenirlas ni de incurrir en las penas establecidas por las Leyes”³³⁰.

1816ko urtarrilaren 12an Bergarako alkateak gutun bat bidali zion Calahorrako gotzainari, kexatuz bere jurisdikzioko bi parrokoetako batek (San Pedrokoak, On Juan Goenagak) uko egin ziola udalak, urtero legez, atera zituen gobernu oneko autoen publikata egiteari (“*autos de buen gobierno*”). Alkateak prelatuari eskatzen zion parrokoa behartu zezala udal-arauen itzulpena egin eta pulpitutik aditzera ematera, ordura arte egin izan zen bezala. Apezpikuak ez zuen erantzun³³¹. Udalak Probintziara jo zuen eta hark, 1816ko apirilaren 1ean, Gaztelako Kontseilura, hari eskatzeko jar zedila apezpikuarekin harremanetan eta eska ziezaiola behartu zitzala apaizak publikatak egitera, 1768ko urriaren 4ko arauan eta errege aginduak pulpitutik azaltzeko “betiko ohituran” oinarrituta (“*explicar desde el pulpito en lengua Bascongada las Reales Órdenes...*”). Kontzesio gisa eta akordioa errazteko, planteatu zuen publikatak eskaintza orduan egin beharrean meza-amaieran egiteko aukera, hala, meza ez eteteko. Dirudienez Calahorrako gotzainak amore eman zuen eta 1816ko otsailaren 27an agindu zuen 1768ko Agindua aitzakiarik gabe (“sin excusa ni pretextos”) bete zedila³³².

Hirurteko Konstituzionalaren garaia iritsi eta 1820ko Konstituzioa aldarrikatu zenean, publikaten auziak arazo politiko berri bat ekarri zuen. Erretore gehienek, guztiz antiliberalak izanik, uko egin zioten

aipatutako konstituzioaren zabalkundea egiteari eta horrek alkate konstituzionalen atsekabea sorrarazi zuen. Mutrikuko alkateak arrazoi horregatik aurkeztu zuen kexak badu elementu soziolinguistiko interesgarri bat, nabarmentzea merezi duena. Izan ere, alkateak honako kexa jarri zuen Gipuzkoako buruzagi politikoaren aurrean:

y aunque por mi parte hice cuanto pude para que se hiciese público la citada Real orden nunca podrá ser con aquella generalidad que correspondía, a causa de no haber en esta villa Pregonero y no poder darse a entender a la gente casera ni caminera como se podía haber hecho del Pulpito en Misa mayor a la que concurre la mayor parte del Pueblo³³³.

Hau da, alde batetik, baieztatzen digu *itzuli* esateko erabiltzen den terminoa “*dar a entender*” dela eta, bestetik, —eta hau garrantzitsua da— adierazten digu zein gizarte-sektorek behar zuten itzulpena euskal elebakarrak izateagatik: “*gente casera*”, hau da, nekazariak, bereziki errentariak, eta “*gente caminera*”, alegia, mandazainak eta garraiolariek, oro har.


1823an, Gipuzkoako kleroak uko egiten zion publikatak egiten jarraitzeari. Probintziak Erresumako Erregeordetza jo zuen gotzainei eska ziezaien euren menpeko parrokoiei agindu ziezaietela 1820a baino lehenagoko egoerara itzultzeko gai honetan. 1824ko otsailaren 9an Errege Agindu bat eman zen zentzu horretan, baina Gipuzkoako kleroak alegazio bat aurkeztu zuen Gaztelako Kontseiluaren aurrean, eta uko egin zion xedatutakoa betetzeari. Severo Adrianik Iruñeko gotzain kargua hartu zuenean, 1832ko bisitan, erabat debekatu zien parrokoiei publikatak egiten jarraitzea³³⁴. Hasiera batean, eta teorikoki, publikatak bertan behera gelditu ziren ordutik aurrera, baina, hala ere, dokumentatuta dago Gipuzkoako hainbat herritan XIX. mendearen amaierara arte jarraitu zutela publikatak egiten. Bergaran, hain zuzen ere, aipaturiko mendea oso aurreratuta zegoen arte segitu zuten. Jose Artetxek, berriz, XX. mendeko kasu bat azaltzen digu. Berak dioenez, Azpeitian, XX. mendearen hasieran baztangaren aurkako txertoa jaso behar zuten herritarren sektore zabal batzuek ez zuten nahi izaten txertoa jartzea; beraz, txertaketa-kanpaina bat egin behar zenean, pulpitutik jakinarazten zen, alde batetik, hizkuntzari dagokionez, mundu guztiak ulertzen zuela bermatzeko, eta bestetik, apaizek zuten eragina baliatuz, txertoari sinesgarritasuna eta prestigioa emateko eta txertagai zirenen aurkako jarrerak saihesteko³³⁵. Ez dakigu zehazki noiz izan ziren txertaketa horiek, baina gogoratu behar da 1896, 1913 edo 1929ko data berantiarretan ere izan zirela nafarrerri-infekzioaren oldarraldiak.

Azpimarratzekoa da Bergara izan zela, *publikata* sekularren bidez, hizkuntza bitartekaritza egitearen aurkako apaizen erresistentziaren gune nagusia Gipuzkoa osoan eta, beharbada, baita Euskal Herri osoan ere. Ez dirudi bakarrik arrazoi ekonomikoengatik izan zenik; izan ere, Gipuzkoako beste herri batzuetan kopuru bera ordaintzen zen eta ez zen hainbesteko arazorik sortu, ezta lan horrek apaiz-duintasuna gutxiensten zuelako ere, gainerako herrietan antzeko gai sekularreko bandoak itzultzen baitziren. Kontua da gutxienez dokumentatuta daudela publikatak egiteari uko egindako kasuak honako urte hauetan: 1628, 1749, 1767, 1771, 1774 eta 1816an. Susmoa dut, Bergarako elizgizonak konbentzituta zeudela Bergarak, bere populazioagatik, merkataritzagatik, kulturagatik eta hiri-jarduerengatik, merezi zuela herri garrantzitsuen —“herri haziak” (“*crecidas*”) esaten zitzairen garai hartan— multzoan sartzea, eta,

beraz, lan horretaz arduratuko zen udal-pregoilari bat izan beharko zukeela. Hori dela eta, euren buruak Tolosa, Donostia, Azpeitia —eta zer esanik ez, Iruñea edo Bilbo— bezalako hiribilduetako parrokoekin alderatzen zituztenean, irainduta sentitzen ziren.

Horri dagokionez, gogora ekarri behar dugu auzi bat, zeinak bide batez aukera ematen baitigu XVIII. mendeko bigarren erdiko Gipuzkoako herrien urbanizazio-mailak alderatzeko. Iruñeko artzapezpikutzako lekukotza-jasotzaile erromantzedunen inguruko auzi luze eta gogorrari buruz ari naiz, jakina denez, Gipuzkoako Probintziaren zati handiena artzapezpikutza horretakoa baitzen, nahiz eta, Bergara, Calahorrakoari zegokion. Labur-labur, esan dezagun Iruñeko apezpikutzako lurraldea herri euskaldunen (*“bascongados”*) eta erromantzedunen (*“romanzados”*) artean banatzen zela. Hau da, alde batetik zeuden biztanle gehienak euskal elebakarrak ziren herriak; eta bestetik, biztanle gehienak erdal elebakarrak zirenak, edo, gutxienez, bi hizkuntzak ulertzeko gai zen biztanle asko zituztenak. Hasiera batean, lekukotza-jasotzaile erromantzedunek gaztelaniaz hitzegiten zen herrietan bakarrik jaso zitzaketen adierazpenak. 1769-1771 urteetarako kalkulatzen da Nafarroan 183 herri erdaldun eta 596 euskaldun zeudela. Gipuzkoa osoa euskal lurraldea zela ulertzen zen. Kontua da, XVII. mendearen erdialdetik aurrera Eliz-Auzitegiko lekukotza-jasotzaile erromantzedunek euskal lurraldeetan ere aritzeko saiakera egin zutela, aitortzak interpretearekin jasotzeko. 1765etik aurrera erasoaldi hori areagotu egin zuten, eta horrek oso auzi latz eta gogorra sortu zuen.

Alegazio-aldiaren unerik beroenean, lekukotza-jasotzaile erromantzedunek argudiatzen zuten onartzen zutela Gipuzkoa “euskal elebakarra” zela baina bazeudela bertan herri hazi batzuk (*“poblaciones crecidas”*), gaztelaniaz zekien biztanle-ko-



Te Deum San Pedron, 1876

puru nabarmena zutenak eta horrek aukera ematen zuela bertan lekukotza-jasotzaile erromantzedunek jarduteko. Haien arabera, honakoak ziren herri “hazi” horiek, hiritartuta eta erdaldunduta zeudenak: Donostia, Tolosa, Hernani, Ordizia, Segura, Azkoitia, Azpeitia, Mutriku eta Deba³³⁶. Debaren eta Mutrikuren “hazitasuna” —zeharo zalantzazkoa— alde batera utzita, Azkoitia, Azpeitia, Segura, Hernani edo Ordiziaren erdalduntasunak gehiago du lekukotza-jasotzaileen asmakizunetik, errealitate linguistikotik baino. Kontua da, Bergara Iruñeko Gotzaindegia menpekoa izan balitz, zalantzarik gabe, herri “hazien” eta nahiko erdaldunduen zerrenda horretan agertuko zatekeela. Horrek aukera emango ziekeen Bergarako elizgizoni Bergarak ere, Donostiak, Tolosak eta Azpeitiak bezala, pregoilaria izan zezala eskatzeko, eta hala eurak publikatak egitetik libratzeko.

Aztergai dugun gairako oso garrantzitsua da jakitea noiz arte jarraitu zuten euskarazko publikatak egiten; izan ere, horrek adierazten digu biztanleriaren zati handi bat euskal elebakartzat jotzen zela eta, ondorioz, itzulpena behar zuela

botere zibilaren xedapenak ulertzeko. Lezon, publikatak gutxienez 1843 arte daude dokumentatuta; Zumaian, 1873 arte; eta Deban, 1875 arte.

Aztergai dugun publikaten auzi gatazkatsua dela eta, komeni da gauza bat argi uztea: eztabaidagai zegoena zen ea itzulpenak nork, noiz eta nola egin behar zituen, eta lanak zein ordainsari izan behar zuen; baina eztabaidan parte hartzen zutenetatik inork —ez alkateek, ez apaizek, ez gotzainek, ez Aldundiak, ez Gaztelako Kontseiluak eta ez beste inor— ez zuen inoiz zalantzan jarri itzulpenok egin beharra, begi-bistakoa zelako euskal herritarren —eta bergararren— zati handi bat euskaldun elebakarra zela. Kasu askotan, itzulpen horiek egitearen “komenigarritasuna” ez ezik, “beharra” ere azpimarratzen da, bide hori jotzen baita herritar guztiei tokiko erakundeen nahiz erakunde orokorren xedapenak aditzera emateko bide bakartzat.

III.6.3. Pregoilariak

Publikaten gaiarekin lotura zuzena du herrian pregoilari publikoa egoteak edo ez egoteak eta hark dokumentazio ofiziala itzultzeko duen gaitasunak. Oso antzinatik agertzen zaigu dokumentazioan Bergarako hiribilduak pregoilari publikoa zuelako berri. Aurkitu ditugun lehen pregoilari-izendapenak XVI. mendearen erdialdekoak dira: lehenengoa, zehazki, 1566koa³³⁷. 1571n Bergaran Errege Agindu bat jaso zen, herritarrak Alpujarrak birpopulatzeko emigratzera animatzen zituena eta hauxe agintzen zuen: “*a voz de Pregonero se publiquen por las plaças y calles publicas de esta dha Villa*”³³⁸. 1579 eta 1601 artean, gutxienez, Juan Ganboa aritu zen pregoilari lanetan eta berak behin eta berriz eskatu zuen soldata igotzea, harik eta 1601ean Udalak, bere pobrezia-egoera ikusita, Mizpildiko intxaurrondoaren fruituarekin ordaintzea erabaki zuen arte³³⁹. 1628an Juan Iraurgi izendatu zuten pregoilari eta 1649³⁴⁰ arte jardun zuen. Urte horretan, apirilaren 11n, alkateak Udalbatzar Orokorrari honako hau jakinarazi zion:

a benido a esta Villa un hombre llamado Fausto Fernandez de Vallejo, natural de Alava, y quiere servir en la dha Villa de atambor³⁴¹ para las ocasiones que se ofrezieren Y juntamente de pregonero y almotacen³⁴² del conçejo y munidor³⁴³ de las cofradías = Y porque como es notorio Joan de Yraurqui que ha servido y sirve los dos ofiçios de pregonero y almotacen y muñidor esta biexo y cansado y le pareçia combeniente, se aga asiento con el dho Fausto Fernandez...³⁴⁴.

Normalean, garai hartan, pregoilari eta almotazen lanak pertsona berak egiten zituen. Kasu honetan, muñidore eta danbor-jole eginkizunak ere erantsi zitzaizkion. Danbor-joleak gerra-kasuetan eta ekitaldi ofizial batzuetan jardun behar izaten zuen. Kontua da arabarra analfabetoa izango zela, ez baitzuen dokumentua sinatu, eta, beraz, ez dirudi gai izango zenik aldarrikatu beharreko dokumentuak irakurtzeko. Ahoz jakinaraziko al zioten horien edukia?

Hala ere, ematen du Juan Iraurgi berriz itzuli zela bere kargura, eta 1654an hil zen arte jardun zuela bertan, eta, hiltzean, lanpostua hutsik geratu zela:

Y en su lugar quiere entrar un hombre forastero que ha venido a esto y dize llamarse Bernardo Rodriguez de Ygal y ser natural de Larraga en el Reyno de Navarra y es moço sano y parece a propósito y saue también tocar la caja de atambor para las ocasiones que se ofreçieren...³⁴⁵

Larragakoak ere, ez zuen idatzia sinatu, eta, hizkuntzari dagokionez, euskalduna izango zen? Ez zuen luze iraun, hurrengo urtean Udalak, pregoilari berria kontratatu baitzuen: Diego Lanz irlandarra, “*de nación yrlandes residente en esta dha Villa* [Bergara]”³⁴⁶. Kontratua lau urterako zen eta irlandarrak ere ez zuen kontratua sinatu, eta ez dirudi euskaraz hitz egiten ere zekienik.



Donostiako azken pregoilaria, Pedro Gorospe, eta danbor-jolea, Luis Castañeda

Urte batzuk geroago, 1656an, hiribildua berriz ere danbor-jolerik eta pregoilaririk gabe aurkitzen zen, baina bertan Pedro Antonio izeneko kadiztar bat bizi zen (ez dakigu *Antonio* hori bere abizena zen ala abizena ezezaguna zen), kargurako egokitzen jo zutena eta kontratatu egin zutena. Ez dakigu dokumentuak irakurtzeko gai zen, baina, ziur aski, ez zen horien euskal bertsioa taxutzeko gai izango, eta beraz, ematen du pregoilariak pregoiak gaztelaniaz egingo zituela³⁴⁷. Ala, izan ote zitekeen beste modu honetara jokatzeko, alegia, eskribaua pregoilariarekin joatea bandoaren edukia euskaraz diktatuz eta pregoilariak, entzundakoa, kantuz errepikatzea?

1702an, “*Diego de Castro que asi dixo llamarse*” kontratatu zen pregoilari lanetarako. Urteko soldata 16 dukat kuarto jarri zitzaion: “*p^a pregonero publico haciendo los pregones, asistiendo en Almonedas q. a esta dha Villa se le ofrecen, llevando Vinos a las tabernas de ella y particulares y todo lo demás que semejantes oficiales han executado en ellas, por el discurso de siete años que empezaran a correr...*”³⁴⁸. Abizenagatik kanpotarra dirudi, eta kasu honetan, alfabetatua zen eta eskritura behar bezala sinatu zuen; beraz, gai zen eskatzen zitzaizkion pregoiak irakurtzeko. Gutxi iraun zuen, hurrengo urtean Agustin Urtesandi kontratatu baitzen 16 dukat kuartoko “ohiko” soldatarekin, eta hark esan zuen ez zekiela sinatzen³⁴⁹. 1710eko azaroan Felipe Saenz kontratatu zuten bi urterako, Bizkaiko Enkarterrietako Karrantza bailarako bizi-laguna; segur aski ez zuen jakingo euskaraz hitz egiten³⁵⁰. 1713an Diego de Castro berriro itzuli zen kargura, eta kontratu berri bat sinatu zuen pregoilari gisa jarduteko³⁵¹. 1731n erabaki zen, hiribilduaren kontura hamabiei eta pregoilariari jantzi berriak egitea eta pregoilariari, gainera, 3 urteko kontratua egitea. Urte horretan bertan, pregoilariak protesta egin zuen, bere eskumenekoak ziren lan batzuk, (ardoa eta olio tabernetara eta partikularrei eramatea), batzuetan beste batzuek egiten zutelako; eta, horregatik, udalak erabaki zuen, bera bakarrik izatea genero horiek Alondegira eramateaz arduratuko zena³⁵².

Lan honetako beste atal batean aipatu bezala, 1755ean Bergaran Bernardo de Villa izeneko pregoilari publikoak pregoiak danbor-kaxaz lagunduta (“*a son de Caja*”) botatzen zituen³⁵³.

Argi dago Bergaran, Euskal Herriko beste hainbat tokitan bezala, kaparetasuna aldarrikatzeko asmorik ez zuten kanpotarrak kontratatzen zirela pregoilari lan horretarako. Kaparetasun kolektiboaren jabe zen gipuzkoar bakar batek ere ez zukeen bere burua ofizio horretan jarriko, eta ezta abere-hiltzaile edo borrero lanetan ere, horiek lanbide “bilautzat” hartzen baitziren eta, beraz, noble izatearekin guztiz bateraezintzat. Harakin lanbidea (“cortadores”) ere, odol-isurketaren tabuarekin lotuta zegoenez, lanbide “bilauen” multzo horretan sartzen zen, eta beraz, harakinak kanpotarren artean aukeratzen ziren. Pregoilariarena lanbide “bilautzat” hartzearen azalpen bakarra izan daiteke audientzietan eurak arduratzen zirela lotsa eragiteko zigorren (pikota-zigorra) edo heriotza-zigorren epaiak jendaurrean ezagutzera emateaz. 1762ko urtarrilaren 12an Udalak herriaren diru-sarrera eta gastuen txostena eman zion Korrejidoreari eta bertan, beste aurrekontu partida batzuen artean, 275 errealeko gastu bat ageri da, pregoilariaren soldata ordaintzekoa³⁵⁴. Beraz, frogatuta geratzen da 1566tik 1762ra, gutxienez, soldatapeko pregoilariak izan zirela Bergaran. Gainera, guztiak kanpotarrak izan ziren eta ia denak analfabetoak.

Kontua da, gorago adierazi dugun moduan, 1749an, San Pedroko apaizak, On Agustin Bazterrikak, publikatak egiteari uko egiteko eta jarrera horri 1758ra arte eusteko erabilitako argudio nagusia izan zela “hain maila baxuko” lana pregoilariari zegokiola. Udalak orduan, estrategia aldatu eta enplegu hori

bertan behera lagatzea erabaki zuen. 1763an lanean ari zen pregoilari publikoa hil zenean ez zuen bere lanpostua berritu. Era horretan, apaizak, batez ere On Rafael Garitano-Aldaeta, argudio hori gabe geratu ziren³⁵⁵. Argi dago Udalak ez zuela horrela jokatzeko pregoilariaren soldata aurrezteko, nahiko murrizta baitzen eta urte askoan mantendu baitzuen, baizik eta apaizak lan horretaz ardura zitezen; zalantzarik gabe itzulpenak hobeto egiteko gai zirelako.

Polemika horren testuinguruan gure galderetako baten erantzuna agertzen zaigu: nola moldatzen ziren pregoilariak, gehienak analfabetoak izanik, pregoia jo behar zutenean dokumentuak ulertu ahal izateko. Agustin Bazterrikak 1749an datu harrigarri samar bat ematen digu: pregoilariak eskribauekin batera joaten ziren, eta haiek esan behar zutena diktatzen zieten, nahiz eta, badirudien, azkenaldian eskribauak lan horri uko egiten hasiak zirela:

Y no concibo razón alguna, para q.^o lo q.^o no puede publicar y dar a entender el Pregonero de la Villa, por no saber leer, y no querer ir junto à el Escrivano, para írselo diciendo, como lo hemos visto, haga el Cura desde el Pulpito, al Ofertorio de la Misa Conventual, quando es constate, q.^o en lugares donde no hay Pregonero en otras partes se dan a entender todas estas cosas, usando del medio de fixar carteles en parajes públicos³⁵⁶.

Dena den, ikuskizun ederra izango zen pregoilaria bandoak deiadarka baten deklamatzen ikustea, eskribauak albotik diktatzen zion bitartean.

Edonola ere, pregoilariak “euskaldunak” ez baziren eta bandoak jatorrizko hizkuntzan, hau da gaztelez, botatzen bazituzten, lana alferrikakoa zen, entzule gehienak euskal elebakarrak baitziren. Egoera hori ez zen Bergaran bakarrik gertatzen; badakigu Euskal Herriko beste hainbat herritan antzeko egoerak bizi zituztela. Adibidez, Irunberrin 1627an izan zen auzi sonatu bat honakoa erabakitzeke: ea beharrezkoa zen apaiz euskalduna izatea, herriko euskal elebakarren ehunekoa kontuan hartuta. Auziaren baitan adierazpen-egile batek, Pedro Artieda jaunak, aitortu zuen, pertsona batzuei entzun ziela euskaraz galdetzen ea pregoilariak zer esaten zuen, gaztelez ez zekitelako (“*ha oido a algunas personas preguntar [euskaraz] qué era lo que decía yregonaba el pregonero, y esto por no saber la lengua castellana*”)³⁵⁷. Irunberriko “nuntzioa” (pregoilaria) Martin de Burdaspar zen, kanpotarra, ia bizi osoan herrian bizitakoa izan arren, euskaraz ez zekiena. Gaztelaniaz ematen zituen bere pregoiak, eta ulertzen ez ziotenek bizilagun elebidunen bati galdetu behar izaten zioten esaten zuena azal ziezaien.

Bestalde, ofizio “bilaua” zenez eta, ondorioz, kanpotarrak kontratatu behar zirenez, ia denak erdaldun hutsak izango ziren, eta, gehienetan analfabetoak ere bazirenez, ez ziren gai izango dokumentuak irakurtzeko eta are gutxiago horiek euskarara itzultzeko. Udalari, beraz, ez zitzaion geratzen *publikaten* tradizioari heltzea eta apaizak pulpitutik itzulpenak egiten jarraitzea beste irtenbiderik.

III.6.4. Eskribauen eta notarioen hizkuntza-bitartekaritza

Lan honen beste atal batean ere landu da eskribauek (eta geroago notarioek) euskaldun elebakarrekin egin behar izan zuten bitartekaritza linguistikoa, hots, nola aritu ziren bitartekari gisa, elebakarrek justiziarekin edo administrazioarekin izan behar zituzten harremanetan. Gogora dezagun dokumentazio guztia gaztelaniaz idatzi behar zela, eta euskal elebakarrek ulertzen ez zutenez, norbaitek haren edukia azaldu behar izaten ziela, hitzez hitz eta oso-osorik itzulita. Historian zehar, eskribauak arduratu ziren lan horretaz³⁵⁸. Tradizioz, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako³⁵⁹ foru-lurraldeek eskribauak izendatzeko eskumena izan zuten eta baldintza garrantzitsu bat jartzen zuten lanpostua lortzeko: euskal herritarra izatea. Horrek eragin linguistiko handia zuen, izan ere, era horretan, foru-instituzioek bermatzen zuten hautagaiak euskaldunak izatea, hau da, gai zirenak euskal elebakarren adierazpenak ulertzeko eta, hala behar izanez gero, gaztelaniaz idatzitako eskriturak haiei azaltzeko. Eskribauak elebidunak izateari esker, adierazpen egile edo eskritura-emaileetako askok euren testigantzak euskaraz eman ahal izan zituzten, nahiz eta ondoren eskribauek dokumentuak hizkuntza ofizial bakarrean idatzi, gaztelaniaz.

Interesatzen zaigu sakonago aztertzea zer tratamendu eman zitzaion hizkuntza-bitartekaritzari euskal lurraldeak Foru-erregimenetik estatu liberal berrira igaro eta estatu horretan txertatu ziren unean. Hau da, ea zein hizkuntza irizpide ezarri zitzaion eskribauen ordezkari notario berriei, fede-emaile publiko gisa: zein hizkuntzatan idatzi behar zituzten eskriturak eta nola jokatu behar zuten hizkuntza “nazionala” (nazional espainiarra) ez zekiten eskritura-emaileen edo lekukoen aurrean³⁶⁰. 1862ko maiatzaren 28ko Notariotzaren Legeak (ukitu batzuekin bada ere, oraindik indarrean jarraitzen duenak) 25. artikuluan, haxe dio: “*Los instrumentos públicos se redactarán en lengua castellana, y se escribirán con letra clara, sin abreviaturas y sin blancos*”³⁶¹. Hau da, ordurarte tradizioz erabilitako irizpidea, dokumentuak gaztelaniaz idaztekoa, mantendu zen, nahiz eta batzuetan eskritura-emaileen adierazpenak beste hizkuntza batean egin, euskara besterik ez zekitelako. Hain testu orokorra izanda, zehaztapen batzuk behar zituen, eta, kasu horietan ohikoa den bezala, zehaztapenok erregelamendu baten bidez egin ziren. Notariotzaren Erregelamendua 1863ko urtarrilaren 1ean³⁶² onartu zen, eta 7. eta 71. artikuluetan, guretzat esanguratsuak diren zenbait gai jaso ziren: eremu euskaldunean aritu behar zuten notarioek euskaraz jakiteko derrigortasuna, eskrituran gaztelaniaz aparteko hizkuntzetako hitzak edo esaldiak txertatzeko modua, erdaraz ez zekiten eskritura-emaileen aurrean notarioak izan beharreko jokabidea eta abar. Eta zehazki honakoa jasotzen zen gai horien inguruan:



Notarioa, Quentin Massysen egin, 1510

Artículo 7. Los aspirantes a Notarías en distritos donde vulgarmente se hablen dialectos particulares, acreditarán que los entienden bastante.

Artículo 71. Las escrituras matrices se redactarán con arreglo al artículo 25 de la Ley, usando un estilo claro, puro, preciso, sin frase o término alguno oscuro ni susceptible de ambigüedad.

Cuando se hubiese de insertar documento, párrafo, frase o palabra de otro idioma, o dialecto, se extenderá inmediatamente su traducción, o se explicará lo que el otorgante entiende por la frase, palabra o nombre exótico.

En el caso del párrafo 3.º del art. 25 de la ley [de 28 de mayo de 1862], los notarios explicarán a los otorgantes y testigos en su dialecto particular la escritura extendida en castellano, si hubiere alguno que no entendiere este idioma³⁶³.

23. artikuluan, gainera, hau adierazten zen:


Si la notaría que se trata de proveer perteneciere al distrito de los que trata el artículo 7º, se dirijan al aspirante tres preguntas sobre derecho o sobre práctica notarial en el dialecto particular del país, que deberán contestarse en el mismo.

Hau da, alde batetik, gaztelaniazko testuak bakarrik jotzen ziren legezkotzat, eta euskaraz (eta estatuko gainerako hizkuntza ez ofizialetan) idatzitako dokumentuei eragin juridiko oro kentzen zitzaien; eta, bestetik, notarioei eskatzen zitzaien aurrez eskribauek betidanik egin izan zutena egitea: gaztelaniaz ez zekiten elebakarrei eurek egilesten zituzten eskrituren edukia “aditzera ematea”. Bestalde, merezi du gogoeta labur bat testuari berari darion ideologiak. Alegia, ohargarria da Estatuko gainerako hizkuntzei (euskara, katalana eta galegoa) “*dialectos*”, “*dialectos particulares*” edo “*dialectos del país*” deitzea eta “exotikotzat” hartzea. Jakina, gaztelaniari “hizkuntza” kategoria ematen zaio. Dirudenez, araudia idatzi zutenentzat gaztelania zen hizkuntza natural edo indigena bakarra eta gainerakoak dialekto exotiko hutsak ziren. Hala ere, uler daiteke “dialekto” terminoa ez dela hemen hizkuntzalaritzako termino gisa erabiltzen, baizik eta termino juridiko gisa, hau da, frantses legeriak frantsesaz bestelako hizkuntza ez-ofizialak izendatzeko erabiltzen duen “*patois*” hitza baliatzen dutela. Bestalde, 7. artikuluan, hautagaiei herritarren hizkuntza (“idioma vulgar”) jakitea eskatzen zaienean, eskatzen zaie “nahikoa” ulertzen zutela egiaztatzea (“*que lo entiende bastante*”) nahita termino zehazkabe bat erabilita; izan ere “*bastante*”, ez da “erabat” edo “guztiz”. Logikoa ondo jakitea eskatzea izango zen. Zehazkabetasun horri esker, notariotzarako hautagaiei hizkuntza-ezagutzaren ziurtagiriak ematen zizkieten alkateek, aukera izan zuten “zerbait” ulertzen zutenen gaitasuna ere “nahiko”tzat hartzeko.

Jakina, hiru foru-diputazioek irmoki egin zioten aurka 1862ko notariotza-legearen aplikazioari, zeinak eskribauak —fede publikoaren gordailuzainak— notario publiko bihurtzen baitzituen. 1862ko urrian, legearen aplikazioari aurre egiteko erresistentzia ekintza bateratua egiten saiatu ziren, baina azkenean antzua suertatu zen. Foru lurraldeek legearen aplikazioari aurre egiteko erabili zuten argudio nagusia hizkuntzaren alorrekoa izan zen. Nabarmendu zuten, orduetik aurrera, euskaraz ez zekiten Estatu osoko notario-gaiak aurkezten baziren, ezingo zutela bete ordurarte eskribauek egiten zuten hizkuntza bitartekaritza. Euskal erakundeek protestak gorabehera, legea aplikatu egin zen, baina, ikusi den bezala,

legea garatzen zuen araudian artikulua garrantzitsu bat sartu zen, non jasotzen baitzen, notariotzarako hautagaiek euskararen ezagutza “nahikoa” egiaztatu beharko zutela Euskal lurraldean notario-postua lortzeko. Hori izan zen 1839-1876ko gerra arteko aldian foru-eskumenak urratu eta mugatu ziren arloetako bat. Baina, era berean, azpimarratu behar da, araudian arau hori sartu bazen, segur aski, euskal foru aldundiek egindako presioengatik izan zela, haiek jabetzen baitziren hizkuntza-arazo larria zetorkiela, herrialdea neurri batean elebakarra baitzen, artean.

Baina itzul gaitezen 7. artikulura, zeinetan ezartzen baitzen notarioek, euskal lurraldeetan (hau da, euskaldun elebakarrak ugari ziren herrietan), jardun nahi izanez gero, herrialdeko hizkuntza jakin behar zutela, euskaldun elebakar horiei zerbitzua eman ahal izateko. 1863ko araudia 1874ko irailaren 9ko Errege Dekretuak aldatu zuen, baina notarioek Euskal Herriko hizkuntza jakiteko betebeharrari buruzko artikulua bere hartan mantendu ziren. Zehazki, “herrian hitz egiten diren dialektoak” nahikoa ulertzeko (“*entender bastantemente los dialectos que vulgarmente se hablan*”) betebeharrari buruzko pasarteak, dekretu berriaren II. tituluko laugarren artikulura aldatu zen, hitzez hitz. Azkenik, 1917ko apirilaren 9ko Errege Dekretuaren bidez onartutako araudiaren beste erreforma batek eskakizun hori jasotzeari utzi zion, eta, harrezkero, notarioak askatasunez aurkeztu ahal izan dira euskal lurraldeetako oposizioetara, euskara jakin beharrik gabe. Arau hori, beraz, 1863tik 1917ra egon zen indarrean, eta teoriarik herri euskaldun guztietan aplikatu zen baina praktikan ez zen beti betearazi. Bizkaian, badirudi ez-betetzea nahiko orokorra izan zela; hala salatu zuen Resurreccion Maria Azkuek *Ibaizabal* aldizkarian 1902an. Gipuzkoan, aldiz, betetze-maila zorrotzagoa izan zela dirudi.



Juan Miguel Aguirre Sarasua eskribauaren sinadura eta errubrika

1874az geroztiko notarioen oposizioei buruzko dokumentazioan ikus daitekeenez, Gipuzkoan behintzat, ahalegina egiten zen hautagaiek, formalki bederen, euskararen ezagutza egiaztatzeko baldintza bete zezaten³⁶⁴. Hala, adibidez, 1876an, hutsik geratu ziren Azpeitiko, Azkoitiko eta Segurako notariotzak. Plaza horiek betetzeko aurkeztu ziren hautagaien artean bi zeuden, Roque Logroño eta Alejandro Muscat, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, euskarazko eskakizuna egiaztatu ez zutenak: “*no acredita q.ª posee el vasco*” eta “*no acredita q.ª posee el vasco necesario para la 2ª y 3ª*”. Bigarren eta hirugarren plaza horiek Azpeitikoa eta Azkoitikoa ziren. Gainerako hautagaiei buruz ez da ezer adierazten; beraz, uste izatekoa da behar bezala egiaztatuko zutela hizkuntzaren ezagutza³⁶⁵. Suposatzen dugu bi horiek oposizio-prozesutik kanpo utziko zituztela. Dena den garrantzitsuena da egiaztatu dela, oposiziora aurkezteko, beharrezko ziurtagiria eskatzen zela.

1880. urtean Elgoibarren notario-plaza hutsik geratu zen. Besteak beste, Jose Irigoien Uzin Bergarako notarioa aurkeztu zen oposizioetara. Soraluzekoa zen, baina bataio-agiria eta lizentziatu titulua baino ez zituen aurkeztu. Agian pentsatu zuen Bergaran aritzearekin frogatuta zegoela euskara bazekiela³⁶⁶. Antzeko kasua da Ildefonso Azkarate-Askasua Ugaldereña, Segurako notarioa, zeinak bere eskabidean honakoa adierazten baitzuen: “*asi como la de tener constituida la fianza y poseer el dialecto vascongado, por hallarme en la actualidad ejerciendo mi profesión como Notario en igual plaza y categoría que la que solicito*”³⁶⁷. Hau da, herri euskaldun batean lanean ari zenez, euskaraz hitz egiteko gaitasuna frogatutzat ematen zuen. Gainerako hautagaiek aldiz, zuzenean aurkeztu zituzten eskatutako dokumentuak. Horrela, Jose M^a Sarria Mendiola oñatiarrak, bere instantzian adierazten zuen honako ziurtagiriak eransten zituela: titulu akademikoa, jokabide onaren ziurtagiria, bataio-agiria eta abar. Gainera, bosgarren puntuan honako hau adierazi zuen:

Que en atención á que los aspirantes a Notarios donde vulgarmente se hablan dialectos particulares deben acreditar que los entienden bastantemente, también se pone de manifiesto la certificación que de ello se ocupa y que le ha sido expedida al recurrente con fecha diez de julio por el Juez municipal de Oñate³⁶⁸.

Era berean, Jose Larrunbide Iriondo ere aurkeztu zen Elgoibarko plazara. Jaiotzez getariarra zen baina Elgoibarren bertan bizi zen. Kontua da aurkeztu zuen lehen instantzian euskararen ezagutza-ziurtagiria sartzea ahaztu zitzaioela, eta, ondorioz, eskabide osagarri bat aurkeztu zuela huts hori zuzentzeko, eta bertan honakoa adierazten zuela:

que deseando tomar parte en los ejercicios de oposiciones para proveer la Notaria vacante en esta villa [Elgoibar], presentó la oportuna instancia documentada; mas por una omisión involuntaria dejó de acompañar certificación que acreditara que el exponente conoce y habla el idioma vascongado, y á fin de subsanar semejante falta, presento hoy el expresado documento³⁶⁹.

Hain zuzen ere, Juan Luis Iriondo Elgoibarko alkateak emandako ziurtagiria erantsi zuen, eta honakoa zioen:

Certifico: que D. José Larrumbide e Iriondo, que hace algún tiempo viene residiendo en esta villa, y á quien conozco, habla el idioma vascongado usual en la misma valiéndose de dicho idioma para entenderse con las personas que acuden á él para utilizar los conocimientos propios de la profesión de Abogado que esta ejerciendo en el partido judicial de Vergara.

Y para que conste...³⁷⁰

Julian Gorrotxategi Lasa, Segurako bizilaguna, ere aurkeztu zen Elgoibarko plazara; eta bere instanzian honako hau zioen: “*Que en conformidad á lo ordenado en el artículo cuarto del Reglamento del notariado acredita, por certificación que acompaña, que entiende bastantemente el dialecto vascongado*”. Izan ere, Segurako alkateak, Esteban Zurbanok honako hau ziurtatu zuen: : “*que D.ª Julian de Gorrochategui y Lasa, soltero natural y vecino de esta villa, de edad de veintiocho años, entiende y habla suficientemente el dialecto vascongado, siendo en este concepto apto para ejercer el cargo de Notario u otro en esta provincia*”³⁷¹.

Ikusten denez, notariotzako oposizioetan parte hartzeko aurkezten ziren hautagaiek 1874ko irailaren 9ko Errege Dekretuaren 4. artikulua aipatzen zuten Gipuzkoa osoan lan egin ahal izateko, eta, oro har, bai beraiek eta baita ziurtagiriak egiten zituzten alkateek ere, hitzez hitz aipatzen zituzten artikuluen testuan agertzen ziren “*vulgarmente*”, “*dialectos particulares*” eta “*bastantemente*” terminoak.

1887an, notario plaza bat eskaini zuten Zumarragan; zenbait hautagai aurkeztu ziren, eta beren herriko alkateek emandako euskararen gaitasun ziurtagiriak aurkeztu zituzten guztiek. Hona hemen hautagaiak eta ziurtagiriak egin zituzten alkateak: Francisco Olaetxea Etxeberria (Tolosako alkatearen ziurtagiria); Lucas Garnika Martinez (Larraungo alkatearena); Bernardo Zubizarreta Luisa (Zumarragako alkatearena); Pedro Ortigosa Zozia (Baztango alkatearena) eta Jose Maria Laskurain Olaskuaga (Soraluzeko alkatearena)³⁷². Era berean, 1888an, hainbat hautagai aurkeztu ziren Otsagabiako eta Donostiako notario plazetara, eta haiek euskaraz bazekitela egiaztatu zuten: “*que conoce el idioma bascongado, circunstancia indispensable según artículo cuarto del Reglamento General del Notariado*”³⁷³. Azpimarragarria da erabili zuten kalifikatzailea: “ezinbestekoa” (“*indispensable*”). 1893an hainbat hautagai aurkeztu ziren Oñatiko, Altsasuko eta Valtierrako notario-plazetara. Azken plaza horretara bakarrik aurkeztu zirenek ez zuten aurkeztu euskararen gaitasun ziurtagiririk, ez zelako eskatzen. Oñatiko eta Altsasuko plazetara aurkeztu ziren bederatzi hautagaik, aldiz, aurkeztu zuten ziurtagiria. Hala ere, izan zen bat Altsasura eta Valtierrara bakarrik aurkeztu zena eta hizkuntza-ziurtagiririk aurkeztu ez zuena; eta izan zen beste bat, Gregorio Reparaz Goizueta doneztebearra, euskararen ezagutzaren ziurtagiririk aurkeztu ez zuena³⁷⁴. Bermeoko alkateak Antonio Baqueriza Bilbao hautagaiari buruz emandako ziurtagiriak honela zioen: “*natural de esta villa [Bermeo], donde se habla vascuence, posee esta lengua con regular perfeccion*”³⁷⁵.

1900. urtean Ramon Lekuona Etxeberriaren notariotza hutsik geratu zen Bergaran. Oposizio gileak hautatzeko prozesuan berrikuntza garrantzitsu bat gertatu zen, euskararen ezagutza egiaztatzearekin zehazki zuzena. Ordura arte, nahikoa zen hautagaiek alkateak egindako egiaztagiria aurkeztea. Badirudi, ordea, kasu batzuetan ziurtagiri horiek oso modu arinean eta iruzurra eginez ematen zirela, eta, horren ondorioz, zenbaitetan notario erdaldunek lortzen zutela plaza, eta ez zirela gai izaten euren bezero euskaraz elebarkarekin komunikatzeko. Hori dela eta, Notariotzarako oposizioetako epaimahaiak erne omen

zeuden dokumentazioan izan zitezkeen iruzur kasu horien aurrean. Kasu honetan aurkeztu zen hautagaietako bat Eloi Luis de Lama Martinez izan zen, Cervera del Rio Alhamako (Errioxa) notarioa, eta bere alkateak emandako ziurtagiria aurkeztu zuen. Espedientea berrikusi zutenek ziurtagirian iruzurra zegoela susmatu zuten, eta, horrela, espedientearen bazterrean ohar interesgarri bat sartu zuten, honakoa zioena: “*Completo. Presenta certificación de saber vascuence ¿Es cierto? Y de no serlo, ¿qué debe hacerse?*”³⁷⁶. Guztira hamabi hautagaik aurkeztu zuten Bergarako plazaren oposiziorako dokumentazio osoa, euskararen eza-gutzaren ziurtagiria barne. Horien artean, Lama Martinezez gain, baziren beste batzuk ere ziurtagiriaren egiazkotasunari buruzko zalantza handiak sortzen zituztenak: Fermin Ruiz Soravilla (Aibarkoa), Abdon Lopez Martinez (Calahorrakoa, Errioxakoa), Eduardo Ciudad Vilardell (Santervas de Camposekoa, Valladolidekoa) eta Benito Etxarri Martinez (Madrilgoa)³⁷⁷. Guztira, hautagaien ia erdiek euskararen eza-gutzari buruzko zalantzak sortarazten zituzten.

Horren aurrean, epaimahaiak erabaki zuen hautagai guztiei euskara azterketak egitea. Oposizio horren agiri-sortan “*Vascuence*” izeneko karpeta bat dago, epaimahaiak azterketa hori egiteko erabili zituen testuak biltzen dituen. Antza denez, testu batzuk itzultzea proposatu zieten. 1900. urteko Bergarako notariotzarako oposizio horretan hiru testu erabili ziren. Aztertzaileek, euskaraz idatzitako eta gaztelaniazko



Arie de Vois, Portrait of a Notary

itzulpenarekin argitaratutako lanak hartu zituzten. Hala, erreferentziako eredu fidagarriak zituzten, hautagaiek azterketan egindako itzulpenak zuzentzeko. Erabilitako hiru testuetatik lehenengoa Manuel Larramendik 1747an Sebastian Mendibururi bidali zion gutuna izan zen, 1882an argitaratua. Karpetan gaztelaniazko bertsioaren kopiak baino ez dira gordetzen. Gutuna eta aita Jose Ignacio Aranek egindako itzulpena bi lekutan argitaratu zen 1882ko urte horretan: *Euskal-Erria* aldizkarian eta Mendibururen *Jesusen biotz maitearen debozioa* liburuan, eranskin gisa³⁷⁸. Azterketarako erabili ziren beste bi testuak Arturo Kanpionenak ziren eta hainbat aldiz argitaratuta zeuden bertsio elebidu-nean. Lehena *Agintza/La Promesa* izan zen, Kanpionek 1879an idatzia. Kontakizun hori 1887an argitaratu zen *Euskal-Erria* aldizkarian eta gero 1896an Fermin Herranen Biblioteca Bascongada-ko “Euskariana” sailaren barruan³⁷⁹. Eta bestea, *Orreaga/Roncesvalles*, 1880an aparteko liburuxka gisa argitaratua eta 1896an, *Agintza* bezala, “Euskariana” saileko liburuki berean jasoa³⁸⁰. *Orreaga* testuaren euskalki desberdinetako bertsioak sartu ziren: bizkaierazkoa, gipuzkerazkoa, zubererazkoa, lapurterazkoa eta nafarrerazkoa hemezortzi aldaera. “*Vascuence*” karpetan, honako barietateetako orri-

alde inprimatuak agertzen dira: Arakil, Sakana, Baztan, Basaburua, Burunda, Auritz, eta bizkaierazkoa eta gipuzkerazkoa, eta ematen du azken bi horiek erabili zirela azterketarako. Bergaran ziurrenik Luis Iza Agirre jaunak egindako bertsio bizkaitarra erabiliko zuten. Kanpionek jatorrizkoa gipuzkeraz idatzi zuen 1877an eta berak oharrean dioenez: “*Esta balada la escribí a los ocho meses de haber comenzado a estudiar el euskera. La reproduzco con sus incorrecciones de lenguaje y su viciosa ortografía*”. Hutsune horrek ez zien epaimahaikideei eragotzi testua azterketetan erabiltzea, zalantzarik gabe, euskarazko testu itzuliak falta zituztelako. Benito Mendizabal Urrutiak lortu zuen Bergarako notario plaza eta bertan jardun zuen 1901 eta 1940 artean.

Bestalde, 1863ko Notariotzaren Araudiaren 23. artikulua ezartzen zuen oposiziogileari herrialdeko hizkuntzan (“*en dialecto del país*”) hiru galdera juridiko egin behar zitzaizkiola, eta hark galderok hizkuntza (“*dialecto*”) berean erantzun behar zituela. Agirietan ez dut aurkitu hori benetan aplikatu izanaren frogarik baina baliteke kasu batzuetan horrela egin izana. Ziurra dena da, ordea, alkateek emandako euskararen ezagutza-ziurtagiria eskatzen zela, eta zenbait kasutan (adibidez, 1900eko Bergarako notariotzakoa,) oposiziogileei euskararen ezagutza egiaztatzeko azterketak ere egin zitzaizkiela, aurkeztutako ziurtagiriak iruzurrezkoak izan zitezkeela uste zenean.

III.6.5. Funtzionarioen kasu berezi bat, segurtasun-indarrena

XVIII. mendearen amaieran, Foru Aldundiek indar armatu batzuk sortu zituzten beren lurraldean ordena eta segurtasuna mantentzeko. Miñoiak izan ziren Araban, Foruzaingoa Bizkaian eta Mikeleteen kidegoa Gipuzkoan³⁸¹. Mikeleteak, batez ere, merkantzien joan-etorriaz, kontrabandoaren kontrolaz eta zergen bilketaz arduratu ziren.

Konbentzio Gerraren testuinguruan antolatu zen lehen aldiz mikeleteen indarra Gipuzkoan. 1823ko berrezarkuntza absolutistaren ondoren, Fernando VII.a “bere erresumetako polizia-antolaketa” birmoldatzen (“*el arreglo de la Policía de sus Reinos*”) saiatu zen, 1824ko urtarrileko Errege Dekretu baten bidez; hau da, estatu osorako polizia bateratu bat sortzen. Foru-diputazioek kontrafora alegatu zuten, eta erregeak atzera egin zuen 1824ko apirilaren 8ko Ebazpenaren eta abuztuaren 28ko Errege Aginduaren bidez, zeinetan aitortzen baitzen foru-diputazioei zegokiela beren lurraldeetan polizia-zerbitzuak antolatzeko ardura³⁸².

1839an sortu zen ofizialki Mikeleteen kidegoa, “*Celadores de Protección y Seguridad Pública*” izenarekin. 1844an Batzar Nagusiek kidego hau desegin eta *Mikelete* izenarekin birsortu zuten. 1846an, es-



Mikeleteak

tatu-mailako indar armatuetan integratzeko saiakera bat izan zen: Errege Agindu baten bidez, Mikeleteen kidegoa desegin eta mikeleteei Guardia Zibilean sartzeko eskaintza egin zitzaion. Bi urte geroago, ordea, beste Errege Agindu batek kidegoa berrantolatzeke eskumena eman zion Gipuzkoako Foru Aldundiari. Kidegoan sartzeko ezarrita zeuden baldintzak honako hauek ziren: gipuzkoarra izatea —edo “cuando menos, Vascongado español”—, hemezortzi urtetik gorakoa eta hogeitabost urtetik beherakoa izatea, herrialdearekiko maitasuna erakustea, eta jokabide moral ona izatea. (Iparraldeko euskaldunak, beraz, ezin ziren mikelete izan, frantses herritarrak baitziren.)³⁸³. 1883ko Araudian, berriz, ezartzen zen “*que el aspirante sea guipuzcoano, o cuando menos vascongado*”, hogeita eta hogeita hamar urte bitartean izatea eta irakurtzen eta idazten jakitea³⁸⁴. Ez da agertzen euskaraz jakitearen derrigortasuna, garai hartan gipuzkoar guztiek euskaraz hitz egiten zutelaz jotzen zen eta.


1844an, gobernu liberal moderatuak Errege-Dekretu bat aurkeztu zion Isabel II.a erreginari, hark martxoaren 28an berretsi zuena. Errege-dekretu horren bidez, izaera militarreko polizia-indar bat sortu zen, “*Guardia Civil*” deiturikoa. Haren jarduera-eremua Espainiako Estatu osoa izango zen, eta, batez ere, landa-eremua kontrolatzea eta bidelapurren aurka jardutea zuen egiteko nagusi (“*persecución de malhechores*”). Jatorrian, beraz, landa-polizia zen. Francisco Jabier Giron Ezpeleta nafarra izan zen haren



Guardia Zibilen 13. Tertzioak eskoltatutako preso Karlistak, 1872-1875

lehen buru eta antolatzailea, Ahumadako II. Dukea. Euskal probintzietarako Tertzio bat sortu zen, hamabigarrena. Eta Tertzio horretan sartu ahal izateko, irakurtzen eta idazten jakiteaz gain, beste baldintza bat ere eskatzen zen: “*ser natural de estas provincias, sabiendo su idioma*”³⁸⁵. 1861eko urriaren 11ko Errege Agindu batek Tertzioak berrantolatu zituen, Nafarroako 10.a eta Baskongadetako 12.a batuz; horrela, 13. Tertzioa izatera pasatu zen, eta Hegoaldeko lau lurraldeak hartzen zituen³⁸⁶.

Zalantzarik gabe, 1844an Euskal Herrian guardia zibil gisa jarduteko eskakizunen artean euskararen ezagutza sartzeara, kidego haren sortzaileen pragmatismo hutsari zor zaio; izan ere, esan dugun bezala, haren jardun-eremua landagunea zen eta, garai hartan, hura euskaldun elebakarra zen. Hala ere, ez dakigu guztiz garbi artikulatu hori erabat aplikatuko ote zen, hasiera-hasieratik agertzen baitira Euskal Herritik kanpoko guardia zibilak, eta horiek, nekez jakingo zuten euskaraz. Guztiz ziurra dena da, 30 urte beranduago, 1874ko otsailaren 26ko eta apirilaren 16ko zirkularretan, guardia zibil postuetara aurkezteko baldintzetan ez dela inolako eskakizunik jasotzen euskaraz jakitearen inguruan³⁸⁷. Nolanahi ere, interesgarria da egiaztatzea, gutxienez XIX. mendearen erdialdera arte, Gipuzkoan, noski, eta baita Euskal Herriko gainerako lurraldeetan ere, ezinbestekoa zela euskaraz jakitea, gutxienez landa-ingurunean jarduteko.



Guardia zibil izateko baldintzak
1844an

IV. Euskararen idatzizko erabilera

Jakinekhoa da euskararen erabilera idatzia hutsaren hurrengoa izan zela, hau da, praktikan ahozko jardun hutsera mugatzen zela; halere, komenigarria iruditu zaigu, ikerlan honetan ezagutzera ematea euskara idatziari leku txikiren bat egin zioten eremuak.

IV.1 - Euskarazko terminoak gaztelaniaz idatzitako dokumentazioan

Eskribauak sarri erabiltzen zituzten euskal terminoak prozesu judizialeko lekukoen deklarazioetan aipatzen ziren tresnak edo bestelako objektuak izendatzeko. Horrek pentsarazten digu, adierazpen gehienak euskaraz egingo zirela. Kasu batzuetan, litekeena da eskribauak berak ere ez jakitea tresnaren gaztelaniazko izena.

Kasurik adierazgarrienetako bat Joan Albusuaren 1566ko ondasunen inbentarioa da, bertan honako tresna hauek jasotzen baitira:

Primeramente un par de **layas**³⁸⁸ de hierro,

Ytem, un par de azadones,

Ytem, un ystrumento que se dize **area**,

Ytem, otro ystrumento que se dize **vurdinarea**,

Ytem, otro ystrumento que se dize **ytazairra**,

Ytem, otro ystrumento que se dize **goldea**³⁸⁹.

1742ko Ospitalearen inbentario batean, oheez, maindireez eta abarrez gain, hauek jasotzen dira: Una Edarra [...] Unas laias de fierro [...] ³⁹⁰.

Bere aitaren osaba labanaz zauritzeagatik Jose Manuel Ibarzabalen aurka bideratutako auto batean, euskarazko terminoa gaineratzen da “llamado en basquence Gañabeta”, hau da ganibeta ³⁹¹.



Goldea



Pedarrak bi eta edarra bat



Antosinak

1805ean, Ipiñarriaga baserriko Jose Mendibilen ondasunen inbentarioan, termino hauek agertzen dira: “dos escardillas y seis escubaras en 16 reales” eta “dos chamarras”³⁹².

Jose Martin Ibarzabal eta Cecilia Juana Gallaiztegiren arteko 1836ko ezkontza-kontratuan, besteak beste, honako objektu hauek inbentariatu ziren: “Una Chamarra de paño negro en 40 reales” eta “dos cueros para Albarcas en 120 reales”³⁹³.


Datarik gabeko beste inbentario batean honako elementu hauek aipatzen dira: “dos burdiñaras”, “quatro pares de layas”, “una escardilla de Liño Charrancha” eta “un Antison de beber agua”. Azken hori “antosina”³⁹⁴ izango da, seguruen.

Tarteka euskal terminoak azaltzen diren eremu bat obretako egituren deskribapenena da, bai zurezko egiturena eta bai bestelako eraikuntza-egiturena. Hala, eraikuntza-elementuen inbentarioak edo obren eskriturak egiten direnean, termino batzuk beti euskaraz izendatzen dira, hala nola: “goiagas”, “goiaras” edo “goyaras” (goi-hagak), “gambara” (ganbara), “laque” (laka), “mandio”, “vanzo” (bantzu), “gallur” (gailur), “uzquerrico” (uztarriko) edo “entenga”³⁹⁵.

Esate baterako, 1631ko urriaren 20an, Juan Perez Madariagak zera eskatu zion udalari:

Se le fuesen servidas de darle diez y seis **mandios** para reedificación de unos lagares que pretendía hacer en sus casas en los términos del concejo de dicha Villa pagando su valor³⁹⁶.

1693ko maiatzaren 30ean, Mekolaldeazpikoa baserria berreraikitzeko kontratua egin zuten Andres Garitano-Aldaeta arotzak, alde batetik, eta Maria Josefa Mekolalde eta bere seme-alabek, bestetik, eta bertan honako materialak aipatzen dira: “Doce goiaras, las quatro de a veinte y quatro pies [...] Doce guillas para sobre el suelo [...] Cincuenta estados de uzquerricos”³⁹⁷.



Goi-hagak

1729ko neguan, Muskiritsuko Egiazarpikoa baserria aurri egoeran zegoen, eta jabeak, Manuel Thomas Iturbe jaunak, berreraiki egin nahi zuen, eta haxe zioen beharrezkoak zituen bost goi-hagei buruz: “Se advierte que las goyaras han de hir rezumadas conforme arte”³⁹⁸.

1803an, Zabala etxea berreraikitze beharrezko materialen artean, goyara izeneko piezak aipatzen dira, batzuetan goiada gisa transkribatuta³⁹⁹. Izan “goiada”, “goiaga” edo “goiara”, termino hori maiz agertzen da eraikuntza-elementuen euskal inbentarioetan.

Batzuetan “ganbara” euskal izena ere agertzen da; hala, 1710ean, ustekabeen erre zen Aierdi oinetxea, eta berreraikitze kontratuan honako hau jaso zen: “sobre la sala se ha de hacer la ganbara”⁴⁰⁰.

1866an Udalak obrak egin behar zituen kartzelan, epaitegian eta eskolan; eta horretarako behar zituen materialen artean honako hauek agertzen dira:

633,02 metros lineales de **chilla** para los cielos rasos. [...]
 4,30 metros lineales de **girmelgas** o zapatas para recibir los frontales [...]
 83,30 metros lineales de hilera o **gallur** [...]
 196 metros lineales de correas o **goyagas** [...]⁴⁰¹

Euskaratutako eraikuntza terminoen artean **zimbria** (*cimbras*) ere agertzen da, zehazki 1721ean Goenese errota (Goenetxe) konpontzeko egindako kontratu batean⁴⁰².

Era berean, baso-lanei buruzko dokumentazioan ere euskarazko termino mordoxka agertzen dira, hala nola: “basalan” (basolan), “egurbaso” (egurbaso, herribaso), “suegur” (su-egur) edo “sostra”. Adibidez, era honetako testuak aurki ditzakegu:

1620. urteko udal-akordioen artean, besteak beste, honako gai hauek jorratu ziren:

Este dia trataron y platicaron sobre y en razón del mal orden que se da en la licencia y permiso de la leña que se da para **suegurres**, que por otro nombre llaman **egurbasos**, en los pocos montes que tiene el concejo [...]. Para el remedio que conviene para adelante acordaron que se den y señalen los dichos **egurbasos** que se diesen este presenta año con orden y limitación que los regidores de la Villa y parroquias uno de ellos que fuere nombrado, den y señalen por cantidad cierta y casa **sostra** con esamen de diez cargas de carbón cada **sostra** por que se paga cinco reales cada una [...] y las personas que nombre el concejo señalasen los **egurbasos** [...] ⁴⁰³.

1739an, Bergarako mendietan haritzak landatzeko esleipenen testuinguruan, *sostra* terminoa agertzen zaigu berriro ere, eta ematen du “*suerte*” edo “esleitutako lur-zatia” adierazi nahi duela: “*Desde Zabaleta a Musquirisu a Melchor de Micolalde y su plantación en la sostra de Mecoleta*”⁴⁰⁴.

1791n, Jose Antonio Zuloeta Olaso Bergarako alkatearen jabetzako Campos oinetxea erre zen, eta alkateak ahalik eta lasterren berreraiki nahi zuen. Horretarako, Miguel Antonio Jauregi arkitektoari eskatu zion obraren azterketa egitea, eta, ondoren, Pedro Jose Arangurenen agindupean hasi ziren lanak. Adostutako baldintzen 3. artikuluan honakoa jaso zen:

Que el referido S^r Alcalde ha de poner, de su cuenta, todo el maderamen y teja, que se ofrezca y necesite en dha obra, y solam.^{te} será del cargo del dho Aranguren el **Basalan**, y conduccion del maderamen al pie de ella⁴⁰⁵.

1590ean kereila kriminal bat izan zen, lursail batzuk ixtearekin lotuta, eta bertan honako termino hauek agertzen dira: “*sobre cuya servidumbre de pasaje de ganados se litiga este pleito, abriendo para el efecto una rromara*⁴⁰⁶ *que llaman en vascuenze*” (XXVIII r. f.). LII r. folioan, beste termino hau dator: “*la entrada de la dicha heredad litigiosa de arizpe ha visto estar e sauer cerrada toda ella y la parte donde al presente esta un çubitesi que llaman en lengoa vascongada y por la parte de dentro de la dha heredad un escalon para en que asentar el pie las personas que en ella y por ella tenían serbiçio de entrar y salir*”. Beste adierazpen egile batek dio: “*que en la entrada de la dha heredad litigiosa del dho estean de ynurrigarro Arizpe para haber de entrar y pasar por ella solia estar un çubitesi que llaman en lengoa vascongada*” (f. LVIIIv). Oso interesgarria da **çubitesi** arkaismoaren agerpena, bikain definituta dagoena: hesi baten gainetik igarotzeko zurezko maila bat⁴⁰⁷. Liskarra honetan zetzan: ea pasabidea pertsonentzat bakarrik ote zen edo idiak ere igaro zitezkeen. Beste adierazpen egile batek dio (f. LVIIv): “*y pasaban por ella a la dha heredad de oçaran alde en*

*esta forma conviene a saber por un **çubitesi** que en la entrada de la dicha heredad con su Escalon de madera estaba para pasage y entrada de tan solamente personas y en todo el dho tiempo este tº no vio oyo ni entendio que vuyes ni ganados de ningun genero tubiesen entrada y salida por el dho camino y heredad litigiosa”.*

1791n Zabala baserria erre zen ustekabean, eta berreraikitze-lanekin lotutako dokumentazioan, 1803an, “Garaya” terminoa agertzen da: “*la Casilla y deposito de granos, llamado por otro nombre **Garaya***”⁴⁰⁸.

“**Lera**” terminoa ere agertzen da kargak garraiatzeko gurpilik gabeko orga izendatzeko, “**narria**” ize-nez ere ezaguna. Adibidez, 1673 eta 1678 artean Jesusen Lagundiaren Ikastetxea eraikitzeko lanak egin ziren, eta bertako diru-kontuetan honako terminoak agertzen dira: “*dos quintales de fierro para las **leras***”, “*4 reales a Pedro Vizcaya por componer las **leras***” eta “*unos **ecarguis** para las **leras** costaron un real de a quatro*”⁴⁰⁹. Dokumentu berean agertzen dira honakoak ere: “*42 reales de **abarra***”, “*2 pesos de **abarras***” edo “*2.279 **sendorros de abarras***”. *Zendor* hitza honela ere agertzen da: “*144 **sendorres***”. Era berean, aipatzen da “*una **escubara o rastra***” ere.

Eta, noski, agertzen da, halaber, lan komunitarioa izendatzeko euskarazko termino bat, gaur egun ere, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz, maiz erabiltzen dena: **auzolan** edo **auzalan**. Esate baterako, jasota dago 1782ko martxoaren 7tik 20ra bitarteko **auzalanean** parte hartu zuten Bergarako herritarren zerrenda: “*Composicion de caminos viejos en **Auzalan** empezando en la Peña de Boluvarri, personas que han concurrido, ó embiado por sí a otros*”⁴¹⁰.

Lan honen beste atal batean aipatu dugun **nekazari** terminoa ere gogoratu beharko litzateke, edo, 1718ko dokumentuan agertzen den bezala, “nequezari”: “*Todos los **nequezaris** dueños de las Caserías y ynquilinos y del querpo de la Villa...*”⁴¹¹.



Agarreko garaia



Auzolanean, lurra laiekin iraultzen

Juan Antonio Mogelek *Peru Abarcan* jasotako makina hidraulikoen, erroten eta burdinolen euskal hiztegi tekniko aberatseko hainbat hitz ere agertzen dira Bergarako dokumentuetan. Hala, adibidez, Goenbolu errotaren 1863ko deskribapen batean, “dikea” edo “presa” izendatzeko, euskal termino bat (**antepara** edo **antapara**) ageri da: “el terreno sembradío nº 4 confina al norte con el **antepara** del molino”⁴¹². Era berean 1632an, Bolubarria errota errentan jarri zenean, honela jaso zen: “*con sus presas y anteparas corriente y moliente*”⁴¹³.

Neurrien izenak ere agertzen dira noizean behin euskaraz. Hala, 1621ean, Gabiriako jaunaren administratzaileak Urteagako errota alokatzeko egindako kontratuan, urteko errenta honela finkatu zen: “**anega** y media de trigo y dos capones”.

Egun erabiltzen ez diren termino arkaikoak ere agertzen dira; esaterako, **salzazari** hitza jasota dago haragia saltzeko ohola izendatzeko (“*llamadas vulgarmente salzasari*”).

Ez dago esan beharrik abizenen antroponimia eta toponimia euskaraz jasota dagoela beti agerietan, nahiz eta erdal grafia erabili. Halaber, sarri agertzen dira euskarazko gaitzizenak edo ezizenak ere: “Juan **Çuri**” (Juan Areiza 1604)⁴¹⁴, “**Urday**” (Francisco Gorosarri, 1734)⁴¹⁵, “**Champion**” (Juan Etxarri, 1736)⁴¹⁶, “**Chiqui**” (Martin Osoro, 1779)⁴¹⁷, “**Ancaluce**” (Domingo Basarri, 1819)⁴¹⁸ edo “**Maldomin Chiquia**” (Jose Roque Lete, 1825)⁴¹⁹.

1871ko biztanleen erroldan, “**Perratinero**”⁴²⁰ lanbide bitxia duen bergarar bat ageri da. Garbi dago hori perratzaile edo ferratzaile hitzaren gaztelaniarako moldaketa dela, eta, ondorioz, gaztelaniaz *herrador* izenez agertu beharko zatekeela.


Kasu batzuetan, auzietan aipatutako esaldi batzuk euskaraz transkribatzen dira hitzez hitz; nahiz eta kasu gehienetan gaztelaniara itzultzen diren. 1767ko azaroan Bergarako eta Elgetako hainbat herritarren artean izandako borroka batean, Francisco Etxagoien izeneko inplikatuak, bere aitortzan, honakoa adierazi zuen:

que Manuel de Yñarra tenia pendencia con tres hombres de Elgueta en dicha caseria de Santa Lariz andia, y llegasen prompto à ella, y con esta notica paso el Declarante en compañía de los referidos dos Hermanos al **Larrain** de dha caseria en donde entro primero el dicho Miguel de Unamuno quien empezó luego a dar embiones con su palo a uno de los tres hombres de Elgueta, y el mismo Miguel dixo estando también dentro del referido **Larrain** el que declara y el citado Miguel Unamuno que no sabe si había otros estas palabras mutilac gabiltzen: cuias palabras entendio el que declara para sacudir a los dichos tres hombres de Elgueta⁴²¹.

Beste adierazpen egile batek esaldi bera aipatu zuen, baina gaztelaniara itzulita: “*andemos muchachos*”. Ematen du, ez deklaratzailerak ez eskribauak, ez zekitela “**larrain**” gaztelaniaz “*era*” esaten zela. Eta, kontrakoak jotzera bultzatzeko erabilitako esaldia aipatzean, zehaztasun handiagoa lortzeko, esan zen bezala transkribatu zen, hau da, euskaraz.

IV.2 - Euskararen erabilera herri-poesian

Euskararen erabilera ziurra zen eremu naturale-
tako bat bertsoak ziren. Ohikoa izaten zen haserre
edo erabat etsaituta zeuden zenbait pertsonaren
artean bertso gutxi-asko iraingarriak trukatzeara, eta
horiek euskaraz egiten ziren. Norbaiti “bertsoak
ateratzea” edo “koplak ateratzea” oso kirol heda-
tua zen euskal gizarte tradizionalan eta, jakina,
herriaren ohiko hizkuntzan praktikatzen zen. Zo-
ritzarrez, ahozko generoa izanik, bertso horien le-
kukotasun idatzi gutxi gorde dira. Zenbait bertso
(edo bertso-zati) bakarrik ezagutzen ditugu, kalte-
tuek bertso-jartzailea auzitara eramatearen ondo-
rioz iritsi zaizkigunak. Bergaran, halako kasu bat
detektatu da dokumentu bidez.



Antepara

1770ean Pedro Artolazabal eta Teresa Anto-
nia Otalora senar-emazteek, Cecilia Jabiera Arto-
lazabalen guraso eta tutore gisa, Miguel Antonio
Otaloraren aurkako kereila jarri zuten, hark eus-
karazko bertso iraingarri batzuk egin zituela-eta⁴²².
Dirudienez, urte hartako ekainaren 5ean, goizeko
bost eta erdietan, Ceciliak, Barrenkaleko etxe ba-
teko atean obleaz finkatua zegoen paper bat aurki-
tu zuen ditzosozko bertsoekin. Paper horrek bere
amaren eta bere kontrako adierazpen iraingarriak
zekartzen eta, antza denez, beste etxe batzuetan ere
agertu ziren paperaren kopiak, ateetan itsatsita. Mi-
guel Antonio Otalora, Bergarako egoiliarra zena,
salatu zuten bertso-jartzaile gisa. Otalora Araotzen
jaiotakoa zen, lanbidez testu-kopiatzailea, eta ha-
masei urte zeramatzan Bergaran bizitzen. Ceciliak
atean itsatsitako papera kendu eta frogatu gisa erantsi
zion prozesuari, eta lehenengo folioan sartu zuen,
baina ondoren, ezkutuko esku errukitsu, begilu-
ze edo fiskalizatzaile batek orri hori desagerrarazi
egin zuen, eta zoritxarrez idatzia 2. folioan hasten
da. Hori dela eta, ez dugu izan koplen jatorrizko
testua eskuratzerik.

Irakurtzen zekiten lekukoek paperaren edukia
ulertu zutela adierazi zuten. Segurtatu zuten euska-
raz idatzitako bertso-sorta jendearen artean azkar
zabaldutako zela, hainbat alditan eta leku ezberdinetan
entzun baitzieten abesten zenbait laguni, besteak
beste, Otalorari berari, koplen ustezko egileari:
*“Que también â oydo cantar los sobre dichos versos
en diferentes ocasiones después de la primera vez al no-
minado Baup.^{ta} de Lombida, q.º en una de las dichas
ocasiones las canto en Mazterreca calle de esta villa, en
presencia del que depone y otras personas”*⁴²³. Lekuko
horietakoren bat bertso sortaren hasiera kantatze-
ra ere animatu zen, eta adierazi zuen gogoan ez
zituene beste batzuk ere bazirela: *“y otros de que no
se acuerda”*⁴²⁴. Bertsiorik osatuena honako hau da:

Atencios gentia adituezazu, corpus christi gabian Gaceta dute paratu, ura paraturican gabian amaiquetan, Cojuari botadiote culpa bizcarrian. Vigaramon goician Apai bat pasatu galdecencioela cercuen contatu, icusizubenian bere principiua, ez zan atrebitu contacen casua. Apenas aura joan, veste bat etorri, doncella atrevidia bereala soltacen asi, soltacen asi eta furia andiarequin, neuc jaquingo dot bada orain dio cer egin⁴²⁵.

Bertsoen edukia iraingarria izateari buruz ezin dugu baloraziorik egin, aitortza batzuetan baino ez baitugu horren zantzurik aurkitu:

Y porque uno de los delitos que contiene el referido papel fol 1º, es de adulterio, y no de uno solo, sino de continuado, como denota la expresión sig.te que se halla en dicho papel: A ti hombre casado que has estado amancebado con esa Chica de poco crédito.


Y porque el adulterio se castiga con pena de muerte...⁴²⁶

Zoritxarrez, ez da jatorrizko bertsoaren euskarazko testua transkribatu, baizik eta haren gaztelaniazko itzulpena. Jatorrizko testu hori 1. folioan zegoen, baina orri hori galdu egin da.

IV.3 - Euskararen erabilera gutunerian

XVIII. mendean Euskal Herriko (eta Bergarako) klase boteretsuetako buruzagien kultura-hizkuntza gaztelera zen, frantsesa ahaztu gabe (kasu batzuetan gaztelaniaren aurretik ere bai) eta, horretaz gain, latinezko formazio ona ere izaten zuten. Hala ere, buruzagi gehienek euskara zuten ama-hizkuntza eta oso ondo zekiten euskaraz, eta erabili ere egiten zuten euren morroi eta mendekoeekin, horietako asko euskaldun elebakarrak zirelako. Aldiz, oso gutxitan erabiltzen zuten parekoeekin, hau da goi mailako gizarte-taldeetako kideen artean. Jakina, oso kasu berezietan bakarrik erabiltzen zuten euskara literatura-testuak idazteko, eta inoiz ez zientifikotzat har zitezkeen testuetarako. Uste izatekoa da, agian, zaldun kultu horien gutun pribatuetan agertu beharko liratekeela euskarazkoak ere, baina, hizkuntza hori herri xehearena zenez, mendeko estatusa zuen eta eremu intimo horretan ere, pentsaezina zen euskara erabiltzea. Hala ere, Juan Eginio eta Peñafloridako kondearen gutun-liburuetan maiz agertzen dira euskaraz idatzitako agurrak: “Verorrena Gustia”, “Zure Adiskide aundiena”, “Veti vezela zurea”, “Guztia Verorrena veti vezela”, “Secula vetico viotzetiz adisquidea”, “Nere Viotzetic Zure Adisquide Aundiena”, “Zeurea secula vetico hila”, “Nere Conde Jauna”, eta baita esaldi laburrak ere: “gure favorecoa degula gauza onetan Erregueren itza eramaten dabena”⁴²⁷.

Badugu euskarazko agurrak jasotzen dituen eskutitz baten adibide eredugarria. 1668an Juan Bautista Iturralde bere aita Andres Iturralteri bidalitakoa da. Gutuna gaztelaniaz idatzita dago, eta Madrildik, bera bizi zen lekutik, bidali zien aitari eta familiari, Gortean berarekin harremana izan zuten beste familiakide batzuen (anai-arreben eta osaba-izeben) berri emanaz. Bai hasierako agurra eta bai amaierakoa euskaraz ditu: "A Dios aita, A Dios ene Amandre bioçecoa"⁴²⁸.




Manuel Iribek bere osaba Domingori idatzitako gutuna

Hala ere, euskararen erabilera idatzia saihesteko joera nagusi zen testuinguru horretan, bada salbuespen aipagarri bat: mezu “zifratuen” kasua. Gai konprometituak edo korapilatsuak ahalik eta modurik diskretuenean aurkeztu nahi zirenean, mezu “zifratuak” erabiltzen ziren, idatzia pertsona arrotzen eskuetara iritsiz gero, edukia ulertzeko aukera gutxiago izan zezaten. Horregatik, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen eta Caracasko Konpainiaren inguruko zaldunen eta merkatarien artean trukaturako gutun batzuetan, badira euskarazko pasarte gutxi-asko luzeak, hain zuzen ere, gai konprometitu horiei buruzkoak. Horietako bi kasu Ignacio Agirrek⁴²⁹ eta frai Joseph Ignacio Santo Domingo Etxebarriak PeñafloRIDAKO kondeari bidalitako gutunetakoak ditugu. Lehenengo gutunaren egilea, Ignacio Agirre Cádiz en bizi zen, eta Caracaseko Konpainiaren liburuak Ameriketara bidaltzeaz arduratzen zen. PeñafloRIDAKO kondeari idatzitako gutun batean Konpainiaren zuzendaritzaren inguruan sortzen ari ziren arazoei buruz hitz egitean, pasarte bat euskaraz idaztea erabaki zuen, zalantzarik gabe, gutuna arrotzen eskuetara heltzen bazen, jartzen zuena ulertzeko zailtasunak izan zitzaizten.

Las dos últimas semanas no he acudido a la Academia, ni he visto a Flores. Ya gras a Dios estamos libres de la matraca de Juntas Caraqueñas, qe. se acabaron el viernes y lo libre de la plaza de Director, qe. no me conviene de modo alguno, principalmente no aviendo de tener sucesor en Sn. Sebastian Zuaznabar.

Emen igaro diran iscanbillac, icusita baicic, eciñ sinista litezque. Aguintari guizagajo biiac ipiñi dituzte ili otzic erorceco zorian. Aurreraco utci dituzte escubac loturic guztiz lotsagarriqui. Nere adisquideric aundiienac, eta gure Erretore Salamancara joan da nac, ez dute nai izandu ni onen artean sartzea, ez eta nic ere: ara, escatu nuen nere onguilleai arren beste bat eguin cezatela irugarren Aguintari. Ezaguturic nere arrazoia eta bestela ez ninzaqueala izango prestuba, esan dute ezdutela nai besteric. Onequiñ bucatu da gauza au nere zorionean: lan oec bere azquena jotzen dutenean, orrera beguira jarriric, erdi zoraturic joango naiz zuben artera. Irriquituric nago arteraño. Esan nizun Donostiac Aguintari, orain Bilbaon Anai eguindezutenari, gaitzembat etorrico zitzaiolaco ichura zala; antza aundiia zan: bañan gauza ascori beguiraturic, eta leguea argi egon ez ta utci zaio oraiñ, vicitza berriraco itzchobi esanic. Ala zuregan seculaco gorde ezazu nic orduban gaztigatu nizuena: besteri ez diitecen esan⁴³⁰.



Jose Luisek, Domingo Iribe zuzendariari idatzitako gutuna

Gauza bera gertatu zen 1783ko uztailaren 11n frai Joseph Ignacio Santo Domingo Etxebarriak Peñafloridako kondeari bidalitako gutunean. Eskutitza gaztelaniaz hasi zuen, baina euskarara igaro zen tentu handiz jorratu beharreko gai batera heldu zenean: Hiru Probintzietako Foruak murrizteko saiakeren auzia, non etsai nagusitzat nafar *lobby*ko kideak nabarmentzen ziren. Halaber, oso interesgarria da ikustea, paragrafo bat euskaraz idatzi ondoren nola eskatzen dion barkamena, euskaraz aditutzat jotzen zuen kondeari, bere trebetasun faltagatik: “*Señor, no lleve V. S. a mal mi disolución pues se que hablo* Eusqueraz Euskaldunice aundienarequin,...

Nire Nagusi Jauna: mi Tia me comunica noticias de la feliz Salud de V.SS. todo; cerebro infinito, disfrutando igualmente, a Dios gracias, sin embargo de que algunos ratos, de pocos días aca, estoi como que quieren volver a retoñar mis antiguas Huespedas; es sin duda efecto del calorazo que de repente ha acometido y continuado aca a vuelta de un rigidísimo invierno que ha durado hasta Sn. Juan.

Aquí corre y por mui cierta, la especie de que nos quieren acotar nros. Fueros a los Cantabros, estancando el tabaco, el fierro, y otras muchas cosas, y aun los Funerales de los Entierros. Naparrac ornen dira gure Etsairic aundienac; bai suertez ere, eguiha cioan, cioanac: aldecoac chaarrac dituanac, Echean iñoiz baqueric ez; gure onaquin puzuniha sortutcen zatee guizagaisoi; baldin gure Gurasoac nequez irabaciric eutci ba-cizquiguten, ¿cer debee orain cer ibilli guri quentcearren? obe litzaque bete muquiz Muzquiz. Nic uste neban, araco Viva Conde Jauna, ta viva Don Martin aditu-ciguten ezquero, ez zala secular iñor ausartuco Euscaldunoquin sartcen; baña nunchbait aundi hiruri nahi. Napar charren arrandiha ere latza da bada, certan sortu izan ez ta. Ez ete deu oraindaño oen arteco iñorc, gure Cantabria Vindicada deritzan eguiatz betericaco Liburuan aurkitu, eta iracorri Ses. 30garrenean, 391 garren numerotic asi ta 392 garren guciaren azqueneraño? bada orduco Gurasoen Semeac dira oraingo Euscaldunac ere. Eta ez ete daquihe ura iracorri ta azquen au ateratcen: orduan artan ainbeste odol ishuri cebanac gauza, bide, guichiagatic, orain cer eguingodic bere ongarriric aundienagatic? Ez dago bada Euscalerrian orducoche odola, ta hitzcuntza bera baicic.

Señor, no lleve V. S. a mal mi disolución, pues se que hablo Eusqueraz Euscaldunice aundienarequin, eta ez da asco, Euscaldun sutsubac cerbait esatea, esnearequin edosqui ceban gauzagatic, jaquiñic, are gueiago, norequin diarduban. Solo deseo saber que es lo que hai en tanto embolismo como corre, y me estan cada día estos Gaztelau motzes mortificando conque de esta hecha voló toda una fachenda. Ez arren. Espero se tome V. S. el trabajo de decirme (Eusqueraz, emen iñorc aditu ez gaitzan) a que se reduce todo esto. Pongame V. S. a los P.Q.B. [Pies Que Besa] de mi Sra. Ama, Sr. Dn. Antonio y todos esos Señores y también del Semin^o pleno (dando mis afectos a toda la Casa) cuias vidas ruego a Dios conserve largos y prosperos años, siendo spre. su más humde. criado, y rend^o Cappn. Q.S.M.B. [Que Su Mano Besa].

Fr. Jph Ignacio de St^o D^{ngo}, y Echeverria

Nire Nagusi Jauna⁴³¹

Esan bezala, gaztelaniaz idatzitako gutun batzuetan euskarazko esaldiak eta paragrafo osoak tarte-katzearen arrazoia da euskara erabiltzen zela zenbait mezuren edukia balizko arerioen begiradatik ez-kutatzeke, hau da, mezuak enkriptatzeko bitarteko gisa. Horri gehitu behar zaio euskara ulertzeko gai ziren irakurleak oso gutxi zirela. Batzuetan, gainera, era guztietako neurriak hartzen zituzten, eta edukirik konprometituena ezezik, bidaltzaileen izenak ere ezkutatzeko zituzten. Hala ikus liteke 1771ean frai Jose Santo Domingo Etxeberriak Joseph Bentura Zubiaurreri Valladolidetik bidalitako gutunean⁴³².

...muchos dias hara, q.^e tenia fuertes deseos de saber de ti, no obstante q.^e tu estaras en el entender de q.^e anchinaco Pepe San Josepeco se habra ya olvidado de su amigo Jph Bentura; mui lejos de esto estoi desde aun antes de tomar el Santo Habito [...]. de todo me hago cargo, como q.^e p.^r esto quiero reconciliar la antigua adisquidetasuna, q.^e siempre nos habemos. En vista de esto no dejes de responder á esta en Bascuence, pero te advierto q.^e tu nombre y apellido lo pongas en renglon tirado, sin rubrica, ni señal alguna de finalizarse la carta y proseguiras la carta diciendo me algo de mi thia la Beata (en Bascuence todo) de modo q.^e el nombre de mi thia caiga al ultimo, como si fuera firma de la Carta.

Lo que tam.ⁿ te encargo es q.^e no dés à entender à nadie el q.^e ahias recibido esta (bada isillic dijoa): y en la respuesta pondras los renglones bien recogidos de modo q.^e puedas incluir todas las nobedades, y mudanzas de cosas de cosas que ha habido desde nros tpos, pues en particular no se nada, sino solo que ha habido muchas mudanzas, en general: deseo, y espero me deis ese gusto, pues ya ves lo mucho q.^e me tira ese n^{ro} Pais, y particularm.^{te} Eche orrec, y ninguno mas puedo con gusto contarte en hacerme este favor, sino tu, aunq.^e no fuera sino oroituaz elcarrequin jan degun oguiatz, y prescindiendo de esto, de otras muchas cosas q. entre los dos han pasado [...] à tu mas leal amigo, q.^e ha sido, y desea serlo ill-artean”

Agurrean berriro gogoratzen dio: “*cuidado de responderme en Basc.^{ee}...*

Eskutitzetan, gai delikatuak tratatzean diskrezioz jokatzeko, euskara erabiltzearen beste adibide bat Domingo Jose Olazabal Aranzateren gutun batekoa dugu. 1778ko udaberrikoa da, Jose Bentura eta Joaquin Zubiaurre jaunei bidalitakoa⁴³³, eta bertan, putazaleak izateagatik, garizuman bete behar duten penitentiaren berri ematen die burlaizez.

Señores economos

Capitanes de la Chacadela. He reciuido una mui apreciable del 13 del corr.^{te} por la que veo, quan obstinados quedan en la Doctrina Chaquesca, sin que el tiempo S.^{to} de la Quaresma haia podido impresionar algun poco de dolor de la enmienda de tanto descalabro como haze esa Escuela compuesta de Puteros, sin querer dejar de los Pobres Abadejos descansar un rato, y como es mi obligaz.ⁿ el de convertir a los corruptos en semejantes vicios, fue preciso luego q.^e reciui pasar ante este Señor Obispo con su carta a fin de lograr una absolucion general, y despues de var.^s disputas hize presente eran dos sugetos de unas circunstancias, de que aunq.^e hablaban mucho

acerca de la Chacadela, todabia no sabian lo que era, ni menos en los dias de su vida habian provado de semejante guiso, sino quando estaban guisando en una casa olerla desde lejos; asegurando Yo ser cierto lo que llebo dho sin visos de mentira. En estos terminos se modero algo dho Ylt.^{mo} y en la absoluz.ⁿ general que pronuncio, mandó las penitencias sig.^{tes}

En el primer lugar mando su Ylt.^{ma} q. dhos Puteros de aquí adelantes los dias festivos, que guarda la Yglesia vaian en Comunidad a las tres horas de la tarde a un aposento retirado de Cassa particular, y jueguen al Mus un rato como h.^{ta} las cinco, para cuio tiempo se tendra preuenida una buena merienda de varios manjar.^s y se abra la scena con un trago bueno de buen vino, y luego comenzaran a despachar cada uno su raz.ⁿ como lo haz.ⁿ en Arànzazu, sin que aia discordia entre dhos sino una union amistad y paz en sus hechos y detrás de cada bocado un baso de bino hasta la conclus.ⁿ (sin que deje de comprender al buen Ayta aita para conducir el licor) y acabada esta merienda esparcir un poco hacia la cocina (sino hai viento contrario por ella) y luego cantar un responso, y danzar h.^{ta} las diez y med.^a (sino cierran los Portereros ant.^s) Bajo de estas orden.^s y penitencias he podido conseguir (aunque con arto trabajo) la Absoluz.ⁿ assi esp.^o no faltaran en observar todo lo que llebo dho para dejarme deempeñado en mi pretez.ⁿ pues por servir am.^s he tenido q.^e correr estas Calles.

Jarraian Cádizeko bere etxearen ezaugarriez eta gerra-zurumurruez jarduten du eta lagunentzako agurrak ere gehitzen ditu; eta agurtu eta sinatu ondoren, euskarazko beste pasarte barregarri bat dakar, non gotzainaren absoluzioaren gaiari berriro heltzen dion eta txantxaren alderdirik gordinenak azpimarratzen dituen. Honela dio:

Chanton Garrote or viralduten duat absolucioa escazen dian vezela eta orain cumplitu nic esaten dedan gustia. Quirtenac ezpadau egon gura bere lecuban villatu soca sendo sendo bat, eta dei eguin lotuteco Jauierari beguira daguala Anzuola baña fistula, eta orrec esin sugetau badau ecarri empeñubategas Ynacichu Marquinacua, ta uien artian cer edo cer eguingo decuz.


Erri orretan aimbeste alterazen badec Quirten dichosori emengo emacumeac icusico balituque, preciso izango litzateque dozena bi gastecho desmaiatu ez zedin eusteco.

Adios nere Viozeco Canoniguba veste egun batera quino eta esperazen det acusatuco didala ya sugetacen dan Quirten ori bada bada ezpadira asco esan ditudanac emendic viralduco cietubagu Zaspi dozena.

Zuria beti

Chomin Dom^o

Sev.^a 25 de Abr.¹ de 78



Domingo Jose Olazabalek Jose Bentura eta Joaquin Zubiaurre jaunei idatzitako gutuna, 1778

Joseph Bentura Zubiaurre kaligrafoa eta maisua zen. 1775 eta 1798 bitartean, gutxienez, Errege Mintegiko Ekonomo kargua bete zuen, eta lehen hezkuntzako irakaslea ere izan zen erakunde horretan bertan. 1775ean Adiskideen Elkarteak Madrilerara bidali zuen “Palomares” kaligrafia metodoa ikastera, gero Bergaran ezarri ahal izateko⁴³⁴. Gutuna zuzentzen zion beste ekonomoa “Joaquin” da; ziur aski Joseph Benturaren anaia izango zen eta, horregatik ez da agertzen haren abizena. Domingo Jose Olazabal Aranzate (Irun, 1723 – Oñati, 1792) Irun aldeko handiki familia batekoa zen, aitaren aldetik Ramerytarrekin lotua. Oso ezkontza onuragarria egin zuen, 1756an, Maria Teresa Murgia Arbelaiz (Irun, 1730 - 1783) Valdespinako markesa alargunarekin ezkondu baitzen. Maria Teresa XVI. mendean sortutako Arbelaiztarren maiorazko garrantzitsuaren ondorengoa zen, zein

na azkenean konderri bihurtu baitzuen Olazabal-Murgia senar-emazteen birbilobak, Tirso Olazabal Lardizabalek. Domingo Jose Gipuzkoako Ahaldun Nagusia izan zen 1781 eta 1784 urteetan. Euskalerraren Adiskideen Elkarteko kide izendatu zuten 1775eko abenduaren 18an.

Testuari dagokionez, gogoratu behar da Chanton Garrote dela Peñafloidako Kondeak 1765ean Bergaran estreinatutako *El borracho burlado* “*ópera cómica en castellano y bascuence*” lanaren pertsonai nagusia. Peñafloidak “gizon baldar” gisa definitu zuen Chanton Garrote eta, trama, ezaguna denez, honetan datza: Chanton koitaduari sinetsaraztea markes bihurtu dela, eta ondoren ezustekoa ematea, edariaren biziotik sendatzeko. Gainerakoan, Olazabalek gaztelerazko gutuna “Chomin” izenez sinatzen du eta euskarazkoa, harrigarri bada ere, “Chomin Dom.o” gisa. Bigarren eskutitz hori euskaraz idaztearen arrazoiari dagokionez, ez dago guztiz argi; litekeena da egileak irakurle begiluzeek testuko lizunkeriak irakurtzea saihestu nahi izatea, nahiz eta horrek ez duen zentzu handirik, aurrez gaztelaniazko testuan agertzen baitira nahiko eskandalagarriak diren beste pasarte batzuk. Nolanahi ere, ez dirudi kasualitatea pasarte lizunak dituen testu hori euskaraz idaztea, esku desegokietan eroriz gero, ulertzea saihesteko.

Amaitzeko, euskarazko korrespondentzia enkriptatua erabili zen kasu baten berri emango dut, Bergaratik milaka kilometrotara gertatu bazen ere, gai honek nola funtzionatzen zuen ulertzeko egokia iruditu baitzaigu. Testuinguru militar eta politiko batean bidalitako euskarazko gutuna da. Egilea Xavier Mina izan zen, Mina Gaztea (Mina *el Mozo*) ezizenez ezaguna, bere osaba Francisco Espoz Minarengandik bereizteko. (Francisco) Xavier Mina Larrea (Otao, 1789-Pénjamo, Guanajuato, Mexico, 1817) Elortz haranean jaio zen, Agoitze-ko merindadean. Elortz gaur egun “eremu ez-euskalduntzat” jotzen da, baina, XVIII. mendearen



Palomaresen "Arte de escribir"en 11. plantxa

amaieran eskualde hartako biztanleak euskal hiztunak izateaz gain, gehienak euskaldun elebarrak ziren. Minak, berriz, badirudi hainbat hizkuntza zekizkiela: ingelesez, frantsesez, gaztelaniaz eta baita euskaraz ere, bere ama-hizkuntza baitzen. Gerra napoleonikoan gerrillari gisa borrokatu ondoren, Mina, Fernando VII.aren erregimen absolutistarekin etsita, haren aurka konspiratu eta Ingalaterrara erbesteratu zen. Londrestik prestatu zen Mina buru zela Mexikora egindako espedizioa; Ingalaterrako, Irlandako eta Espainiako 300 bat soldaduz osatua; horietatik asko nafarrak, Minaren jarraitzaile leialak. Haien artean zegoen Pablo Erdozain, urroztarra, Minaren konfiantzazko gizona eta bera bezain

euskalduna. Espedizio independentista 1817ko apirilaren 25ean lehorreratu zen Tamaulipaseko kostaldean. Erregearen aldekoen aurkako hainbat ekintza militarretan garaile izan ondoren, urte berreko urrian, Mina lo zegoela harrapatu eta atxilotu egin zuten, eta 1817ko azaroaren 11n fusilatu zuten.

Exekuzioa atzeratzeko zenbait mugimendu izan ziren, besteak beste, Minak Pascual de Liñani bidalitako gutun bat, hura baitzen errege-indarretako mariskal jenerala eta komandanteburua. Mina atxilotuta zuten unean, espedizioko gainerako indarrak "Los Remedios" izeneko postuan zeuden, Pablo Erdozainen agindupean. Bada, Liñanek ordezkari bat bidali zuen hara eskaintza batekin: amore ematen zutenei indultua emango ziela. Ordezkariek, Minaren beraren ohar bat ere bazerman, eskaintza hori onartzea aholkatzen zuena. Ohar horren eragina zeharo etsigarria izan zen tropen artean. Baina Liñanekin batera joan zen taldean korneta nafar bat zegoen, Minarekin batera Penintsulan borrokan aritutakoa eta, beraz, haren konfiantza osokoa, eta hark beste gutun bat zerman, euskaraz idatzia eta Pablo Erdozaini berari zuzendutakoa, eta bertan borrokalariei dei egiten zitzaientzen borrokan jarraitzeko eta, beharrezkoa izanez gero, independentziaren alde hiltzeko prest egoteko. Erdozainek bere tropei Minaren ohar sekretuaren edukia irakurri zienean, izugarritzko poza sortu zen soldaduen artean⁴³⁵ eta, jakina, Minak euskarazko gutunean proposatutakoa betetzea erabaki zuten. Erdozainek gerra amaitzea eta Mexikoren independentzian laguntzea lortu zuen, eta gaur egun independentziaren bultzatzaile nagusietako bat izatea aitortzen zaio. Mexiko hirian hil zen, 1847an.

Merezi du aipamen txiki bat egitea bi gutunen patuaz. Xavier Minaren atxilotetari eta exekuzioari buruzko dokumentazio guztia gorde zen, eta gainera, berehala argitaratu zen *Gaceta de México*-n,

1817ko abenduaren 16an. Baina, Minaren euskarazko gutuna ez da agertzen, eta haren gaineko zeharkako lekukotasunak baino ez ditugu. Funtsezkoena W. D. Robinsonena da eta honela dio:

We further know, the subsequent to his capture, he wrote a letter to his countryman, Don Pablo Erdozain, who commanded at the work of Tepeaca, in which letter in the provincial dialect of Navarre, he gives some instructions about his own private affairs, and concludes by wishing Erdozain success, and exhorting him to pursue a conduct marked by honor and consistency. We have thought proper to mention these circumstances, in order to counteract any erroneous impression that may have been made by the publication before alluded to in the Mexican Gazette⁴³⁶.

Badirudi oharraren testua luzea zela; eta espediziokideak borrokara bultzatzeaz gain, jeneralaren arazo partikularrei buruzko beste gogoeta batzuk ere egiten zituela. Agian “*letter in the provincial dialect of Navarre*” gutun hau Mexikoko edo Ipar Amerikako artxiboren batean galduta egongo da?

William Davis Robinson (Washington, AEB,[?] - Caracas, Venezuela, c. 1823), merkatari iparramerikarra zen, eta ia ziur Estatu Batuen agente gisa egingo zuen lan. Espainiako Koroaren aurkako borroka independentistan aktiboki parte hartu zuen. Mexikoko matxinadari buruzko lehen liburua argitaratu zuen: *Memoirs of the Mexican Revolution* (Filadelfia, 1819). Liburuak oso leku zabala eskaini zion Minaren espedizioari; praktikan ia testu osoa Minaren kanpainei buruzkoa da. Liburuak bigarren edizio bat izan zuen Londresen 1821ean (nik erabili dudana) eta hirugarren bat gaztelaniaz 1824an⁴³⁷. Iraultzaren historialari onenetako asko testu horretan oinarritu ziren. Robinsonek berak bere esperientzia pertsonalez gain, tokian bertan bildutako dokumentazioa ere erabili zuen, baina guk aztergai dugun Minaren espedizioari buruzko informazioaren zati handi bat, Estatu Batuetako gobernuko beste agente batek eman zion, Winsfield Scottek. Scott James Monroe 1816 eta 1825 bitartean Estatu Batuetako presidente izango zenaren konfiantzazko gizona zen eta 1815ean ezagutu zuen Mina Londresen, eta badirudi hark Mexikora egindako espedizioaren antolaketan zerikusi handia izan zuela⁴³⁸.

Ematen du XIX. mendeak aurrera egin ahala, zenbait giro euskaltzaletan euskarazko korrespondentzia orokortzen hasi zela. Aipatzekoa da, adibidez, Jose Pablo Ulibarri Galindezen (Okondo, 1775 – Abando, 1847) gutuneria. Bergaran ez da gutun askorik gorde, baina, adibide gisa, bada oso interesgarria den bat: 1861eko otsailean Manuel Imaz inprimatzaileak, Manuel Antonio Imaz Garaialde Altzoko bertsolariari zuzendu ziona. Ez dirudi ahaideak zirenik, nahiz eta izen-abizen berdinak zituzten. Eskutitzean inprimatzaileak “*adisquide tocayo*” tratamendua darabil. Gutunak zehazki dio:

Vergaran ozahillaren 4, 1861n.

Nere adisquide tocayo: contestatzen diot zure azqueneco cartari esaten dizudala ecic nola moldizquidatu ditudan versoac bi milla, ta orain contestatu guidazu cembat dan zure originalaren saria, cergatik ecen ichuac esandit, pocic pagatuco dizula oguei erreal copia bacoitzagatic, eta orregatic da ona zuc escribitzea letr oei cer dan zure baimena cerren cobratu deguiodan berari; eta bidaltzen dizut verso oyetatic bat zure

servicioraco moldizquidaturic, bada naiz zure adisquide tocayo servitzeco bear nazun gai gucietan.

Manuel Imaz⁴³⁹

Manuel Antonio bertsolari ospetsua zen eta bertso-jartzaile lanak ere egin zituen. Dakigunez, jada hamarkada batzuk lehenagotik oso ohikoa zen bertsoak eskuorri solteetan argitaratzea: bertso-paperetan, alegia. Gipuzkoako argitalpen-industriak nahiko modu masiboan ekin zion horrelako konposizioak plazaratzeari, eskari handia zegoelako eta irteera komertzial ona zutelako. Izan ere, garai hartan jende arruntak euskaraz irakurtzen zituen testuak, batez ere, liburuxka deboziozkoak eta bertso-paperak izaten ziren. Inprimatzaile bergararrak bertsolariari bidaltzen dion gutuna, hain zuzen, bertso-paper bakoitzaren prezioa ezartzeko da: “oguei erreal copia bacoitzagatic”

IV.4 - **Zer irakurtzen zen euskaraz?**

Oso gauza gutxi. Ez da irudimen handirik behar pentsatzeko, garai hartan Bergarak zituen analfabetismo portzentaje altuak ikusita, irakurle potentzialen kopurua (edozein hizkuntzatan) oso baxua izango zela. Gainera, badakigu eskolara joan eta irakurtzen eta idazten ikasten zuten askok, gero, bizitzan zehar, ez zutela sekula ikasitakoa erabiltzen, eta praktikan, analfabeto funtzionalak zirela. Lan honetan bertan aipatu dugu kasuren bat non, dokumentua sinatzeko ordua iritsita, adierazpen egileak alegatzen baitzuen ezin zuela sinatu, bere garaian irakurtzen eta idazten ikasi bazuen ere, erabilera faltagatik, ahaztu egin zitzaiolako. Ezin dugu esan zenbat izango ziren noizbait irakurtzen ikasi zuten baina praktikan analfabeto funtzionalak ziren horiek, baina susmo sendoa dugu ez zirela gutxi-gutxi izango.

Bestalde, euskaraz idatzitako liburuak lortzea oso zaila zen, hainbat arrazoiengatik: alde batetik, liburuak oro har, garestiak eta urriak zirelako, ez baitzegoen liburuak eskuratzeko liburu-dendarik (ez zegoen liburuak soilik saltzen zituen dendarik Bergaran, kontuan hartzen ari garen aldi historikoan) eta bestalde, euskal liburuen kasuan oso gutxi argitaratzen zirelako.

Badugu 1545etik 1799ra bitarteko euskarazko liburugintzaren azterketa bat, Ibon Sarasolak egina⁴⁴⁰. Sarasolaren arabera, itzulpenak eta berrargitalpenak kontuan hartuta, 1545 eta 1599 artean, hiru lan baino ez ziren argitaratu; 1600 eta 1699 artean, 36; 1700 eta 1799 artean, 137. Beraz, guztira, 176 lan argitaratu ziren aldi osoan, horietatik gehien-gehienak (% 98 inguru) erlijio-gaietakoak. Orohar, bi lan-mota bereiz daitezke: alde batetik, asmo literarioa edo filosofikoa zutenak, eta bestetik, debozio-liburuxkak, batez ere katiximak. Lehen multzoari dagokionez, Bernat Etxepare, Joannes Leizarraga, Pedro Axular, Joanes Etxeberri biak (Ziburukoa eta Sarakoa), Arnaud Oihenart, Juan Tartas, Silvain Povreau, Martin Harriet, Agustin Kardaberaz, Sebastian Mendiburu eta abar gogoratu behar ditugu. XIX. mendeko trantsizioan, aldaketa garrantzitsu bat gertatu zen: nahiz eta oraindik ere liburu asko erlijio-gaiei buruzkoak ziren, gero eta gehiago ziren gai laikoei buruzko lanak argitaratzen zituzten egileak ere, hala nola, Juan Ignacio Iztueta, Juan Antonio Mogel eta abar. Hala ere, bereziki interesatzen zaizkigunak bigarren multzoko liburuak dira: katiximak. Gogoratu behar da lehen hezkuntzan euskaraz ematen zen ikasgai bakarra kristau dotrina zela, eta badakigu jende askok euskaraz inprimatutako testuekin izan zuen

kontaktu bakarra, hain zuzen ere, katiximen bidezkoa izan zela. Euskalki guztietan izan ziren katiximen edizio ugari. Aipagarriak dira honako egile guztion katiximak: Juan Beriain, Juan Perez Betolaza, Martin Otxoa Kapanaga, Graciano Arostegi, Jose Otxoa Arin, Martin Arzadun, Nicolas Zubia, Juan Irazusta, Francisco Xabier Lariz, Bartolome Olaetxea, Francisco Antonio Agerre, Francisco Elizalde, Agustin Kardaberaz, Sebastian Mendiburu, Pedro Antonio Añibarro, Juan Kruz Renteria eta abarrenak. Kontuan izan behar dugu, horiek zirela euskal etxeetan maizen aurkitzen ziren euskarazko lanak.

Gogoeta pare bat egin nahi genuke Gipuzkoako partikularren liburutegiei buruz (komentuetako liburutegi handiak alde batera lagata). Oro har, liburu-jabetzaren indizea ez da batere altua. Ehuneko hori neurtzeko, notario-protokoloetako ondasun-inbentarioen laginak hartzen dira kontuan, eta haietan libururen bat jasota duten kasuak zenbatzen dira. Oro har, Europa iparraldeko eta erdialdeko liburu-jabetzaren ehunekoak oso altuak dira, batez ere hiriguneetan: XVIII. mendearen erdialdean, adibidez, Frankfurten, % 87koa zen eta Rennesen garai berean % 57koa. Europako hegoaldean ordea, askoz ere portzentaje txikiagoak zituzten; Piacenzan, esaterako, XVIII. mendean, % 19,3koa. Gipuzkoa erdibidean egongo zatekeen; izan ere, 1675-1849 aldian aztertutako inbentarioen % 27,5ean agertzen ziren liburutegiak⁴⁴¹. Hori bai, liburutegi horien tamaina oso txikia zen: % 40k 1 eta 25 liburu artean zituen⁴⁴². Bestalde, lan horiek nagusiki gaztelaniaz (% 67,3), latinez (% 22,5) eta frantsesez (% 8,4) zeuden. Euskararen presentzia, berriz, oso apala zen: jasotako tituluen % 1 baino ez⁴⁴³. Bergarako liburutegiek Gipuzkoako joera berari jarraitzen zioten, salbuespen bakar batekin: Santa Marinako parrokoaren liburutegi bikaina, hainbeste aldiz aipatutako Rafael Garitano-Aldaeta jaunarena.

XVII. mende amaieratik XIX. mende hasierara bitarteko inbentarioetan Gipuzkoan aurkitutako liburutegi partikular horien jabeak elizgizonak ziren, batez ere: jabe guztien % 51⁴⁴⁴. Jarraian, beste multzo bat zegoen aberatsek, errentatzaileek eta jabe handiek osatutakoa —gehien-gehienak maiorazko-etxe nagusietako etxagunak—, % 27arekin. Ondoren teknikariak eta profesionalak zeuden (medikuak, abokatuak, botikariak, zirujauak eta abar), % 13,3rekin; eta militarrek, % 6,1ekin. Beste % 2,1 dendariak, merkatariek edo eskribauek osatzen zuten; eta lagin osoan nekazari bakarra ageri zen (jabe guztien % 0,5).

Bergarari dagokionez, 1680tik 1835era bitarteko inbentarioen lagin bat aztertu dugu eta bertan agertzen diren liburutegiak aukeratu ditugu eta begiratu dugu ea euskarazko libururik zuten (**XV. Taula**).

**XV. Taula. Partikularren liburutegiak (lanbide motaka)
Bergaran eta euskarazko liburuen presentzia, 1680-1835**

Izena	Data	Signatura	Lanbidea	Euskal liburuak	Liburu kop.
Juan Saloguen	1680/8/27	Irargi,(Altzibar-Jauregi etxeko artxibategia), leg. 11	Abokatua	Ez	519
Juan Beltran Ozaeta Gallastegi eta Andres Perez Laudans	1681/10/6	BUA, 01 C/0236-015	Doktorea, legelaria, katedraduna Oñatiko Unibertsitatean	Ez	291
Thomas Alaiza	1694/9/28	GPAH, 1/0378, 242-248 f.	Apaiza	Ez	69
Joseph Jauregi Salazar	1710/3/21	GPAH, 1/0448, 139-154 f.	Etxaldeduna	Ez	3
Manuel Urdangarin	1718/7/5	GPAH, 1/0505, 101-144 f.	Kontu-hartzaile	Ez	31
Juan Antonio Rekalde Plaza	1718/12/6	GPAH, 1/0505, 224-253 f.	Etxaldeduna	Ez	7
Prudencio Agirre	1722/11/5	GPAH, 1/0509, 302-322 f.	Apaiza	Ez	49
Bernardo Iruin	1724/9/15	GPAH, 1/0512, 273-283 f.	Apaiza	Ez	62
Martin Carlos Elkorobarrutia Zupide	1726/8/30	GPAH, 1/0514, 351-369 f.	Apaiza	Ez	172
Antonio Orobio Bazterra	1728/7/18	GPAH, 1/0516, 228-242 f.	Etxaldeduna	Ez	33
Ignacio Xabier Arteatx	1729/11/2	GPAH, 1/0517, 561-563 f.	Apaiza	Ez	61
Joseph Ignacio Ozaeta Murua	1730/2/13	GPAH, 1/0518, 152-191 f.	Etxaldeduna	Ez	35
Manuel Ugarte	1731/4/4	GPAH, 1/0496, 289-320 f.	Apaiza	Ez	203
Josefa Argizain Mallea	1737/9/23	BUA, 01 C/0009-328. Iturbe Eulate funtsa	Etxaldeduna	Ez	49
Francisco Olaegi	1740/12/22	GPAH, 1/0582, 411-413 f.	Zirujaua	?	"nire ofizioko liburuak"
Esteban Ignacio Baron Gerendian	1763/12/13	GPAH, 1/0598, 208-219 f.	Botikaria	Bai (1)	199
Santiago Martinez	1764/8/30	GPAH, 1/0617, 468-500 f.	Botikaria	Ez	15
Miguel Ignacio Olaso Mendizabal	1769/5/20	Irargi (Zabala etxeko artxibategia) 596.27	Etxaldeduna	Ez	56
Miguel Jose Olaso	1773	Irargi (Zabala etxeko artxibategia) 559.9	Etxaldeduna	Ez	167
Manuel Antonio Ozaeta	1776/11/23	Irargi (Ozaeta Etxeko artxibategia), leg. 2, 101 zk.	Apaiza	Ez	3
Manuel Ignacio Eulate Iturbe	1776/8/29	BUA, 01 C/0489-017	Apaiza	Bai (1)	283

Izena	Data	Signatura	Lanbidea	Euskal liburuak	Liburu kop.
Manuel Ignacio Elgoro eta Maria Teresa Madariaga	1779/12/19	GPAH, 1/0646, 373-414 f.	Etxaldeduna	Bai (2) Cardaberaz Mendiburu	76
Rafael Garitano-Aldaeta	1785/1/18	BUA, 01 C/0239-008	Apaiza	Bai (16)	636
Manuel Urizar	1801/3/16	BUA, 01 C/0434-010	Hiribilduko diruzaina	Ez	39
Juan Castro	1816/1/8	BUA, 01 C/0567-017	Seminarioko dantza irakaslea	?	Liburuak
Manuel M ^a Gaytan de Ayala	1820/7/26	GPAH, 1/0698, 311-336 f.	Kondea	Ez	63
Alexo de Miranda	1821/3/9	BUA, 01 C/0327-012	Arkitektoa	Ez	71
Mariano de Fano	1828/2/23	GPAH, 1/0707, 438-447 f.	Merkataria?	Ez	15
Angela Gregoria Mendizabal	1835/7/6	BUA, 01 C/0246-009	Dendaria (mertzeria)	Bai (32)	77
Liburu kopurua					3.284
Batezbesteko tamaina					113,2

Laginean lortutako datuetatik ondoriozta daitekeenez, Bergarako liburutegien batezbesteko tamaina 113,2 liburukoa zen, eta horrek Gipuzkoako batez bestekoa gainditzen zuen. Nolanahi ere, kopuru hori, neurri handi batean, Rafael Garitano-Aldaeta eta Juan Saluguen jaunek zituzten liburu ugariei zor zaie. Aipagarria da, halaber, dokumentatu diren 27 liburutegietatik 8k 150 liburu baino gehiago zituztela eta hori ezohikoa zela garai hartan. Beraz, ondoriozta daiteke Bergarako liburutegiak Gipuzkoako beste herri batzuetakoak baino oparoagoak zirela.

Gaiari dagokionez, aipagarria da lanbide jakin batzuei (abokatuei, zirujauai, botikariei, arkitektoei...) lotutako liburutegi "profesionalen" ugaritasuna. Asko dira, halaber, espiritu ilustratuaren eraginpeko liburu zientifiko, filosofiko edo literario laikoak ere. Hala ere, garai historiko honi dagokion bezala, liburutegi gehienak elizgizonenak eta etxalde-jabeenak ziren, alegia, liburutegi "liturgiko" eta "patrizio" gisa izenda genitzakeenak.

Laginean jasotako 66 inbentarioetatik 37k ez dute libururik eta 29k bai; hau da, Bergaran jabetza-indizea oso altua izango litzateke: % 43,9koa, Europa erdialdeko eta iparraldeko hirien parekoa eta Gipuzkoako batez bestekoa (% 27,5) baino askoz ere altuagoa. Zalantzarik gabe, herriaren izaera urbanoak eta Jesusen Lagundiaren eta Errege Mintegiaren presentziak kultur giro egokia sortu zuten, bereziki, XVIII. mendean, eta horrek liburutegi partikularrak sortzea eragin zuen, Euskal Herriko beste leku batzuetan baino askoz neurri handiagoan. Konparazio batera, Fernando Mikelarenaren lan batean agertzen diren datuen arabera, Tuterako Erriberako liburu-jabetzaren indizeak oso baxuak ziren: % 7,8koak. Bada, Tuteran ere bazen Elkarte Ekonomiko bat, "*Real Sociedad Tudelana de los Deseos del Bien Público*" izenekoak, 1777tik 1792ra funtzionatu zuena eta ondoren Iruñera lekualdatu zena⁴⁴⁵. Baina, jakina, nahiz eta Tuterako hirigunean liburu-jabetzaren indizeak altuagoak izan, Erribera osoko landa-ingurunea bakarrik



kontuan hartzen badugu, indize horiek nabarmen jaisten dira⁴⁴⁶. Tuteraren eragin urbanoa bazegoen arren, nekazal munduak ez zuen apenas libururik ezagutzen. Aitzitik, XVIII. mendeko Kataluniako hirietan liburu-jabetzaren portzentajeak Bergarakoen antzekoagoak ziren: % 35,3 Gironan eta % 33,1 Bartzelonan⁴⁴⁷.

Interesgarria iruditzen zaigu Gipuzkoa osoko eta Bergarako liburutegi partikularren jabe-profilak konparatzea (XVI. taula). Oso deigarria da Bergarako elizgizonen liburutegien kopuru txikia, garaiko Europa katolikoan eta baita Gipuzkoan ere ohikoa zenarekin alderatuta. Aldiz, nabarmena da profesionalen —abokatuen, zirujauen, botikarien, eta abarren— liburutegien proportzio handia.

XVI. Taula. Liburutegi jabeen ehunekoak, lanbide motak, Gipuzkoan eta Bergaran		
Lanbide motak	Gipuzkoa %	Bergara %
Apaizak	51,0	31,0
Haziendadunak, Jabeak	27,0	31,0
Profesionalak	10,7	31,0
Militarrak	6,1	0,0
Merkatariak, dendariak	3,6	6,9
Eskribauak	1,0	0,0
Baserritarrak	0,5	0,0

Bergarako liburutegiek, oro har, gipuzkoarren eredu berari jarraitzen diote, baina azpimarratzekoa da, alde batetik, liburu gehiago dutela eta, bestetik, kalitatez edo kantitatez bikainak diren liburutegiak ere gehiago direla. Era berean, kultura ilustratuaren eragina azpimarratu behar da, XVIII. mendearen bigarren erdiko Bergarako liburutegietan kultura horri lotutako titulu zientifiko eta filosofikoen presentzia ohikoa baino askoz altuagoa baitzen.

Zalantzarik gabe, hauteman dugun liburutegirik interesgarriena, batez ere euskarazko liburuen jabetzari dagokionez, On Rafael Garitano-Aldaeta Santa Marinako maixuarena da. Garitanok 1.016 liburuki zituen 636 tituluri zegozkienak. Garai hartarako neurritz kanpoko liburu kopurua zen hori, izan ere, bere liburutegia Gipuzkoako liburutegi pribatuen batez besteko tamaina baino bederatzi aldiz handiagoa zen. Bere liburuen ia % 60 erlijiosoak ziren, baina humanitateei, zuzenbideari, literaturari, historiari, zientziei eta abarrei buruzko liburu-kopuru esanguratsua ere bazuen. Liburuen % 2,5 euskaraz idatzita zeuden, eta hori gutxi da liburutegiaren bolumen osoa kontuan hartzen badugu, baina asko kontuan hartzen badugu merkaturatutako euskarazko tituluaren eskaintza oso urria zela. Argi dago Garitano arduratu zela (Ramon Ignacio Zumaeta Baionan zuen agentearen bitartez) euskal titulu oro eskuratzeaz. Liburu horietako batzuen bi ale zituen, eta, guztira, euskaraz idatzitako hamalau izenburu ezberdin zeuzkan: Bernard Larreguy, *Testament Çaharreco eta Berrico Historia* (1775-1777), bi liburuki; Mixel Xurio, *Jesu-Christoren imitacionea* (1760); Joannes Haraneder, *Gudu izpirituala* (1750); Joannes Haraneder, *Philotea edo debocioneraco bide erakusçaillea* (1749); Bayonaco *Diocesaco bigarren Catichima* (1733); aurrekoaren kopia; *Exercicio spirituala*; Joseph Otxoa Arin, *Doctrina Christianaren Explicacioa* (1713); Martin



Manuel Larramendiren, *Diccionario trilingue* - Joanes Etxeberriren *Noelac* - Joseph Otxoa Arinen *Doctrina Christauaren explicacioa*

Harriet, *Gramatica Escuaraz eta franceses* (1741); Jean Tartas, *Onsa hilceko bidia* (1666); Joannes Etxeberri [Ziburukoa], *Noelac eta berce canta espiritual berriac* (1630); Piarres Axular, *Gueroco guero* (1643, 1711?); aurekoaren kopia; Agustin Kardaberaz, *Jesus, Maria ta Joserren devocioa* (1766); Sebastian Mendiburu, *Jesusen amore-nequeei dagozten cembait otoizagai* (1760), hiru ale eta Manuel Larramendi, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latin* (1745)⁴⁴⁸. Logikoa denez, Garitanoren euskal liburutegiak bere garaiko errealitate editoriala islatzen zuen: Iparraldeko egileen presentzia ugaria zen, eta, jakina, ezin zen falta Larramendik, Kardaberazek eta Mendiburuk osatutako garaiko jesuita-triunbiratuaren ekarpena.

Liburutegi patrizioen artean, aipagarria da Miguel Ignacio Olaso Ulibarrirena. Gazterik zendu zen, 30 urte besterik ez zituela, baina horrek ez zion eragotzi garaiko izpiritu ilustratuarekin guztiz lerrokatutako liburu-bilduma oparoa osatzea. Bere aita —Miguel Jose Olaso Zumalabe—, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen sortzaileetako bat izan zen, eta Miguel Ignacio bera ere elkartekidea izan zen. Olasoren liburutegiko liburu gehienak zientifikoak ziren, baina klasikoak, historiakoak eta literaturakoak ere bazituen. Erljio-liburuak, ordea, urri ziren. Frantsesez idatzitako tituluak ziren nagusi⁴⁴⁹.

Profesionalen liburutegien artean, Juan Saloguen abokatuarena nabarmendu behar da. Saloguenen aita ere, —semearen izen berekoa— abokatua izan zen (lizentziatu gisa agertzen da), eta 1613an, gutxienez, Bergarako alkate izan zen. Bergarako leinu garrantzitsu horretako XVII. mendeko kideen artean, bere osaba Pedro Saloguen aipatu beharko genuke, hainbat aldiz Bergarako alkate izan zena. 1651n egindako testamentuan Pedrok aitortzen du Olazabal, Lizarralde eta Larrañaga baserriak erosi zituela, eta bere ondasun guztiekin batera jabetza-lotura eta maiorazkoa sortu zuela, zeinaren lehen titularra bere


alaba Ana izango zen. Bada, Juan Saloguen semeak, bere garairako apartekoa zen liburutegi bat bildu zuen, Garitano-Aldaetarenarekin parekatzeko modukoa. Hil zenean, 1680an, 519 obra zituen 671 liburukitan, gehienak gai juridikoei buruzkoak. Halako liburutegi oparoa izatea, neurri batean, bere aitak, Saloguen lizentziatuak, oinordetzan utzitako liburuengatik izango zen. Liburu guztiak gaztelaniaz edo latinez idatzita zeuden⁴⁵⁰.

Gai juridikoei buruzko beste liburutegi handi bat Juan Beltran Ozaetarena da. Bere ale kopuru handiaren arrazoia Saloguenen kasuaren antzekoa da, izan ere, Ozaetaren ondasunak bere aitaginarreba Andres Perez Laudansenekin batera inbentariatu ziren eta hark utzitako liburu asko jaso zituen oinordetzan. Liburutegi metakorrak dira, euren ondare preziatua belaunez belaun transmititzen duten profesionalen liburuekin, eta oinordekoek erositako ale berriekin hornitzen direnak. Ozaetak ere ez zuen euskarazko libururik.

Beste liburutegi garrantzitsu bat, izaera tekniko nabarmenekoa, Alexo de Miranda arkitekto ilustratua da (Lizarra, 1760-Bergara, 1821). Ahalorde bidez (*“por poderes”*) ezkondu zen Maria Antonia Urizar bergararrarekin. Beste hainbat lanen artean, 1788an Santa Marina eliza egiteko ardura hartu zuen. Gerora, Pedro Maria Ugartemendiarekin aritu zen lanean, 1813ko sutearen ondoren Donostiako hirigunea berreraikitzen. Hil ondoren egindako ondasunen inbentarioari esker, jakin dezakegu nolakoa zen bere liburutegi oparoa⁴⁵¹. Liburuak tasatzeko lana Miguel Antonio Jauregik eta Antonio Ramon Azkaratek egin zuten: lehena, Maisu Arkitektoa, Errege Mintegiko Marrazketa Eskolako irakaslea; bigarrena, Matematikako irakaslea seminarioan bertan. Mirandaren liburutegiak 71 izenburu eta 134 liburuki zituen. Liburuen % 59 arkitekturari, zientziei, ingeniariari eta eraikuntzari buruzkoak ziren, hau da, bere lanbidearekin lotutakoak. Beste % 20 Historiakoak, Geografiakoak, Politikakoak, Zuzenbidekoak eta Literaturakoak ziren, eta erlijio-liburuak, berriz, apenas iristen ziren % 15era. Liburuen hizkuntzari dagokionez, bi heren gaztelaniazkoak ziren, laurden bat frantsesezkoa eta % 5 italierazkoa. Euskarazko libururik ez zuen. Autoreei dagokienez, oso nabarmena da egile ilustratuen eta erreformisten presentzia: Voltaire, Valentín Foronda, Sancho de Moncada, Jose Agustin Ibañez de la Rentería, Félix Maria de Samaniego, Antonio Ponz, Jean de la Fontaine, Antonio de Capmany, Juan Sempere y Guarinos, eta baita Diderot eta D’Alemberten *Encyclopédie* ere.

Begarako osasun-arloko profesionalen artean oso ohikoa zen medikuek, botikariek eta zirujauak euren lanbideko liburuekin osatutako liburutegi xume bat izatea. Gehienetan gaztelaniazko liburuak izaten ziren eta noizean behin latinezkoak ere bai. Horren adibide dira Francisco Otaegi zirujauaren liburutegia, 1740koa, edo Antonio Orobio Basterra medikuarena, zeinak, 1727an hil zenean, 36 tituluz osatutako liburutegia utzi baitzuen⁴⁵².

Begarako botikarien liburutegien artean Esteban Ignacio Baron Gerendiainena ezagutzen dugu. Gerendiainek 300 liburu baino gehiago zituen, erdiak erlijiozkoak, eta gainera klasiko ugari ere bazituen: Zizeron, Ovidio, Virgilio... Horrek liburutegi patrizioen eredura hurbiltzen zuen berea, eta liburu zientifiko hornitutako osasun-teknikarien liburutegietatik urrundu. Nabarmentzekoa da Gerendiainek Martin Arzadunen euskal katixima zuela⁴⁵³. Arzadunen katixima hainbat aldiz berrargitaratu zen (1819,



Martin Arzadunen katixima




Agustin Kardaberazen Aita San Ignacio
Loyolacoaren Egercicioac

1838, 1758), eta litekeena da Gerendiainek lehenengo edizioetako bat izatea: 1731n Gasteizen argitaratua, Bartolome Riesgorena, edo 1758koa, Iruñekoa, Martin Joseph Radarena.

Euskarazko liburuak zituzten Bergarako liburutegien artean, aipatzekoa da, halaber, Manuel Ignacio Elkoro (1708-1778) eta Maria Teresa Madariaga senar-emazteena. Haien ondasunen inbentarioa 1779an egin zen, biak aurreko urtean hil baitziren, abenduan eta maiatzetan, hurrenez hurren⁴⁵⁴. Inbentariatutako liburutegiak 76 liburu zituen 105 liburukitan, eta haietan honako hauek aipatzen dira: “*Cardaveras, dos tomos*” eta “*Mendiburu, dos tomos*”. Zoritxarrez, eskribauak ez zituen jaso lanen izenburu zehatzak. Hala ere, badakigu Agustin Kardaberazek argitaratutako lanen artean bakarra izan zela liburuki bat baino gehiago —zehazki lau— izan zituena: *Aita S. Ignacio Loyolacoaren Egercicioac, bere consideracio ta afectoaquin* (Iruñea, 1761). Horregatik, pentsa liteke Elkoro-Madariagatarren liburutegian zegoen obra hori izango zela. Beste horrenbeste esan daiteke Sebastian Mendibururen obrari buruz. Haren lanen artean, liburuki anitzetan argitaratu zen bakarra hauxe izan zen: *Jesusen amore-nequeei dagozten, cembait otoitz-gai / Jesusen Compañiaco A. Sebastian Mendiburuc eguinac*, Iruñeco: Libru-guille Antonio Castilpa-ren [sic, Castilla behar du izan] Echean, 1760. Bi edizio izan zituen: bata, hamaika liburuki



Sebastian Mendibururen *Jesusen Amore-nequeei*



Juan Antonio de Ubillosen *Christau doctriñ*

txikitan; bestea, tamaina handiagoko hirutan. Hortaz, Mendibururen bi liburuki baldin bazituen, lan horrenak izan behar zuten.

Gipuzkoako liburutegietan (eta, dirudienez, baita Bergarakoetan ere) egoera nahiko arrunta da, euskarazko liburu gehiago eduki ez arren, gutxienez Larramendiren hiztegi hirueleduna (*Diccionario trilingüe del castellano, bascuence, latín*, 1745) edukitzea, lortu zuen zabalkundeak eraginda. Manuel Ignacio Eulate apaizaren kasua da. Liburuak irakurtzeko hiztegirik behar ez bazuen, zertarako erabiltzen zuen? Sermoiak prestatzeko, agian?

Angela Gregoria Mendizabal andrearen liburuen inbentarioa oso kasu berezia eta interesgarria da. Izan ere, ez da liburutegi pribatu baten inbentario arrunta, baizik eta emakume horrek bere dendan (mertzerian) salgai zituen jeneroen parte batena. Mendizabalek horrelako dendetan ohikoak diren salgaiak zituen: botoiak, orratzak, lokarriak, zapiak, abarketak, oihalak, inbutuak, txoperak, hariak eta abar. Baina,

horretaz gain, liburuak eta paper-gaiak (kuadernotxoak, kartillak eta abar) ere saltzen zituen. Nolanahi ere, ez ziren edozein motatako liburuak izaten, klase-herrikoiei interesatzen zitzaizkienak baizik: katiximak, debozio-liburuxkak eta antzekoak. Eta, zehazki, Angela hil zenean, honako liburu hauek zeuden dendan, saltzeko prest:

Dos libros en pasta de San Ignacio en Bascuence
Un arte de Nebrija en rústica
Un libro de doctrina de Fleury en Bascuence
Dos libros de San Ignacio en Bascuence
Ocho libritos de Novenas de San Antonio
Once libritos de Novenas de San José
Diez y siete libritos de Via Crucis en bascuence
Treinta y cinco libritos de Via Crucis en Castellano⁴⁵⁵

Hau da, salgai zituen 77 aleetatik 32, % 42, euskaraz idatzita zeuden. Izenburuei dagokienez, berriz, zortzi lanetatik lau, erdia, euskarazkoak ziren. Nabarmenezkoa da liburu baten, *Gurutze bidearen*, gaztelaniazko eta euskarazko edizioak zeudela, eta gaztelaniazko ale-kopurua ia bikoitza zela. Zein izango zen horren arrazoa: gaztelaniazko liburuek euskarazkoek baino irteera handiagoa izatea? Ala, alderantziz, euskarazko ale gehiago saldu izana? Edonola ere, dendako liburu-zerrenda horrek argi erakusten digu zein liburu mota zuten gogoko klase herrikoiek: bederatziurrenak, ariketa espiritualak, katiximak...

Zalantzarik gabe, “de San Ignacio en Bascuence” izenarekin ageri diren liburu horiek Agustin Karda-berazek San Inazioaren “Ejercicios Espirituales” lanaz egindako euskarazko bertsioarenak izango dira⁴⁵⁶. Dirudienez, dendariak obra horren bi edizio ezberdin zituen: bat, arrunta; eta bestea azal gogorrekoa. Ikusi dugu, lan hau Elkoro/Madariaga senar-emazteen liburutegian ere agertzen zela. Bestalde, “*Fleury en Bascuence*” izenez aipatutako lana, ziurrenik, Juan Antonio Ubillos frantziskotarrak egindako itzulpena izango zen: *Christau doctriñ berri-ecarlea* (Tolosa 1785), Claude Fleuryren *Catéchisme historique* (Paris, 1679) dotrinaren euskarazko bertsioa. Fleury “aurrerakoia” zen eta haren lana testuliburu gisa erabili zuten Bergarako Errege Mintegian. “*Via Crucis en Bascuence*” delakoa identifikatzea, aldiz, zailagoa da, deboziozko ariketa horri buruzko hainbat argitalpen egin baitziren.

IV.5 - Euskal idazle bergararrak eta antzuolarrak

Euskaraz idatzi zuten egile bergararren uzta oso urria da kontuan hartzen ari garen aldi historikoan. Agian, bergarartzat har genezake, **Xabier Maria Munibe Idiaketz, Peñafloridako kondea** (Azkoitia, 1729 - Bergara, 1785), izan ere, berez azkoitiarra izan arren, 1767tik 1785ean hil zen arte Bergaran bizi izan zen, Adiskideen Elkartearen hezkuntza-proiektu nagusiaren, Errege Mintegiaren, beharrei erantzuteko, Peñaflorida erakunde horretako zuzendari betierekoa baitzen. Euskaraz osorik edo zati batean idatzitako bi lan ezagutzen zaizkio. Lehena, “*Sor Luisa*” ezizenarekin argitaratu zuen, eta horren ondorioz, zenbaitek zalantzan jarri izan du haren egiletza, Larramendiri egotziz. 1762an Azkoitiko parrokiari



abestutako bilantziko eta gabon kantuen bilduma da⁴⁵⁷. Inprimatu ere Azkoitian bertan inprimatu zen, Peñafloida han bizi izan zen garaian.

Bigarren obra Munibe bere bizitza-proiektua Bergararekin lotzen hasi zen garaikoa da, nahiz eta artean ez zen Bergaran bizi. *El borracho burlado* opera izan zen, ele bietan idatzia: hitz lauzko zatia gaztelaniaz, eta kantatzekoa euskaraz.

Opera 1764ko irailaren 11n estreinatu zen Bergarako udaletxean⁴⁵⁸. Antza denez, liburuxka Bergaran inprimatzen saiatu ziren, baina horretarako azpiegiturarik ez zegoenez, azkenean Gasteizen inprimatu zuten.

Liburuxkak “*Advertencia*” izenburua duen hitzaurre bat du, eta bertan azaltzen du Peñafloidak obra ele bietan ematearen arrazoa:

...y acabo con dos advertencias. La primera se dirige a aquellos que notarán la mezcla que se hace del vascuence y castellano, pareciéndoles más regular el que todo fuese en uno de los dos idiomas. Digo, pues, que la primera idea fue de que toda esta ópera fuese en vascuence; pero luego me saltó la dificultad del dialecto de que me habia de servir en ella. Si me valia de Azcoitia, hubiera sido poco grato a todo el resto del país hasta frontera de Francia, por la preocupación que tienen contra el vascuence o dialecto de Goyerri, y si queria usar del dialecto de Tolosa, Hernani, San Sebastián, etc., exponia a los actores a hacerse ridículos, pues sería difícil que todos pudiesen imitarlo bien. Por esta razón, pues, me hube de contentar con reservar el vascuence para lo cantado, haciendo que todo lo representado fuese en castellano.



Xabier Maria Muniberen *Gavon sariac* eta *El borracho burlado*

Munibek euskal idazle gisa duen nortasuna oso berezia da. Oro har, XVII., XVIII. eta XIX. mendearen erdialdera arteko euskal idazleek, batez ere apaizek, oso argi zuten euren lanak katekizatu beharreko herritar xumeei zuzendu behar zizkietela, gehienbat elebakarrei; hala adierazten zuen argi eta garbi Juan Antonio Moglek:

Eguia esan bear bada, Euscalerrietaco Apaiz, Fraile, ta Anima-zai guciac esan dezaquegu bidaldua(c) edo autuac guerala berri on animaren gañecoac emateco, ez Erreguei beren Jauregietan, ez Andiqui goratu, edo Jaun urre-cillarra ugari darabiltenai, ez jaquituria lurrecoz beren ustez beteric dauden guizon arrotzaarrai, ta bai nequezale, bearguin, archulari, olaguizon, icazquin, emacume gorula, eula, jostun, ta onelaco gende mé ta becoquico icerdi larriarequin oguia billatu bear dutenai⁴⁵⁹.

Munibek, ordea, bere obrak, bere klase sozialeko “andiqui goratuei” zuzentzen zizkien.

1850ean, gero ikusiko dugun bezala, izenburu hau zuen erlijio-liburua argitaratu zen Bergaran: *Eusquerazco manuala sacramentuen gañeco eracusaldiac, eta ongui ilten laguntceco oracio egoquiac dacazquiana*. Egilea, zalantzarik gabe, Santa Marinako koadjutorea, On Jose Julian Atxotegi edo Antxotegi (bi modu horietan agertzen baita), izan zen⁴⁶⁰. Izenburuak dioen bezala, liburutxoak bi eratako edukiak ditu: alde batetik, sermoi sorta bat (segur aski, berak parrokian erabiltzen zituenen aukeraketa bat), eta, bestetik, hiltzorian dagoenari ondo hiltzen laguntzeko otoitz-bilduma bat. Bestalde, oso adierazgarria da liburua-ren izenburuak dioena: “*Lendavician Vizcaico Parroco Jaun batec ango eusqueran paraturic, orain Vergaran Santa Marinaco Coadjutore Jaunac Guipuzcoaco eusquerara viurtu duana*”. Hau da, Atxotegi aurrez “Vizcaico Parroco Jaun batec” bizkaieraz idatzitako testu bat hartu, eta hura gipuzkerara “bihurtzera” mugatu zen. Hasiera batean, harrigarria eman lezake Atxotegik lan hori hartu izanak, kontuan hartuta, berak umetan ikasi eta eguneroko jardunean erabiltzen zuen euskalkia Bergarakoa zela, hau da, mendebaldeko euskararen aldaeretakoa bat. Pentsa liteke, beraz, bizkaierazko jatorrizko testuak erabilgarritasun praktikoa handiagoa izan behar zuela berarentzat. Kontuan izan behar da, hala ere, seguruenik, jatorrizko testua argitaratu gabe egongo zela, eta, argitaratzea pentsatu zutenean, Atxotegik egokiagotzat joko zuela garai hartan kultutzat eta estandarizatutzat jotzen zen euskalkira, gipuzkerara, moldatzea, hau da, Kardabera-zek, Mendiburuk edo Larramendik erabili zuten aldaera.

Jakina denez, ohikoa zen pentsatzea “euskararik onena Gipuzkoakoa” zela eta, zehazkiago, “Tolosa-koa” (baita bizkaitar hiztunen eremuetan ere). Ez zen arraroa Deba Ibarreko zenbait parrokok bizkaiera erabiltzea herritarrekin hitz egiterakoan, baina predikatzea tokatzen zitzaizenean gipuzkera hautatzea, hura iruditzen zitzaielako kultuena eta literarioena, “dotoreena”. Aurrerago ikusiko dugun bezala, Atxotegik erakutsi zuen ondo zekiela Bergarako euskara, Bonaparte printzearentzako Asteteren katixima aldaera horretara itzuli baitzuen. Beraz, *Eusquerazco manuala* gipuzkerara moldatu bazuen, ziurrenik, izan zen pentsatzen zuelako aldaera landuago eta “zentralago” batean idatzita, erabilgarritasun eta hedapen handiagoa izango zuela Euskal Herri osoan.

Azal dezagun, labur bada ere, nor zen On Josef Julian Atxotegi Urriategi (Bergara, 1801/02/17 - Bergara, 1877/10/29). Bere abizenak, dokumentazioan, Antxotegi eta Urreategi gisa ere agertzen

dira. Bere gurasoak Jose Atxotegi Etxebarria (1753) eta Felipa Urreategi Zuloeta (1764), izan ziren, 1789ko otsailaren 16an ezkondu zirenak. Aitaren aldeko aitajaun-amandreak Bernardo Atxotegi eta Ana Maria Etxebarria izan ziren, eta amaren aldekoak, Manuel Urreategi (1725-1795) eta Maria Ana Zuloeta (1725-1795), biak ere elgoibartarrak, baina Bergarako Monasteriobide baserrian bizitzen jarri eta nekazaritzan jardun zutenak. Jose Julianek hiru arreba izan zituen bera baino zaharragoak: Maria Dolores (1790ean jaioa), Rafaela Bernarda (1791) eta Juana Joaquina (1796). Osaba bat ere izan zuen, bere aitaren anaia, On Joaquin Miguel Atxotegi Etxebarria (edo Etxebarria), eta hura izan zen Jose Julianen aurretik Santa Marina parrokiako benefiziadua, gutxienez, 1792 eta 1825 bitartean. Josef Julianen aita, Jose, baserritar xume bat izan zen, Zabalotegi baserrian errentan bizi izan zena. Felipearekin egin zuen ezkontza-kontratuan “laborari” gisa aurkezten du bere burua, eta bertan zerrendatzen ditu bere ondasun urriak: txerri bat, artoa, nekazaritza tresnak eta abar. Bere ama Felipeari dagokionez, 60 dukateko dotea izan zuen, bere jaioterrian, Elgoibarren, sortutako ongintza-egitasmo (*obra-pía*) bati esker. Josef aurrez Lorenza Jauregirekin ezkondu egona zen eta ezkontza hartatik hiru seme-alaba zituen, Jose Julianen anai-arreba ordeak: Rafael, Maria Joaquina eta Rosa⁴⁶¹. Pentsatzekoa da Jose Julianen osaba abadeak izan zuela eraginik ilobak apaiz ikasketak egin zitzaizkion eta Santa Marinako koadjutoretza lor zezan. Bere gurasoen egoera sozial eta ekonomikoa kontuan hartuta, eta osaba parrokia horretako benefiziadua zela jakinda, uste izatekoa da hark laguntza handia emango ziola, garaiko ohitura bati jarraituz: askotan osabek ilobei laguntzen zieten eliz karguak eskuratzen.

Atxotegik Bergarako Errege Mintegian egin zituen ikasketak, zeinak *Nobleen Errege Mintegia* izena izan zuen 1804 eta 1822 bitartean. Oro har, ikasle nabarmena izan omen zen bai bere dedikazioaren eta aprobetxamenduaren aldetik. Bi alderdi horietan emaitza “oso ona” izan omen zuen 1811-1812 eta



Jose Julian Atxotegiren *Eusquerezco manuala* - On Jose Julian Atxotegiren sinadura eta errubrika

1818-1819 ikasturteetan, mintegian honako ikasgai hauek ikasi zituenen: latinitatea, humanitateak, marrazketa, matematika, logika, filosofia morala eta geografia⁴⁶².

1826an, Atxotegi Aiako Laurgaingo San Migel parrokiako benefeziadua zen. Auzo horretan oso jende gutxi bizi zenez, bertako benefiziaduek oso errenta urriak zituzten. Horregatik, urte horretan bertan osaba Joaquin hil zenean, Jose Julian hura ordezkatzeko aurkeztu zen, izan ere, osabak anoa osoko benefiziadutza zuen Oxirondoko Santa Marina parrokian. Hala ere, ez zuen benefiziadutza osoa jaso, izan ere, osabaren anoa osoa bi anoa-erditan zatitzea erabaki zuten, Osintxuko Emeterio eta Zeledonio martirien ermitako eta Basalgoko Santiago apostoluaren ermitako beharrei erantzuteko. Bi anoa-erdi horietako lehena Atxotegiri egokitu zitzaion koadjutore karguarekin; bigarrena, berriz, On Jose Martin Ansuategiri⁴⁶³.

Osintxuko koadjutoretzaz jabetu ahal izateko, exijitu zioten aurrez zinpeko aitorten baten bidez aitortu zezala ez zela une hartan eta ez zela inoiz izan inongo logia edo elkarte sekretutako kide. Aitorpena 1826ko ekainaren 1ean egin zuen Jose Maria Elizpuru eskribauaren aurrean, honako hitzekin:

Que no pertenece ni ha pertenecido jamás à ninguna logia ni asociación secreta de la nominación que sea, ni ha defendido el absurdo principio de que el Pueblo es arbitro en variar la forma de los Gobiernos establecidos⁴⁶⁴.

Egiaz, ez dirudi Atxotegi inoiz masoneriaren tentaziopean egon zenik, eta are gutxiago herri-subir-notasunaren “printzipio zentzugabea” defendatu izan zuenik. Lehenik eta behin, ez dirudielako elkarte sekretuok Bergaran errotu zirenik⁴⁶⁵, nahiz eta Adiskideen Elkarteko edo Errege-Seminarioko kideren bat —Fausto Elhuyar, esaterako—, masoia izan zen. Baina arrazoi nagusia beste hau da: karlisten poliziak lehen karlistaldian egindako txostenetan, Jose Julian Atxotegi “bidezko kausaren aldeko” gisa ageri da, hau da, karlistatzat eta, beraz, ideologiaz absolutistatzat. Dakigunez, Aita Santuak masoneria gaitzetsi bazuen ere, ez ziren gutxi izan mugimendu horrekin bat egin zuten Europako elizgizonak, batez ere XVIII. mendearen azken hamarkadetan eta XIX. mendearen hasieran. Ferrer Benimeliren kalkuluen arabera, 3.000 apaiz inguru sartu ziren logietan, eta horietan baziren apezpikuak eta baita kardinalak ere⁴⁶⁶.

1827an, Atxotegi eta Ansuategi, —hurrenez hurren Osintxuko eta Basalgoko ermitetako benefiziaduak—, gotzaindegira zuzendu ziren, adieraziaz bazituztela mezak emateko eta aitortzak entzuteko lizentziak baina ez zutela beraien parrokietatik kanpo predikatze baimenik, eta horixe eskatzen zutela. Atxotegik adierazi zuen aurretik ere predikatu izan zuela Santa Marina elizan. Elizbarrutiko bikarioak txosten bat egin zuen, eta bertan aipatzen zuen bi apaizen joera ideologikoak argitzen dituen datu esanguratsu bat. Atxotegiri buruz dio, gaztea izan arren, eredugarria dela: “*presbº eclesiástico ejemplar, ha estudiado teología, y tiene talento, y mucha aplicación; SSY le concedio licencia para predicar el sermón del mandato este Jueves Santo; y es muy conveniente que tenga licencias de predicar; p.º q.º a mas de lo dicho es afecto como Ansuategui a la causa del Altar y el Trono*”. Hau da, apaiz biak ziren absolutistak. Garai hartan kontu handiz ibiltzen ziren gai horrekin⁴⁶⁷. Izan ere, espedienteetan honakoa adierazten da: “*quiere S. Y. que informe V. acerca de la edad, instrucción, conducta moral y política y demás prendas y circunstancias del expresado*” eta “*conducta moral y política*” gorritz azpimarratuta agertzen da. Santa Marinako parrokoa,

Felipe Zigorraga, ordea, liberal aitortua zen, baina ez dirudi haren eta Julian Atxotegiren artean elkarbitza-arazorik izan zenik, edo, behintzat, dokumentazioan ez dugu haien arteko auzirik aurkitu.

1829an, On Juan Antonio Agirrebeñak ziharduen Santa Marinako koadjutore lanetan, baina karguari uko egin zion benefiziadutza hobea lortu zuelako. Orduan, Oñatiko kondeak, Santa Marinako patronoa zenak, Atxotegi aurkeztu zuen anoa osoko (“*ración entera*”) benefiziadu eta parrokiako koadjutore gisa. Urte horretako irailaren 14an Atxotegik On Judas Tadeo Molina gotzaindegiko Probisore eta Bikarioari eskatu zion kargurako ofizialki izendatzea (“*la colación e institución canónica del cargo*”), eta hilabete geroago, konpromisoa hartu zuen benefiziadu eta koadjutore karguari zegokion urte-zerga bi urteko epean ordaintzeko⁴⁶⁸. Konpromiso hori ziurtatzeko, Antonio Burgala [sic, Burgada izan beharko luke] Bergarako bizilaguna aurkeztu zuen fidatzaile gisa⁴⁶⁹. Elizaren urte-zerga 1800eko abuztuaren 30ean Errege Pragmatika bidez ezarritako zerga bat zen. Zerga eliz kargu bat eskuratzeko izendatua izango zen orok ordaindu behar zuen: hasi artzapezpikuetatik eta azken kapilau edo benifiziaduraino. Zerga behin bakarrik ordaintzen zen, kargua hartzean, eta ordaindu beharreko kopurua kargu hartzaileak urtebetean jasoko zuen errentaren adinakoa izaten zen.

1834an Santa Marinako Elizgizonen Ermandadearen araudia idatzi zen. Une hartan hamahiru apai-zek osatzen zuten ermandade hori, eta Atxotegi koadjutore gisa ageri da dokumentuan, eta Ermandadeko Maiordomo Kapitular izendatu zuten⁴⁷⁰. Ordurako, bere koadjutore kargua ez zegoen Osintxuko parrokiari atxikia, baizik eta Santa Marinakoari; izan ere, 1836an, Atxotegik, koadjutore gisa, eta Felipe Ziorraga parrokoak hitzarmen bat sinatu zuten, bi karguen zereginak erregularizatzeko eta lanak banatzeko⁴⁷¹. Karlistaldiaren ondoren, Atxotegi koadjutore gisa ageri da oraindik parrokiako agirietan, gutxienez 1841 eta 1865 artean⁴⁷². 1873an, ordea, beste apaiz bat azaltzen da On Felipe Ziorraga apaizaren “koadjutore pertsonal” gisa: On Sebastian Tiburzio Garitano⁴⁷³. Ez dakigu Atxotegik bere bizitzako azken urte horietan, uneren batean bere postua behin behinekoz utzi ote zuen; badakigu, ordea, 1877an Bergaran hil zenean, artean koadjutore karguan jarraitzen zuela, eta horretaz gain, urte askoan bete zuen ekonomo kargua ere bazuela⁴⁷⁴.

1856an, Atxotegik testamentu-memoria labur bat idatzi zuen bere heriotzaren orduan kontuan hartzea nahi zuen zenbait xedapen jasotzen zituen. Bertan, esaterako, jasota utzi zuen San Gregorioren meza (hildakoen arimaren aldeko 30 meza) eskaintzeko agindua eta Santa Marina parrokiari eman zizkion kultuko bere objektu pertsonalak: albak, zinguluak, meza-liburuak... Bestalde, adierazten zuen bere esku zituela sei urrezko ontza, garai hartan Zaragozan bizi zen Ambrosio Sabas Lesarrikok gordailuan utziak; eta, agintzen zuen, bera hildakoan, txanpon horietako bi parrokiari emateko, eta baldin eta ordurako bere esku ez bazeuden, eman ziezaiotela ontza bat parrokiari bere ondasunetatik. Halaber, xedatzen zuen *Enseñantzako* bi nobiziaren —Maria Socorroren eta Maria Soledaden—, eskubideren batzuk berari egokituz gero, eskubide horiek une horretan kongregazioko kapilau zenari pasatzeko. Nortzuk ote ziren bi nobizia horiek? Bere arreetako bi, agian? Lehenago ikusi dugunez, beste izen batzuekin bataiatu zituzten, baina agian izen berri horiek hartu zituzten erakunde erlijiosoan sartzean. Kontuan izan behar da *Enseñantzaren* jatorria Soledadeko beatetxean dagoela. Bera bizi zen etxebizitzari dagokionez, Atxotegik osaba Joaquín Miguel Atxotegi Santa Marinako benefiziaduak bere testamentuan xedatutakora jotzen du⁴⁷⁵.

1859an, Atxotegi erabat finkatuta zegoen Santa Marinako Koadjutore karguan eta, jarraian ikusiko den bezala, ospe handia zuen Bergaran eta inguruetan. Hala, San Pedroko maixu (parroko) On Pedro Tiburcio Madinak urte bereko irailean Calahorrako apezpikutzari baimena eskatu zion Bergaratik aldi batez aldentzeko, Zaragozako El Pilarreko erromeriara joateko, eta eskarian adierazten zion bitarte horretan parrokiaren zein Enseñantzako ikastetxean ezustekoren bat gertatzen bazen, bere ordeztu Atxotegi arduratuko zela, eta harengan konfiantza osoa zuela⁴⁷⁶. Nahiko harrigarria da Madinak zeregin horretarako beste parrokia bateko apaiz batengana jotzea, eta horren azalpena Atxotegik Bergarako komunitatean zuen eragin eta estimuan dago, batez ere.

Ospe eta konfiantza handiko apaiza izanik, hainbat negoziotan esku hartu zuen, bai Bergaran eta baita inguruko herrietan ere. 1848an, adibidez, Angiozarreko Ugarte baserriaren erdia erosteko bitartekari lanak egin zituen. Egia esan, baserri erdi horren eroslea Francisco Antonio Larrinua jauna zen, garai hartan Madrilen bizi zena; baina, hark, joan-etorriak saihesteagatik edo beste arrazoiren batengatik, nahiago izan zuen erosketa Atxotegiren bitartez egitea. Horretarako, hiru truke-letra eman zizkion: bata 26.000 errealekoa, bigarrena 35.000koa eta hirugarrena 42.000koa, hau da, guztira 103.000 errealeko, baserriak balio zuena. Baserriaren jabea Eduardo Kendall jauna zen, Bristolgo (Ingalaterra) bizilaguna baina Gasteizen bizi zena, eta Atxotegik urte horretako urtarrilaren 22an erosi zuen, eta berehala utzi zuen benetako eroslearen, Francisco Antonio Larrinuaren, eskuetan⁴⁷⁷. 1855ean Francisco Larrinoa zumarragarriak (aurreko dokumentuan Larrinua abizenaz agertzen denak berak) Angel Francisco eta Pedro Felipe bere semeen tutore eta kuradore izendatu zuen Atxotegi, Angela Azkona Mugartegi emaztearekin batera. 1864an Larrinoa jada hilda zegoen eta Atxotegik urte batzuk zeramatzan adingabeen tutoretzaz arduratzen, baina ez zuen ordainsaririk jaso egindako lanagatik. Urte horretan hitzarmen bat egin zuen alargunarekin: 9.000 erreale jasoko zituen atzerapenengatik eta, ordutik aurrera beste 2.000 erreale urtean, kuradoretza amaitu arte⁴⁷⁸. 1868an Atxotegik testamentua egin zuen Azpeitiko Antonio Jabier Etxarri Galdona jaunaren izenean. Etxarrik, hiltzerian eta testamentua egiteko indarririk gabe, ahalorde osoa (*in solidum* ahalordea) eman zien Atxotegiri eta Azpeitiko parrokiako erretore On Jose Manuel Abaliari, bere izenean testamentua egin zezaten, egokien iruditzen zitzaizkien bezala. Hala egin zuten Antonio Javier hil zenean⁴⁷⁹. Egia esan, ahalorde bidez hil ondoren testamentua egitea ez zen legezkoa Gaztelako legearen arabera, baina Gipuzkoan artean egiten zen, ohiturari jarraiki. Ikusten denez, On Jose Julian Atxotegik bazuen eskualdeko hainbat jauntxoren estimua eta sinesgarritasuna, eta hori dela eta, konfiantza-maila handia eskatzen zuten gaiak kudeatzea eskatu ohi zioten.

Gainerakoan, dauzkagun datu urrien arabera, On Jose Julian Atxotegi gizon kultua eta euskaltzalea zen, eta liburutegi txiki baten jabea ere bazen. Hain zuzen ere, haren heriotzaren ondoren, testamentu-betearazleak Atxotegirenak izandako hainbat objektu —besteak beste, pareta-erloju bat— saldu, eta salmenta horietatik lortutako diruaren kontuak aurkeztu zituen. Bada, objektu horietako gehienak erlijio-gaiei buruzko liburuak ziren, eta inguruko zenbait apaizek erosi zituzten: Artetxek 124 erreale ordaindu zituen berak hartutako liburuak; Arrasateko apaizak Ligorioaren obraren batengatik ("*por Ligorio*"), 72 erreale; Arroiabek 10 erreale eta San Pedroko apaizak 35⁴⁸⁰. Guztira, 241 errealetan baloratutako liburuak⁴⁸¹. Bere euskaltzaletasunaren adierazgarri, hainbat obra erlijioso itzuli zituen euskarara, eta horretarako ezinbestekoa izan zuen garaiko gaztelania-euskara hiztegi bakarra: aita Larramendiren hiztegia, euskarari buruzko interesa zutenen artean benetako *best-seller* bihurtua. Bada, hain justu, Pio Zuazuk

1853an hiztegi horren bigarren edizioa argitaratu zuenean, lanaren harpidedunen artean agertzen da gure On Jose Julian Atxotegi⁴⁸².

Itzultzaile lanari dagokionez, lehenago ere ikusi dugu, 1850ean *Eusquerezco manuala sacramentuen gañeco eracusaldia* argitaratu zuela. Bestalde, aipatu behar da Louis Lucien Bonaparte printzearen enkarguz egindako bestelako itzulpen lana ere. Ezaguna da Bonaparte printzeak 1860ko hamarkadan euskarari buruzko testuak biltzen eta euskalkiak aztertzen egin zuen lan eskergea, 1869ko euskalkien mapa ospetsuan laburbildu zuena. Bere inguruan informatzaile eta kolaboratzaile sare bat antolatu zuen, gehienak apaizak, eta haiek ematen zizkioten euskararen aldaera dialektaletara egokitutako testuak. Kolaboratzaile haietako bat izan zen Bruno Etxenike Garmendia (Urdazubi, 1819-1893), lehen ezkontzan Maria Martina Ruiz de Alegria Lopez de Egilazekin (Leintz Gatzaga, 1826) ezkondua. Maria Martinak lehengusu zuen Juan Bautista Ruiz de Alegria Otadui (Leintz Gatzaga, 1810), 1862an Leintz Gatzagako San Millango elizako erretore zena. Dirudienez, urte horretan, Ruiz de Alegriak, Etxenikeren eskariz, Asteteren katiximaren bertsio bat egin zuen Bonaparterentzat, Gatzagako euskararen aldaerara moldatuta.⁴⁸³ Gaspar de Asteteren (Coca de Alba, Salamanca, 1537 – Burgos, 1601) katixima izan zen katiximarik erabiliena (Jeronimo Ripalda jesuitarenarekin lehian), eta euskarazko hainbat bertsio ere izan zituen. Horregatik aukeratu zuen Bonapartek bere azterketa dialektala egiteko oinarritzko testu konparatibo gisa. XVIII. mendearen amaiera aldera Gabriel Menendez de Luarda kalonjeak argitaratu zuen, osatuta eta zuzenduta. Ruiz de Alegria Bergaran bizi zen 1863an eta Etxenikek, Bonaparteren eskariz, eskatu zion lor zezala Asteteren katiximaren bertsio bat Bergarako euskarara egokitua. Horrela dago jasota Bonapartek urte hartako urtarrilaren 11n Etxenikeri bidalitako gutunean:


Paris, 38, Rue Montabor, 11 Janvier 1863.

Mon cher Monsieur Echenique,

Je reçois à l'instant votre lettre du 10. Ce que vous me dites à propos de Dⁿ J. Bautista Ruiz de Alegria me fait plus grand plaisir, car étant votre parent vous pourriez obtenir de lui et sous sa direction le même catéchisme en dialecte biscayen de Vergara⁴⁸⁴.

Ruiz de Alegriak On Jose Julian Atxotegiri eskaini zion enkargua eta, hark bere denbora hartu zuen testua idazteko. 1866rako lana amaituta eta printzeari bidalita zegoen, enkargua iritsi zitzaion bide bera erabilita: Ruiz de Alegria – Etxenike loturaren bidez. 1866ko abenduaren 15ean, Londresetik, Bonapartek eskerrak eman zizkion Etxenikeri egindako enkargua jaso zuelako⁴⁸⁵. Atxotegiren testua ez zen argitaratu bere garaian, eta Bonapartek lanerako dokumentu gisa baino ez zuen erabili. Jatorrizko eskuizkribua Bizkaiko Foru Aldundiaren Liburutegiko Bonaparte Funtsean dago, izenburu honekin: *Catecismo de Astete añadido por Luarda, traducido al vascuence de Vergara por D. Julián Anchotegui, cura Coadjutor de Sta. Marina del mismo pueblo*⁴⁸⁶. Hala ere, duela urte gutxi batzuk, Bonaparte printzeak bere garaian bildutako eskuizkribuak argitaratu ziren Rosa Miren Pagolak zuzendutako edizio batean, eta horien artean dago Atxotegiren katixima (Anchotegi izenez katalogatua)⁴⁸⁷.

Aztertzen ari garen aldiaren amaieran, badugu euskaraz idatzi zuen beste idazle bergarar bat: San Pedro parrokiako koadjutorea, On **Jose Tomas Eleizalde Aldasoro** (Azpeitia, 1827/12/21 - Berga-



Jose Julian Atxotegiren *Catecismo de Astete*
añadido por Luarca

ra, 1890/06/10). Batzuetan, bere abizena Elizalde gisa agertzen da. Dirudienez, bere familia-inguru-nea ideologia karlistakoa zen. Bere gurasoak Manuel Eleizalde Iturzaeta eta Manuela Aldasoro Etxeberria azpeitiarrak ziren. Bi anai-arreba behintzat izan zituen: Juan Jose Eleizalde (Azpeitia, 1818/4/1) eta Ignacio Vicente (Azpeitia, 1820/11/21). Azken hori lehen ezkontzan Maria Josefa Izagirre Izuzkitzarekin ezkondu zen 1838an, eta bigarreanean Belen Breñosa Tejadarekin (Aretxabaleta, 1847/12/26), Bilbon, 1871ko urtarri-laren 7an. Bigarren ezkontza horretatik honako seme-alabak jaio ziren: Teodora (Bilbo, 1871), Rafael (Bergara, 1876), Luis Maria Ignacio Jose (Bergara, 1878/06/10-Bilbo, 1923), Maria An-



geles (Bergara, 1881), Julio (Bergara, 1884) eta Juan Jose (Bergara, 1885). Luis Maria Ignacio hori Koldo Eleizalde bera da: euskaraz zein gaztelaniaz idatzi zuen idazlea, filologoa, politikaria eta euskal nazionalismoaren ideologoa, hezitzailea eta irakaslea, eta baita zenbait obraren euskaratzailea ere. Bere itzulpenen artean daude, gutxienez, Walter Scotten *Halidon Hill* obra —euskaraz, *Halidon Murua* izenburua eman ziona— eta Tomas de Kempisen *Kristoren Antz-Bidea* (1913)⁴⁸⁸. Beraz, On Jose Tomas Eleizalde San Pedroko koadjutorea Koldo Eleizalderen osaba propioa zen. Koldok haren adibidea jarraitu zuen euskararen itzultzaile eta sustatzaile gisa, eta euskara ikertzeari eta lantze-ari eskaini zion bere bizitza. Jose Tomas Eleizalde 1852ko azaroaren 18an apaiztu zen⁴⁸⁹.

1859an, Eleizalde Astigarragan zegoen, Jaso-kundeko Andre Maria parrokian apaiz, eta han eskuratu zituen mezak emateko eta bi sexuetako fededunak aitortzeko ministerio-baimenak⁴⁹⁰. Hala ere, hurrengo urtean, Bergaran, Ospitale Santuko kapilau lanetan ziharduen. Dirudienez, San Pedroko benefiziaduak, Matias Ibarzabalek, ezin zion lanari behar bezala erantzun eta ordezkoko bat jartzeko eskatu zuen. 1860ko urtarriaren 16an Kabildoak Eleizalde izendatu zuen ordezkapen horretarako eta, lau egun beranduago Ibarzabalek berak onartu zuen Eleizalderen hautaketa, laudorioz betetako idatzi baten bidez. Aurretik Astigarragako apaiz izan zela esateaz gain, haxe zioen berari buruz: “*sacerdote antiguo, de buenos estudios y de una conducta muy probada y muy querido del Cabildo y del Pueblo por los muchos años de servicio en la parroquia. Goza además de buena salud como consta de la adjunta certificación del médico titular*”. Idatziak hala jartzen badu ere, ezin zitzakeen parrokian urte asko eraman, baldin eta, Astigarragako eta Bergarako karguak, aldi berean bete ez bazituen. Osasun egoerari dagokionez, egia da Hiribilduko mediku titularrak ziurtatu zuela Eleizalde osasunez ondo zegoela eta bere betebeharrak betetzeko gai

zela. Antza denez, apaizak, kolera gaitza hartu zuen 1855ean eta haren ondorioz, hesteetako zenbait arazo (“*ciertas disenterias*”) geratu zitzaizkion; baina ezer larririk ez, lan egitea eragotziko zionik⁴⁹¹.

Egia esan, On Jose Tomas Eleizalde, Atxotegi bezala, itzultzailea izan zen eta bere garaian oso bolaran zeuden deboziozko obrak euskarara moldatzen jardun zuen “euscaldunen oneraco”. Ez dugu ez bataren ez bestearen jatorrizko obrarik ezagutzen. Bi lan dira ziurtasun osoz Eleizalderenak direla dakigunak: lehenengoa, *Cristauaren gordairua*⁴⁹², Solsonako bikario baten *El tesoro cristiano*⁴⁹³ izeneko itzulpen lanaren euskarazko bertsioa. *Cristauaren gordairua* Madrilén argitaratu zen 1878an eta Bergaran berrargitaratu zen hamar urte beranduago. Bigarren obra, berriz, *Anima baten iru egoerac*⁴⁹⁴ izan zen, Antonio Maria Claret artzapezpikuaren *Los tres estados de un alma* (Bartzelona, 1859) lanaren euskarazko bertsioa. Eleizalderen itzulpena Bartzelonan argitaratu zen 1879an eta Bergaran berrargitaratu zen 1888an.



Gainera, badira beste bi itzulpen, egile berak idatziak izan behar dutenak, izenburuan agertzen den pasarte honegatik: *Vergaraco Apaiz batec euscaldunen oneraco eusquerara itzulua*. Itzulpen horietako bat da *Jesus-en Viotz sagradua beti adoratzén egoteco modua*⁴⁹⁵, Francisco Maria Matxainek 1868an Bergaran inprimatua; eta bestea, *Gurutzeco bide edo calvario santua*⁴⁹⁶, 1871n Tolosan argitaratua eta 1888an Bergaran berrargitaratua. Formula hori —“Vergaraco Apaiz batec...”— erabili zuen Eleizalde lehén aipatutako beste bi argitalpene-tan ere, baina, haietan bere izena jarri zuen eta azken biotan ez. Hala ere, badugu lekukotasun bat *Gurutzeco bide* lana, behintzat, berak idatzi zuela adierazten duena, Gazteizko Elizbarrutiaren buletinean (*Boletín Eclesiástico del Obispado de Vitoria*), iragarkien atalean, honako hau agertzen baita:



On Tomas Eleizalderen *Cristauaren gordairua* eta *Anima baten iru egoerac*

Via-Crucis de San Leonardo de Porto Mauricio, el más tierno y lleno de unción de los que se conocen, traducido al *vascuence* por el Presbítero D. José Tomás de Eleizalde, Coadjutor de San Pedro de Vergara: se vende en la librería de Toribio Ibarzabal, en Vergara, a un real cada ejemplar, y tomando 100, 80 reales franco de porte⁴⁹⁷.

Eta, Gurutzeko bide Eleizalderen baten, *Jesus-en Viotz sagraduak* ere hala izan behar zuen. Hala ere, bada *Gurutzeko bide* lana On Jose Julian Atxotegiri egotzi izan dionik. Honela dio, esaterako, Atxotegiri buruzko sarrerak Añamendi hiztegiaren, hitzez hitz: “Tradujo al euskera, con el título *Gurutzeko bide*, la correspondiente obra de L. Porto Mauricio. Era sacerdote en Vergara en 1870”⁴⁹⁸. Hiztegi horretan Eleizalderi dagokion sarreraren, berriz, *Cristauren gordairua* eta *Anima salbatzeko*⁴⁹⁹ lanak baino ez zaizkio esleitzen. Nolanahi ere, *Gurutzeko bide* eta *Jesus-en Viotz sagradua* Atxotegirenak izan edo Eleizalderenak izan, egia dena da Bergaran, 1850 eta 1879 artean, izan zela mugimendu moduko bat euskarazko literatura erlijiosoaren itzultzeko, eta bi apaizok gutxienez sei lan itzuli zituztela. Oso kopuru esanguratsua da, kontuan hartzen badugu, aurretik euskarazko argitalpenen eskaintza oso urria zela. Horrek esan nahi du, alde batetik, bazegoela irakurle bat, gai zena eta interesa zuena halako liburuxkak erosi eta irakurtzeko. Liburuon gaiari dagokionez, bederatziurrenak, gurutze-bideak, katiximak, santuen bizitzak eta abar izan



On Jose Tomas Eleizalderen *Gurutzeko bide* eta *Jesus-en viotz sagradua*

ohi ziren; normalean hogeita bost bat orrialde izan ohi zituzten; eta formatu xume batean saldu ohi ziren prezio apal batean: *Gurutzeo bideren* kasuan, adibidez, ale bakoitza erreal batean. Baina beste alde bate-tik, aipatzekoa da bazegoela herrian argitalpenok inprimatzeko eta banatzeko azpiegitura bat. Aurretiko atal batean ikusi dugunez, mertzerietan edo bazar-dendetan saltzen ziren normalean, Angela Gregoria Mendizabal andreak 1835ean zeukanaren modukoetan. Baina, ikusi berri dugun bezala, 1872rako Ber-garan bazen liburu-denda bat, Toribio Ibarzabalena, eta han ere saltzen ziren horrelako liburutxoak. Pentsatzekoa da liburu-denda hori Ibarzabal anaiei inprimategiari erantsita egongo zela, baina, dauzka-gun datuen arabera (geroago ikusiko dugunez), inprimategia 1876tik aurrera jarri zen martxan. Daturik izan ez arren, agian inprimategia 1872rako martxan izango zen? Ikusi dugunez, inprimategi horretan berrinprimatu ziren 1888an *Cristauaren gordairua*, *Gurutzeo bide* eta *Anima baten*.

Euskarazko opuskulu deboziozkoen, otoitzen, oroigarrien eta bestelako testu txikien irakurle-merka-tua sortzen hasia zela ondo erakusten dute Gasteizko Elizbarrutiko *Boletín Eclesiástico* aldizkarian argi-taratu ziren zenbait iragarkik. Adibidez, 1867an iragarki hau azaldu zen:

La oración dictada por Su Santidad y traducida al vascuence, que principia *Inugu-raezazu*, y la que insertamos en el presente número se hallan de venta en la imprenta del presente BOLETÍN al ínfimo precio de dos reales el *ciento*⁵⁰⁰. [Hor aipatzen den bi-garren otoitza (“la que insertamos...”) Pio IX. Aita Santuak Elizaren zorigaitzengatik idatzitako testu bat zen eta Gipuzkoako parroko batek itzuli zuen honako izenburua-rekin: 1866-garren urteko urriaren 22an gure Aita guciz Santu Pio IX arrenac Elizaren oraingo desgracietaraco eguin duan].

Hor aipatzen den Buletinaren inprimategia, orritxook saltzen zituen, Mateo Sanz y Gomez jauna-rena zen eta Gasteizko Bilbo plazako 3. zenbakian zegoen. Geroagoko ale batean, berriz, otoitz horren bizkaierazko bertsioa azaldu zen, apaiz bizkaitar batek bidalitakoa⁵⁰¹.

Bestalde, euskaraz idatzi zuen beste idazle bergarar baten berri ere badugu, nahiz eta bere ekarpen ezagun bakarra apala izan. On **Felipe Antonio Ziorraga Tomasa** da, 1794ko maiatzaren 1ean Gasteizen jaioa. Arabar baten eta bergarar baten semea zen: Eusebio Ziorraga Uskategirena (Amurriokoa) eta Ana Luisa Tomasa Olaegirena. Amaren aldeko aitajun-amandreak Juan Antonio de Tomasa merkataria eta Josefa Antonia Olaegi (1743-1807) izan ziren, Gantxegi baserriko jabeak. Josefa Antoniaren gurasoak Francisco Olaegi eta Joaquina Gantxegi izan ziren. Tomasatarrak (batzuetan Thomasa gisa agertzen dira) Bergarako merkatari- eta hornitzaile-familia dirudun bat ziren, joera politiko liberalekoak. Kataluinatik zetozen. Hain zuzen ere, Juan Antonio Tomasaren gurasoak, eta, beraz, On Felipe Ziorragaren aitaren aldeko aitajaun-amandreak, Jose Buenaventura de Tomasa y Font eta Agustina Celedonia Foraster y Vi-lorbina ziren, biak Cardonakoak.

Ziorragak apaiz ikasketak egin zituen Seminarioan 1810eko urriaren 8tik 1812ko uztailaren 23ra. 1819an, On Domingo Iribe Santa Marinako apaizak bere kargua utzi zuen, eta elizako patronoak, Oña-tiko Kondeak, Ziorraga aurkeztu zuen kargu horretarako⁵⁰². 1820ko apirilean, Ziorragak Santa Marinako

apaiz izateko izendapena jaso zuen⁵⁰³ eta berehala eskatu eta jaso zituen meza emateko eta bi sexuetako fededunak aitortzeko beharrezko baimenak⁵⁰⁴. Apaiz lanetan benetan, 1821eko urtarrilaren 6an hasi zen⁵⁰⁵.

Oso interesgarria da Ziorragak Santa Marinako apaiz izateko eskaerarekin batera aurkeztu zituen lekukoen deklarazioetan jasotzen dena; izan ere, hautagaiaren familiari, ikasketei eta abarri buruzko ohiko informazioaz gain, ohiz kanpoko bat ere ageri da: Ziorragak euskaraz zekiela. Egia esan, eliz karguetarako hautagaiak bergararrak edo gipuzkoarrak zirenean, hori ziurtzat jotzen zen eta inork ez zuen aipatzen; baina kasu honetan, Ziorraga Gasteizen jaioa zen, nahiz ama Bergararra izan, eta, zalantzarik egon ez zedin, euskaraz zekiela jasota lagatzeko beharra ikusi zuten. Lekukoetako batek adierazten du euskaraz ondo zekiela: “*sabe mui bien la lengua Bascongada*”. Eta aipamen horrek, zeharka bada ere, baieztatzen du garai hartan guztiz ezinbestekoa zela euskaraz jakitea Bergarako Santa Marinan apaiz lanetan jarduteko⁵⁰⁶.

1850ean Ziorragak Ramon Maria Aranzabal jarri zuen bere benefiziadu-kargua betetzeko, ordezkoko gisa. Alabaina, 1845ean San Pedro eta Santa Marinako Kabildoek hamarrenak banatzeko hitzarmen bat egina zuten, eta gotzaindegiko Bikarioak eragozpenak jarri zizkion ordezkapen horri, aipaturiko hitzarmenari eragiten ziolako. Hala ere, Ziorragak eskatu zuen Aranzabalek ordurarte bezala zerbitzatzen jarraitzea, eta onartu egin zitzaion⁵⁰⁷. Susmoa dut Ziorraga ordezkoko batez baliatzearen arrazoi nagusia bere osasun eskasa izango zela. Izan ere, bederatzi urte geroago, antza denez, bere gaixotasunak okerrera egin zuen, eta horregatik, eskatu zuen Casimiro Urdaneta kapilaua izendatzea bere ordezkoko; kasu honetan, koadjutore gisa. Eskaerarekin batera bi ziurtagiri aurkeztu zituen: alde batetik, Aniceto Zumalabe mediku titulararena, ziurtatzen zuena Ziorragak katarro kronikoa zuela eta 64 urteko adin aurreratua, eta horrek bere ministerioa betetzea eragozten ziola; bestetik, berriz, Jose Maria Beistegi benefiziadua, adierazten zuena Ziorragak 38 urte zeramatzala parrokiako lanetan, zehazki 1821eko urtarrilaren 6az geroztik⁵⁰⁸. 1869ko apirilaren 7an hartu zuen erretiroa eta 1877ko maiatzaren 17an hil zen.

On Felipe Ziorraga Santa Marinako benefiziadua izateaz gain, Seminarioko irakaslea ere izan zen eta zehazki bi irakasgai eman zituen: “Latina eta Gaztelania” eta “Erretorika eta Poetika”. Bestalde, irakasle gisa, bera arduratu zen, 1846ko ikasturtearen hasiera-ekitaldiko hitzaldia emateaz⁵⁰⁹.

Polizia karlistaren 1838ko txostenen arabera, Felipe Ziorragak gerraren hasieratik adierazi zuen “usurpazioaren aldeko atxikimendua” (“*adhesión a la usurpación*”). Liberal gisa asko nabarmendu zen, Isabel infantaren eskubideei buruzko eta karlisten aurkako sermoi baten bidez. Karlistak Bergaran sartu zirenean, Ziorraga bere baserrira erretiratu zen, baina gero bere parrokiara itzuli zen berriro, eta, betiere polizia karlistaren arabera, jarrera zuhurra erakutsi zuen eta iraultzaren aurka agertu zen: “*contrario a la revolución*”. Hala ere, bere printzipio liberelei eutsi zien, eta agerian utzi zituen gerra amaitu zenean⁵¹⁰. Bere anaia Manuel politikari eta militar liberal nabarmena izan zen: Nafarroako Ogasun ministro nagusia 1839an, Gorteetarako diputatua 1847an eta Gasteizko alkatea 1872an. Gasteizko Alderdi Liberaleko presidentea ere izan zen⁵¹¹.

Guk dakigula, Felipe Ziorragak euskarazko literaturan egin zuen ekarpen bakarra 1845ean Isabel II.a erregina Bergarara etorri zenean hari eskainitako laudoriozko bertso batzuk izan ziren. Erreginak udan Donostiara “itsas bainuak hartzera” joateko ohitura zuen, eta, horrela, 1845eko abuztuaren 16an,

ponente, y que el dho. D.ⁿ Felipe Antonio, a quien
 noa muy bien y ha tratado por el dho.
 ff. Barcena; y que cuanto ha depuesto es publico,
 y la verdad para el juramento, que tiene por


alguno; que el dho. D.ⁿ Felipe Antonio, a quien
 ha tratado por el dho. Barcena, sabe muy
 bien, y la verdad para el juramento, que tiene por

gado y la verdad para el juramento, que tiene por
 alguna, que sea el deponente; que el mencionado
 do presentado D.ⁿ Felipe Antonio de Liora-
 pa, a quien conoce y ha tratado, sabe hablar en
 Barcena, y que cuanto ha depuesto es publico,
 y la verdad para el juramento, que tiene por


Lekukoen adierazpenak, Ziorragak euskaraz bazekiela ziurtatzekoak

errege-segizioa Bergaratik igaro zen Gipuzkoako hiriburura bidean. Arratsaldeko bost eta erdietan San Antonioko arkura iritsi ziren, eta han, herriko agintarien ordezkaritza zabal batek egin zion harrera: guztien buru, Manuel Berroeta alkate jauna, eta harekin batera, eliz kabildoak, Seminarioko irakasleak, epailetzako kideak, arma-komandantea eta posta-administratzailea. Jendetza pilatu zen ibilbide osoan, eta tartean ziren bost konpartsa handi, Bergarako auzo bakoitza ordezkatzeko zutenak, bakoitza 50 mutilez eta beste hainbeste neskez osatua. Hau da, guztira 500 pertsona “*vestidas uniformemente al uso del país*”. Errege segizioa Hitzarmenaren Zelaira (“*Campo del Convenio*”) joan zen eta zortzi bat minutuko geldialdia egin zuen. Bertan eman zizkioten Erreginari, bost konpartsek bere omenez kantatu zituzten bertsoen testuak, baina hori bai, euskarazko jatorrizko bertsoan bakarrik, itzulpenik gabe, *El Español* egunkariko kronikaren egileak azpimarratzen zuen bezala. Felipe Ziorragak idatzi zituen bertsook, Seminarioko katedraduna izanik, gizon ikasia baitzen, eta liberala zenez, politikoki oso egokia baitzen zeregina horretarako.

Erregina Hitzarmenaren Zelaian minutu batzuetan bergararren kantuak entzutera gelditu izanak eduki sinboliko eta politiko garrantzitsua zuen, sei urte lehenago leku horretan gerra zibilaren amaiera antzestu eta bakea ekarri zuen hitzarmen politikoa adostu baitzen. Hala ere, *El Españoleko* berriemaileak dioen bezala, ahaleginak egin ziren inoren sentiberatasunik ez mintzeko, eta horretarako garai hartan gori-gorian zeuden bi gai sartu zituzten abestietan; Foruak mantentzea eta Hitzarmena bera betetzea. Hori horrela, Ziorraga halako kasuetan ohikoak diren kortesiazko mezuak ematera mugatu zen: erreginari leialtasuna adieraztera, bera Bergaran izateak sortutako poz handia agertzera, erreginari bizi guztirako zoriona eta osasuna opatzera eta abar. Eta doinuekin ere ez zen gehiegi konplikatu, eta orduko bi doinu ezagunenetakoa aukeratu zituen: *Iru Damacho* eta *Ay, Oy, Ay mutillac*⁵¹². Hauek izan ziren Ziorragak bergarar gazteek Erreginari abesteko idatzitako testuak:



On Felipe Ziorragaren sinadura eta errubrika



Komenio zelaia

GURE ANDRE
ERREGUIÑARI VERGARACO GASTEAC CANTATUTACO VERSOAC
ESTREVILLOA
Ay oy ay mutillac
Zorionecoac

Gure Erreguiña maite
Viotz viotzecoac
Izan zaiteala beti
Zorionecoac.

Ay oy ay etc.

Zu emen ecusi eta
Gaude chit pozturic
Ozta deseaten degu
Beste zorionic.

Ay oy ay etc.

Chit leyalac dirade
Gendeac provincian
Eta iduquico zaitue
Beti viotcean.

Ay oy ay etc.

Gure amorioac
Beti iraungo du
Amorio onen prenda
Izango zera zu.

Ay oy ay etc.

Gure odol gucia
Dago bai zuretzat,
Gure aleguin guciac
Zure Coroarentzat.

Ay oy ay etc.

Izan zaite etorria
Ordu chit onean
Luzaro egondu zaite
Emen gure artean

Ay oy ay etc.

Orain zu ecusi eta
Baguera postutcen
Zu joan ta ume zurzac
Guerade guelditcen.

Ay oy ay etc.

Isabel maite maite
Ama eguiazcoa
Izan zazula beti
Poza guztizcoa.

Ay oy ay etc.

Provinciaco gendeac
Ez zaitu salduco
Lenago bere odolac
Lituzque galduco

Ay oy ay etc.

Agur gure erreguiña
Agur ama maite
Zuc nai dezun becela
Beti izan zaite.

Ay oy ay etc.

Izan zazula beti
Paquea ta osasuna
Gauza on gucietan
Ugaritasuna.

Ay oy ay etc.

Provinciaco gendeac
Ala deseaten du
Ta zu amparatceco
Guerturic gaude gu.

Ay oy ay etc.

GURE ANDRE
ERREGUIÑARI VERGARACO GASTEAC CANTATUTACO VERSOAC
IRU DAMACHO
ESTREVILLOA

Ta clisquitin clasquitin

La rosa clavelin,

Izan dedilla luzea.

Atoz gugana gure erreguiña

Atoz Isabel maitea,

Gure artean zauden dempora

Izan dedilla lucea.

Ta clisquitin etc.

Provinciaco mendi altuac

Betetcen dirade gendez

Guciac daude choraturican,

Zuri dizuten amorez.

Ta clisquitin etc.

Ez dute eceren beldurric

Eta zugatic odol gucia

Emango luquete pocic.

Ta clisquitin etc.

Ongui daquigu gure Isabel

Maitegarria cerala,

Zure gogoco toqui gucietan

Jarraitua izango cera.

Ta clisquitin etc.

Egun sentico izar ederrac

Argui geyago ez du eguiten

Zure beguiac ascoz obequi

Illunac daquite quentcen.

Ta clisquitin etc.

Gure celayac lora ugariac

Iñoiz eman oi dituzte,

Aren aldean cera ederra

Izango ez dezu calte.

Ta clisquitin etc.

Mundu guciac zure erligioa

Pozquiro alabatcen du,

Ala Cerutic gure Jaincoac

Paquea emango dizu.

Ta clisquitin etc.

Gure artean zauden demporan
Egongo guera gu pocic,
Baña emendic alde eguinda
Suspirioz, penaz beteric.

Ta clisquitin etc.

Agur, Isabel, agur maitea,
Zu cera ama eguiazcoa,
Vici lucea izan zazula
Dichaz betericacoa.

Ta clisquitin etc.

Azkenik, beste apaiz bergarar baten, On **Santiago Urzelai Laskurainen**⁵¹³, euskarazko idatziak gorde dira, nahiz eta horietako bat ere ez den inoiz argitaratu, eta jatorrizko eskuizkribuak bakarrik kontserbatu diren. Bizkaiko Foru Aldundiko Lau Haizeetara liburutegi digitalean kontsulta daitezke. Guztira, eskuz idatzitako 607 orri gordetzen dira. Ia testu guztiek dute bere izenburua: gutxi batzuk euskaraz edo latinez eta gehienek gaztelaniaz. Batzuk baino ez daude datatuta; gainerakoak, euren idazkeragatik, 1850, 1860 eta 1870eko hamarkadetakoak direla dirudi.

Urzelai, katalogoren batean, Santiago Urzelai Vergara izenarekin agertzen da, baina bigarren abizen hori okerra da. Adibidez, Jose Bentura Belaustegik 1866ko irailaren 30ean Azpeititik bidalitako gutun batean, goiburuan honakoa jartzen du: “*Sr. Dn. Santiago Urcelay*” eta hurrengo lerroan, “*Vergara*”, eta ondorengoan, “*Azp^a Setre 30 de 1866*”. “*Vergara*” Urzelairen bizilekua da, eta ez bere bigarren abizena. Bestalde, ez dut aurkitu Gipuzkoan jaio den edo hil den Santiago Urzelai Bergara izeneko inor, baina bai Bergaran 1882ko maiatzaren 23an hildako Santiago Urzelai Laskurain abadea⁵¹⁴. Urzelai bizi izan zen garaia kontuan hartuta, Santiago Urzelai Laskurain hori izango zen, zalantzarik gabe, gure Santiago Urzelai. Bergaran jaio zen 1815eko urriaren 8an. Bere gurasoak Roque Urzelai Muxika eta Maria Martina Laskurain Aranes izan ziren. Bataio-agirian Santiago Urzelai Laskurain izen-abizenekin agertzen da⁵¹⁵. Santiagok, gutxienez, arreba bat izan zuen, Antzuolan Jose Joaquin Txarroalderekin ezkondu zena eta sei seme-alaba izan zituen; gure apaizaren ilobak, beraz.


Urzelai sakristau gisa aritu zen lehenik, eta gero Bergarako San Pedro parrokian benefiziadu gisa. 1833an Santiago Urzelai San Pedro parrokiako sakristau sekular izendatu zuten. Sakristauaren izendapena Alkateari, Apaizari eta Maiordomo sekularrari eta eklesiastikoari zegokien. Urzelairi baldintza bat ezarri zioten: organistari urtero 400 erreal ordaindu behar zizkiola bere diru-sarreretatik, eta Urzelaik horretarako konpromisoa hartu zuen. Arazoa karlistaldia hasi eta sakristauaren diru-sarrerak neurri gabe jaitsi zirenean sortu zen. Dirudienez, 1838ko ekainerako sarrera horiek erdira murriztuta zeuden, eta Urzelaik ezin zizkion organistari agindutako 400 errealak ordaindu, nahikoa lan baitzuen beretzat adina ateratzeko ere. Urzelaik idatzi bat bidali zuen gotzaindegira, bere arazoa deskribatuz eta bere egoeraren aurrean laguntza eta konponbidea eskatuz. Zehazki, organo jotzaileari 400 erreal ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratzea eskatzen zuen. Apezpikutzako Probidore eta Bikarioa San Pedroko apaiz On Pedro Tiburcio Madinarekin harremanetan jarri zen, eta hark esan zion egia zela Urzelaik zioena, eta eskaera oso bidezkoa iruditzen zitzaioela. Azkenean erabaki zuten organo joleari 400 errealak elizako fabrikatik

ordaintzea, gerrak iraun bitartean. Sakristauaren diru sarrerak gutxitu izana, arrazoi hauei egozten zitzaien: “*a causa de haberse ausentado de dha. Villa varias personas visibles*”. Zalantzarik gabe, gizarte-maila altuko herritarrak ziren horiek, gerraren ondorioz emigratu zutenak. Horretaz gain, beste arrazoi bat ere aipatzen zen: gehiegizko zergen eraginez, eliztarrek bizi zuten pobrezia-egoera⁵¹⁶


1858an, Urzelaik Pedro Lizarralde hutsik utzitako anoa-erdiko benefizioa eskatu zuen eta benefizio hori 1858ko abuztuaren 24an eman zioten⁵¹⁷.

1862an Santiago Urzelai zen San Pedro parrokiako anoa-erdiko benefiziadu zaharrena, eta, beraz, anoa osoko benefizioaren bat hutsik geratzen zenean berari zegokion kargu hori hartzea. Hutsune hori On Pedro Ygnazio Unamuno hil zenean gertatu zen eta izendapena urte hartako apirilaren 26an iritsi zitzaion Urzelairi, eta On Domingo Mekolalde hartu zuen berak libre utzitako anoa-erdiko benefiziadu kargua, bera baitzen benefiziadu berriena. Mekolalde Oikiakoa zen, baina behin behinekoz Bergaran bizi zen⁵¹⁸.

Lehen aipatu dudan bezala, Gipuzkoako euskalkian idatzitako sermoi edo platika multzo handi samar baten eskuizkribuak gordetzen dira, bere predikazioetan erabili zituenak, zalantzarik gabe. Testu gehienak aurrez beste batzuek argitaratutako lan batzuen bertsioak edo itzulpenak dira, nahiz eta berak sortutako jatorrizko ekarpenak ere badiren. Horrela, Pedro Astarloak⁵¹⁹ jatorriz bizkaieraz idatzitako *Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac, ceinzubetan azalduten dan Erromaco catecismua...* (1816-1818) lanaren bertsio bat idatzi zuen gipuzkeraz. Urzelaik Astarloaren⁵²⁰ bost “berbaldi” bertsionatu zituen, gutxienez. Era berean, aita Garzia Mazok⁵²¹ egindako Ripaldaren katiximaren bertsioa ere itzuli zuen eta San Anto-



Santiago de Urcelayren Pláticas en Vascuence



Santiago de Urcelayren “Dom. II. post Pent.” berbaldia

nio Maria Clareten⁵²² domeketarako platika batzuk ere itzuli zituen. Urzelaik idatzi zituen gainerako testuak **I. Eranskinean** kontsulta daitezke.

Baliteke Santiago Urzelaik bere bizitzan zehar idatzi zituen sermoietako batzuk galdu izana, baina kontserbatzen diren 600 orrialde⁵²³ baino gehiagoek argi erakusten dute egindako lanaren neurria. Hona hemen bere predikari eta idazle lanari buruzko pare bat iruzkin. Alde batetik, itxura guztien arabera, bere sermoiak euskara hutsean edo ia erabat euskaraz egiten zituen, eta aldez aurretik testuak arretaz eta kontu handiz prestatzeko lana hartzen zuen. Bestetik, adierazgarria da, sermoiok gipuzkeraz egiten zituela, bere eliztarren artean ohikoa ez zen euskalkian, nahiz eta ulertzeko inolako zailtasunik ez izan. Azken ezaugarri hori errepikatu egiten da aurkitu ditugun XIX. mendeko Bergarako lau egile eklesiastikoetan: Atxotegi, Eleizalde, Ziorraga eta Urzelai. Horiek guztiek ondo zekiten Bergarako berezko euskalkia, baina nahiago izan zuten euren idazkietan eta plaketan gipuzkera erabiltzea, hura jotzen baitzen garai hartan jasoentzat eta zuzenentzat.

Urzelairen estiloaz jabetzeko, adibide gisa, 1874ko irailaren 15ean⁵²⁴ Bergarako San Pedro elizan Ari-meï buruz egindako sermoiko pasarte batzuk transkribatu ditugu. Honela zioen:

Erruquitu zaitezte nitzaz, erruquitu zaitezte nitzaz, beintzat zuec nire adisquideac.

Gure Erligio Santac batzen gaitu gaurco egunian gogoratzeco gure eguinbide edo obligacioric andienetaco bat, ceñi ecin utzi gueiquion erantzun gabe, ucatu ecic ez bacarric cristauaren icena ez pada baita ere guizonena. Lurraren beetic irtetzen du gure viotza batetic bestera igaro eta erruqui viciz betetzen duan deadar lastimagarri batec. Aien negar malco, cizpuru eta lamentuen artean entzuten dira itz oiec: “Erruquitu zaitezte nitzaz, erruquitu zaitezte nitzaz, beintzac zuec nire adisquideac, bada Jaungoicoaren escuac zauritu nau eta nire gain dago”. “Miseremini mei, miseremini mei, saltun vos amici mei, quia manus Domini tetigit me”. Eta ¿nundic irtetzen ote dute deadar triste oiec, eta norenac ote dira escabide lastimagarri onec? Yll arrien edo sepulturen barrenetic? Ez N. Baña; Ahi; Eguia bada illarrian edo sepulturan arquitzen diran arrac eta ustelqueric eracusten digüela cer gueran eta certara etorrico gueran, verde ematen digüen eracuste eta leccioac escutatuac dira eta mutua beren itzcuntza edo lenguaia: bertan dauden defuntuac edo illac ez dute itzic eguiten isiltasunarequin baño: beren autzen itzcuntza sentitu dezaquegu bacarric gure beguiequin: Nundic irtetzen ote dute bada deadar triste eta escabide lastimagarri oiec? ¿Irtetzen ote du[t]e bada Cerutic? Ez N. cergatic betico sicatu eta legortu cituan Jaungoicoac bere santuen negarrac, eta zorioneco leen artan deadar triste oien ordeztira entzuten canta gozo eta alegriac vaicic. ¿Irtetzen ote dute bada Infernutic? Ez N., cergatic lecu icaragarri artan eztira entzuten ortzen carrascadac eta desesperaciozco daedarrac baicic: eztago aientzat consueloric, eta beren pena beticoetan ecin artu leiquie munduan vici diranetatic batere alivioric. Beraz nundic irtengo dute Purgatoriotic espada?

Orregatic bada Eliza Ama Santac eramaten gaituala gure difuntuen illarrietara edo sepulturetara, eracutziric lenengo gure uzqueria eta ecereztasuna, artzen ditu itz oiec bere españetan gure viotzac bigundu eta samurtzeco Purgatorioco animen alde, orrequin bertan preso edo cautivo arquitzen diran animac gure obra on eta sufragioequin eraman dauzcun aimbat lasterren Ceruetara. [...]

Urzelaik bere sermoietan jorratu zituen gaiak ohikoak dira: bekatuak, hamar aginduak, arimen aldeko sufragioak, aitortza, penitentzia, santuen eredua, otoitza, salbazioa eta abar. Gai horien artean azpimarratzekoa da Urzelai garai hartan oso modan zegoen gai batez ere arduratu zela: seme-alaben heziketaz eta haiek sortzean gurasoek hartzen zuten erantzukizun moralaz. Ikusi genuen nola On Manuel Umerez apaiz oñatiarrak ere orrialde batzuk eskaini zizkion gai honi. Bada, Urzelaik sermoi bat idatzi zuen gai honi buruz, ustez 1860ko hamarkadan, argumentu ortodoxoenak eta tonu tradizionalena erabiliz. Testu hori **II. eranskinean** irakur daiteke.

Azkenik, merezi du euskaraz idatzi zuten beste hiru egile aipatzea, administratiboki bergararrak izan ez arren, Bergarako euskararen oso hurbilekoa den aldaera batean, Antzuolakoan, idatzi zutenak. Gogoratu behar da Antzuola Bergarako jurisdikziopean egon zela 1629ko abenduaren 12ra arte, orduan bihurtu baitzen udalerri independente. Gainera, bai Bergarako euskara bai Antzuolako "Debaerdiko hizkera" izeneko aldaeraren barruan daude eta elkarren oso antzekoak dira. Bestalde, kontuan hartzen badugu XVIII. eta XIX. mendeetako Bergarako egileek ia lan guztiak gipuzkeraz idatzi zituztela, esan daiteke garai hartako Bergarako euskararen gertueneko erreferentzia Antzuolako autore hauek eskaintzen dutela, euren herriko bariatatean idatzi baitzuten.

Garai hartan ohikoa zenez, testu erlijiosoak taxutu zituzten: zehazki bi katixima eta hiru sermoi. Lehenengo katixima, 1678 ingurukoa, Juan Bautista Amilletak moldatu zuen, eta bigarrena, 1825ekoa, "Dr. P. A. Y." (Pablo Antonio Yraeta) izenez sinatu zuen egile batek. Sermoiak, berriz, Juan Ignacio Azkarate Benitua frantziskotarrarenak dira.

On **Juan Bautista Amilleta Lizarriturri** buruz (Antzuola, 1639/07/29 - Antzuola, 1700/05/09) datu gutxi ditugu⁵²⁵. Bere gurasoak Pedro Amilleta Galardi eta Maria Lizarriturri Arrelus (Arzelus?) izan ziren. Bere heriotza-agiriak dio benefiziadua zela. Suposatzen dugu Antzuolan, Uzarragako San Joan Bataiatzailearen parrokiari, aritu zela apaiz. Trentoko Kontzilioan (1545-1563), besteak beste, erabaki zen kristau dotrina zabaldu behar zela eta predikazioa herritarren hizkuntza propioan egin behar zela; horren ondorioz, katixima ezagunenak hizkuntza eta dialekto guztietara egokitu ziren. Euskararen munduan eta mundu hispanikoan ere zabalduena izan zen Gaspar de Astete jesuitaren 1599ko katixima hartu zen oinarri. Euskaraz, konta ezin adina dira euskalki literarioetara eta toki-hizkeretara itzuli ziren katiximak. Amilletak Antzuolako euskarari moldatu zuen *Dotrinea* da bertsio horietako bat. Arejitak eta Alberdik lehenik eta Arejitak ondoren egin zuten azterketan ikus daitezke haren testua eta analisi gramatikala⁵²⁶.

Eskuizkribuaren buru den Kontriziozko Egintza transkribatuko dugu, jatorrizko grafian, Amilletaren estilo literarioa eta bere testuaren profil dialektala ezagutzeko:

Acto Contricinocoa

Jesuchristo neure Jauna Jaungoicoa eta guizon eguiazcoa neure criadorea ta redemptorea, ceu zarana Izan arren eta cerren amacen zaitudan gauza guztiez gainea, damu dot Jauna vioz osotiq ceu ofendidua, daucat proposito firmea ez gueiagio Becaturic eguitemo, apartaceco ocasinotatic ceu ofendicecoetatic, confesaceco, cumpliceco penitencia confesoreac iveni deguidana; ofrecicen deusut neure viecea, obraac, trauajuac guztiaac satisfacinoan, neure becatuen erregucen deusudana leguez confiacen dot ceure Bondade andian ceure misericordia cabubaguean, parcatuco deustazula ceure odol santissimoaren merecimentuegatic, emongo deustazula gracia viciça obebat eguitemo, an perseueracen dodala eriocea ceruraco.

Pater noster Ave Maria = La oración de la Sabana Santa en Bascuence = Deciendo esta oracion se saca anima por concessión de Clemente Octavo =

Jauna, ici ceuscuna ceure pasino santuco señaleac içara santan ceinean batu izan zan ceure gorpuz santissimoa Josegatic curucetic irisita, concedidu eiguzu Jaun piadosoa ceure erioceagatic sepultureagatic eroanac izan gaiteala gloria resurrecinocora ceinean vici zaran Aita omnipotenterequin Espiritu Santuarequin batera Jaungoicoa orain da beti secula (erreinacen dozula). Amen.

Gana indulgencia, a las Auemarias, quien digere estos versos = Por concesión de Paulo 3.

Jaungoicoaren Aingueruac visitadu eban Maria eta conceidu eban Espiritu Santuaren obraz da virtutez = Auemaria = Jaungoicoa eguin çan guizon eta gure artean egon zan. Auemaria⁵²⁷.

Gainerakoan, Euskaltzaindiaren Azkue Liburutegian⁵²⁸ bere garaian argitaratu ez zen beste eskuizkribu bat ere gordetzen da; urteetan zehar bere izenaren inisialez eta doktore izaeraz bakarrik ezagutu dugun egile bati dagokiona. Hauxe dugu testu horren izenburua: *Eusquerazco Dotrinia Anzuelaco verba moduan, año de 1825. Por el Dr P.A.Y. P.A.Y. Doktoarearen* inisialak **Paulo (edo Pablo) Antonio Iraeta** (garaiko idazkeraz **Yraeta**) **Aiaztuiri** dagozkio (Antzuola, 1775/1/25 - Antzuola, 1858/5/10)⁵²⁹. Idazle honen identitatearen aurkikuntza Oxel Uribe-Etxebarriari zor zaio, Euskaltzaindiaren Azkue Liburutegian gordetzen den alean, azalaren eta kontrazalaren barruko aldean, Iraeta (Yraeta) izena ikusi baitzuen. Iraetaren gurasoak, Pedro Juan Iraeta Salsamendi eta Maria Josepha Aiaztui Arrazola izan ziren. Senar-emazteek hamahiru seme-alaba izan zituzten, eta Pablo laugarrena zen.

Pablo Antonio Iraetak Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatean lortu zuen batxilergo titulua eta bertan egin zituen Gramatikako eta Erretorikako oinarritzko ikasketak⁵³⁰. 1791n Mexikoko hirira joan zen bizitzera. Bertara iritsi zela eta berehala Seminario kontziliarrean ikasten hasi zela, bere osabak, Francisco Ygnaciok Iraetak, Pedro Miguel Echeberria Bilboko beste merkatari bati zuzendutako gutunak egiaztatzen du: *“llegó al puerto de Veracruz, con felicidad, la fragata ‘Santa Cecilia’ y en esta, su casa, el señor don Pablo de Yraeta que vino en ella, en calidad de pasajero, quien emprendió el primer curso de Filosofía en este colegio seminario en donde recibió la beca de colegial...”*⁵³¹. Beraz, berehala sartu zen Seminario Kontziliarrean, eta han Filosofiako hiru urte egin zituen lehenengo, eta Teologiako beste hiru ondoren. Ohitura zen bezala, jarraian pasante-aldia, alegia, ikas-praktikak, betetzen aritu zen lau urtez, eta, aldi


hori amaituta, Teologiako doktore titulua eskuratu zuen. Garai horretan, hainbat ordezkapen egin zituen, bai konfessore eta bai predikatzailerik lanetan, eta gainera bere ikastetxean Gramatika, Filosofia eta Teologia irakatsi zituen. Gora egin zuen azkar, gero eta kategoriatu handiagoko eta hobeto ordaindutako benefizioak lortuz. 1809an bi parrokiatan aritzeko oposizioetara aurkeztu zen eta lehenik Hueypoxtlako San Bartolome parrokiako ardura hartu zuen eta gero Ocuilucoko Santiago parrokiakoa, eta lau hilabetez jardun zuen bakoitzean. 1810eko urrian Epazoyucaneko San Andres elizako apaiz titular eta eliz-epaile izendatu zuten. Azkenik, 1818an, Ecatepecoko San Kristobal parrokian oposizioa egin eta kargu bera lortu zuen, 1820ra arte bete zuena. Baina, dirudienez, Morelosko klimak ez zion onik egiten Iraetari, eta garai hartan, 45 urte zituela, hain zegoen gaixorik, ordezeko bat jarri behar izan baitzuen apaiz-lanak egiteko, bera ez baitzen gauza⁵³².

Egoera horren berri eman zuen berak aurkeztutako merezimenduen txostenean: “*cuyo beneficio [Ecatepecoko San Kristobalgotzainari] ha obtenido hasta el corriente año de 1820, en que por muy debilitado de fuerzas, lo ha encargado a un vicario idóneo para experimentar los temperamentos de la Península*”⁵³³. Kontua da Mexikoko gotzainari baimena eskatu ziola “Penintsulara” lekualdatzeko, osasuna berreskuratzen saiatzeko, eta hark eman egin ziola. 1824ko urtarilaren 9an, Iraetak gutuna bidali zion Calahorrako gotzainari Atanasio Puyal y Pobeda jaunari, lehen aipatutako inprimakia ere erantsirik, eta bertan, gotzainari jakinarazten zion uko egiten ziola Ecatepec-eko parrokiari eta hutsik zegoen benefizioaren bat eskuratu nahiko zukeela. Idatzi horretan, Iraetak berriro azaltzen zituen 1821ean Mexiko utzi eta sorterrira itzultzeko izandako arazoak:


p.^o quanto me es conveniente renunciar el Beneficio Parroquial, q.^o poseo en la Provincia de Mexico, ya por el estado de independencia en q.^o se halla aquella Provincia, e ya también p.^o q.^o me dañan en la salud aquellos temperamentos⁵³⁴.

Hau da, itzultzea erabaki zuen Mexikon independentzia aldarrikatu zelako eta klima egokiagoan osasuna berreskuratzen saiatu nahi zuelako. Badirudi Iraetak uste zuela 1821eko irailean Mexikon independentzia formalki aldarrikatzea eragin zuen matxinada laster menderatu eta ezereztuko zutela, eta urak bere bidera itzuliko zirela, eta, bitartean klima hobeko toki batean, aukera izango zuela osasuna berreskuratzeko. Izan ere, bere asmoa zen Penintsulan geratzea harik eta Mexikoko erresuma baketu arte: “*hasta la pacificación del citado reino de Mejico*”⁵³⁵. Europan geratu behar izatekotan, eliz kargu bat lortzeko tokirik egokiena bere jaioterria zen, baina Antzuolako hotzak eta hezetasunak ez ziren batere egokiak bere osasun arazoak osatzeko. Kontua da 1821. urtean Calahorrako gotzainari eskatu ziola apaiz jarduteko beharrezko ministerio-baimena⁵³⁶ baina momentu hartan tokirik aurkitu ez zuenez, Valentziara joan zela klima hobearen bila. Geroago, dokumentazioan jasota dago 1824an Antzuolan bizi zela, baina baita 1826an berriz Valentzian zegoela ere, elizbarruti horretako gotzainak bertan geratzeko baimena eman baitzion⁵³⁷.

1827an kapilau gisa agertzen da. Garai hartarako, dirudienez, etsia hartuta zegoen Iraeta, sinetsita Espainiako Koroak ez zuela Mexikoren subiranotasuna berreskuratuko, eta, osasunez ondo aurkitzen zenez, Antzuolan eliz-karguren bat eskuratzeko asmoetara itzuli zen. Udalari eskatu zion bete gabe zegoen benefizioetakoren bat lortzen laguntzeko. Udalak ontzat eman zuen eskaria, izan ere, ez zuten



behar beste apaiz bi parrokia bateratuak artatzeko, eta benefiziaduetako bat, On Lorenzo Urrutia, gaixorik zegoen. Horretaz gain, zortzi urte ziren On Miguel Antonio Inurrigarro hil zela eta harrez geroztik hutsik jarraitzen zuen hark utzitako anoa osoko benefizioak⁵³⁸. Hala ere, kontua ez zen bate-
re erraza izan, hainbaten interesek egiten baitzuten talka: Udalarenak, Kabildoarenak eta Patronoarenak, hau da, Oñatiko Kondearenak. Udala kexu zen apaiz faltagatik (*“la grave falta de Ministros”*), eta Kabildoak horren erantzunkizuna Kondeari egozten zion, hark ahal zuen guztia egiten baitzuen kargu horiek berriz betetzea oztopatzeko. Azkenean, badirudi Iraetak lortu zuela benefizioa eskuratzea, baina ordainsarien bi herenekin, gainerako herena parrokiako fabrikarako geratuaz.



Andres parrokia zerbitzatuko zuen elizgizon benefiziadu bat bidaltzera⁵⁴⁰.

1850ean Uzarragako sakristauak, frai Tomas Correak, kargua utzi zuen Arrasateko Udala auzoko San Esteban elizara joateko. Iraetak hutsune hori bete nahi izan zuen, baina Bikarioak ez zuen egokitzen jo, uste baitzuen eginkizun hori dagoneko behar bezala betetzen zuela beste apaiz batek, On Martin Arbuluk. Gainera, iruditzen zitzaion Iraeta oso zaharra zela, 76 urte baitzituen, eta ajez betea zegoela, eta ondorioz nabarmen desegokia zela eginkizun horretarako⁵⁴¹.

Geroago ere, 1854an, jada 79 urterekin, On Pablo Antonio Iraetak bere arbaso batek, Miguel Perez Iraetak, Uzarragako San Joan Bataiatzailearen parrokian sortu zuen kapilautza lortzera jo zuen. Aurreko benefiziadua, On Lorenzo Urrutia, hil zelako geratu zen plaza hutsik. Kapilauak hiru meza ematen zituen astero aipatutako parrokian, eta zortzi erreal kobratzen zituen mezako, hau da, 100 bat erreal hilero. Eskatzaile gehiago zeudenez, Iraetak bere zuhaitz genealogikoa txertatu zuen eskaeran, frogatzeko bera zela fundatzailearen seniderik gertukoena eta, beraz, kargurako eskubide handiena zuena. Erantsitako eskema horren arabera, Pablo Antonio, Miguel Iraetaren seigarren belaunaldiko ondorengoa zen⁵⁴². Eta, hala, berak lortu zuen kapilautza, 1858an hil zenean, hutsik geratu zena⁵⁴³.

Laburbilduz, Ameriketako esperientziaren ondoren, Iraetak Antzuolan bizi izan zituen urteak, 1821etik 1858ra bitartekoak, estuasunez beteak izan ziren eta bere bizitzako azken urteetara arte eliz kargu txikien eskean ibili zen etengabe. Eta postuok lortzen ez zioten lagundu, ez bere osasun ahulak eta ezta, garaiko kanonak aintzat hartuta, adin aurreratua izateak ere. Argi dagoena da, Mexikon 30 urtez bizi izan arren, euskara ezin hobeto mantentzen zuela, bere *Dotrinia* idaztean erakutsi zuen bezala. Geratzen den zalantza bakarra

da ea lan hori Antzuolan edo Valentzian idatzi ote zuen, 1825eko data baitu eta, lehen esan bezala, 1824an Antzuolan bizi baitzen, eta 1826an Valentzian. Agian Turiaren ertzean idatzi zuen bere kati-xima, han beste zereginik ez zuelako? Nolanahi ere, zalantza guztietatik kanpo dagoena da 1825erako On P. A. Iraetaren asmoa Antzuolan apaiz aritzea zela, eta horretarako ezinbesteko tresnetako bat herriko hizkerara egokitutako katixima bat izatea zela. Eta, dirudienez, Amilletaren *Dotrinea* eskura ez zuenez, berak idaztea erabaki zuen. On Pablo Antonio Iraeta 1858an hil zen Uzarragan, eta bertako San Joan Bataiatzailearen parrokian lurperatu zuten.


Garai haietan ohikoa zen bezala, Pablo Antonio Ameriketara joan zen ahaide aberats batek —kasu honetan, bere osaba Francisco Ygnacio Iraetak— hala eskatuta. Francisco Ygnacio Iraeta Azkarate




Francisco Ygnacio Iraeta

(1732-1797) Antzuolatik Mexikora abiatu zen 1744an, hamabi urte zituela, senideek, —Egiatarrek eta Egurendarrek—, babestuta. Filipinetan eta Mexikon merkataritzan urte batzuk eman ondoren, Maria Josefa Ganuzarekin ezkondu zen. 1769an, aitaginarreba Pedro Ganuza hil zenean, haren enpresaren gidaritza hartu zuen, eta Nueva Españako merkataritza boteretsuetako bat izatera iritsi zen (orduko terminologiaren arabera, “*almacenero*”). Iraetak ez zuen ondorengo gizonezkoak izan enpresa bere esku lagatzeko. Alaba nagusia, Maria Rosa, Isidro Antonio Ikatza jaunarekin ezkondu zen, eta hark hartu zuen Iraetatarren enpresa-jarduerari jarraipena emateko ardura. Francisco Antonio Mexiko hiriko gunerik nobleenean bizi zen⁵⁴⁴, Palma kalean, Plaza Nagusiaren ondoan, merkataritza aberatsen artean ohikoa zen bezala. 1783an Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko bazkide egin zen eta 1791n, berriz, merkataritza librearen alde egin zuen, Nueva Españako garaiko gizartean oso kasu ezohikoa zena⁵⁴⁵.

Mexikon zela ere, Francisco Antonio Iraetak, Antzuolarekin lotura sendoak izaten jarraitu zuen, eta, besteak beste, dirutza handiak bidali zituen bere jaiotetxea berreraikitze, etxerako bidea egiteko edo familiaren lurrak handitzeko. Eta ez zuen gutxiago gastatu Antzuolako Errukizko Amaren eliza, batez ere bertako erretaula berria, apaintzen. Erretaula hori 1791tik aurrera eraiki zen, eta 1796ko gutun batean adierazten zuenez oso dotore geratu omen zen: “*me dicen que está suntuoso*”. Merkataritzarako zaletasuna



On Pablo Antonio Iraetaren *Eusquerazco Doctrinia Anzuelaco verba moduan*



Eusquerazco Doctrinia Anzuelaco verba moduan

eta gaitasuna erakusten zuten bere ahaideei laguntzen saiatu zen Francisco Antonio. Horrela, 1784an bere iloba Gabriel Iturbe Iraeta bere suhi eta bazkide bihurtu zen, bere bigarren alabarekin, Margarita Mariarekin, ezkondu baitzen. Gainerako ilobak eta besoetakoak, berriz, apaiz-karrerak egitera bultzatu zituen. Baina ez zuen nahi nolanahiko elizgizon behartsuak (“*clérigos míseros*”) izan zitezen eta horregatik ordaintzen zizkien Gramatika, Teologia eta Filosofia ikasketak San Ildefonso Ikastetxean. Eta ikasteko bekaz gain, arropa onak, txokolatea eta aparteko gastuetarako soldata ere ematen zien eta, zenbaitetan, pajea edo morroia ere jarri ohi zien. Horrela ulertzen da gure Pablo Antoniok doktore titulua eskuratu izana. Ikasketak amaitu eta apaiz ordenatu ondoren, ilobak kapilautza batean edo beste eliza-kargu batean kokatzen zituen⁵⁴⁶. Francisco Ygnacioren babesaz baliatu zen azken iloba, hain zuzen, gure Pablo Antonio izan zen.

Iraetaren katiximaren egitura klasikoa da, eta ez dakar berritasun handirik edukiari dagokionez. Hala ere, interes linguistiko handia du, aukera ematen baitigu garai desberdinetako bi lan (Amilletarena, 1768koa, eta Iraetarena, 1825ekoa) konparatzeko eta Antzuolako euskarak XVII. mendearen amaieratik XIX. mendearen hasierara bitartean izandako bilakaera ezagutzeko. “Anzuelako” *Dotrinia*⁵⁴⁷ duela urte gutxi batzuk Oxel Uribe-Etxebarriak aztertu eta argitaratu zuen⁵⁴⁸.

Aurrez eman dugu Amilletaren dotrinako “Acto contricinocua”, 1678koa. Hona hemen orain Iraetaren katiximako (1825) atal bera, bi bertsiok konparatu ahal izateko:

Acto contricinocua

Jesu-Christo nere Jauna, Jaungoico eta guizon eguiazcua, nere Criadoria, eta Redemptoria, zu zarana, izanagatic, eta cergatic amatzen zaitudan gauza guztia baño gueiago, damu dot, Jauna, nere viotz guztitic Zu ofendidua proponitzen dechut firmemente ez gueiago becatuic eguitia: Eta confesatzia, eta cumplitzia penitenciac: eta apartatzia zure ofensaco ocasiño guztietatic: Ofrecitzen dechut nere vicitzia, obrac, eta trabajuac nere becatuen satisfacciñoraco, eta nola suplicatzen dechudan, ala daucac Confiancia zure Misericordia infinituagan, barcatuco deustazula nere becatuac, zure odol precioso, pasino, eta eriotzien merecimentuegatic: eta emongo deustazula gracia, emendatzeco, eta perseberatzeco Zure servicio santuan, vici nayzen artian Amen Jesus.


Bi autore horiei XVIII. mendearen bigarren erdiko predikatzailer frantziskotar antzuolar bat gehitu behar zaie: **Juan Ignacio Azkarate Benitua** (Antzuola, 1753/8/6-Tolosa, 1802/12/15)⁵⁴⁹ Bere gurasoak Joseph Ignacio Azkarate Madariaga eta Maria Klara Benitua Galardi izan ziren. Alcala de Henaresko Ikastetxean ikasi zuen 1783 eta 1786 artean eta hainbat katedraren ardura izan zuen Elgoibarko, Arantzazuko eta Tolosako frantziskotarren komentuetan. Arantzazuko Artxiboan gordetako eskuizkribuen artean haren hiru sermoi daude: Santa Anastasiari buruzko panegiriko bat eta Azken Judizioari⁵⁵⁰ buruzko bi. Sermoiak ez dute datarik baina uste da 1780ko eta 1790eko hamarkadetan idatzi zituela. Amilletak eta Iraeta doktoreak ez bezala, Azkaratek gipuzkera erabili zuen bere sermoiak idazteko.

IV.6 - Inprimategia Bergaran

Inprimategia berandu iritsi zen Bergarara, baina, hala ere, bertan argitaratutako tituluen zati esanguratsu bat euskaraz egin zen. Ezagutzen den Bergarako lehen inprimatzailea Jose Undiano Ezquerro donostiarra (Donostia, 1799 - Bergara, 1855/8/13) izan zen. Aita ere inprimatzailea izan zuen: Antonio Undiano Gaztelu, Lorenzo Riesgorekin eta Monterorekin lan egindakoa. Jose Undianok gutxienez 1845 eta 1854 artean izan zuen inprimategia Bergaran, eta zenbait lan argitaratu zituen. Euskaraz daudenak erlijiozkoak dira denak: *Ama Santa Teresa de Jesus carmengo erligioaren reformatzalle, eta descalzoen fundatzallearen Novena* (1849); *Eusquerazco manuala sacramentuen gañeco eracusaldia, eta ongui ilten laguntceco oracio egoquiac dacazquiana...* (1850)⁵⁵¹, *Maria Santisimaren Illa, edo Mayatceco Illa* (1850)⁵⁵², *Dies Irae edo Juizioko eguna* (1850) eta *Bertsoak Ama Santisimari jarri diozkanak D. Ramon Maria de Aranzabal apaizak* (1851)⁵⁵³ eta *Gurutce Santu Legazpiacoari Verso berriac*, (1854)⁵⁵⁴. *Mayatceco Illa* eta *Bertsoak Ama Santisimari*, On Ramon Maria Aranzabal apaizak idatzi zituen eta berez, bi bertso-paper dira. Azken lan horrek arrakasta handia izan zuen, eta, horren ondorioz, behin baino gehiagotan argitaratu zen, aurrerago ikusiko dugunez.

Hala ere, ziur gaude Jose Undiano Bergaran bizi izan zela inprimatzaile lanetan hasi aurretik ere. Izan ere, 1835ean, hori pentsarazten digun gertaera batean parte hartu zuen. Urte horretan, Lehen Karlismaldiaaren testuinguruan, Juan Ignacio Mendizabal Tolosako inprimatzaileak Donostia defendatzera jo zuen, hiri-milizia libéraleko partaide zelako. Hori dela eta, karlisten aldeko Gerra Diputazioak, egoitza Bergaran zuenak, bere enpresako materialak eta makinak desjabetzea erabaki zuen, eta honakoa agindu zion Tolosako alkateari: “*proceda a ocupar dicha imprenta, a hacerla recoger con inteligente y a remitírsela luego*”. Inprentako materiala tasatzeko izendatu zuten aditua (“*inteligentea*”) Jose Undiano ofizial inprimatzailea izan zen. Desjabetutako ondasunen balioa 9.506 errealek kuartotan tasatu zuten. Makineria Bergarara ekarri zuten eta gero Oñatin “*Gaceta Oficial*” gobernu karlistaren aldizkari ofiziala inprimatzeko erabili zuten⁵⁵⁵. Undiano, hortaz, karlismoaren kolaboratzaile gisa agertzen da eta badirudi garai hartan Tolosan bizi zela⁵⁵⁶. Izan ere, dokumentatuta dago, hiru seme-alaba izan zituela Tolosan: Antonia Josefa (1829), Leon Maria (1833) eta Ignacio Maria (1835). 1842tik aurrera, berriz, beste hiru izan zituen Bergaran: Anselmo (1842), Inozenzia (1845) eta Maria Concepcion (1848)⁵⁵⁷. Jose Undiano Ezquerro, beraz, Mendizabal inprimategiko ofiziala zen, eta, itxura guztien arabera, gerra garaian etorri zen Bergarara, Tolosan konfiskatutako makineriarekin batera. Bertan jarri zen bizitzen eta 1845ean hasi zen gutxienez, lanak inprimatzen.

1857ko erroldan⁵⁵⁸, honako hauek agertzen dira “inprimatzaile” gisa: Ignacio Maria Undiano (orduan 21 urte zituen), Basilio Garate Etxeberria (27 urte), Bernabe Zeberio Lizarralde (32), Narziso Unzeta Bengoa (21), Juan Jose Torres Alberdi (14), Damaso Gonzalez Astaburuaga (15), Manuel Altamira Lemona (12) eta Francisco Albisua Olalde (22). Bestalde, “litografo” gisa ageri da Juan Jose Laborda Urrestarazu (19), eta “koadernatzaile” gisa Juan Tomas Otaño Ibarzabal (17). Jose Undiano Ezquerro bi urte lehenago hil zenez, ematen du horiek zirela, bere seme Ignacio Maria Undiano Altunaren zuzendaritzapean inprimategian lanean ziharduten langileak⁵⁵⁹.



Jose Undianok Bergaran inprimatutako polizia araudia



Txirritaren bertso-paperak

1860ko hamarkadan Manuel Imaz aritu zen Bergaran inprimatzaile lanetan, eta dirudienez, batez ere, bertso-paperak inprimatu zituen. Horrela, On Ramon Maria Aranzabalen *Ama Santisimari* lanaren hamaika ahapaldiak berrinprimatu zituen, baina datarik gabe. Aipatu dugu halaber, 1861ean Manuel Antonio Imazen bertsoak inprimatu zituela. Horretaz gain, 1861ean *Mayatceco Illa* ere berrinprimatu zuen. Gutxienez, 1861 eta 1863 artean lan egin zuen⁵⁶⁰. Hil zenean, enpresak “*Viuda de Imaz*” izenarekin inprimatzen jarraitu zuen.

1860ko hamarkadan, 1865etik aurrera gutxienez, Bergaran aritu zen beste inprimatzaile bat Francisco Maria Matxain izan zen. Urte hartan, *Reglamento para los serenos de esta villa de Vergara* argitaratu zuen. Euskarazko edizioei dagokienez, ordea, ia guztiak berrargitalpenak izan ziren: 1866an, Luis Astigarragaren *Diccionario manual bascongado y castellano* berrargitaratu zuen; 1867an, *Mayatceco Illa*, hirugarren aldiz; 1868an, *Eusquerazco manuala*, bigarren aldiz; eta urte berean, *Jesus-en Viotz sagradua beti adoratzeko egoteco modua*, Eleizalderena. 1871ko erroldan Matxain Bergaran bizi zela ageri da.


Bergaran, garai hartan inprimatze-lanek (garaiko hizkeran, *moldiztegi-lanek*) zuten egoeraren adierazle egokia da urtero argitaratzen zen liburu baten inprenta-oinean jasotakoa. Liburu hori Bigarren Hezkun-

tzako Institutuaren Memoria da (*Memoria leida ... en la solemne apertura de los estudios de segunda enseñanza del Instituto Provincial Guipuzcoano curso de ...*), eta haren argitalpenetan ikus daiteke urtez urte inprimategiak aldatu egiten zirela: lehenengo argitalpena Manuel Imazek egin zuen; bigarrena, Imazen alargunak (*“Viuda de Imaz”*) eta hirugarrena Francisco Maria Matxainek. 1871tik aurrera, aldiz, liburua Donostian inprimatu zen, Ignacio Ramon Barojaren inprimategian.


1876a baino geroago, eta beraz gure azterlaren kronologiatik kanpo jada, Ibarzabal anaiek inprimategia izan zuten Bergaran, eta euskarazko hainbat liburu argitaratu edo berrargitaratu zituzten bertan, besteak beste, lehen aipatu dugun Elizalderen *Gurutzeco bide liburua*.

Badirudi 1840ko eta 1870eko hamarkaden artean Bergara euskarazko inprimatze-gune garrantzitsua bihurtu zela, bai elizako liburutxoen bai bertso-paperen alorrean, aurrez Tolosa eta Donostia izan ziren bezalaxe.

Lehenago ikusi dugun bezala, inprimategi horiek, Ibarzabal anaienak behintzat, liburu-denda gisa ere funtzionatzen zuten, inprimatzen zituzten lanen aleak salduz.



Inprimategian lanean






Apuntes sobre la controversia..., Manuel Imazek Bergaran inprimatutako liburua

CELEBRADAS

POR LA

REAL SOCIEDAD BASCONG



Man. Sal.º Carmona sculp.

V. Euskararekiko jokabideak

V.1 - Hizkuntzaren politizazioa “garai modernoetan”

Egia esan, gutxienez, XVI. mendetik aurrera eman zitzaion euskarari nolabaiteko erabilera politikoa, izan ere, euskal apologisten (euskoiberisten, kantabristen, igualitaristen eta tubaldarren) arrazoiketaren ardatz nagusiak hizkuntzarekin lotuak ziren: euskararen ustezko antzinatasuna, garbitasuna eta jatorrizkotasuna, besteak beste. Azken batean, konstruktuko ideologiko horren helburua zen zilegitasuna ematea euskal lurraldeetako foru-ordenamendu politikoari, batez ere, horren beharrik handiena zuten lurraldeetakoari: Bizkaikoari eta Gipuzkoakoari. Kontua da, apologisten lanak, ia guztiak gaztelaniaz idatziak, gutxi batzuek irakurtzen zituztela eta, gehienez ere, elite intelektualen arteko eztabaidak pizten zituztela, baina oso eragin txikia zutela euskal hiztunen multzo zabalean. Baina XVIII. mendearen amaieran eta batez ere, XIX. mendean egoera nabarmen aldatuko zen. Zentralismo ilustratuak lehenik eta liberalismoak ondoren, estatu bakoitzean hizkuntza “nazional” bakar bat ofizialtzea eskatzen zuten, eta, aldi berean, herri-hizkuntza ez-ofizialak baztertzea eta are desagerraraztea ere. Hizkuntza ofiziala herritar guztiengana zabaltzeko borroka, hezkuntza-alorrean gauzatu zen nagusiki, baina baita militarrean, ekonomikoan eta, jakina, juridikoan ere.

XVIII. menderako, jesuitek —Kontrarreformaren liderrak eta borboitarren erregalismoaren etsai irmoak— herri-hizkuntzak moral tradizionalaren eta erlijioaren zein aitasantutzaren interesen defentsarako tresnatzat hartu zituzten, eta, hala, euskararen defendatzaile sutsu bihurtu ziren. Gogoratu besterik ez dago Mendiburuk, Kardaberazek eta Larramendik —eta beste jesuita askok— egindako lanak: alde batetik, euskarari buruzko lan teorikoak eta, bestetik, euskaraz atondutako sermoi, katixima zein deboziozko liburuak. Jesusen Lagundiak, klase herrikoietan, eta bereziki nekazarietan, ikusten zuen ideia “moderno” eta “suntsitzaileek” ekarritako mehatxuen aurkako gotorlekua. Eta Euskal Herrian klase herriko horietako gehien-gehienak euskaldun elebakarrak zirenez, jesuitek euskararen biziraupena klase horien biziraupenarekin lotu zuten, eta klaseok lotu zituzten euskalduntasun autentikoarekin eta ortodoxia katolikoarekin. Eta horrela sortu zen ideia bat, azkar zabalduko zena, erlijioa eta euskal izaera lotzen zituena, hau da, euskaldun = fededun. Eta, ondorioz, euskaldunetan euskaldunenak nekazariak zirenez, nekazariak ziren balio erlijiosoen gordetzaile nagusiak ere. Bitartean, hiribilduetako eta hirietako bizilagunak erlijiotik eta euskaratik urruntzen ari ziren pixkanaka⁵⁶¹. XIX. mendearen hasieratik, hori guztia munduaren bi ikuspegi ideologiko antagonikotan gauzatu zen: absolutismoa (landa eremuan nagusi zena) eta liberalismoa (hirietan presentzia handia zuena).

Aita Kardaberazek, gainerako jesuita euskaldunek bezala, oso argi zuen klase-herrikoien (bereziki nekazarien) eta euskal elebakartasunaren arteko identifikazio hori, eta hizkuntzaren biziraupena klase-herriko horien biziraupen sozialarekin berarekin lotu zuen:

Baña, gure Pobrecho on ascoren animac salvatceco, Euscarac burua jasotcea, Jaincoac naidu: gure Baserrietan gende prestuac diraunden artean, Euscarac iraungodu. Esan oidana: oiei lepoa ebaqui, edo bicia quendu gabe, Euscara ecin utci, edo quenduditeque⁵⁶².

Horrenbestez, balio erlijioso tradizionalen gordailu ziren “pobretxo” eta “baserritar” horien nortasuna gorde nahi bazen, euskaraz hitz egin behar zitzaien eta hizkuntza hori landu.

Baina bada beste zerbait ere. Ez dirudi kasualitatea denik jesuita bat (Manuel Larramendi) izatea, lehen aldiz lotu zituen hizkuntza-identitatea eta nazio-identitatea eta entitate politiko burujabe bat artikulatzea proposatu zuena. Entitate horri “*Provincias Unidas del Pirineo*” deitu zion.

¿Qué razón hay para que la nación vascongada, la primera pobladora de España y aun de vecindades, y lo depongo así, pues siempre soy su genio y su individuo testigo y compañero, que razón hay, vuelvo a decir, para que esta nación privilegiada y del más noble origen, no sea nación aparte, nación de por sí, nación exenta e independiente de las demás? Las lenguas muertas, latín, griego, hebreo, arábigo y otras, tuvieron cada una su nación aparte y gobernada por sí, sin dependencia de otras vecinas o distantes. Las lenguas vivas tienen hoy la misma dependencia y exención, como la francesa, española y demás ¿Qué razón hay para que esta nación privilegiada no sea nación aparte, nación por sí, nación exenta e independiente de las demás? Pues, ¿por qué el bascuence, lengua tan viva y de más vida que otra ninguna, no ha de ver a todos sus bascongados juntos y unidos en una sola nación libre y exenta de otra lengua y nación? ¿Por qué tres Provincias de España (y no hablo ya del reino de Navarra) han de estar dependientes de Castilla: Guipúzcoa, Álava y Bizcaya y otras tres dependientes de Francia, Labort: Zuberoa y Baja Navarra? Las provincias de Labort, Zuberoa y Baja Navarra (salvo siempre su fidelidad) lloran sepultadas recientemente sus libertades, derechos y posesión antiquísima, a violencias injustas del poder. El Señorío de Bizcaya gime también bajo el yugo que le van poniendo como a nosotros [a Gipuzkoa]. Solicitemos a unos y a otros, y nos llamaremos las Provincias Unidas del Pirineo. [...] Armas tenemos, formaremos soldados, regimientos y ejércitos, obligando a que todos los que pueden manejar las armas, se alistén sin excusa y estén prontos para las ocasiones. [...] De esta suerte, si eligiéramos Rey, será y se llamará Rey de Cantabria, y se le dará el Reino con los pactos y convenciones que habrá de jurar y no le será lícito quebrantar: e introducido el Pacta conventa de Polonia, no nos quebraremos la cabeza sobre si será monarca nuestro Rey y si nuestro gobierno se ha de llamar monárquico, o aristocrático o cosa semejante, o si mixto como el de Inglaterra. [...] Guerras tendremos que sustentar. Sea así. Pero serán guerras cantábricas, cuyo nombre debe infundirnos

aliento. [...] El mar será nuestro; no tendremos que temer las escuadras de Francia y España, y tendremos libremente los socorros y municiones necesarias. Constructores de navíos los tenemos en casa; el Pirineo nos dará todo el material, y todo herraje y clavazón nuestras herrerías⁵⁶³.

Jakina, 1756ko testu hau, *Sobre los Fueros de Guipúzcoa* izenekoa, ezin izan zen argitaratu egilearen garaian, eta 1983ra arte itxaron behar izan zuen argia ikusteko. Izan ere, Lagundiaren orduko arduradunek bahitu egin zuten (Larramendiren beste agiri asko bezala) arriskutsua izan zitekeelakoan, Lagundia Espainiako erresumetatik kanporatu baino hilabete gutxi batzuk lehenago. Proposamen politikoa parabola edo amets gisa azaldu zuen zuhurtzia guztiz jesuitikoarekin, baina, hala eta guztiz ere, argi erakusten du garai hartan sortzen hasia zen giro proto-nazionalista, identitate linguistiko eta kulturean oinarrituta, politika mailako proposamen guztiz berritzaileak formulatzera iritsi zena.

Borboien gobernuak, bere aldetik, gaztelania hizkuntza bakar gisa ezartzeko politika hasi zuen, eta gaztelaniaz besteko edozein hizkuntzatan liburuak inprimatzea mugatu zuen. Baina, oso adierazgarria da politika horren ezarpenaren lehen mugarrria Agustín Kardaberaz jesuitak euskaraz idatzitako liburu bat izatea. Izan ere, 1766ko azaroaren 1ean, jesuitak kanporatu aurretik, Arandako kondeak Ebazpen bat eman zuen, Kardaberazek Loiolako San Ignazioaren bizitzari buruz euskaraz idatzitako lana argitaratzea debekatzen zuena:

Orden del Señor Conde Aranda Presidente del Consejo de Castilla, para que, sin especial noticia suya, no se den licencias por este Consejo para imprimir libros en otra lengua que la Castellana: archibandose la obra original de la Vida de S. Ignacio escrita en Bascuence; y que se haga saber esta providencia a los impresores.

Auto acordado del Consejo para su cumplimiento y notificaciones a los Impresores⁵⁶⁴.

Ebazpenak, Kardaberazen lana “artxibatzea” agintzeaz gain, xedatzen zuen lanen bat gaztelaniaz besteko edozein hizkuntzatan argitaratzeko, aurrez Arandako kondeari berari jakinarazi beharko zitzaioela eta ez zela nahikoa izango Gaztelako Kontseiluak egindako zentsura-izapide arrunta. Neurria, jakina, Gobernuaren eta Lagundiaren arteko gatazkaren testuinguruan kokatzen zen, eta handik urtebete baino gutxiagora Gobernuak Jesusen Lagundia kanporatu egin zuen Espainako Erresumatik. Kardaberazen liburuaren kasuan, ez zen Gobernuak ausaz hartutako debekua: alde batetik, San Ignaziori buruzko biografia batek eduki zezakeen ahalmen subertsiboa saihestu nahi izan zuen; eta, aldi berean, hizkuntza ez-ofizialen gaineko kontrol politiko handiagoa ezarri nahi izan zuen, horietan idatzitako liburuak inprimatzea mugatuz eta debekatuz.

Nolanahi ere, Borboien gobernuen agintaldietan izan ziren Erresumaren zentralizaziorako eta homogeneizazio linguistikorako lehen urratsak, batez ere Aragoiko Koroa zaharreko lurraldeetara zuzenduak (Aragoi, Katalunia, Valentzia eta Balear Uharteak). Ez da ahaztu behar lurralde horiek beren Foruak galdu zituztela Ondorengotza Gerraren ostean. 1768ko ekainaren 23an, Koroak Errege Zedula bat eman zuen lurralde horietako auzitegien eskubide prozesalak arautzeko, eta bide batez, lehen hezkuntzari buruzko erabaki batzuk ere hartu zituen. Haren aurretik, Gaztelako Errege Kontseilu Gorenak honako hau zioen txostena egin zuen:

Sería preciso tanvien que la enseñanza de primeras letras, latinidad y retórica fuese en lengua española, porque si en esto no puede hacerse general, como conviene a la general unión de todas las provincias de la monarquía que es un punto esencial sobre el que debe trabajar todo Gobierno, para que depuesto todo espíritu provincial se subrogue el laudable de Patria o Nación⁵⁶⁵.

1768ko Errege Zedulak, zalantzarik gabe, proposamen horren alde egin zuen eta honako hau ezarri zuen: “*Finalmente mando, que la Enseñanza de Primeras Letras, Latinidad y Retórica se haga en lengua Castellana, generalmente donde quiera que no se practique [...] para su exâcta observancia, y diligencia en extender el idioma general de la Nación para su mayor armonía, y enlace recíproco*”⁵⁶⁶. Beraz, argi zegoen Espainiako Gobernuen espiritu zentralista eta uniformatzailea, baina momentuz euskal lurraldeak asmo horietatik kanpo geratzen ziren, eta euren Foruei eutsi ahal izan zieten.

XIX. mende nahasiaren etorrerarekin, eta liberalismoaren eta absolutismoaren arteko talka piztearekin, herri-hizkuntzak gatazka politikorako esparru garrantzitsu bihurtu ziren. Oro har, Espainiako libe-
ralek —frantziar jakobinismo garbienaren oinordekoek— estatuaren uniformizazio linguistikoa lortu nahi zuten, ofizialtasun juridikoa gaztelaniarentzat soilik gordez eta gainerako hizkuntzak irakaskuntza-
tik, ekintza juridikoetatik eta bestelako erabileretatik kanpo utziz, hau da, hizkuntzon erabilera esparru pribatura, familia giro hutsera, mugatuz. Estatu-Nazioa eraikitzeak, besteak beste, homogeneousun kultural eta linguistikoa ezartzea eskatzen zuen: Nazio bakarra = herritar kulturalki homogeneousunak = hiz-
kuntza bakarra. Eta, noski, herritar guztiek hizkuntza ofiziala (eta bakarra) jakitea lortzeko bide nagusia eskola zen.

Espainiako liberalen zentralizazio- eta uniformizazio-politikek, Frantziatik kopiatu zuten hizkun-
tza bakarraren printzipioa: hau da, estatu bakarra, eta hizkuntza bakarra ekitaldi ofizial guztietarako. Horrela, Fernando VII.aren erregealdian, 1829an, aldarrikatutako Merkataritza Kodeak honako hau aurreikusten zuen:

Los libros de comercio se llevarán en idioma español. El comerciante que los lle-
ve en otro idioma, sea extranjero o dialecto especial de alguna provincia del reino,
incurrirá en una multa que no bajará de mil reales, ni excederá de seis mil; se hará a
sus expensas la traducción al idioma español de los asientos del libro que se mande
reconocer y compulsar⁵⁶⁷.

Azterlan honetako beste atal batean adierazi bezala, 1862ko Notariotza Legeak aurreikusten zuen dokumentu publikoak gazteleraz idatziko zirela: “*los instrumentos públicos se redactarán en lengua castellana*”. Hala ere, lege hori garatu zuen erregelamenduan ñabardura garrantzitsu bat txertatu zen: notarioek lan egingo zuten tokian hitz egiten zen hizkuntza ez-ofiziala ere jakin beharko zutela. Zalantzarik gabe, neurri hori estatuko eta, bereziki, Euskal Herriko hizkuntz egoerak behartuta ezarri zen, asko baitziren notario erdaldunekin komunikatu ezinik gera zitezkeen herritar elebakarrak.

Hizkuntza ez-ofizialak ahozko eta familiako eremu hutsera mugatzeko eta bizitza kultural eta publiko-tik erabat baztertzeko ahalegin horretan, izan ziren hainbat debeku-agindu ere, argi erakusten zutenak espainiar liberalismoaren espiritu orokorra: Espainiako hiritarrak espainieraren inguruan batzea eta estatuan hitz egiten ziren gainerako hizkuntzak pixkanaka desagerraraztea. Esandakoaren adierazgarria da, 1867an, Narvaez jeneralaren gobernupean, hartutako erabaki bat: urte hartan antzerki-lanen zentsura arautu zen, kultur esparru hori subertsiorako eremu izan zitekeela uste zelako; bada, testuingurua aprobetxatuz, agintariak pentsatu zuten euskaraz, katalanez edo galegoz idatzitako lanekin arazo politikorik ez izateko modurik onena ez zela lanok zentsuratzea, baizik eta zuzenean debekatzera. Hori horrela, honakoa xedatu zuten:

En vista de la comunicación pasada a este ministerio por el censor interino de teatros del reino con fecha de 4 del corriente, en la que se hace notar el gran número de producciones dramáticas que se presentan a la censura escritas en los diferentes dialectos, y considerando que esta novedad ha de influir forzosamente a fomentar el espíritu autóctono de las mismas, destruyendo el medio más eficaz para que se generalice el uso de la lengua nacional, la reina (q. D. g.) ha tenido a bien disponer que en adelante no se admitirán a censura obras dramáticas que estén exclusivamente escritas en cualquiera de los dialectos de la provincias de España⁵⁶⁸.

Debekuak sekulako protesta piztu zuen, eta gobernuak atzera egin behar izan zuen, eta horren ordezt, “dialektoetan” idatzitako lanetarako zentsura-sistema propio bat arautu zuen. Sistemaren arabera, gobernuak tokiko zentsoreak izendatuko zituen, eta haiek arduratuko ziren lanak, gaztelezko itzulpen eta guzti, Madrilera, Antzezlanen Erresumako Zentsoreari bidaltzeaz, hark, modu zentralizatuan, azken zentsura-lana bideratu zezan. 1869ko Konstituzio aurrerakoia edozein zentsura mota debekatu zuen. Hala ere, azpimarratzekoa da hizkuntzari ematen zitzaion garrantzi politikoa, identitatea sendotzeko bidetzat hartzen zelako, eta, ondorioz, estatu zentralistarentzat, desegonkortze-potentzial nabarmena zuelako. Izan ere, hori guztia gertatzen ari zen bitartean, zenbait lurraldetan — bereziki Katalunian, baina baita Euskal Herrian eta Galizian ere— pizkunde kultural eta politiko bat bizitzen ari ziren.


Baina irakaskuntzaren esparruan izan zen hizkuntza bakarraren printzipioa ezartzeko borroka-rik garrantzitsuena. Hala, 1836ko Hezkuntza



Manuel Larramendiren *Sobre los Fueros de Guipúzcoa*

Publikoaren Planak honala zioen: “*La lengua nacional es la única de que se hará uso en las explicaciones y libros de texto*”⁵⁶⁹. 1838ko uztailaren 21eko legeak, oinarrizko irakaskuntza arautzen zuenak, gaztelaniaren hizkuntza bakarraren printzipioa berretsi zuen Espainiako estatu osorako. 1845eko irailaren 17an, Ikasketen Plan orokorra —Plan Pidal deitua— onartu zen, honako helburuarekin: “*la necesidad de establecer unidad y armonía en todas las escuelas del reino*”. 1850ean ikasketa-plan berri bat egin zen, irakaskuntzan gaztelaniaren esklusibotasuna berretsiz, baina ñabardura batekin: hizkuntzaren izena, “*lengua castellana*” izatetik “*lengua española*” izatera pasatu zen, haren “nazio-eta estatu-hizkuntza” izaera azpimarratzeko. Hala, plan horretako 137. artikulua honela zioen: “*La lengua nacional será la que se use en las explicaciones y en todos los ejercicios para los cuales no estuviere prevenido el empleo de ninguna otra*”⁵⁷⁰. Jakina, hezkuntza-planen ondorengo erreformek (1853, 1857, 1858, 1861, 1863, 1866, 1868, 1872) eutsi egin zioten irizpide horri: estatu osoan irakaskuntza espainieraz soilik emateari. Nolanahi ere, hezkuntza (oinarrizkoa, bigarren mailakoa zein unibertsitatekoa) hainbat hamarkadatarako egituratu zuen legea Moyano Legea izan zen, Claudio Moyano Samaniego Sustapen ministroak 1857ko irailaren 9an ezarri zuena. Esan gabe doa maila guztietarako aurreikusten zen irakas-hizkuntza espainiera zela, latinari tarte txiki bat utzita, baina ez beste inongo hizkuntzari.

Espainiako estatuan irakaskuntza bateratua ezartzeko lehen urrats serioa 1821eko ekainaren 29ko Errege Dekretuarekin eman zen; haren bidez, gaztelaniaren ikaskuntza bermatu eta ikastetxeen kudeaketa eta antolaketa estatuaren esku utzi ziren. Lehen Hezkuntzarekin lotuta, gai garrantzitsu bat maisuak izendatzeko eskumenarena izan zen, ordura arte, tradizionalki udalen esku izan baitzen. Hala ere, une hartan, Euskal Herrian eskumen hori mantendu zen, eta ondorioz, izendatutako irakas-




Claudio Moyano y Samaniego

le gehien-gehienak euskaldunak ziren. Gipuzkoako Batzar Nagusiek 1824an onartu zuten lurralde osoan ezarri beharreko Eskolen Araudi Orokorra. Egoera aldatu egin zen 1857ko “Moyano Legearekin”, eta haren indarraldiak mende bat baino gehiago iraun zuen. Hauek ziren legearen oinarriak: doakotasuna, zentralizazioa, uniformetasuna eta irakaskuntzaren sekularizazioa. Legearen 169. artikuluan eta hurrengoetan argi eta garbi ezarri zen eskumen hori gobernu zentralari zegokiola: “*El nombramiento de Profesores de los Establecimientos públicos corresponde al Gobierno ó a sus delegados*”. Horrek aurrez aurre egiten zuen talka euskal foruen sistemarekin eta hiru lurraldeetako (Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako) aldundiek ez zuten onartu eskumen hori galtzea, izan ere, ondorio linguistiko larriak zekartzan. Horregatik, 1857ko azaroaren 6an Gasteizen bilduta, gobernuari eskatu zioten Moyano Legeko irakasleen izendapenari buruzko artikulua ez aplikatzeko, foru-eskubideen kontrako urraketa nabarmentzat jotzen baitzituzten. Eskaera, ordea, alferrikakoa izan zen.

Ordutik aurrera, euskal udalek beren irakasleak izendatzeko zuten eskumena galduta, estatuko beste lurralde batzuetatik zetozen maisu-maistrak euskal eskoletako plazak lortzen hasi ziren. Irakasle horiek, jakina, ez zekiten euskaraz, eta, gainera, euskal haurrei gaztelania irakastea zuten eginkizun nagusi. Alde horretatik, oso garrantzitsua izan zen irakaskuntza-ikuskatzaileen lana, maisu-maistrak lan horretan bereziki saia zitezen zaintzen baitzuten. Hemen aipatzekoa da, zalantzarik gabe, Juan Maria Eguren (Elgeta, 1828-1880) hezkuntzako ikuskariaren figura, Gipuzkoan eta Araban ikuskatzaile lanak egin zituen maisuarena. Eguren oso kezkatuta zegoen haur elebakar euskaldunek gaztelania ikasteko zituzten zailtasunengatik eta 1867an euskal eskoletan gaztelania ikasteko metodo bat argitaratu zuen, 1876an beste titulu batekin berrargitaratuko zena⁵⁷¹.

Egia esan, aspalditik zetorren haur euskaldunek eskoletan gaztelania ikasteko eta bide batez euskarazko oinarritzko ikaskuntza normalizatzeko tresna pedagogikoak izatearen kezka. Aipagarria da, alde horretatik, Luis Astigarraga Ugarte (Segura, 1767 - Tolosa, 1840) pedagogo eta politikari liberalaren lana. Astigarragak ikasketa metodo “Lancasterarra” (Joseph Lancaster hezitzaile ingelesak garatutakoa) defendatzen zuen, zeinetan ikasle aurreratuena baliatzen baitziren besteei irakasteko. Elebitasunaren aldekoa izanik, *Diccionario manual bascongado y castellano, y elementos de gramática...* argitaratu zuen 1825ean⁵⁷². Arrakasta handia izan zuen eta hogeitabat aldiz berrargitaratu zen XIX. mende osoan. Era berean, oso interesgarria da, Agustin Pascual Ugarte Iturriaga (Hernani, 1778 – Hernani, 1851) apaiz eta pedagogo liberalaren ekarpena. Batzuetan Agustin Iturriaga izenez ere ezaguna, berritzaile pedagogikoa izan zen, eta elebitasuna ezezik eleaniztasuna ere defendatu izan zuen. Hala, 1818 eta 1823 artean Hernanin zabalik izan zuen eskolan lau hizkuntza erabiltzen ziren: euskara, gaztelania, frantsesa eta latina. 1830ean,



Juan Maria Egurenen *Método práctico...*

Gipuzkoako Batzar Nagusiek Arrasaten egindako bilkuran erabaki zuten lurralde horretan euskara bizirik gordetzeko eta ilustratzeko neurriak hartzea (“la conservación e ilustración de la lengua vascongada”). Horren ondorioz, Iturriagak oso interesgarria idatzi zuen: *Memoria sobre el decreto de las ultimas Juntas Generales celebradas en Mondragón relativo á la conservación de la lengua bascongada*⁵⁷³. Bertan, beste gogoeta interesgarri batzuen artean, Iturriagak dio:

Si no échese una ojeada sobre nuestras escuelas de primeras letras y en ellas se tocará de lleno esta triste verdad. Allí se verá tramada una conjuración sistemática y permanente contra la lengua bascongada; allí formadas las oficinas, en que forjan constantemente armas para destruirla, haciendo de los niños otros tantos titanes destinados a destronar a su madre. Estas no son figuras retóricas, no son exageraciones, ni espantajos, son la pura y exacta verdad, y la palparemos si pasamos a examinar la práctica introducida en dichas escuelas desde tiempo inmemorial, para enseñar a los niños hasta la edad de la pubertad, que es el período de tiempo, que asisten a la escuela, desde que llegan a tener cinco o seis años. Pues tan pronto como entran en ella, se principia por ponerles en las manos la cartilla castellana. Luego que han aprendido a leer en ella, se les da sucesivamente el Astete, el Catón, y otros libros, todos castellanos, y si se les hace leer y aprender la doctrina cristiana en bascuence, es porque los más de los párrocos acostumbran preguntársela públicamente en la parroquia para la instrucción de los fieles.

[...] Ya hemos probado que las lenguas dominantes prevalecen sobre las que no lo son porque se cultivan con preferencia a ellas. Cultivemos el bascuence, y veremos que la misma causa produce el mismo efecto. Pero ¿cómo hemos de cultivarla, si hemos visto que todos nuestros intereses y ventajas están en contra de ella? La cultivaremos convirtiendo estos intereses y ventajas en favor suyo. ahí está la imposibilidad, se me dirá. Pero yo responderé que esta imposibilidad no es absoluta o total, sino que es posible en parte, y que esta parte posible es suficiente para la conservación de nuestra lengua nativa, para hacerla más generalmente inteligible en todo el país bascongado, y para detener su marcha retrógrada, que es el objeto del decreto, sobre el que versa este escrito.

[...] Destruyamos pues desde luego esta práctica tan perniciosa a la lengua bascongada, y sustituyámosle otra, que la hermane con la lengua castellana haciendo que se auxilien recíprocamente, y que de enemigas que eran hasta aquí se hagan y sean en adelante íntimas amigas y compañeras. ¿Qué pretendemos, o qué necesitamos nosotros en nuestra posición actual con la lengua castellana? aprenderla y llegar a poseerla con la mayor perfección posible⁵⁷⁴.


Ausartuko naiz kasualitate hutsari leporatu ezin zaion gertaera baten inguruan arreta jartzera: 1825-1867 aldian irakaskuntza elebiduna bultzatzeaz eta horretarako tresnak sortzeaz arduratu ziren hiru pedagogoak gipuzkoarrak eta liberalak ziren. Gipuzkoarrak izateari dagokionez, argi dago lurralde horrek gordetzen zuela ondoen euskara, eta euskal haur elebakar gehienek zailtasun handiak zituztela ikasgaiak gaztelaniaz ematen zituen eskola batean integratzeko. Beraz, lurralde horretan zegoen aipatutako arazo horri irtenbidea emateko beharrik handiena. Astigarragaren, Iturriagaren eta Egurenen atxikipen politikoari dagokionez, hirurak ziren, ñabardura desberdinekin bada ere, hastapenetan zegoen Estatu liberalaren aldekoak. Alabaina, euskaltzaleak eta pragmatikoak ere baziren, eta uztartu nahi izan zituzten, alde batetik, euskararen salbazioa eta normalizazioa; eta bestetik, Estatu osoan (eta beraz baita Hego Euskal Herrian ere) gaztelania hizkuntza ofizial gisa ezartzea.

XIX. mendean zehar, karlistek, jesuitek markatutako ildoan bereganatuko dute, nolabait, hau da, euskara bultzatzea eta tresna politiko gisa baliatzea, herritarrek gero eta pisu handiagoa hartzen ari zen liberalismo “bekatuzko” eta “pozoitsutik” babesteko. Esanguratsua iruditzen zait Jose Ignacio Arana (1838-1896) azkoitiar jesuitak Félix Sardá Salvany katalanak idatzitako liburuxka ahalik eta azkarren itzuli eta argitaratzeko egindako ahalegina. 1888an argitaratu zen eta *Bai, pecatu da liberalkeriya* izenburua jarri zion⁵⁷⁵. Badirudi 1889an ere izan zela beste bertsio bat, bizkaieraz, Gernikan Francisco Bastegietaren inprimategian argitaratua. 1891n Bartzelonan, La Hormiga de Oro argitaletxean, *El liberalismo es pecado* liburuaren bertsio bat argitaratu zen, zortzi hizkuntzatan: gaztelaniaz, frantsesez, katalanez, portugesez, latinez, italieraz, alemanez eta euskaraz.

Buruzagi karlistek euskarari buruz zuten jarreraren lekukotasun guztiek euren aldeotasuna erakusten dute, eta eurentzat hizkuntzak identitate-elementu gisa zuen garrantzia nabarmentzen dute. Adibidez, honela zioen Juan Antonio Zaratiegi Zeligueta jeneral karlista erriberritarrek, Zumalakarregiren idazkariak:

Los naturales de Vizcaya, de Guipúzcoa, y de una considerable parte de Navarra, hablan el idioma vascongado: la conservación pura de este, después de más de veinte siglos en España, es el mejor monumento, á nuestro modo de ver, para probar al mundo el valor con que defendieron siempre su independencia los naturales de estas montañas⁵⁷⁶.

Bada esparru bat agintari karlistek euskararekiko zuten jarrera proaktiboa argi ikusten dena: juridikoa. 1874ko martxoan tropa karlistak Tolosan sartu ondoren, Donostiara ihes egindako jaun liberalek “erbesteko Tolosako udal gobernu” eratu zuten, 1876rarte funtzionatu zuena. Aurreko ohiturari jarraituaz, kudeaketa gai guztiak gazteleraz eramaten zituzten. Aldiz, udal agintari karlista berriek Hiribilduaren gobernu oneko Ordenantzak sortu zituzten eta ele bietan idatzi zituzten: gaztelaniaz eta euskaraz. Horrek hizkuntzarekiko guztiz berritzailea zen jokabidea zekarren, izan ere, euskal araudi juridiko guztiak gazteleraz, frantsesez, latinez edo gaskoieraz idatzi izan ziren ordura arte, mendea joan eta mendea etorri.



Jose Ignacio de Arana *Bai, pecatu da liberalqueriya*

Jakina, esparru liberaletan gero eta gehiago lotzen da euskara jesuitismoarekin eta karlismoarekin, eta horrek indartu egiten du gaztelaniaren izaera bateratzaile eta eksklusiboa, hizkuntza hori estatu konstituzional berri eta uniformizatua eraikitzeko funtsezko tresnatzat jotzen baita.

Denborarekin, karlisten artean, euskararekiko ideia bat gorpuzten joango da: euskara hizkuntza “garbia” dela, balio moralak irudikatzen dituen, urrezko aro batetik datorrena eta biraorik eta madarikaziorik onartzen ez duena. Hala zioen Vicente Manterola kalonje karlistak 1865ean: “*una lengua [euskara] en que la blasfemia es imposible, una lengua que jamas se ha visto salpicada por la inmunda baba de Satanás*”⁵⁷⁷. Euskara, buruzagi karlistentzat —aurreko mendeko predikatzaile jesuitentzat bezala— ezkutu bat da, doktrina pozoitsu eta suntsitzaile berriei aurre egiteko babes-tresna bat: aurreko mendean, erregalismoari aurka egitekoa; orain, liberalismotik babestekoa. Bi kasuetan, estatuaren uniformizazio eta zentralizazio asmoetatik defendatzekoa.

Eta euskararen garbitasunaren ideiarekin batera, bada denborarekin arrakasta handia lortuko duen planteamendu bat: euskara erlijioarekin eta foruekin lotzekoa. Alde batetik, euskalduntasun benetakoa eta hizkuntza uztartzen dira, hizkuntza euskal-izatearen ezaugarri nagusitzat hartuta; eta horri eranstean zaio euskaldunek ustez duten erlijio-sentimendu berezia. Hori guztia esamolde batean laburbiltzen da: “*Euskaldun, fededun*”. Horregatik esleitzen zitzaion elizari identitatea egituratu eta babesteko funtzioa, identitate hori hizkuntzaren inguruan eratuta. Ez da, beraz, harritzekoa, zenbait ahots guztiz kontra agertzea Pio X.ak 1861eko irailaren 8an, *In Celsissima* buldaren bidez, Baskongadetako hiru probintziak hartzen zituen Gasteizko elizbarrutia sortu zuenean. Izan ere, askoren iritziz, neurri harekin euskal nortasun nazional bat sendotzea bilatzen zen; Elizaren babespean egituratua, eta euskara bereizgarri nagusitzat izango zuena. Kontrako jarrera hori argi eta garbi adierazi zuen Justo Barbagero Santo Domingo de la Calzadako kolegiatako abade hautetsiak, 1861eko abuztuan Justizia ministroari bidalitako idatzian. Honakoa zioen idatziak:

Teniendo los bascongados Obispo de su habla, Cabildo y párrocos de su habla, pastorales, sermones, libros en su habla, se aferrarán más y más a ella, tratarán de extenderla por los límites de las tres provincias, ganando el terreno perdido y haciendo de ella una lengua nacional; y si a esto se agrega la mayor afición que cobrarán a sus costumbres, tradiciones y fueros, que en cierto modo se autorizan y sancionan, se habrá contribuido a formar en España una nacionalidad distinta, y una base de separación política para los que más adelante quisiesen invocar el principio de las nacionalidades⁵⁷⁸.

XIX. mendean zehar, euskal intelektualen artean zabalduz joan zen euskara eta foruen arteko lotura estuaren kontzepzioa; alegia, hizkuntzaren eta sistema instituzional propio eta bereizi baten arteko harremana oinarritzat zuen ikuskera. Hala adierazten zuen, adibidez, Juan Antonio Iztuetak: “Euscaraz ill ezquero Fueroac ez dira bicico; baina Euscaraz bici bada, Fueroac piztuco dira”⁵⁷⁹.

Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundi karlistak euskarazko lehen hezkuntza lehenesten saiatu ziren. Hala, Gipuzkoako Foru Aldundiak zirkular bat bidali zien Probintziako alkateei 1874ko apirilaren 9an, ho-

nakoak exijituz: eskolak maisu euskaldunek zuzen zitzatela, irakaskuntza lehenik euskaraz eta gero gaztelaniaz eman zedila, eta jakina kristau doktrina euskara hutsez irakats zedila, betidanik egin ohi zen bezala. 1875eko maiatzaren 13an ezarri zen Gipuzkoako Lehen Hezkuntzako Eskolen Behin-behineko Araudia, eta bertan ere jasotzen zen irakaskuntza lehenik euskaraz emango zela eta irakasleek izango zuten lehentasunetako bat euskararen ikaskuntza bermatzea izango zela: “*el estudio y enseñanza de nuestra rica y armoniosa lengua* [euskara]”. Euskaraz irakurtzen ikasteko metodorik ez zutenez, urte horretan *Iracur-tzaren asierac* izeneko metodoa argitaratzeko agindu zion Instrukzio Publikorako Batzorde Probintzialak Pedro Gurruchaga inprimatzaile tolosarrari⁵⁸⁰. Bestalde, Bizkaiko Instrukzio Publikoko Batzorde Nagusiak eskoletan euskara sartzea eta sustatzea erabaki zuen: “*introducir y promover la enseñanza de la lengua vascongada en las escuelas del Señorío*”. Eskolen araudia osatzeko oinarrien aurre-txostenean, euskarari buruz, honako hau adierazten zen:

...generalizándola además por todos los ámbitos de su jurisdicción y haciéndola extensiva a todas las clases sociales, hasta elevarla a idioma oficial, en sustitución, o al menos al igual, del castellano, que ha invadido hasta las últimas aldeas⁵⁸¹.

Bigarren karlistaldia amaitu zenean, foruen abolizioaz gain, euskara bizitza publikotik desagerrarazteko kanpaina bati hasiera eman zitzaion. Angel Carvajal Fernandez de Cordoba diputatua, Sardoalgo markesa, nabarmendu zen Estatu osorako hizkuntza bakarra mantentzearen aldeko jarrera irmoagatik;



Bergarako besarkada



Don Carlos

eta haren aurka gogor altxatu zen Kongresuko 1876ko martxoaren 2ko saioan Leandro Nagore notario karlista eta Iruñeko Notariotzako Elkargoko dekanoa, zeina liberalek erbesteratua izan baitzuten 1872tik 1876ra bitartean⁵⁸². Saio hartan Carvajalek Frantziako eta Espainiako zentralismo jakobinoak oso maitea zuen argudio bat erabili zuen: euskara arkaismoarekin, atzerapenarekin, baserritarkeriarekin eta, beraz, modernitatearen aurkako pentsaerekin lotzea:

Es necesario que todos los pueblos hablen el mismo idioma; necesario, en fin, romper ese obstáculo que nunca se vence, de una civilización eúskara que se opone a todos los progresos y a todos los adelantos de las ideas modernas.

Izan ere, alde batean zein bestean aspalditik ari ziren lotzen euskararen biziraupena foru-sistemarekin. Bi horiek ziren euskal nortasun politikoaren osagai nagusiak. Horregatik, oso esanguratsua da 1876an Madrilgo *El Imparcial* egunkarian agertu zen baieztapena. Egunkari liberalak, bere izenari ohore handirik egin gabe, honela zioen: “Foruak kentzea ez da nahikoa, orain hizkuntza kendu behar diegu” “*Quitarles los Fueros no es suficiente, tenemos que quitarles ahora la lengua*”⁵⁸³. Madrilgo arratsaldeko beste egunkari batek, *La Época* egunkari monarkiko eta kontserbadoreak, hainbestearino iritsi gabe, euskal herritarrak gaztelania jakitera derrigortzearen alde egiten zuen, honako hitzekin: “*sin querer borrar de sus montañas ninguno de sus recuerdos, ni pretender que en sus valles deje de resonar la lengua que hablaron sus padres, à la necesidad de que tambien allí [Euskal Herrian] el soldado de la nacion, el sacerdote en el pùlpito y el maestro en la cátedra, hablen la lengua de España*”⁵⁸⁴. Erakundeei zor zieten errespetuagatik politikariak publikoki adierazi ezin zutena, ahobizarrik gabe azaltzen zuen prentsak, garaiko Espainiako iritzi publikoaren zati handi batek partekatzen zuen ideia paperean jarritz.

Beraz, esandako moduan, egia da, oro har, karlistek euskararekiko atxikimendu handiagoa erakutsi zutela, eta hizkuntza hori tresna politiko gisa erabili zutela herri xehea “liberalen pozoitik” babesteko. Era berean, egia da, garai hartan, apai-zek eragin kultural, sozial, politiko eta linguistikoa handia zutela biztanleriaren gainean. Ondorioz, ondo etorriko litzaiguke Zazpi Urteko Gerraren garaiko Bergarako elizgizonen profil politikoa ezagutzea. 1836ko apirilaren 12ko Errege Aginduak polizia politiko karlista sortzeko balio izan zuen, honako gai hauek ikertzeko eta informazioa lortzeko: “gai politikoak, Lesa Magestadez egin-dako atentatu-saiakerak, fideltasun eza eta trai-zioa”. Azken batean, “kausa legítimoarekiko”, hau da, karlistarekiko, leialtasun- edo urruntze-maila neurtu nahi zen. Horretarako, polizia-etxeen sare bat sortu zen ustez karlisten aurkakoak edo, gutxienez, zalantzazkoak izan ziren hirietan. Hala, Gi-



Geronimo Zalacainen *Iracurtzaren asierac*

puzkoan, Zumaia, Oñati, Eibar, Tolosa, Urretxu eta Bergarako polizia-etxeak sortu zituzten. Zehazki, Bergarari buruz, polizia karlisten txostenak honakoa zioen: “Bertako biztanle gehienek gobernu legitimoaren aurkako joera ideologikoa dute”. Hala ere, hori ez zen gertatzen, ezta hurrik eman ere, kleroaren artean, gehiengoa Don Karlosen aldekoa baitzen. Jose Ramon Urquijok egindako estimazio baten arabera, Bizkaiko elizgizonen % 80,1 karlistak ziren argi eta garbi; eta Juan Madariaga Orbeak Gipuzkoako apaizak aztertu zituenean ere, antzerako emaitza lortu zuen: Don Karlosen aldekoak, % 79,7. Bergarako kasuan, hamahiru elizgizon agertzen ziren karlistatzat eta zazpi, liberalen aldekotzat; hau da, elizgizonen % 65a absolutistak ziren. Jarraian datozenak jotzen ziren “Bidezko kausaren aldekotzat” (karlistatzat):

- Santa Marinako koadjutorea, On Jose Julian Atxotegi [*Achotegui* edo *Anchotegui* idatzita agertzen da];
- San Pedroko benefiziadu hauek: On Antonio Zumalabe, On Manuel Elizalde, On Pedro Tiburcio Madina, On Jose Ramon Tomasa eta On Juan Bautista Artolazabal.
- Santa Marinako benefiziadu hauek: On Jose Antonio Belaztegi, On Joaquin Aleiza, On Mariano Sagastizabal, On Jose Maria Errazkin eta On Domingo Goenetxea.
- Enseñantzako mojen kapilaua: On Manuel de Manzanares.
- Trinitateko mojen bikarioa: On R. E. Acebedo.

“Usurpazioaren aldekotzat” (Liberalatzat), berriz, beste hauek jotzen zituzten:

- San Pedroko benefiziadu hauek: On Juan Bautista Azua, On Gabriel de Tomasa, On Domingo Andres Asuaran [sic Alzuaranen orde], On Pedro Unamuno eta On Carlos Sicilia
- Santa Marinako benefiziadu hauek: On Gabriel Leturia eta On Felipe Ziorraga⁵⁸⁵.

Hori guztia polizia karlistaren pertzepzioaren arabera. Azpimarratzekoa da, elizgizon karlisten presentzia handiagoa zela landa eremuari zegokion parrokiari: Santa Marinaran.

Argi dago Bergarako elizgizon karlisten proportzioa Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa baino nabarmen txikiagoa zela; baina, hala ere, gehiengoa zen, batez ere landa-eremuan. Beraz, pentsa daiteke apaiz karlista hauen (ustez euskaltzaleagoak zirenen) presentziak eragina izango zuela, neurri batean, euskararen iraupenean, batez ere, euskal elebarraren proportzioa handiagoa zen nekazaritza-eremuetan.

Hala ere, komeni da gogoratzea, karlisten polizia-txostenen arabera, bergarar guztiak zirela “bidezko kausarekiko desleialak” edo, beste era batera esanda, joera liberalekoak. Nire susmoa da polizia karlistak batez ere hiriguneko biztanleetan jarri zuela arreta eta ez hainbeste landagunekoetan. Izan ere, hirigunean bizi ziren, besteak beste, funtzionarioak, profesionalak, merkataria, eta bestelako zerbitzu-emaileak, eta horiengan piztu ziren, gehienbat, ideia liberalak. Landaguneko biztanleak aldiz beren zuzendari espiritualen ikuspegi tradizionalistatik hurbilago zeuden, baina, garaiko pentsamoldearen arabera, oso garrantzi eta eragin txikia zuten gizartean. Egoera hizkuntzaren ikuspegitik baloratuta, esan dezakegu bi mundu kontrajarri genituela: alde batetik, “kaletarrak”, liberalismotik gertuago zirenak eta, ondorioz, gaztelania erabiltzeko joera handiagokoak; bestetik, “baserritarrak”, oraindik ere gehiengo zirenak, karlistotik eta beren arbasoen hizkuntzatik hurbilago zeudenak.

Iruditzen zait merezi duela, labur bada ere, aztertzea behe-kleroak XVIII. eta XIX. mendeetan nekazariekin eta, oro har, klase-herrikoiekin izan zuen harreman berezia, gogoan izanda gehienak elebakarrak zirela. Alde batetik, elizjendea, jatorriz nekazari-familietakoa zen. Hala, beraz, nekazariarentzat apaiza, benefiziadua edo fraidea “euretako bat” zen. Bestetik, euren hizkuntza berean hitz egiten zien eta ezin hobeto ulertzen zioten; Estatuko aparatuek, aldiz, ulertzen ez zuen hizkuntza batean hitz egiten zieten: gaztelaniaz. Azkenik, elizgizonen autoritate morala eta gizarte-ospea izugarriak ziren: errespetuz agurtzen zituzten, eskuan muin emanez (fraideei beren abituaren lokarrian); berorika hitz egiten zieten eta jainkoarekiko bitartekaritzat hartzen zituzten. Familia batean botoak egindako bat edo gehiago izatea harro egoteko motiboa zen eta nolabaiteko estatus-igoeraren seinale. Izan ere, garai hartako nekazari familia zabaletan ohikoena zen kide bat edo gehiago elizgizona edo elizemakumea izatea. Ez da guztiz ezohikoa familia bateko seme-alaba guztiak apaizak, fraideak edo mojak izatea. Izan ere, Euskal Herria izan zen, XVIII. mendearen bigarren erdian hasi eta XX. mendea aurreratu samartu artean, Europa osoan, biztanle bakoitzeko elizjende gehien zuen herrialdea. Baditugu apaiz sekularrei buruzko datuak, alegia, klero erregularra (fraideak eta mojak) kontuan hartu gabekoak⁵⁸⁶. Bada, 1797an, Hego Euskal Herrian (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan) apaiz sekular bat zegoen 95 biztanleko. Espainiako estatu osoan, aldiz, erdia ziren: apaiz bat 183 biztanleko. Alde horrek gora egin zuen etengabe, eta 1840-1843 tartean aldea hirukoitza izatera heldu zen: Euskal Herrian, apaiz bat 179 biztanleko; Estatuan, apaiz bat 577 biztanleko. Desproporzio horrek oso altua izaten jarraitu zuen XX. mendea aurreratu samartu arte, nahiz eta ematen duen Euskal Herrian apaiz/biztanle ratorik handiena XIX. mendearen erdialdeko hamarkadetan izan zela.


Gogoan izan behar da, halaber, XIX. mendearen erditik aurrera, eta batez ere 1864an *Syllabus* entziklika argitaratu zenetik, espiritu “moderno” eta laikoaren eta balio intolerante, ortodoxo eta tradizionalisten arteko talka betean, euskal kleroaren zati garrantzitsu bat karlismo foruzale eta tradizionalistatik aldendu eta integrismora pasatu zela. Mugimendu politiko gisa, integrismoa 1882an sortu zen, Cándido Nocedalen gidaritzapean; hala ere, erlijioaren eta politikaren arteko bereizketa ukatzen zuten doktrina integristak aspalditik ari ziren egosten. Interesgarria izango litzateke euskal integrismoak oro har eta apaiz integristek bereziki, Euskal Herriko herri xehean izan zuten eragina neurtzea, zalantzarik gabe handia izan zena, baina azterketa hori langai dugun alditik kanpo geratzen da.

V.2 - **Bergarako** intelektualen jarrera euskararen aurrean

XVIII. mendean bere euskaltzaletasunagatik nabarmendu zen pertsonaia bat **On Rafael Garitano-Aldaeta** izan zen (Argantzón, 1736 - Bergara, 1784), 1764 eta 1784 artean Oxirondoko Santa Marina parrokiako erretore izandakoa, dagoeneko hainbat aldiz aipatu duguna⁵⁸⁷. Lehenik eta behin, gogoratu behar da bibliofilo sutsua zela, eta bere garairako tamainaz aparta zen liburutegi bat bildu zuela; baina orain interesatzen zaiguna da liburutegi horretan euskarazko atalak zuen ezohiko pisua. Ia ziurtasun osoz esan dezakegu liburutegi bakarra izango zela Garitano Aldaetaren liburutegiak baino euskarazko titulu gehiago zituen: Manuel Larramendik, hil zenean, Loiolako santutegian utzitakoa. Izan ere, 1675-1850 aldiko Gipuzkoako liburutegi partikularren ikerketa batean, aztertutako 228 liburutegietatik hiru baino ez ziren nabarmendu euskaraz idatzitako liburuak edukitzeagatik: Manuel Larramendire-

na hogeita bost titulurekin, Garitano-Aldaetarena hamazazpirekin eta Juan Manuel Arriola doktore eta benefiziadu mutrikuarrarena, hamarrekin. Egia da bazirela euskarazko liburuen proportzio handiagoa zuten liburutegiak, adibidez, Jose Arregi azpeitiarrarena, zeinak 1833an hil zenean 11 liburuko liburutegi bat utzi zuen eta horietatik 9 ziren euskarazkoak. Baina kopuru absolutuetan Garitanorena Gipuzkoako liburutegi partikularretan garrantzitsuenetakoa zen. Interesgarria litzateke jakitea Astarloa edo Erro bezalako egileek —euskarari buruz hainbeste hausnartu zutenek— zein euskal lan izan zituzten esku artean. XIX. mendean bai, izan ziren euskarazko liburuz osatutako liburutegi askoz handiagoak, bai Bizkaian bai Gipuzkoan, hala nola, Jose Pablo Ulibarrirena, Julio Urquixorena, Francisco Zabalbururena edo Jose Manterolarena; baina XVIII. mendearen bigarren erdirako, Garitano-Aldaetaren bilduma benetan ezohikoa izan zen⁵⁸⁸.

Bigarrenik, Garitano-Aldaetaren paperetan, batez ere korrespondentzian, tarteka ikus litezke hizkuntzaren gainean zuen kezkaaren adibideak: batzuetan kontzeptu batzuk euskaraz adierazten ditu, beste batzuetan euskarazko hitzen etimologiak argitzen ditu eta abar. Esaterako, 1774ko uztailaren 5ean, gutun bat idatzi zuen, gaztelaniaz, Zaragozara bidalitako haur abandonatu baten kasuari buruz, eta bertan argitzen zuen umearekin zihoan bideko laguntzailea “Seinzaia” edo “Inudea” zela⁵⁸⁹. Era berean, Benefizioko Plana diseinatzeko eta parroko gisa zituen diru-sarreraren balantzea egiteko garaian, “sarrera ziurgabeak” (bataioak, argizariak, eskaintzazko ogi eta ardiak...) kontzeptuaren azpian, horietako baten euskal izena argitzen digu: “*El que llaman Arguiolatac*”⁵⁹⁰. Bere kongrua handitzea eskatuz Oñatiko Kondeari bidalitako gutun batean, berriz, Oxirondo toponimoaren etimologia zuzena zein den azaltzen dio, alegia, egiazko izena, “desitxuratu gabea”, Oxin-ondo dela⁵⁹¹. Kasuaren alderdirik interesgarriena da Garitanok



Adiskideen Elkarteko Batzar Orokorreko
“Extractos, 1771”

euskal etimologiak ezartzen dituenearan interes filologiko edota historiko hutsagatik egiten duela, hau da, interes zientifikoagatik, eta inola ere ez bere garaian hain ohikoak ziren teoria eusko-iberista edo tubaldarrak frogatzeko.

Baina Garitano-Aldaetak euskararen gainean zuen jarrera ondoen azaltzen digun gertakaria Euskalerriaren Adiskideen Elkartearekin izan zuen

liskarra da. Eztabaida sorrarazi zuen gaia honakoa izan zen: ea nola irakatsi behar zen lehen hezkuntza Euskal Herrian eta, jakina, Bergaran.

Adiskideen Elkartearen helburuetako bat hezkuntza erreformatzea zen, irakaskuntza arrazionalizatzea eta lehen mailatik goi-mailarainoko etapa guztietara zabaltzea, baina euskara sistematik kanpo utziz, guztia gaztelaniaz eman beharra ezarri. 1771n, Adiskideen Elkartek lehen irakaskuntza hobetzeko plan bat aurkeztu zuen: “Plan arreglado al nuevo Estatuto para el fomento y perfección de las Escuelas de menores Letras”⁵⁹². Planaren helburu nagusia gaztelaniazko gramatikaren ikasketa sustatzea zen eta horretarako Elkartek gertatutako “Elementos” izeneko argitalpen sintetiko batzuk gertatu zituen Espainiako Hizkuntzaren Errege Akademiak emandako arauetan oinarrituta. Bazkide guztiak ez zeuden ados egitasmo horrekin. Laugarren Batzordeak (hezkuntza-gaiez arduratzen zirenek), “Amigo Alabés” delako batek sinatutako eskutitz bat jaso zuten, gaztelerazko gramatika euskal eskoletan sartzearen erabat aurkakoa. “Adiskide” anonimo horrek aldarrikatzen zuen, hurrei lehen irakaspena “ama-hizkuntzan” (“*lengua nativa*”) eman behar zitzaizela, alegia, euskaraz, hura baitzen gehien-gehien lehen hizkuntza. Elkartek “Arabar adiskideari” eman zion erantzuna, oso argia eta irmoa izan zen:

Aquí esta la equivocacion. 1º Porque aunque la lengua peculiar del Pais es la Bascongada, la de la Nacion es la Castellana, y consiguientemente la *nativa* de todos los Españoles. 2º Porque por disposicion del Gobierno no puede en las Escuelas del Pais usarse de otra Lengua que de la Castellana; por lo qual todas las cartillas, libros, manuscritos y materias que se dán, a los muchachos son en Castellano, prohibiéndose al mismo tiempo el Bascuence en tanto grado, que hay establecido un anillo, que pasa de mano en mano entre los que se descuidan en este punto: de modo que aquel en cuyo poder se encuentra al fin de la semana, tiene su castigo determinado 3º Porque haciendose por estos medios familiar la inteligencia de la lengua Castellana en las Escuelas Bascongadas, y reduciendose el fin de la doctrina, de que aquí se trata, à enseñar la Gramatica en lengua que se sabe de antemano, se logra perfectamente èsto con el medio dispuesto por la Sociedad.⁵⁹³

Hau da, hezkuntza “jatorrizko hizkuntzan” soilik eman behar zen. Horraino denak ados, baina “Arabar adiskidearentzat” jatorrizko hizkuntza ama-hizkuntza edo lehen-hizkuntza zen; Adiskideen Elkar-tekoentzat, berriz, Estatuko hizkuntza ofiziala edo “nazionala”, hau da espainiera. Bada, Garitanok eztabaidan parte hartu zuen eta “Arabar adiskidearen” tesiak babestu zituen, inolako zalantzarik gabe. Burugabekeria handia izango litzateke pentsatzea Garitano-Aldaeta bera izan zela “Amigo Alabés” ezizenaren azpian ezkutatu zena, Laugarren Batzordeetara gutuna bidaltzeko? Ez dezagun ahaztu Garitano Argantzonen jaio zela, Burgosko administraziopean dagoen Arabako lurraldean. Nolanahi ere, kontua da 1775eko otsailaren 18an Garitanok idatzi bat bidali ziola Adiskideen Elkarteari honako izenburupean: “*Reflexiones que ofrece a la Real Sociedad Bascongada el cura de S^a. Marina de Oxirondo de la Villa de Bergara sobre el medio de fomentar las escuelas*”. Bertan, esan bezala, Adiskideen Elkartek euskal eskoletan gaztelania erabiltzeari buruz ondutako Planaren aurka azaldu zen, “Arabar adiskidearen” ildo beretik, eta irrazionaltzat jotzen zuen eratzunaren sistema, ikasleei klasean euren artean euskaraz hitz egitea debekatzen ziena. Gainera, gogoeta oso interesgarriak egin zituen euskararen egoera linguistikoari buruz:

“porque el vascuence se ha mantenido en estos rincones no esculpido en mármoles y bronce, ni en obras que ha inmortalizado la prensa, sino en el amor de sus naturales”. Alegia, euskarak bizirik irauteko zuen mekanismorik erabakigarrienaren berri ematen zuen: herriak (ahozko erabilerarako bederen) zion maitasuna eta estimua. Garitanoren arabera, Adiskideen Elkartearen planak euskararekiko maitasun hori kaltetzeaz gain, “zoritxarreko aro bat” ekarriko zuen. Gainera, Peñafloredako kondeari zuzendu zitzaion ordurako bistakoa zen euskararen gainbeherari buruz, eta zuzen-zuzenean honako hau aurpegiratu zion: “muchos la han abandonado [euskara], y V. S. va a introducir un medio de que todos la abandonen, introduciendo en las escuelas de primeras letras los extractos de una lengua extraña, que cada día va ganándole terreno”⁵⁹⁴.

Jakina, jarrera hori ez zen oso gustukoa izan Adiskideen Elkartearentzat, eta, bereziki, Peñafloredako kondearentzat, haren burua espreski aipatzen baitzuen. Badugu, zorionez, dokumentu baliotsu bat, argiki erakusten diguna zein izan zen Kondearen erreakzioa eta nolako mespetxua jaso zuten Garitano-Aldaetaren gogoetek (eta Santa Marinako maixuak berak). Dokumentua Xabier Maria Munibek, Peñafloredako Kondeak, Pedro Jacinto Alabari, Adiskideen Elkarteko Arabako zutabeetako bati, zuzendutako gutuna da, eta, bertan, besteak beste, Garitanoren ditzosozko gutunaz ere jarduten du, hitz hauekin:

No tengo reparo en contextar abiertamente a tu Esquela Reservada. El Cura de Santa Marina me dirigió el Savado antes de Carnaval un Papel, cuyo obgeto es defender el escrito del *Amigo Alaves*, de que se hace mencion en los Extractos del 72. Hallabame a la sazón en mi Chimenea con Joaquin [de Egia, Narrosko markesa]; y con [Felix Maria] Samaniego y haviendolo empezado a leer lo dejamos a las dos o tres ojas por parecernos poco interesante. Concluido yo con su lectura por la noche; y aunque venia dirigida a la Sociedad, arrinconé el Papel en mi Papelera por haberme parecido indecoroso su lenguaje en un eclesiastico. Este buen hombre que sin duda no escribió sino con el fin de armar una contestación por la Sociedad se informo, pocos dias después de algunos yndividuos del Cuerpo, como también en la Secretaria, si acaso se havia leído su obra en alguna Junta: y con el desengaño que hallo en todas partes, difundio por copias en el Lugar y fuera de el. Creí entonces que la mejor satisfacción que podía tomar la Sociedad contra este insulto era el desprenderse del original mismo dando a entender en esto que solo se havia reservado hasta entonces por honor del Cura: y efectivamente haviendo oído a un sugeto no havia podido haber hasta entonces una Copia, le regalé con el original. Finalmente este asunto me ha parecido tan despreciable que ni aun le he creído digno de comunicarte por pasatiempo. Ha havido sugeto que me ha presentado una respuesta, que en lo que me leíó su Autor me pareció convincente: el mismo Cura la ha visto por habersela leído francamente el Autor, y oy mismo me ha venido a decir se la pide con instancia.

[Bergara, 1775eko maiatzaren 19 a]⁵⁹⁵.

Dirudienez, Adiskide Arabarrak jakinaren gainean zeuden, nahiz eta Munibek gutuna ezkutatzea eta polemika baztertzea erabaki. Kasu larria zenez, Pedro Jacinto Alabak, Peñafloredarengana jo zuen “Gutun Erreserbatua” (*Esquela reservada*) erabiliz. Adiskideen Elkarteko Zuzendariaren narrazioak ez du alferrik galtzeko ezer. Garitanoren “gogoetak” “iraingarritzat” jotzen ditu, “interesik gabekotzat”, “hizkera bal-

darrekotzat” eta “mespretxagarritzat”. Eta ondorioz, gutuna atxikitzea erabaki zuen, “nahiz eta Elkarteari zuzenduta zetorren”, bere jarrera autoritario eta manipulatzaileria agerian utziz. Ez hori bakarrik, apaizari bere gogoetek merezi zuten mespretxua erakusteko, azkenean gutuna gainetik kentzea erabaki zuen, eta irakurtzeko interesa zuen bati oparitu zion. Gainerakoan, Peñafloridak “*buen hombre*” esapidea darabil Garitano definitzeko eta ez du inoiz bere izenez aipatzen, eta horrela haren irudia gutxietsi egiten du, pertsona ezdeustzat joz: borondate onekoa, ziurrenik, baina erantzun bat jasotzea merezi izateko adinako autoritaterik eta garrantzirik ez zuena.

Garitano-Aldaetaren estilo borrokalaria eta zorrotza ezagututa, ziur bere “*Gogoetak*” luzeak, mamitsuak eta eztenkadaz beteak izango zirela. Argi dago kritikek ez zutela bakarrik Peñaflorida mindu, baizik eta Adiskideen Elkarteko gaina eta lorea mindu zuela, elite osoa, ez baitzuten halako erasorik espero, eta are gutxiago apaiz baten aldetik. Gainera, Garitanok ikusi zuenean bere testuari ez zitzaiola jaramonik egiten



Jose Hipolito de Ozaeta eta Agustin de Bazterricaren *Nueva demostración...*

eta Elkartearen baitan ez zela inolako eztabaidarik pizten, bere izaera borrokalariaekin bat zetorren jarrera hartu zuen: kopiak egin eta Bergaran eta inguruetan banatu. Horrek, jakina, elkartekideak are gehiago haserretzea ekarri zuen. Kasu honetan, argi dago ez dela ilustratuen eta tradizionalisten arteko konfrontazio ideologiko bat, izan ere, tartean dauden guztiak, Garitano barne, Adiskideen Elkarteko kideak edo inguru hurbilekoak ziren. Aitzitik, maila politikoko eztabaida bat dugu, edo, nahi bada, hizkuntza-politikakoa, baina eduki politiko handikoa eta denboran proiektzio luzekoa, XXI. mendetik begiratuta argi ikus daitekeenez. Eta eztabaida horretan aurrez aurre ditugu hizkuntza-politikaren bi ikuspegi: alde batetik, “estatu bat = nazio bat = hizkuntza bat” printzipioa defendatzen zuen posizioa (hasieran absolutismoak eta gero liberalismoak babestua); eta bestetik, tokiko hizkuntza minorizatuak defendatzearen aldeko jarrera.

Jose Hipolito Ozaeta izan zen Garitano-Aldaetaren garai bereko beste intelektual bergarar bat, euskarekiko nolabaiteko interesa erakutsi zuena; bere kasuan, teoria eusko-kantabristak eta eusko-iberistak defendatzeko.

Jose Hipolito Ozaeta Moiua (Bergara, 1712- Bergara, 1779) Bergarako leinu zahar eta handikien ondorengoa zen. Bere gurasoak Jose Ignacio Ozaeta Gallaiztegi Murua eta Francisca Antonia Moiu Zabala izan ziren. Jose Hipolito Alcantarako eta Santiagoko zaldun-ordenetako kidea izan zen. Hainbat maiorazkoren eta jabetza-loturaren titularra izan zen. Bergarako eta Gipuzkoako oligarkiako kide izanik, hainbat kargu publiko ere bete zituen: Bergarako alkate 1745ean eta 1763an, eta Gipuzkoako ahaldun nagusi 1750ean eta 1759an.


Bi lan argitaratu zituen. Lehena, San Pedroko erretore On Agustin Bazterrika apaizarekin (*publikata* laikoak egiteari uko egin zionarekin) batera idatzi zuen eta garai hartan Bergaran pil-pilean zegoen gai bat jorratzen zuten: ea Igokundeko San Martin Agirre jatorriz Bergararra ala Beasaindarra zen⁵⁹⁶. Espero izatekoa denez, egileok santuaren beasaindertasuna defendatzen zuten autoreen (Torralba, Arostegi,...) aurka jotzen dute, tonu polemiko argia erakutsiaz. Arostegiri buruz zioten burutik eginda zegoela (“*increíblemente alucinado*”) eta ez zuela gaztelania behar bezala ulertzen, eta kritikatzeko zioten berak santuaren bataio-agiriaren desagertzearen esandakoa erabateko zentzugabekeria (“*grandísimo despropósito*”) zela. Eta, hala, aurkariaren hitzak transkribatu eta honakoa erantzun zioten:

*Con que la Fè de Bautismo de aquel tiempo oy no parece? No se encuentra oy? Dice el Defensor. Pobre Bascongado, que aun no entiende el Romance: querèmos explicarselo. Partida de Bautismo se dice de dos cosas, y lo mismo es de la Fé de Bautismo: del asiento original, que pone el Cura en el Libro de Bautizados: y del traslado, que el Cura dà certificado. Ha entendido yà el Romance?*⁵⁹⁷.

Baina bere bigarren lana da gehien interesatzen zaiguna: Eusko-kantabrisismoaren inguruko polemikaren barruan, berandu samar bada ere, egindako ekarpen bat. Jakina denez, euskal apologistek aldarrikatzen zuten antzinako Kantabriak, erromatarren konkistari (eta ondorioz erromanizazioari) aurre egin zionak, Santanderreko mendiez eta Asturiasko zati batez gain, Burgosko iparralde eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurraldeak ere hartzen zituela. Lurralde mugaketa hori defendatzeko argudio

nagusietako bat hizkuntzan oinarritzen zen: alde batetik, argudiatzen zen euskarak bizirik iraun ahal izan zuela Euskal Herrian erromatarren presentzia ia hutsaren hurrengoia izan zelako; eta bestetik, garai hartan oso hedatuta zegoen eusko-iberismoaren teoriarekin bat eginez, defendatzen zen euskara antzinatean Iberiar penintsula osoko hizkuntza izan zela⁵⁹⁸. Esan bezala, teoria eusko-kantabrista tradizionalak (Esteban Garibaik, Marianak eta abarrek defendatutakoek) aurkari garrantzitsuak izan zituzten Jeronimo Zurita, Pedro Peralta edo Arnaud Oiherarten lanetan, baina guztiei erantzun zien Manuel Larramendik 1736an, eusko-kantabristoaren defentsa sutsua eginez⁵⁹⁹. 1768an, Enrique Florez agustindarrak *La Cantabria. Disertación sobre el sitio y extensión que tuvo en tiempos de los romanos la región de los cántabros...*⁶⁰⁰ lana argitaratu zuen polemika behin betiko ixteko asmoz, baina handik urte batzuetara Ozaetak erantzun zion⁶⁰¹, Larramendiren argudioak bere eginez eta Florezi erasoz. Kontua ez zen hor amaitu, handik gutxira, Florezen ikasle batek, aita Manuel Risco (apaiztu aurreko izenez, Juan Manuel Martín Ugarte), beste erantzun bat argitaratu baitzuen, bere maisuaren tesien defentsan eta Larramendiri eta Ozaetari aurre eginez⁶⁰². Baina Ozaetak ere izan zuen ikamikarekin jarraitu nahi izan zuen defendatzaile bat: bere iloba, Joaquín José Landazuri historialari foralista arabarra, urte askoan Bergaran bizi izan zena eta bertako alkate ere izan zena. 1781ean gai honi buruzko lan bat idatzi zuen, nahiz eta ezin izan zuen argitaratu: *El vindicador de la Cantabria D. Josef Ypolito de Ozaeta y Gallaiztegui, vindicado del vindicador del R.P.M.F. Enrique Flórez, el P. M. F. Manuel Risco de la Orden de San Agustín*.

Teoria eusko-iberistaren defendatzailea ere bazenez, Ozaetak euskarari buruzko teoria tubalдар tradizionala eta etimologia xebletara jo zuen, antzinatean euskara penintsula osoan zehar hedatuta egon zela justifikatzeko. Hala, erromatar autoreek aipatu zituzten eta bere ustez euskal



Jose Hipolito de Ozaetaren *La Cantabria vindicada...*




Irizar jauregiko lorategia

etimologia zuten hirien eta eskualdeen zerrenda bat osatu zuen, eta izenaren osaera eta gaztelaniazko esanahia azaldu zituen: Betica =Bee-tica, “*Región que esta debaxo*”; Beturia = Bete-uria, “*Lugar lleno, abundante*”; Uxamabarca = Uts-an-abarca “*es inútil allí el calzado*”; Ergavia = Er-gavia “*Lugar donde hay mazo*”; Bergusia = Bert-gucia “*todo cerca*”; Gavaleca = Gava-leca “*Noche y baina, y haciendo la g b, Baina de aba; y haciendo la ultima a u, Gavalecu, Lugar de noche*”, eta abar...⁶⁰³.

Joaquin Irizar Moia da XIX. mendean euskaraz arduratu zen hirugarren intelektual bergarra. **Joaquin Irizar Moia**⁶⁰⁴ (Bergara, 1793 - Bergara, 1879) ere handikiz eta jabe aberatsez osatutako familien ondorengoa zen. Bere gurasoak, Jose Manuel Irizar Zabala eta Marina Margarita Moia Jauregi Orue-sagasti izan ziren. Militar lanbidea aukeratu zuen, eta artilleriako koronela izatera iritsi zen. Mallorcan zerbitzu eman ostean, Segoviako Artilleriako Errege Ikastetxean (Akademia Militarra) irakasle aritu zen,

eta 34 urterekin erretiratu ondoren, Bergaran bizi izan zen berriro. 1827an, ibilbide politiko laburra izan zuen Bergarako alkate eta Gipuzkoako ahal-dun nagusi izanik. Irizar izeneko bere jauretxean sinatu zen “Bergarako hitzarmena”, 1839an lehen karlistaldiari amaiera eman ziona. Hala ere, Irizarrek, 1833an gatazka hasi zenean, Frantziara erbeste-ratzea erabaki zuen, eta han euskara ikertzen eta irakasten jardun zuen, eta Parisen euskarazko ka-tedra bat ere lortu zuen. Euskarari buruz egindako gogoeten emaitza “*De l’eusquere et de ses erdères*”⁶⁰⁵ (euskara eta bere eratorriak) liburu mardulean bildu zuen; izan ere, Irizarrek defendatzen zuen euskara eta hebreera zirela jatorrizko hizkuntzak eta horietatik ondoriozta zitezkeela etimologikoki gainerakoak. Irizarrek iradoki ere egin zuen Adan eta Ebaren Paradisuko hizkuntza euskara izan zela. Edonola ere, Irizarren pentsamendu politiko-lin-guistikoa bi ezaugarri garrantzitsu aipatu behar dira. Alde batetik, erabat kontserbadorea eta tra-dizionalista zen, eta bere azken helburua erlijioa defendatzea zen, bere *l’eusquere* lanaren hasieran ikus daitekeen bezala: “*Al ser el objeto de esta obra la defensa de la religión católica, apostólica y romana, creo que debo decir que soy católico, apostólico y roma-no, y que así someto enteramente mi obra a la Iglesia, al santo Padre y a las otras autoridades competentes*”. Hau da, bere helburua ez zen euskararen ezagutza zientifikoa, erlijioaren defentsa baizik. Bestalde, bere burua antzinako gauzen ikertzaitzat zuen, “*Antiquaire*”tzat, baina ikuspegi literariotik gehia-



Joaquin Irizar Moia *De l'eusquere et ses erderes, ou de la langue basque*

go zientifikotik baino. Bere metodoak zerikusi handiagoa du apologia erlijiosoarekin zientzia positiboarekin baino. Bere bigarren liburuak izenburu (eta eduki) ezin adierazgarriagoa du: *Etudes d'un Antiquaire pour la défense de Dieu, de la Religion et du Pape*⁶⁰⁶. Ikuspegi erreakzionario horretatik abiatuta, beste bi lan ere argitaratu zituen: bata sistema metriko hamartarraren aurkakoa eta bestea ezkontza zibilaren aurkakoa⁶⁰⁷. Eta hori bai, inoiz ez zuen aukerarik galtzen, ortodoxia erlijiosoa defendatzeaz gain, euskararen inguruko hausnarketak ere sartzeko. Bi elementu horiek azaltzen eta justifikatzen zuten, bere ustez, gainerako guztia. Bere tradizionalismoaren beste adierazle bat bere zenbait lan sinatzeko erabiltzen zuen izengoitia da: “Bergarako zaharra” (“*Le Vieux de Vergara*”). Ezizen hori Granadako gerran mende batzuk lehenago borrokatu zen bere arbaso bati zegokion, eta Irizarri oso kontsekuentea iruditu zitzaion bere egitea.

Politikoki Irizar ez zen inoiz alderdi zehatz batekin konprometitu. Adibidez, *De l’eusquere et de ses erdères*-i buruzko liburua Tomas Zumalakarregiri eskaini zion, baina aldi berean Isabel II.ak bere babespean hartzeko desioa azaldu zuen. Independente eta kontraesankor agertu zen beti.

Irizar konbentzitura zegoen euskara jatorrizko hizkuntza izan zela, Paradisuan hitz egin zena, eta Larremendik, Astarloak eta Errok osatutako “triunbiratuak” aski frogatu zutela izaera hori. Horrenbestez, Irizarren arabera, garrantzizkoena ez zatekeen izango euskararen bikaintasun-maila handiagoa ala txikiagoa izatea, baizik eta jatorrizko hizkuntza izate horrek berak frogatzen zituela Genesi liburuko eta erlijio katoliko osoko egiak. Ikus **III. eranskina**.

Irizarrek hizkuntza goitartzat zuen euskara, jatorrizko hizkuntza izatearen ondorioz, baina, hala ere, bere garaiko hizkuntza-egoera baloratzerakoan, ezin ezkorrago agertu zen. Euskal Herri osoari dagokionez, Irizarrek zioen bere garaian (gogora dezagun liburua 1841 eta 1846 artean argitaratu zela) biztanleriaren hamarren baten eta heren baten artean izango zela euskal hiztuna, eta galera-prozesua oso orokortuta zegoela, bereziki Araban; eta Gipuzkoa zela, kostata bada ere, eusten zion lurralde bakarra. Egoera horren aurrean zentzuzkoena zen pentsatzea euskara XIX. mendea amaitu baino lehen desagertuko zela:

Mais si nous ajoutons à cela que l’eusquera perd chaque jour de plus en plus de ses forces, que cette langue disparaît de l’Alava, qu’elle perd beaucoup en Biscaye, que dans la Navarre elle n’est parlée que sur les frontières et dans les montagnes, et que dans la France aussi elle est chaque jour plus délaissée et plus jetée dans les coins des Pyrénées, on verra que si cette question n’est point examinée et jugée dans le moment, elle est perdue pour toujours. Quelle opposition peut présenter à ce malheur la petite province de Guipuscoa, quand elle est traversée dans tous les sens jour et nuit par des Français et des Castellans ? Je ne voudrais pas être prophète de malheur, et pour moi c’en est un très grand que l’extinction de l’eusquera; mais il me semble qu’il n’est pas possible que l’eusquera puisse résister un siècle à l’irruption de la langue espagnole; et voyez si encore il pourra parvenir jusqu’à la fin de ce siècle, parceque réellement cette langue disparaît d’une manière effrayante dans l’Alava. Je répète donc que l’époque pour la résolution de la question est non seulement propre, mais encore unique; de manière que malgré ma passion pour cette langue, si je ne réussis pas à exciter l’attention

sur ses beautés, j'avouerai qu'assurément nous nous sommes trompés moi et tous ceux qui y avons vu tant et tant de perfections. *Absit, absit*; que Dieu nous délivre d'un tel malheur!⁶⁰⁸

Hala ere, Irizarrek defendatzen zuen, hizkuntza desagertu aurretik, hau da, luze gabe, ikerketa arkeologiko eta museistiko bat egitea, euskara artean bizirik zegoen bitartean zientifikoki ezagutzeko. Beraz, Irizarren jarrerak antz handia zuen mende erdi geroago jatorri bergararreko bilbotar batek, Miguel Unamunok, azaldu zuenarekin.

V.3 - Euskararen biziraupena ulertzeko gakoak

Orain arte azaldutako guztia kontuan hartuta, burura datorkigun galdera hau da: nolatan iraun ahal izan zuen euskarak mende hauetan, Bergaran eta Euskal Herriko zatirik handienean, hizkuntzen biziraupena ahalbidetzen duten faktore guztiak aurka izanda? Izan ere, hizkuntza baten osasuna ziurtatzen duten elementu guzti-guztiak falta ziren euskararen kasuan. Hasteko, hiztun-komunitate oso txikia izan da beti. Horrez gain, XVI. mendetik aurrera behintzat, euskara euskalki askotan zatituta zegoen, eta dibertsifikazio-prozesu hori gero eta nabarmenagoa zen. Aniztasun horrek ez zuen erabat eragozten hiztunen arteko komunikazioa, baina nabarmen zailtzen zuen. Bestalde, XVIII. mendearen amaiera arte edo XIX.aren hasierara arte euskarak ez zuen lanketa literario sendorik izan, eta lanketa hori esparru bakar batera mugatu zen: erlijio esparrura. Ez zuen inoiz ofizialtasunik izan lurralde historikoetako inongo egitura politiko-administratibotan. Oinarrizko estandarizazio-aurrik ere ez zuen; Larramendiren garaian hasi ziren hutsune hori konpontzen, baina prozesua ez zen modu eraginkorrean amaitu 1968ra arte. Hizkuntza “herrikoa” zen, hau da, gehienbat herri xumeak erabiltzen zuena. Goi-mailako klaseek, aldiz, jakin arren, lotsabidetzat zuten jendaurrean euskaraz hitz egitea. Izan ere, Euskal Herrian (beste leku askotan bezala) klase boteretsuek hizkuntza ofiziala erabili zuten herritar elebakarrak kontrolatzeko eta menderatzeko sistema gisa. Teorian, elebakar horiek izan zitezkeen euskaraz idatziz jarduteko joera handienekoak, baina aldi berean alfabetatu gabeak zirenez, ez zuten inolako aukerarik hizkuntzari idatziz ekarpenik egiteko. Hori gutxi balitz, batez ere 1760ko hamarkadatik aurrera, euskara erakundeen erasoan jomuga bihurtu zen, bai Espainiako erresuman, baita Frantziakoan ere; eta erasook nabarmen areagotu ziren Iraultzaren ondoren, eta bi estatuetan sistema liberalak ezarri zirenean.

Aurrera egin aurretik, komeni da gogoeta bat egitea hizkuntza baten iraupena, ahultzea edo indartzea baldintzatzen duen faktore garrantzitsu bati buruz: haren prestigioaz. Asko espekulatu da gai horren inguruan. Izan ere, prestigiodun hizkuntza batek askoz aukera gehiago izaten ditu landua, estimatua eta sustatua izateko; aldiz, prestigiorik ez duen hizkuntza batek arriskua du bere hiztunek baztertua izateko. Hala ere, komeni da adieraztea hizkuntzek prestigio-maila desberdinak izan ohi dituztela hainbat ezaugarriren arabera. Lehenik eta behin, “liturgikotzat” jo ditzakegun hizkuntzak egongo lirатеke (latina, hebreera edo arabiera), garai hartan oso ospe handia zutenak, Jainkoarekin komunikatzeko erabiltzen zirelako. Hizkuntza horiek estimazioaren gailurrean zeuden, bai haien hiztunen artean, bai kanpokoen artean ere. Bigarren maila batean egongo lirатеke hizkuntza “liturgiko” horietakoren baten “ondorengoak”; gure kasuan, gaztelania eta frantsesa, latinetik eratorriak, eta, gainera, prestigio-osagarri bat zutenak: ofizialak izatea beren eremu politiko-administratiboetan. Horiez gain, badira beste hizkuntza

batzuk prestigidunak direnak *lingua franca* izateagatik edo literaturan edo pentsamendu filosofikoan egin duten ekarpenagatik. Eta beste muturrean, prestigio-mailarik baxuenarekin, hizkuntza “herrikoiak” izango genituzke: herri xeheak soilik erabiltzen dituen eta ahozko erabilerara mugatzen diren hizkuntzak, botere- eta zentraltasun-esparruetatik “basati”, “zakar” edo “distirarik gabeko” tzat hartuak.

Beraz, soziolinguistikaren eta hizkuntzaren soziologiaren ikuspegitik, alde batetik, ditugu kodifikazio-maila altuko hizkuntzak, hau da, “High” hizkuntzak: lexiko kultua eta teknikoak dutenak, estandarizatuta eta normatibizatuta daudenak, gramatikaz eta hiztegiz hornituak, ofizialak direnak eta erakundeen babes osoa dutenak. Hizkuntza horiek arlo guztietan erabiltzen dira, eta bereziki, hezkuntzan, merkataritzan eta administrazioan. Ondorioz, idatzizko kulturara sarbide pribilegiatua dute, eta lanketa tradizio luzea metatu dute literaturan, zientzian zein teknologian. Beste aldean, “Low” hizkuntzak ditugu: ahoz erabiltzen direnak, familia- eta auzo-esparrura mugatuak, inongo babesik, estandarizaziorik, lanketarik eta aitortza ofizialik ez dutenak. Are gehiago, botere-esparruetatik mespretxatuak, gutxietsiak eta baztertuak izaten direnak. Eskuarki, “Low” hizkuntza horiek nekazaritza- eta abeltzaintza-gizarteetan sustraituta egoten dira eta lotura handia dute lurrarekin eta herriarekin. Ohikoa izaten da “L” edo behe-mailako hizkuntza hori familian eskuratzeko eta lehen hizkuntza izatea, eta, aldiz, “H” edo goi-mailako hizkuntza, bigarren hizkuntza gisa ikastea, bide akademikoen bidez. Komunitate batean “*High*” hizkuntza bat eta “*Low*” hizkuntza bat elkarrekin bizi direnean, diglosia egoera bat sortzen da. Kontzeptu hori Charles A. Ferguson-ek⁶⁰⁹ formulatu zuen 1959an linguistika alorrari hertsiki loturik, eta 1972an Joshua Fishman-ek⁶¹⁰ garatu zuen, hizkuntz soziologiaren ikuspegitik. Diglosia-egoera horretan, hizkuntza bakoitzari bere funtzio espezifikoak esleitzen zaizkio: “H” hizkuntza prestigio-hizkuntza gisa erabiltzen da, hizkuntza ofizial gisa, eta bera da hezkuntzan, merkataritzan eta bestelako esparru formaletan erabiltzen dena; “L” hizkuntza, aldiz, familiara, auzora eta jardun folklorikoetara mugaturik geratzen da. Sistema hori oso egonkorra izan daiteke, eta mendeak ere iraun ditzake, baldin eta hari eusten dioten egitura politiko, sozial eta ekonomikoak aldatzen ez badira. Euskara diglosia-egoeran egon da mendeetan zehar frantse-saren eta gaztelaniaren ondoan, eta gaur egun ere hala jarraitzen du.

Eta, hala ere, euskarak bizirik iraun zuen. Foru garaiko testuinguru sozio-ekonomiko eta politikoa egonkor mantendu zen bitartean, hizkuntzak iraun egin zuen, baina, testuinguru hori desagertu zenean, euskararen egoerak nabarmen egin zuen behera.

Komeniko litzateke sakon aztertzea zein elementuk baldintzatu zuten hiztunek beren hizkuntzarekiko zuten atxikimendu maila: zeintzuk izan ziren, adibidez, euskara belaunaldiz belaunaldi transmititzea ahalbidetu zuten faktoreak eta, alderantziz, zeintzuk izan ziren atxikimendurik eza eragin zutenak eta familia transmisioa etetea edo, gutxienez, ahultzea ekarri zutenak. Hizkuntzaren biziraupenerako, funtsezkoa da hiztunek beren hizkuntzarekiko duten leialtasuna. Euskaldunek euskararekiko izandakoa egiaztatuta dago denboran zehar; gutxienez, XX. mende trumotsura arte.

Euskararen aldeko jarrera argi uzten duten testigantza zaharrak badira, eta horietan ageri da euskaldunek beren hizkuntza mantentzeko egindako ahalegina. Horrek, hala ere, ez zien eragotzi, behar ekonomiko edo politikoen arabera, beste hizkuntza batzuk ikastea eta erabiltzea. Dudarik gabe, kasurik adierazgarriena euskal apologistena da. Apologistek XVI. eta XIX. mendeen artean garatu zen mugi-

mendu politiko-kultural oso bat eratu zuten, foru-sistema defendatzeko asmoz, eta testuinguru horretan, euskara izan zen sistema hori zilegiztatzeko funtsezko argudioetako bat; agian, nagusia. Argudio sendoago edo ahulagoen bidez, euskal apologistak sutuki aritu ziren hizkuntzaren defentsan, euskara baitzen, haien ustez, euskal komunitateen antzinasuna, jatorrizkotasuna, bertakotasuna, askatasuna eta abar justifikatzen zituen elementua. Foru-araubideari eta euskarari kanpotik egindako erasoak areagotu ahala, apologistek erradikalizatu egin zuten euren diskurtsoa eta euskararen bertuteak puztu eta beste hizkuntzekiko nagusitasuna defendatu zuten. Mugimendu apologetikoaren gailurra bi autore erraldoirekin iritsi zen: Manuel Larramendirekin eta Joanes Etxeberri Sarakoarekin.

Hala ere, merezi du horren ezaguna ez den beste apologista baten testigantza hona ekartzea, nire ustez aipagarria den datu bat eskaintzen baitigu: euskaldunek —bere kasuan, nafarrek— beren hizkuntzarekiko erakutsi izan duten atxikimendua eta euskararen aldeko defentsa historikoa. Francisco Eraso⁶¹¹ tafallarrari buruz ari naiz. Hark, 1682an liburu bat argitaratu zuen eta bertan apologisten tesi klasiko bat jorratzen zuen: Tubal eta bere familia Iberiar penintsulara etorri zirenean, beste hainbat gauzarekin batera euskara ere ekarri zutela. Jakina denez, apologistek bere egin zuten sorrerari buruzko mito hori Kaukasoko Iberiako eta mendebaldeko Iberiako toponimo batzuen (Gorbeia, Araxes, Aralar ...) antzekotasun fonetikoak baliatuz. Mito hori oinarri hartuta, hainbat hirik aldarrikatu izan zuten euren izan zela Tubalek penintsulan sortutako lehen asentamendua: Setúbaletik hasi eta Tudelaraino, zeina hasieran Tubela omen zen. Bada, Erasok defendatu zuen Tafallak (bere sorterriak) Tubala izena jaso zuela hasiera batean, Tubalen eskutik. Nolanahi ere, hemen interesatzen zaiguna da Erasok euskarari buruz esaten duena, euskara baitzen, haren ustez, bere argudioak sostengatzeko froga nagusia.

... la lengua que se habla en las Montañas de Navarra, y las circunvezinas (que se dize Basquenze) la qual no se habla en otra parte, ni tiene connexion, ni semejança en su Dialecto con ninguna lengua del mundo; con que parece forçoso que esta lengua sea la que traxeron los primeros Pobladores, y la que les tocò en suerte, quando en la fabrica de la Torre de Babilonia se confundieron las lenguas [...]. Esta lengua Basquenze, ò Cantabra (como otros la llaman) se ha conservado en estas Montañas de Navarra, y las circunvezinas desde su principio, sin aver admitido otra lengua, como lo muestra la experiencia, ayudando à esso la aspereza de los montes, y la condicion de los naturales, los quales con raro teson, y constancia en todos tiempos han conservado sus costumbres, ritos, libertad, y la misma constancia, y teson han tenido en conservar su lengua primitiva, lo que no sucediò en lo demàs de España⁶¹².

“*Los naturales con raro tesón y constancia [...] han tenido en conservar su lengua primitiva*”. Salbuespen bat, bitxikeria bat; Espainiako beste inon ez ziren bere hizkuntzari eusten tematu, Nafarroan eta “inguruko mendialdeetan” (“*las Montañas circunvecinas*”) bezala. Erasok kemen eta irmotasun hori euskararen berezko balioari egozten dio, Tubalek zuzenean ekarritako jatorrizko hizkuntzetako bat izateak damaion izaera bereziari. Arrazoiketa zentzugabe hori alde batera utzita, aipagarriak iruditzen zaizkigu Erasoren hitzok, agerian uzten dutelako euskaldunek euskarari izan dioten atxikimendu beroa.

Eta ez bakarrik atxikimendua, baita hizkuntzarekiko harrotasuna ere. Eta hori ez da bakarrik apologisten lanetan ikusten, baizik eta garai eta maila guztietako euskaldunen artean: askok eta askok noiznahi eta nonahi adierazten zuten hizkuntzari zioten estimua. Hala, bereziki mingarri zitzaien kanpotarrek euskara mespretxatzea, eta, aitzitik, poz handia hartzen zuten kanpokoek, batez ere atzeritarrek, euskara gogo onez hartzen zutenean. Aski zen kanpotarrak ongietorri- edo agur-esaldiren euskaraz esatea, euskaldunek begirunerik handienaz tratatzeko. Juan Antonio Mogelek, adibidez, honela adierazi zuen XIX. mendearen hasieran hainbat intelektual kanpotarrek euskarari buruz egindako ikerketek euskaldunei sortzen zieten poza eta harrotasuna: *“Los Bascongados estan muy satisfechos de la defensa que han hecho de su lengua los Abates Masdeu y Herbas, y el célebre inglés Bowles”*⁶¹³.

Hizkuntzaren “prestigioa” Jose Maria Sanchez Carrion *Txepetxek* eta Koldo Mitxelenak aztertu zuten ikuspuntutik aztertu beharko litzateke. Euskararen kasuan, arazoa ez da euskarak prestigiorik ez izatea herri xumearen hizkuntza izateagatik eta talde sozial boteretsuek eta kultuek mespretxatzen zutelako; euskara gainbehera etortzea eta hainbat lekutan galtzea ez zen gertatu euskaldunengan prestigiorik ez zuelako. Euskarak izan zuen prestigio bat euskal hiztunen komunitatearen baitan eta, horregatik, transmititu zen familian, eta horregatik eutsi zitzaion. Euskaldunek euskararekiko garatu eta mantendu zuten maitasunagatik, estimuagatik eta harrotasunagatik bakarrik uler daiteke haren biziraupena. Ez da komeni, beraz, Fergusonen “*high*” eta “*low*” eskema aplikatzea, nagusitasun eta menpekotasun posizioei lotuta, baizik eta “kanpokoa”/“bertakoa”. Hiztun arruntarentzat, batez ere nekazari elebakarrantzat, bere hizkuntzak ondo baino hobeto betetzen zituen bere komunikazio eta tratu-beharrak, bai lan-esparruan, bai familian eta bai auzo-ingurunean;



Friedrich Schiller, Wilhelm Humboldt, Alexander Humboldt eta Johann Wolfgang Goethe

ez zuen latinez, gaztelaniaz edo frantsesez jakin beharrik eguneroko bizitzan ondo moldatzeko. Mundu ofizialarekin —beste hizkuntza batean garatzen zen horrekin— zituen harreman urriak erraz konpontzen zituen apaizen, idazkarien edo osasun-langile elebidunen laguntzarekin. Tokiko funtzionarioak, dendariak eta tabernariak ere elebidunak izaten ziren, edo, kasu batzuetan, bera bezain elebakarrak. Hizkuntza erromantzeek, latinak edo grekoak zuten prestigioak ez zioten askorik eragiten, bereaz kanpoko esparru batean erabiltzen baitziren, kultura idatziaren eta administrazio ofizialaren esparruan, hain zuzen. Soilik kanpoko esparru horietan (administrazio publikoan, karrera erlijiosoan, armadan...) aurrera egin nahi zuenean sentitzen zuen euskal elebakarrak gaztelania (edo Iparraldean, frantsesa) eta latina ikasteko premia. Horregatik, goi eta erdi mailako klaseen sektore jakin batzuek eskolan gaztelania ikastea sustatu zu-

ten, eraztunarena bezalako metodo gaitzesgarriak erabilia, eta betiere komunitatetik kanpoko irteera profesional bat lortzera bideratuta.


Gainerakoan, Euskal foru-sistema oso onuragarria zen klase herrikoientzat: soldaduskatik salbuetsita zeuden, kontsumitzailea babesten zuen aduana-sistema bat zuten, tokiko agintari eta funtzionarioak zituzten, eta jurisdikzio propioa... Beraz, ez zuten inolako beharrik sistema hori eraldatu edo deuseztatzeko. Horrez gain, apologismoaren teorialariak saiatu ziren foru-sistema hori euskararen bidez justifikatzen, euskarari mota guztietako bertuteak egotziz, besteak beste, araztasuna eta antzinakotasuna. Zaila da jakitea euskal apologisten mezuak zenbaterainoko eragina izan zuen herri xehearengan, baina ziur aski lagunduko zuen hizkuntzaren aldeko iritzi-giro bat sortzen, eta hiztunengan euskararekiko atxikimendua eta harrotasuna indartzen.

Erromantizismoa iristearekin batera, aurreko hamarkadetatik gorpuzten ari zen kontzeptu bat garatu zen: etniaren eta hizkuntzaren arteko lotura, eta, haren haritik, hizkuntzaren eta nazioaren artekoa. Aurrez azaldu genuenez, Larramendik ere iradoki zuen lotura hori. 1817an, Wilhelm von Humboldtek, euskal hizkuntzaz eta herriaz ari zela, azpimarratzen zuen herriak “maitasun sutsuz” babesten zuela hizkuntza, eta adierazten zuen, bere ustez, Euskal Herriaren askatasuna eta antolaketa politiko propioaren etorkizuna hizkuntzaren biziraupenaren baitan egongo zela:


El sentido para la conexión íntima entre el caracter de un pueblo, su lengua y su país, se me descubrió muy de otra forma [...] por haber permanecido algún tiempo en medio del notable pueblo: a) de quien es propia esta lengua que mantiene con apasionado amor, b) cuyo sentido nacional resplandece en todo, sintiéndose distinto en su marco, tanto por su lengua vieja, pura y originaria, como todavía entonces por sus libertades y constitucion propia dentro de una poderosa Monarquía, c) cuyo valiente ánimo y vigorosa actividad se expresa en el doble carácter de montañés y de marino condicionado por su hábitat, y d) que desparramado por las lejanas comarcas de la tierra, siempre mira al pequeño punto de su patria, en la que los repatriados al final de su larga carrera compiten en dejar monumentos que hermoseen sus lugares natales⁶¹⁴.

Wilhelm von Humboldt (Postdam, 1767 - Tegel, Berlin, 1835) XIX. mendearen lehen erdialdeko Europako intelektual garrantzitsuenetako bat izan zen: Berlingo Unibertsitatearen sortzailea, diplomazialaria, pentsalaria eta, batez ere, hizkuntzalaria. Bere ustez, Euskal Herria estaturik gabeko nazioaren adibide paradigmatikoa zen, izan ere, estatus politiko-juridiko berezia zuen eta bere nortasun nazionala bere hizkuntza propio eta berezituari estu lotuta zegoen.

Humbodten ekarpena baino geroxeago, hizkuntzaren apologista bitxi baten testigantza dugu: Piarres Ihartze Bidasuet apaizarena (Hazparne, 1765-1843). Bere figura interesgarria da garai hartako erromantikoen artean oso hedatuta zegoen ideia baten adibide eta erakusgarri gisa: hizkuntzaren eta naziotasunaren arteko berezko lotura. Alde batetik, Ihartze apologistarik exajeratuenetako eta burugabeenetako bat izan zen, sistema matematiko baten bidez frogatu nahi izan baitzuen euskara izan zela Adanek eta Evak Paradisuan erabili zuten hizkuntza; baina, bestetik, hizkuntzaren defendatzaile praktikotzat jo liteke, eus-



Pierre D'Iharce de Bidassoueten
Histoire des cantabres...



Augustin Chahoren *Voyage en Navarre pendant...*

kararen eta latinaren ikaskuntza azkartzeko sistema bat asmatu eta praktikan jarri baitzuen. Edonola ere, berari buruz interesatzen zaiguna da, bera izan zela lehenengoetakoa ziurtatzen Euskal Herriak eskubide nazionalak zituela; bere zibilizazio-mailatik eta hizkuntza berezitik eratorritako eskubideak:

Pour apprécier un peuple [...] il faut encore connoître ses institutions, ses mœurs, et son langage. C'est par eux que l'on peut juger de son état de civilisation. Les Basques, peu connus jusqu'alors, sont dignes cependant de trouver place dans l'histoire des nations⁶¹⁵.

Etnia/hizkuntza/nazioa loturak euskal erromantizismoaren figura handienetako baten pentsamenduan dauka adierazpenik osatuena: Agosti Xahorenean (Atharratze, 1811-Baiona, 1858). Jarduera ugariko intelektuala izan zen: hizkuntzalaria, politikaria, kazetaria, saiakeragilea, bidaiaria... Bere ideia politiko intimoenak aztertzen hasi gabe ere, esan dezakegu bere lan batzuetan lehen euskal abertzaletasunaren eta independentismoaren formulazio nahiko osatua aurkeztu zuela. Hala gertatzen da *Paroles d'un Bizkaïen aux libéraux de la reine Christine* eta *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des basques (1830-1835)*⁶¹⁶ lanetan. Xahok Pirinioen bi aldeetako euskaldunak batuko zituen “euskal federazioa” proposatzen zuen, eta egitura politiko hori justifikatzen zuten oinarri nagusietako bat hizkuntza komuna zen.

Ildo horretan, hau da une honetan agertu nahi duguna: XIX. mendearen bigarren eta hirugarren hamarkadetan jada, oso profil desberdinetako intelektualek lotu zutela euskara nazio-espirtuarekin; eta zalantzarik gabe, protonazionalismoaren, foralismoaren eta lehen euskal nazionalismoaren sendotzea erabakigarria izan zela euskarari prestigioa emateko, eta euskara sustatzeko eta iraunarazteko ekimenak bideratzeko.

VI. Ondorioak

Herri batean (gure kasuan Bergaran) bertako nahiz kanpoko hizkuntzen ezagutza eta erabilera baldintzatu izan duen faktoreetako bat herri horren urbanizazio-maila da: urbanizazio maila zenbat eta handiagoa, orduan eta garapen handiagoa zuten merkataritzak, garraioak, administrazioak edo zerbitzu publikoek, eta horren ondorioz, handiago izaten zen mugikortasun soziala, kanpotarren presentzia eta beste hizkuntza batzuekiko harremana. Harreman horretan gaztelaniak zuen pisu handiena, baina frantsesak eta latinak ere bazuten euren tokia. Bestalde, urbanizazio-maila handitzeak biztanleriaren hazkunde nabarmena zekarren; hala hiribildurik handienak artisautzaren, industriaren, merkataritzaren eta zerbitzuen garapenari esker hazi ziren; aldiz, nekazaritza eta abeltzaintza sektoreekin soilik lotuta zeudenek, askoz populazio-maila apalagoak zituzten. Aipatzekoa da, halaber, garai hartako Gipuzkoan ez zegoela “nekazaritza-hiririk”, hau da, biztanle gehienak baserritik bizi ziren populazio-gune handirik.

Nagusiki landa-girokoa zen Gipuzkoako lurraldearen barruan, Bergara izan zen Donostia, Oñati, Tolosa, Azpeitia eta Azkoitiarekin batera, hirigune nabarmen samarra zuen herrietako bat, nahiz eta bertako biztanle-kopurua ez zen oso handia. Gipuzkoak oso dentsitate handia zuen garai hartako estandarrekin alderatuta, baina, ezin zuen askoz gehiago eman, alde batetik, lurraldearen nekazaritza-mugen ondorioz, eta bestetik, oraindik iritsi gabe zegoelako industrializazioak beranduago ekarriko zuen aldaketa erraldoia. Hala, Bergarak 3.000 eta 3.500 biztanle artean izan zituen XVII. mendean, eta 4.000 ingurura iritsi zen XVIII. mendean zehar eta kopuru hori mantendu egin zen 1830eko hamarkadara arte. Ondoren, XIX. mendearen erdialdean, biztanleria 6.000 biztanle pasatxoraino hazi zen, eta kopuru hori mantendu egin zen XX. mendearen hasierara arte.

XVI. mendetik aurrera, Bergara merkataritza-banaketarako gune garrantzitsu bihurtu zen: Gaztelako produktuak, batez ere zerealak, Kantauriko kostaldera bideratzeko etapa garrantzitsuetako bat izan zen, eta, alderantziz, baita Gipuzkoan fabrikatutako produktuak Gaztelara eramateko bidearen parte ere. Horren erakusgarri da garai hartan herriak zuen ostatu-azpiegitura handia, pertsonen eta salgaien joan-etorri etengabea islatzen zuena. Ondoren, XVII. eta XVIII. mendeetan, jarduera horrek zertxobait behera egin zuen, baina beti ere merkataritza-mugimendu handiari eutsiz. Gainera, Bergarak artisautza-sektore garatua izan zuen, batez ere burdinazko objektuen fabrikazioan oinarritua: aiztoak, guraizeak, armak, ... Baina sektore hori nabarmen ahuldu zen XVII. mendearen bigarren erdialdean. Errotaritzak ere garrantzi handia izan zuen: Bergarak 40 irin-erota baino gehiago izan zituen Aro Modernoan zehar. Ez dira ahaztu behar larruari (zapatagintza eta larrugintza) eta eraikuntzari (hargintza, zurgintza eta teilagintza)

lotutako artisautza-sektoreak. Nahiz jarduera murriztagoa izan, ehungintza eta jantzigintza ere aipatu behar dira. Errotak kenduta, gainerako artisautza ekoizpena hirigunean kokatzen zen.

Merkataritza-jarduerarekin lotuta, bada kontuan hartu beharreko beste faktore bat, trafikoaren zirkulazio-maila baldintzatzen zuena: bide-azpiegituren kalitatea. Alde horretatik, aipamen berezia merezi du Gipuzkoa zeharkatu zuen “Zalgurdien Errege Bidea”k (*Camino Real de Coches*), Arabatik zetorrenak eta Bergaratik pasatuz Lapurdiko mugaraino zihoanak. Bidea 1760ko eta 1770eko hamarkadetan egin zen, eta hura martxan jartzeak, zalantzarik gabe, kanpotarren joan-etorria areagotu zuen, eta horrek ondorio linguistiko saihetsezinak eragin zituen.

Ondorio demografiko, sozial eta linguistiko esanguratsuak ekarri zituen gertakari ekonomiko garrantzitsu bat industrializazioarena izan zen. 1846tik aurrera Bergaran fabrika-sistema ezarri zen, lehenik ehungintzan eta ondoren siderurgian. Horrek biztanleriaren mugimenduak, hiritartzeko joera eta ordura arteko klase sozialen sistema berrantolatzea ekarri zuen.

Beraz, Bergarak bazuen hiri-izaera bat eta bazuen nolabaiteko garapen komertziala eta artisautzazkoa, eta, aztertzen ari garen aldiaren amaieran, bazuen garapen industrial ere, baina hala ere, Bergaran egonkor samar bizi izan zen kanpoko biztanleria oso urria izan zen beti. XVII. mendearen amaieratik XIX. mendearen hasierara bitartean, biztanleria osoaren % 4ra baino ez zen iritsi, eta gehienak gizonezkoak ziren. Epe horretan, populazio erdaldunak nekez gaindituko zuen kopuru osoaren % 5a. 1871 inguruan kanpotarren portzentaje hori zertxobait igo egin zen, % 4,3raino, baina kasu honetan, bai gizonak baita emakumeak ere, ia berdinduta. Kontuan hartuta kanpotar gehienak Bergara bezain euskaldunak ziren herrietatik zetozela —eta, beraz, gehienek euskaraz egingo zutela—, baina, aldi berean, Bergaran bertan euskara ez zekiten herritar batzuk ere bazeudela, orotara erdaldunen portzentajeak zertxobait egin zezakeen gora: agian, % 6 ingurura iritsiko zen.

Nolanahi ere, Bergarako jurisdikzioko biztanleria bi multzotan bereizi beharko litzateke: “kalean” bizi zen zatia, hau da, hirigunekoa, eta landa-eremuan bizi zena, baserri sakabanatueta edo baserri-multzoz osatutako auzuneetan. Bereizketa hori funtsezkoa da ikuspegi soziolinguistikotik, izan ere, hirigunean nagusiki artisautzan, merkataritzan eta zerbitzuetan aritzen ziren familiak bizi ohi ziren, eta baita elizgizonak, lekaimeak, irakasleak eta ikasleak ere; hau da, beren jardueragatik, neurri handiagoan edo txikiagoan, gaztelania jakin beharra zutenak. Nekazariak, aldiz, gaztelania ikasteko inolako premiarik gabe bizi zitezkeen. Horregatik, funtsezkoa da jakitea zenbat biztanle bizi ziren hiribilduan (kalean) eta zenbat landa-eremuan. Orokorrean hartuta, Bergarako jurisdikzioa bi parrokiatan banatuta zegoen: San Pedrokoa (biztanleria urbanoari zegokiona) eta Oxirondoko Santa Marinakoa (landa eremukoa). XVII. mendearen erdialdean, bi parrokiatako biztanleria honela banatzen zen gutxi gorabehera: % 35 inguru San Pedron (hiritarra gehienbat) eta % 65 Santa Marinan (ia guztiz landatarra). XVIII. mendearen erdi aldean, bi parrokiatako biztanleria ia parekatuta zegoen, nahiz eta artean Santa Marinak pisu handixeagoa izan: guztizkoaren % 55 ingurukoa. XIX. mendearen erdialderako, landa-eremuko eta hiriguneko biztanleriak berdindurik zeuden praktikan. 1849an, Pascual Madozek, bere *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España*, adierazten zuen praktikan etxe kopuru bera zegoela hiribilduan eta landa-eremuan. 1871ko erroldaren arabera, berriz, biztanleriaren % 46,9 bizi zen baserrietan eta % 53,1 hirigunean. Beraz,

biztanleria hirigunean biltzeko prozesuak mantso baina etenik gabe egin zuen aurrera, XVII. mendearen erdialdetik XIX. mendearen erdialdera arte, eta handik aurrera, zertxobait bizkortu egin zen. Edonola ere, aztertzen ari garen aldian, bergararren % 65etik % 47ra bitartean bizi izan zen landa-eremuan, eta, ondorioz, horietako ia denak euskaldun elebakarrak izango ziren.

Aurretik esandakoaz gain, kontuan hartu beharreko beste faktore bat da aztergai dugun aldian zehar Bergarako biztanleriak izan zuen banaketa sozio-profesionala, izan ere, talde sozio-profesional bakoitzaren hizkuntza gaitasuna nabarmen ezberdina zen. Klase nagusitzat eta kultutzat har daitezkeenak —jabe handiak, handikiak, burgesak, merkatariak, enpleguatuak, medikuak, irakasleak, abokatuak, ikasleak...— alfabetatuta zeuden, noski, eta bazekiten gaztelaniaz, euskaraz gain; eta askotan, baita frantsesez eta/edo latinez ere. Eskalan beste muturrean zeuden nekazariak, zeinak, aurretik adierazi bezala, ez baitzuten ia inolako beharrik hizkuntza ofiziala ikasteko, euren jatorrizko hizkuntzarekin arazorik gabe moldatzen baitziren. Bi multzo horien artean kokatzen ziren beste lanbide batzuk, hala nola artisauak, garraiolariak, langileak, dendariak, morroiak eta abar. Horietako batzuek gaztelaniaz komunikatzeko beharra izango zuten, beste batzuek ez, eta, ondorioz, hizkuntza horren ezagutza maila desberdina izango zen batzuen eta besten artean. Aztertzen ari garen aldian, “klase herrikoï” horiek biztanleriaren % 70-80 inguru osatzen zuten.

Elementu soziolinguistikoko garrantzitsu bat generoaren arabera aldea zen. Izan ere, lekukotza eta zantzu guztiek adierazten dute gaztelaniaren ezagutza askoz ere txikiagoa zela emakumeen artean gizonen artean baino. Jakina, normalean, emakumeek nagusiki “etxeko lanetan” jarduten zuten, eta gizonezkoek baino premia txikiagoa zuten euskaraz ez zekiten beste pertsona batzuekin komunikatzeko edota hiri-bildutik kanpora harremanak izateko. Kopuruz, emakumeak biztanleriaren erdia edo zertxobait gehiago ziren, jakina: % 51 inguru.

Begarako biztanleria hizkuntzaren aldetik kuantifikatzeko garaian kontuan hartu beharreko beste elementu bat da herritarren ikasketa-maila. Izan ere, herritar gehienentzat, gaztelania ikasteko ia bide bakarra eskola izan zen. Zoritxarrez, XIX. mendearen erdialdera arte eskolatze-maila nahiko apala izan zen. Egia da Euskal Herria espezializatu zela, (maiorazko ez ziren seme-alabei irtenbidea emateko) gazteak prestatzen, bai karrera erlijiosorako edo bai inperioaren administrazio-karguetarako (eskribau, idazkari, kontu-hartzaile...), eta horretarako, oinarrizko irakaskuntzatik bertatik hasi beharra zegoela. Baina kontua da prestakuntza mota hori gizarteko goiko estamentu batzuetako gizonezkoei bakarrik eskaintzen zitzaizela eta nahiko berandura arte prestakuntza horretatik kanpo utzi izan zirela emakumeak, nekazariak eta artisautzan nahiz bestelako lanbide herrikoietan aritzen ziren herritarrak. Gauzak horrela, gizonezkoen gutxiengo batek eta emakume oso gutxiak soilik izan zuten eskolara joateko eta, ondorioz, gaztelania ikasteko aukera. Bestalde, gogoan izan behar da oinarrizko hezkuntzaren helburu nagusietako bat ikasleek gaztelania ikastea zela, irakurtzen eta idazten ikasteaz batera. Hori horrela, ziurtzat jo daiteke lehen hezkuntza behar beste denboran jaso zutenek gaztelania ikasi zutela, hobeto edo okerrago. Ondorioz, analfabetismo-indizeak eta euskarazko elebakartasun-indizeak oso parekoak izaten ziren. Horregatik, pertsona bat elebakarra zen ala ez jakiteko adierazlerik fidagarriena hark irakurtzeko eta idazteko zuen gaitasuna egiaztatzea izaten zen.

Zoritzarrez, 1860ko zentsua jaso arte ez dugu alfabetatzeari buruzko datu estatistikorik; eta beraz, analfabetismo-maila neurtzeko, zeharkako beste sistema batzuk erabili behar izan ditugu. Ezagunena dokumentu publikoetako sinatzaileak zenbatzea da. Bere mugak izan arren, sistemarik fidagarriena da idazten (eta ia seguru baita irakurtzen ere) zekitenen portzentajea ezagutzeko. Uste izatekoa da, bestalde, ikasketa maila hori lortu zutenek, komunikatzeko adinako gatzelania-maila bat ere lortu zutela. Sinatzaileei (ustez alfabetatuak) eta ez-sinatzaileei (ustez analfabetoak) buruzko estatistikek, egoera tamalgarria erakusten digute XVIII. mendearen azken hamarkadetara arte; eta ondoren ere, datuek etsigarriak izaten jarraitu zuten XIX. mendearen erdialdera arte, batez ere emakumeen kasuan, nahiz eta zertxobait hobera egin zuten. Bi dokumentu motaren sinatzaileei buruzko laginak hartu ditugu azterketa egiteko. Lehenengoa 1600 eta 1849 arteko 420 testamentugilez osatutako lagina da. Testamentua oso agiri parziala da, ez guztiz adierazgarria, izan ere, testamentua egiten dutenen proportzioak oso desberdinak dira eskritura-emakumeen maila sozio-profesionalaren eta generoaren arabera. Oro har, askoz gizon gehiagok egiten dute testamentua emakumeek baino, eta, jakina, goi-klaseetakoak askoz gehiago dira klase herrikoietakoak baino. Nolanahi ere, eskritura sinatzeko gai ez zirenen (eta, beraz, usteko analfabetoen) portzentajeak, gizonetan % 46 ingurukoak ziren XVII. eta XVIII. mendeetan, eta ehunekoa % 35era jaitsi zen XIX. mendearen lehen erdian. Emakumeen kasuan, bilakaera are kaxkarragoa izan zen: XVII. mende osoan analfabetoen ehunekoa % 100 inguruan mantendu zen, eta ez zen jaitsiera esanguratsurik izan XVIII. mendearen bigarren erdira arte (% 80ra). 1800-1849 aldian, berriz, portzentajea % 66,2 jaitsi zen. Nolanahi ere, kontuan izanik testamentua egiten zuten gehienak biztanleriaren geruza kultuena zirela, zifrak ikaragarriak dira. 1600 eta 1849 bitarteko aldia osorik hartuz gero, testamentugileen batez besteko analfabetismo-tasa % 53,8 ingurukoa izango litzateke.

Bigarrenik, beste lagin bat aztertu dugu, oraingoan espediente prozesalean inplikaturako jendearena: epaiketarako auzipetuak, lekukoak eta abar. Bistan denez, espediente prozesala testamentua baino askoz ere “demokratikoagoa” da, izan ere, bertan —behartuta— mota, gizarte-maila eta genero guztietako pertsonak hartu behar izaten dute parte, lapurretatik hasi eta elizgizonetaraino: nekazari, artisau, arropagarbitzaile, ikasle eta abar. 1604-1839 tarteko 67 auziko lagin batekin egin dugu lan, guztira 1.437 pertsona biltzen dituen: 1139 gizonetako eta 298 emakumetako. Bada, epe osoa hartuta, laginaren arabera, auzi horietan parte hartu zutenen % 69,2a ez zen gai izan proposatzen zitzaizen eskritura sinatzeko. Hau da, testamentugileen laginean jasotako emaitzarekin alderatuta, 15,4 puntu gehiago. Aldea are handiagoa da laginaren alborapena zuzentzen badugu, hau da, 1604–1839 aldi osoan gizonen eta emakumeen arteko proportzioa orekatuz gero. Kalkulua horrela eginez gero, sinatzeko gaitasunik ez zutenen ehunekoa % 79,9koa izango litzateke; hau da, testamentugileen laginean lortu duguna baino 26,1 puntu gehiago. Bestalde, espero zitekeen bezala, hemen ere analfabetismo-tasen bilakaera antzekoa da: XVII. mendean sinatu ezin zutenen ehunekoa % 84,4 ingurukoa zen; XVIII. mendean ehuneko hori ia bere horretan mantendu zen, apur-apur bat jaitsita, % 83,0raino; eta XIX. mendearen lehen erdian, berriz, beherakada nabarmena izan zen: % 64,8raino.

1860ra iritsita, azkenean alfabetatze-datu fidagarriak ditugu, urte hartan Espainiako estatu osorako egin zen zentsuari esker. Estatistika horren arabera, bergararren % 59,7 analfabetoak ziren eta alde handiak zeuden gizonen eta emakumeen artean: gizonetakoetan, % 54,9; eta emakumeetan, % 64,2. Dena den, datu horiek testamentuetako eta dokumentu prozesaleko sinatzaileen laginetatik lortutakoekin alderatu

ahal izateko, kontuan hartu behar da dokumentu horiek pertsona helduek soilik sinatu ahal zituztela, eta, aldiz, erroldan adin guztietako biztanleria hartzen zela aintzat. Kontuan hartzen badugu garai hartan sei eta hamabost urte bitarteko ume eta gazte gehien-gehienak eskolara joaten zirela, helduen analfabetismo tasa zenbait puntutan handituko litzateke, dokumentu sinatzaileen ehunekoetara hurbilduz eta kasuren batean gaindituz ere. Izan ere analfabetismoaren ehunekoak biztanleria osoarekiko atera beharrean 15 urtetik gorako eta sei urtetik beherako biztanleriarekiko ateratzen baditugu, emaitza oso desberdinak dira: adin tarte horretarako emakume analfabetoen ehunekoa % 82,7koa zen; eta adin-tarte bererako gizonezkoena, berriz, % 72,7koa. Beraz, helduen eta umeen biztanleria kontuan hartuta, analfabetoen indizea, % 77,9koa zen. Biztanleria helduaren analfabetismo-tasa errealak ezin ditugunez zorrotasun estatistikoarekin kalkulatu, iruditzen zaigu biztanleria osoarekiko eta sei urtetik beherako eta 15etik gorako adin-tarte horien arteko batezbestekoa eginez ateratzen den ehunekoa egokia dela 1860rako: gizonezkoena % 63 inguru, emakumezkoena % 73 eta heldu guztiena % 68 inguru. Tasa hauek aurreko mendeetan auzi-dokumentua sinatu ez zutenen ehunekoekin alderatuz gero, beherakada nabarmena ikusten da, batez ere emakumeen kasuan: bost puntu baxuagoak gizonetan, hogitasei emakumeetan eta hamasei puntu heldu guztietan. Horren arrazoa, zalantzarik gabe, XVIII. mendearen bigarren erditik aurrera Soledadeko ikastetxeak eta Mariaren Lagundiak emakumeen heziketan egindako lana eta 1830 eta 1850 arteko hamarkadetan biztanleria osoa eskolatzeko egin ziren ahaleginak dira. Horri esker mutil askok eta bereziki neskek irakurtzen ikasi zuten, eta, kasu askotan, baita idazten eta kontuak egiten ere.

Aipaturiko guztia interesatzen zaigu, ahal den neurrian, euskal elebazarren ehunekoa zenbatekoa zen jakiteko. Argi dago euskaraz bakarrik zekiten pertsona kopurua handiagoa edo txikiagoa izateak erabat baldintzatzen zuela hizkuntza horren erabilera soziala. Izan ere, hizkuntzaren erabilera soziala ezagutzeko garrantzitsuagoa da euskaldun elebazarren proportzioa jakitea, euskaraz zekiten guztien ehunekoa jakitea baino. Esan bezala, bergararren (bereziki, emakumeen) ehuneko oso esanguratsu bat, euskal elebazarra zen; ehuneko txikiago bat elebiduna (eta batzuk baita hirueledunak ere); eta, azkenik, beste kopuru oso txiki bat, elebazar gaztelaniaduna. Elebidunak elebazarren bi kolektiboekin komunika zitezkeen eta, berez, hala egitera behartuta zeuden besteen elebakartasunaren ondorioz. Horrez gain, ez dugu ahaztu behar elebidun gehienek gaztelaniazko gaitasun erlatiboa euskarazkoa baino txikiagoa zela. Aski ezaguna da jauntxoek familia handietako maizter, morroi, neskame eta zerbitzari askok euskaraz bakarrik zekitela eta, euren nagusiak hizkuntza horretan komunikatzen zirela eurekin. Euskararen gizarte-erabileraren panorama, hortaz, euskaldun hutsen masa handi horrek baldintzatzen zuen. Beste kontu bat da elebidunek elkarren artean zer hizkuntza erabiltzen zuten. Argi dago hizkuntza landua eta prestigioduna hizkuntza ofiziala zela, hau da, gaztelania, eta elebidunek (gehienak goi-klaseetakoak) lotsabidetzat zutela herri xehearen hizkuntzan, alegia, euskaraz, hitz egitea. Normalean, apaizek, abokatuek, lurjabeek, ikasleek eta abarrek gaztelania erabiltzen zuten elkarren artean, eta batzuetan latina ere bai, batez ere esku-hartze publiko eta/edo ofizialetan. Tamalez, beste behin ere, ez dugu horri buruzko estatistikarik. Baina daukagun adierazlerik esanguratsuenetako bat da, hain zuzen ere, euskal elebakartasunaren eta analfabetismoaren arteko lotura estua. Ia matematikoki, euskaldun elebazar bat dokumentatzen dugun bakoitzean, analfabetoa ere izaten da. Horrek ez du esan nahi analfabeto guztiak elebakarrak zirenik, ezta elebazar guztiak analfabetoak zirenik ere, baina bai bi egoeren arteko korrelazioa oso altua zela. Hori dela eta, aurrez aipatu ditugun analfabetoen portzentajeek (XVII. mendeko % 80tik XIX. mendeko % 60ra bitartekoak) emango lizkigukete, aldi berean, euskaldun elebazarren protzentajeak ere. Seguru

asko, euskaldun elebakarren portzentajeak zertxobait txikiagoak izango ziren, herritar batzuek gaztelania eskolaz kanpo ere ikasiko zutelako; baina kontrakoa ere gertatuko zen: eskolan gaztelania ikasi, baina ez erabiltzearen puruz, ahaztea. Horrenbestez, elebakarren proportzioaren bilakaera horrelako zerbait izan zitekeen: XVII. mendean, % 75 inguru; XVIII. mendean, pixka bat jaitsita, % 70en bueltan; eta 1800-1876 aldian, berriz, gehiago murriztuta, % 60 eta % 55 artean.

Aro Moderno osoan zehar, Bergarako Udalak ezinbestekotzat jo zuen, gutxienez, lehen hezkuntzako maisu bat izatea mutilentzat, eta ahalegin handia egin zuen hori lortzeko. Beti bezala, arazo nagusia finantzaketa izaten zen, eta hori partikularren dohaintzetatik eta, bereziki, ardoaren sisatik lortzen zen. Neskek ez zuten inolako heziketa publikorik izan 1732an “Soledadeko” beatetxea eskola gisa funtzionatzen hasi zen arte. Bestalde, 1830eko txosten baten arabera, herrigunean ziharduten maisuez gain, baziren beste batzuk Bergarako lau landa auzotan aritzen zirenak: Osintxun, Elorregin, Basalgon eta San Kristobalen. Ez dakigu noiztik xehazki, baina gutxienez data horretatik aurrera, eskolatzea herriko landa-eremuetara ere hedatzen hasia zen. Horrek eragin handia izan zuen gehiengo euskal elebakarra zuten eremu horietako alfabetatzean eta gaztelaniaren hedapenean.

Udalak —zailtasun ekonomiko handiekin— mantendu ohi zituen maisu-maistrez gain, beste hezkuntza-erakunde batzuk ere izan ziren, eragin handia izan zutenak Bergarako herritarrek alfabetatzeko eta, ondorioz, herritarrok gaztelania (eta kasu batzuetan baita latina eta frantsesa ere) ikas zezaten. Honako hauek izan ziren: Jesusen Lagundiaren Ikastetxea (1593–1767); Neskailak Hezteko Soledadeko Mintegia (1732–1799), gero Mariaren Lagundiaren ikastetxe bihurtua; eta Errege Mintegi Patriotiko Baskongadoa (1776–1804). Jesuitek, halako kasuetan ohikoa zen bezala, hasieratik hartu zuten haur eta gazteei lehen hezkuntza eta gramatika irakasteko konpromisoa, eta lan horri, neurri batean, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko ilustratuek eman zioten jarraipena. Neskei dagokienez, lehen hezkuntzako irakaskuntza gutxienez 1735etik eman zen “Soledade”an. Gero, 1799tik aurrera, Mariaren Lagundiak hartu zuen emakumeen heziketaren ardura. Erakunde horien zeregina erabakigarria izan zen analfabetismo-tasa handiak zuzentzeko, batez ere emakumeen artean, eta, aldi berean, lan handia egin zuten gaztelania zabaltzeko, irakaskuntza guztia hizkuntza horretan ematen baitzuten. Horregatik, Bergarako analfabetismo- eta elebakartasun-portzentajeak garai bereko Gipuzkoako beste herri batzuetakoekin alderatuko bagenitu, ikusiko genuke nabarmen txikiagoak direla, zalantzarik gabe, Gipuzkoako herrien batezbestekoak baino askoz hezkuntza-azpiegitura hobeak zituelako.

Badaude ebidentzia dokumentalak, erakusten dutenak 1600-1876 aldian Bergarako gizartea nagusiki euskal elebakarra izan zela, nahiz eta ez dugun proportzio hori zehatz jakiteko datu estatistikorik. Baina dokumentu askotan jasotzen da zenbait xedapen edo dokumentu herritar letragabe eta elebakarrei itzultzeko premia larria. Lehenik aipatu behar da Bergaran denbora luzez indarrean egon zen sistema edo praktika bat: *publikatena*. Dokumentu ofizial guztiak (bandoak, dekretuak, errege-aginduak eta abar) gaztelaniaz egiten ziren eta bertan jasotakoak herritar guztiei eragiten zien, baina gehienek —bereziki nekazari eta emakumeek— ez zuten gaztelania ulertzen. Horrenbestez, sistema bat ezarri behar izan zen agindu horien edukia jendarte osoari helarazteko, inork ez zezan alegatu ez zuela ulertu eta horregatik ez zuela bete. Pregoilariak izan ohi ziren zenbait herritan (eta aldi batez baita Bergaran ere) agindu horiek herritarrei euskaraz jakinarazten zietenak, baina bide horrek bazuen gabezia bat, izan ere pregoiak

hiribilduan ematen ziren eta ez ziren landa-eremuetan, baserri sakabanatueta, bizi zen jende askorengana iristen. Eta, hain justu, horiek ziren itzulpena gehien behar zutenak. Horregatik eta beste arrazoi batzuegatik, beste bide bat aukeratu zen: apaizak izatea igandeko herri-mezako eskaintzaren ondoren aginduon berri emango zutenak. Teorian behintzat, komunitate osoa bilduta zegoen unea zen, eta, beraz, une egokiena xedapen ofizialen edukia herritar guztiei “aditzera emateko”. XVIII. mendearen bigarren erdian, zenbait erretore itzulpen horiek egitearen aurka azaldu baziren ere, dokumentazio bidez egiaztatu ahal izan dugu publikaren sistema Bergaran indarrean egon zela, gutxienez, 1589 eta 1832 bitartean, eta badaude zantzuak praktika hori beste zenbait urtez luzatu zela pentsarazten digutenak.

Euskaraz jakin beharra zuen beste kolektibo profesional bat osasungintzakoa zen. Herri xehea, gehienik zirujauen zerbitzuez baliatzen zen. Labanak eta lantzetak erabiltzen adituak izaten ziren eta eurengana jotzen zuten herritarrek odola ateratzeko zein bizarra kentzeko; baina, gainera, konponketa errazak ere egiten zituzten, hezur hautsiak oholtzoz lotzea, adibidez. Medikuek, ohiz kanpoko egoera larrietan baino ez ziren joaten. Hala, bada, ezinbestekoa zen osasun-langileek pazienteen hizkuntza jakitea, haiekin komunikatu ahal izateko. Agirietan ez dut aurkitu zirujauak euskara jakitea eskatzen zitzaion kasurik; ziurrenik, ez zelako beharrezko ikusten, herriko jende xehea izango zelako eta denek jakingo zutelako euskaraz. Medikuen kasuan, ordea, bai agertzen da euskaraz jakiteko eskakizuna Bergaran lan egin ahal izateko baldintza gisa. Lehen aldiz 1744ko dokumentu batean aurkitu dugu aipamen hori. Ordura arte, badirudi ez zela arazorik egoten euskaldunak ziren mediku kualifikatuak aurkitzeko, eta horregatik ez zen baldintza hori zehazten. Baina XVIII. mendearen erdialdetik aurrera, dirudienez, ez zen hain erraza mediku euskaldunak lortzea. Hori dela eta, Udalak erabaki zuen, baldintza hori betetzen ez bazuen, hautagaiak bere kontura itzultzaile bat kontratatzeko konpromisoa hartu beharko zuela. Dokumentazioan egiaztatu ahal izan dugu 1751 eta 1829 artean Bergarako mediku-plaza bat eskuratzeko baldintzen artean “bascongado” izatea jasotzen zela, hau da, euskal hitzuna izatea.

Euskal elebazarrekin hizkuntza bitartekaritzako lan garrantzitsua egin zuen beste kolektibo bat eskribauena izan zen, 1862tik aurrera “notario” deiturikoena. Eskribauak beharturik zeuden eskriturak eta atestatuak gaztelaniaz idaztera, baina agiri horietan inplikaturako eskritura-emaileak, inkulpatuak eta lekukoak euskaldun hutsak izaten ziren askotan, eta logikoa denez, beren nahiak eta aitortpenak euskaraz adierazten zituzten. Eskribauak lekukotasunak jaso eta dokumentua gaztelaniaz idazten zuen, baina gero, sinatzeko unean, ziurtatu egin behar zuen interesdunek ondo ulertu zutela dokumentuan jasotakoa, eta edukia bat zetorrela eurek euskaraz adierazitakoarekin. Gaztelania ulertzen zuten pertsonen, testuen irakurri besterik ez zien egiten eskribauak; baina ulertzen ez zutenei, itzuli egiten zien, edo garaiko esamolde baten arabera esanda, “aditzera ematen zien” (*“se lo daba a entender”*). Egoera hori beti dokumentuan jasota utzi izan balitz, gaur egun datu estatistiko nahiko fidagarriak izango genituzke eskribauen aurrean agertzen ziren euskaldun hutsei buruz; baina, zoritxarrez, ez eskribau guztiek, ezta kasu guztietan ere, ez zuten eskritura interesatuari itzuli izanaren erregistrorik uzten. Hala ere, kasu batzuetan agertzen da, eta horietan honelako formulazioak azaltzen dira: interesduna ados azaldu zela testuarekin *“tras habérselo dado a entender en lengua vulgar bascongada”* edo, besterik gabe, *“habérselo dado a entender”*. Inplikatu asko zituzten auzi batzuk ere aztertu ahal izan ditugu. Horietan, batzuei itzulpena egiten zitzaion eta beste batzuei ez, eta datu horiekin oinarritzeko estatistika bat osatu dugu, oso fidagarria ez bada ere, zantzu gisa, elebakartasunaren fenomenoari buruzko ikuspegia osatzen lagun diezagukeena. Bergarako auzien lagin

txiki eta zalantzazko hori zuzena balitz, XVIII. mendearen lehen erdian prozesu batean inplikaturata egon zirenen % 80,8k eskritura itzultzeko beharra izan zuten, gaztelaniaz ez zekitelako. Mende horren bigarren erdian, portzentajea erdira baino gutxiagora (% 38ra) jaitsi zen, eta XIX. mendearen lehen erdian, berriz, are gehiago murriztu zen gaztelania ulertzen ez zutenen ehunekoa: % 16,3ra. XVIII. mendeko datuek arrazoizkoak ematen dute, eta ziurrenik nahiko bat datoz garai hartako errealitate soziolinguistikoarekin; baina aztertutako auzien laginak ez ditu behar bezala islatzen XVIII. mendearen bigarren erdiko eta, bereziki, XIX. mendearen lehen erdiko elebakarren benetako kopuruak, ziurrenik eskribauek ez zituztelako jaso izandako kasu asko eta asko.

Egoera linguistiko hartan, eskribauak elebidunak izatea ziurtatu behar zen, zerbitzua eman behar zieten eskritura emaileetako asko elebakarrak izaten baitziren. Baldintza hori profesional horiek tokikoak izateak bermatzen zuen, izan ere, lurralde bakoitzean bertakoek soilik jardun zezaketen eskribau lanetan. Gipuzkoaren kasuan, behintzat, bertakoa izatea euskalduna izatearen parekoa zen, eta, beraz, ez zen beharrezkoa hizkuntza-eskakizunik jartzea eskribautza batean aritzeko. XIX. mendearen erdialdean, ordea, eskribauak notario izatera pasatu ziren eta haien lan-eremua espainiar estatu osora hedatu zen. Horren ondorioz, Euskal Herrian ez zegoen bermatuta notario-postuetarako hautagaiek euskaraz jakitea. Hain zuzen ere, dokumentazioan jasota dago 1862ko Notariotza Legea aplikatzen hasi zenetik aurrera, eremu erdaldunetako hautagaiak aurkeztu izan zirela Gipuzkoako notariotzetara; hasieran, batez ere inguruko lurraldeetatik, Errioxatik eta Burgosetik. Eta hori guztia, nahiz eta legean bertan jaso zen lurralde euskaldunetan notario lanetan jarduteko euskaraz jakin beharko zela. Izatez, 1863ko Notariotzaren Araudiak aurreikusten zuen, gaztelaniaz bestelako “dialektoak” hitz egiten ziren lurraldeetako notariotzetara aurkeztu ziren hautagaiei, zuzenbideari buruzko hiru galdera egingo zitzaizkiela “dialekto” horretan, eta galdera horiei hizkuntza berean erantzun beharko zietela. Horrez gain, hizkuntza horren gaitasun-agiri bat ere aurkeztu behar zuten, normalean alkateek egiten zutena. Ziurtagiria egiazkoa ez zela antzematen zen kasu batzuetan, euskarazko azterketa formala egin izan zitzaien hautagaiei; hala egin zen, adibidez, 1900ean, Bergarako notariotzarako oposizio batean. 1917an, 1863ko araudiaren erreforma batek ezabatu egin zuen eskakizun hori, eta ordutik aurrera, Espainiako notarioek, euskararik jakin gabe ere, lortu ahal izan zituzten Euskal Herriko plazak.

Funtzionario publikoen beste kolektibo bat, bere eginkizuna betetzeko derrigorrez herri-hizkuntza jakin beharra zuena, ordena indarrena zen, izan ere, landa-eremuan jarduten zuten gehienbat, eta esana dugun moduan, hura nagusiki euskal elebakarra zen. XVIII. mendearen amaieratik aurrera eta XIX. mendean zehar bi kidegok jardun zuten Gipuzkoan: Mikeleteak eta Guardia Zibilak. Lehenengoa, batez ere, kontrabandoaren kontrolaz eta zerga-bilketaz arduratzen zen. Ez da inon ageri mikeleteek euskaraz jakin behar zutenik Gipuzkoan aritu ahal izateko, baina bai hautagaiek herrialdekoak edo gutxienez euskal herritarak/ “baskongadoak” izan behar zutela (“*que el aspirante sea guipuzcoano, o cuando menos bascongado*”); eta horrekin nahikoa zen, garai hartan gipuzkoar guztiek baitzekiten euskaraz, eta bizkaitar eta arabar gehienek ere bai. Askoz ere zehatzagoa zen Guardia Zibilean sartzeko 1844ko araudia, izan ere, Euskal Herrian aritzeko beste baldintza batzuez gain, bertakoa izatea eta euskaraz jakitea (“*ser natural de estas provincias, sabiendo su idioma*”) eskatzen zen. Gogoratu behar da, Guardia Zibila, bere hastapenetan, bandolerismoaren eta kontrabandoaren aurkako landa-polizia zela. Beraz, guztiz arrazoizkoa zen euskaraz jakitea eskatzea, euskara baitzen Euskal Herriko landa-eremuko hizkuntza ia bakarra.

Kontuan hartzen ari garen aldi historikoan, euskara ia ahoz baino ez zen erabiltzen. Idatzizkoaren eremuan zuen presentzia oso txikia zen, anekdotikoa neurri batean. Notariotzako dokumentazioan, adibidez, euskaraz termino edo esaldi solte batzuk baino ez dira ageri, eskribauak txertatu ohi zituenak: batzuetan, objekturen baten gaztelaniazko izena ez zekielako, eta beste batzuetan, garrantzitsutzat jotzen zuelako deklarataileak esandako zerbait hitzez hitz jasotzea, adierazpenari zehaztasun juridiko handiagoa emateko. Dena den, badago esparru jakin bat non, oso noizean behin bada ere, euskararen ahozko erabileraren idatzizko bertsioa jasotzen den: bertso iraingarrien transkripzio prozesalari buruz ari gara. Euskaldunak betidanik izan dira bertsozaleak eta kasu batzuetan bertsook norbait iraintzeko edo norbaiti eraso egiteko erabili izan dira. Alegia, eraso egin nahi zitzaion horri “koplak” edo “bertsoak” ateratzen zitzaizkion. Kontua epaitegira iristen zenean, ez zen arraroa eskribauak konposizio iraingarri osoa edo zati bat transkribatzea, eta horri esker iritsi dira guganaino. Bestalde, eta jada esparru pribatuan, partikularren arteko korrespondentzian badaude kasu bakan batzuk non eskutitz osoa edo zati batzuk euskaraz idatzita dauden; hala ere, ohikoena hasierako eta amaierako agurretan soilik erabiltzea zen.

Bergarako biztanleriaren —bereziki euskal elebakarren— analfabetismo-tasa handiak ikusita, eta kontuan hartuta XIX. mendearen erdialdera arte euskarazko liburuen argitalpena oso urria izan zela, ez da harritzekoa euskarazko irakurleak gutxi izatea; gutxi horiek ere ez baitzuten euskaraz irakurtzeko aukera handiegirik izango. Oro har, liburuen jabetza-indizea oso txikia zen herrialde katolikoetan, eta horrek agerian uzten zuen biztanle gehienek ez zutela irakurtzeko interes handirik, neurri batean, irakurtzeko gaitasunik ere ez zutelako. Euskal Herrian, jabetza-indizeok Espainiako batezbestekoaren gainetik zeuden, eta zehazki Gipuzkoan, % 27,5ekoa zen. Baina Bergarako kasua Gipuzkoako batezbestekoaren oso gainetik zegoen, % 43,9ko jabetza-indizearekin, hau da, Europako erdialdeko eta Iparraldeko herrialde luteranoen eta kalbinisten jabetza-mailaren parean. Zalantzarik gabe, jesuiten Ikastetxeak lehenik eta Errege Mintegiak ondoren, eragin handia izan zuten bergararren artean liburuekiko lilura pizten. Edo nola ere, 1680tik 1836ra bitarteko Bergarako liburutegi partikularren lagin bat aztertu dugu, eta ikusi dugu horietatik % 18k soilik zutela euskarazko libururen bat, eta gainera euskarazko liburuak zituzten horietako gehienek oso ale gutxi zituztela. Horren guztiaren barruan salbuespen aipagarri bakarra dugu: Santa Marinako maixua, On Rafael Garitano-Aldaeta euskaltzalea, bibliofiloa eta, nolabait, ilustratua—, XVIII. mendearen erdialdean euskaraz irakur zitekeen gehientsuena bildu zuena. Gainerakoan, euskarazko irakurle “arruntek” bizpahiru liburu baino ez zituzten izaten euskaraz: eskuragai zeuden katixima ugarietakoren baten aleren bat, aita Kardaberazen deboziozko libururen bat, eta, batzuetan, baita Aita Larramendiren hiztegia ere. Dena den, euskarazko liburu-jabetzaren panorama pobrea izan arren, Bergarak inguruko lurraldeek baino indize hobeak zituen: hobeak Gipuzkoako herrien batezbestekoak baino, eta, are hobeak Nafarroako, Bizkaiko edo Arabako herriek zituztenak baino.

Eta, oso gutxi bada ere, zerbait idatzi zen euskaraz XVII, XVIII eta XIX. mendeetan Bergaran. XVIII. mendean, Peñafloridako kondea dugu, Azkoitian jaio arren bergarartzat har dezakeguna, bertan bizi izan baitzen bizitzako azken hamabost urteetan. *Gavon-sariac* izeneko gabon-kanten bilduma bat eta *El Borracho burlado* izeneko opera elebiduna idatzi zituen. Horrez gain, bi apaiz aipatu behar dira, zenbait erlijio-lanen itzulpenak egin zituztenak. Lehenengoa, On Jose Julian Atxotegi, Santa Marinako koadjutorea, Louis-Lucien Bonaparteren laguntzaile izandakoa. Asteteren katixima Bergarako euskalkira itzuli zuen, nahiz eta ez zen argitaratu, eta, horretaz gain, Undianoren inprimategian argitaratuko zioten liburu

bat ere moldatu zuen: *Eusquerezco manuala sacramentuen gañeco eracusaldia, eta ongui ilten laguntceco oracio egoquiac dacazquiana*. Bigarren egilea, berriz, On Jose Tomas Eleizalde San Pedroko koadjutorea, garai hartan aski ezagunak ziren lau deboziziozko obra itzuli zituen. Eleizalderen hainbat lanen edizioak argitaratu ziren Bergaran, izan ere, inprimategiaren negozioak izan zuen herrian nolabaiteko garapena 1840tik 1870era bitarteko hamarkadetan. Nabarmendu beharra dago, gainera, argitaratutako lanetako mordoxka bat euskarazkoak zirela, nahiz eta garrantzi editorial txikikoak izan: liburuxka erlijiosoak eta bertso-paperak, batez ere. Kontuan hartuta ordura arte euskarazko lanen inprimaketa oso urria izan zela, harrigarria da Bergaran —lehen edizioak eta berrargitalpenak batuta— gutxienez dozenatik gora liburu inprimatu izana; batez ere, kontuan hartzen badugu Probintzian euskarazko lanak argitaratzen ziren beste bi gunere bazeudela: Tolosa (nagusia) eta Donostia. Argi dago, obra horiek ordura arte baino kopuru handiagoetan inprimatzen baziren, gero nork erosi eta nork irakurri zutelako zela. Beraz, bi gerra karlisten artean Bergaran izan zen “leherketa” editorial horrek adierazten digu ordura arte analfabetoak ziren biztanleriaren zenbait sektore alfabetatu egin zirela, eta, neurri batean, literatura herrikoi jakin bat (bereziki, deboziziozko liburu txikiak eta bertso-paperak) kontsumitzeari ekin ziotela.

Azpimarratzekoa da, halaber, 1850eko eta 1880ko hamarkaden artean Bergaran bi apaiz egotea, Atxotegi eta Eleizalde, deboziziozko liburuak (sei gutxienez) euskaratzeaz arduratu zirenak. Horrek, batetik, haien aldetiko interesa erakusten du; baina, bestetik, adierazten du lan horiek erosi eta irakur zitzakeen publiko potentzial bat ere bazegoela. Horrek guztiak iradokitzen du beste giro bat eta beste jarrera bat sortu zela euskararekiko, bai egileen aldetik eta baita irakurleen aldetik ere. Begibistakoa den beste kontu bat da euskaraz argitaratzen zen gehien-gehiena gai erlijiosoei buruzkoa zela, eta hurrengo belaunaldiko idazleek, aldiz, gai laikoez ere idatzi zutela. Hori oso ondo ikusten da Eleizalderen kasuan. Osaba, Jose Tomas, apaiza zen eta erlijio-liburuak baino ez zituen idatzi; Koldo, iloba, aldiz, laiko zen eta, bai, *Oto-yak euzkeraz*⁶¹⁷ izeneko otoitz-liburu bat argitaratu zuen, eta *Kristoren Antz-Bidea* (1913) izenburupean *Kempisen Imitazioa*-ren itzulpena ere bai, eta baita euskarari buruzko lan filologiko batzuk ere, baina gutxienez euskarazko eleberri bat ere idatzi zuen: *Landibar* (1918).

Horrez gain, kontuan hartu beharko lirateke euskaraz idatzi baina bere garaian argitaratu ez ziren beste testu mordoxka bat ere. Apaizek beren lanerako sortutako dokumentuak ditugu gogoan, batez ere bi helbururekin erabiltzen zituztenak: haurrei kristau doktrina irakasteko eta predikazio arrunterako. On Sebastian Urzelaireren lanak aipatu beharko genituzke hemen. Bere sermoien eskuizkribu ugari gordetzen dira: gehienak gaztelaniatik itzultitakoak, baina baita bizkaieratik gipuzkerara itzultitakoak ere. Segurtasun osoz, beste apaiz batzuek ere, Urzelaik bezala, euskaraz prestatuko zituzten euren sermoiak baina zoritxarrez ez dira gorde izan.

Azkenik, On Felipe Ziorraga dugu, euskal idazle bergarar bat (nahiz Gasteizen jaiotakoa izan), ekarpen bakar eta xume bat egin zuena: Isabel II.a erreginaren omenezko bi abestiren letrak. Garai hartarako nahiko ekarpen bitxia da, alde batetik, darabilen gaia laiko eta asmo politiko nabarmenakoa delako, eta bestetik, lanaren formatoagatik eta hedabide batean argitaratu izanagatik. Horrek adierazten du ordura arte euskarazko argitalpenetan ia erabateko nagusitasuna izan zuen gai erlijiosoaren monopolioa apurka-apurka ahultzen hasia zela, nahiz eta kasu honetan egilea apaiza izan.

Bestalde, kontuan hartu genezake Antzuolako euskarazko idazleen ekoizpena ere, bi arrazoi nagusi-rengatik: alde batetik, bi herrietako hizkuntza-aldaerak oso hurbilekoak direlako, eta, bestetik, Bergarako argitalpen eta testu ia guztiak gipuzkeraz idatzita daudelako. Hori horrela, XVII. mendetik XIX. mendera bitartean bergarera idatzitako testuak bilatzen baditugu, testu bakarra dugu: Atxotegiren katixima. Hortik kanpo, Antzuolan ditugu bertako euskararen (Bergarako aldaeraren hurbileko batean) idatzitako beste bi katixima: Juan Bautista Amilletarena, XVII. mendearen amaierakoa, eta P. A. Y. doktorearena (Pablo Antonio Iraeta), 1825ekoa. Hala ere, gogoan izan behar da badela beste idazle antzuolar bat ere: Juan Ignacio Azkarate frantziskotarra. Haren hiru sermoi gorde dira, XVIII. mendearen amaierakoak, baina, Urzelairenak bezala, gipuzkeraz idatzita daude.

Euskalkia dela eta komeniko litzateke gogoeta bat egitea: ea zergatik, euren fededunak nagusiki elebakarrak izanda, apaiz batzuek tokiko aldaera erabiltzen zuten fededun horiekin komunikatzeko, eta beste batzuek, berriz, herrian ohikoa ez zen euskalki batez baliatzen ziren. Laburbildu dezagun: Atxotegik eta Eleizalde hainbat liburu elizkoi argitaratu zituzten, denak gipuzkeraz; Ziorragak ere gipuzkera erabili zuen Isabel II.a erreginari eskainitako bertsoetan; gauza bera egin zuten Urzelaik eta Azkaratek euren sermoiak idazteko. Aldiz, Amilletak eta Iraeta Doktoreak Antzuolako hizkeran idatzi zituzten euren katiximak. Jakina, Atxotegiren katixima ere bergarera idatzita dago, baina kasu hori berezia da, Bonaparte printzeak berak eskatu baitzion herriko aldaeran egitea. Ez dirudi kasualitatea denik publiko helduari zuzendutako lanak —inprimatzekoak, erreginarean aurrean kantatzekoak edo komunitate osoaren aurrean solemneki predikatzekoak— gipuzkeraz idatzi izana. Garai hartan, gipuzkera zen euskalkirik landuena eta normalizatuena, batez ere Larramendi, Kardaberaz eta Mendiburu bezalako egileek egindako lanen ondoren. Gauza “serioetarako”, ahalegin berezia egiten zen euskararik “kultuena” eta “dotoreena” erabiltzeko. Aldiz, haurrei zuzendutako testuak idaztean, ezinbestekoa zirudien haiek egunerokoan erabiltzen zuten hizkera bera baliatzea: ahalik eta hurbilena eta ulergarriena, hartzaileen adin txikira egokitua.

Hala ere, agian beste faktore bat ere kontuan hartu beharko litzateke, ulertzeko zergatik idazten eta predikatzen zuten gipuzkeraz Debarroko apaiz batzuk, gutxienez XVIII. mendeaz geroztik; Debarroan euskararen mendebaldeko aldaera erabiltzen zenean. Izan ere, aipatzekoa da gipuzkoarrek “Probintziarekiko” zuten partaidetza-sentimenduaren hazkunde progresiboa, XVI. mendetik aurrera indartu egin zena. Gogora dezagun, adibidez, Larramendik erakutsitako gipuzkoar sentimendu sutua, eta nola sumintzen zen “Bizkaino” terminoa erabiltzen zenean euskaldun guztiak izendatzeko⁶¹⁸. Ez da, beraz, zentzugabekeria pentsatzea apaiz horien asmoetan egon zitekeela “bizkaieraz” hitz egiten zuten euren eliztar gipuzkoarren mintzoa “gipuzkerara hurbiltzea”; diskurtso publiko eta solemneenetan behintzat, bereziki idatzietan.

Beste maila batean, XVI. mendearen erdialdetik aurrera behintzat, euskara helburu politikoetarako ere erabili zen: batzuek euskara goretsi zuten eta foru-sistemaren oinarritzko frogatzat aurkeztu; beste batzuek aldiz, iraindu egin zuten, inolako nobleziarik gabeko hizkuntza mordoilo, basati eta sasikotzat joz, eta, beraz, sistema politiko-juridiko bereizirik justifikatzeko gaitasun oro ukatuz. Borboien dinastia boterera iritsi zenean, politika erregalista eta zentralista jarri zuten martxan, eta hizkuntzaren alorrean gaztelania izendatu eta sustatu zuten Erresumako hizkuntza ofizial bakartzat, tokian-tokian hitz egiten ziren gainerako hizkuntzen kaltetan. Jesusen Lagundia, bere aldetik, aitasantutzaren eta, oro har, Elizaren

eskubideen defendatzaile gorena izateaz gain, herri-hizkuntzen (gure kasuan euskararen) bultzatzailea ere izan zen; uste baitzuten bide hori zela bizitzeko eta pentsatzeko modu tradizionalak eraso arrazionalistetatik eta ideia moderno “suntsitzaileetatik” babesteko modurik egokiena. Ez da kasualitatea euskararen sustatzaile nagusiak jesuitak izatea 1767an kanporatu zituzten arte, bereziki hiru gipuzkoar: Larramendi, Kardaberaz eta Mendiburu.

Frantziako Iraultzaren ondoren liberalismoa Espainian sartzeak areagotu egin zuen gaztelania hizkuntza ofizial bakartzat defendatzen zuen planteamendu zentralizatzaile eta uniformizatzailea, gainerako hizkuntzak familia- eta auzo-komunikazio informalera mugatzen zituen. Arau bidez ezarri zen bizitza publikoko eremu guztietan hizkuntza bakarra (espainiera) erabiliko zela, beste hizkuntzei inolako tokirik utzi gabe. Hala, 1829ko Merkataritza Kodeak merkataritza-liburuak gaztelaniaz eramateko derrigortasuna ezarri zuen, eta gauza bera egin zuen 1862ko Notariotza Legeak, agiri publikoei dagokienez. 1867an, berriz, “ez ziren zentsurara onartu” —alegia, debekatu egin ziren— “*dialecto*”etan idatzitako antzezlanak, hau da, espainieraz besteko hizkuntzetan idatzitakoak. Geroago, protesta batzuk medio, onartu egin ziren, baina gaztelaniazko itzulpena aurkezteko baldintzapean. Eta jakina, hezkuntza-eremu osoan behin eta berriz onartu ziren gaztelania hizkuntza bakartzat aitortzen zuten arauak: 1836, 1838, 1845, 1850, 1853, 1857, 1858, 1861, 1863, 1866, 1868 eta 1872. Zalantzarik gabe, hezkuntza-sistema izan zen Espainiako liberalismoak hizkuntza-bakarraren printzipioa bermatzeko zuen baliabide nagusia.

XIX. mendearen lehen erdian, Gipuzkoan —euskal haur elebakar gehien eskolaratzen zuen lurraldean— mugimendu pedagogiko garrantzitsu bat loratu zen Luis Astigarraga, Agustin Pascual Iturriaga eta Juan Maria Egurenen eskutik. Mugimendu haren helburua zen, legeari jarraituz, gaztelaniaren irakaskuntza ezartzea, baina testuinguru elebidun batean eta indarkeriazko irakasbiderik gabe. Izan ere, eskola zen hizkuntza borrokarako eszenatoki nagusia. Batez ere, eskolaren bidez lortu nahi zen euskarazko elebakartasunetik elebitasunera igarotzea, eta gero, ahal izanez gero, hortik gaztelaniazko elebakartasunera jauzi egitea.

Euskara, herritarrak liberalismotik babesteko tresna gisa defendatzea, jesuitengandik karlistengana igaro zen XIX. mendean. Horrela, pixkanaka sendotuz joan zen foru-sistemaren eta euskararen biziraupenaren arteko loturaren ideia; hau da, bi elementu identitario eta bereizgarri uztartzen zituen: bertako hizkuntza eta sistema juridiko-administratibo propioa. Baina, bestalde, euskara balio erlijioso tradizionalekin ere lotzen da (euskaldun = fededun), liberalismoaren izpiritu sekularizatzaileari aurre eginez. Gobernu karlistek, bereziki Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek, lehen hezkuntza euskaraz ematea sustatu zuten eta, oro har, jarrera proaktiboa erakutsi zuten gaiarekiko. Zentzu horretan, interesgarria iruditu zaigu karlismoaren baitan garrantzi eta eragin handia izan zuen sektore batek, kleroak, hizkuntzaren biziraupenean izan zuen eragina aztertzea. Polizia karlistaren beraren txostenen arabera, Bizkaiko eta Gipuzkoako kleroaren % 80 inguru karlista zen, baina Bergaran (txosten horrek liberalizat jotzen zuen herrian) proportzio hori % 65era jaisten zen; hori bai, elizgizon karlisten proportzioa handiagoa zen Santa Marina parrokan (eremu landatarrena eta euskaldunena) San Pedron baino (eremu hiritarra goa eta erdaldunagoa).

Bergarako intelektualek euskararen aurrean izandako jarrerari dagokionez, hiru lagunen kasuak aztertu ditugu. Lehenik eta behin, Santa Marinako apaiza, Rafael Garitano-Aldaeta jauna, nabarmendu behar da, hainbat aldiz aipatutakoa. Garitanok argi erakutsi zuen bere euskaltzaletasuna, garai hartarako ohiz kanpoko zen euskal liburuen bilduma osatuaz; baina, batez ere, hezkuntzaren arloan Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearekin izan zuen liskarra da aipagarriena. Eztabaidagaia honakoa zen: ea zein hizkuntzatan eman behar zen Lehen mailako hezkuntza Euskal Herrian. Adiskideen Elkartek, Peñafloida buru zuela, irakaskuntza hori hizkuntza “nazionalen”, hau da, espainolez egin behar zela aldarrikatzen zuen; eta Garitanok, berriz, irmo defendatu zuen euskaraz izan behar zela. Kasu honek modu adierazgarrian erakusten du XVIII. mendeko erdialdeko hizkuntza-ideologietan zegoen polarizazioa: ilustratuek eta proto-liberalek estatu-hizkuntza ofizial eta landuen alde egiten zuten, eta kleroari lotutako sektoreek, berriz, herri-hizkuntzen sustapena defendatzen zuten, baina batez ere, ahozko erabileran.

Oso bestelako jarrera zuen Jose Hipolito Ozaeta Moiuak, apologista klasikoa, eusko-iberista eta eusko-kantabrista berantiarra zenak, zeinak ika-mika bizia izan baitzuen Enrique Florez eta Manuel Risco agustindarrekin, garaiko gai klasiko baten inguruan: ea Baskonia erromatarren aurrean bere askatasuna defendatu zuen Kantabria zaharreko parte izan zen ala ez. Jakina, apologisten eskema tradizionalari jarraiki, Ozaetak defendatu zuen euskara Tubal patriarkaren eskutik iritsi zela, jatorrizko hizkuntza zela eta Babelgo hizkuntzen nahasketatik sortua zela.

Azkenik, euskarari buruzko azterketetan gehien inplikatu zena, Joaquin Irizar Moia jauna izan zen. Militar erretiratua zen, eta Lehen Karlistaldian Frantziara erbesteratzea erabaki zuen. Parisen euskararen katedra bat lortu zuen, eta hainbat urtez jardun zuen euskarari buruz ikertzen eta idazten. Euskarari buruzko bere argitalpenak frantsesez idatzi zituen. Euskararen aurrean zuen jarrerak ondo bereizitako bi zati ditu. Batetik, uste zuen euskara izan zitekeela Paradisuan hitz egiten zen hizkuntza, eta, jakina, perfekzio guztiez hornitua zegoela. Hala ere, Irizarrentzat garrantzitsua zen hizkuntza hori bizirik mantentzeak berak frogatzen zituela Genesi liburuko eta, oro har, erlijio katoliko osoko egiak. Irizarrentzat, —katoliko ultramontanoa izanik—, euskara tresna bat besterik ez zen: erlijioa botere laikoaren gainetik zegoela frogatzeko baliabide bat. Bestalde, Irizarrek azterketa soziolinguistiko interesgarria egin zuen euskarak bere garaian zuen egoerari buruz (bere lana 1841 eta 1846 artean argitaratu zen). Hizkuntza, batez ere Araban eta Nafarroan, jasaten ari zen hondamena egiaztatu zuen, eta asmatu ez zuen arren, XIX. mendea amaitu baino lehen desagertuko zela iragarri zuen. Horregatik, proposatu zuen hori gertatu aurretik euskararen inguruko ikerketa zientifiko bat egitea, hizkuntza nolakoa izan zen museoko lekukotasun gisa jasota uzteko.

Hala ere, euskarak bizirik iraun zuen —Bergaran eta Euskal Herrian—, bere hiztunen ahaleginari esker. Izan ere, hiztun horiek euskara belaunaldiz belaunaldi transmititu zuten eta kanpoko erasoetatik eta barneko baldintza negatibo guztietatik babesten jakin zuten; batez ere, ikerketa honen amaiera-datatik, 1876tik, aurrera. Dena bere kontra izan arren, euskarak eutsi egin zion, nahiz eta unean uneko egoera politikoaren ondorioz gorabeherak izan zituen. Euskaldun elebakarrak desagertu egin ziren, baina haien lekua gaztelania/euskara edo frantsesa/euskara zekizkiten elebidun aktiboek hartu zuten. Horrenbestez, gure buruari galdetu behar genioke nola lortu zuen euskarak bizirik irautea, izan zituen baldintzekin: ofizialtasunetik erabat baztertua, normatibizatu gabea eta dialektalizazio-prozesu bizian murgildua,

ahozkotasunera murriztua eta lanketa-literario eta ezagutza-zientifiko guztietatik ia erabat baztertua. Badirudi hori euskarak bere hiztunen artean izan zuen barne-ospe handiagatik gertatu zela, kanpo prestigio txikiarik ere ez zuelako. Izan ere, foru-erregimenetik eratorritako baldintza sozioekonomiko eta politikoak mantendu ziren bitartean, euskararen sistema soziolinguistikoa nolabaiteko orekan egon zen. Euskarak ez zuen inongo ofizialtasunik, ez administrazioan eta ez hezkuntzan. Are gehiago, hezkuntzak bigarren hizkuntza bat —gaztelania— ikasteko balio zuen. Era berean, ia ez zuen izan literatura- edo zientzia-arloetako produkziarik, baina horrek ez zuen eragotzi ahozko komunikazio-tresna eraginkor gisa mantentzea: familia- eta auzo-giroan egokiro funtzionatzen zuen, eta baliagarria zen lan munduko hainbat sektoretan ere: batez ere nekazaritzan eta abeltzaintzan, baina baita artisautzan, errotaritzan eta burdinoletan ere. Lan horietan ziharduten herritar gehienek euskaldun elebakar izaten jarraitu ahal izan zuten, eta hizkuntza hurrengo belaunaldiei naturaltasunez transmititu zieten. Baina ez hori bakarrik: agirietan jasota dago herritar xume euskaldunak oso harro zeudela beren hizkuntzaz eta, hain zuzen ere, horregatik ez ziotela uko egin. Horrenbestez, transmititzen jarraitu zuten, nahiz eta maiz beste hizkuntza batzuk ere ikasi behar izan zituzten, hala eskatzen zuten lanbide edo lurraldeetan lan egin ahal izateko.

Kanpo-baldintzak 1839tik aurrera hasi ziren aldatzen, eta gero, 1876aren ondoren, errotik aldatu ziren: industrializazio-prozesu azkarra; lehen sektorearen etengabeko murrizketa; migrazio-fluxu handiak —bai emigrazioa, batez ere, Ameriketara; eta bai inmigrazioa, batez ere, Gaztelatik etorria—; biztanleak hiriguneetan kontzentratzeko joera indartzea; nahitaezko soldadutza; zentralizaziorako eta homogenizaziorako joera politikoa; joan-etorrietarako erraztasun handiagoa, lurrun-ontziek, trenbideek eta kotxeek eraginda; foru-sistemaren galera; eta abar. Baldintzen aldaketa erradikal horren eraginez, euskal hizkuntzaren ezagutzak eta erabilerak ere neurri bereko aldaketa izan zuten. Beraz, handik aurrera, euskararen historia sozialari dagokionez, beste garai bati eman zitzaion hasiera.

VII. Eranskinak

VII.1 - Eranskina

Santiago Urzelai Laskurain. Kontserbatutako eskuizkribuak

Plática sobre la dignidad del cristiano; Plática sobre la obligación de saber la doctrina; Plática sobre la 1ª parte de la doctrina cristiana, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/72371>.

Cristauaren dignidade ta gurutze santuaren ganian, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68896>.

Astarloa sobre el examen: plática 17, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68897>.

Cristauaren doctrinaren esplicacioa Mazo (AÑO 1874), BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68902>.

Del tomo 1º de las pláticas dominicales del P. Claret desde la Dom. XVI hasta XXIV inclusive, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68912>.

Pláticas sobre la Ascensión del Sr. Pentecostés. Corpus Christi, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68888>.

Dom. Quinquagesima sobre la oración. Dom. V post Pascha sobre la necesidad de la oración BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68879>.

Dominica infraoctava Nativitatis Domini Nostri Jesucristi, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68880>.

Sermón de la Ascensión del Señor, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68887>.

Dom. II post Pent. infraoct. Corporis Christi, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68917>.

Corpus Christi edo festa berri eguneraco, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68864>.

[*Sermones para algunas dominicas del año*], BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68915>.

Dom. III post Pascha conformidad en las aflicciones, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68916>.

[*Abenduako domeken sermoiak*], BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/72368>.

Pláticas en vascuence traducidas del Alivio de párrocos, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68871>.

Dom. IX post Pent. (Al de P.), del tiempo. 2ª Dom. IX post Pent. sobre la fealdad del pecado, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68869>.

Dom. XXI post Pent. sobre el deber de amar a los enemigos. Dom. XXII De animas, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68873>.

Aliv. de pár.: Dom. IV post Pasch., de peccato mort., BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68868>.

[*Sermones para las dominicas post Pentecostés*], BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68870>.

[*Sermones para las dominicas post Pentecostés*], BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68872>.

Sermón de los santos mártires Abdón y Senén (año 1879), BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68901>.

Sermón de ánimas predicado en S. Pedro de Verg[ar]a 15 de noviembre de 1874, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68906>.

Animas (azalean dio: “En San Pedro”), BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68905>.

Animas (año 1874; azalean: “San Pedro C.”), BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68908>.

De animas, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68904>.

[*Hamar aginduak*], BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68903>.

Sobre no diferir la penitencia (año 1860), BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/72364>.

Dom. XXIV post Pentec. y las Dom. de Adviento, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/72366>.

Alivio de párrocos: pláticas, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68867>.

Dom. IV post Pentecost., BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68863>.

Dom. XIII post Pentec. sobre los efectos del sacramento de la penitencia, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68874>.

[*Sermones para las dominicas post Pascua, Pentecostés, Corpus Christi y post Pentecostés*], BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68875>.

Dom. 5 post Pascha [sic] sobre la oración, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68876>.

Dom. XIII post Pent. Ite ostendite vos sacerdotibus, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68877>.

Dom. IV post Epiphan sobre la divinidad de la religión crist[ian]a. Dom. II Quadrag. sobre la salvación. Dom. IV Epiphania sobre la salvación, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68885>.

Dom. IV post Epiphaniam sobre las tentaciones, sobre la Bula de la Cruzada, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68884>.

Para el mes de mayo Pentecostés, sobre no diferir la conversión. Sobre la educación de los hijos, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68883>.

Dom. IV post Pascha sobre el pecado mortal, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68878>.

Dom. infraoct. de la Natividad sobre el beneficio de la redención, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68882>.

Dom. XXIII pos Pent. sobre la muerte del justo, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68881>.

Dom. II Advent. sobre el desamparo de Dios, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68886>.

Dom. 13 post Pent. Ite, ostendite vos sacerdotibus, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68893>.

Sermón de la Ascensión del Señor (1975eko maiatzaren 6a), BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68889>.

Pláticas sobre las 5 condiciones de la confesión, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68892>.

De animas (1855eko azaroaren 5a), BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68890>.

De anima, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68891>.

Sermón de los stos. mártires San Abdón y S. Senén (1879), BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68899>.

Sermón de los santos mártires S. Abdón y S. Senén (1879), BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68900>.

Dominicas de Cuaresma, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68895>.

[*Plática*] *sobre el escándalo*, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68898>.

[*Sermones para algunas dominicas del año*], BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68913>.

Dom. III post Epiphaniam sobre la confesión, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68914>.

VIII.en mandamentuaren esplicacioa (1852ko azaroaren 25a), BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68910>.

[*Sermones para las dominicas post Pentecostés*], BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68911>.

Dominicas de Adviento, BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68909>.

Animas (1875eko azaroaren 15a), BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA. Lau Haizeetara. Liburutegi digitala, <http://hdl.handle.net/20.500.11938/68907>.

VII.2 - Eranskina

Santiago Urcelai, *Sobre la educación de los hijos* [Semealaben hezkuntzari buruz]

Educáte filios vestros in disciplina, eta correctione Dómini

- 1- Andiac dira N. munduan arquitzen diran gaitzac, eta gucituaz dijoa egunetic egunera guizonen malizia, gasteen gaiztaqueria eta emacumeen modestiaren falta, eta gaitz oiec guztia datoz gazteai bear dan aciera ematen etzatelaco esaten dute guizon jaquintzu eta Jaunaren beldurrecoac, aditzera emanaz gaitz oiec erremediatzeco guztioac aleguiña eguin bear degula. Eta guc Elizaco Ministroac ¿zer eguin dezaquegu aciera onaren faltac familia, erri, provincia eta Erreñuetara dacasen calteac erremediatzeco? Ez beste gauzaric, beren viotzeko penaric andienaquin aciera gaistoaren contra deadar eguitea baño, onela gogoratuaz gurasoei beren descuido eta arduragabetasunetic datocela beren seme eta alaben ibillera gaistoac, echetaco escandaloac eta azquen tristeak. Bai entzuten zauden gurasoa, zu cera zure umeentzat lenengo Autoridadea, eta Jaungoicoac bere ordeko ipiñi zaituana. Escra. Sagraduac dion becela, zuec cerate gaurco eguneco gazteen lazaitazun eta vicitza gaiztoaren erremedio bacarra, eta zuec bacarric erremediatu ditzaquezue munduan icusten diran gaistaqueriac. Bai familiaco gurasoac, “Educáte filios vestros in disciplina, eta correctione Dómini”. Aci itzatzue seme alabac Jaungoicoaren bildur santuan cristau eguiazcoac becela, eta icusico dezue zuen seme alaben zoriona; baño ¿Cer diot N?. Ez bacarric oien zoriona; baita ere erri, provincia, erreñu eta mundu guztico dicha, cergatic urte guchi barru zuen semeac ocupatuco dituen erri, provincia eta erreñuco empleo andi guztia, eta oien aciera onaquin ez bacarric erremediatuco dituzue munduan icusten diran gaistaqueriac eta izango cerate dichosoac munduan bertan, baita irichico dezue oien eta zuen salvacioa, cergatic chit nequez galdu oi dira gurasoac asiera ona ematen dien umeac. eta orra gaurco itz laburren gucia.
- 2- Zorionecoac bada Jaungoicoaren beldur santua duten gurasoen artean jaio eta bere dotriña santuan acitzen diran seme alabac eta familia, cergatic onelacoac chiquitan entzuten dituen Jaungoicozco itzac gogoan artzen ditue eta beguiac zabaldu baño len arquitzen dira virtutezco egemplo ederren sustraitic zortzen diran graciaren do[a]iequin guertatuac, eta izquetan acitzen diranean esaten dituen lenengo itzac izaten dira Jaungoicoaren eta bere Ama Santisimaren icen gozoac eta oracioac. Beguiratu eguiozue onelaco aur bati Jaungoicoaren beldurreco bere Ama baten besoetan, eta icusico dezue ascotan nola bere na[e]gar malcoac, lastanduaz esaten dion: ez negarric eguin nere semea, pecatuagatik bacarric negar eguin bear da, zu oraiñdic pecatu gabea bacera ere. Beste batzuetan bere magalean daucala bere bularren contra estutuaz esaten dio: nere semechoa, Jaungo[ico]a da zure Aita eguiazcoa, beragandic etorri ceráte eta beragana viurtu bear dezute, eta ala erregutzen dizuet; etzaitezela apartatu beñere bere legue santutic, eta alase irichico dezue Ceruco Gloria “Petonate, ut habeas vitam aeternam serves mandata Dei”

- 3- Baino onelaco gurasoac beren umeequin noiz asitzen duten conturic andiena da, uso arrazoizcora edo ezagüerara eltzen diranean, ezaguturic arquitzen dirala bautismo santuco gracia galtzeco, pecaturaco ocasio eta peligruz ingurutaric, eracusten eta aditzera ematen diela gure Jaungoicoaren anditasuna eta jaquinduria, esanaz. Lecu guztian dagoala eta icusten dituala gure viotzeko pensamentu eta deseo on eta gaisto, danic escutatuenak; eta ala neurrigabe justua dan becela emango diela onai betiko cerua eta baita ere castigatuco duala gure esquergabetasuna betico Ynfernuan. Onela eracusten die, eta instruitzen ditue echeco erretiroan beren umeak Erlijio santuco doctrinan: sinisteco aditzera ematen diela fedeco misterioac, Credoan dauden becela. Anima eta gorputzeraco bear dituen gauzac Aita zerucoari escatzeco oracioak Aita gurea, Ave M^a eta salvea eracutiaz: cer eguin bear duten jaquiteco Jaungoicoaren legueco Amar mandamentuac eta Elizaco bostac eta cer errecibitu edo artu bear duten jaquiteco Eliza Ama Sren Sacramentuac eracutiaz, eta esanaz oiec nolaco guertaera eta disposicioquin errecibitu edo artu bear diran eta Jaunaren legue santua gordeaz nola izango diran betico zorionecoac Zeruan eta gordetzen ezpaditue betico dedichaduac Ynfernuan. Jaungoicoaren beldurreco gurasoac berequin eramaten ditue elizara bere umeac, eta Erligio santuco eguiac eracusteco eta aditzeco esaten die: orra nere umechoak Aldare santu orretan edo mai santu orren gaiñean isurten da egunero munduco guizon guztiaac erosteco eta redimitzeco Calvario co mendian gurutze batean Jesus arcume inocenteac isuri zuan odola bera: or berrizatzen da bere Pasio eta Eriotza edo gure pecatuegatik Calvario co mendian ofrecitu zuan sacrificio ura bera ceña dan Mesaco sacrificioa. Ondoren eramaten ditu ponda santuaren aurrera eta esaten die: Orra nere umechoac emenche artu cenduen fede Santua eta barcatu citzatzuen gucioc jatorriz Adanengandic dacargun pecatu originala, emenche eguin ziñan cristau, ez bacarric guc nai guendualaco, baicican Jaungoicoaren graciaz, sartu ciñan Eliza Ama santaren congregacio edo familian eta eguin cinan Jaungoicoaren seme eta Ceruco heredero. !Oh nire umechoac, naiago izan bear dezue munduco ondasun guztiaac galtzea, baita bear bada vizia ere, Jesucristoc orduan eman cizuen gracia baño, cergatik zuen Aita pondacoen aotic emenche prometitu ciñion Jesucristori mundua, bere pompa eta vanidadeac eta Demonioa despreciatu eta gorrotatuaz, eta bere legue santua leialtasunaz gordetzen zenduela, izango cinatela, Jesucristoren guizonac edo discipuluac, eta promesa onen testiguak dira ponda santu orretan eta Aldareco Sacramentu santuaren inguruan dauden ecin conta ala angueru.
- 4- Ondoren esaten die: nere umechoac beguira zazute sepultura oietara, eta acorda zaiteztez or daudela gure guraso eta asaben gorputz deseguiñac eta autz viurtuac, eta dempora guchi barrugu ere juango guerala oiec dauden lecura, eta zuec ere, lenago pecatari ezpacinate gure ondoren etorrico ceratela. Maitatu itzatzue bada virtuteac, entzun bere lecioac eta jarraitu bere bideac: gauza guztiaac acabatzen dira mundu onetan baño ez obra onac eta virtutezcoac, beti iraungo dute eta eztira gueldituco zari gabe.¡Oh eta cein itzatziaac gueldituco eztira umeen viotzetan onelaco ejemploac eta esanac! Beñere etzitzaion astu S. Luis Franciaco Erregueari, bere Ama Erregiña Blancac cuna edo ciazean cegoala esaten cion itz oiec: nere semea Jaungoicoac daqui bacarric cembat maite zaitudan, eta alaz guztiaz naiago nuque pecatu mortal batequin zure anima ciquintzea baño, nere beguiequin ilda icustea, eta eldu zan guero ezagutzero nolaco beldurra eta gorrotoa izan bear cion pecatuari. Eztago dudaric, eracusten baldin badiozue gurasoac zuen

humeai chiquitatic pecatuaren icenari beldurrez beguiratzen eta gorrotatzen eta virtutezco obra onai eguiteco deseo eta gogo onarequin beguiratzen, gorrotoa eta beldur andia artuco diote pecatuari eta izango dira obra oneraco inclinatuac, eta ez dute jaquingo Jaungoicozco itzac, erlijio santuco gauzac esaten eta beren obligacioac cumplitzen baño, chiquitatic bere gurasoei entzun eta icasi dutelaco.

- 5- Baño ezango dirazute: !Ahi Jauna, eguia da umetan erraz sucentzen eta erabilten dirala umeac Jaungoicoaren bildurrian; baño guero urteetan aurrerratuaz munduco peligrü eta ocasioetan sartzen diranean ez da erraz. !Ahi gurasoak! Bada zebec ezagutzen baldin badezue aleguin guztia eguinagatic, cein gaitza eta nequeza izango dan guero munduco peligroen artean zuen umeai emandaco aciera eta doctriña conservatzea eta virtutean aurreratzia ¿cer izango da chiquitan batere aleguiñic eta casoric eguiten ez dioten gurasoen umiequin? Eta chiquitan ondo acitzen aleguiña eguin eta contu eguinda ere den nequeza eta zailla baldin bada gastetan garbitasuna eta honestidadea gordetzen, ¿Cer espera dezaque bear dan aciera eta Jaungoicoiaren beldurra emateco arduraric ez duten gurasoac? Ez besteric ezpada beren zartzaroan beren laguntasun eta amparua izan bear luquean umeac, beren ajolagabetasunaren castiguan beren verduguak izatea. Guertatu diteque umeac ondo aci eta alegiña eguinda ere munduco peligroequin pecatuan jausi eta oquertzia demborale batean; baño beren biotzean erindaco Jaungoicoaren beldurraren acijac ereitzen danian demporaz emango du frutua, eta beren esquergabetasun ichusia ezagutu eraguiten diela, ecarrico ditu erremedioaren billa, estadu negargarri artatic irtetzeco beren pecatuen damutasunarequin confesio on bat eguitera.
- 6- Consolatu zaite bada zure seme alabei bear becelaco aciera ona ematen aleguin guztia eguiten dezun gurasoa, eta noiz baiten icuscusten [icusten] badituzu ere zuc eracutzitaco bide sucenetic eztabiltzala, etzaite desanimatu beingoan, ezpada erregutu eguiozu Jaungoicoari eta zuc zure semealaben viotzez erindaco virtutezco acisac eman dezan bere frutua, eta berac gaiztaqueriaco bidea usteco arguia eta ezagüera emanaz eta bere pasio gaistoei indarra quenduaz gaitz edo enfermedad, eriotza der[r]epenteco, sermoi, liburu on baten iracorte edo adisquide on baten esan edo conseju onen baten medioz viurtu eta ecarrico du Ceruco bidera galdutzat contatzen cenduan seme edo alaba ori. Consolatu zaite bada Jaungoicoaren beldurra daucazun gurasoa; baño zure seme edo alaba Jaungoicoagana viurtu arterano eta guero aldara santu orren aurrian auspasturic Virgiña santisima bitarteco ipinten diozula etzaite aspertu negarrez zure semien conversioa Jaunari escatzen, eta icusico dezu bere umeen conversioa negarrez escatzen dion gurasoari entzun gabe eztala gueldituco Ceruko Aita erruquitza, eta berac berac ecarrico ditu bide sucenera, ez mereci dutelaco, ezpada bere beldur santua dauquen gurasoen erregu eta negarregatic, Santa Monicari bere seme S.Agustiñequin guertatu citzaion becela. Estadu triste eta negargarrian arkitzen zan S. Agustin, alaco moduan murguilduaz zijuan egunetic egunera bere vicioetan nun bere viotza galduaz gañera, galdu zuan azquenic bere fedea, eta esan citequean cein esperantzaric iduqui citequeala onelaco seme bat Jaungoicoagana ecarteco; baño !Oh cembat aldizaquean guraso on baten negar eta erreguac! Bada ez bata eta ez bestea utzi cituan Sta Monicac bere semearen conversioraco, eta ala triste eta negarrez daudenen consueloa eta argan espera dutenen ontasuna dan Jaungoicoac entzun cituan Sta Monicaren negar eta

oracioac uquitu cion onen seme S. Agustini bere viotzean, arquite cion bere entendimentua eta ezaguturic bere vicitza gaistoa, convertitu edo viurtu zan pecatari andi batetic penitente andi bat izatera; eta lenago erligioaren echai andi eta beldurgarria zana, ecarri zuan Erligioaren defensore eta eracusle jaquintzua izatera. Orra N. cein nequez galduco diran bear becelaco aciera izan duten semeac.

- 7- Eta au onela izanic arquiteuco ote da gurasoric bere umeai aciera ona, ematen sayatuco ez danic? Ez N. uste det eguingo dezuela aleguiña zuen umeen viotzetan virtutezco aci ona eriten, onela edadean aurreratzen diranean izan ditecen cristau eguiatzcoac, onetaraco chiquitan oitzen dituzuela Virgiña Santisimaganaco devocioan, garbitasunean conservatuaz castoac izan ditecen. !oh, eta nolaco dicha eta zoriona irichico ez dute Virgiña Santisimaren devotoac! Berac esaten digu: Ni honratzen nabenac irichico dute betico zoriona. Devocio guztien artean ez da chiquiena mayatzeco ill onetan eguiten dioguna, cergatic urtean dan illic ederrena ofrecitzen diogun gure Ama maiteari, eta ala nai du aurrera ere iduqui dacozen devocio eguiatzcoa egunero zuen familian Errosario santua errezatzen diozuela eta bere icenian illen lenengo domequetan confesatu eta comulgatzen ceratela. Bada onetaraco ipiñita dago Errosario santuco Cofradia indulgencia ugariz betea eta Santo Domingoren Errosarioco liburuac dionez: Errosarioco cofradian sartuta daudenac illen lenengo Domequetan confesatu eta comulgatuaz; errosarioa errezatuaz, Errosarioco Altara visitatuaz, Mesa nagusira eta ondorengo procesiora asistituaz irabasten dira guchienaz bost indulgencia plenaria eta beste indulgencia parcial asco, eta oro bat Virgiña Santisimaren egunetan diligencia oiec berac eguiñaz, eta oien artean badira egun batzuec Errosarioco altaran cembat aldiz estacioa edo visita eguiten dan ambeste Yndulgencia plenaria irabasten diranac, eta aín erraz gure pecatuen zorra pagatu daiquegula, eta Purgatorioco animegatic aplicatuaz atera daizquegula, utzico ditugu anima triste aiec socorritu gabe? Ez N., izan gaitecen Ama Sren devoto eguiatzcoac Purgatorioco animac socorrituaz eta devozio onagatic emango digu Virgiña Smac. beste gracia ugariequin batera, consueloric andiena, au da, gure obra onen bidez atera ditugun anima guztien eta cein conta al Añgueruren compañian eriotzaco orduan eguingo digun visita, iristen digula Jaungoicoagandic bear degun gracia eta laguntza. Argatic bada munduco gaitz guztien erremedioa eta eriotza on bat iristeco erregutzen dizuet guztioi, batez ere familiaco buru eta gurasoei eguin dezazuela aleguin guztia zuen familia Jaungoicoaren beldur santuan eta Ama Sren. devocioan acitzen.
- 8- Bai Virgiña Sma. erabaqui degu zu onela honratzea, eta zugana gatoz humiltasun guztiaz. Eliza Ama santarequin esanaz: Jaungoicoac salba zaitzala erregiña, misericordiaren Ama: Salve Regina, Mater misericordiae. Eta gure ona baicic deseo ez dezun ezquero ¿Nolako esperantzarequin irichico ez guera zugana? !Oh Virgiña M.^a! Pecatuz beteric, lotzaz arquitezen guera; baño zu honratzeco artu degun asmo benetacoac animatzen gaitu zugana iristera, icusiric cerala gure vizitza, gozotasuna eta esperanza, Vita, dulcedo et spes nostra, Salve. Jaungoicoac salva zaitzala. Evaren umeac gueran becela pecatuaren ondoren saminaz beteric desterratuta arquitezen guera negarrezco valle onetan; baño zu izanic ez bacarric Jaungoicoaren Ama ezpada baita pecatariena ere, gure nequeac arintzeco escua dezun ezquero, sentimentuz eta negarrez beteric zuri diez gaude Evaren hume desterratuac. Ad te clamamus Avoc.^a. Eta norgana joan guindezque

